E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca
Travaux et actes de L'Academie de la langue Basque

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRA

Euskera XXIV (2. aldia)
1978-2
BILBO

E U S K E R A

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Euskaltzaindiaren lan eta egintzak
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca
Travaux et actes de L'Academie de la langue Basque

30 SET. 1979

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRA

Euskera XXIV (2. aldia)
1978-2
BILBO

Bergarako mintegia

Koldo Eleizalde (1878-1978)


Hizkuntz batzordea
Buru: L. Mitxelena
L. Akesolo
J. Haritschelhar
P. Iraizoz
A. Irigaray
A. Irigoyen
L. M. Mujika
X. Kintana
P. Lafitte
J. A. Loidi
J. Oregi
I. Sarasola
M. Zarate
Idazkari: J. A. Letamendia
Soziologi eta estadistika batzordea
Antolakizun batzordea
Buru: San Martin
X. Mendiguren
J. M. Torrealday
M. Ugalde
Idazkari: J. Intxausti
Buru: J. M. Satrustegi
J. Lasa
I. Laspiur
G. Elortza
J. M. Elexpuru
S. Agirre
F. Etxeberria
J. M. Larrazabal
Idazkari: J. L. Lizundia
Batzorde Orokor eta Koordinatzailea
Buru: L. Villasante
L. Mitxelena
J. A. Letamendia
J. San Martin
J. Intxausti
J. M. Satrustegi
Idazkari: J. L. Lizundia

BERGARA, 1978 - IX - 4

EUSKALTZAINDIKO VIII.
BILTZARRERA ONGI ETORRIA

Bergara 1978-IX-4

Elkoro, J. Luis
Bergarako Alkate Jauna

Euskaltzainburu eta euskaltzain jaunok, Euskal Kontseilu Orokorreko ordezkari Jauna, Euskadiko Diputazio Foraletako Lehendakari jaunok, jaun andreok.

Gaur Bergara goraturik sentitzen da eta nik bere izenean zortzigarren Euskaltzaindiaren Biltzarreari hasiera emateko ohorea dut.

Biltzarre honetan, bi egite nagusi daude, alde batetik akademikoa eta bestetik sorrerako euskaltzain izan den Koldo Elizalderi, Bergaratar sutsuaren jaiotze mendeurrena dela eta omenaldia egitea.

Ba dakigu gure hizkuntzaren baliokizunak zeintzuk eta nolakoak diren, bera izan bait da herriaren berezitasun guztien gordeleku eta defendatzailea.

Zuek, Euskaltzainok, gure hizkuntzaren garrantziaz ohartzen zaretenez, zuen adimena herriaren zerbitzuan jarri duzue, beraren salbagoardia eta indarmena den misio urguri eta zorrotz horretan, nahiz eta arrisku eta zailtasunez zamaturik egon, hainbeste urtetan zehar jasatako bezalakoak, sendotasun, erabaki, duintasun eta eraginkortasunari esker, Euskaltzaindia ilunzalekeriatik, akats eta iragazterik gabe erailkitzen jakin izan duzue, erakunde gutxik lortuko zuen bezala. Herriaren eskertzeari buruz, hor daude "BAI EUSKARARI" kanpainaren ondorioak eta atzoko amaiera Opakuako zelaietan.

Une hontan Euskararen etorkizunarentzat garrantzitsuak izango diren topaketei hasiera ematen diegu, bertan hizkuntzalaritzaren arazotasuna aztertu, eztabaidatu eta

bideak seinalatzea dagokizue, hain berezi eta itxarogarriak diren zirkunstantzietan.

Gure babes eta laguntza duzue, zuen kemenak ezagutzen ditugu eta ondorioetaz fidatzen gara. Zihur gaude zortzigarren biltzarre hontatik gure hizkuntza oso indartuta irtengo dela.

Baita Koldo Elizalderen jaiotzaren mendeurrena ospatzen dugu, eta bera goratzeko biltzarre hontaz baliatzean trebetasuna izan duzue antolatzaileok. Sorrerako euskaltzain bat izana, bere euskararendako zaletasuna ezagutzen dugu, berari biziki lotu bait zen, bultzatzaile haundi bat izanez.

Baina ni ez naiz bere izaeraz azalpena egiteko nor. Pertsona nabarmenagoak mintzatuko dira egite hauetan zehar.

Bakarrik, gertaldi bezala, Azkue jaunarekin bere hiztegia zela eta eztabaida lagunkoien komentario bat. Bergarako euskalkia kontutan ez hartzeagatik kritikatzen zuen. Adibidez beste euskalkietan "bazkaldu gabe edo afaldu gabe" edo "bazkaldu barik edo afaldu barik" esaten den artean, Bergaran bazkaltzeke edo afaltzeke esaten da.

Gure Udaletxearen erabakiz aste hontatik aurrera Koldo Elizalde, bergarar sutsua bergogoratuz, Bergarako kale batek bere izena eramango du.

Ez dut nire hizketaldi motz hau bukatzerik nahi, gaurko historiaren Bergara Kulturalari aipamen bat egin gabe, eta Real Sociedad Vascongada de Amigos del País eta berea den Bergarako Real Seminario Patriotikoari konkretuagoki.

Real Sociedad de Amigos del Paisek ez zuen kasualitatez ez eta plangintza bateri esker sortu ikastetxe hau. Bergarak, beste herrien artean bere kulturaz nabarmentzen zen, eta inguru nahikoa eskeintzen zuen Francisco Javier de Munibe e Idiaquez "Conde de Peñaflorida" jaunaren helburuak betetzeko, "Real Sociedad Vascongada de Amigos del País"en eratuak eta bere estatutuetan adieraziak, honela diote: "Zientzi, Bellas Artes, eta Letretarako Euskal herriaren zaletasuna eta gogoa landu eta ohiturak zuzendu eta leundu".

Ikastetxe honek oso azkar ohigabeko ospea, baina iragankorra, lortu zuen. Behin eta berriz kanpoko eta erdirakoi indar eta arrazoiak arduratuko ziren errealitate itxarogarri hau itzaltzen.

Frantsez erasoaldiaren ia berrehun urteek, karlistadek, Espainiako borrokak eta Frankista garaiak, hil ez den ikastetxe honen birsortzea galerazi zuten, hor daude UNED-eko bi mila ikaslek, baina honek, kulturaren zerbitzuan dagoen Bergarako historiko bokazioari bere etorkizuna eskatzen eta bilatzen diharduten ormen oihuari ez dio erantzuten.

Inguratzen gaituen historiko-kultural zama honek, zuek gonbidatzera ausartzen nau, aintzina hain ederki irakatsi zituzten goi-mailako ikasketak bailarako ikastetxe haien (Oñati, Bergara) berregintzari buruz ohartzera.

Bergarako herriaren eskerrak eman nahi dizkizuet, eta bere laguntza eskaintzeko gogoz bere zerbitzuak zuen eskuetan jartzen ditut.

Sr. Presidente y Académicos de Euskaltzaindia, Sr. Delegado del C. G.V., Sres. Presidentes de Diputaciones Forales de Euzkadi, Sras., Sres.

Hoy Bergara se siente distinguida y a mí en su representación me cabe el honor de dar comienzo a este VIII Congreso de Euskaltzaindia en su doble faceta de académico y homenajeante en el centenario de su nacimiento del que fuera uno de sus cofundadores, el Iltre. bergarés D. Koldo de Eleizalde.

Sabemos de los importantes valores que encierra nuestra lengua y que ha sido decisiva para la supervivencia de nuestro pueblo, recogiendo y conservando en su seno nuestras costumbres y peculiaridades y siendo el bastión que nos ha protegido de las asechanzas que permanentemente hemos sido víctimas.

Vosotros, los académicos que percibís bien la trascendencia de nuestra lengua, habéis puesto vuestra intelectualidad al servicio del país en misión tan delicada y exigente como es su salvaguardia y potenciación y aún estando cargados de riesgos y dificultades como los soportados durante tantos años, gracias a la firmeza, decisión, dignidad y eficacia habéis sabido aflorar a Euskaltzaindia del oscurantismo, sin tacha y desprovisto de toda infiltración ajena, como muy pocas instituciones lo consiguieran. Del reconocimiento popular a vuestra gestión, ahí están los resultados de la Campaña "Bai Euskarari", y el colofón de ayer en las Campas de Opakua.

Damos comienzo en estos momentos a jornadas de especial relieve para el futuro del Euskara donde os corresponderá analizar, discutir y marcar directrices a la problemática linguística en circunstancias tan peculiares como esperanzadoras.

Tenéis nuestro calor y apoyo, sabemos de vuestras virtudes y confiamos en los resultados. Estamos seguros que desde este VIII Congreso nuestra lengua ha de salir altamente reforzada.

Conmemoramos también el año cien del nacimiento de Koldo Eleizalde y habéis tenido los organizadores el acierto de aprovechar este congreso para homenajearle. Cofundador y miembro de número de Euskaltzaindia, de todos es conocida

su pasión por el Euskara al que se dedicó intensamente siendo un gran impulsor del mismo.

Pero no es a mí a quien corresponde hacer una glosa de su figura. Personas más significadas lo harán a lo largo de estos actos. Solamente como pura anécdota un comentario sobre una de las amigables discusiones que mantuvo con D. Resurrección María Azkue, tratando sobre su diccionario que recogía las variedades dialectales-euskéricas. Le criticaba de no haber tenido en cuenta el subdialecto vergarés. Por ejemplo cuando uno dice que está sin comer o sin cenar, en otras partes dicen "bazkaldu barik edo afaldu barik" o "bazkaldu gabe edo afaldu gabe", pero en Bergara se dice "bazkaltzeke edo afaltzeke".

Por decisión de nuestro Ayuntamiento a partir de esta semana una calle de Bergara llevará el nombre de Koldo Eleizalde, rememorando la figura del ilustre bergarés.

No quiero terminar esta breve intervención sin antes hacer una mención al Bergara Cultural de la Historia contemporánea y más concretamente a la Real Sociedad de Amigos del País y su institución del Real Seminario Patriótico de Bergara.

Ni la casualidad ni la planificación fueron los móviles que indujeron a la R. S. A. P. a crear este Centro. Bergara distinguida entre las demás localidades con su basta cultura ofrecía marco suficiente para dar cabida a aquellas aspiraciones de D. Francisco Javier de Munibe e Idiaquez "Conde de Peñaflorida", plasmadas en la R. S. A. P. y expresas en sus Estatutos donde decía: "Cultivar la inclinación y el gusto de la nación Bascongada hacia las Ciencias Bellas Artes y Letras y corregir y pulir las costumbres".

En trayectoria meteórica alcanzaría este centro un esplendor inusitado, pero efímero. Una vez más fuerzas y razones externas y centralistas se encargarían de apagar esta realidad esperanzadora.

Los casi doscientos años de invasión francesa, guerras carlistas, contienda española y período franquista, impidieron el resurgimiento de este centro que no ha muerto, ahí están los 2.000 alumnos de la UNED, pero que no responde al clamor de estos muros que reclaman su destino fieles a la

vocación histórica de Bergara de pueblo al servicio de la cultura.

Esta carga histórico-cultural que nos rodea me atreve a invitaros a reflexionar sobre la reinstauración de aquellos centros de la comarca (Oñate-Bergara) que antaño y con gran brillantez impartieron enseñanzas superiores.

Para terminar quiero expresar el agradecimiento de todo el pueblo bergarés que deseoso de aportar su colaboración pone sus servicios a vuestra disposición.

EUSKALTZAINDIA ETA EUSKARAREN BATASUNA

Bergara, 1978 - IX - 4

Villasante, Luis

Laburpena

1. Bergarako Biltzar hau zergatik eta zertarako.
2. Hizkera batu baten beharra.
3. Arazo hunen kondaira.
4. Euskaltzaindiak ba ote du zer-ikusirik arazo huntan?
5. Aizkibel-en pasartea.
6. Euskara batuaren langintzan Euskaltzaindiari dagokion partea.

Jaun-Andreak: Agur eta arratsalde on!

Gaur, eta hemen, Bergaran, Eleizalde jaunaren mendeurrena ospatzearekin batean, hasiera ematen diogu Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrari.

Biltzar izen hau hautatu dugu, pixka bat ohiturari jarraikiz, zera adierazteko: Kongresu ageri eta ospetsua, euskal gaiak aztertzeko eta gai hoietaz iritziak entzun eta eztabaidatzeko, Euskaltzaindiak antolatua.

Orai arte, gerra ondoko garaian, horrelako zazpi egin dira. Biltzar hoien berriak eta xehetasunak *Euskera*, Euskaltzaindiaren aldizkarian jasorik daude (1).

Aipa ditzadan Biltzarrok ospatu zireneko urtea eta lekua.

Lehenbizikoa 1956. urtean izan zen, Arantzazun.

Bigarrena 1958.ean Bilbon.

---

(1) Ikus *Euskera* (1956), 165; (1959), 93; (1960), 23; (1962), 271; (1963-1964), 291, 496; (1968), 137.

Hirugarrena 1959.ean Eibarren.

Laugarrena 1961.ean Donostian.

Boskarrena 1963.ean Arantzazun.

Seigarrena 1964.ean Loiolan.

Zazpigarrena 1968.ean Arantzazun.

Beraz, oraikoa VIII.a dugu.

VII. hori —esan dugun bezala— orai dela 10 urte ospatu zen Arantzazun. Beronen gaia guztion gogoan da: euskararen batasuna.

Batasun hori idazkeran Ipar Euskalerri eta Hego Euskalerriaren artean lortzeko, Arantzazuko Biltzar hortan arau gidari batzuk eman edo gomendatu zituen Euskaltzaindiak.

Arau hoiek lur hartzen edo erroak egiten dituzten ala ez jakiteko, esperimendu gisako epe bat eman behar zela —10 urtetako epea— esan zen, gainera, han.

Horregatik, bitarte hortan, Euskaltzaindiak ez du arazo hau ukitu edo ber-ikusi nahi izan.

Hori eskatuaz etorri zaizkion eskabideei beti gauza bera erantzun die: esperimendu gisa epe bat uztea beharrezko zela.

Bitartean zenbat irain, mehatxu eta eraso ez ditugu irentsi behar izan! Gezurra ere badirudi hunelako gauzak era hortaraino bere onetik eta tentutik atera nahi izatea! Baina Euskaltzaindiak bere betebeharrari ez dio uko egin, eta ez du amorerik eman. Jarritako epea bete arte ez zen arau haiek aldatzeko edo bir-ikusteko ordua.

Orai, ordea, epe hori bete da. Eta Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarra iragarri du.

Hobeki esateko, baten lekuan, bi Biltzar egitera doa: bat aurten eta bestea datorren urtean.

Aurtengoa hemen Bergaran, eta heldu den urtekoa Arrasaten.

Zergatik egiten den aurtengoa Bergaran, badakizute. Eleizalde-tar Koldobika jaunaren omenez. Jaun hau izan baitzen euskararen batasunaren auzia Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren Batzarrean ausarki eta ozenki planteatu zuena, eta jaun hau hemen Bergaran orai ehun urte jaioa baita.

Datorren urteko Biltzarra, berriz, Arrasaten izango da Altube-tar Seber jaunaren omenez, haren jaiotzako mendeurrena baita.

Bi Biltzarron gaiak hauk dira: Euskararen batasuna aurtengoarena, eta euskal gramatika datorren urtekoarena.

Euskararen batasuna esan dugu dela aurtengo Biltzarraren gaia. Baina hertsikiago mintzatuz, orai 10 urte eman ziren arauen inguruan izango da dena edo gehiena. Arau hoiek zer harrera izan duten aztertzea, beroiei buruz zer iritzi dauden entzutea, etab. Arantzazuko Biltzarrean ez zen batasunaren auzia alde guztietarik aztertu: Ortografia, Deklinazioa eta Hiztegia aztertu ziren soilki, eta oraikoan ere ez gara alor hortatik aterako. Orduko arauek zer harrera izan duten jakiteko bidezkoa zen Biltzarrean Estadistika eta inkestari toki berezia ematea eta hala egin dugu.

Eleizalde jaunaren itzalpean jarri nahi izan dugu, bada, VIII. Biltzar hau. Batetik, haren mendeurrena delako. Eta bestetik, eta batez ere, orai 60 urte, Oñatin, 1918ko Batzarre ospetsuan, batasunaren auzi hau berak planteatu zuelako; eta batasun hori lortzeko ardura, orduan jaio zen Euskaltzaindiari egotzi zitzaiolako. Eta hala Euskaltzaindia Euskalerriaren aurrean zor hunekin jaio zen. Euskararen batasuna lortzeko zor eta kargu hunekin, alegia. Eta zor hori, gaur artio, kitatu gabe dauka.

* * *

Euskararen batasuna du, bada, gai nagusi eta bakarra Biltzar hunek. Sobra ere badakit gai eztabaidatua dela, sesio eta liskarbide ere bihurtu dela. Baina ezin utzizkoa da, euskararen etorkizunaz kezkaturik gaudenontzat.

Aurrera jo baino lehen hitz bat esan beharra dago izen hunekin —"euskararen batasuna" izenaz, alegia— zer adierazi nahi den azaltzeko. Izan ere, maiz sarri, hitzek eta izenek, beroiekin esan nahi dena argitu baino gehiago, estaldu ohi dute. Hemen ere izen harro hauekin —"euskararen batasuna", "hizkera literarioa", "euskara batua", etab.— beldur naiz ez ote den horrelako zerbait gertatzen. Oker-aditu asko dagoela auzi huni buruz deritzat.

Badirudi, batzuentzat, guk zera bilatzen dugula: halako hizkera apain eta goitar bat, goi mailatako gauzak idatzi behar direnerako.

Eta ez. Askoz ere apalagoa eta arruntagoa da gure zeregina. Hizkera standard eta arrunt bat, akordioz eta konbentzioz bateratua eta berdina bihurtua, batez ere irakaskuntzan eta idatzizko zereginetan erabiltzeko: horra zer nahi dugun. Euskara hizkuntzak, alegia, eduki dezala forma bat bateratua, irakaskuntza eta idatzizko zereginetan batez ere erabilia izateko.

Euskara batua da azken urteotan zabaldu eta gailendu den izena. Zinez, izen hau ez dakit nork asmatua den. Ez eta guztiz egokia den ere. Zabaldu denez gero, ordea, nik ere hala esango dut.

Zer dira, bada, hizkera batuak? Hortaz idatzi nuen liburuxka batean exenplo xume hau jartzen nuen: Badoa eskolara ume andaluz bat. Eta maistrak irakasten dio: Zuk 'zordao' esaten duzun hori, hunela idatzi behar da: 'soldado'. Berak ebakitzen duen moduan idazten ez dio uzten (2). Zergatik? Gaztelaniak baduelako bere hizkera batua eta hizkera batu hortan hitz hori horrela idatzi behar delako. Eta hitz hori bezala beste hainbat eta hainbat daude kasu berean edo antzekoan. Eta ez hitzen idazkeran bakarrik. Hiztegian, hitzen eta aditzen jokoan, joskeran eta hizkuntzaren sail denetan daude horrelako mila lege ikasi beharrekoak eta eskolan ikasten direnak.

Hizkuntza landu guztiek dituzte beren hizkera batuak, bakoitzak berea. Hizkuntza landuek esan dut. Besteek ez, besteek ez dute horrelakorik. Basatien hizkuntzek ez dute hizkera baturik, eta horregatik, hain zuzen, beren basa itxura edo egoera horretan egon ohi dira, gero eta zatikatuagoak, eta hainbestetaraino gertatzen zaie hori, non azkenean hizkuntzaren erabiltzaileek ez baitute elkar ulertzen ere. Behin baino gehiagotan entzun diet gure Mixiolariei Togo edo beste zenbait lekutan gertatzen dena. Hainbeste hizkuntza daudela, alegia, eta erabiltzaile guti dituela hizkuntza bakoitzak. Baina askotan hizkera batuaren faltaz halakatu dira, ez hizkuntzak jatorriz desberdin zirelako.

---

(2) *Hacia la lengua literaria común*, 6 orrialdean.

Aho-hizkuntza bere basa itxura edo egoera hortan denean, hizkera batu baten babesik gabe, zatikatuz, desberdinduz, tokitik tokira aldatuz joan ohi da. Eta bakoitzak bere txokoan esaten den moduan idatzi nahiko baldin balu, nahaspila orduan eta handiagoa gertatuko litzateke. "A cada fonema su grafema" irakurtzen da hor zabaldurik dabilen gutun batean. Hain zuzen, hori da bidea inongo batasunera ez heltzeko. Tokitik tokira hizkuntza mintzatua desberdin izanik, mintzatu bezala idazten baldin baduzu nahaspila gehitu besterik ez duzu egiten.

Horra zer dioen hortaz Eleizaldek:

"No tengamos la pretensión de representar gráficamente todos los sonidos que viven en nuestra lengua, que esto sería confundir lastimosamente la escritura con la fonografía. Atengámonos en estas cuestiones a una prudente 'vía media", teniendo en cuenta que ninguna lengua se escribe como se habla, ni puede escribirse además" (3).

Eta beherago:

"Todo ello es fonéticamente legítimo, y perfectamente absurdo" (4).

Gizarteak, elkarrekiko har-emanetarako, komunikapenerako, tresna batua behar eta nahi du, noraezekoa zaiolako, eta orduan hizkuntzaren hizkera batua moldatzen du. Hizkera batuak zibilizazioaren fruitu dira, bada. Ez dira naturalezaren obra. Gizonen obra dira.

Baina daueneko galdera bat sortzen zaigu hemen hitzetik hortzera: Euskarak ez ote du aspaldidanik bere hizkera batua? Guztiz landua ez bada ere, guztiz arlotea eta basatia ere ez da izan gure hizkuntza.

Eta baietz erantzun beharrean gara. Badu, bai, baina baten ordez lau ditu. Kanpion-en obra baten titulua gogoratu besterik ez dugu: *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, 1884.

Bonaparte Printzeak euskara mintzatuaren barnean zortzi euskalki berezten zituen, eta beste batzuek oraino euskalki gehiagotan sailkatu dute euskara bizia. Euskalki min-

(3) ELEIZALDE, "Metodología para la restauración del euzkera", *I Congreso de Estudios Vascos*, p. 435.

(4) Id. Ibid., p. 436.

tzatuak, beraz, zortzi edo zortzi baino gehiago, baina euskalki literario edo batuak lau bakarrik. Beraz, euskalki mintzatu guztiek ez dute beren hizkera batua. Lau bakarrik daude kasu hortan: Bizkaiera (B), Gipuzkera (G), Lapurdiera (L) eta Zuberoarra (Z).

Egoera hau –hizkuntzaren barnean lau hizkera batu egotea–, neurri handi batean behintzat, gure iraganaren eta Kondaiararen ondorioa da.

Eta batzuk hortaz jabetzen ez direlako, hau ere esan behar da: euskalki batu hoiek konbentzioz berdin bihurtuak direla, eta guti asko, tokian tokiko euskara mintzatutik urrun daudela. Hemendik ikusten da zein ustela den euskara batuaren kontra maiz ateratzen den arrazoia: "Euskara batua –esan ohi da– hizkera artifiziala da; euskalkia, berriz, herriko hizkuntza. Guk herriko hizkuntza nahi dugu, eta ez artifiziala". Baina euskalkiak ere –euskalki literarioak, eskolan irakasten direnak– euskara batu batzuk dira, euskara batua bera bezalaxe! Konbentzioz eta akordioz bateratuak eta berdinduak.

Euskara batuari egozten zaion hoben hori –artifizial izatea, herriko euskaratik urrun egotea–, berdin edo antzera egotz dakioke euskalki batuari ere. Gernikan edo hemen Bergaran, esate baterako, erabiltzen den euskara mintzatua eta bizkaiera literarioa ez dira berdinak, noski, eta hori hala gertatzea normala da, zeren hizkera batu guztiak hizkera bizitik beti gehiago edo gutiago aldenduak egoten baitira.

Dena dela, euskal literatura lau euskalki batutan banatua ageri zaigu. Eta orai euskara batu bakar orokorra moldatu nahian gabiltza. Euskalerri guztirako, euskararen hedadura guztian balio lezakeen euskara moldea nahi dugu. Euskaldun guztien artean, eta euskalki mintzatu eta literarioen gainetik, lokarri izango den euskara moldea.

Baina hemen berriz ere beste galdera, eta galdera larria irteten zaigu bidera: Nolakoak izango dira euskara batuaren eta euskalki literarioen arteko erlazioak? Hau da, segur aski, problema zailenetako eta arriskutsuenetako bat gure auzi huntan. Etorkizunaren berri nehork ere ez daki. Gaurkoz, ordea, hau esan daitekeela dirudi: Euskaltzaindia ez dagoela eta ezin egon daitekeela euskalki literarioak lantzearen aurka. Ortografian, ordea, bai, uste du ortografia bera behar

dela hizkuntza guztian. Hori esan eta, hau ere gaineratu behar da, alegia: Euskaltzaindia, aparteko modu batean euskara batua sortzeko eta bultzatzeko jarria izan zela.

Lau euskalki literarioen gainetik euskara batu hori sortzera garamatzaten arrazoiak zein dira?

Suntsitze kausei buru egin beharra: hau da, noski, arrazoi nagusia, buruzagiena. Euskarak batasun sendo eta trinko baten beharra du gaurko erasoei gogor egiteko. Batasun hori gabe euskarak ez du behar bezalako gaitasunik eskolan mintzabide bezala erabilia izateko, irakatsia eta zabaldua izateko, komunikapen, liburu eta abarretan erabilia izateko. Literatura ederreko zenbait jenerotarako egokiak dira, seguraski, euskalkiak, baina izkribu aseptiko hoietarako euskara standard, orokorra, akordioz Euskalerri guztirako onartua eta denontzat berdin bihurtua behar-beharrezkoa dela ikusten da.

Denak elkar jota ere euskaldunak guti gara, eta oraino lau hizkera modutan bananduak baldin bagabiltza, irakaskintza, editorial eta irakurlego problementzat ez da irtenbiderik ikusten.

Gizarte har-emanak geroago eta estuagoak bihurtu dira. Euskarak ofizialtasun maila lortu nahi du eta behar du. Zeregin hoietarako tankera bateratu bat hartzea premia-premiazko du.

Azken batean, euskara hizkuntza bat da, ez lau edo zortzi hizkuntza. Desberdintasun guztien gainetik bere batasunaren seinaleak erraietan eta muinean daramatza. Eta hori hala izanik, euskara batu bat egin ezinik ez dago.

Eta azkenik, hizkuntza landu guzti-guztiak batasun bide hortatik sartu direla ikustea guretzat arrazoirik aski da.

Orai zenbait urte, emakume katalan bat etorri ohi zen Arantzazura udaldia igarotzera. Euskal gramatika bat eskatzen zuen euskara ikasteko edo euskara zer moduzko hizkuntza den jakiteagatik. Nik euskal gramatika batzuk eramaten nizkion, baina beti ohar hau eginez: "Hau bizkaierazkoa duzu, beste hau gipuzkerazkoa..." Halako batean esan zidan:

—¿Pero hasta cuándo van a andar Vds. así? Yo no quiero dialectos, yo quiero el vasco a secas.

—Pero es que eso que Vd. pide no existe —erantzun nion.

—Pues háganlo —esan zidan—. También nosotros andábamos así, pero ya superamos eso...

Hau ezinezkoa ez dela ikasteko, Argentinan edo Amerikatako beste zenbait lekutan, euskalki desberdinetako euskaldunak elkarrekin bizi direnean, zer gertatzen den ikusi besterik ez dago: euskara batu bat berez bezala sortzen dela, euskalkien gainetik den euskara mota bat, alegia, eta hori guztion euskara bihurtzen da. Horrek esan nahi du euskalkien arteko ormak ez direla batzuek uste duten bezain sakratuak. Lehen ere euskalkiak nola sortu dira? Euskaldunak bata bestetik aldenduak egotetik. Eta orai har-emanak geroago eta estuagoak izanik normala eta beharrezkoa da batasun batetara jotzea.

Beharbada, guk egin nahi dugunaren aurretiko eta irudi bezala aipa daiteke mende hunen hasieran Kristau Dotrinekin gertatu zena. Mende hunen hasieran Bizkai barruan Bikaria bakoitzak bazuen bere Kristau Dotrina, tokian tokiko euskarari lotua: Markina, Durango, Orozko, Busturi, Arrati. Izan ere, euskalki barruan ere herriko euskara tokitik tokira diferente baita. Orduan batasunerako lehen pausua eman zen bizkaitar euskalkirako Dotrina bat bakarra jarriz, eta hortarako, jakina, toki bakoitzeko berezitasun hoiek gainditu ziren. Ba orai beste pausu bat eman nahi da hizkuntza guztirako tankera berdin eta bakar bat onartuz. Hori, esan dugunez, herri landu guztiek egiten dute eta guk ere egin ezinik ez dugu, eskola bidez tankera hori zabaltzeko bidea baldin badago. Hizkera batu hau, oraikotz behintzat, idatz zereginetarako izango litzateke baitipat.

Gure artean darabiltzagun amaigabeko eztabaida aspergarriak —purismoa dela, hitz hau dela, bestea dela, etab.— normaleztapen ezaren ondorioa dira. Hizkuntza normalizatuak beste itzal bat du, eta orduan berez bezala suntsitzen dira sesio gogaikarriok.

Baina alferrik da euskara batuaren sistema edo normalizazioa goitik behera paperean erabakitzea, gero praktikan zabalbiderik ez baldin badu. Eskola bidez irakatsi ezik, hizkera batuak nekez bete dezake bere betebeharra.

Gogoan hartzekoa da Cataluñan gertatua. Pompeu Fabrak egin zuen katalanaren normaleztapena, teorikoki behintzat. 1913. urtea jotzen da katalan batuaren urtea beza-

la. Baina Fabraren lanak noiz lortu zituen bere helburuak? Cataluñako Generalitateak katalan batu hori ofizialtzat hartu eta eskolen bidez hedarazi zuenean. Autoritatearen edo agintarien babes hori gabe normaleztapenak nekez eskuratzen ditu bere fruituak.

Hizkera batuak eskolan ikasi behar dira; bestela ez dute zabalbiderik. Suizako kantoi batzutan alemanez mintzo dira, baina aleman dialektal batez, aleman batutik urrun den hizkelgiz. Eskolan, ordea, zer irakasten zaie haurrei? Aleman batua, irakurri eta idazteko erabiltzen dena. Italian berdin. Italiar bakoitzak bi hizkera mota ditu: bata etxekoa eta ekualdekoa, eta bestea, italiar batua, hau eskolan ikasia. Eta hain urrun joan gabe ere, Espainian gauza bera ikusten dugu. Aragoien, Leonen, etab., badira eskualdeko hizkelgiak. Liébana edo Potes-era joaten bazarete, han jendeak badu bere hizkelgi berezia, baina haurrari eskolan gaztelera batua erakusten zaio. Hizkuntza landu denetan segitzen da jokaera hau.

Joan den hilean bi fraide egon ziren Arantzazun, belgikanoak, hizkuntzaz flamenkoak. Galdetu nien eskolan, idazkietan, etab. zer hizkera mota erabiltzen zuten. "Holandesa", erantzun zidaten, zeren hau baita hizkuntza horren hizkera batua. Gainerakoan, esan zidaten, eguneroko hizketa arruntean, tokiko forma dialektalak erabiltzen direla, baina hizkera batu hori nagusituaz doala, zeren jendea lehen baino askozaz gehiago irteten baita bere txokotik. Beraz, joera hau da: hizkuntza bakoitzak hizkera batu bakarra edukitzea eta hori eskola bidez etab. irakastea. Eta horrek berebiziko irmotasun eta irauteko indarra ematen dio hizkuntzari, kultur zereginetarako gai bihurtuz, etab.

* * *

Euskara batu batetara heltzeko ametsak eta ahaleginak ez dira oraikoak, noski.

Hizkera batuak idazkeran oinarritzen dira. Hizkuntzaren forma idatzia hartzen dute zimendu eta giltzarri bezala. Eta hizkera idatziaren lehenengo urratsa badakigu zein den: ortografia batua. Hizkera batuak beste sail asko ere baditu, ortografiaz gainera, baina batasunaren sarrera, jazkera edo hasiera hori izan ohi da. Azalekoa delako, egiten errazagoa delako eta beste aldetik garrantzi handikoa ere badelako.

Euskal idazleen artean ortografia batzeko egin ziren lehen saioak Bonaparte Printzeari esker egin zirela uste dut. Baionan 1857. urteko Urriaren 16an, Bonaparte hori buru zelarik, bilerak egin ziren mugaz handiko eta hemendiko idazleen artean ortografia bateratzeko. Gero, mende hunen hasieran beste bilera batzuk egiten dira Hendaia eta Hondarribian. Euskaltzaindiak ere, sortu berri hartan, euskararen idazkera edo ortografia orokorrean erabaki zuen –behintzat euskaraz idazteko letrak zein diren esan zuen– (5), baina hala eta guztiz ere bi Euskal Herrien artean –Ipar eta Hego– batasun ezak gure egunok arte iraun du. Eta hori da, hain zuzen, Arantzazuko Biltzarrak, orai dela hamar urtekoak, gainditu nahi izan zuena.

Baina aistian esan dudan bezala, euskara batuak, Ortografiaz gainera, beste sail asko ere hartzen ditu edo hartu behar ditu, eta hoiek neurri handi batean erabaki gabe dauzkagu. Lan handia da, beraz, lehiatsuki eta iraupenez aurrera eraman behar dena.

Euskara batuaren arazo hunen hasiera edo abiaburu bezala Eleizalde jauna jotzen dugu, Oñatiko batzarrean 1918. urtean, egin zituen bi hitzaldi famatu haiengatik.

Baina asmoa, nahia, gauzaren sumaketa lehenagokoa da gure artean.

Behin baino gehiagotan esan dut –eta gure historiak frogatzen duen gauza da–: bizkaitarrak izan direla euskara batu horren beharra bizikiago sentitu dutenak eta beroiek izan direla euskara batuaren eragile eta bultzatzailerik azkarrenak. Eta hunen arrazoia ez da ikusten zaila. Bizkaiko euskalkia pixka bat zoko egiten delako eta besteetarik urrunduago dagoelako, idazleak hizkera idikiago edo zabalago baten beharra sumatu izan du, Euskal Herri guztirako balioko duen tresnaren beharra, alegia.

Hor dugu, esate baterako, Juan Antonio Mogel. Mintzoz bizkaitarra. Eta halere, bere lehen obra handia –*Erakasteak*– ez zuen bizkaieraz egin, euskara zabalago batean baizik. Baina bere apaiz lagun bizkaitarrek ez zioten barkatu. Marmarka hasi ziren liburu hura berentzat ulerkaitz zela etab. esaten. Mogelek orduan liburuxka bat atera behar izan

(5) *Euskera* I (1920), lehen zenbakia, 64 or.

zuen bere burua zuritzeko eta ulergaitasunaren arrazoi hori hainbestetarainokoa ez zela erakusteko.

Hara liburuxka hortan zer dioen:

"Apenas se tuvo noticia en Vizcaya, que salía a luz una obra bascongada y en dialecto guipuzcoano, baxo del título de Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac, y que su autor era un Cura de dicho Señorío, quando se suscitó una conmoción como general entre los Eclesiásticos Vizcaynos, con quexas amargas de haber sido preferidos los Guipuzcoanos. ¿Qué utilidad podemos sacar, se decían, de una obra escrita en un dialecto extraño e intrincado para nosotros? El autor podría dar razones poderosas de su proceder, o de la atribuida predilección, si fuera del caso el publicarlas" (6).

Arrazoi hoek ez dizkigu agertzen, baina errez konprenitzen dira. Liburua bizkaieraz egin balu, nekez irtengo zen Bizkaiko mugetarik, eta berak Euskal Herri guztirako nahi zuen. Eta zinez, *Confesino Ona*-ren hitzaurrean, *Erakasteak* liburuari buruz xehetasun hau ematen digu: mila bat ale zabaldu direla Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian, apaiz askok pulpitutik irakurtzen dutela eta apaiz ez diren askok ere bai beren etxeetan. Zabalkundea izan zen, bada, Mogel bere sortzeko hizkera uztera eta bestea onartzera bultzatu zuena.

Gero, berriz, hor ditugu Eleizalde, Garitaonaindia, Eguskitza, Belaustegigoitia, Azkue, Altube, Krutwig, Oskillaso, Aresti, Berriatua, Kintana, etab.: denak bizkaitarrak —mintzoz behintzak— eta denak euskara batuaren eragile handiak.

"Euskara batua, giputzen entretenigarri" dela diotenak nahi nuke huni kasu egin diezaioten, zeren, historia lekuko, argia baino argiago baita bizkaitarrak izan direla auzi huntaz gehien arduratu direnak.

Diodan hitzerdi bat Altube jaunari buruz. Guztiok dakigu nolakoa izan zen jaun hunen irakasgoa eta zein kezkatua egon zen beti euskararen iraupenaz eta bizitzeaz. Euskara bizia, mintzatua behar zela guztien gainetik salbatu eta bizirik atera —eta hori, noski, euskara ezpainetan erabiliz lortzen da xoilki—, euskara mintzatuari eman behar zitzaiola lehentasuna azpimarkatzen eta errepikatzen zuen beti. Eta, hain

(6) *Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcaínas*, etc.

zuzen, hori salbatzeko, euskara idatzia ere mintzatutik ahal den hurbilena egon zedin nahi zuen. Baina beste hau ere lerro lodiz azpimarkatzen zuen beti: euskara idatzia Euskal-Herri guztirako berdina behar genuela, eta hori ez kapritxoz edo fantasiaz, euskararen bizitzeak berak hala eskatzen duelako baizik. Badirudi bi lege hauk —bata, hizkuntza idatzia mintzatutik hurbil egotea, eta bestea, hizkera idatzi hori toki denetan berdina izatea—, elkarren aurkako direla —eta neurri batean hala da, gainera—, baina bi alderdi hoiei kasu egitea euskararen bizitzeak eta iraupenak berak eskatzen digu.

Beraz, euskara batua euskara mintzatuaren etsai delako uste hori ez da uste zuzena. Aitzitik, beste aldera dira gauzak. Bera da euskara bizi arazteko dugun bide bakarra. Inor ez da izan euskara biziaren adiskideago eta zaleago Altube izan den baino. Baina bazekien berak hizkuntza biziak hizkera batu baten azpiegitura eta babesa behar duela eta horretxek ematen diola trinkotasuna, irmotasuna eta sendotasuna (7).

Badakigu hizkera batuen artean mota askotakoak daudela, eta bai modu askotara sortuak ere munduan zehar. Hemen kuestioa da guk geurea nola egin eta nork egin behar duen.

Euskaltzaindi sortu berriaren Arautegian argi eta garbi egozten zaio zeregin hau gure elkarteari. Arautegi hura ez zen nolanahi egin, ez zen etxe-barneko kontua izan. Aurreproiektua prentsa bidez jendeari jakin arazi zitzaion, oharrak bialtzeko epe bat jarri zen, etab.

Eleizalde izan zen —gorago esan dugunez— Oñatiko batzarrean euskara batuaren auzia planteatu zuena (8). Berak garbi ikusi zuen —eta hala adierazten du bere hitzaldian— hil edo biziko gauza dela hau euskararentzat, eta azkar egitekoa gainera. Hori gabe euskarak ez duela etorkizunik ez eskolan eta ez komunikabideetan, eta ez dela gai benetazko literatura bat sortzeko ere. Berak badaki hizkuntza batzuetan delako hizkera batu hori pixkaka eta eboluzioz sortu dela. Modu hau izango litzateke hoberena —dio berak—, baina euskararen

(7) ALTUBE, "Izkuntz jakintzia ta euskeriaren bizitzia", *Euskera* II (1921), 1 zenb., 44 orr.

(8) "Metodología para la restauración del Euzkera", *I Congreso de Estudios Vascos*, p. 428.

egoera ez da luzaroan itxoiten egoteko modukoa eta orduan uste du akordioz eta lehen-bai-lehen egin behar dela (9).

Bustiduren auzia ere ukitzen du Eleizaldek bere hitzaldian:

"Hay las mojaduras asémicas —o sea, que no alteran la significación de la voz que las recibe— y las semánticas que, como dice su nombre, alteran la significación" (10).

Bera bigarren motatakoak gordetzearen alde dago. Besteak ez ditu beharrezkotzat jotzen.

Gainerakoan, Eleizalderen hitzaldian ez da Euskaltzaindiaren aipurik egiten. Izan ere, artean sortu gabe zegoen, eta, hain zuzen, Batzarre ospetsu hartan erabaki zen beronen sorrera, eta Akademiaren zeregin nagusienen artean hizkera batu horrena jarri zen.

Hara zer dioen, bada, Euskaltzaindiaren Arautegi zaharrak. Jagon-sailaren egitekoen artean hau dator lehenengoa bezala:

"Ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa".

Erdaraz hunela dio:

"Trabajará preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común" (11).

Ohar gakizkion huni: Euskaltzaindiak bere Jagon saileko zeregina bezala jotzen duela hau. Jagon sailak euskararen bizitzeaz du zer-ikusi, euskararen iraupenaz, euskara bizia sendotzeaz eta indartzeaz. Eta hain zuzen, horregatik eta horretarako nahi da hizkera batua.

Euskaltzaindi sortu berriak berehala agindu zien Kanpion eta Broussain-i arazo huntaz txosten bat gertatzea. Txosten hortan argi eta garbi aitortzen da auzi hau dela "acaso

(9) "Metodología para la restauración del Euzkera", p. 437.

(10) O. cit., p. 436.

(11) *Euskaltzaindiaren Sortarauak. Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca*, Bilbao 1920; p. 3.

la más grave de las cuestiones que puedan someterse a los debates y sentencia de nuestra Academia" (12).

Eta beherago:

"O la lengua vasca se unifica... o degenerando irremediablemente en patué el euskera, perece. Esta es la disyuntiva. ¿Puede titubear la Academia?" (13).

Eta azkenik, lan hau burutzeko, behar diren batzordeak izenda daitezela eskatzen du (14).

Gainera, Euskaltzaindiak bere lehen urte haietan Biltzar agiriak antolatu zituen gai huni buruz halako giro bat sortzeko, aburuak jasotzeko, etab. *Euskera* aldizkarian, 1922. urtean daude Biltzar haietako lanak.

Gero, berriz, zer pasatu zen badakigu. R. Menéndez Pidal eta J. Urkijok halako aurpegi iluna jarri zioten asmo edo lan huni. Artifizialkeriaren arriskua ikusten zioten. Erremedioa, erremediatu nahi zen gaitza baino okerragoa izango ote zen beldurra agertu zuten. Urkijok auzi huntan hartu zuen jarrera azaltzen eta jarrera horren arrazoiak neurtzen beste nonbaitean idatzi nuen, eta han esana ez noa hemen biresatera (15).

Dena dela, edo jaun hoien kritikagatik edo bestela ere asmo huni zabalbiderik orduko egoeran ikusten ez zitzaiolako, luzapena eman zioten. Azkuek, ordea, bere aldetik beti segitu zuen berak *Gipuzkera Osotua* deitzen zuen bidea aztertzen eta lantzen (16).

Eta horrela igaro dira ia berrogei eta hamar urte. Batzuek, bai, gipuzkera osotu horren bidetik ibiltzen –nahiz eta bakoitza bere erara– ahalegindu direla esan behar da: Olabide, Andima,Lizardi, Oiartzabal, Zaitegi. Beste batzuk, ordea, gehienak, Osotu horri kasu egin gabe, gero eta gehiago, gipuzkera estu batean sartuak eta kiribilduak bezala egon dira. Eta hori ikusiz, beste euskalkietakoek ere nor bere zuloan egotea nahiago izan dute.

---

(12) *Euskera* (1922), 1 zenb., 4 orr.

(13) O. cit., 15 orr.

(14) O. cit., 17 orr.

(15) "D. Julio de Urquijo y el problema de la unificación del euskera literario", *Anuario del Seminario de Filología Vasca* (1971).

(16) Ikus *Euskera* (1934-1935).

Orai hamar urte deneko auzi hunen berpizte berria ez noa kontatzera, zeren ene ondoko hizlaria mintzatuko baita hortaz. Euskaltzaindia berriro auzi huntaz arduratzen hasi baldin bada, hori ez da izan bere gogoz, inguruak hortaratu duelako baizik. Gizarte berriak eta egoera berriak problema huni lehen-bai-lehen soluzio ematea eskatu digulako, alegia. Eta horrela, azkenik, Eleizalderi arrazoia ematera etorri gara.

Zer diferentzia dago, izenaz aparte, oraiko euskara batuaren eta lehengo Gipuzkera Osotuaren artean? Oso guti, esango nuke nik. Ibon Sarasola jaunak, *Hiztegi Arau Emailea*ren sarreran (17) guztiz argi ikusi du puntu hau. Berak dioenez, lapurtar klasikoaren tradizioa eta gaurko sartaldeko hizkuntzaren indarra ez dira berez kontrajargarriak eta bai elkar osagarriak. Batak maila kultoa eta besteak maila standarda eskaintzen digute, eta, horrela, biez osatua egongo da hizkera batu hori.

* * *

Baina badira hau Euskaltzaindiaren egitekoa ez dela diotenak ere. Azken urteotan agertutako liburu batean hara zer irakurtzen den:

"La Academia de la Lengua, vasca o rumana, me da igual, es una institución, por su propia naturaleza, pacífica y serena, que participa algo de los hechizos de la arqueología y de las épocas de calesas y landós. Para mí, un académico de mi lengua ha sido siempre un ser nimbado de gloria y de merecimientos, con derecho a una tranquila silla, a una conversación prolongada y amena, con derecho a viajar y reunirse en ventas típicas, junto a la lumbre, bien financiado por el pueblo, fuera de la batalla de las banderías y de las ideologías, presto siempre a arrojar su luz serena sobre consultas que se le presenten" (18).

Jaun horrek uste du, Euskaltzaindia ez dela nor edo ez dela gai obra hau burutzeko. Hizkuntzaren iragana aztertzea eta argitzea izango litzateke Akademiaren zeregina, baina ez etorkizunari begiratzea, eta hizkera batuak etorkizunaz du zer-ikusi.

---

(17) *Euskal Hiztegi Arauemailea* (Lehen prestaera), 5. orr.

(18) LASA APALATEGUI (J.), *Ensayos críticos sobre la unificación literaria del vascuence*; p. 46.

Lasa jaunak nahi dituen fantasia guztiak irudikatzeko eskubidea du. Baina guk, Euskaltzaindiaren helburu eta zereginak jakiteko, badakigu nora jo behar dugun: geure Arautegira, eta han, ikusi dugun bezala, hizkera batuaren zeregin hau Euskaltzaindiari egozten zaio.

Beste zenbaitek ere inoiz edo maiz zera botatzen digute aurpegira: beste Akademiek egiten ez dituzten gauzak egiten dituela gureak, eta eredutzat jartzen dizkigute beste Akademia hoiek: frantsesa, espainola, etab. Baina edonork daki beste hizkuntza hoien egoera eta gure hizkuntzaren egoera ez direla bat ere berdinak.

Gure Akademiak, esate baterako, Irakasle tituluak ematen ditu, bertsolarien txapelketak ere eratu izan ditu, Alfabetatze eta Euskalduntze kanpainak babesten ditu, euskararen batasunaz arduratzen da, etab. Zeregin hoietako batzuk hartu beharrik ez luke, euskal gauzak egoera normal batean baleude, baina ez daude, eta orduan hoietaz denetaz arduratu beharra dauka. Eta gauza hoiek egiten dituenean ez dago bere Arautegiak markatzen dion eremutik kanpoan.

Oñatiko Batzarre hartan, 1918.ekoan, luze tratatu eta eztabaidatu zen Akademiaren helburua. Akademiak —esaten zuten batzuek— azterketa arkaikoak, estudio teorikoak etab. egiteko izaten dira, eta horrelakoen beharra ere badu euskarak, baina areago du hizkuntza bizia zaintzearen eta bultzatzearen beharra. Orduan batzuek zioten bi Akademia beharko zirela sortu eta bi hoien artean banatu bi helburuok, bakoitzari bana emanez; baina uste hau baztertua izan zen. Azkenik auziari irtenbide hau bilatu zioten: Akademia bakar bat sortzea, baina bi sailez osatua: Iker saila eta Jagon saila. Eta horregatik eta horrela daude gure Euskaltzaindian bi sail berezi hoiek, bakoitzari dagokion zereginekin (19).

* * *

Euskararen Akademia bati buruz nik ezagutzen dudan aipamenik zaharrena Aizkibel-ek du. Miresgarri eta unkigarri ere bada nola jaun hark elkartzen dituen delako Akademia hori eta hizkera batuaren langintza. Hara pasartea:

(19) Ikus *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia"*: Cap. 2 "Fundación de la Academia. Su constitución. Su ulterior evolución".

"Esto mismo quisiéramos que sucediera con nuestro Euskera, que poco a poco se formase un dialecto clásico o literario, que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país Vascongado indistintamente, como puede suceder muy bien, si el clero del país en su predicación y publicación de devocionarios y de obras de instrucción cristiana, usase de un lenguaje puro y escogido, arreglando para ello una gramática, que reúna los elementos primitivos de esta lengua en su mayor pureza, sin hacer caso de ninguno de los actuales dialectos, y atendiendo sólo a la verdadera y genuina restauración de la lengua, aproximándose, cuanto se pueda, al estado que tenía en la época de su mayor apogeo o de su mayor pureza. Para esto es indispensable la formación de una academia compuesta de Vascongados, que hayan hecho estudios especiales sobre su lengua, o que hayan estudiado las lenguas orientales, o dedicádose a estudios lingüísticos, admitiendo igualmente en su seno a todo filólogo o lingüista extranjero que se dedique al estudio de nuestra lengua. Las autoridades del país deben proteger y contribuir para la prosperidad y buen éxito de los trabajos de esta corporación, que serían sumamente útiles para el país y para la ciencia filológica, llevando a cabo el gran pensamiento de nuestro adorado patricio, el Sr. Conde de Peñaflorida, fundador de la Sociedad Vascongada de Amigos del País, que produjo tantos beneficios. De este modo estaría unida con el tiempo ethnográficamente, bajo un dialecto común literario, que al cabo de un siglo o dos predominaría, por la ventaja de ser comprendido en las siete provincias o distritos de diferentes dialectos, que hoy se conocen y no se pueden entender unos con otros, ya que es imposible reunirlas políticamente, perteneciendo a dos naciones poderosas. Progresaría muchísimo la literatura vascongada, porque habría más consumo de libros euskeranos, puesto que les será comprensible a todos el dialecto literario, y entonces se publicarían muchas gramáticas, diccionarios y obras útiles, que, por temor de falta de venta, se hallan en el día en el estado de manuscritos, unos concluídos y otros abandonados, sin ningún género de estímulo para concluirlos" (20).

Testu hau hemen aipatu baldin badut, ez da izan, noski,

(20) *De la lengua euskera, o de los bascongados*, Madrid 1856. Ikus *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia"*: cap. 1 Los orígenes o antecedentes de la Academia.

Aizkibel-ek hor dioen guztia, hitzez-hitz, materialki eta bere hortan onartzekoa dela uste dudalako. Baina euskarak hizkera batu baten beharra duela, eta hizkera horren langintzarako Akademia bat behar zela, hori bai argi eta garbi ikusi eta adierazten duela jaun hark!

Lasa jaunak uste du akademikoek iragana aztertzeko bakarrik balio dutela, eta hizkera batuaren arazoak etorkizuneko gauza izanik, ez duela deus ikustekorik hoien lanaz. Baina hizkuntz arloan etorkizuneko irtenbideak neurri batean iraganeko harrobitik hartzen dira maiz-sarri, eta hori ere Aizkibel-ek badaki, eta bere erara aski garbi esan digu. Izan ere, hizkera batuetan bi indar egon ohi dira burrukan bezala, eta biak elkartzetik sortzen da hizkeraren osasuna. Indar hoiek dira, bata, tradizioarena, literatur kondairatik heldu dena, eta bestea, eboluzioarena, hizkuntzaren egungo egoeratik datorrena. Ez bata eta ez bestea ez dira hemen gutiestekoak.

* * *

Eta hunen bestez uki dezadan azken puntua. Hizkera batuaren langintzan behar ote da gidaririk, epailerik edo autoritaterik? Eta izatekotan, Euskaltzaindiak izan behar ote du gure kasuan gidari eta epaile?

Hizkera batuen eitea eta taxua dakienarentzat uste dut aski garbi dagoela puntu hau. Beraz hizkera batuak modu askotara egin daitezke, konbentzioz eginak izan ohi dira. Hori dela eta, nekez egon ohi da gai hauetan erabaki hau nahiz beste hori onartzera eramango gaituen arrazoi borobilik, bere pisuaren indarrez hortara makurtuko gaituenik; baina, beste aldetik, hizkera batuak, akordioz izango bada ere, bat eta berdina izatea eskatzen du. Orduan behar-beharrezko da epaile bat, gidari bat edo autoritateren bat egotea, gauzak erabakitzeko.

Irudi eta adibideak gauzak konpreniarazteko mesedegarri izaten dira, nahiz eta beti eta alde guztietarik egokiak ez izan. Adibide bat jarriko dut, kaxkarra bada ere; orai baino lehen auzi hauetan aipatu dena, gainera. Oinezkoak errepidean ezkerretik ala eskuinetik joan behar ote duen teorikoki erabakitzea ez da gauza erraza; arrazoiak igualtsu egon daitezke esku batetik nahiz bestetik joatearen alde; baina beha-

rrezko da denak esku beretik ibiltzea, eta orduan hori norbaitek erabaki behar du. Berdin ez baldin bada ere, antzera gertatzen dira hemen gauzak.

Gidari bat eta bakarra behar zuela euskarak zion jadanik XVIII. mendean Etxeberri Sarakoak:

"Zein nezesario den egiteko guztietan aitzindari eta gidari on baten eta behar bezalako buruzagiaren izatea, egiaz ezta gaitz aditzera emaitea; zeren bat-bederak baitaki gauza guztietan behar dela aitzindari edo gidari on bat bide onerat gidatua eta ongi gobernatua izaiteko, bertzela maiz, eta gehienean egitekoak makur eta errebulu ibiliko dirateke, hala-nola ibiltzen ohi baitira zurtz triste jabegabeen egitekoak, eta untzi pilotu gabe galdu ordean dabiltzanak. Halatan bada gure Eskuara zurtz jabegabeko, eta hainbertze mendez mende arrokapean, itsaso eta uhuinpean galdu ordean bezala dabilan hunentzat, nahi nuke bilatu aitzindari eta buruzagi on bat bakarra; erran dut bat eta hura bakarra, zeren askoorduz hainitz aitzindari eta buruzagiren izatea baino, hobe bailizate osoki bat ere ez izatea" (21).

Entzun duzue Etxeberriren aburua. Aitzindari bat eta bakarra behar duela euskarak. Eta aitzindari asko izatea baino hobe dela osoki bat ere ez izatea.

Gorago aipatu dudan gutunean (22) badirudi demokrazi, askatasun eta baretasun giroaren izenean Euskaltzaindiari erregu bat egin nahi zaiola, hots, bere autoritatea erdibana dezala edo, beste erakunde hauekin: Eusko Ikaskuntza, Begiraleak, Araba-Bizkai ta Gipuzkoako Euskerazaleak, Liturji-itzultzaile taldea, Kardaberaz bazkuna, Erri-bide, Euskera lagunak, Bilboko Escuela Oficial de Idiomas. Diktadura pasatu denez gero, elkartasun giroan egin dezala bere lana eskatzen zaio, alegia.

Jaunak, mintzamolde hunen aurrean zer esan behar da? Lehenik hauxe: hori dela behar ez diren hitzak behar ez den lekuan aipatzea. Demokrazia, askatasuna, diktadura: hitz hoiek beude beren tokian. Hemengoak ez dira.

Eta gero, beste hau: Euskaltzaindia sortu zenean, oker ez banaiz, ez zen diktadurarik. Hala ere, Euskaltzaindiak,

(21) *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri*; p. 59.

(22) "Euskeraren gaurko egoera dala-ta Agerpena".

berak bakarrik, beste inongo elkarterekin bere autoritatea erdibanatu gabe, erabaki zuen euskararen idazkera. Eta ongi egina, zeren hortarako izendatua eta hautatua izan baitzen, eta hartu duen mandatuari muzin egin gabe ezin jar lezake salgai bere autoritatea. Eta badakigu, orduan, demokrazi giro hartan, Euskaltzaindiak euskal aldizkariei diruz laguntzekotan, baldintza hau jartzen ziela: berak erabakitako idazkera onartzea (23).

Bestela pentsatzeko askatasuna eta eskubidea beti du gizonak, noski. Baina autoritate bat —bat, eta ez asko, Etxeberrik esan digunez— behar dela gauza hauek erabakitzeko, bistan da. Erabaki hoiek, bestalde, ez dira betiko izango, berikus daitezke, ezin aldatuzkoak ere ez dira, baina bere mota eta mailatako irmotasun bat dute eta behar dute.

Hizkera batuetan askatasun guti ikusten dut nik. Adibidez, gaztelaniaz edo frantsesez has dadila idazkari bat bulegoan berak asmatutako idazkera batez idazten: aguro-asko jaurtiko dute ostikoka kalera. Eta arrazoiz, zeren gizarteak hizkera bateratua behar du, guztion artean lokarri izango baldin bada. Horrek ez du esan nahi ipi-apa guztietan bateratuak egon behar dutela. Izaten dira, bai, txikikeria batzuk libre edo bi edo hiru eratara onartuak, baina gauzarik gehienak ongi lotuak egoten dira.

Euskal-Herriak lau Diputazioen bitartez eskubidea eta autoritatea eman zion Euskaltzaindiari, eta berari bakarrik, euskal gauzetan gidari eta epaile izan zedin. Eta azken bolara huntan, bai Erregek eta bai Eusko Kontseilu Nagusiak ere, baieztatu eta sendotu dute eskubide hori. Bera da —Euskaltzaindia—, hortarako izendaturik dagoen erakunde bakarra. Gainera, bere galtzarrean ditu Euskal-Herri guztiko eta euskalki guztietako ordezkariak. Euskal-Herriaren aurrean hartu zuen mandatuari ezin diezaioke uko edo muzin egin.

Orduan euskara batua Euskaltzaindiak bakarrik egin behar ote du? Hori ere ez. Herri guztiak behar du parte hartu, herri guztiaren lana da nolabait, baina Euskaltzaindia gidari dela.

Besteei ere entzun behar diela? Horixe baietz. Eta hain zuzen, hortarako da Biltzar hau. Baina arau gidariak ematea

(23) Ikus *Euskera* III (1922), 4. zenbakia, 34.

berari dagokio. Hizkuntzaren normatiba ematea berari dagokio.

Arau gidariak eman aurretik entzun. Eman ondotik zer gertatu den ikusi, erabaki hura baietsi ala aldatu behar den jakiteko.

Hain zuzen, Biltzar hau hortarako da.

Arantzazuko arauak eman zirenetik hamar urte igaro dira. Bir-azterpen bat egin behar da orai, arau haiek zer harrera izan duten ikusteko.

Hitzaldi batzuk egongo dira arau hoiekin zer-ikusi dutenak. Eta txostenak ere bai: txostenak ez dira aginduak izan, nahi izan duenak bidaliak baizik. Elkar hizketa eta eztabaidarako uneak ere egongo dira. Gero Euskaltzaindiak, zerbait erabaki behar duela uste baldin badu, hala egingo du.

Beraz, aukera izango dugu egun hauetan hamar urte huntako lanei, saioei eta jokerei gainbegiratu bat emateko, iritziak entzuteko, batez ere idazkeran dauden istilu eta katramilen gainean argi egiteko. Fonetikaz, Hiztegiaz eta Deklinabideaz ere zerbait tratatuko da. Gainerakoan, euskal gramatikaren funtsa datorren urterako, Arrasateko Biltzarrerako uzten da.

ESKERRONEZ

Bergara, 1978 - IX - 4

Satrustegi, J. M.ª

a) Arabako Diputazioko lehendakari, Ezkerra jaunari,

b) Gipuzkoako Diputazioaren izenean etorri zaigun Egia jaunari,

c) Eta Nafarroako Diputazioko Irazoki ordezkariari.

Era berean, eskerrak ematen dizkiogu, Biltzarre honen hasieran gurekin egon nahi izan dutelako, OLF DUTULNIEF Lapurdiko biltzarrekoen lehendakari jauna,

Santamaria, Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntz Kontseilari jauna,

Maturana, Eusko Kontseilu Nagusiko Kultur Kontseilari jauna.

Baita ere, gure artean daudenei eskerrak eman nahi dizkiegu:

Dubosk, Baxenafar eta Zuberoako Biltzarraren lehendakari jaunari,

Jean Haritschelhar, Biltzar horretako diruzain eta gure Euskaltzaindiko Buruordeari.

Azkenekoz, behar beharrezkoa dugu eskerrik beroenak ematea etxeko nagusi bezala ongi etorria eman digun Bergarako Alkate jaun Elkorori.

Eta era berean, Arpal UNEDeko Zuzendari jaunari.

Eskerrik beroenak denoi.

BARNE-ERREGELAK

1968an Arantzazun egindako Biltzarraren hamargarren urteburuan, Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarra gertatu nahi du. Eleizalderen ehun urteburua betetzen denez, Bergarako Mintegian izango dira Biltzarreko lan saioak, sorrerako euskaltzain izan zenaren omenaldi bezala.

Biltzar honek Oinarrizko Barne erregela hauk izango ditu:

1. Euskal idazle, ikastoletako nahiz beste ikastetxeetako irakasle, federakunde, alfabetatze-euskalduntze mugimenduko, testugile, argitaratzaile, kazetari, euskal kultur lanetan diharduen nornahiri dei egiten zaio, beraz. Horietako edonork parte har lezake Biltzarrean.

2. Biltzarraren gai nagusi eta orokorra, hamar urte hontan euskararen arloan emandako arau eta abiada azter eta sakontzea izango da, eta finkatzeke daudenak aztertzea.

3. Biltzarraren Zuzendaritza hiru batzordek daramate: a) Hizkuntzarekikoak, b) Sozio-estadistikako azterketakoak, eta d) Antolakizunekoak. Hiru hoien gainetik laugarren bat da oraino: Batzorde Orokorra.

4. Biltzarreko *Hitzaldiak* batzorde bakoitzak gertatuko ditu, hizlaria ere berak aukeratuta izango da, eta Batzorde Orokorrari proposatua, beronek birresteko.

5. *Txostenak* edonork ekar ditzake, baina epearen barruan jakineraziz. Epe hau, Ekainaren hondar egunean amaitzen da, gaiaren berri emateko, eta Uztailean laburpena bialtzeko. Hamar minutuko luzeera izango du gehien jota.

6. Hitzaldiak, nahiz hizkuntzarekiko nahiz sozio-estadistikarekikoak izango dira, bi barruti hauetako gaia nahasi gabe. Eta berdin egin beharko dute txostenek.

7. Txostenak irakurriko dira denbora baldin bada. Eskubide gehiago dute, noski, Biltzarraren gaiaz zuzenago lotzen direnek, baina izan daitezke txostenak inor konturatu ez den gai bati buruz ere. Gai berberaz direnean, Batzordeak batera, molda edo labur ditzake.

8. Elkarrizketak Zuzendaritzak erabakitako garaian izango dira. Eta muga batez.

9. Erabakiak Euskaltzaindiak hartuko ditu, hala behar dela ikusiko balu.

10. Biltzarrera etorri nahi dutenek, aurrez izena eman behar dute eta biltzarkide txartela jaso.

11. Biltzar matrikula 1.000,– pezeta izango da eta lan saio denetara joateko eskubidea berekin du.

12. Oinarrizko Barne Erregelez gainera, beste Erregela Berezi batzu izango dira, aurrez adieraziko direnak: Elkarrizketarakoak, Antolakizun Zerbitzuetarakoak, eta abar.

Oharra: Euskaltzaindiak, 1978eko Maiatzaren 26an, Bergaran egindako batzarrean onartua.

ARANTZAZUTIK BERGARARA

Bergara, 1978 - IX - 4

Mitxelena, Koldo

Arratsalde on, guztioi.

Nolazpait ere hamar urteren buruan agertzen naiz hemen eta ez neure gogoz, Euskaltzaindiak hortarako izendatu nauelako baizik. Hamar urteren buruan! Laster esaten da hori, epea nekez eta geldiro bete bada ere. Nekez eta geldiro alde batetik. Bestetik badirudi istant batean isuri zaizkigula urteak eskuen artetik.

Ez nator inondik ere harro eta arrandiaka, Arantzazun, duela hamar urte, egin zen balentriagatik. Are guttiago, ordea, orduko eta gerokoen lotsaz eta ahalkez. On ala gaitz den ez dakit, baina hangoa ez zen izan asanblada trumoitsu eta nahastekaria, besteren ahoz mintzatzen den baten batek dioen bezala. Istiluaren larriak eta gure barren suminduak eskatzen zuenaren gainetik ez zen gehiegi igo, nik uste. Bakezaleak, gainera, aurrean behar genituzke, ez urrutiko bazterretan, baketzaile bihurtzeko egokiera dutenean.

Aita Villasante mintzatu zaigu, berak dakien mailan, Euskaltzaindiak euskararen batasun saioekin duen ezinhautsizko lokarriaz. Sortzean bertan egotzi baitzioten eginbide hori euskal kulturaren orduko ordezkariek eta gero ezin baitziezaiokeen edozein arlotan, baita hizkuntzarenean ere, gure artean nabari den batera beharraren dei ixil edo zaratatsuari, urteak joan eta urteak etorri, entzungor egin.

Arantzazukoaren ondorioez ere ez natzaizue mintzatuko. Bihar azalduko dizkigute, dakigunez, ondorio horiek edo behintzat ondorio horietarik neur daitezkeen zenbait. Neurtuak ere arbuia daitezke, baina, arbuioak pisurik izango badu, neurketa berriak eta hobeak beharko dira egin.

Besteren zenbaketari, eta bidenabar, argitasun huts bat erantsi nahi nioke. Gauza ezaguna behar luke izan, baina zorigaiztoan eta lotsagarriro ez da, hizkuntzalariak izan direla beti euskararen (eta besteren) batasunaren etsairik amorratuenak: ez, gehi dezadan, hango edo hemengo batasun saioarenak, baizik eta erabat edozein batasun biderenak. Ez da hori harritzeko: nahiago dituzte gehienek, edo hobeki esan agian nahiago zituzten, basa landareak, inoren eskuz landuak baino.

Inoren hizkuntza, gainera, geurea baino begi hotzagoz ikus dezakegu. Ez lukeen sekula bereaz esango Menéndez Pidalek gureaz ari zela 1921an esan zuena (eta hitzaldi hau ere aipatu dute, behin eta berriro, gure euskaltzaleek, bere usteen sendogarri!): "Dejad que la vida y la muerte se fragüen providencialmente en el arcano operar de la naturaleza". Hots, utzazue herioak eraman dezan, inork eskurik zikindu gabe, herioak odolezko seinalez markaturik daukana.

Hizkuntzalari arrotzek badute, horretaz landa, arrazoi argi eta garbia gure diren gauzetan ez nabarmentzeko. Horrexegatik azkeneko ibiliko dira, eta ez aurrenik, batera ala bestera, aieruz baizik ez bada ere, makurtzeko. Hori hola dela, bada, hona zer dioen William H. Jacobsen Jr.-ek Jon Bilbaoren omenez Nevadakoek argitara duten liburuan, bere lanean erabiltzen dituen euskal formez: "Forms unspecified as to dialect are taken from Villasante, 1972 [=*La declinación del vasco literario común*] , a realiable and convenient guide to a conservative variety of Basque", *haran* erabiltzen duelarik adibide gisa, haatik, Villasanteren *ibar*-en ordez. Eta Jakobsen, dakidanez lehenbizikoa delarik, ez da jadanik bakarra.

Natorren berriz arira. Arantzazukoaz eta ondorengoez oroitzen naizenean, gogoan barrena sumatzen dudana poza da eta ez damua. Inolazko damurik nabaitzen ez dudala esango baldin banu, ez nuke gezurrik esango. Euskaltzaindiak hartu zuen noraezean hartu behar zuen erabakia, artean mila arrazoi edo atxakia zirela medio (lotsa gaiztoa, zeresanen beldurra, bake-itxurak gorde nahia bakerik ez zen lekuan...) hartu ez zuena. Erabakirik onena hartu zuen, Euskal herriari, euskaldun guztiak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea.

Batasun bide horrek, ordea, bidagurutz asko izan ditzake. Ez dakit, beraz, bide-adarrik onena hautatu ote zen beti ezta ere, hortara bagoaz, era eta modurik zuzenenean egin ote zen hautespena. Ezker-eskuin hautatzeko orduan, nolanahi ere, ez zitzaion Euskaltzaindiari aukera handirik eskaini. Eskaintzekotan ere, gero, urteen buruan, egin zaizkio eskaintzak.

Duela hamar urte ez bezala, badirudi nolabaiteko autonomiaren atarian gaudela. Horrekin edo hori gabe, gainera, euskarak ofizialkidetasunen bat, mailarik behenekoa nahi baduzue, izango duela. Orduan ez dadila berriz gerta (eta, egia esan, badakigu *ez dela* gertatu) behiala *Boletín oficial del País Vasco* edo zelakoarekin (Zugazak argatara emana ez daukat hemen aurrean) gertatu zena. Ez dakigularik nola bai eta nola ez, horren itzulpena gipuzkeraz agertu zela. Ez diot inork gaizki egin zuenik. Gaizki egin zutena besterik zen: Gobernuak ez zuela, nik dakidanez, erabakirik hartu horretarako, atzeko atetik sartu zela ofizialtasuna (*Boletín*-ean, behinik-behin) eta euskara modu horri eman zitzaion bultzada.

Ongi da bertsolariek hitzetik hortzera erantzutea, baina, halaz guztiz, egingo nuke ezinbestean erantzuten dutela horrela, bestela nahiago balute ere. Hizkuntzarekiko erabakiak, ordea, batez ere hizkuntzari buruz agintariek hautatzen dituzten bideak, ez dira, beharrak behartzen ez badu, *ex tempore* nahiz *in promptu* hartu behar diren horietakoak. Aldez aurretik ongi pentsatuak behar dute izan. Eta hamarren bat urtez aurretik pentsatuak baldin badaude, orduan eta hobeto. Gai horietaz larrialdiaren larria etorri baino lehen mintzatu denak, pentsatzeaz gainera mintzatu denak, ez du lotsaizunik ez ahalkeizunik. Izatekotan ere, bestek izango du.

Aurrera baino lehen, premiazko deritzat mintzaldi osorako balio duen ohartxo bat egitea. Ez naiz honera ez gerra ekartzera etorri ez sesioan aritzeko asmotan azaldu. Bizi-bizi mintzatuko naiz segur aski, ohi dudan legez, baina beti zerbaiten alde, ez maizegi gurean gertatzen den arabera zenbaiten, honen edo haren, kontra.

Arantzazuko bideak, honela izendatuko dut labur beharrez, alde txarrak bazituen, esango dit batek baino gehiagok, haserreak sortu ditu, baita kalte larriak egin ere. Hitz batean

esateko, batasuna sortu nahiz hasi ginenok "bitasuna" sortu dugu, bitasun garratza, haren ordez.

Egia horren indarra ez dut nik ukatuko. Bai, agian, ukatuko nuke "bitasuna" deitura egokia izan daitekeen gure egoerarentzat. Ez dago inolazko bitasunik zerbaiten alde, lehen esan dudan bezala, ari direnen artean, askotariko aniztasuna baizik. Ikuspuntuaren bitxiak baizik ez ditu anitz horiek bi bakarrik bihurtzen. Arantzazuko bidearen kontra egotea aski oinarri baldin bada elkarrekin bat etortzeko, orduan, bai, bi talde daude, eta ez gehiago. Kontra daudenen multzoa aztertzen badugu, berriz, laster ikusiko dugu ez datozela bat beren artean: bat ez direla, beraz, asko baino.

Gogorkeria izan omen da nagusi arazo honetan, gure artean, bestetan (Katalunian, esate baterako) ez bezala. Hori ere ez dut ukatuko eta ni nerau naiz behar bada sarri askotan gogorkiro, behar baino gogorkiago aritu naizena: horrela bada, barka. Hori esaten denean, ordea, lehengoan bezalatsu, ez dira egiak erdizka baizik esaten. Nik behintzat banekien zertan hasten nintzen eginbide zeken horrekin abiatu nintzenean. Iskanbila sortuko zela, handik jo nahiz hemendik jo, bistan zegoen. Istiluak, izatekotan ere, ez dira nik aldez aurretik uste eta beldur nuen bezain bortitzak izan. Etorkizuna beti xuri-gorri ikusten duten baikor horietakoa nauzue, apika.

Sorterrian nahiz atzerrian, batasun bila abiatzen denak ez du sekula atarramentu onik aterako: bereizkuntza mingots eta mingarria sortuko du, berehalako batean. Ezagunegia da harako bi Aita Saindu zireneko hartan gertatu zena. Hirugarrena hautatu zutela, lehenbiziko biak desizendatu ondoan, eta hona non aurkitzen diren hiru Aita Saindurekin, lehengo biak aski ez bazituzten.

Horren gisako zerbait gertatu da, zinetan eta benetan ari naiz, hizkuntza *standard* bat sortu eta sartu nahi izan den lekurik gehienetan, guztietan eta edonon ez bada. Kataluniaz ari zaizkigunak ere (hobeki esan, katalanaz) berri zuzenagorik eta zehatzagorik eman behar ligukete. Eta ez dezagun ahantz gauza bat dela hizkuntza "batua" proposatzea, bestea delako "batu" hori hedatzea eta bestea, berriz eta azkenik, ofizialtasuna, legeztapenaren bitartez, herri edo eskualde batean erdiestea.

Galduan irtengo dira euskalkiak, eta batak besteak baino kalte gehiago hartzen duela gainera, ezinbestean. Bai, hori ere horrela da, alde batetik bederen. Ez dut uste, ordea, inor euskalkien etsai denik, are guttiago euskalkiak akabatzearren dabilenik. Behar duten lekuaz bada hemen mintzatuko denik eta zer esango duen jakin gabe ere, ontzat hartuko nituzke orain bertan bere iritziak.

Euskalkiak, bestalde, Villasantek ederki arestian erakutsi duenaren arabera, ez dira inoren "amaren hizkuntza". Batuak dira, nolanahi ere, goraka dabiltzanean bederen eta ez beheraka, *standard* bihurtuak zenbait erabilera eta usariotarako. Ez bakarrik, bestela badirudi ere, izkribu ikasi eta prediku jakintsuetarako. Errenteriarra zen Xenepelar, eta Oiartzun aldeko errenteriarra: *det, zan* eta *zebillen* usatuko zizkizun haatik kantulanean, lagunarteko *dut, zen* eta *zabillen*-en ordez. Orobat egiten du Lardizabal zaldibiarrak *duen, duten* eta *zuen, zuten* idazten duenean etxeko eta eskualdeko *duan, duen* eta *zuan, zuen* idatzi beharrean. Goiherriarrak guttiago ote dira beterritarrok baino? Gehiago direlarik ere, ahulago agian? Gai horietan, zenbaitek besterik uste badu ere, ez dute horrelako neurriek balio.

Euskara hamar, hamabost, hogei urte honetan, ausartago eta trebeago bilakatu da, behar da, baita ere, ordea, dorpeago eta traketsago. Edertasunaren lorea joan zaio, arestian irakurtzen nuen honelako zerbait; jatortasuna, xamurtasuna, gure lurraren urrin gozoa galdu ditu. Baietz esango nuke, neronek ere. Edertasuna nola neurtzen den, inolaz ere, bai baita bat baino gehiago Frege-ren *Die Grundlagen der Arithmetik* edo Faulkner-en *The sound and the fury*-ri ere ederkutsua autemango dionik. Ez, noski, *Garoa*-n aurki daitekeenaren gisakorik.

Lehengo kontua dugu berriz. Euskara baturen bat behar dugu —hau, hori nahiz beste hura— egunen batean, eta luzaro gabe, euskaldun ohi zirenen ondorengo ororen mintzabide bakarra erdara baturen bat izatea nahi ez badugu: eta gaitzerdi ez litzatekeela erdara bat bakarra izango, bi izango genituzkeela guttienez. Biziko bada, gainera, delako lur urrin gozo hori ere galdu beharko du. Nola ez du, bada, galduko gure lurrak orain, hainbat eta hainbat lekutan, dariona ez baita kiratsa besterik? Gizartea ere aldatu zaigu, nola ere

aldatu, eta ezin iraun dezake euskarak bere hartan bertan goxo gizarte horren mintzabide aurrera ere izan nahi badu.

Garai batean, euskaldun izango ziren haurrak euskal giroan euskalduntzen ziren, etxean eta etxe inguruan. Euskal gizartearen habeak bana-banan behera zetozela ikusi genuen, ordea, eta euskara bide horretan barrena hondamendira zihoala, beste laguntzarik lortzen ez bazuen. Eta hasi ginen, beharrak beharra eraginda, gure umeak erdal giroan euskalduntzen saiatzen, ikastolaren bitartez, batez ere. Aspaldi erakutsi zigun hori Amatiñok. Artean eskola izan bada etxearen etsai, honela adieraz daiteke gure buruzpidea, bihur dezagun aurrerantzean eskola euskalduna etxe erdaldunaren, erdizka bederen erdaldunaren, kontrapisu.

Gero eta ugariago, ez dira euskaldunak "amarenetik arituak", Lizardik zioenez (*Itz-lauz*, 1934, 85), "amaren bularretik aziak". Biberoiari eskerrak dira euskaldun. Bestelakoek, hala baderitzate, eskerrak eman biezazkiote Jaunari. Eta gogoan eduki bitzate beren euskal senideak, ikastola, alfabetatze liburu eta aldizkariak direla medio euskaraz dakitenak. Eta horientzat den euskara nekez izango da guk ikasi eta erabili genuenaren pareko. Ixiltzen ez ditugularik, gainera, gureak zituen akats nabarmenak, zenbait gai hizketan agertu bezain laster erdarara eramaten gintuztenak derrior.

Norbaitek, Gavel harturik lagun, erantzuki hau egin dio Euskaltzaindiari: espainol gisa jokatu duela. Frantses Akademiak, izan ere, ez omen dio inori deus agintzen; jende landuak gehienbat darabilen hizkera moduaz jabetzen omen da eta hori du berak onartzen, bere aldetik bortxan eta indarka ari gabe, ustez oker daudenak zuzendu beharrez. Alde honetakoak, berriz, bere burua lege-emaile itxuran ikusten duelarik, ez omen du atertzen hau eta hura batera eta bestera aldatzen. Eta Euskaltzaindiak, bistan da, bide makur hau hartu omen du itsumustuan, harako zuzenago hura kontutan eduki ere gabe.

Erantzuterakoan ez naiz ni hasiko, gure arteko gizalegezko ohitura atseginari narraiola, inork gezurra dioela esaten. Beharturik aitortu beharko dut, halaz guztiz, hor jaso dudana ez dela, nik uste, egia ezta egiari hurbil dakiokeena ere, batasunari buruzko Euskaltzaindiaren jokabideaz ari baldin bada, eta hortaz ari da. Arantzazun esana da, eta ehunen bat aldiz errepikatua gero, ez zela inor deus asmatzen

ari; euskal literaturan indarrez ongi hornitua ageri zen joera bati, *ordurako han gure aurrean geneukan joera bati*, ematen zitzaiola amore. Eta joerak besterik gabe joera eta isuri huts direnez gero, delako hori mugatzen eta zehazten saiatu ginen, urrutirago jo gabe.

Hau ez da hitz eta bitsa, hau froga daiteke, eta erraz gainera. Besterik pentsatzen duenak irakur beza 1959ko Arestiren "Maldan behera" poema luzea: ez zait iruditzen lan aspergarria, baina, hala gertatzen balitzaio ere norbaiti, nekez atzemango du lanik gabe jakite saririk. Hor, Ibon Sarasolak arestian esan duenez (eta Joan San Martinek ere bai lehenago, dirudienez, esku artean ez dudan pasarte batean), hor dago alde-aldean Arantzazuko batua osorik, puntu eta komatxo, baita Arantzazuz gerozkoa ere, aditz eta guzti. Arestik hor darabilena baita, hain zuzen, gero, Arestik kontra egin arren, Euskaltzaindiak ontzat hartu zuena. Eta hori, ikus dezakezuenez, Arantzazuko bilera baino bederatzi urtez lehenagoko kontua duzue.

Eredu hortara nondik-nora jo dugun behin eta birritan kontatua izan da. Orain berriz maiz aipatua eta goraipatua dugun Azkueren *Gipuzkera osotua*, gorago ez bilatzearren, gipuzkera da, noski, eta funtsean Beterriko gipuzkera. Orixek hizkuntzaren aberatsaile izateko dohain hobeak zituen batzaile izateko. Mamiz, nolanahi ere, nahiz azala ñabartu, nafarra izan zen beti, haurtzaroko azturek eguzki-aldera zeramatena. Eta eguzki-aldera bulkatu zuen Lizardi, batez ere gorpuztu gabe joan zitzaigun azken-azkeneko Lizardi hura. Honek, bestalde, hasieratik bertatik, Orixeren arrimuan, erakutsi zuen isuria bera ez zegoen Lapurdiko mugetarik urruti.

Euskal lanetan gerra ondoan hasi ginenok, zein zaharrago zein gazteago, zenbait lokarri etengaitz elkarganaturik geunden gehienik. Goizago edo beranduago, konturatzen hasi ginen bazuela euskarak guk uste ez bezalako aberastasunik, aski saihestu eta arbuiatuak zeuden autore zahar ezezagunetan pilaka aurki zitekeenik. Zaharra izateko, gainera, ez zen orduan gehiegizkorik behar, aski baitzen hortarako azken mende-bihurgunekoa izatea.

Antzinako paperak irakurri ahala, luzatu gabe igerri genion batasunerako bide eta halaber irizpide izan zitekeen

zerbaiti. Aspaldiko amets genuen hizkuntz batasuna atzean geneukala ohartu ginen aurrean baino areago; eta, batasuna ez bazen, bai, behinik-behin, batasunaren haziak eta ernamuinak. Garbi zegoela iruditzen zitzaigun, esate baterako, Azkuek edo Lizardik, bakanka bederen, erabili ohi zituzten *lên, zâr* ez zirela norbaitentzat izugarri gerta zitekeen beste zerbaiten ihes- edo irtenbide baizik.

Batasunaren beharra nabari genuen eta batasunaren aldeko gogo bizia arras hedatua sumatzen genuen jendartean: nahia eta ez nahikunde epela. Herriaren batasunik ezak ekarri bazuen hizkuntzarentzat, baita hizkuntza idatziarentzat ere, desberdintzea, puskatzea eta, azken-azkenean, baita apurtzea, birrintzea eta xehakatzea ere, hizkuntzaren batasuna izango zen euskaldunon batasunaren seinale eta ondorio.

Batasun bideren bat hartzera beharturik aurkitu ginen, bada, duela hamar urte eta ez zegoen aukera handirik: frantsesek *embarras du choix* deitzen dutenaren kezkak ez gintuen behintzat artegatzen. Eskainia, begien aurrean zabaldua, ez zegoen bide bat baino, eta bide bakar horren gibelean argiro sumatzen zen talde trinko baten indarra eta bultzada. Norainokoa izan zitekeen ez genekien, jakina, baina holakoetan, eta ez pilotalekuetan bakarrik, apustu egin behar da etorkizunari buruz. Apostu, ordea, noren alde egin? Zerbaiti bai esaten ziotenen alde ala baiari ezetz erantzuten ziotenen alde?

Eta Azkueren *Gipuzkera osotua*, zer? Ez ote zegoen han hautagai? Nik, eta egiaz ari naizelakoan nabil, ez dut uste. Begiramen osoz hartu dut beti Azkueren asmoa. Ez zuen, dakidanez, gehiegi zehatu teorikoki, baina zenbait gauza idatzi zituen euskara modu eder horretan puntu nagusiak aski eta nahikoa erakusten zizkigutenak. Demagun, beraz, behar bezain ongi eta zehazki azaldua utzi zuela.

Zorigaiztoan, ez zuen inoiz inon indar eragilerik ondotik izan. Azkue bera zen gipuzkera osotua, Azkueren jakinduria, Azkueren izena eta omena, eta zenbait ikasle edo jarraile. Hauek, ordea, urri izatea gainera, ez ziren aski leial edo, nahi baduzue, aski esaneko izan. Bestela esango dut. Ez da gauza askorik, Azkue beraren izkribuez landa, gipuzkera osatuan idatzia dagoenik. Gipuzkera antzeko zerbaitetan, bai, noski, eta beste euskalkietarik eraskinak dituenean. Baina, eta tes-

tuak dira lekuko, nor bere gisara, antzora eta moldera aritu da.

Orain bertan bada Euskaltzaindiaren laguntza gipuzkera osotuaren alde eskatzen duenik eta denbora berean *o(i)lloak, ba(i)ñak, egiñak* eta *abillak* behar dituenik. Eskuetan dut haren *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular* (*fácil!* alde batetik, eta *lengua vasca popular*, bestetik!), 1932koa, eta *herri* euskaraz ikasteko eskuliburu *errazaren* egileak *oilo* eta *bainan*, eta *egina*, noski, idazten du, eta ez banaka batzuetan, beti baizik, baina *bella* 'bera', *ttantto*-ren aldamenean. Zer ari gara, orduan? Zergatik ez dira Azkuez esaten, bestez hain ugari esaten diren zakarkeriak?

Dena den, oraintsu arte ahaztuxe zegoen gipuzkera osotua, gehien erabili era erabiltzen den gipuzkerak beste gurasoak, ongi ezagunak, baititu. Delako batu edo baturakoaren zoriaz ez naiz ni mintzatuko, behatz muturrez erakustea aski baita. Aipa dezadan bidenabar mugaketa lana ez dela gelditu eta hor dugula orain aditza ere (nik Arantzazun ezinezkotzat, berehalako batean ezinezkotzat, jo nuen eginbidea) onartua eta onartutzat erabakia. Edonork daki zenbat idatzi den euskara modu horretan liburu, astekari eta egunkarietan. Badira ere, ugari gainera, testuak, ikas- eta irakas-liburuak, hiztegiak. Irakaskuntza saila ez baita azken urteotan geldirik egon, ez alderatzeko ere.

Zenbait puntu finkatu nahi nituzke orain, neure iritziak ahalik eta garbien azal ditzadan. Guztiok alde gaude, hona lehenbizikoan, edo alde egon behar genuke, guttienez: euskararen alde, alegia, eta ez beste euskaldun batzuen, lehenik eta aurrenik, kontra. Nork bere interesak defenditzeko esku osoa du, ez ordea, horiek direla medio, hizkuntzaren interes nagusiak guttiesteko.

Jakina da edozein batasun saio zenbait euskalkiren kaltetan egingo dela, eta ez kalterik egin nahi delako, beste erremediorik ez dagoelako baizik. Azkuerenean ere gipuzkera irten zen, deiturak berak ematen du aditzera, abantailaturik. Ahaleginak egin behar ditugu, beraz, ezinbesteak kentzen dena guttitzen eta kentzeak sortzen dituen bidezko erresuminak baretzen. Orobat gertatzen da hango eta hemengo iritziekin. Arrazoizki izan ohi dira gehienak alderen batetik, eta ez hain arrazoizko besteren batetik. Zail ote litzateke bakoitzari berea aitortzen saiatzea?

Iritziak eta usteak ez datoz bat, holako zerbait entzuten dut behintzat, gure erabateko egoerari buruz. Edozeinek, halaz guztiz, aitortu beharko du, gogorik ez balu ere, oraingo giroa hobea dela euskararentzat, hain hobea ere, duela hamar urtekoa, Arantzazuko bileraren garaikoa, baino. Pozgarri iruditzen zait hori, bake eta lasaitasun giroa behar baitu gure hizkuntzak, ezerk behar badu. Izan ere, lehengoaren irudiko zapalkuntza berriren bat iraun behar balu, ez luke bizirik iraungo.

Hizkuntza gaiak, dirudienez, geure esku izango ditugu neurri batean. Neurria murritza izango da, segur aski, baina ni ez nau emango ez digutenak, ukatu nahian ibiliko direnak kezkatzen, geure esku izan dezakegunak baizik. Hor ikusiko baita, eguzki argia baino argiago, zertarako garen gauza eta zertarako ez. Indar politiko eta sindikatuen laguntza, eskuzabalki gehienbat eskainia duten laguntza, beharko du euskarak: zentzuzko laguntza, zertara eta zergatik doan dakien laguntza. Eta laguntza eman behar duena erdalduna baldin bada, edota etxe-inguruko euskara baizik ezagutzen ez duen euskalduna, zerbait eskatzeko eskubide osoa dugula iruditzen zait: arazoa zein den eta zertan datzan ikastea. Ez dirudi gehiegizko eskaria. Bai, ordea, premiazkoa, entzuten eta irakurtzen diren zenbait gauza ("gauza"-tan utziko ditut) entzun eta irakurri ondoan.

Euskaltzaindia ez da zenbaitentzat fidagarri, diotenez: ez omen du, besteak beste, behar lukeen mailarik, ez asmoz eta ez jakitez. Ez nintzateke batere harrituko horrelako zerbait gertatzen baldin bada, ni bezalako euskaltzaleren bat dela medio, Euskaltzaindia euskaltzainek osatzen baitute azken finean. Eman dezagun, bada, horrela dela. Horrela balitz, ez litzateke gertatu behar duena baizik gertatuko. Gure herriaren ispilu da Euskaltzaindia, ispiluetarik bat garbiena ez bada ere, eta Euskaltzaindiaren maila da gu guztiok, edozein mailatan, eskura dugun mailaren errainua. Saia gaitezen, beraz, *gu guztion* maila jasotzen eta horrela agian jasoko ere dugu, bidenabar, Euskaltzaindiaren maila.

Egia esan, nahiz eta harrokeria dirudien, uste dut Euskaltzaindiak fidantza apurren bat gehixeago merezi duela sorterrikide euskaldun zein erdaldúnengandik. Ez gara argiegiak, baina hartu ditugun zenbait erabakiren alde txarrak aldez aurretik ikusiak genituen; ez dugu larregi irakurri, bai-

na erakusten dizkiguten zenbait testuren berri bagenuen. Batasun kontuetan eta, atzerrian, han eta hemen, zer gertatu den ez dakigu arras ongi, baina zer edo zer ikasia dugu ezinbestean. Serbokroatak, esate baterako (Jugoslavian orain den hizkuntza nagusiak, izatez, ez legez), *h*-ren istilua izan zuela eta, holakoetan gertatu ohi den bezala, han ere dialekturik kontserbazaleenek eraman zutela; edota Grezian oraindik ere idazten dutela (*spiritus asper* delakoaren bitartez), nahiz duela bi mila urte inguru erabat galdua izan, eta zenbait dialektutan Homeroren garairako.

Ez gara gehiegi, ez gaude jakitez jantziegiak, hizkuntza larri dabilkigu, hilaginean ez badago ere. Guztiok elkarganaturik, iritziak iritzi, eta maite omen dugun hizkuntzari begira, ahulak ahula indar dezake. Eta ahulen multzoak bata bestearen arrimuan, gogor egin diezaieke indartsuagoei. Batez ere, Eusko-Ikaskuntzaren sortzaileek gogoan zutena guk ere gogoan hartzen badugu: "Txikiak andia benzi leidi, asmuz ta jakitez".

BERGARA, 1978 - IX - 5

IDAZLEEI EGINDAKO GALDEREK IZAN DUTEN ERANTZUNEN AZTERKETA LABURRA

Bergara, 1978 - IX - 5

Ugalde, Martin

Euskaltzaindiak azken hamar urte hauetan aurrera eraman duen *Batasuna*-ren ondorenaz *idazleak* duen eritzia da oso kontuan hartu behar denetako bat.

Gai hau da Soziologi eta Estadistikako batzordearen izenean niri dagokidana.

Ahal dudan zehatzen eta osoen egingo dut etorri diren erantzunen laburpen edo sintesia: alde batetik, eta batez ere, estadistikari dagokiona: zenbatek *hau* dioten, zenbatek *bestea*, gaiez gai.

Hau baita gehien bat hemen, sail hontan, jakin nahi dena.

Baina bereala sortzen dira lan xinple hontan ere konplijidadeak eragindako zailtasun batzu: 1) zeintzuk dira idazle; 2) idazleen erantzunak dituen ñabardurak (matizak) nola sailkatu eta nola zenbatu.

Honetxegatik, eta erantzunak ematen hasi aurretik, noan gure taldeko lan hau nola, zer erizpidekin, egina izan den esatera.

1. IDAZLEEN HAUTAPENA

Idazleen hautapena bi epetan egina izan da:

1. Joan Mari Torrealdayk eratu zuen lehenengo zerrenda, ahal izan zuen osokien izenak bilduaz. Hontarako, Joan San Martinen *Catálogo bibliográfico de los escritores euskéricos*, Joan Mari Torrealdayren *Euskal idazleak, gaur* liburue-

tan agertzen diren guziak jaso dira; gainera, Euskal Idazleen Elkarteko partaideak, eta *Jakin*-en, *Anaitasuna*-n, *Zeruko Argia*-n, *Goiz Argi*-n, *Herria*-n eta beste aldizkarietan idazten dutenak ere bai.

Eta bilketa hau egin eta gero, 363 idazlen zerrenda *batzordeko bakoitzari pasatu zaio.*

2. Batzordeak, eta batzordekide bakoitzak bere zerrenda aurrean duela, banan-bana izenak berrikusi ditu; eta kasu bakoitza eztabaidatu ondoren, falta zen baten bat erantsi, eta inoiz besterik idatzi ez duenen batzu kendu ondoren, bakoitzak berez zerrenda hori aztertu eta gero izen berriren bat proposatzeko beta eskeini zitzaion batzordeko bakoitzari.

Hala, azkenean 260 idazleren zerrenda geratu da.

Nor da *idazlea* guretzat?

Idazlea, guretzat, *hizkuntza idatzian ari dena* da, lan honen helbururako behintzat, nahiz liburugile edo kazetari, eta baita itzultzaile eta zuzentzaile bezala ari dena ere.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar *azken hamar urte* hoietako idaz-lana dela aztertu behar duguna, eta miatu ditugun aldizkari eta liburuak, 1968-79ko bitarte hontan agertu direnak izan dira.

Galdeketa, beraz, epe hontan lanean ari direnei zuzendu zaie.

Jaso, berriz, *196* erantzun jaso ditugu. Bilketa hau, oso ona da; kasu hoietan normala den baino haundiagoa. Honek adierazten duena da, jendea oso motibatua eta zirikatua dagoela.

2. GALDEKETA IDATZIA

Aukerako diren inkesta motetatik, galdeketa teknika erabili dugu, eta hau korreoz bidalia izan da.

Helburua: batasunaz idazleak duen eritzia eta izan duen jokabidea ezagutzea.

Baina, nola?

Bi galdera mota izan dira beharrezkoak:

1) Galdetuaren *bereizgarri jakingarriak*, batetik: izendeiturak, jatorria, idazlanak, adina; eta 2) *batasunaz dituen eritziak*, bestetik.

Galderak, berriz, hiru eratan egin ditugu:

1) *itxiak*, aurrez kodifikatuak; erraz emanik, ahalik eta erantzun gehien jasotzearren.

2) *erdi irekiak*, aukeratzeko zerrenda bat eskeiniaz; honela, idazleari itxietan baino aukera gehiago eskaintzen zaio, eta, bestalde, a) aukera guzien artean galtzeko arriskua gutxitzen den bezala, b) beste bere bat erasteko ere ba du tokia.

3) *irekiak*, eritzi guziak, eta xehetasun haundienaz, jasotzeko bidea; noski, honek sortzen ditu gero, kodifikatzeko garaiean, bere lanak.

Galdeketa hau, Joan Mari Torrealdayk prestatua izan da, eta batzordekoak, berea bezala onartua. Zuzenketa, bidalketa eta kodifikapena, SIADECOk egina.

Eta antolaketa guzi hau eta ondorengo lanak egin eta gero, hara hemen adierazgarrienak direla uste ditugun ondorio batzu.

1

GALDEREN LEHENENGO ZATIA: zenbat, nongoak, zer adinekoak, zer kultura mailakoak, zein lanbidekoak, eta zeintzuk, egindako lanak

IDAZLEA, NONGOA

Hontaz, idazlearen bi xehetasun jaso ditugu: *jatorriari* eta *bizilekuari* dagozkionak.

Batetik bestera alde haundirik ez dagoenez, erantzun dutenen *bizilekua* hartuko dugu orain kontuan:

	Araban	5	%	2,6
	Gipuzkoan	123	%	62,6
1	Nafarroan	6	%	3,1
	Bizkaian	39	%	19,9
	Ipar Euskal Herrian	18	%	9,2
	Atzerrian	5	%	2,6
		196		100,–

IDAZLEEN JAIOTURTEA

	1899 arte	14 idazle	% 4,14
	1900-1910	13 idazle	% 6,63
	1911-1920	30 idazle	% 15,30
2	1921-1930	32 idazle	% 16,32
	1931-1940	43 idazle	% 21,93
	1941-1950	55 idazle	% 28,09
	1951-1970	9 idazle	% 4,59

Hemen jakingarriena da *28-37* urtekoak osatzen duten taldea dela haundiena: 55, ia hirutatik bat (% 28); gero, *38-47 urtekoak:* 43 (% 22); eta bien artean, 28-47 urte bitartekoak, juxtu erdia dira: % 50.

Hoiei, hurrengo bi hamarrekoak erasten badizkiegu, 48-67 urte bitartekoak '% 31,6): % 81,6-ra iristen gara.

Eta hemendik kanpora geratzen direnak:

Nagusiagoak 68-79 eta gehiagokoak:	27	% 13,40
Gazteenak ...27-tik beherakoak:	9	% 4,59

Hainbat ondorio atera genezake datu horietatik, *belaunaldiei* buruz, *eraginei* dagokionez, eta beste.

EMAKUMEZKO IDAZLEA

Jakingarria da idazleen artean emakumeek duten lekua.

Zoritxarrez, txikia.

Emakumezkoak 9 bakarrik dira (% 3,5). Horien adinak: 25, 26, 27, 30, 31, 45 (bi) eta 90 (bi). Nongoak diren jakin nahi badugu, berriz: bat ez beste guztiak (eta hau Laburdin bizi da) gipuzkoarrak dira.

IDAZLEEN IKASKETAK

Adierazgarria da idazleak duen ikasketa maila.

Hemendik aurrekoak, eta laburpen bila, esangura haundiena duen ehunetik zenbatekoa bakarrik aipatuko dugu.

	Batxiler nagusia - COU	% 4,6
	Titulu tipiak	% 2,0
	Ikasketa apalak	% 7,1
3	Eliz ikasketak	% 20,9
	Ikasketa nagusiak	% 36,7
	Ikasketa nagusiak eta Eliz-ikasketak, biak	% 16,3
	Autodidaktak	% 7,1

Honek zerbait adierazten digu nagusiki:

Ikasketa nagusiak egiten dituztenak % 36,7, hirutatik bat baino gehiago direla. Horiei Eliz-ikasketaz gainera ikasketa nagusiak egin dituztenak erasten badizkiegu (% 16,3), % 55-ra heltzen garela, erdia ondo pasatxoa.

Euskal idazlearen kualifikazio honek ba du, gure ustez, euskararen etorkizunarentzat garrantzia.

Bestalde, titulazioa gazteengan, ugariago.

Eta ez gara hontan geratuko: Batxiler nagusia -COU (% 4,6) eta Eliz-ikasketa (% 20,9) egin dituztenak ere oso kontuan hartzekoak direnez, beste laurdena baino gehiago (% 25,5) osatzen dute; hala, azken porzentai honi aurrekoa erasten badiogu, osora % 80 baino gehiago dira ikasketa kualifikatuak egin dituzten idazleak.

Ba da zerbait.

IDAZTEN NOIZ HASI ZEN

Ba dirudi idazlea bere lana agertzen hasi zenaren datu honek esan-nahirik ba duela.

Proiektapen askotarako.

	15 urte aurretik	% 7,1
	16-20 bitartean	% 30,7
	21-25 bitartean	% 27,6
4	26-30 bitartean	% 10,7
	31-35 bitartean	% 7,1
	36-40	% 4,6
	40 urtetik gora	% 12,2

Kontuan izan behar duguna da, oraintsu arte ez dugula euskara irakasteko instituzio biderik izan: Ikastola eta Euskal Alfabetatzea, fenomeno berriak direla.

Hoiek izango dute eragina, eta haundia, aurrerakoan.

Gaurkoz, 16-20 urte bitartean idazten hasiak dira gehien: % 30,6, eta hoiei beste bostekoa erasten badiegu, 16-25 urte bitartekoak erdiak baino gehiago dira: % 58,2. Nolabaiteko eragin nagusi bat izan dute gazte hoiek hain debekatu, arriskutsu eta pobrea zen bide hau aukeratzeko.

Zaletasun hontara eragin dietenei zor dizkiegu eskerrak.

Idazle hoiek ez dira, gainera, *gaztetan idazten hasiak* bakarrik, baita *gazteak* ere. Hain zuzen, gaurko idazleen % 55,6 da 1951tik 1970ra idazten hasiak.

Idazlea nongoa den, zein adinekoa den, zein ikasketa dituen eta noiz idazten hasi zen jakin eta gero, goazen *batasunaz duen eritzia eta idazten izan duen jokabidearen berri jakitera.*

2

GALDEREN BIGARREN ZATIA: Zein euskalkitan idazten duen, euskara batuari egin dion ukoaren eta aldekoaren errazoiak, batasunaz Euskaltzaindiaren bideaz dituen eritziak, eta Euskaltzaindiari egiten dizkion kritikak eta eskabideak.

ZEIN EUSKALKITAN IDAZTEN DUEN

Goazen orain, 196 idazle hoiek zein euskalkitan idazten duten ikustera.

	Bizkaieraz	% 8,7
	Gipuzkeraz	% 16,8
	Lapurteraz	% 1,5
	Behe Nafarreraz	% —
5	Goi Nafarreraz	% —
	Zuberoeraz	% 1,5
	Besterik	% 1,5
	Erantzunik ez	% 8,7
	Euskara batuaz	% 61,3

Ikusten denez, euskalkietan idazten dutenak % 30,0 dira, eta euskara batuan idazten dutenak, berriz, % 61,3.

Hemen, ondore batzu atera genitzake:

1. Euskara batuak bidea egin duela.

2. Hala ere, oraindik ia 3-tik 1-ek berea duen euskalkiari eusten diola; nahi duelako, edo batua ikasteko aukerarik izan ez duelako.

3. Hona euskalkietako lau joerak: *bizkaieraz* % 8,7; *gipuzkeraz* % 16,8; lapurteraz eta zuberoeraz, bakoitzetik % 1,5.

4. Gipuzkoako alderdi batzutan bizkaieraz hitzegiten denez, emandako zifra hoiek ez dute Bizkaiko edo Gipuzkoako joeraren esannahirik agertzen.

Bizilekuz eta idazbidez parekatu nahi dituenarentzat, hona hemen zifrak:

Gipuzkoarrak:	% 62,8	
Bizkaitarrak:	% 19,9	
Gipuzkeraz idazten:	% 16,8	(denak Gipuzkoan)
Bizkaieraz idazten:	% 8,7	(batzu Gipuzkoan)

EUSKARA BATUARI UKO EGIN DIOTENEN ARRAZOIAK

Gai hontaz jaso dugunaren berri emateko, gutxienez bi erizpide eduki behar dira kontutan: 1. Aukerako jartzen diren *9 formula*. 2. Bederatzi formula hoien *ordena*.

1. Hala, hara hemen eman diren 9 aukerak:

Herriarentzako idatzi behar
Euskalkiak indartu
Aberastasuna galdu
Kaltegarri da
Zaildu egiten da
Artifiziala da
Ideologiaren aitzakia
Inposaketa
Besterik
Erantzunik ez

2. Lehenengo aukerakoari, "1"; garrantziaz bigarren iruditzen zitzaionari "2", eta abar, jarraitu behar zen, 9ra heldu arte, garrantziaz azkeneko aukera.

Hara laburki, kuadru honek ematen dizkigun erantzun adierazgarrienak:

– *Lehenengo erantzun bezala* puntu gehien jasotzen dituena hau da: "Herriarentzako idatzi behar" (37); "Kaltegarri da" (4); "Zail du egiten da" (4); "Artifiziala da" (3); "Ideologiaren aitzakia" (2).

Bigarren erantzun bezala, "Euskalkiak indartu" (14); "Aberastasuna galdu" (8).

– Bestalde, aukera bakoitzak orden-leku batean edo bestean bereizia izan denaren maiztasuna:

1. "Herriarentzako idatzi behar" (53 aldiz)
2. "Zaildu egiten du" (51)
3. "Kaltegarri da" (46)
4. "Artifiziala da" (45)
5. "Aberastasuna galdu" (42)
   "Euskalkiak indartu" (42)
6. "Inposaketa" (gainezartzea) (40)
7. "Ideologiaren aitzakia" (35)
9. Beste batzu.

Hemen, jakingarria da erantzun ez dutenak izan dira gehienak: *euskara batua*-ren ados direlako. Hara hemen ezaugarri bat:

1. erantzun, zenbat aldiz: 535.
2. ez erantzun, zenbat aldiz: 1.129.

Hara, hurrengo, *euskara batuari* baiezkoa eman diotenen berri.

EUSKARA BATUARI *"BAI"* ESAN DIOTENEN ARRAZOIAK

Hemen ere erakus-bide berdina erabiliko dugu.
Hara, batetik, eman diren 9 aukerak:
Hizkuntza bakar bat behar
Elkar ulertzeko
Kultura handien antzera
Euskara indartzeko

Normalizatzeko
Kultur tresna
Euskaltzaindiagatik
Euskara promozionatzeko
Besterik
Erantzunik ez.

— *Lehenengo erantzun bezala* puntu gehien jasotzen dituena hau da: "Hizkuntza bakar bat behar" (43); "Normalizatzeko" (28); "Kultur tresna" (12); "Euskara indartzeko" (10); "Euskara promozionatzeko" (9); "Elkar ulertzeko" (6); "Euskaltzaindiagatik" (5); "Kultura handien antzera" (3).

— *Bigarren erantzun bezala:* "Kultur tresna" (30); "Elkar ulertzeko" (29); "Normalizatzeko" (16); "Euskara indartzeko" (15); "Euskara promozionatzeko" (12); "Elkar ulertzeko" (11).

— Bestalde, aukera bakoitzak orden-leku batean edo bestean izan dituen aipamenak sumatzen baditugu, hara hemen sailketa:

1. "Euskara normalizatzeko" (125 aldiz).
2. "Kultur tresna" (123).
3. "Euskara promozionatzeko" (120).
4. "Hizkuntza bakar bat behar" (116).
5. "Elkar ulertzeko" (115).
6. "Kultura handien antzera (111)
7. "Euskaltzaindiagatik" (110).
9. Beste batzu.

Hemen jakingarri diren hiru puntu aipatuko ditugu:

1. Erantzun ez dutenak gutxi direla: *euskara batuari* uko egin diotenak.

2. Euskaltzaindiak, berez, ez duela lehenengotasunik; eta egitazko garrantzia duten arrazoiak, objetiboak direla: *Hizkuntza bakar bat behar dugulako"* eta *"Euskara normalizatzeko".*

Baita *"Kultur tresna"* bezala behar dugulako ere.

3. Aurrekoan egin dugun bezala, hemen ere:

— erantzun, zenbat aldiz 1.056
— *ez* erantzun, zenbat aldiz..... 587

EUSKARA BATUAN IDAZTEN NOIZ HASTEN DEN

Hara hemen urtez-urte, hamar urte horietan, euskara batuan idazten *hasten direnak*; ez dugu hemen, orain arte bezala, porzentaia bakarrik emango; kasu hontan jakingarria da idazleak ere zenbat diren aitatzea, eta, hala, bi datuak emango ditugu:

	1967	3	% 2,97
	1968	33	% 32,68
	1969	13	% 12,87
	1970	16	% 15,84
	1971	8	% 7,92
6	1972	6	% 5,94
	1973	6	% 5,94
	1974	5	% 4,95
	1975	3	% 2,97
	1976	4	% 3,96
	1977	4	% 3,96

Ikusten denez, ba dira gutxi batzu (3) Arantzazu aurretik euskara batuan lehen urratsak egiten hasi zirenak. Hala ere, gehienak (33) urte berean hasten dira; idazleak arau baten beharrean zeuden, noski, eta Euskaltzaindiak emanak onartu zituzten. Hurrengo bi urteak ere aberatsak dira: 1969an 13 (% 12,87), eta 1970an 16 (% 15,84).

Geroztik, urtero lau-bost bat etorri dira batasun alorrera.

BATASUNAZ ERITZIA

Hara, orain arte emandako erizpideak kontrastatzeko beste galderabide bat:

Batasunaz duzun eritzia

	Oso ondo	89 idazle	% 45,4
	Ondo	42 idazle	% 21,4
	Gaizki	11 idazle	% 5,6
7	Ez dut eritzirik	2 idazle	% 1,0
	Besterik	5 idazle	% 2,6
	Erantzunik ez	42 idazle	% 21,4
	00	5 idazle	% 2,6

Hemen ere agertzen dira erantzunik ez duten 42 idazle; gutiengo edo minoria adierazgarria. Batez ere, eritzirik ez dutela aitortzen duten beste 5 erasten badizkiegu, denetara 47.

Gero, garbi *alde* edo *aurka*:

1. "Ondo" eta "Oso ondo" ..... 131 idazle % 66,8
2. "Gaizki" ..... 11 idazle % 5,6

EUSKALTZAINDIAREN BIDEAZ ERITZIA

Batasun bide hau Euskaltzaindiaren bitartez egin denez, eta askotan eztabaidatua Euskaltzaindia bera izan delako,egin ditugu gai hontaz ere galderak, eta hona hemen erantzunak:

	Oso ondo	45 idazle	% 23,0
	Ondo	89 idazle	% 45,5
	Gaizki	24 idazle	% 12,2
8	Ez dut eritzirik	4 idazle	% 2,0
	Besterik	4 idazle	% 2,0
	Erantzunik ez	29 idazle	% 14,8
	00	1 idazle	% 0,5

Kuadru hontan ere ba dira 29 idazle erantzun ez dutenak; joan den kuadruan baino gutxiago, baina oraindik adierazgarri. Horiei: eritzirik ez duten 4, eta "besterik" esaten duen lerroan agertzen diren beste 4 erasten badizkiegu, hona hemen 37.

Aurreko kuadruan baino 10 gutxiago, baina hor daude zerbaiten zain. Bestalde, *zeharo batera edo bestera* erabaki dutenak:

1. "Ondo" eta "oso ondo" ..... 134 idazle % 68,4
2. "Gaizki" ..... 24 idazle % 12,2

Hemen argi ageri da: *Batetik*. Euskaltzaindiak izan duen jokabidearen alde askoz ere gehiago agertzen direla, aurka baino; nolanahi, "Oso ondo" dagoelatik "Ondo" dagoelara, tarte haundi xamarra dago: % 22, eta honek zerbait esan nahiko du. *Bestetik*, oraindik ba dela garrantzia duen talde bat kezketan.

Horien ahotsa oso entzungarri dela uste dugu Batzar hontan.

EUSKALTZAINDIAREN BIDEAZ KRITIKA

Behar bada, hemen agertu behar luke Euskaltzaindiaren jokabideaz duten eritzia.

Hona kuadrua:

Prozedura edo erabidearen kritika	27 idazle	% 13,8
Lexikoari buruz	18 idazle	% 9,2
Aditzari buruz	12 idazle	% 6,1
Ortografiari buruz	8 idazle	% 4,1
Besterik	30 idazle	% 15,6
Ezer ez	35 idazle	% 17,3
1 + 2 + 3 + 4	4 idazle	% 2,0
Dena kritikatu dutenak	21 idazle	% 10,7
00	1 idazle	% 0,5
Erantzunik ez	40 idazle	% 20,7

Kuadru hau oso argigarri dela iruditzen zaigu.

Batetik, ikusi dugu Euskaltzaindiaren lana gehientasun batez onartua izan dela, zalantzarik gabe.

Baina, normala den bezala, egin duen guztia ez du ongi egin; eta osorik hartuta ongi derizkiotenen artean atalka aztertzerakoan ohar batzu egitea oso normala da, eta baita beharrezkoa ere:

Hara hemen adierazgarri direla uste dugun puntu batzu:

1. Euskaltzaindiaren bideaz kritikarik ez dutenak	35 idazle	% 17,3
2. "Besterik" dion atalean, erreserba bat ageri da	30 idazle	% 15,3
3. Bestalde, gehiegi dira erantzun ez dutenak	40 idazle	% 20,4
4. Dena kritikatu dutenak ere, asko	21 idazle	% 10,7

Kuadru hau da, behar bada, batzar nagusi honen lanerako adierazgarriena dena.

Batasuna ontzat hartua da, Euskaltzaindiak orokorki egin duen bidea ere bai. Orain, bide hau *nola egin* denaren hontan, ba da zer begira, zer azter, zer konpon.

Lan luze eta zaila denez, beharko dugu eten gabeko lanean jarrai.

Hau, honela dela, zeintzu dira Euskaltzaindiari egiten zaizkion eskabideak?

EUSKALTZAINDIARI ESKABIDEAK

Hara hemen Euskaltzaindiari egiten zaizkion eskabideak osatzen duen kuadrua:

	1968an hartutako bidea baino lehenagora itzultzea	9 idazle	% 4,6
	Erabakiak berrikustea.....	14 idazle	% 7,1
	Falta dena osatzea.....	82 idazle	% 41,8
10	Besterik	14 idazle	% 7,1
	1 + 2	33 idazle	% 16,8
	1 + 2 + 3	8 idazle	% 4,1
	Erantzunik ez.....	31 idazle	% 15,8
	Bariableak: 0,5 + 0,5 + 1,7.....	5 idazle	% 2,7

Hemen ere ba ditugu esangura handia duten puntu batzu:

1.	1968ra itzuli nahi luketenak oso gutxi dira	9 idazle	% 4,6
2.	Falta dena osatzea nahi dutenak, asko	82 idazle	% 41,8
3.	Hemen dago, beti, erantzuten ez duen taldetxo hau	31 idazle	% 15,8

Hoik denak ere hartu beharko dira kontuan azken hamar urte hoietan egin denaren azterketa egiterakoan.

GALDERA IREKIEN ERANTZUN UGARIA

Lehen esan dugun bezala, gaurko teknikabideak agintzen dizkigun galdera *hitxi* eta *erdi-ireki*-az gainera, egin dugu zabal eta osorik *irekia* den bat ere.

Hara hartu ditugun erantzunen laburpen adierazgarriena:

Zer eskatuko zenioke Euskaltzaindiaren Bergara-ko VIII Biltzarrari?
(Erantzun bat bakarra ematen dutenen artean)

1.	10 urteko ebaluapena.....	1 idazle	%	0,51
2.	Gramatika finkatu.....	14 idazle	%	7,14
3.	Euskara biziari begiratu....	9 idazle	%	4,59
4.	Euskalkiak zaindu	4 idazle	%	2,04
5.	*Erabakiak*, bai.....	21 idazle	%	10,7
6.	*Erabakirik*, ez.....	4 idazle	%	2,4
7.	Erabideari jaramon gehiago.....	20 idazle	%	10,2
8.	Amore eman behar Euskaltzaindiak.....	12 idazle	%	6,12
9.	Instituzio bezala Euskaltzaindia	2 idazle	%	4,08
10.	Euskara ofizialdu	8 idazle	%	4,08
11.	Besterik	13 idazle	%	6,63

11

Gero, arazo bat edo beste lotuaz konbinaketa asko; hoiek ez dira hitz gutxitan adierazten errazak; nola nahi, denetara 35 konbinaketa ezberdin izan arren, 64 idazle dira honelako bat edo bi egiten dituztenak, eta denak orain arte esandakoen konbinaketak direnez, eta hoiek denak aztertzeko denbora asko beharko litzatekeenez, ez gara xehetasun horietan sartuko.

Baina kuadrua ez da oraindik bukatu.

Hara hemen falta diren hiru erantzun mota:

95.	Euskaltzaindiarekin ados ez	2 idazle	%	1,02
97.	Inkesta hau partziala da ...	3 idazle	%	1,53
99.	Zehaztugabea da.....	19 idazle	%	9,69

Hara hemen kuadruaren esangura nabarmenena.

Norbaitek erantzun-horria ikusi edo guk irakurtzea nahi balu, hemen ditugu jasotako guztiak.

Gure aldetik, hara kuadru honek adierazgarri bezala erakusten diguna:

1.	Euskaltzaindiak *erabakiak hartzea:*	
	nahi dutenak	21
	nahi ez dutenak.....	4
2.	Euskalkiei dagokienez:	
	Euskara biziari begiratu behar.....	9 idazle
	Euskalkiak zaindu	4 idazle

3. Erabideari, prozedurari, jaramon gehiago egin behar ..... 2 idazle
4. Euskaltzaindia: a) Instituzio bezala, bai 2 idazle
   b) Ados ez ..... 2 idazle
5. Inkesta, bere auzitan: Partziala da ..... 3 idazle
   Zehaztu gabea .. 19 idazle

Hau da, niri dagokidan gaiaz, eta izan dudan betan, IDAZLEEK EMANDAKO ERANTZUNEI buruz egin ahal izan dudan laburpena.

Hainbeste gauza esateko dugun Batzar hontan ezin dut besterik egin.

Hala ere, minutu batzu izango ditugu oraindik elkarrizketa labur baterako.

Nik edo gure batzordeko beste norbaitek zerbait argitu ahal ba dugu, esan; saiatuko gara erantzuten.

Eskerrik asko.

IDAZLEEI EGINDAKO GALDEREK IZAN DUTEN ERANTZUNEN AZTERKETA LABURRA

Hara hemen txosten honi jarraitzeko eskuan behar dituzun kuadruak.

Baina kuadru hoiek, 11, eta bakoitza bere zenbakiarekin bereizia, behar dute sarreratxo bat.

Lan hau nola eta zertarako egin dugun adierazteko.

Euskaltzaindiak azken hamar urte hauetan aurrera eraman duen *Batasuna*-ren ondorenaz *idazleak* duen eritzia da oso kontuan hartu behar denetako bat.

Baina, nor da *idazle*?

IDAZLEEN HAUTAPENA

Idazleen hautapena bi epetan egina izan da:

1. Joan Mari Torrealday-k eratu zuen lehenengo zerrenda, ahal izan duen osokien izenak bilduaz. Hontarako, Joan San Martin-en *Catálogo bibliográfico de los escritores euskéricos*, Joan Mari Torrealday-ren *Euskal idazleak, gaur* liburuetan agertzen diren guztiak jaso dira; gainera, Euskal Idazleen Elkarteko partaideak, eta *Jakin*-en, *Anaitasuna*-n, *Zeruko Argia*-n, *Goiz Argi*-n eta beste aldizkarietan idatzi dutenak ere bai.

Eta bilketa oso hau egin eta gero, 363 idazlen zerrenda *batzordeko bakoitzari pasatu zaio.*

Denen aurrean banan bana, eta gero bakoitzak berez, aztertu ondoren, inoiz besterik idatzi ez duenen batzu kendu ziren; eta, hala, azkenean 260 idazleren zerrenda geratu da.

Nor da *idazle* guretzat eta lan hontarako?

Idazlea, guretzat, *hizkuntza idatzian ari dena* da, lan honen helbururako behintzat, nahiz liburugile edo kazetari, eta baita itzultzaile eta zuzentzaile bezala ari dena ere.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar *azken hamar urte* hoietako idaz-lana dela aztertu behar duguna, eta miatu ditugun aldizkari eta liburuak, 1968-78ko bitarte hontan agertu direnak izan dira.

Galdeketa, beraz, epe hontan lanean ari direnei zuzendu zaie.

Jaso, berriz, *196* erantzun jaso ditugu.

Bilketa hau oso ona da; kasu hoietan normala den baino handiagoa.

GALDERAK

Bi galdera mota izan dira beharrezkoak:

1. Galdetuaren *bereizgarri jakingarriak*, batetik: izen deiturak, jatorria, idazlanak, adina. 2. *Batasunaz dituen eritziak*, bestetik.

KUADRUAK

Hara hemen, beraz, aitatutako 11 kuadru.

Txostena irakurtzerakoan eskuan edukitzea kontseilagarri dena.

IDAZLEA, NONGOA (BIZILEKUA)

1

Araban	5	% 2,6
Gipuzkoan	123	% 62,6
Nafarroan	6	% 3,1
Bizkaian	39	% 19,9
Ipar Euskal Herrian	18	% 9,2
Atzerrian	5	% 2,6
	196	100

IDAZLEEN JAIOTURTEA

2

1899 arte	14 idazle	% 7,14
1900-1910	13 idazle	% 6,63
1911-1920	30 idazle	% 15,30
1921-1930	32 idazle	% 16,32
1931-1940	43 idazle	% 21,93
1941-1950	55 idazle	% 28,09
1951-1970	9 idazle	% 4,59

IDAZLEEN IKASKETAK

	Batxiler nagusia - COU	% 4,6
	Titulu tipiak	% 2,0
	Ikasketa apalak	% 7,1
3	Eliz ikasketak	% 20,9
	Ikasketa nagusiak	% 36,7
	Ikasketa nagusiak eta Eliz-ikasketak, biak	% 16,3
	Autodidaktak	% 7,1

IDAZTEN NOIZ HASI ZEN

	15 urte aurretik	% 7,1
	16-20 bitartean	% 30,7
	21-25 bitartean	% 27,6
4	26-30 bitartean	% 10,7
	31-35 bitartean	% 7,1
	36-40 bitartean	% 4,6
	40 urtetik gora	% 12,2

ZEIN EUSKALKITAN IDAZTEN DUEN

	Bizkaieraz	% 8,7
	Gipuzkeraz	% 16,8
	Lapurteraz	% 1,5
	Behe Nafarreraz	% —
5	Goi Nafarreraz	% —
	Zuberoeraz	% 1,5
	Besterik	% 1,5
	Erantzunik ez	% 8,7
	Euskara batuaz	% 61,3

EUSKARA BATUAN IDAZTEN NOIZ HASTEN DEN

	1967	3	% 2,97
	1968	33	% 32,68
	1969	13	% 12,87
	1970	16	% 15,84
	1971	8	% 7,92
6	1972	6	% 5,94
	1973	6	% 5,94
	1974	5	% 4,95
	1975	3	% 2,97
	1976	4	% 3,96
	1977	4	% 3,96

BATASUNEZ DUEN IRITZIA

Batasunaz duzun eritzia

	Oso ondo	89 idazle	% 45,4
	Ondo	42 idazle	% 21,4
	Gaizki	11 idazle	% 5,6
7	Ez dut eritzirik	2 idazle	% 1,0
	Besterik	5 idazle	% 2,6
	Erantzunik ez	42 idazle	% 21,4
	00	5 idazle	% 2,6

EUSKALTZAINDIAREN BIDEAZ ERITZIA

	Oso ondo	45 idazle	% 23,0
	Ondo	89 idazle	% 45,5
	Gaizki	24 idazle	% 12,2
8	Ez dut eritzirik	4 idazle	% 2,0
	Besterik	4 idazle	% 2,0
	Erantzunik ez	29 idazle	% 14,8
	00	idazle 1	% 0,5

EUSKALTZAINDIAREN BIDEAZ KRITIKA

	Prozedura edo erabidearen kritika	27 idazle	% 13,8
	Lexikoari buruz	18 idazle	% 9,2
	Aditzari buruz	12 idazle	% 6,1
	Ortografiari buruz	8 idazle	% 4,1
9	Besterik	30 idazle	% 15,6
	Ezer ez	35 idazle	% 17,3
	1 + 2 + 3 + 4	4 idazle	% 2,0
	Dena kritikatu dutenak	21 idazle	% 10,7
	00	idazle 1	% 0,5
	Erantzunik ez	40 idazle	% 20,7

EUSKALTZAINDIARI ESKABIDEAK

	1968an hartutako bidea baino lehenagora itzultzea	9 idazle	% 4,6
	Erabakiak berrikustea	14 idazle	% 7,1
	Falta dena osatzea	82 idazle	% 41,8
10	Besterik	14 idazle	% 7,1
	1 + 2	33 idazle	% 16,8
	1 + 2 + 3	8 idazle	% 4,1
	Erantzunik ez	31 idazle	% 15,8
	Bariableak: 0,5 + 0,5 + 1,7	5 idazle	% 2,7

GALDERA IREKIEN ERANTZUN UGARIA

Zer eskatuko zenioke Euskaltzaindiaren Bergara-ko VIII Biltzarrari? (Erantzun bat bakarra ematen dutenen artean)

1.	10 urteko ebaluapena	idazle 1	% 0,51
2.	Gramatika finkatu	14 idazle	% 7,14
3.	Euskara biziari begiratu	9 idazle	% 4,59

	4. Euskalkiak zaindu	4 idazle	%	2,04
	5. *Erabakiak*, bai	21 idazle	%	10,7
	6. *Erabakirik*, ez	4 idazle	%	2,4
11	7. Erabideari jaramon gehiago	20 idazle	%	10,2
	8. Amore eman behar Euskaltzaindiak.....	12 idazle	%	6,12
	9. Instituzio bezala Euskaltzaindia	2 idazle	%	1,02
	10. Euskara ofizialdu	8 idazle	%	4,08
	11. Besterik	13 idazle	%	6,63
	.....			
	.....			
	.....			
	.....			
	95. Euskaltzaindiarekin ados ez	2 idazle	%	1,02
	97. Inkesta hau partziala da ...	3 idazle	%	1,53
	99. Zehaztugabea da	19 idazle	%	9,69

1967-1977: LIBURUAK ETA BATASUNA

Bergara 1978 - IX - 5

Torrealday, Juan M.ª

TEXTU MASA ETA HIZKUNTZ AZTERKETA

Lan honen nondik norakoaz hiruzpalau ohar zor dizkiogu irakurleari.

1) Azterketa soziologiko honen helburua zera jakitea da: Euskaltzaindiaren ekintzak nolako eragina izan duen, azken 10 urte hauetan Euskaltzaindiak hartu izan dituen erabakiak zer arrera izan duten idazlearen aldetik. Baina hau, idazlearen eritzi mailan ez baino, objetibutasunik handiena lortzearren, praktikaren mailan ikusi dugu, hots, egiaz eta benetan, izkribuetan, arauok nola bete izan diren aztertu dugu.

2) Horretarako, azken 11 urteotako liburu-produkzioa aztertu dugu. Ihazko (1977) aldizkarien analisia ere burutu dugu (36 aldizkari denetara).

Liburutan, 431 liburu ikertu dugu. Hots, hiru urtetako liburuak oro, eta gainerakoak "muestreo" edo "échantillon" bidez hartuak.

Osoki azterturiko hiru urteak, hauk dira: 1967 (Arantzazuko Biltzarre aurrekoa, baina Baionako Erabakien —1964— ondokoa), 1972 (bost urte geroago —eztabaida-aldikoa—) eta 1977 (bost urte geroago hau ere eta azterketarako baliagarri den azkena).

Gainerako urteetako liburuak, esan bezala, "muestreo" delakoaz aurkeratu dira. Zorizko zenbakien "Montecarlo tau-

la'' izenekoz baliatu gara hori egiteko, aurretik euskalkiz eta orrialdez liburuak oro klasifikatuz gero. Fidapen tartea % 95-koa da, eta proportzioen estimazioaren errakuntza tartea, gehienik ere, % 2 gora edo behera.

Analisirako kontuan eduki diren liburuak, izkribu berrikoak izan dira. Esan nahi baita, berrargitalpenik ez dela hartu, ez eta berrikitan lehendabizikoz atera arren aspaldi idatzitako libururik. Noski, berdin dio azterketaren helburuari itzulpena ala originala izan liburua: maila berean onartu da bata zein bestea.

3) Hiru zati nagusi ditu azterketak:

a) *Liburuaren fitxa:* (titulua, egilea, originalea edo itzulpena, euskalkia edo hizkuntz-mota, argitaletxea, herria, urtea, orrialdeak, neurriak, kolekzioa, gaia).

b) *Textu masa:* liburu bakoitzeko joaldiak kontatu dira, egiazki idatzitakoaz jabetzeko. Horretara iristeko, joaldiak lerroko, lerroak orrialdeko eta orrialde idatziak kontatu behar izan dira, zuriuneak eta apaingarri edo argazkiak alde batera utzirik. Foliotara bil-laburtu dugu gero joaldien kopurua. Horrela lortzen da, ahalik eta zehatzen, liburu bakoitzaren textu masaren koantifikapena.

c) *Hizkuntz azterketa*: 23 puntutan kontrolatu dugu liburu bakoitzaren hizkuntza. Horietatik 14 puntu ortografiari dagozkio, 4 deklinabideari eta 5 aditzari.

Batasun-ikur edo indikatzaile, edota batasunarekiko hurbiltzapen, diren azterpuntuak hartu ditugu kontuan. Bizkaierari dagozkion bizpairu kasu ere bai. Hona, bada, banan banan azterpuntuak:

Ortografia: H sei puntutan, N/Ñ, L/LL, J/Y,I, I/Y,J,X, I/Y, X/CH, TX/TCH, marra eta apostrofoaren erabilkera.

Deklinabidea: ergatibo plurala, datibo plurala, asoziatiboa (-KIN/-GAZ,-KILAN), HAUEK/HONEEK.

Aditza: Aditz izen mugagabearen erabilkera, UKANen erabilkera, dieza- eta dezai- aditz sistemak, -IT-/-Z hainitzailea, bokale lotzailea.

008 — Orrialdeak
012 — Folioak

Aztergaia	% Orrialdeak	% Folioak
— — 50	12,8	37,8
51 — 100	16,0	25,1
101 — 200	38,3	24,4
201 — 300	18,1	6,7
301 — 400	10,0	2,6
401 — 500	1,8	1,6
501 — 600	0,9	0,7
601 — 700	0,9	0,2
701 — 800	0,5	—
801 — 900	—	0,2
901 — 1000	—	0,2
1001 — 1500	0,5	0,5
1501 — 2000	0,2	—
+2000	—	—
	100,	100,

011 – Gaiak

Aztergaia	%	%
010 Orotarik		8,8
020 Filosofia		0,5
030 Erlijioa		10,5
031-032 Teologia =	8,9	
033 Morala =	33,3	
034 Pastorala =	17,8	
035 Eskritura =	24,5	
036 Elizaren historia =	2,2	
039 Liturgia =	13,3	
040 Soziologia		5,6
050 Zientzia politikoak		2,6
060 Zuzena. Administralgo publikoa		0,5
070 Arte eta Zientzia militarrak		–
080 Irakaskuntza. Hezkuntza		8,8
082 Pedagogia =	28,9	
084-086 Eskolaurretik COUra =	71,1	
090 Merkatalgoa		–
100 Etnologia		3,0
110 Hizkuntzalaritza. Euskara		11,0
115 Filologia =	4,3	
116 Euskara =	8,5	
118 Hiztegiak, Metoduak =	87,2	
120 Matematikak		0,2
130 Natur Zientziak		3,5
140 Medikuntz zientziak		0,2
150 Ingeneritza. Industria		2,8
160 Nekazaritza		0,7
170 Etxe ekonomia		0,2
180 Antolakuntza		0,2
190 Arte ederrak		1,6
200 Jostaldiak		0,2
210 Literatura		31,2
211 Literaturaren historia =	14,2	
212 Bertsoak =	15,7	
213 Antzerkia =	8,2	
214 Elaberria =	19,4	
215 Herri literatura =	0,7	
216 Olerkiak =	28,4	
217 Ipuinak =	13,4	
220 Geografia		2,1
230 Historia		5,8
		100,

013 — H bi bokale berdinen artean

Aztergaia	Adibidea	%
H bi bokale berdinen artean	Zahar	63,3
Bi bokale berdinak, baina H-rik ez	Zaar	16,5
Bokale bat bakarra	Zar	19,3
Zehaztugabe		0,2
Informaziorik eza		0,7
		100,

014 — H izenorde eta kidekoetan

H izenorde eta kidekoetan	Hau	62,4
Izenorde eta kidekoetan H-rik ez	Au	37,4
Zehaztugabe		—
Informaziorik eza		0,2
		100, —

015 — H hitz haseretan

H hitz haseretan	Harri	62,0
Hitz haseretan H-rik ez	Arri	37,8
Zehaztugabe		—
Informaziorik eza		0,2
		100, —

016 — H bi bokale ezberdinen artean

H bokale ezberdinen artean	Zihur	62,7
Bokale ezberdinen artean H-rik ez	Ziur	37,1
Zehaztugabe		—
Informaziorik eza		0,2
		100, —

—017 — H silabikoa

Kontsonante ondoko H silab. ez	senar	96,3
Kontsonante ondoko H silabikoa	senhar	3,5
Zehaztugabe		—
Informaziorik eza		0,2
		100, —

018 — H oklusibo aspiratua

Kontson. ondoko H oklusiborik ez	ikusi	96,8
Kontsonante ondoko H oklusiboa	ikhusi	3,0
Zehaztugabe		—
Informaziorik eza		0,2
		100, —

019 — N-ren erabilkera

I ondoko N bustidurarik gabe	baina	58,9
I ondoko N bustidurarekin	baiña	27,1
I kenduz Ñ	baña	13,6
Zehaztugabe		0,2
Informaziorik eza		0,2
		100, —

020 — L-ren erabilkera

I ondoko L bustidurarik gabe	oilo	59,3
I ondoko L bustidurarekin	oillo	28,5
I kenduz LL	ollo	11,8
Zehaztugabe		0,2
Informaziorik eza		0,2
		100, —

021 — J/Y,I. Hitz haseretan

Aztergaia	Adibidea	%
J erabiltzen da	Jainkoa	97,5
J ordez Y	Yainkoa	1,4
J ordez I	Iainkoa	0,9
Zehaztugabe		—
Informaziorik eza		0,2
		100, —

022 — I.—Izen aldakin bezala j, x, y

Hitz bukaeratan I	Mendia	96,0
Hitz bukaeratan I ordez Y	Mendiya	3,2
Hitz bukaeratan I ordez J	Mendija	0,2
Hitz bukaeratan I ordez X	Mendixa	0,2
Zehaztugabe		0,2
Informaziorik eza		0,2
		100, —

023 — I/Y,—Bokalen artean i eta y

Bokale artean I	Jaio	93,3
Bokale artean I ordez Y	Jayo	6,0
Zehaztugabe		0,5
Informaziorik eza		0,2
		100, —

024 — X/CH

X eta ez CH	Goxo	97,7
X ordez CH	Gocho	0,7
Zehaztugabe		0,7
Informaziorik eza		0,9
		100, —

025 — TX/TCH

TX eta ez TCH	Etxe	98,8
TX ordez TCH	Etche	0,5
Zehaztugabe		0,5
Informaziorik eza		0,2
		100, —

026 — '/-, Deklinabidean marratxoa eta apostrofoa

Izen propioen deklin. marra	Kijote-k	66,6
Izen propioen deklin. apostrofoa	Kijote'k	31,6
Zehaztugabe		0,2
Informaziorik eza		1,6
		100, —

027 — EK. Ergatibo plurala

Ergatibo pluralean -EK	Gizonek egin dute	66,3
Ergatibo pluralean -EK ez	Gizonak egin dute	26,7
Zehaztugabe		4,2
Informaziorik eza		2,8
		100, —

028 — EI. Datibo plurala

Datibo pluralean -EI	Gizonei	61,5
Datibo pluralean -AI	Gizonai	14,8
Datibo pluralean -ERI	Gizoneri	15,8
Datibo pluralean -ER	Gizoner	1,2
Zehaztugabe		3,9
Informaziorik eza		2,8
		100, —

029 — KIN.—Asoziatiboa

Asoziatiboan -KIN	Gizonekin	88,6
Asoziatiboan -GAZ	Gizonakaz	7,2
Asoziatiboan -KILAN	Gizonekilan	0,7
Zehaztugabe		1,6
Informaziorik eza		1,9
		100, —

030 — -E/-EE.—Bizkaiko erakusleetan

Erakusleetan HAUEK eta kidekoak	Hauek	88,7
Erakusleetan HONEEK eta kid.	Honeek	4,9
Erakusleetan HONEIK eta kid.	Honeik	3,9
Zehaztugabe		0,9
Informaziorik eza		1,6
		100, —

031 — -(TU), -(I).—Aditz izen mugagabea

Laguntzailearekin aditz izen mugagabea	Ekar dezake	58,2
Aditz izen mugagabea subj. eta inperatiboetan bakarrik	Ekar dezagun	10,9
Aditz izen mugagaberik ez	Ekarri dezagun	19,3
Zehaztugabe		8,8
Informaziorik eza		2,8
		100, —

032 — DUT/DET... Adizkerak

DUT adizkera	71,0
DET adizkera	13,9
DOT adizkera	13,0
DUT adizkera	0,7
Zehaztugabe	0,5
Informaziorik eza	0,9
	100, —

033 — DIEZA-, DEZAI-, adizkerak

DIEZA- sistema	Ekar diezaion	14,4
DEZAI- sistema	Ekar dezaion	24,6
Besterik	Ekar deion...	8,8
Zehaztugabe		48,5
Informaziorik eza		3,7
		100, —

034 — -IT-/-Z. Hainitzailea

Hainitzailean -IT-	Ditut	92,6
Hainitzailean -IT- eta -Z	Ditudaz	2,6
Hainitzailean -Z	Dodaz	3,2
Besterik		0,2
Zehaztugabe		0,2
Informaziorik eza		1,2
		100, —

035 — -E-/-A-. Bokale lotzailea

-E- bokale lotzaile	Duela	64,0
-A- bokale lotzaile	Duala	33,2
Besterik	Dula	1,4
Zehaztugabe		0,2
Informaziorik eza		1,2
		100, —

Urteak eta gaiak

Urteak	Orotariak	Filosofia	Erlijioa	Soziologia	Zientzia politikoak	Zuzena	Arte eta Zientzia milit.	Irakaskintza	Merkataritza	Etnologia	Hizkuntza	Matematika	Natur Zientziak	Medikuntza	Ingeniaritza	Nekazaritza	Etxe ekonomia	Antolokuntza	Arte ederrak	Jostaldiak	Literatura	Geografia	Historia	Denetara
1967	3,2	—	19,4	—	—	—	—	—	—	3,2	6,5	—	—	—	—	—	—	—	6,5	3,2	54,8	—	3,2	100
1968	5,6	—	33,3	—	—	—	—	—	—	—	5,5	—	5,6	—	—	—	—	—	—	—	44,4	—	5,6	100
1969	12,5	—	20,8	4,2	4,2	—	—	—	—	—	—	—	—	—	1,2	—	—	—	—	—	45,8	8,3	—	100
1970	5,6	—	11,1	11,1	—	—	—	—	—	—	5,5	—	—	5,6	16,6	5,6	—	—	—	—	38,9	—	—	100
1971	9,1	—	9,1	18,3	9,1	—	—	4,5	—	—	4,5	—	—	—	4,5	—	—	—	4,5	—	22,8	4,5	9,1	100
1972	9,7	2,7	9,6	6,8	1,4	—	—	11,0	—	4,1	6,8	1,4	9,6	—	3,7	—	1,4	—	—	—	30,1	—	2,7	100
1973	3,3	—	3,3	6,7	3,3	—	—	3,3	—	6,7	20,0	—	—	—	—	—	—	—	—	—	46,7	—	6,7	100
1974	3,7	—	14,8	7,4	3,7	—	—	7,4	—	—	29,6	—	—	—	—	—	—	—	3,7	—	18,6	3,7	7,4	100
1975	7,7	—	12,8	5,1	2,6	—	—	25,6	—	2,5	2,6	—	10,3	—	2,6	—	—	—	—	—	23,1	—	5,1	100
1976	16,1	—	6,5	3,2	—	—	—	3,2	—	12,9	9,7	—	3,2	—	3,2	—	—	—	—	—	22,7	3,2	16,1	100
1977	11,1	—	4,3	4,3	3,4	1,7	—	12,8	—	1,7	16,2	—	1,7	—	2,6	1,7	—	0,9	2,6	—	24,8	3,4	6,8	100

Urteak eta hizkuntz-mota

Urteak	Batasuna	Gipuzkera	Bizkaiera	Ipar E.H.ko euskalkiak	Zehaztugabe	Denetara
1967	3,2	51,6	29,0	6,5	9,7	100
1968	11,1	33,3	38,9	11,1	5,6	100
1969	29,2	25,0	16,6	29,2	—	100
1970	50,0	33,3	16,7	—	—	100
1971	59,1	22,7	4,6	13,6	—	100
1972	67,5	17,6	4,1	8,1	2,7	100
1973	53,4	33,3	3,3	10,0	—	100
1974	44,5	11,1	29,6	14,8	—	100
1975	61,5	30,8	5,1	2,6	—	100
1976	32,3	32,3	12,9	12,9	9,6	100
1977	68,4	12,8	12,0	5,1	1,7	100

URTEAK eta batasun-formak

	013	014	015	016	019	020	026	027	028	031	032	035
1967	9,7	9,7	9,7	9,7	9,7	9,7	19,4	19,4	29,0	25,8	22,6	9,7
1968	27,8	28,2	22,2	22,2	16,7	16,7	27,8	16,6	16,7	22,2	27,8	22,2
1969	66,7	62,5	62,5	62,5	45,8	45,9	54,2	62,5	37,5	62,5	62,5	62,5
1970	50,0	50,0	50,0	50,0	50,0	50,0	61,1	61,1	50,0	55,5	72,2	55,6
1971	68,2	72,7	68,2	72,7	68,2	68,2	72,7	81,8	68,2	72,7	77,3	72,7
1972	77,0	72,9	73,0	74,3	71,6	71,6	77,0	77,0	68,9	71,6	86,5	77,0
1973	63,3	63,3	63,3	63,3	56,7	53,3	73,3	60,0	70,0	56,7	63,4	56,4
1974	59,3	59,3	59,3	59,3	59,3	59,3	59,3	63,0	70,4	51,9	66,7	63,9
1975	61,5	61,5	59,0	61,5	64,1	64,1	76,9	79,5	66,6	56,4	84,6	66,6
1976	48,4	51,6	51,6	51,6	48,4	51,6	51,6	64,5	58,1	48,4	71,0	54,9
1977	80,3	79,5	79,5	79,5	74,4	75,2	81,2	76,9	72,7	65,8	79,5	80,3

Giltza:

013 — H bi bokale berdinen artean: zahar
014 — H izenorde eta kidekoetan: hau
015 — H hitz haseretan: harri
016 — H bokale ezberdinen artean: zihur
019 — I ondoko N bustidurarik gabe: baina
020 — I ondoko L bustidurarik gabe: oilo
026 — Izen propioen deklinabidean marra: Kijote-k
027 — Ergatiko pluralean -EK: gizonek egin dute
028 — Datibo pluralean -EI: gizonei
031 — Laguntzailearekin aditz izen mugagabea: Ekar dezake
032 — DUT adizkera
035 — -E- bokale lotzaile: duela

Urteak eta bokale berdinen arteko H

Urteak	01	02	03	09	00	Denetara
1967	9,7	35,5	51,6	3,2	—	100
1968	27,8	16,7	55,5	—	—	100
1969	66,7	4,2	29,1	—	—	100
1970	50,0	22,2	27,8	—	—	100
1971	68,2	22,7	4,5	—	4,6	100
1972	17,0	9,5	13,5	—	—	100
1973	63,3	13,3	23,4	—	—	100
1974	59,3	7,4	33,3	—	—	100
1975	61,5	30,8	7,7	—	—	100
1976	48,4	29,0	19,4	—	3,2	100
1977	80,3	11,1	7,7	—	0,9	100

Giltza

01 — H bi bokale berdinen artean: Zahar.
02 — Bi bokale berdinak, baina H-rik ez: Zaar.
03 — Bokale bat bakarra: Zar.
09 — Zehaztugabe.
00 — Informaziorik eza.

Urteak eta N-ren bustidura

Urteak	01	02	03	09	00	Denetara
1967	9,7	48,4	41,9	—	—	100
1968	16,7	50,0	27,7	5,6	—	100
1969	45,8	37,6	16,6	—	—	100
1970	50,0	33,3	16,7	—	—	100
1971	68,2	18,2	13,6	—	—	100
1972	71,6	18,9	9,5	—	—	100
1973	56,7	23,3	20,0	—	—	100
1974	59,3	29,6	11,1	—	—	100
1975	64,1	25,6	10,3	—	—	100
1976	48,4	32,3	19,3	—	—	100
1977	74,4	21,4	3,4	—	0,8	100

Giltza

01 — I ondoko N bustidurarik gabe: baina
02 — I ondoko N bustidurarekin: baiña
03 — I kenduz Ñ: baña
09 — Zehaztugabe
00 — Informaziorik eza

Urteak eta L-ren bustidura

Urteak	01	02	03	09	00	Denetara
1967	9,7	54,8	35,5	—	—	100
1968	16,7	55,5	22,2	5,6	—	100
1969	45,9	33,3	20,8	—	—	100
1970	50,0	38;9	11,1	—	—	100
1971	68,2	18,2	13,6	—	—	100
1972	71,6	21,6	6,8	—	—	100
1973	53,3	26,7	20,0	—	—	100
1974	59,3	33,3	7,4	—	—	100
1975	64,1	23,1	12,8	—	—	100
1976	51,6	38,7	9,7	—	—	100
1977	75,2	19,6	4,3	—	0,9	100

Giltza

01 — I ondoko L bustidurarik gabe: oilo
02 — I ondoko L bustidurarekin: oillo
03 — I kenduz LL: ollo
09 — Zehaztugabe
00 — Informaziorik eza

Urteak eta marra eta apostrofoaren erabilkera

Urteak	01	02	09	00	Denetara
1967	19,4	80,6	—	—	100
1968	27,8	72,2	—	—	100
1969	54,2	45,8	—	—	100
1970	61,1	33,3	5,6	—	100
1971	72,7	27,3	—	—	100
1972	77,0	23,0	—	—	100
1973	73,3	26,7	—	—	100
1974	59,3	37,0	—	3,7	100
1975	76,9	23,1	—	—	100
1976	51,6	45,2	—	3,2	10
1977	81,2	14,5	—	4,3	100

Giltza

01 — Izen propioen deklinabidean marra: Kijote-k
02 — Izen propioen deklinabidean apostrofoa: Kijote'k
09 — Zehaztugabe
00 — Informaziorik eza

Urteak eta ergatibo plurala

Urteak	01	02	09	00	Denetara
1967	19,4	64,5	16,1	—	100
1968	16,6	66,7	16,7	—	100
1969	62,5	33,3	—	4,2	100
1970	61,1	33,3	5,6	—	100
1971	68,8	18,2	—	—	100
1972	77,0	18,9	2,7	1,4	100
1973	60,0	33,3	6,7	—	100
1974	63,0	33,3	3,7	—	100
1975	79,5	17,9	2,6	—	100
1976	64,5	29,1	3,2	3,2	100
1977	76,9	13,7	1,7	7,7	100

Giltza

01 — Ergatibo pluralean -EK: Gizonek egin dute
02 — Ergatibo pluralean -EK ez: Gizonak egin dute
09 — Zehaztugabe
00 — Informaziorik eza

Urteak eta datibo plurala

Urteak	01	02	03	04	09	00	Denetara
1967	29,0	48,4	12,9	—	9,7	—	100
1968	16,7	55,6	16,7	—	5,5	5,5	100
1969	37,5	20,9	33,3	0,3	—	—	100
1970	50,0	27,8	22,2	—	—	—	100
1971	68,2	4,5	22,7	—	4,6	—	100
1972	68,9	6,7	18,9	—	4,1	1,4	100
1973	70,0	16,7	10,0	3,3	—	—	100
1974	70,4	11,1	18,5	—	—	—	100
1975	66,6	2,6	20,5	—	7,7	2,6	100
1976	58,1	12,9	22,6	3,2	—	3,2	100
1977	72,7	8,5	6,0	0,9	5,1	6,8	100

Giltza

01 — Datibo pluralean -EI: Gizonei
02 — Datibo pluralean -AI: Gizonai
03 — Datibo pluralean -ERI: Gizoneri
04 — Datibo pluralean -ER: Gizoner
09 — Zehaztugabe
00 — Informaziorik eza

Urteak eta "izenkien" erabilkera

Urteak	01	02	03	09	00	Denetara
1967	25,8	9,7	38,7	25,8	—	100
1968	22,2	16,7	44,4	16,7	—	100
1969	62,5	16,7	16,7	4,1	—	100
1971	72,7	4,6	18,1	4,6	—	100
1972	71,6	5,4	17,5	4,1	1,4	100
1973	56,7	10,0	20,0	13,3	—	100
1974	51,9	18,5	25,9	3,7	—	100
1975	56,4	12,8	20,5	7,7	2,6	100
1976	48,4	22,6	16,1	9,7	3,2	100
1977	65,8	10,3	9,4	6,8	7,7	100

Giltza

01 — Laguntzailearekin aditz izen mugagabea: Ekar dezake
02 — Aditz izen mugagabea subjuntiboetan eta inperatiboetan bakarrik: Ekar dezagun
03 — Aditz izen mugagaberik ez: Ekarri dezagun
09 — Zehaztugabe
00 — Informaziorik eza

Urteak eta UKAN adizkerak

Urteak	01	02	03	04	09	00	Denetara
1967	22,6	48,4	29,0	—	—	—	100
1968	27,8	33,3	33,3	—	5,6	—	100
1969	62,5	20,8	16,7	—	—	—	100
1970	72,2	11,1	16,7	—	—	—	100
1971	77,3	18,2	4,5	—	—	—	100
1972	86,5	8,1	5,4	—	—	—	100
1973	63,4	30,0	3,3	3,3	—	—	100
1974	66,7	3,7	29,6	—	—	—	100
1975	84,6	7,7	7,7	—	—	—	100
1976	71,0	9,7	9,7	3,2	3,2	3,2	100
1977	79,5	5,2	12,0	0,7	—	2,6	100

Giltza

01 — DUT adizkera
02 — DET adizkera
03 — DOT adizkera
04 — DUT adizkera
09 — Zehaztugabe
00 — Informaziorik eza

Urteak eta bokale lotzailea

Urteak	01	02	03	09	00	Denetara
1967	9,7	90,3	—	—	—	100
1968	22,2	66,6	5,6	5,6	—	100
1969	62,5	37,5	—	—	—	100
1970	55,6	38,9	5,5	—	—	100
1971	72,7	27,3	—	—	—	100
1972	77,0	20,3	2,7	—	—	100
1973	56,7	40,0	—	—	3,3	100
1974	63,0	37,0	—	—	—	100
1975	66,6	33,4	—	—	—	100
1976	54,9	38,7	3,2	—	3,2	100
1977	80,3	16,2	0,9	—	2,6	100

Giltza

01 — -E- bokale lotzaile: Duela
02 — -A- bokale lotzaile: Duala
03 — Besterik: Dula
09 — Zehaztugabe
00 — Informaziorik eza

Hizkuntz-mota eta batasun-formak

	013	014	015	016	017	018	019	020	021	022	023	026	027	028	031	032	035
Euskara batua	99,1	97,8	96,9	98,2	98,7	97,8	94,6	94,6	99,6	100	100	94,6	91,5	87,5	84,8	98,7	96,9
Gipuzkera	2,9	2,-	2,-	2,-	98,-	98,-	2,-	2,-	98,	90,2	81,4	20,6	32,4	39,2	17,6	42,2	11,8
Bizkaiera	19,6	17,9	17,9	17,9	98,2	98,2	8,9	10,7	91,1	92,9	89,3	28,6	16,1	41,1	7,1	3,6	16,1
I. E. H. euskalk.	94,7	100	97,4	97,4	76,3	86,8	89,5	89,5	100	100	100	94,7	97,4	2,6	94,7	92,1	97,4
Zehaztugabe	9,1	—	9,1	9,1	90,9	90,9	9,1	9,1	72,7	63,6	63,6	18,2	18,2	45,5	27,3	45,5	9,1

Giltza

013 — H bi bokale berdinen artean: zahar.
014 — H izenorde eta kidekoetan: hau.
015 — H hitz haseretan: harri.
016 — H bi bokale ezberdinen artean: zihur.
017 — Kontsonante ondoko H silabikorik ez: senar.
018 — Kontsonante ondoko H oklusiborik ez: ikusi.
019 — I ondoko N bustidurarik gabe: baina.
020 — I ondoko L bustidurarik gabe: oilo.
021 — J erabiltzen da: Jainkoa.
022 — Hitz bukaeratan I: mendia.
023 — Bokale artean I: jaio.
026 — Izen propioen deklinabidean marra: Kijote-k.
027 — Ergatibo pluralean -EK: gizonek.
028 — Datibo pluralean -EI: gizonei.
031 — Laguntzailearekin aditz izen mugagabea: ekar / dezake.
032 — DUT adizkera.
035 — -E- bokale lotzaile: duela.

GAIAK eta Hizkuntz-mota

	Batasuna	Gipuzkera	Bizkaiera	I.E.H. Euskalk.	Zehaztugabe	Denetara
Orotarik	55,2	18,4	13,2	13,2	—	100
Filosofia	100,0	—	—	—	—	100
Erlijioa	26,7	31,1	11,1	31,1	—	100
Soziologia	91,6	4,2	—	4,2	—	100
Zientzia polit.	81,8	18,2	—	—	—	100
Zuzena	100,0	—	—	—	—	100
Arte eta Z.Milit.	—	—	—	—	—	—
Irakaskuntza	71,1	10,5	15,8	—	2,6	100
Merkatalgoa	—	—	—	—	—	—
Etnologia	38,5	53,8	—	—	7,7	100
Hizkuntzalaritza	51,1	10,6	31,9	—	6,4	100
Matematikak	—	100,0	—	—	—	100
Natur Zientziak	80,0	13,3	—	—	6,7	100
Medikuntza	—	100,0	—	—	—	100
Inginaritza	41,7	41,7	8,3	—	8,3	100
Nekazaritza	33,3	66,7	—	—	—	100
Etxe ekonomia	100,0	—	—	—	—	100
Antolakuntza	100,0	—	—	—	—	100
Arte ederrak	42,8	42,8	—	14,4	—	100
Jostaldiak	—	—	—	—	100, —	100
Literatura	41,8	27,6	16,4	11,9	2,3	100
Geografia	44,4	55,6	—	—	—	100
Historia	64,0	24,0	8, —	4, —	—	100

Urtearen eta hizkuntz motaren arauera orrialdeak eta folioak

	Batasuna		Gipuzkera		Bizkaiera		Ipar. E.H. eusk.		Zehaztugabe		Denetara	
	Orriald.	Folioak	Orr.	Fol.	Orr.	Fol.	Orr.	Fol.	Orr.	Fol.	Orr.	Fol.
1967	3,3	0,6	62,9	65,–	24,6	25,5	2,8	4,8	6,4	4,1	100	100
1968	7,9	4,2	31,5	34,9	35,3	49,2	15,2	8,5	10,1	3,2	100	100
1969	46,4	52,1	22,	23,2	8,2	4,1	23,4	20,6	–	–	100	100
1970	45,4	57,1	41,4	39,	13,2	3,9	–	–	–	–	100	100
1971	60,9	66,1	19,3	15,6	5,6	6,8	14,2	11,5	–	–	100	100
1972	62,1	67,8	18,4	16,8	4,4	5,	11,3	8,7	3,8	1,7	100	100
1973	50,4	44,	47,4	54,4	0,4	0,2	1,8	1,4	–	–	100	100
1974	39,7	32,1	20,9	19,7	23,6	22,2	15,8	26,0	–	–	100	100
1975	59,9	58,7	32,1	32,5	4,6	5,3	3,4	3,5	–	–	100	100
1976	19,2	11,8	30,9	21,9	34,6	59,2	7,5	2,2	7,8	4,9	100	100
1977	65,4	63,7	20,1	23,6	7,9	4,3	6,0	8,1	0,6	0,3	100	100
Denetara	48,5	46,3	28,2	28,3	12,6	15,8	8,3	8,2	2,4	1,4	100	100

Egia esan, batasunaren pisu espezifikua ulertzeko, lehen bi urteak (1967, 1968) kontaketatik kanpo utzi behar dira. Hauk lirateke orduan datuak:

1969-1977	54,2	51,0	25,3	25,8	10,5	13,7	8,3	8,4	1,7	1,1	100	100

EUSKARA BATUA ETA IRAKASKUNTZA

Bergara, 1978-IX-5

Mendiguren, Xabier

Zalantzarik gabe, euskara batuari dagokionean, irakaskuntz mundua izan da garrantzi handieneko alorra beronen aurrerabiderako. Horregatik, hiru inkesta moduren bitartez alor hau aztertzea erabaki dugu.

— Lehenengo inkesta Hego Euskadiko 570 irakasleri banatu diogu. Hauetarik 269 Gipuzkoan daude; 166 Bizkaian; 91 Nafarroan eta 44 Araban. Inkestatuok aukeratzean oso kontutan hartu da bakoitza lanean ari deneko ikastolaren tamaina, faktore honek izan dezakeen garrantziagatik.

Inkestak 13 galdera egiten zizkion bakoitzari, beraz, bildu den informazio masa aski zabala delarik eta korrelazio multzo ugariak egitea posible izanik, guk geuk aukeraketa mugatu bat egin dugu euskara batuaren dinamika eta gorabeherak aztertzeko interesgarrienak izan daitezkeen datuak hautatuz. Kontutan har bedi lan hau burutzeko epea guztiz mugatua izan dela eta ahalik eta informazio garrantzizkoena ematen ahaleginduko garela saio labur honetan inkestaren sakonketa gerorako utziz.

01-03: Sarrerako datu interesgarri gisa honako hau eman dezakegu: Inkestatuen % 24,6 gizonezkoek osotzen dutela, eta % 73,7 emakumezkoek (% 1,8 da indeterminazio tasa).

01-05: Euskal irakasle tituluari dagokionez inkestatuen % 46 titularen jabe agertzen da (262 irakasle); eta % 54 (308) dire euskal titulo gabeak.

01-07: Euskaldun zahar-berritasunari dagokionean % 13,2 (75) dira euskaldun berriak. Kopuru hau azpimarkagarria dela uste dugu.

01-11: Inkestatu hauek nori irakasten dioten galdeturik % 43 k euskaldunei soilik irakasten die; % 25,4 k erdaldunei soilik eta % 26,1 ek ditu ikasle euskaldunak eta erdaldunak.

01-12: Gaiak euskaraz (ez euskara soila) irakasteari dagokionez % 61,1 ek aitortzen du erdaraz irakasten dituelakoa; % 31,8 k berriz euskaraz ematen dituela.

01-14: Euskara batuaren ezagupideaz galdetzean, *ongi* ezagutzen dutela % 31,8 k erantzun dute; *erdizka* % 61,1 ek eta *gaizki* % 6,0 k.

01-17: Euskara batua irakaskuntzan erabiltzen al duen galdetzean, % 90,9 k BAIETZ erantzun dute, baina zertan edo zer neurritan erabiltzen duen zehazteko eskatzean honako beste kopuru hauk eman dituzte:

.mintzatzean soilik	% 10,4
.irakurgaietan	% 2,6
.idaztean	% 1,6
.mintzatzean, irakurtzean eta idaztean globalki	% 62,3
.irakurtzean eta idaztean	% 1,6
.mintzatzean eta irakurtzean	% 1,6
.mintzatzean eta idaztean	% 1,8
.erdizka	% 0,2
.eta ez du erantzun	% 1,2

Euskara batua erabiltzen ez dutela erantzun dutenek % 7,9 dira (518 tik 45).

01-18: Batua beharrezkoa den ala ez galdetzean % 81,2 k beharrezkoa dela erantzun du, % 12,6 k komenigarria dela, % 3,3 k beharrezkoa eta komenigarria dela, ez dela beharrezko % 0,4 k eta kaltegarri dela % 0,7 k. Ikus daitekeenez beharrezkotasuna % 97,1 ek aitortzen du. Ez dela beharrezko edo eta kaltegarri dela % 1,1 ek aitortzen du. % 1,6 k ez du eritzirik.

01-19: Euskara batuaren beharrezkotasunaren arrazoiak aipatzean, euskararen iraupen arrazoiak artzen du lehen postua (% 34,6); kultura modernorako tresna bihurtze arrazoiaren alde agertzen dira % 23 eta biok batera aipatzen dituztenak % 29,5 dira. Besterik pentsatzen dutenak % 9,1 dira eta eritzirik ez dutenak % 3,5.

01-20: Euskara batua ez beharrezkotzat edo kaltegarritzat jotzen dutenak (9 k erantzun dute) egin den batasuna ez dela egokia esaten dute 6 k (% 1,1). Beste bik beste arrazoi batzu aipatzen dituzte (% 0,4) eta batek aipatzen ditu hiru arrazoi batera (euskalkiak nahiko direla, egin nahi den batasuna ez dela egokia eta hizkuntzaz aparteko arrazoiak) Erantzun honek % 0,2 suposatzen du.

01-21: Inkestaturiko 570 etik, 3 k soilik ez dute eritzirik euskara batua beharrezkoa den ala ez den galdetzean (% 0,6).

01-22: Euskaldunei batua irakasteak eragozpenik sortzen duen galdetzean, informaziorik eza nabaria da, % 25,3 k ez du ezer esaten. Baietz erantzun dutenak % 32,1 dira eta ezetz erantzun dutenak berriz % 31,6. Erantzun indeterminatuak % 11,1 suposatzen du.

01-23: Haur euskaldunei batua irakastean zer eratako zailtasunak aurkitzen dituzten galdetzean ere informazio eza nabaria da (% 56,1). Gehien aipatzen den zailtasuna euskalki desberdintasuna da (% 17); ondoren, euskara batuaren ezagupiderik eza (% 3,3), batuaren zailtasuna (% 3,2), euskalki desberdintasuna eta batuaren ezagupide eza batera (% 3) eta abar. % 11,1 ek ez du erantzun.

01-24: Haur erdaldunei batua irakasteak hizkuntza aldetik eragozpenik sortzen al duen galdetzean, barriro ere informaziorik eza ohargarria da (% 43,5). *Bai* erantzun dutenak % 12,3 dira, eta *ez* erantzun dutenak % 31,2. % 13 k ez du erantzun.

01-25: Zer eratako zailtasunak aurkitzen diren galdetzean, erdaldunei buruz oraingoan, informaziorik eza askoz nabariagoa da (% 75,8) eta erantzun indeterminatuek % 12,6 suposatzen dute. Aipatzen den arrazoi nagusiena euskara batuaren ezagupide falta da (% 3).

01-26: Euskara batuzko testuak egokiak ala desegokiak diren galdetzean, % 46,8 k egokiak direla aitortzen du eta % 6,3 soilik jotzen ditu desegokitzat. Eritzirik eza eta besterik erantzun dutenak % 35,6 dira. Erantzunik ezak % 11,2 suposatzen du.

01-27: Ondoren, euskalkizko testuen premiaz galdetu da, eta % 47,5 ek beharrezkoak direla erantzun du; % 44,7 k ezetz erantzun du; % 7,5 ek ez du erantzun.

01-28: Euskalkizko testuak zer mailatan behar diren galdetzean, informaziorik eza % 37,5 da eta erantzun dutenen artean, eskolaurrean (% 15,1) eta EGB-1 ean (% 20) ageri da premiarik handiena.

GEHIGARRIAK

(01-05 ren ondoren)

05-06: Zer eratako euskal tituluaren jabe diren galdetzean informaziorik eza % 54 da; % 30 ek "D" irakasle titulua du; 3 k (% 0,5) "B" irakasle titulua du; beste titulu batzu dituztenak 40 (% 7) dira; "D" eta "B" dituztenak % 1,2; "D" eta Hizkuntz Eskolakoa dutenak 17 (% 3) dira; Hizkuntz Eskolakoa soilik dutenak 6 (% 1,1) erantzunik eman ez dutenak % 2,6.

(01-14 ren ondoren)

14-15: Euskara batuaren ezagupidean hutsunerik ba al duten eta zer sailetan galdetzean honako hauk izan dira erantzunak: hutsunerik ez dutela aitortu dutenek 74 (% 13) dira; ortografian hutsunea dutenak % 4,2; deklinabidean % 1,6, aditzean % 30,4, sintasian % 15,6, sail denetan % 15,3, aditza eta sintasian % 12,6 eta deklinabidean eta aditzean % 1,9. Ikus daitekeenez, aditza eta sintasian aurkitzen dute irakasleek zailtasunik handiena, bai eta hizkuntzaren orokortasunean ere.

1418: Batuaren ezagupidea hiru mailatan banatu ondoren (ongi, erdizka eta gaizki), beronen beharrezkotasunaz galdetu zaie: ONGI dakitenen % 89 k beharrezkoa dela aitortu du, ERDIZKA dakitenen % 79 k eta GAIZKI dakitenen % 64,7 k. Baina komenigarria dela erantzun dutenak % 3,9 dira ONGI dakitenen artean, % 15,5 berriz ERDIZKA dakitenen artean eta % 26,5 GAIZKI dakitenen artean. ONGI eta GAIZKI dakitenen artean inork ez du aitortzen beharrezkoa ez denik; ERDIZKAkoen artean berriz 2 k (% 0,6). ONGI dakitenen artean inork ez du erantzun kaltegarria denik ere, baina ERDIZKA eta GAIZKI dakitenen artean 4 dira kaltegarritzat jotzen dutenak.

14-26: Lehen bezala batuaren ezagupidea hiru mailatan banaturik, batuzko testuak egokiak ala desegokiak diren gal-

deren arteko korrelazioak hau ematen du: ONGI dakitenen % 55,2 k, ERDIZKA dakitenen % 44,8 k eta GAIZKI dakitenen % 29,4 k egokiak direla aitortzen dute, eta ONGI dakitenen artean % 8,8 k, ERDIZKAkoen artean % 4,6 k eta GAIZKI dakitenen artean % 8,8 k desegokiak direla aitortzen dute. Eritzirik eza % 5 da ONGI dakitenen artean, % 12,1 ERDIZKA dakitenen artean eta % 38,2 GAIZKI dakitenen artean.

14-27: Euskara batuaren ezagupidea eta euskalkizko testuen premia korrelazioan ipintzean kopuru hauk agertzen dira: ONGI dakitenen artean % 33,7 k beharrezkoak direla aitortzen du eta % 61,3 k ezetz diote. ERDIZKA dakitenen artean % 52,6 k beharrezkotzat jotzen dituzte eta % 38,8 k ez; eta GAIZKI dakitenen artean, % 67,6 k beharrezkotzat jotzen dituzte eta ezetza % 23,5 ek soilik ematen du.

Bigarren inkesta Hego Euskadiko ikastoletako zuzendari multzo bati zuzendu zaio. Guztira 99 zuzendariren erantzunak jaso dira. Berauen banaketa honela agertzen zaigu: Gipuzkoan 52, Nafarroan 20, Bizkaian 19 eta Araban 8.

01-10: Lehen galderak zer erabaki hartu duen ikastolak euskara batuari buruz eskatzen du. Euskara batua erabiltzeko erabakia hartu dutenak % 79 dira; ez erabiltzea espreski aipatzen dutenak % 3; erabakirik hartu ez dutenak ez alde ez aurka % 14 dira, eta besterik diotenak % 4.

Datu hau berau probintziaka aztertzen badugu, Araban Gipuzkoan eta Nafarroan ez erabiltzearen aldekorik ez da batere agertzen, eta Bizkaian aldiz 3 agertzen dira bertoko % 15,8 suposatzen dutelarik.

01-19: Erdaldun familietatik datozen haurrekin zer eratako hizkuntza erabiltzen duten galdetzean, informaziorik eza % 13 da eta nolabait batua erabiltzen dutenak % 82. Multzorik nagusienak (% 57) mintzatzean, irakurtzean eta idaztean bateratsu erabiltzen du euskara batua.

01-20: Erdaldun familietatik datozen haurrekin euskalkia erabiltzen den galdetzean berriz, informazio eza % 79 koa da. Irakurtzerakoan eta idazterakoan inork ez du erabiltzen. Ikus daitekeenez mintzatzea denaz bezain batean agertzen da euskalkiaren erabil-pen nabariena (% 6).

01-21: Irakasle, guraso eta haur euskaldunen aldetik euskara batuarengatik eragozpenik nabarmendu al den galdetzean, % 72 k ezetz erantzun du; % 27 k baietz eta erantzu-

nik eza % 1 ekoa da. Probintzia banaketari dagokionez, eragozpen tasa handiena Bizkaiak eskaintzen du (% 68,4) eta txikiena berriz, Nafarroak (% 5).

01-22: Zer eratako eragozpenak dauden irakasleen aldetik batua erabiltzeko eta berauei buruzko arrazoiak eskatzean, informaziorik eza % 77 koa da. Aipatzen diren arrazoietarik nagusiena "ezagupiderik eza" da (% 6), "euskalki desberdintasuna" k % 3 ematen du.

01-23: Gurasoen aldetik batuak dituen eragozpenei buruzko galdera egitean eman diren daturik garrantzizkoenak Bizkaikoak dira. Euskalki desberditasunak eta ezagupiderik ezak bien artean % 32 suposatzen dute; informaziorik eza % 31,6 koa da eta indeterminazioa % 26,3.

01-24: Haurren aldetik batuari buruz dauden eragozpenez galdetzean berriro ere Bizkaikoak dira, eta lehengoen antzeko zifrak aurkitzen ditugu.

01-25: EGBko testuei buruz zer eritzi duten galdetu zaienean honako erantzun hauk jaso dira: % 66 k batuan bakarrik behar direla erantzun du. Euskalkiz bakarrik behar direnik inork ez du erantzun. Bietan behar direla erantzun dutenak % 7 suposatzen dute. Eritzirik eza % 3 da eta indeterminazioa % 23.

Batuzko eta euskalkizko testuak, bietakoak behar direla erantzun dutenen artean, Bizkaiak ematen du zifrarik garrantzizkoena (% 21,1); Gipuzkoak % 5,8.

Batuan bakarrik behar direla erantzun dutenen artean Gipuzkoak % 84,6 eta Bizkaiak % 57,9 suposatzen dute, probintzia bakoitzaren barruan.

01-26: Batua erabiltzearen alde zenbat guraso agertzen den galderari erantzutean informaziorik eza % 45 ekoa da; % 100 alde daudenak % 31 dira; % 80 % 6, eta hortik beherako guztien artean % 9 suposatzen dute.

01-30: Euskara batua finkatzeko eta zabaltzeko zer premia ikusten duten galdetzean % 81 ek irakasleen prestakuntza aipatzen du garrantzizko beharrizan bezala, eta honetan ez da agertzen ezberdintasunik probintziaka. Ondoren, testuak egokitzea % 77. Hala ere, euskara batua komunikabideetan erabiltzearen garrantzia agertzen da aurreko bi premia hauen gainetik (% 84).

GEHIGARRIA

(01-10 en ondoren)

34-10: Batua erabiltzeko erabakia zenbatek espreski hartu duen galdetzean, % 78 k erantzun du positiboki; % 14 k ez du erabakirik hartu, eta % 3 k soilik erantzun du ez erabiltzeko erabakia hartu dutelakoa. Besterik erantzun dutenak % 4 dira.

ZUZENDARIEK LIBREKI AGERTU DUTEN ZENBAIT ERITZI

Zenbait galderatan inkestak berak espreski galdetzen zuenaz aparte, eritzi batzu emateko aukera izan du inkestatuak. Ondoren probintziaka eritzi hauen laburpen bat egiten ahaleginduko gara. Gehienbat agertzen diren kezken bilduma orokor bat eginez, ARABAk erantzun bakarrez hau dio: "Euskara batua irakasteko asmoa eta joera ba dagoela, baina hau honela gertatzea gehienbat andereñoaren eskutan dagoela, eta herri txikietan oraindik eskolaurrea besterik ez dagoela".

GIPUZKOAri dagokionez, euskara batuaren garrantziaz eta presentziaz zifra argiak eta esanguratsuak daudelarik, mintzatze mailan, irakasleek berek duten jokabide aski zehaztugabearengatik ez da oso erraza gertatzen euskara batu mintzatu honen erabilpena determinatzea. Irakasleen artean maila desberdinak daude euskalkitik baturanzko prozesu eta beste eldetik, kontuan hartu behar da haurra batuz mintzatzera bortxatzen ez delakoa.

Honen antzeko zerbait agertzen da NAFARROAko eritzietan ere.

BIZKAIko eritziak aztertzean gailen agertzen den kezka euskalkitik baturanzko pausuak pixkanaka eman beharra da, haur euskaldunei dagokienean batipat. Herriak darabilen euskara kontutan hartu beharra behin eta berriz azpimarkatzen da, bien galerarik gerta ez dadin.

Hirugarren eta azken inkesta erdal ikastetxe eta eskoletako euskararen 27 irakasleri zuzendu zaie, eta Gipuzkoan soilik burutu da.

25-30: Zenbat haurrek euskara batuan ikasten duten galdetzean, 24 irakaslek positiboki erantzun dute (% 88,9); 2

k (% 7,4) euskalkian, eta 1 ek soilik erantzun du besterik (% 3,7).

01-04: 27 irakasle hauetarik % 61,5 magisterio tituludunak dira; % 15,4 lizentzistuak, eta gainerakoak beheragoko ikasketa mailak dituztenak.

01-05: Euskal tituluari dagokionez, 16 (% 59,3) tituluren baten jabe dira; 11 (% 40,7) D titularen jabe; 1 (% 3,7) B tituluaren jabe, eta 4 (% 14,8) beste tituluren baten jabe.

01-07: 27 irakasle hauetarik, 23 (% 85,2) euskaldun zaharrak dira, eta 4 (% 14,8) euskaldun berriak.

01-11: 15 irakaslek (% 55,6) erdaldunei irakasten diete euskara; 2 k (% 7,4) euskaldunei, eta 9 k (% 33,3) euskaldunei eta erdaldunei batera.

01-12: Gaiak euskaraz irakasteari dagokionean, 7 soilik (% 25,9) dira baietza eman dutenak; beraz, 20 dira (% 74,1) euskara soila irakasten aritzen direnak.

01-32: Euskara batuaren ezagupideari dagokionez, 14 (% 51,9) dira ONGI dakitela erantzun dutenak; beraz, erdia baino gutxiago, 13 (% 48,1) ERDIZKA dakitela aitortzen dutenak.

01-33: Euskara batuaren ezagupidean, zer eratako hutsuneak dituzten galdetzean, 11 k (% 40,7) aditza aipatzen dute; 5 ek (% 18,5) sintasia eta denetarik esaten dutenak 6 (% 22,2). Oro har, hizkuntzak orokorki sortzen duen zailtasuna eta aditza eta sintasiarenak % 24 ko zailtasun tasa ematen du.

01-36: Euskara batua beharrezkoa dela aitortzen dutenak 21 (% 77,8) dira. Komenigarritzat 5 ek (% 18,5) jotzen dute. Inork ez du esaten beharrezkoa ez denik edo eta kaltegarria.

01-37: Euskara batuaren beharrezkotasunaren arrazoiak eskatzean, kultur modernorako tresna izate arrazoia aipatzen dute 10 ek (% 37), eta euskararen iraupen arrazoia 2 k (% 7,4), eta bi arrazoiok batera 14 k (% 51,9).

01-40: Haur euskaldunei batua irakastean hizkuntzak eragozpenik sortzen duen galdetzean, informaziorik eza % 55,6 koa da; BAI erantzuten dutenak 6 (% 22,2), eta EZ erantzuten dutenak 5 (% 18,5).

01-41: Batua euskaldunei irakasteak nolako zailtasuna sortzen duen galdetzean, informaziorik ezak % 71,4 suposatzen du. Euskalkiarekiko diferentziak % 14,4; beraz, hauxe gartatzen da zailtasun nabarmenena.

01-42: Haur erdaldunei batua irakastean hizkuntzak eragozpenik sortzen duen galdetzean berriz, informaziorik eza % 7,4 da. Eragozpenik ez dagoela aitortzen dutenak 20 (% 71,4) dira, eta 1 ek bakarrik aipatzen du eragozpena (% 3,7). Indeterminazioa % 14,8 da.

01-44: Euskara batuzko testuak nolakoak diren galdetzean 14 k (% 51,9) egokiak direla aitortu du; 1 ek (% 3,7) desegokiak direla esan du; eritzirik eza eta beste erantzunak bateraturik % 44,4 ko tasa gertatzen da.

01-45: Euskalkizko testuen premiarik ikusten al duten galdetzean, 15 ek (% 55,6) ezetz erantzun dute; bai erantzun dutenak 6 dira (% 22,2); erantzunik ezaren tasa 22,2 da.

ELKARRIZKETA

(Kasu hontan ez da ezer ulertzen, zeren gaizki grabaturik baitago)

ALFABETATZE-EUSKALDUNTZE IRAKASLEAK

Bergara, 1978 - IX - 5

Sagarna, Andoni

1. Taula

Gizasemeak	48,3 %
Emakumeak	50,4 %
Erantzunik ez	1,3 %

Emakume eta gizaseme bereizkeriarik gabe eta are emakumeak ugariago hartzen dute parte lan hontan.

2. Taula

non sexoa irakasle	Gizasemeak	Emakumeak	Erantzunik ez
Araban	35,7 %	64,3 %	0,0 %
Gipuzkoan	41,7 %	57,9 %	0,4 %
Nafarroan	57,1 %	39,6 %	3,3 %
Bizkaian	56,1 %	41,9 %	2,0 %

Araban ikastolatako andereñoek haurren gurasoei euskalduntze klaseak ematen dizkiete leku askotan. Horregatik emakume ugaritasun hori?

NON IRAKASLE 3. Taula

Araban	Gipuzkoan	Nafarroan	Bizkaian	Erantzunik ez
11,6 %	40,1 %	15,1 %	32,8	0,4 %

Gipuzkoan eta Bizkaian du indarrik handiena mugimendu honek, batez ere Gipuzkoan.

NON JAIOA 4. Taula

Araban	Gipuzkoan	Nafarroan	Bizkaian	Atzerrian	Erantzunik ez
4,1 %	51,4 %	12,8 %	30 %	1 %	0,7 %

Gipuzkoan jaioak dira erdiak baino gehiago. Ondoren Bizkaian jaioak datoz. Gipuzkoan bakarrik sortu da bertan irakasten duen baino irakasle gehiago.

5. Taulan ikus daiteke leku bakoitzean irakasten duen irakaslegoa non jaioa den eta alderantziz.

5. Taula

NON JAIOA

non irakasle	Araban	Gipuzkoan	Nafarroan	Bizkaian	Atzerrian	Erantzunik ez
Araban	76 % 27,1 %	11,9 % 52,9 % (1)	3,9 % 4,3 %	5,0 % 12,9 %		2,8 %
Gipuzkoan	16 % 1,7 % (2)	72,3 % 92,6 %	1,3 % 0,4 %	6,6 % 5,0 %	16,7 % 0,3 %	0
Nafarroan	4 % 1,1 %	6,5 % 22,0 %	87,0 % 73,6 %	7,7 % 3,3 %	83,3 % 0	0
Bizkaian	4 % 0,5 %	9,0 % 14,1 %	6,5 % 2,5 %	86,7 % 79,3 %	0 2,5 %	0 1,0 %
Erantzunik ez		0,3 %	1,3 %	0	0	

Adibidez:

(1) Araban irakasten dutenetatik zenbat diren gipuzkoarrak.
(2) Gipuzkoan irakasten dutenetatik zenbat diren arabarrak.

IRAKASLEEN ADINA 6. Taula

Adina	%
20 urte	17,0
20-25 urte	41,7
25-30 urte	23,3
30-35 urte	9,0
35-40 urte	3,5
40-50 urte	3,5
50 urte	2,0

30 urtez behetikoa da irakasleen 82,0 %
25 urtez behetikoa da irakasleen 58,7 %

ERDAL IKASKETAK

7. Taula

Kultura orokorra	42,0 %
Puerikultura eta antzekoak	0,8 %
Magisterioa, titulurik gabe	4,1 %
Magisterio tituludunak	13,1 %
Lizentziatuak	13,9 %
Beste zenbait	25,4 %
Erantzunik ez	0,7 %
	100 %

Irakaskuntzarako bereziki prestatuak : 32 %
Herritar soilak : 42 %
Jende ikasi ez espezializatua : 25 %

EUSKALTZAINDIAREN TITULUA

8. Taula

Bai	35,7 %
Ez	63,8 %
Erantzunik ez	0,5 %

9. Taula

Erdal ikasketak	Euskaltzaindiaren titulua	
	Bai	Ez
Kultura orokorra	35,3 %	45,8 %
Puerikultura	0,9 %	0,8 %
Magisterioa, titulurik gabe	5,6 %	3,4 %
Magisterio tituludunak	14,0 %	12,5 %
Lizentziatuak	21,9 %	9,6 %
Beste zenbait	21,9 %	27,3 %
Erantzunik ez	0,4 %	0,6 %
	100 %	100 %

Euskaltzaindiaren titulua dutenen artean irakasle izateko prestatuak: 42,4 %.

Euskaltzaindiaren titulurik ez dutenen artean irakasle izateko prestatuak: 26,3 %.

10. Taula

EUSKALDUN	
Zaharra	Berria
74,5 %	25,5 %

Euskaldun zaharrak gehiago dira noski, baina oso inportantea da euskaldun berriek irakaslegoaren laurdena osatzea.

NOLA EZAGUTZEN DUZU EUSKARA BATUA?

11. Taula

Ongi	40,5 %
Erdizka	56,1 %
Gaizki	3,2 %
Erantzunik ez	0,2 %

Gaizki ezagutzen duen askorik ez dago, baina erdiek baino gutxiagok ezagutzen dute ongi.

HUTSUNEAK 12. Taula

Hutsunerik ez	15,4 %
Ortografian	3,2 %
Deklinabidean	1,8 %
Aditzean	24,0 %
Sintaxian	15,9 %
Denetarik	18,6 %

Erdiak baino gehiagok (58,5 %) ba dituzte hutsuneak aditzean edo sintaxian.

Ortografia eta deklinabidea ez dira oztopo handienak.

EUSKARA BATUARI BURUZKO ERITZIA

13. Taula

Beharrezkoa da	83,6 %
Komenigarria da	9,6 %
Ez da beharrezkoa	0,3 %
Kaltegarria da	0,3 %
Besterik	0,5 %
Eritzirik ez	5,6 %

Aho batez euskara batuaren aldeko bezala azaltzen dira.

ZERGATIK BEHARREZKO EDO KOMENIGARRI?

14. Taula

Euskararen iraupenerako beharrezko delako	26,0 %
Euskara kultura moderno baten tresna bihurtzea beharrezkoa delako	25,5 %
Aurrezko bi arrazoiengatik	39,5 %
Besterik	7,1 %
Eritzirik ez	1,8 %

Alde daudenen artean gutxienez 65,5 %ek euskara batuaren beharra *"hil edo bizizkoa"* dela dio.

ALFABETATZAILEEN ERANTZUNAK

Euskalkiz hitzegiten dutenei batua irakasteak zer eragozpen sortzen ditu?

15. Taula

Eragozpenik ez	25,9 %
Euskalkiarekiko diferentziagatik	20,0 %
Irakasleen ezaguera falta	3,5 %
Batuaren zailtasunagatik	7,0 %
Besterik	20,0 %
Erantzunik ez	20,0 %

16. Taula

	Araban	Gipuzkoan	Nafarroan	Bizkaian
Euskalkiarekiko diferentziagatik	11,8 %	35,3 %	5,9 %	47,1 %

Kontuan izan behar da Gipuzkoako mugen barnean bizkaiera erabiltzen duten eskualdeak ba direla, beraz euskalki hau dutenentzat azaltzen da eragozpen hori.

EUSKARA BATUARI BURUZKO OHARRAK

Inkestatutako irakasleen artean 23,5 %ek egin dute oharren bat. Hona hemen gehiena errepikatu diren oharrak beren maiztasunaren arauera ordenatuta:

1. Ondo dago eta beharrezkoa da: 23,2 %.

2. Ondo dago irakurtzeko eta idazteko baina mintzatzeko euskalkiak gordez: 16,9 %.

3. Zalantzan diren gauzak (ortografian, sintaxian, etab.) lehenbait lehen finkatu: 12,7 %.

4. Askoz gehiago finkatu beharko litzateke. Hiztegi finkatua behar da: 9,1 %.

5. Metodologi arazoa ondo aztertu. Irakasleak behar bezala presta: 7,7 %.

6. Argibide eta programazio falta: 5,6 %.

7. Batuan idatzitako testu errazak falta dira: 5,6 %.

8. Herrikoiago izan dadila. Ez artifiziala. Behar ez diren zailtasunak ditu: 4,9 %.

9. Erdarakada gehiegi sartzen da: 3,5 %.

10. Kurtsiloak antolatu eta liburu egokiak edo atsegin xamarrak argitaratu irakasleentzat: 2,1 %.

11. Euskalkia ondo ezagutu arte ez da komenigarria euskara batuarekin hastea: 1,4 %.

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 5

Moderatzaile: *Haritschelhar, Jean*

Partaideak:

(1) *Mitxelena, K.:*

"Niri biziki egokia iruditu zait hitzaldia eta zorionak eman nahi nizkioke Andoni Sagarnari aurrenean.

Bide nabar gai bati heldu nahi nioke: "Alegia, hemen ba omen dira, gure artean, Escuela Superior de Magisterio izeneko zentruak. Aspaldi sorturik datorren eskabidea da, Escuela Superior de Magisterio hoietan, beste espezialidadeak diren bezala euskal filologia ere hartzeko; nik nahi nukeena jakin da ea zergatik ez den hori jartzen. Alegia, galderak ba du bere indarra; guk ez dugu autonomia beharrik hori jartzeko; ez gaitezen has esanez lehendabizi zera behar dugula. Ez, orain bertan hori jar daiteke. Zergatik ez? Behar bada emateko gogorik ez dutelako eta, behar bada, behar den indarrez guk eskatzen ez dugulako."

(2) *Kintana, Xabier:*

"Hemen esan denarekin ni erabat konforme nago; eta, gehitu egingo nuke gauza bakar bat; eta ez Israeleko kontua aipatzeko, beste nonbaitekoa baizik. Gure Herrian, herriko seme bat preso dagoenean, eta ni oso konforme nago horrekin, izugarrizko manifestaldiak egiten dira kaleetan hura ateratzeko eta, pentsatzen dut hori ongi dagoela; baina, euskara moduko gauza bat dela ta, preso bakar bat, edo preso bat baino gehiago, askoz ere dohakigun gauza batetan, holakorik egiteko ez gara gai. Pentsatzen dut, Georgian, oker batengatik, konstituzio berria egiterakoan, konstituzio horrek Georgiera, hizkuntza nazionala ez zela ta, Tibilisiko kaleetan manifestaldiak izan zirela. Eta noski, okerra omen zen eta

zuzen zuzen eta konstituzio berrian hori jarri zen eta, gauza horretan jendeak horretarako ba zuen bertan kemena, bertan manifestaldiak egitea berton baino zailagoa izan arren. Nik uste dut, gure helburuak edo zer dohakigun gehien ez dugula ongi neurtzen aspaldi hontan."

(3) *Uribarren, Patxi:*

"Nik K. Mitxelenaren erantzunari erantzungo diot eta nik uste dut, gaur egunez, Magisterioko eskoletan, euskararik euskal filologiarik ez badago, eta euskarak behar duen tokirik ez badago, arrazoi batengatik bakarrik dela: Francoren denboran aukeratutako irakasleak daude, eta ahalegin guztiak egiten dituzte euskara sar ez dadin. Hori garbi dago. Legez posibilitate guztiak, behar bada, daude, baina ahalegin guztiak ordu desegokia jarriz eta ordurik ez utziz. Beste asignaturekin, plangintza barruan, euskararentzat ordurik ez utziz. Orduan, arazo haundi bat hori da, baina nik uste dut, horren aurrean gogor burrukatu behar den zerbait dela. Plangintza berria egiteko izan zen ihaz eta boikot egin zuten plangintza hori aurrera ez ateratzeko, batez ere, euskarari behar zitzaion tokia ematen ez zitzaiolako."

(4) *Mitxelena, K.:*

'Ni neu ez noa plan kontura, alegia, planetan sartu behar da sail berezi bat. Hori da kontua. Ez da kontua holako euskara edo halako orduetan irakasten den. Alegia, zera, irakasle batek, euskal filologia espezialitatea egin dezan, eta hori, nahiz eta Francoren garaian jarri diren zuzendari guztiak kontra baldin badaude ere, gu nor baldin bagara, amore eman beharko dute. Baina hortarako, X. Kintanak esan duen bezala, ba, gure gogo ez dienei adierazi egin behar zaie."

(5) *Intxausti, Joseba:*

"Profesionaltasuna eskatzen dugu, eta bistan dago herri baten mailako profesionaltasun bat behar dugula gure irakaskintzan eta gainerako euskalgintza lanetan. Orain, ofizialtasun hori, herri batek behar duen neurrian, noski, profesionaltasun hori, ofizialtasun baten barnean lortuko dugula. Orduan, iruditzen zait, nolabait ere, ofizialtasun horren kanpotik lanean gabiltzanok nahi eta ez, bultzatu behar dugula

eskakizun hau, hain zuzen, ofizialtasun horren barnean Estatuko eta Estatuko ez diren ikastetxe erdi ofizialetan edo behintzat titulua emateko eskubidea duten hoietan gauzak aurrera joan daitezen. Hau nahi eta ezkoa iruditzen zait, eta beste puntu bat: Gainera uste dut lan hontan hasi behar dugula autonomia berehala etorri edo ez etorri. Lehen bait lehen hasi behar dugula. Eta euskaltzale guztiok, gauden tokitik, dirua behar baldin badugu, eta lan erosotasun batzu behar baldin baditugu, nahi eta ez ofizialtasun horren bidetik lortuko dugula, azkenean. Ez da beste biderik, nire ustez."

(6) *Olazar, Martin:*

"Sagarna hizlariari: Sagarnak beti esaten du berak Euskaltzaindiaren tituludunak. Orduan, nire galdera hauxe da. Horrek tituluak, Euskaltzaindiarenak, bakarrik dira ala baita euskal hizkuntzarenak, Euskal Hizkuntz Eskolarenak eta Deriokoak eta Euskerazaleenak eta beste tituluak."

(7) *Sagarna, Andoni:*

"Nik tituludunak esan nahi dudanean, Euskaltzaindiaren tituludunak esan nahi dut. Horrela, galdera horrela egina baita: Ea Euskaltzaindiaren titulurik duen ala ez?"

(8) *Olazar, Martin:*

"Baina, hor ikusten da itauna oso gaizki egina dela. Ze beste tituluak berdinak badira, itaundu behar zen."

(9) *Sagarna, Andoni:*

"Berdinak badira, nik uste, Euskaltzaindia ez dela nor tituluak emateko, eta beste norbait baldin bada Euskaltzaindia hainbat tituluak emateko, alferrik dagoela Euskaltzaindia beste gauza hauk erabakitzeko arazoetan."

(10) *Olazar, Martin:*

"Nik diodana: tituluak badira Euskaltzaindiarenak eta bestearenak, denok itaundu behar ziren, guztiak, eta ez Euskaltzaindiarenak bakarrik. Hortaz, lehengora noa: Euskaltzaindiarenak bakarrik onartzen direla eta besteak ez."

(11) *Sagarna, Andoni:*

"Nik uste, hortan ez duela zalantzarik izan beharrik ere. Gain gainetik, behinik behin, Euskaltzaindia jarri behar dela eta ez beste inor. Hortan ez dut zalantzarik. Norberak badu zalantza hori izateko eskubidea; nik, behinik behin, ez dut."

(12) *Olazar, Martin:*

"Zuk uste duzu beste tituluak ez direla balioko?"

(13) *Sagarna, Andoni:*

"Nik ez dut esan nahi titulu hoiek ez dutenik baliorik. Alegia, ez dutenik adierazten ikasi duten ala ez duten etabar. Baina nik esango nuke, Euskal Herriari begira eta geure ofizialtasunari begira, Euskaltzaindiari eman behar zaiola ofizialtasun hori eta ez beste inori. Hori, ura bezain garbia."

(14) *Olazar, Martin:*

"Nire ustez, hori oso okerra da. Euskaltzaindiak bakarrik? Hori fatxismoa da. Geuk bakarrik titulua? Besteak ezer ez?"

(15) *Letamendia, J. A.:*

"Uribarren Patxik esan dituenak gehiago borobildu nahi nituzke. Magisterio eskoletan aurkitzen dugun giro txarra goikoen aldetik. Adibidez, niri, ihaz, debekatu zidaten alfabetatzea ematea. Nik pentsatu nuen askoz praktikoagoa zela euskaldun asko zirenez gero, hobe zela hoik lantzea eta irakasleak hortik aterako zirela. Eta galerazi egin zidaten. Eta orduan, behartu ninduten hizkuntza, atzerriko balitz bezala, hutsetik ematera. "Tú enseñas un poco para que puedan hablar en la plaza, para cuando van a comprar algo...". Ez zidaten esan, alegia, fisika irakasteko edo jendea prestatzeko. Orduan, konparatzen zuten ingelesarekin, frantsesarekin edo musikarekin eta ez bertoko hizkuntza bezala. Ez jarri, adibidez, erdararen mailan. Alde hortatik, nahiko gogorra da. Ez ziguten uzten ere monitoreak jartzen. Orduan, euskaldunei ez zirenei eta ezin genituen jarri euskaldunak besteen irakasle bezala. Orduan, talde izugarriak gertatzen ziren, eta hizkuntza moderno bat ezin da horrela irakatsi.

Aurten, giro hobea izan dugu eta, orduan, piskat ezin ikusia eginaz eta ikusita ba hain gaiztoak eta ez ginela, hizkuntzaz bakarrik aritzen ginela bakarrik klasean, utzi digute monitoreak jartzea erretorearengandik hortarako joera eta laguntza etorri zelako, eta ofizial ez bazen ere, programetan ez da sartzen alfabetatzea ematea, baina propina bezala, zerbait lortu da. Atzo, hemen ginela, bilera bat izan zen Donostian eta eskabide batzu proposatu ziren eta bat hauxe zen: hain zuzen, Bilbotik Erretoreak eskatu duelako, espezialitate hau jartzea. Eta dirudienez, klaustroan borroka hau irabazi zen eta horrela eskatuko da, aurten bertan hasteko lehen kurtsuan eta bigarrenean, filologiazko sail barruan euskararekin ere hasteko, berezia bezala. Dena dela, borroka hauek oso zailak dira klaustro hoietan. Uribarren Patxik esan duen bezala, askotan jendea lehendik jarria delako eta ez edozein arrazoirengatik jarria, pertsona bereziak zirelako eta askotan hoien aurka borrokatu behar.

Beste gauza bat, ihaz lortu ziren gauza guztiak, adibidez, batetik optatibo sartzea. Erretoreak Urtarrilerako eman zuen baimena, eta oraindik, Maiatzean eztabaidatzen ari ziren. Eta Maiatzean esan zuten oso berandu zela sartzeko. Era berean, lortu zen adibidez hemen uzten ez zutelako. Donostian, ikastoletan praktikak egitea. Eta praktikarik gabe ezin gertatu irakasle bilingüerik. Bi gauza hoiek, bai praktikak ikastoletan egitea eta bai emana zegoen baimena optatibo bezala sartzeko, presiori eskerrak lortu ziren. Azken unean, guztiau ikusita, lortu ziren; eta ez, adibidez, herrian behar batzu ikusten zirelako, baizik eta beldurrez. Gu ere horrela sartu gintuzten, aurretik piska bat giro nahasi izen zelako eta Euskaltzaindiari izen batzu eskatuta; gauzak ez dira onean lortu. Hori egia da. Askotan akatsa hor dago, buruak buruen pentsamoldeak—hemendik oso urruti daudela eta askotan oso gogoan ditugu bestelako indar errepresiboak eta dihoaz hemendik eta holako gauzak esaten dira; baina bestelako errepresioak ere ba dira. Eta harmenak baino gogorragoak. Harmek jendea espabilatu egiten dute, eta beste batzuk behar bada, lo gozoan herri kontzientzia kendu."

(16) *Oyarzabal, Lontxo:*

"Nik esan nahi nuena Juan Antonio Letamendiak esan duen berdintsua da. Donostiako Elizbarrutiko irakasle ikas-

tetxe berriak eskatu duela euskal filologia emateko baimena. Ezezkorik ez da etorri eta behar bada orain da unerik egokiena ez ikastetxe hauek bakarrik hori eskatu eta hor gera ditezen, baizik eta Euskaltzaindiak eta beste euskal erakundeek ere indarra egin dezaten, zeren ikasleek, hemendik beranduenez bi urtetara irakasle izango direnak, eskatu dute espezialitate hori. Bi espezialitate eskatu dira —eskolaurrekoa eta euskal filologia— euskal aurrekoari baiezkoa, hitzez, eman zaio, oraindik idatzirik ez dago, eta euskal filologiari ez zaio ezezkorik eman eta, Letamendiak esan bezala, orain ari dira hori eztabaidatzen, behar bada, unerik egokiena oraintxe da indar piska bat egiteko eta baiezko hori nolabait eskuratzeko."

(17) *San Martin, Juan:*

"Puntutxu bat bakarrik argitu nahi du. Nik ez dut fatxista naizen ala ez agertu beharrik eta guk, esan nahi nuke nik esatean, zeren hainbeste urtetan, gure gaztaro guztia, fatxismoak jarraitu gaitu eta sufritu arazi digu. Hortan ez dut azalpen gehiagorik eman beharrik, hori argi dago.

Beste puntuan, esango nuke, eta hau Euskaltzaindiagatik diot garbi uzteko, Euskaltzaidian zenbait aldiz esan dugula, gure zoritxarrez, gaur bakarrak garela tituluak emateko eskubide ofiziala dugunak. Gainerakoak, guk dakigunez, edo bestela ekarri frogak eta hobe, ez dakigu, hobe bai balego. Esate batetarako Hizkuntz Eskolak ba du zertifikatuak —"Certificados de Aptitud"— emateko eskubidea; baina ez irakasle tituluena, eta Euskaltzaindiak bai badu, dekretuz gainera. Eta guk dakigunik bakarra da, baina ez noa hona ere harantzago noa. Euskaltzaindiak bere eginkizun hau, euskararen bizitzagatik bere borroka hainbeste urtetan eramanez, ahaleginak egin ditu alde guztietatik eta zama hori ere bere lepoan hartua du. Baina Euskaltzaindiak bere lepotik utziko du zama hori, hain zuzen fakultade bat —euskal hizkuntzaren fakultate bat sortzen denean— Mitxelenak esan duen bezala, hori izango baita iturria ondorengoena. Eta ez da hori tituluak ematea Euskaltzaindiaren eginkizuna, Euskaltzaindiak hortarako ahalmen ofizialik baldin badu ere. Nahiago dugu zenbat eta gehiago egotea. Puntu hau argi gera bedi."

(18) *Kintana, Xabier:*

"Nolabait esan, Letamendia J. J. berak esan duenetik aipatu nahi nuke gauza bat. Nik pentsatzen dut, Francoren

garaian jarritako zenbaiti pertsona guretzat erabat desegoki direnak, jaurtikitzea baino gauza zailagoak eskatzen ari direla. Alegia, polizia autonomo bat eskatzen dugunean eta hortarako izan dira manifestaldiak, gure alderdi politikoak horren alde agertu dira, bai eta prentsa ere; baina beste arazo hontan, besteak bezain mingarria, mingarria ez bada, ba dirudi guztiok ixilik garela eta, uste dugu guztiok zerbait beharko genukeela lehen bait lehen, eta problema horri bere punta atera."

(19) *Txillardegi:*

"Nik bi hitz bakarrik esan nahi nituzke, baina gauza larri batez. Alegia, hemen, ba dirudi oso modan jarri dela hemen fatxista hitza erabiltzea. Beste lekuetan, Akademiaren kontra norbaitek hitz egiten duenean, Frantzian (...ez da ulertzen...) eta Espainian egiten baldin badu batek zerbait "no sabe; éste es un hombre inculto". Gure artean, berriz, Euskaltzaindiaren kontra hitz egiten duena, oso gizon liberala da eta gu gara fatxistak. Esan behar da, hemen, fatxismoaren biktimarik ezagunena Lauaxeta izan zela. Bigarren biktima ezaguna, Eustakio Mendizabal. Hirugarrena, Mitxelena, eta ni neu eta beste asko ere, fatxismoaren biktimak izan garenok urte askotan, leporaino gaudela horrelako hitzak entzunez. Eta nik eskatuko nuke, biltzarre hontan, horrelako hitzak erabiltzen baldin badira, bertan behera, erabili duena, kanpora botatzea."

(20) *Agirrebaltzategi, Paulo:*

"San Martinek esan du nik esan behar nuen gehiena eta gero, nolabait baita ere Txillardegik. Baina, bi hoiek Euskaltzaindikoak direnez, normala bada Euskaltzaindia defenditzea; ni ez naiz Euskaltzaindikoa; hala ere, Martin Olazarri ohar bat, Euskaltzaindikoa ez naizenez gero, gainera. Hau da, nik neuk ez dut uste Euskaltzaindia denik, egoera normal batetan, irakasle titulua emateko erakunde berezkoa. Baina, hala ere, une hontan, San Martinek esan duenez, berak du hain zuzen ere eskubidea hortarako; eta bestetik, egoera normal nahi ez normal batetan, uste dut, hizkuntzako irakasle titulua eman nahi duen edozeinek —edozein erakunde, edozein eskola ofizial, edozein unibertsitatek— aitortu eta onartu egin behar duela hizkuntzarekiko autoritatea Euskaltzaindiak

duela. Bitartean, ez dut uste, inola ere eduki dezakeenik eskubiderik —ez legezkorik, ez moralik— horrelako titulu bat emateko."

(21) *Lizundia, Jose Luis:*

"Problema bat aipatu nahi nuke, bai irakaslegoan eta bai beste alor batzutan ikusten dena. Hemen aipatzen da "que se vayan" hori, orain aplikaturik irakaslegoari. Baina "que vayamos" ez da aipatzen; eta nik esango nuke egon dela erakunde ofizialetarako —bai irakaslego munduan, bai funtzionarioetan, herri administralgoan, etab.— abertzaleon eta euskaltzaleon artean absentismo negargarri bat. Eta horrek ere, kalte izugarria egin digu. Kasu bat aipatuko nuke. Aspaldian entzun nion Bizkaiko udal batetako idazkariari, idazkari zena, depuratua. Hark esaten zuen bere bulegoan, aurrean Estatuaren zera zuen bitartean ez zuela udaletan sartu nahi; baina bien bitartean, bere herrian, fatxista izugarri bat zegoen idazkari. Beraz, guk zenbait landa, zenbait soro, utzi ditugu besteen eskuetan. Eta hau, funtzionarioetan, nabarmena izan da eta funtzionarioetan sartzen ditut, nolabait, Estatuaren funtzionarioak baitira irakaslego mundukoak ere. Eta absentismo kontu hau oso garrantzitsua da; ez bakarrik, doazela, baizik eta guk ere joan behar dugula."

(22) *Azurza, J. J.:*

"Hemen auzi asko ari dira azaltzen; batzuk besteekin gutxi edo bat ere ikusi behar ez dutenak. Konforme gaude Mitxelena jaunarekin ahalik eta irakaskuntza goi mailakoenak lortu behar direla, gure hizkuntzarekiko eta gure kulturarekiko. Hori da auzi bat, eta hortan uste dut denok elkarrekin izango garela. Ez dut uste inor euskararen onerako letorkion goi mailako ikaskizunik jartzeko aurka izango denik. Baina beste auzi bat aipatu da hemen, fatxismoa dela eta ez dela. Fatxismoa dela dela eta ez dela, Txillardegik ba daki, ni bera bezala urte askotan kanpoan bizi izan naizela. Eta zerbait esan dezaket hortaz.

Lehen gauza esan nukeena da, inor demokrazia helbide batetan esan duenagatik atetik kanpora joateko eskatzea, hori dela fatxismoa.

Bigarren, lehen atera beharko duena, hurrena hitz egingo diguna Mikel Zarate izango dela. Bere txosteneko bostga-

rren orrialdean fatxismoz josita gaudela, bi aldiz aipatzen duelako.

Hirugarren, eta hau negargarriagoa da, eta ez dut uste euskaltzainek barre asko egin behar dutenik. Zoritxarrez fatxismo bideak, gu bezala pentsatzen ez dutenak oinperatzea erabili dira gaurko azken hamar urteotako ikastoletan eta lizeoetan, euskara batu mota bat; gu ez gaude euskara batuaren kontra, euskara batu mota baten kontra. Eta hori erakusteko, indarkeria bidea, totalitarismoa erabili da. Han ere, ume eta guraso asko atetik at bialduak izan dira. Euskara mota hori, gustokoa ez zutelako. Eta hori denok dakizue. Hori da Martin Olazarrek esan nahi izan duena.

Beste alde batetik, denoi oso harrigarri egiten zaigun gauza da, beste inongo herri normaletan gertatzen ez delako. Euskaltzaindi batek, "Académie de la Langue" batek; tituluak ematea. Hori ez baitu "Académie de la Langue"-k ematen, beste herrietan, baizik Akademiak eta kito, "Hezkuntza Ministeritzak". Beraz, norbait hortaz harritzea ez da harritzekoa, gure Herrian bakarrik gertatzen ari den gauza baita. Esan dut."

(23) *Haritschelhar, Jean:*

"Nahi nuke gauza bat erran, hala ere. Bigarren auzi hori, zuk aipatzen duzuna, ez zen sortuko ez balitz hitz hori agertu, alde batetik.

Bigarren gauza, orain aipatzen duzuna, erranez Euskaltzaindiak ba duela titulu emateko podere hori, ba dakizu bizi-ki ontsa Euskal Herria ez dela Estatu bat. Eta ez duzu konparatzen ahal, orduan, Euskal Herria bertze Estatu batekin. Estatu guztietan ba da Ministeritza bat; eta horrek ematen ditu tituluak. Hemen gaude edo ginauden, Ministeritzarik gabe eta, orduan, norbaitek behar zituen eman titulu hoiek aurrera joateko. Beraz, konparantza hori, nik ez dut ongi hartzen."

(24) *Villasante, Luis:*

"Atzo, nik nire txostenean gauza batzu saltatu nituen luzeegi ez egoteagatik. Eta bat hauxe zen, eta zatitxo hau nahi dut irakurri. Beste zenbaitek, inoiz edo maiz, zera botatzen digute aurpegira, beste Akademiek egiten ez dituzten gauzak

egiten dituela gureak. Eta eredutzat jartzen dizkigute beste Akademia hoiek: frantsesa, espainola, etab. Baina edonork daki beste hizkuntza hoien egoera eta gure hizkuntzaren egoera ez direla bat ere berdinak.

Gure Akademiak, esate baterako, Irakasle tituluak ematen ditu, bertsolarien txapelketak etabar. (Ikus Villasanteren lana: *Euskaltzaindia eta euskararen batasuna).*

Gure Akademia ez da frantsesa edo espainola bezalakoa, egoera ere ez da berdina; guk ez dugu "Ministerio de Educación" eta horrelako gauzarik. Ezer ez daukagu. Zerbait egin behar zen. Eta Euskal Herriak, lau Diputazioen izenean, Euskaltzaindiari eman zion kargu hori. Beraz, berak dauka, eta beste inork ez dauka. Eta beste inor, egoera normal bat datorrenean, maila hortan badago edo, Euskaltzaindiak utziko ditu gauza hoiek. Baina bitartean, berari dagozkio. Hau garbi dago, eta nahi duenarentzat, arautegian daude, eta ez oraingoan, baizik 1918.ekoan. Beraz, gu arautegiaren barruan ari gara gauza hoiek egiten ditugunean. Eta gero, hasten bada bakoitza ematen titulua berari gogoak ematen diolako eta Euskaltzaindiari kasu egin gabe, Babeleko Dorrea sortuko dugu eta besterik ez. Hori bistan dago. Batasun batean egin behar dira gauzak. Euskaltzaindiaren normatiba onartzen badute bai, bestela nola hasiko gara bakoitzari gogoak ematen dionean tituluak emateko bakarrik? Nahaspila sortzeko? Hortik ez goaz inora".

(25) *Altuna, Patxi:*

"Villasantek esan duena osatu nahi nuke. Ez da Euskaltzaindiaren Arautegian hori hala egotea bakarra. Duela bost sei urte, Euskaltzaindiak bere titulua emateko antolatu zuen lehen etsaminean, oker ez baldin nago, eta Arrasaten gainera, esango nuke, edo lehenbiziko batean, behintzat, emakume bat agertu zitzaigun, 70 urte, gutxi gora behera zituena, eta duela 30, 35, 40 urte Euskaltzaindiaren titulua eskuratu zuena. Eta hura bezala, beste bizpahiru ere agertu ziren geroztik eta haiei, etsaminik gabe eman zitzaien titulua, orduan eskuratua zutelako. Beraz, Euskaltzaindiaren oraingo haro hau ez da oraingoa bakarrik. Eta bestetik, ni oso harriturik eta txunditurik naukana, hauxe da: Euskaltzaindiaren aurka ari den eta mintzo den zenbait jende, duela 6, 8, 10 urte, ez zela Euskaltzaindiaren aurka mintzo. Hortaz, gorroto edo gaitzerizte

edo hori, ez da Euskaltzaindiaren kontrakoa, baizik oraingo Euskaltzaindiaren kontrakoa.

Zer dute oraingo Euskaltzaindiaren kontra?"

(26) *Olabeaga, Iñaki:*

"P. Altunak esan duena, nik uste osatu behar dudala. Nik daukat titulua, baina guda aurrekoa. Titulu hori eman zidan "Estudios Vascos"-ek Diputazioan; eta nirekin beste batzuk ere pasa zuten etsamina. Eta etsamina hori eskatzen zuten, batez ere, Diputazioko eskoletan, "Escuelas de Barriada" haietan. Gero guda etorri zen eta hura bukatu."

(27) *Villasante, Luis:*

"Gero, hori Euskaltzaindiari pasatu zitzaion: "Estudios Vascos"-ek emango zuen lehenago; eta Euskaltzaindia sortu zenean, Euskaltzaindiari pasatu. Eta guk ba dakigu askori eman zitzaiola gerra aurretik."

(28) *Mitxelena, Koldo:*

"Mundu guztiak dakien bezala, "Eusko Ikaskuntza" ez zen sekula desegin. Baina, lo edo hilik egon da. Eta berriz, orain hastekotan dira edo hasiak dira, baina oraintxe. "Beraz, Eusko Ikaskuntza" erretiratuta zegoen.

Nik esan dezakedana da, alegia, ni garai batean, Euskaltzaindiko idazkari izan nintzen; eta, garai hartan Gipuzkoan behintzat, Diputazioko *Gaitasuna* jakiteko, guregana etortzen ziren. Ni neronek egiten nituen agiriak."

(29) *Igarreta, F.:*

"Nik presentatu nuen, Aramaioko batzar batetan, Eusko Ikaskuntzako titulua eta etsamina egin ondoren eman zidaten. A. Villasante eta J. San Martini erakutsi nien agiria. Baina, Eusko Ikaskuntzan pasatutako etsaminarena zen; ez zen Euskaltzaindikoa."

(30) *Irigoyen, Alfonso:*

"Mitxelenak ikutu du gai hori, Gipuzkoarako baina tituluez hitz egin denez gero, nik esan behar dut, gerra ondoren

ere Bizkaiko Diputazioak puntu bat edo, ez dakit zenbat, ematen zituela euskaraz zekitenentzat. Eta, orduan, Euskaltzaindira etortzen ziren gerra aurreko ohitura jarraiturik. Gero, Euskaltzaindia tituluak ematen ari izan da. Eta dirudienez, halako beharrizana zegoen eta Euskaltzaindiaren titulu horri balio bat eman zaio. Baina nik hemen adierazi nahi nuke sarri esan dudan: Nahiz eta Euskaltzaindiak, legez, titulu hori emateko eskubidea izan, hel dadila, ahal bait arinen, Euskaltzaindiak titulurik gehiago ez ematea. Horrek esan nahi baitu, behar den lekuan, Unibertsitatean edo behar den lekuan emango direla. Eta orduan, txanpana hartuko dugula, hortan ari garen guztiok."

(31) *Lizundia, Jose Luis:*

"Gai honez, pixka desbideratu dugula A. Sagarnaren hitzaldia, eta elkarrizketaren gaia, zeren honek hitzaldiarekin batera joan behar bait luke.

Puntualizazio bat: A. Irigoyenek esan duena, Bizkaiko Diputazioak, eta hori Sota lehendakari zela sortu zen aspaldi, "Escuela de Barriada"-ko erakunde hori, 1974.arte, orain dela lau urterarte eman du Euskaltzaindiak.

Boletin ofizialak han daude lekuko "Escuela de Barriada", hoiek kendu arte, orain kentzen ari baitira."

(32) *Letamendia, J. A.:*

"Nik pixka bat Azurzaren alde mintzatu nahi nuke. Guztiz konforme nago Azurza jaunarekin. Nik uste dut, eta Irigoyenek ere esan duen bezala, Ministerioak eta kontseiluak eman behar dituela tituluak. Batez ere, Unibertsitate eta Magisterio eskoletan. Zoritxar edo onez, ni eta beste batzu, bietan aurkitzen gara: Ministerioarekin eskola nazionaletan, eta Euskaltzaindian. Biotako tribunaletan gabiltza.

Momentu hontan, niri Euskaltzaindiaren aprobatu xume batekin etorriko balitzait, behar bada hartuko nuke irakasle bezala. Baina, gure eskoletako azken urtetako sobresaliente edo bikainarekin etortzen baldin bazait, nik ez dut hori hartuko irakasle bezala. Zeren, behar bada, hizketan aterako baitu. Orduan, eskatzen dut Ministerioak eman ditzala tituluak, baina gauzak guztiz aldatzen ez diren bitartean, jarraitu beharko luke Euskaltzaindiak tituluak banatzen.

Eta beste gauza bat: Hemen, berez, euskara batuaz edo ari gara, ezta? Eta Magisterioko ikasleen artean, gehien gehienak inor kontrakorik ez dut ikusi irakaskintzaren beharrengatik, denek exigitzen digutela euskara batua ematea."

(33) *Rotaetxe, Karmele:*

"A. Sagarnari galdera bat egin nahi diot: X. Mendigurenek gaur goizean presentatu digu horrelako beste inkesta bat. Harremanetan daude biak ala ez? Oso apartekoak izan dira, ala ez?

Datu batzu, berdinak dira. Erantzunak ez horrenbeste. Horregatik, jakin nahi nuke ea nola egin duzuen hori.

Eta gero, bigarrena, aipatu duzun irakasleen prestakuntza. Prestakuntza hori, zer da? Beste tituluak, ala euskarazkoak bakarrik, ala... Prestakuntza irakaskintzan? Hori da, didaktika, metodologia, etab.?"

(34) *Sagarna, A.:*

"Lehenari buruz, esango dizut inkestari dagokion alderdi estadistikoaren aldetik, bi inkestatan berdintsu eramanak izan direla. Metodologia berdintsuaz. Baina inkestaren galdekizunak, pertsona berdinekin ez dira egin. Orduan, izan liteke, galderak egiteko era desberdin izatea. Nik ez dakit desberdintasun hori zertan izan litekeen. Hori nahi nuke jakin. Gainera, berriro ere arakatzeko datu hoiek eta ikusteko, ez, benetan huts egiteren bat dagoen ala ez.

Bestetik, irakasle izateko gaitasuna eta aipatu ditudanean, erdal ikasketei buruz ari ginen. Orduan, irakasle izateko gaitasuna edo prestakuntza azalduko da, hortarako ikasi dutenen artean, ezta. Bidezkoa da mekaniku batek pedagogiarik ez jakitea. Besteak, berriz eskolan ikasi du sistematikoki eta prestatuagoak izan behar luke.

Beste gauza bat da, ez, horrek euskara dakien ala ez. Eta euskal titulurik duen ala ez, etab. Instruzio maila bat adierazten digu inkestaren barruan, nola halako irakasle izateko prestakuntza bat. Besteak, euskararik dakien ala ez, tituluaren aldetik ikusi beharko dugu, Euskaltzaindiak ematen duen tituluaren aldetik."

EUSKARA BATUA TA EUSKALKIAK

Bergara, 1978 - IX - 5

Zarate, Mikel

Jaun andreok:

Hirurogei urte dira Euskaltzaindia sortu zela. Ordurik hona hasiera hasieratik, beti izan du gogotan Euskaltzaindiak, arantza zorrotz mingarri bat bezala, euskara batuaren arazoa. Baina arazo honen benetako ardura ta zerbait eginbeharraren kontzientzia azken urteotan bakarrik izan du. Argi ikus dezakegu hau Arantzazun (1956. urtean), Bilbon (1958. urtean), Baionan (1964. urtean), Ermuan (1968. urtean) eta Arantzazun, berriz (1968. urtean) egin ziren batzarreetan.

Euskara batzeko egin izan diren ahaleginik handienak hamar urterik honakoak izan dira, batez ere, hau da, 1968. urteko Arantzazuko biltzarretik honakoak, I. Lekuonak eta K. Mitxelenak han esana bete nahirik egindakoak.

"Euskera biziko bada, batu egin bear, esan zuen Lekuonak, beso-bakartu egin bear, anka-bakartu egin bear... "bizitza dezan, eta ugariago dezan", indartsuago dedin, alegia; errextuta, laburtuta, batuta, geiagok mintza dezan". (EUSKERA XIII, Bilbao, 1968, 141. orr.).

"Ezin-bestekoa, il-edo-bizikoa, dela uste dugu, esan zuen Mitxelenak, euskera batasun-bidean jartzea". (EUSKERA XIII, Bilbao, 1968, 203 orr.).

Esan ta egin, jarri genuen euskara batasun bidean. Eztabaidaka, haserre bizitan, garrasika, behaztopaka, aurrerakadaka ta atzerakadaka..., baina jarri genuen batasun bidean.

Batasun bidean jarri genuen eta batasun bidean dugu oraindik. Batu ez dugu egin, jakina *euskara batua* baturik dagoen euskara bat bezala behin eta berriz ahotan erabili arren. Hain zuzen ere, ez dut uste inongo hizkuntza batu bizi-

rik, komunikabide jator izateko gai den hizkuntza batu bizirik, hamar urtetan batu denik, eta batu daitekeenik ere ez. Hala ere, batasun bidetik euskara baturantz goazelarik, jo ta ke gabiltzalarik, nahiz eta batzutan itsumustuka ta nahasteka-mahasteka ibili, askok uste duen baino gehiago lortu dugu.

Lehenengo ta behin, kontzientzia berri bat eta giro berri bat sortu da, aranatarren denboran sortu zen antzera. Gaurgaurkoa zaigu, horrexegaitik, Arrese Beitiaren behinolako zortziko txikia:

"Bizkaia, Gipuzkoa
ta gure Araba,
eta Naparroagaz
lau anaia gara;
beste aldeko irugaz
batzen gareala,
zazpirok bear dogu
gaur salbau Euskara."

Aranatarren denboran sortu zen antzera, kontzientzia ta giro berri bat sortu da gaur ere, ba, hau da, beharbeharrezkoa genuen batasunaren kontzientzia ta giroa.

"Herri bat, hizkuntza bat,
euskara batua da
oraingo eztabaida
bizi;
herri bat, hizkuntza bat,
euskara batua da
gazteen bultzakada
berri.

Hil egiten zaigu,
hil egiten dugu,
hil gure herri;
gure euskara
egin da
mila zati...,
euskaldun gazteen
lotsagarri!

Bat euskal herriak,
bat euskalkiak,

bat denok beti;
batu dezagun
euskara
ta ikasi,
berritu dezagun
Euskal Herri!

Herri bat, hizkuntza bat..."

Moda berriek indar erakarle ta lilura xarmanta izan ohi duten legez, euskara batuaren modak ere ba du bozkario ta zoragarritasunik asko gazteen buru-bihotzetan, euskaldun analfabeto, euskaldun ikasi ta euskaldun berrien buru-bihotzetan. Ta kontzientzia berri horren eraginez, gaurko gazteek etxeko, herriko ta herrialdeetako "euskaratxoa" gainditu ta euskara batu bat egin nahirik ari dira elkarrizketetan, kantuetan, idazkietan, paretetako pintadetan... Kontzientzia berri horren eraginez, abeslari ta ameslari, gaurko gazteek euskaraz egiten dute gure hiri zapaltzaileetako kaleetan, erdal unibertsitateetako auletan, ezina egina bihurtu gurarik.

Ez dut uste, esanak esan ta eginak egin, orain arte honelako kontzientziarik eta bultzadarik izan denik inoiz Euskal Herrian gure hizkuntzaren alorrean. Eta euskara batua egiteko, euskaldun guztientzat ulerbide jator pozgarri izango den euskara batu bizi bat egiteko, kontzientzia hori balute euskaldun guztiek, beste hamar edo hogei urte barru, beharbada, euskara baturik egongo litzateke eta Euskal Herriak nortasun eta zertasun berri bat izango luke, dudarik gabe.

Egia esan, ba dugu gehienok kontzientzia hori eta ez dut uste euskara batuaren, geroaren sabel erdimintsuan jaioko den euskara batuaren aurka, *batua* abstraktoki hartuta, inor dagoenik, euskaldun abertzaleen artean behinik-behin. Baina ahalbait arinen batzeko eginalak egitean, kontzientzia ta jokabide ezberdinak ditugu. Zergaitik?

Jakineztasunagaitik esango nuke, lehenengo ta behin, kulturgabetasunagaitik, analfabetoak garelako. Hogei ta bost mila ordu eman ditugu erdara ta erdaraz ikasten; euskara ta euskaraz ikasten, ostera, zenbat...? Mila...? Hogei...? Bost...? Horra hor koska! Eta, jakina: *bozkario* eta *berba*, esate baterako, hitz ezezagun bihurtzen zaizkigu orduan, *zaizkigu* berau ere bai, noski, ta "Nolako edo zelako euskara egiten

duzu zuk? Batua edo hori izango da ezta?", esaten dugu. Berehalaxe agertzen da, zoritxarrez, ezjakitearen pobrekeria.

Bermeoko kaleetan berez-berez eta bizi-bizi egiten den euskara, bermeotarrentzat komunikabide den euskara, ona da, jatorra, benetako komunikabide diren euskara guztiak bezala. Baina Bermeotik Getariara eta Leitzara eta Baigorrira eta Aterratzera joateko, erdara batuaz baliatu ezik, euskara gehitxoago jakin behar da. Bermeokoak bakarrik ez du balio, jatorrena bada ere, Euskal Herri osorako. Euskara batuago bat jakin behar da horretarako. Euskara batu honen edo horren kontra joateko ere euskara gehitxoago jakin behar da, jarlekua berotu egin behar da euskara gehitxoago ikasteko ahaleginetan ta ukondoak mindu.

Jakineztasunak zabakeriara eramaten gaitu: *gizonei, gizonai, gizoneri, gizonari, gizoner...*; zabarkeriara eramaten gaitu, euskararen zatiketara ta euskara batuaren aurkako funtsgabeko ausartzia lotsagarrira. Horrela euskara batua ezezik, euskalkiak heurak ere hondatu egingo ditugu. Horixe da euskararen hondabiderik egokienetariko bat ta erdara batura berehalaxe jotzeko ibilbiderik aukerakoena.

Ba daude oraindik, hatxez josita dagoelako, beren ustez garbia ez delako, euskara batuaren kontra doazenak. Nahikoa dute hatxe bat ikustea, hatxea bakarrik balitz bezala euskara, euskaraz hatxerik inoiz erabili ez balitz bezala, inon diren kontrakeriazko garrasi ta amorruz hasteko. Aranatarren "euskara berri garbia" bakarrik gura dute, *eliza, politika, errege, ofizialtasun, tenis, niki, uiski* ta *Koka-Kola* euskarazko hitz garbiak ez balira bezala. Euskara batuaren, euskara batu biziaren aurkako batu bat egin nahi dute, Arana bera ere gaur bizi izan balitz ezkertiar batuzale iraultzaile bat izango zela konturatu barik, geldirik dagoen ezkerra eskui bihurtzen dela konturatu barik. Erdizkako batu bat egin nahi dute, gipuzkeria edo bizkaikeriaz txipristindurikoa. Erdikazko batu bat egin nahi dute, erdaraz hitz eginez ta idatziz sarri askotan, benetako batu biziaren aurka doan batukeria garbia.

Euskara batuaren sortzaile ta eragile gisa agertzen diren batzuk ere, euskara batu bizi jatorraren kontra doaz, gaurko euskaldunen euskarari jaramon handirik egin gabe Lapurdiko literatura zaharrean oinarriturik beren euskara batua bortizki toki guztietan sartu nahi dutenean. Begira:

gure hizkuntza berriztatzeko egin den ahalegin bakoitzean lehenera, iturburuetara jo izan dugu beti, alegia, lehenagoko euskal .liburuetara. Eta hizkiak, hitzak, aditzak eta abar aztertu, ta eginahalak egin izan ditugu gure hizkuntza goimalaratzeko, ondoko hizkuntzen parean jartzeko, jatortasunez, zehaztasunez ta logikaz eraberritu ta indarberritzeko. Baina konturatuta edo konturatu barik, herriko hizkuntza bizi koloretsutik alde egin dugu gehienetan. Eta zahar kutsuzko edo laboratorio kutsuzko euskara bat egin dugu gure herriaren eta gure hizkuntzaren kaltetan. Bilbon, 1958. urteko batzarrean L. Villasantek esan zuenez, "literaturak eztu euskera bizia menderatuko eta bere bidera ekarriko. Bai zera! Guri dagokiguna da euskera biziari jarraitzea, andik barne-izerdia atera eta erriko euskerarekin artu-eman estuan egotea. Orduan erriko euskerak bizituko du gure literatura, eta orobat literaturak bere babesa emango dio euskera biziari. Erritik aldendurik dabillen literatura, gezurrezko zerbait biurtzen da, gauza igarra, izerdirik eta gizenik gabekoa. Zaletu bakan batzuek entañatzeko aukerakoa. Minoria edo gutxirengo batentzat ona". (EUSKERA IV, BILBAO, 1959, 102. orr.).

Egia da izan, duela hirurehun urteko euskara gaur baino batuago zegoen. Hala ere, ez du gaur benetako komunikabide izateko balio. K. Mitxelenak 1968. urteko Arantzazuko biltzarrean esanikoa datorkit gogora: "Nolabait esan, bi errenteriar desberdin aipatzea zilegi bazait, askozaz ere hobeki zekien Euskeraz Xenpelar-ek nik baino: Xepelar-en hizkerak, haatik [hala ere] hain egokia izanik, ez du neretzat balio". (EUSKERA XIII, Bilbao, 1968, 218. orr.). Gutxiago balio du neretzat, hain egokia izanik, Axularrenak edo Leizarragarrenak. Ni neu behintzat, egia esateko, gogait eginda nago Axularrez ta Leizarragaz. Euskararen historian (gaztelania ta frantsesarenean Arcipreste de Hita ta Jean Froissart-en antzera) oso interesgarriak izango dira, euskararen aldakuntzak ikusteko, euskara zaharra ezagutzeko, baina gaurko euskara bizi batu egoki bat egiteko ez dut uste egokienak direnik, ta gutxiago nahi ta nahi ez leku guztietan sartzeko. Askozaz egokiagoak dira ta askozaz gaurkoagoak, nire ustez, erdi bazterturik ditugun larramenditarren giroko idazleak: Kardaberaz, Mendiburu, J. B. Agirre, Mogel, Añibarro, aita Bartolome..., batzuk aipatzearren, eta geroagoko Tx. Agirre, Urruzuno, Kirikiño, J. Etxepare, Hiriart-Urruty eta abar.

Lehen esan dudanez, ez dut uste euskara batuaren aurka abstraktoki inor dagoenik, baina bai, ordea, euskara batu honen edo horren kontra burubideetan eta ibilbideetan, gaingiroki oraintxe ikusi dugunez.

Ba du, bai, eragozpenik asko gure euskarak oraindik batu jator bizi egoki bat egiteko. Eta arazo honen barnean dagoen eragozpenik handienetariko bat gure faszismoa dugu. Gure faszismoa esan dut, bai: "Neu nagusi edo musturrak hausi". Hara nola sortu den gure faszismo hau.

"Burrukan ari diren bi, besarkatu ere egiten dira", esaten zuen Hegel filosofoak. Eta egia da. Espainiarrak mila urtetan ibili ziren burrukan mahomatarrekin, ta mila urtetan besarkatu ere mahomatarrekin. Eta espainiarren gerra santuak izan dira horren ondorio. Aldarea ta Tronua elkartu ta batuz, gerra santuak egin dituzte espainiarrak juduen aurka, turkoen aurka, protestanteen aurka, herejeen aurka, separatisten aurka, masoien ta komunisten aurka, beren jokabidea onartzen ez zuten guztien aurka, mahomatarren antzera. Gaztelania batua ere horrelaxe egin zuten: gaztelaniaren kontra zihoan guztia baztertu ta azpiratuz eta zapalduz, Euskal Herriko, Kataluniako, Galiziako... hizkuntzak marginatuz, nahi ta nahi ez gaztelania sagaratua eskoletan sartuz, inor ez ezer errespetatu gabe.

"Burrukan ari diren bi, besarkatu ere egiten dira". Eta gu ere, euskaldunok, espainiarren aurka ibili izan gara beti burrukan, eta azken berrogei urteotan batez ere. Ta faszismoa sartu da konturatu gabe zenbaiten buru eta burubideetan: "Bizkaiera eskoitiar burgesek bakarrik egiten dute"; "Hemen batua baino besterik ez dugu onartzen"; "Guk ez dugu andereño batuzalerik onartzen, hatxezalerik ere ez"; "Espainolisten asmakizun bat da batua, euskara hondatzeko". Bakoitzak bere euskara sartu nahi du leku guztietan derrigorrean eta arrapaladan, beste jokabiderik onartu gabe, inor ez ezer errespetatu gabe, faszisten gisa, euskara batu hau edo hori edo euskalkiak balira bezala euskararen etsai. Euskararen etsairik handiena erdara dela konturatu gabe, euskararen akatsik handiena etxeko euskaratxotik euskara literariora dagoen aldea dela konturatu gabe, euskararen egoerarik larriena euskalkiak beren etxeetan preso egotea dela konturatu gabe, faszismoaren hatzarparpetan erortzeko arriskua dugu guztiok. Eta demokrazia bidez lortu nahi bal-

din badugu Euskal Herri batu bat eta hizkuntza batu bat, errespetozko askatasunez lortu behar dugu, euskara batua ta euskalkiak errespetatuz, euskalki guztiak baturako bidean begirunez, jakituriaz ta zentzua jartzeko ahaleginak eginez.

Baina nola jarri euskalki guztiak baturako bidean? Hona hemen nire erantzuna. Ba dakit eztabaidagarria izango dena, baina oraingoz ez dut bide argiagorik eta hobeagorik ikusten.

1) *Euskara batua* esatean, batzuk *batua* bakarrik hartzen dutela kontutan esan genezake. Baina *euskara* (izena), lehenago da *batua* (izenlaguna) baino. Euskalkiak lehenago dira euskara batua baino, oraingoz bizirik euskalkiak bakarrik ditugu ta. Hala ere, euskalkiak elkarganatu ta batu egiten ez baditugu, euskara batu bat euskalkien bitartez egiten ez badugu, euskalkiak heurak ere, gaurko bideetatik badoaz behintzat, hondatu egingo dira ta Euskal Herri Erdal Herri bihurtuko da.

Goitik behera euskara batu bat jartzea oso erraza da, esperantoa bezalako euskara batu bat egitea oso erraza da, baina komunikabide izateko euskara batu bizi bat egitea ez. Behetik gora joatea, euskalkiak euskara batu baterantz bultzatzea dugu, ba, lehenbiziko eginbeharra. Ta horretarako nahi ta nahi ezkoa dugu alfabetatzea.

Gure herria analfabetoa da ta alfabetatu egin behar da lehenengo ta behin, euskara batu bat egiteko; alfabetatu euskaldunak berek dakitenetik, beren euskalkietatik ez dakitenera joanez, euskara baturantz joanez, pedagogia zuzen baten arauera. Euskaldun berriekin zabalkiago jokatuko nuke, noski; baina, hala ta guztiz ere, lekuan lekuko izanik, euskalkiak kontutan hartuta.

Horixe izango litzateke lehenengo pausua. Hain zuzen ere, alfabetatu ondoren, euskara baturako oinarririk behinenak jarririk daude. Adibide barregarri batzuren bitartez ikusiko dugu hau.

Lemoako gasolindegian behinola ikusi nuen andaluzaren antzera egiten dugu hitz guk euskaldunok. Nire kotxearen tulipa zela ta, "Ezo ta mu floo", esan zidan. "Ezo ta mu floo" "Eso está muy flojo" zen, jakina. Guk ere horrelaxe egiten dugu "ua men tzen" esaten dugunean "hura omen zen" esan beharrean edo "ili ala?" esaten dugunean "egin leike ala?"

esan beharrean. Orduan, bizkaiera, esate baterako, euskalki nabarmen ulertezin bat bihurtzen da.

Nire herriko batek, "etortexinzen dekartezeuen" edo "eztuki te zeben tu in" esango balitu hemen, alemanez ari dela hizketan esango zenukete, beharbada. Baina alfabetatu ondoren, berak dakienetik baturantz joanez, "etortexinzen dekartezeuen" "etortzen izan zen eta ekartzen zuen" gelditzen da eta "eztuki te zebez tu in" "ez dugu euki ta ezer ere ez dugu egin".

Ondarrutar batek. "baraitx inbitxuna" edo "lota nu" esango balitu ere, ez zenukete ezer ulertuko, beharbada. Baina alfabetatu ondoren, "baraitx inbitxuna" "ba dakit egin behar dituena" bihurtzen da eta "lota nu" "lotara noa".

Beste mila adibide jarriko nituzke zukakoak, eta hamar mila hikakoak. Baina nahikoa direla uste dut alfabetatzearen eragina ikusteko. Baturako biderik handiena ere egina dago horrela, edozein euskalkik bai du, alfabetatze mailan, batuaren ehuneko hirurogei ta hamabost gutxienez. Alfabetatzean, ez dut uste esan beharrik dagoenik baina, zuka bakarrik erabiliko nuke, hika eta berez baztertu den berorika baztertuz.

Ba dakit hizketa biziaren gatza indargetu egiten dena horrela, alfabetatzeak kolorea ta grazia kentzen diona hizkera bizi nahastuari. Baina premiazkoagoa dugu oraingoz bizia, zehaztasuna ta batasuna, gatza ta kolorea baino. Beste alde batetik, alfabetatzearen ekinean, dakigunetik ez dakigunera joatean, euskalkietatik baturantz jotzean, euskalkikeriaren eragozpena dugu. Hala ere, biak kaltegarriak izanik ere euskara batua egiteko, euskalkikeriaren eragozpenak kalte gutxiago egiten duela uste dut batukeriaren eragozpenak baino.

2) Hizkuntza mailak berezi ta argi ta garbi jarriko nituzke alfabetatzean, hau da, errezenetik zailenerainoko mailak jarriko nituzke, mundu guztiko eskoletan egiten den legez. Inola ere ezin izan daitezke euskara berdinak poesian, saio batean, biltzarre hontako hitzaldi batean erabiltzen duguna eta ipuin batean, sermoi batean edo zortzi-hamar urtetako neskato-mutikoei zerbait irakasteko erabiltzen duguna. Pedagogia zuzen batek eskatzen duenez, bereiztu egin behar dira irakaskintzan hizkuntza mailak. Eta euskara batua dela ta ez dela, anitz oker ibilte egin ditugula uste dut gure ohitura zahar baten eraginez, beharbada, hau da, euskal idazleok

euskal idazleentzat bakarrik idazten dugula, herria ta herriko hizkuntza mailak eta euskalkien hedadura kontutan hartu gabe.

3) Alfabetatzean, hizkuntza mailak jartzean, irakaskintzan... ortografia bat erabiliko nuke. Lapurteraz, gipuzkeraz, bizkaieraz..., baturantzako euskaran idazterakoan ere ortografia bat erabiliko nuke. Liburuetan, aldizkarietan, egunkarietan... ortografia bat erabiliko nuke. Euskaldunekin, euskaldun berriekin, gazteekin eta zaharrekin, ortografia bat erabiliko nuke. K. Mitxelenak 1968. urtean Arantzazun gogorki esan zuenez "euskara idatziaz ari bagara... eta ortografiaz ezin badugu... nola arraio egingo dugu batasuna?" (EUSKERA XIII, Bilbao, 1968, 248. orr.). Egia da, ortografia aldetik ez dago euskalkien eragozpenik ta atxakiarik ta beharbeharrezkoa dugu ortografia batua. R. Seco-k dioenez, "para el individuo, el conocimiento de la escritura correcta es necesario, ante todo, como una base física, material y estable, que le represente la forma de las palabras; y también, porque la convivencia social, entre otras uniformidades, exige esta uniformidad del escribir y descalifica a todo el que no se somete a esta disciplina. La ortografía es hoy en día, en todos los países, inseparable de la cultura". (*Manual de la gramática española*, 9.ª ed., Madrid, 1973, p. 285).

Hogei urtetan ari naiz irakaskintzan eta ondo dakit zelakoa den gure nahaste-borrastea ortografiaren arazoan. Izugarria ta lotsagarria! Eta hori erdarazko ortografia baino askozaz ere errazagoa delarik euskarazkoa! Askozaz errazagoa dudarik gabe. Erdaraz egin ditugun hogei ta bost mila orduak gogoratu behar berriz ere. Zenbat ordu eman ote ditugu euskal ortografia ikasten?

Mendez mende euskaraz erabili izan den ortografia ikusirik, 1968. urtean Arantzazun jarririko arauak direla uste dut egokienak, orrazketa bat edo beste egin ondoren; Arantzazun Euskaltzaindiak, Euskaltzaindi bezala jarririkoak, ta ez geroagoko *h*-aren ta *n*-aren ta *l*-aren ta abarren inflazioak.

4) Morfologia ta lexiko aldetik, aspaldion asko ere asko aurreratu dugula esan behar batasun bideetan zehar. Deklinabidea gehien batean baturik dugu ta ortografia bezala deklinabide bat erabiliko nuke nik beti euskarazko idazki guztietan, deklinabide batu bat, batek *gizonagaz* idatzi duela

gizonarekin idatzi beharrean, edo *gizonarekila*, ta haserre bizitan jarri gabe; *buruarekin* edo *buruagaz jo dut* jarri duela batek *buruaz jo dut* jarri beharrean ta haserre bizitan jarri gabe; *Berlina* ta *Zarautza* baino ulerterrazago badira *Berlinera* ta *Zarautzera*, hauek erabiliz eta abar.

Aurrizki ta atzizki aldetik egin den aurrerapiderik handiena erdal aurrizkiak onartzea eta erdal prestamoak euskalduntzea izan da. "Batasuna ala *antibatasuna* egiten ari gara?", galdetzen du J. Azurmendik *anti-* aurrizkia jatorki erabiliz. *Autozerbitzu, kontraesan, metahizkuntza, supergizon* eta abar oso geureak ditugu gaur. Orain dela urte gutxi *praktizitatea* ta *ofizializatu* idazten zen; gaur, ordea, *praktikotasun* eta *ofizialdu*. Asko ikasi dugu euskara batua dela ta ez dela, ta baturako bide berri egoki asko urratu ere bai.

Hor ari dira radikal batzuk *ongi* ala *ondo, baino* ala *baizik, gabe* ala *barik, nola* ala *zelan, axola* ala *ardura, bezala* ala *legez, gibel* ala *atze, aitzin* ala *aurre, nahi* ala *gura, ahaztu* ala ahàntzi, etxetik ala *etxerik, izango* ala *izanen...*, zein aukeratu behar den baturako ahalbait arinen erabakitzeko. Euskara osoaren barnean eta kultura maila batean ta hizkuntza mailak bereiztuez gero, huskeria bat dela hori esango nuke nik ta *ocurrir, suceder, pasar, acontecer* eta *acaecer* gaztelania batukoak diren antzera, biak onartu behar ditugu batuan oraingoz eta geroago ere bai, beharbada. *Ondo* ongi dago, ba, eta *ongi* ondo edo ontsa.

5) Eta aditzari buruz zer? Hemen dira kontuak!

Lehenengo ta behin, zera esango nuke: aditza sakondu ondoren, oso maite ditugula aditz erabilera zaharrak. Baina, jatorrenak izanik ere, oso leku gutxitan erabiltzen diren aditz joskerak edo inon erabiltzen ez direnak erabiltzea kaltegarri da euskalkientzat eta euskara batuarentzat, komunikabide ez den zerbait huts eta hotz bihurtzen delako honela euskara. Esate baterako, aditz forma jatorrak izango dira esaldiotan agertzen direnak: *sartu banintz, hurbilduko nintzatekeen; berak nahi zukean txakurra ekarri zion; boligrafoa eros zezaten; etorri dateke; galdu duke*. Baina gure herriak, hauen ordez beste forma batzuk aukeratu ditu: *sartu banintz, hurbilduko nintzen; berak nahi zuen txakurra ekarri zion; boligrafoa erosteko; etorriko zen; galdu izango zuen, galdu egingo zuen. Sar badadi (baledi), apur badezat, etor dadinean* eta

horrelako formak ere pilaka ikusten dira gaurko gramatika, metodo, aldizkari ta liburu batzuetan, horri esaten diote esan ere euskara batua batzuk eta. Baina herrian ez dira erabiltzen. Herriak *sartzen bada, apurtzen badut*, eta *etortzen denean* edo *datorrenean* erabiltzen ditu. *Dakust, dagit, letorke* ta antzekoak ere ia ez ditu erabiltzen, *ikusten dut, egiten dut*, eta *etorriko litzateke* edo *litzake* baizik. Esan zuen R. M.ª de Azkuek, duela hirurogei urte esan ere, "todas estas flexiones son normales, bellas, bien sonantes... Sólo tienen un defecto: el de la vida, pues ya casi en ningún pueblo son conocidas". (*Morfología vasca*, Bilbao, 1923, 680. orr.).

Egina dago egon aditz batu bat paperean; baina eginda egon arren, oraindik zer azterturik asko dugu aditzaren alorrean aditz batu bizi bat lortu baino lehen, zer azterturik asko aditza gaurkotu ta murriztu egiteko, herriak berak egin duen legez, zer azterturik asko gure aditza ondasuntegi nazkagarri bat bihur ez dakigun.

Horrexegaitik, oraingoz, aditz "sub-standard" bat, baturantzako maila bat egitea eskatuko nuke bizkaitarrentzat eta lapurtar eta zuberotarrentzat ere bai agian, euskara bizitik euskara batu bizirantz goazelarik ahalbait arinen ta egokiro joateko. Bestelan, Bizkaian behinik behin, nik neuk ez dut beste bide egokiagorik eta errazagorik ikusten.

Euskalkietan forma asko ditugu berdinak edo berdintsuak. Hor ez dugu eragozpenik. Baina forma ezberdinak ere hainbat ditugu: *dizkizut* eta *deutsudaz, zitzaizkidan* eta *jatazan*, adibidez. Ta horretan kontuz ibili beharra dugu euskaldun guztiak alfabetatu arte, horretan begirunez jokatu behar du Euskaltzaindiak Euskal Herri osoko euskalki bizi-bizien alde 1968. urtean Arantzazun Mitxelenak esana gogotan harturik: "Ez letorke kalte handirik oraingoz, beste puntuetan bateratsu bagentoz, aditz laguntzaile molde bat baino gehiago usatzetik. Egizta bait daiteke aditz laguntzaile horiek isomorfoak edo direla euskalki bakoitzean, eta euskalki batetik bestera ere bai, beharrik." (EUSKERA XIII, Bilbao, 1968, 218. orr.).

6) Joskerari buruz ere ba dugu zeri ekin asko, euskalki bakoitzaren joskera motak aztertzen eta batzen. Baina oraingoz ez du hainbesteko eragozpenik sortzen batasun bidean zehar goazelarik ta beste baterako utziko dugu joskeraren arazoa.

Amaitzeko hauxe esan nahi nizueke: Euskararen ikuspegitik euskararik txarrena erdararik onena baino hobea dela eta bizkaieraren esaera ta joskera, gipuzkeraren indar ta ardatza, lapurteraren dotoretasun ta ozentasuna, nafarreraren sustrai ta antzinatasuna ta zuberoeraren lilura xarmanta haintzat eta ontzat harturik eta zaindurik, eginahalak egin ditzagula guztiok euskara bizi batu bat ahalbait arinen egiteko.

Derion, 1978. urteko Irailan.

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 5

Moderatzaile: *Satrustegi, J. M.ª*

Partaideak:

(1) *Iruretagoiena, Juan:*

"Euskalki guztiak batu behar dira, baina pixkana pixkana. Ez da nahikoa euskara bizia izateko, batua egitea.

Euskaran "h", 1924.etik 1968.arte, nahiz Euskaltzaindiak jarrita eduki "h", zenbat idazti eta liburu idatzi ziren. Beraz, nork zuen arrazoia, lehengo Euskaltzaindiak ala gerokoak?

Euskaltzaindiak lehen jarria zeukan "h" baina jarria izan arren, zenbatek jarraitu zuen "h" hori? Eta zenbat liburu "h" orain bezala jarriaz? Orduan ia bat ez, orain erdiak baino gehiago kutsatu dira. Eta geroak ez dakigu zer.

(Ondoren datorrena zaratatsu entzuten da eta ezina da idaztea.)

(2) *Zarate, Mikel:*

"Nik esan nahi izan dudana, hau da: Ni ez nago forma jatorren kontra, bizirik daude eta. Euskara biziaren alde eta ulerterraza behar da".

(3) *Mitxelena, Koldo:*

"Zaraten hitzaldian, biziro egokiak iruditu zaizkit zenbait gauza. Ez naiz ari, niri gustatzen zaidan ortografia bakar bat hortaz.

Lehenbizi ongi eta garbi gelditu dena zera da, alegia, gauzak egin behar direla, euskaldunak, dakienetik eztakienera, eta bidea, alfabetatzea dela. Hemen, beti galdetzen dudana, etxean hitz egingo du, baina sekula idazten edo irakurtzen

ez duen pertsona batek... horren eritzia bost ajola zaigu, berak ere ez baitu ajolarik, jakin nahi ez duenez gero.

Egia da, euskaldunok, euskaraz deus ikasi edo saiatu gabe jakin. Hori ezinezkoa da. Orduan, ikasi behar da.

Mundu guztiak gogoan daukala, nahiz eta guk aditza era zabalenean argitara, guk geuk ez ditugula erabiltzen hor agertzen diren gehienak. Ierarkia bat jarri behar genuke.

Guk behar ez duguna da: bizkaikeria eta gipuzkeriarik. Dialektukeriak ez ditugu behar".

(4) *Altuna, Patxi:*

"M. Zarateren hitzaldia bikaina iruditu zait, eta erabat ados nator esan duenarekin. Baina hitzaldia astiroago aztertuz gero, nik uste dut, euskara batuko ikuspegitik apur bat aterea dagoela. Hauxe esan nahi dut: Nik Zarateren hitzaldiko azken aholku horiek, pedagogiari dagozkio, gehien bat. Euskara batuaren pedagogiari. Hots, ez dakienari nola, euskara batua irakats. Ez da munduan hizkuntza baturik, bertako hizkelkiak gal erazi dituenik. Eta, euskara batua inoiz Euskal Herrian gailentzen baldin bada ere, ez ditu euskalkiak, euskara bizirik baldin badago, galderaziko eta suntsituko. Ezin ditzake, Mikel.

Egunero idazten dugu. Liburuak edo artikulutxuak. Eta euskara batuaren auzia, hau da, hain zuzen: nola idatz. Zuk argitu duzun kezka, hor dago, bizi bizirik. Ez dakienari erakutsi egin behar zaio. Baina horren ondoan, ba ditugu, asko edo gutxi, idazleak. Nola idatz euskaraz, Mikel? Etorri bazen, etorriko balitzake, etab. Guztiz jatorrak izan ez da ere, gauza bat, ez dut uste, ukatuko didazunik. Hoien parean, eta euskaraz dakienaren aurrean: etor badadi, etor baledi, esan diezaiokeenari... ulertuko ez dionik, ez dela. Euskaraz baldin badaki, Mikel. Hor esaten jakitea da kontua. Behar den bezala, etor badadi, etor balekie, etor gintazkiokeen, etab. Baina esanez gero, ez da euskaldunik, ulertuko ez dionik, Mikel. Era hauk gorde behar ditugu alfabetatze mailan erakutsiz.

Asko edo gutxi, bagara, alfabetatuok, Mikel. Alfabetatuxeok. Alfabetatuak, nola idatzi behar du?"

(5) *Zarate, Mikel:*

"Nik, hemen, ohar batzuk jarri nahi izan ditut. Halako

X. Amurizaren "Semaforo gorriaren" antzera. Nik ez dut esan, jatorrak ez direnik. Herriak erabiltzen baditu, zergatik?

Ba, hogei urtetan ibili ondoren, ez dakit. Behar bada euskara gutxi egingo dut; baina nire asmoa izaten da, hemen ere guztiek uler dezatela".

(6) *Intxausti, Joseba:*

"P. Altunak esan duena jasoz, eta uste dut denok ulertu diogula Mikeli, berak zerabilen gaia, pedagogiako edo ote zen. Beste aldetik, goizeon ikusi dira datu batzu, bizkaitarrek ba dituztela halako eragozpen berezi batzu eta laguntza berri batzuren beharra.

Nik proposatuko nuke, bide hortatik, ea posible den Euskaltzaindiak arazo hau azter dezan eta sumatzen den arazo hori, nolabait bide praktiko batetara eramateko modurik egingo ote lukeen".

(7) *Latiegi, Bixente:*

"Mikeli esan nahi diot bere hitzaldia, orain artekoetatik, praktikoena izan dela. Konforme nago puntu gehienetan.

Uste dut, euskaldun bakoitzak bere euskara ongi ikasi arte, batuan pentsatze hasterik ez dagoela. Guk ikastoletan aurreneko urteetan, umetxoek herriko, norbere herriko euskara erakusten badiogu eta gero norberaren euskalkia eta gero, 13-14 urterekin bizkaikoei gipuzkera eta lapurdiera, orduan batua, berez, sortuko da".

(8) *Kintana, Xabier:*

Latiegi jaunak dioenari gauza bat erantsi nahi nioke. Hara, ume bakoitzak bere herriko euskaraz gainera, beste lau edo bost euskara ikasi behar baldin baditu, delako batu hori noizbait lortu ahal izateko, nik pentsatzen dut, askoz errazagoa dela, bereaz gainera bat eta bakarra ikastea. Pentsatzen dut zailtasun hortaz, eta sarri askotan, Mitxelenak gogoratu digunez, gurasoen eskubideaz ari garelarik, ba, aittitta ez garenok, behintzat aitta izaten gara orain; neure andrea, bizkaitarra da eta euskara batua badaki ere, ez du ohiturarik erabiltzeko eta bizkaiera egiten du; guk bi haur ditugu, nagusiak hiru urte eta honez gero, niri, beti euskara batuz egiten dit eta amari ere bai, aittittari bizkaiera egiten dion bitartean.

Nik ez dut uste halako kalterik dutenik, Andaluziako haurrek erdara batua ikasten dutenean. Eragozpena haurrena baino gehiago irakasleena izaten dela, haurrekin hitz egin behar duenarena."

(9) *Azurza, J. J.:*

"M. Zarateren hitzaldia ederra izan da, eta, oso gustora entzun dut. Bi edo hiru gauza galdetu nahi nizkioke.

Bizpairu lekutan, Aranatarren jokabidea aipatu du. Eta ba dirudi, aranatarrak, joan den denborakoak zirela. Ez gaur egunekoak. Aranatarrak, politika mailan, bizi bizirik daude gaur. Euskal Herrian.

Gaurko euskara batuko gehiegikeriaren aurka mintzatu da. Orduan, Arantzazu ondoko inflazio hori, gutxituko bagenu, eta Arantzazun esan zen bigarren atal edo erabakiari jaramonik ez bagenio egin, bakoitzak nahi duen tokian "h" sar zezala eta hori ere, ongi ikusia izango zela".

(10) *Zarate, Mikel:*

"Nik, ba, egia esan, niri esan didate, ur bitara ari naizela. Eta konturatu naiz, ohartu gabe idatzi ditudala zazpi liburu, bizkaieraz, eta zazpi batuan edo nire batuan edo baturantzako ahaleginean. Ni ez naiz aurretik horren aurka noana. Eta nik, egia esanda, ez dakit zergatik, eta txotxoloturik nago, esango nuke gainera, mozkor bat dudala, zergatik kaltegarri zaidalako osasun aldetik, eta bestetik; baina herria eta herriko hizkuntza eta Euskaltzaindia ere, talde hortan sartzen dut. Nik horregatik diot, ostetik marmar ibili beharrean, nahiago dut Villasanteri edo Juan San Martini esan, baina lasai gainera.

Orduan, hemen ere, zuri erantzunez, esango dizut, Aranatarren giroan, inflazioak izugarrizkoak izan zirela. Adibidez "k" inflazioa. Izan ziren inflazioak eta ultrak, zergatik?

Garai bakoitzak behar duelako bere snobismo bat edo, bere lilura bat. Gaurko gazteek, ez dakit nik zergatik, ba dute aparteko indar bat: nik batua nahi dut: "quiero el batua; dicen que es purísimo"; jakin gabe, askotan, ba du bere erakarpena. Nik nahi dudana da, zuzendu indar hori, beste indar askorik ez daukagunez gero.

Orduan, Aranatarren giroan, Aranak Mogel ezagutzen zuen. Hemen azken batez ez dago Mogel eta Añibarro. Aranatarren giroan ere, izugarrizko inflazioak izan ziren. Eta gerra aurrean ere bai. Horregatik diot, azken batean, Azkuek irabazi zuela. Herriarekin eta herriz herri Euskal Herrian ibili zelako. Nire maisua, egia esanda, Azkue da. Azkuek irabazik duela uste dut, gainera.

Arana oso maite dut eta Aranak izugarrizko intuizioak izan dituela, batez ere, guk euskaldunok aparte nazio bat egiten dugula... baina hizkuntza aldetik, radikala izan zen, euskaldun berria izan zelako. Eta, euskaldun berriak, beti izaten dira radikalagoak eta hori ere ultrak eta "h" hondatu duela... dena ez da borondate txarrez egiten".

(11) *Alberdi, Justo:*

"Gauza bat esan nahi dut: Uste dut euskara batua ez dela ikasi ezineko gauza bat. Lan apurtxo bat egin eta balore apur batez, urte bitan ikas daitekeela. Nire kezka azaldu nahi nuke.

Bat, Iurretarra naizenez, ikusten dut, bai Iurretako ikastolan eta bai Iurretako alfabetatze euskalduntzean, problemarik. Ba daude Iurretako ikastolan Eako umeak; Arratikoak, Ondarrokoak, Gipuzkoarrik ere eta baita Iurretakoak. Hor ikusten dut zein bizkaiera moeta irakatsiko diogun. Zein bizkaiera mota?

Hortik aparte, andereñoa, Lazkaokoa da. Umeek ulertzen diote, umeek ulertzen dute andereñoren azalpen guztia. Horrez gainera ume hauk badoaz Nafarroa edo Gipuzkoako udalekuetara, nola hitz egingo dute hangoiekin? Nola hitz egingo dugu guk? Erdaraz?

Orain dela bi urte izan ginen Nafarroako herri batetan, kolonia toki batetan. Umeek ongi ulertzen zuten bertako umeen hizkera. Konpontzen ziren eta euskaraz iharduten zuten.

Bestalde, sukaldean zebiltzan emakumeak, erdaraz hitz egiten zuten Berueteko emakumeekin ulertzeko.

Iurreta eta Nafarroako euskarak, ez dira berdinak. Nik ikusten dudana: Bizkaiko zein era irakatsiko diogu? Nik ez dut ezagutzen horrelako estudiorik eginda dagoenik! Zenbat mota dauden eta non egiten diren".

(12) *Zarate, Mikel:*

"Nik lehen eta behin esango nizukena, hauxe da: Bizkaiera bizkaera nik ez dut inoiz irakusten bizkaiera. Nik esan dut deklinabide, ortografia... batua. Lexiko aldetik ere bai. Oso zabal, oso batua dugulako. Nik aditz aldetik, adibidez, zitzaizkigun, dakusagun... baina gurasoekin nola egiten dute? Erdara egiten dute. Gehien batean, batua ematen dut. Baina, batu alfabetatua. Alfabetatuz gero, Bizkaian ba dago batu bat... euskara bera ez dugu ezagutzen, eta ez dugu landu".

(13) *Alberdi, Justo:*

"Gauza bat esan nahi nuke: Batuaren arlo hontan, batuari ezartzen dizkiogula erru guztiak. Ahalegin pixka bat egingo bagenu, guztion artean euskara zerbait ikasteko, ez genuke horrenbeste arrazoi izango ez batuaz, ez gipuzkeraz, ez bizkaieraz... biak batera hitz egin ahal genituzkeela, uste dut.

Sarritan, egiten diot nire umeari bai batua eta bai bizkaieraz, eta era errazak, bietara erabiltzen ditu. Batuari ezin diogu zamatu gure nahi ez izatearen ondorena. Ahalegina egin behar dugu, euskara ikasteko, eta ez bota batuari gure alferkeria."

(14) *Pujana, Pedro:*

"M. Zarateren *euskara batua eta euskalkiak* izeneko lan ederra entzun ondoren, nik galderatxo bat egingo nuke, hemen: Orain zortzi urte direla, 1970.ean Bizkaiko aditzari buruz, liburuxka bat argitaratu nuen. Eta orduan, batek baino gehiagok aurpegira hauxe bota zidaten euskara batuaren aurkako etsaia nintzela. Eta hori zergatik?

Nik erantzuten nion: Eta bizkaierazko aditzari buruz lan bat egin duzulako. Eta orain, bizkaiera edo euskalki baten lanik ezin daiteke egin.

Eta horrela, batek baino gehiagok mindu egin ninduten.

Hori dela eta, Euskaltzainburua hemen dagoenez, eta euskaltzain zareten batzuk ere...

(Kontuz, zinta bukatu egiten da, eta amaiera ez dago grabaturik.)

(15) *Villasante, Luis:*

"...Eta oraingoz eta ez dakigu noizko, edo betiko, euskalkientzat beti izango da toki bat literaturan. Eta, behar bada, egokiagoak dira euskalki literarioak, euskara batua baino, zenbait generotarako. Hori, bakoitzak ikusi beharko du, noiz, non etab. Euskaltzaindiak ez du ezer euskalkiak lantzearen aurka. Eta, horrelako azterketak egitearen aurka, gutxiago, oraindik. Adibidez, Oletako aditza, edo zuk egin duzun moduan. Azterketa hoik, oso beharrezkoak dira, alde askotatik. Baita, batua bera aberasteko ere. Beraz, segi bide hortatik. Euskaltzaindiak ez du ezer horren kontra."

(16) *Haritschelhar, J.:*

"Berrietan agertu da lan eder bat, Karmele Rotaetxek egindakoa. Guk, holako lan batzu behar ditugu".

(17) *Knörr, Enrike:*

"A. Villasantek esan duena azpimarkatu nahi dut. Garbi esan nahi dut, beharbada, ez Euskaltzaindiaren izenean, baina bai euskaltzain naizenez gero, azpimarratu eta aldarrikatu. Eta, ez gara inolako euskalkiaren kontra, eta ez hitzez bakarrik; bai obraz ere euskalkien ikerlanen alde gaude. Eta, hemen dauden lagun guztiek jakin behar dute, Oletako lan hori, Oleta, Angiozar, Zeberio... Pujana jaunaren lan eder hori Diputazioko moldiztegian dagoela. Nik proposatu eta eraman nuen. Eta laster argitaratuko da".

(18) *San Martin, Juan:*

"Nik ere, hontaz, gauzatxo bat esan beharra dut. Gainera, Euskaltzaindikoa naizen aldetik ere bai.

Denbora gutxi dela, paradigma batzu gertatu ditut, Eibarko aditz laguntzailearenak, Toribio Etxebarriak egin zuen lanaren betegarri. Hark hutsune batzu utzi zituelako.

Hau eman nahi dut, beste hiztegi batez, ba dira bostehunen bat hitz, hark jaso gabe, utzi zituenak, gehienak. Eta batzu, beste zentzu bat eman zizkienak. Hau da, hitz batzu, bi edo hiru zentzuz erabiltzen direnak.

Baina puntu hontan, gauzatxo bat esan nahi dut, Pujana jaunaren pozgarri. Hain zuzen, aurten ba, harreman batzu

izan ditut Joan Braun, Poloniako linguista batekin. Eta honek agertu zidan gogoan, bizkaiera ezagutze nahiarena. Hain zuzen bizkaierazko gramatika bidali nion."

(19) *Davant, J. L., Züberoako euskaltzaina:*

"Jaun batek, goizeon erran du euskara batuaren arazoa, geroko utzi behar dela. Baina galdetu nahi nuke, bihar, Hego aldeko Euskal Herrian, zein izanen da Administralgoaren euskara? Oker ez banago, Kontseilu Nagusiak erabaki du, noski, euskara batua izango zela. Beraz, egin behar da. Eta erran nezake, erdi egina dela, edo zerbait egin dela.

Eta euskara batuari buruzko lan hori, duala hamabost urte hasi zela, Baionan, eta nihaur ohoratzen naiz, lan hortan, partaide izanik, nahiz eta langile ttikia izan, Txillardegi eta beste zenbaitekin.

Dena dela, zerbait eginik ba dago. Eta erdi bide baten aukeratzea aipatzen delarik, zer erran nahi da? Guk egin dugun guztia ukatzea? Hori ezina da. Erdi bide bat aukeratu behar baldin bada, bi posturaren hartzeko, erdi bide bat hartu behar da... Eta guk, bi erdi egitekotan, beste batzuk ere, beste erdi egin behar lukete. Eta ez, guk dena ukatu eta besteen atzetik gari. Horrela ez dago euskara baturik.

Hirugarren puntu bat aipatu nahi nuke, nola elkar konpreni, elgar ulert dezakegun züberotar batek eta bizkaitar batek, ez bada euskara batuan. Eta noski, zuberotarrez mintzatu banintz, uste dut hamarretik zortzik ez zutela tutik ulertuko.

Etxean zuberotarrez egiten dut. Eta zuberotarrez idaztea ere, gertatzen zait. Baina, uste dut euskara batua ere behar dugula. Besterik gabe."

(20) *Irazola, Jose Mª:*

"Hemen esan diren bat edo bi gauza azpimarratu bakarrik. Uste dut, J. Alberdik gauza garrantzitsu bat esan duela eta ez da, nahibestean, haintzat hartu. Bizkaian, bizkaiera bat edo bi baino gehiago dira. Honen euskara sistematiko eta zientifiko bat, ez da egin neuk dakidanik behintzat. Beste tokietan ere ez. Hizlariak esan duenarekin oso bat nator, behar bada aurrizki eta atzizki gehiago sartu beharko dira oraindik, baina euskalkietan hainbat gauzaren bateratu

beharra dugu. Beti berdin esan beharrean, esan, adibidez *zelan* edo *nola*. Horrek ez dakar eragozpenik.

Beste morfema asko daude, morfema aldetik aukeratu eta moztu beharrekoak. Baina, lehen eta behin, batua aberastu, eta ez asmatu.

Bigarren, batua ikasi; baina gero tokian tokiko euskalkiak. Baina Euskal Herrian auzi garrantzitsua ez da batua-euskalkiak, euskara-erdara baizik. Nik ez nuke batua esango, euskara baizik. Hortik gorako arazoak, farmaziako arazoak direla uste dut: kalmanteak."

(21) *Azurza, J. J.:*

"M. Zarateri galdera bat egin diot lehen, eta ez dit erantzun.

Zer kenduko liokeen, gaurko Euskaltzaindiaren euskara batu horri?

Ni ez nago euskara batu baten kontra, ni zeren alde nagoen irakurriko dizuet: Guri dagokiguna euskara biziari jarraitzea da. Handik barne izerdia atera, eta herriko euskararik harreman hestuan egotea.

Orduan, herriko euskarak bizituko du gure literatura eta orobat, literaturak bere babesa emango dio euskara biziari.

Herritik aldendurik dabilen literatura, gezurrezko zerbait bihurtzen da. Gutxirengo batentzat ona. Ni honekin nago, eta ni bezala, euskal Herrian, jende asko."

(22) *Zarate, Mikel:*

"Lehen eta behin, ez ditugula Euskaltzaindia, Euskaltzain, Euskaltzaindi bezala, gauzak ez dituela ongi argitzen: begi onez ikusiko lukeala, gorago jo nahi dutenek... Orduan, Euskaltzaindiak Euskaltzaindi bezala, jarri dituen arauak ikusiz gero, nik uste dut, Arantzazukoari orrazketa bat egin eta gero, ez jokatu era hestu-hestu batez.

Hestu egotea ere, ultra batzutan, batukeria batzuk ere izan dira. Konforme nago Euskaltzaindiaz, baina bide bat hartu behar da, bestela, lotsagarria delako eta herri batentzat ere azkena delako eta horrek negargura ematen dit. Batu batetara jo nahi dudalako".

BERGARA, 1978 - IX - 6

EUSKARAREN BATASUNARI BURUZ "H" LETRAREN AUZIA DELA-TA

Bergara, 1978-IX-6

Iparraldeko euskaltzainek

Haste hastetik Euskaltzaindiari gogoratu zitzaion euskararen bateratzeko xedea. Hor da lekuko *Euskera* agerkaria.

Duela hamar urte bildu ginen Arantzazun eta zenbaitek ulertu ginuen behar ginuela on-hartu hautsi-mautsi zerbait batasunari buruz.

Lapurtaz, Baxenabartar eta Ziberotarrentzat bazen hasteko *x* letraren istillua. Gure eliza liburuzaharretan hala ikusirik askok *ts* bezala jotzen zuten. Adibidez *untsa* idatziko zuten u.n.x.a. *X* on-hartuz frantsesen *ch* -en orde, ez duzue aise asmatuko gure irakurleen ganik ukan dugun ihardukidura edo bihurpena.

Batasunaren onetan *x* txar hori hartu dugu eragozpen multzo bat gora behera.

Bertzalde, *h* letraren auziari ere ihardespen bat eman diogu, kontsonanten ondoko *h* baztertuz, nahiz kasu batzuetan arras beharra zitzaukun: adibidez guretzat *alha, hala, ahala* eta *ala haxe* horren bidez berezten dira; herri, erri eta erhi ere bai.

Bego hortan.

Arantzazun proposatu zuen atxikiko zirela bakarrik hitzen hastapeneko *h*-ak eta bokalen artekoak. Horrek ez zuen erran nahi diptongo guziak behar zirela desegin: berexten ditugu elgarretarik *sei* eta *sehi, bai* eta *bahi, naia* eta *nahia, zaia* eta *zahia*.

Ez gira guti harritu hegotar batzuek *h* nun nahi edo nola nahi ezartzen zutela ohartzearekin. Uste zuketen *h* letra ugalduago eta euskara batuago zatekela. Denetan bada neurri

bat. Atzizkiak, hasteko, ez dira sekulan *h*- dunak. Nehork ez du nehun erraiten: gerezi gorri*h*ark, etorri za*h*io, gizonen arte*h*an.

Nundik atera den *h* soinu hori ez da batere argi. Zenbaitek diote lehen biziki hedatuagoa zela euskal eremuan eta dokumentuak erakusten dituzte. Bertze zenbaitek uste dute gauza berria datekela eta euskaldun hegotarrentzat arras arrotza eta ahozkatzen ez dutena.

Batasunaren izenean ez dezakegu nehori galda *h* ahozka dezan. Bainan bai Espainian bai Frantzian hiztegiak bi erdaretan *h* letraz emokatuak dira, nahiz ez diren eskualde gehienetan batere ahozkatzen.

Adibidez, iker-aldi bat eman diogu Dictionnaire moderne espagnol français, Paris 1967-koari. Hiztegi hortan, *h* letraz hasten dira 1341 hitz;*A* letraz hasten direnetan 129 *h*-dunak dira. *Des* aurrizkaz hasten direnetan 75, eta abar...

Ez da erraiteko baizik espanola eta frantsesa dakitenek badakitela *h* mututzen. *H* ahozkatzen ez dutenek zergatik ez lezakete eskuaraz letra hori mutu, erdaraz usaia duten bezala?

Asko herritan bokale arteko *r* eztia ez dute ahozkatzen, nahiz idazten den. Hala nola, Uztaritzen, *amaan zaia* erraiten den, nahiz *amaren zaia* idazten den; gisa berean, *ikuste-ut* erraiten dugu nahiz *ikusten dut*,idazten. Hots, denek letra batzu mututzen ditugu mintzatzean, nahiz idazten ditugun. Iduri zaiku *h* horri buruz gauza bera egin ditaikela.

Nundik datozin gure *h* horiek, ez da beti ageri.

Huna zenbait kasu:

Bokalen arteko *n* batzu *h* bilakatzen dira:

sanum-ek eman du *xahu;* manacem-ek *mahats*, anatem-ek *ahate*, honorem-ek *ohore*;

H-ek iduri du baduela zer ikusi n et g, soinuekin.

Ikus: *akitu* eta *ahitu; erhats* eta *erkatz: gau, guri, gara* eta *hau, hori, hura.*

H batzuek iduri dute bokalen arteko hutsen betegarri: gauherdi/ eguherdi:

Bertze zenbait *F* —en ordari dira: *ofe, ohe*, oge *gahatu*, gafatu. Badira ere ezinulertuak, hitz batzuen hastapen azkargarri hutsak, hala nola *harma, hautatu, hira, hezkabia.*

Mintzaire guzietan aurki ditazke hitz frango bitxiak: frantsesez: lierre, tante, grenouille.

Bainan horiek oro lehenagoko gora beheren seinaleak dira. Guk oraiko euskaratik nahi dugu aintzinatu euskararen bateratzeko, bainan euskalkien egoeraz konturatuz eta bakotxak zerbaitetan amor emanez elgar ulertzeko gisan.

Ikusirik azken hamar urte hauietan zer aurrerapen egin den batasunari buruz nahi ginuke orai ikusi —ortografia batuaren osoki finkatzeko— nun aurki dezakegun H letra, erran nahi baitu nun behar den ezarri.

Hortarako ez dugu hitz guzien zerrenda emanen egun, nahiz bearko den eman hiztegi batean. Nahiago ditugu bildu hitzerroak edo hitz-gakoak, erran nahi baita hitz familia batean bakarrik aipatuko dugula hitz laburrena, hitz familiaren erroa edo sustraia. Har dezagun etsenplu bat: *Oihu*. Beraz oihu bakarrik aipatuko dugu eta erran gabe doa oihu-rekin eginak diren hitz guziak oihu bezala idatziko direla: oihualdi, oihugile, oihuegin, oihugia, oihuka, oihukari, oihukatu, oihulari, oihumin, oihuska, oihuti...

H letra aurki ditaike hitz aurrean bokal edo diptongo baten aintzinean. (Ikus Ibon Sarasola: Euskal hiztegi arau emailea —Hirugarren zatia: H letra 359-410 orrialdea. Nahi ginuke erran iduri zaikula oso ongi egina dela hiztegi hori eta bizpahiru hitz goiti beheiti hala nola hauzapez edo auzapez eta hibai, nahiago baiginuke ibai h-rik gabe, H letran dauden hitz guziak on har ditaizke. Horietan zonbeit bereziko ditugu, ez baitira hitz hutsak, gramatikan erabiltzen diren hitzak ordea.

1. demostratiboak: hau, hori, hura.
2. adberbioak: hula, hola, hala.
3. Adverbio demostratiboak: hemen, hor han.
4. presentatzekoak: huna, horra, hara.
5. kantitatezkoak: hoin, hain.

Hitz berean ez ditaike aurki bi *h* eta beraz h-ekin hasten den hitz batek ez du bertze h -rik hartzen. Hortakotz Xiberotarrek idazten dute *haur* bainan *aurhide* (*haurkide), hortakotz ere *hauzo* balinbadugu *auzaphez* idazten zen p azpiratuak haizatzen haitzuen hastapeneko *h* a.

H letra hitz aurrean dagolarik marka dezake bi hitzen arteko diferentzia. Huna h-kilako eta ha gabeko oposizioak:

hadi (inperativo)	/	adi (tu) (entzun.)
haita (Zib)hauta	/	*aita*
hala (adv.)	/	*ala* (edb.) alha(tu)
halda (zaia bazterra)	/	*alda(tu)*
haltza	/	*altza*(tu)
har	/	*ar* (eme ez dena)
hara (adv.)	/	*ara*(neurri-manera)
haran (ibar)	/	*aran* fruitu)
hardit(ausart)	/	*ardit* (dirua)
hari	/	*ari* (aditza)
haro (azantz)	/	*aro* (erdi-aro)
harri	/	*arri, arri* (mandoko)
haste hasi)	/	*aste*
hate (Z) fortuna	/	*ate* (borta)
hegi(a) (gain)	/	*egia*
hei(a) barruki)	/	*eia, eia*
heltze (h-eldu)	/	*eltze*
herri	/	*erri* (irri ziberotarrez)
hetsi (hets)	/	*etsi*(tu)
hez (hezi)	/	*ez*
hezi	/	*ezi* (xib.)
hira (pozoina)	/	*ira*(tze)
hiri	/	*iri* (eguerdi iria)
hoin	/	*oin*
hola	/	*ola (olha* xib.)
hondo	/	*ondo* (albo)
hugu (fouine)	/	*ugu* (indar)
hupa-(tu)	/	*upa* (dupa)
hura	/	ur(a)
Huste (huts)	/	*uste*

Holako oposizioek erakusten dute *h* beharrezkoa dela euskal ortografian hitz batzuen bereizteko eta ondo ulertzeko.

H letra aurki ditaike ere hitzaren barnean.

a) bi bokalen artean

b) diptongo baten ondotik eta bokal baten aintzinean.

d) bokal baten ondotik eta diptongo baten aintzinean. Hitz horien zerrenda eman aurrean nahi ginuke ikusi zoin diptongo aurkitzen dugun.

+. Diptongoa H-ren aintzinean.

(eman zerrenda)

AI/

aihal
aihar
aihen
aiher
aihotz
gaihada
gai-h
saihets
zaihaga
zaihar
zaiher.

EI/

beihala
deihadar
eihara
eihar
leiho
leihor
zeihar

AU/

auhal
auher
gauherdi
lauhazka

OI/

goihen
oihal
oihan
oihu
oihatu
oiher
oihes
xoihaska

Diptongoa H-ren ondotik

AI/

ahaide
dohain
ehai...
gohain
ihaili
mahai(n)
uhain

AU/

nihaur... guhaur
ihauzkatu

EI/

beheiti

IE/

gehien

uhaitz
zihain
zuhai
zuhail
zuhain
zuhaitz

OI/
lehoin
nehoiz
ohoin

IA/
ehiagora
gehiago
lehia
xehiala

H-ekilako eta H gabeko hitzen oposizioak badu ere bere balioa.

ahate	/	ate
ahitu (agortu)	/	aitu
ahur	/	haur
ahuts (zeihar)	/	hauts
ahide	/	aide (aire)
ahari	/	ari / hari
bahi	/	bai
behera	/	bera
behere	/	bere
bihi	/	bi
ehi (erhi)	/	hei
gahatu (hartu)	/	gatu
gahi (mehar)	/	gai
gehi (hanitza)	/	gei
ihizi	/	izi
kahaka (xorisorgin)	/	kaka
lehen(a)	/	lena (lana)
leherra	/	lerra(tu)
lehia (tu)	/	leial
mahaina	/	maina(tu)
mehatze	/	meatze
mehe	/	me
mihi	/	mi
nahaba (nahasi, eho)	/	naba

naharotu(joritu)	/	narotu
nahika (nahikeria)	/	naika (munjula)
nahi a)	/	naia (belar maila)
nahiz	/	naiz
ohi	/	oi
ohola (taula)	/	hola/ola
ohoin	/	oin
ohots (ar)	/	ots (azantz)
(r)		
sehi	/	sei
soho	/	so
xuhurki	/	(i) xurki
zahagi	/	zagi (son)
zaharo (makil)	/	zaro.(aro)-pentze.
zahi (son)	/	zain(n)
zihi (ziri)	/	zi (ezkurra. Xib.)
zihita (enegu nazka)	/	zita (dirua)
zohi (lur puska)	/	zoi (ezkilaren arraildura)

Eta azkenean huna oixtian aipatu dugun hitz-erro edo hitz gakoen zerrenda.

A/	
Aha.	aho
Ahal	
ahaide	
ahalge	
ahantz	
ahar	ahari
aharra	
ahate	
ahatxe	
ahatz	(ahantz)
ahetz	
ahi	
ahin	(arin)
ahits	
ahizpa	
aho	
aholku	

ahul
ahuntz
ahuts
ahutz
aihal (aihari)
aihar (aiher)
aihen
aiher
auhal (auhari)
auher (alfer.)

B/

Baha	behex	(berez)	Bihur
bahe	behi		buha
bahi	behin		buhame
bahuts	behola		buhurdi
beha	behar		
behar	beihala		
beharri	bihar		
behatz	bihi		
beheiti	bihits		
behera	bihortz		
behere	bihotz		

D/

dehota	(defota)		
deihadar	(?)	(deiadar)	
diharadun			
diharduka			
diharu			
doha			
dohain			
dohatsu			

E/

eha-gin		eihar	
ehai-le	(eheile)	eihara	(eihera)
ehati			
ehatz	(erhatz)		
ehe			
ehi	(erhi)		

eho
ehortz
ehun

G/

gahatu
gahartu
gahasia
gabe
gahi garhi
gaho (garho)
gahondo
gahulatu
geheli
gehi
gohain
gohen
goihen

I/

Ihakin
ihar
ihardets
ihardoki
ihes
ihi
ihintz
ihizi
ihurtziri
ihur
ihurri

J/

Jahabala
johada
juhieki

K/

Kahaka (kaheka)
kahalla
kahartu
kahinka (kuhixka)
kaholla
kehella (kihilla)
koha
kohail
kohat
kuhau (kofoin)

L/

Lahar
lehen
leher
lehia
lehoin
leihor
liho
lohi

M/
mahai(n)
mahats
meha (mehe)
mehar
mehats
mehe
mihi

N/
Nahaba
naharika
naharo
nahas
nahi
nehola
nehon
nihaur

O/
ohar
ohatz
ohe
ohi
ohil
ohoin
ohola
ohore
ohots (orots)
ohuts
oihal
oihan
oihu
oihatu
oiher

P/
ezer ez

S/
sahats
saihets
sehi
soho (soro)
suhar
suhi

T/
Tahalla
taharna
tehenta
treheil
tuhunta
tuhuta (tuta)

U/

u(r)h	uher
uha	uhide
uhain	uhuri
uhaitz	

X/

xahako	xehe
xahal	xerri
xahar	xuhail
xahu	xuhar
xeha	xuhur

Z/

zahagi	
zahar	
zaharo	
zahi	
zaho	
zeha	(zehe)
zehar	(zeihar)
zehe	
zeihar	
zihi	
zihita	
ziho	
zihukatu	(zihikatu)
zohar	
zohatsi	
zohi	
zu(r)h	
zuhaitz	(zuhatz)
zuhamu	
zuhar	
zuhur	

Hitz-erro horieri begira, ikusten da, argi eta garbi hitz barnean dagolarik *h* letra, beti bigarren silaban lehen kontsonantea bezala agertzen dela. Berrehun hitz-erro berexi ditugu eta berrehun kasuetan *h* bigarren silaban dago. Bertze *h* ba-

tzu agertzen dira euskal hiztegian hirugarren edo laugarren silabetan, bainan beti hitz konposatuetan

etsenplu batzu: ehun / berrehun
ohore / desohore
ahatzi / erahatzi
tapalahara / tapala + hara
tapilaharat / tapila + harat

Jadanik Mitxelena ohartu zen gauza hortaz erraiten zuelarik *(Fonética histórica vasca,* 1961, 215 garren orrialdean, 11-11.) "En una palabra de tres sílabas, la aspiración, puede aparecer, además de en posición inicial, entre la primera y la segunda sílaba, pero no más adelante".

Guk lege bat ezar ginezake: h-dun hitzetan, *h* agertzen da lehen silaban lehen letra, edo bigarren silaban lehen letra.

BILTZARRE TXOSTENAK

H'RI BURUZKO TXOSTENAREN AURRE-IDAZPENA

Bergara, 1978 - IX - 5

Zatarain'darr, Anbrosi'k

(Emen aipatzen eztiran zeetasun asko Gavel jaunaren "Eléments de Phonétique basque" idazkian, RIEB- 12, 1920, 450... 480 a)

Bein Mitxelena jaunari onako au esan nion:

— h'rik geienak fonetismo utsak diralakoan nago.

Eta berak:

— ¡Ain fonetismoak! Or daukazu "eguerdi" h'rik gabe, eta "gauherdi" h'rekiñ.

Ori entzuniḱ bat-batean erritarren izenetako *-arr* eta *-tarr* ikartu nituanean ediren nuana gogoratu zitzaidan. Alegia erriaren izena letra bakartiz (bokalez) bukatzen danean' geienetan *-arr* erasten zaiola:

arabarr, deustoarr, durangarr, orozkoarr, gernikarr, debarr, motrikoarr, tolosarr, donostiarr, errenteriarr, ondarribiarr, ernaniarr, zestuarr, getariarr, bidaniarr, azpeitiarr, azkoitiarr, oiñatiarr, legazpiarr, ainhoarr, arbonarr, biriatuarr, kanboarr, ezpeletarr, luhosoarr, makearr, urruñarr, ahurtiarr, gabadiarr, ostankoarr, zohaztiarr, bankarr, lasarr, baigorriarr, zaroarr, ondarlarr, uhartiarr, ibarlarr, phagolarr, donaixtiarr, iholdiarr, bastidarr, mendiarr muskildiarr, altzabeheitiarr, gamearr, zihigarr, liginagarr, ligiarr, aiñharbiarr etxarriarr, olhaibiarr, oihergiarr.

Baiña arau onek errezkedan iru bakarti (bokal) sortuko litukenean' *-tarr* esan oi da: bizkaitarr, sestaotarr, bermeotarr, mondragoetarr, pasaitar, oriotarr, bidarraitarr, urkudoitarr (urkhoitarr), urrvxtoitarr;

Beste batzuetan'erri-izena laburtu dalako arauzkontrako itxura artzen dude: bilbotarr, zumaiarr, altzaiarr, atheiarr. Erriaren izen jatorrari dagozkie: bilbaotarr, zumadiarr, altzadiarr ("altzariarr" Larrazketa'k dionez: Lhande-

Larrasquet, Le poète Pierre Topet dit Etchahun, >), atheregiarr.

Orrela jokatuz' "gauerdi" itzaren iru bakartiko errezkada galerazteko bi bide erabiltzen dira: erdiko bakartia alkarti (kontsonante) biurtu: *gaberdi*, nair tartean h alkartia sartu: *gauherdi*. Ona orrela sortzen diran ots-aldakuntzak: aien ayen, aihen; oiu < oyu, oju, oihu; aiotz < ayotz, aihotz (Oih. Prov. 405 aiotz); eiara eiyara, eihara, ihara, igara, eihera; goierri > goyerri, goiherri; leonem > leoe > legoi, lehoin; oial > oyal, ojal, oihal; oian > oyan, ojan, oihan (Ahetzén, 1792: herrico oyanaren portione bat, RIEB-2, 388a; oian baterat; Webster en ipuiñak, Fontes-19, 290a); oiarr oyarr, oiharr, oiherr; saial, saihal; saiets > sayets, saihets; urollo > uollo > uhoilo > ugoilo; leio > leyo, leiho; deiadarr > deihadarr.

Arau onekiñ itxuraz iru bakartiko errezkadarik eztudenak ere' errez adierazi litezke; aski da bereizte-atzizkia erastean zer gertatzen dan gogoratzea. Izan ere' bereizte-atzizkia beti *-a* izan da, iñoiz eta iñon ere ez *-ha*: etxeha, begiha, zuloha, buruha sekulan ere eztira idatzi, eta esan ere ez, dakidanez. Berdin gertatzen da *-ago* atzizkiarekiñ ere: zabalhago, ederhago, ttipihago eztira beiñ ere idatzi. Orrela izanik bei + a = beia iru bakartiko errezkadarekiñ. Ontan ere leengo bi bideak ditugu zabalik: beya, beija, behia, esan dudanez *beiha* esaterik ezpaita.

Ona orrela sortuak didurien batzu:

oe > oea > oia, oya, ohea, ogea; ai > aia, aya, ahia; ao > aoa, ahoa, agoa, aua, aba; bae > baea, bahea, baia, baya bahia; gei > geiago, geyago, gehiago, geien, geyen, gehien, geihen (ikus Sota-Dic. Ret. Aut., "atxikirazi": Sakramentu horren establitzian uken dien xede geihenetarik bat... Alphonsa Rodriguez, 202); goi > goien, goyen, goihen (ikus Haritxelharr, "Le poète souletin Pierre Topet-Etchahoun", deiturabillabidean: Etchegoihen, Goyetche, Goyheneche, Goyheneix, Goyhenx-Chope, Larregoyen, Jaragoyhen, Irigoyen, Sagardoyhegui-Belsunçabure; Salaberri'ren kantu-liburuan: Elgoihen, 334a; gg. Goyhetche, Lafontaine'ren "fableak" euskeraztu zituan apaiz urruñarra ere); lauoinka, lauroinka, *lauhoinka, lauhinka; lauatz > lauazka, laurazka, lauhazka; lauortz, lauhortz; lei > leiti, leitsu, leikitzatu, baiña, lehia, lehiatu; leial, lehial; linum > lino, lihoa, liña, liha, lia, liño;

legorr > leorr, leiorr, leihorr, lehorr; loi > loia, loya, lohia; miauli, miauri, mihauri; joan zoan, zioan, zihoan, bioa, bihoa, Gip. zijoan, bijoa; oies, oihes; seia, seiña, seiaska, *seihaska, sehaska; suia, suya suiha, suiña; tiña > teiña, teiñ, thein, teiu, teihu; ugari, euregi, [gauza] heuragi, heuregi, heuregoi; zaia, zaya, zahia; zaia > zai-haga, zai-hegal; zearr, zeiarr, zeiharr, zeharr, zaiherr.

Ikako aditz-joko batzuekiñ: aiv, aihv; aiendi, aihendi; aieza, aiheza.

Beste batzu ere orrelatsu adiraz ditezke: esate baterako' esku-aurre (palma de la mano), esku-ahurre > ahurre, ahurr (gg. esku-gibel = dorso de la mano).

Gaiñerako esatekoak ikusi Gavel'en idazkian: RIEB-12, 451, 453, 455, 464, 465, 474, 476, 477, 478 aieketan, eta Lafon'enean, RIEB 24,652a.

Leen ere aipatu edun ditudan batzu ona berriz ere:

hil + haurr > hilori, ilhaurr, ilhorr, illorr; hil + harri > hilharri C, hilarri L, ilharri C, ilarri N-bidarrai; hil + ohe > hilohe (Hb), illoe N-aldude; hil + oihal > hiloihal C, illoial C (Duvoisin, Azkue); Haurr + hide > haurhide S. N., haurriderdi S. V. aurhiderdi, aurhide S. N., haurride L, hiru + hiri > Iruri S; gg. Oihenarte'ren Prov. liburuan: atze + herri > atzerri: atzerri'otserri 49 (otso + herri > otserri); atsoa, lehia duna hiltzera? oha atzerrira bizitzera 61.

Guzti oiek Gavel'i eta Lafon'i arrazoi ematera bultzatzen dude: alegia H eztala batzuk dioden bezin zaarra, eta oraindik zearo sartzeke dagola baitiduri.

Ceuria heta lurra (Prudencio Hualde) RIEB 25, 535a (Matt. 5, 18)

Iru letra bakarkien arrazoi orrek beste H asko ere sor lezazke. Esate baterako: etxe au > etxe hau; ikusi au > ikusi hau; ibili aiz > ibili haiz; "eni haizu da galdegitia" (Ene maitia, bilho hollia) Eta Haritxelharr'en "Le poète souletin Topet-Etchahun" liburuko auek ere bai: Kantore hoien sujetek ere / bazukien berthute (376 a9; Posible deia, Etxandi / hi haiñ handi (Liburuan "hañ"); Zazpi haurren aita baten, kolore zen (377 a).

Orra olakoen zerrenda bat: (Lhande-Lafitte'ren iztegian) aidurr > haidurr, haindurr; aidvrv > haidvrv, haiduru;

haien, haik; haika; hailabe; hain, haiñ, hañ; haina; haindi; ainitz > hainitz, ainhitz; aiotz > haiotz eta aihotz; haita, hauta; haitu; aitz > haitz; aitzurr > haitzurr, haintzurr; aizkora, axkora > haizkora, haxkora, haiskok; aixturr > haixturr; aize > haize; haizu, haizv, hauzu; aurr > haurr; auts (auspuru, austerr, autsi) > hauts; ausko > hausko; ausnarr, ausnarri > hausnarr, hausnaurr; hauze, hautze; auzi > hauzi; auzo, aizo > hauzo; ea > hea, heia; dei > hei; eia > heia; hein; ugari, euregi > heuragi, heugari, heuregoi; eure > heure; euskara > heuskara, (baiña "eskuara", beiñ ere ez "heskuara"); heusi; hoiñ, hoin; hoisdurr. Gaiñera ¡hou! (Azkue DVEF, ZERA; Larrazketa HEI) (L; S).

EUSKARA BATUARI BURUZ ZENBAIT OHAR ETA PROPOSAMENDU APUR

Bergara, 1978 - IX - 5
Eguzkitza, Andolin

Proposamendu hauk egiteko hiru lan erabili ditut eskuartean:

1. Arantzazuko txostena, Koldo Mitxelenak egina.

2. Txillardegik batzarre honexetarako Arantzazuko txostenari egindako oharrak.

3. Txillardegik Euskaltzaindiari 1978.eko Urtarrilean aurkeztu zion "Fonetika batuari buruz'" delako txostena.

Oharrok, beraz, horien arauera egin dira, eta hor esanak gehienetan ontzat ematen direlarik, horko pundu batzuei buruz egindako eraskin kritikotzat baino ez dira jo behar.

1. Ortografiaz

1.1. Txillardegik aipatzen dituen argudioak onharturik, bai eta gure mende honetan batzu eta besteren joerak kontutan hartuz, *baiezko-BA* partikula aparte idaztea egokiena iruditzen zait.

1.2. *EZ* hitzari dagokionez, berriz, hizkuntza mintzatua ahantzi gabe [eta] erabilkuntza klasikoari helduz, *EZ* hori *batera ere* idazteko askatasuna proposatu nahi nuke, h. d., *BAIT-* aurrizkiaren estatutu bera hitz horri ere ematea, batera idazteak derakartzan aldaketa fonetikoak kontutan hartuta, jakina:

ez nintzen = enintzen
ez haiz = ehaiz
ez da = ezta
ez genezake = ezkenezake
ez zaitzan = etzaitzan
ez liokete = eliokete.

Proposamendu honen alde argudio bi daude nagusi nire ustez:

– Hiztunen artean 95 % horrela egiteaz gain, molde honek literatura klasikoan daukan hedadura.

– Euskadi Euskal Herria behin betiko bihurtu nahi dugun une eta egokiera honetan, datorkigun euskaldun berri eta ikasien kopuru izugarriari izkribuetan ikusten ez duen gauza bat ebakeraztea, nire esperientzia lekuko, oso zail eta gaitz iruditzen baitzait. Gainera, askatasuna utziaz, nork nahi lukeen erara idatz lezake, inolako atralakiarik sortu gabe.

1.3. Kontsonanteen ondoko hatxeetan hiru kasu ezberdin daitezke ene aburuz:

a) Leherkari hasperenduak: *PH, TH* eta *KH.*

b) Ipar- eta Hegoaldeko euskalkien bilakaera ezberdinez, Hegoaldeko zenbait *L, N* eta *R*-ei dagozkien Iparraldeko *LH, NH* eta *RH* kontsonantetaldeak.

c) Elkarketa edo konposaketa bakunaz, h. d., ezelako aldaketarik gabekoaz, sortzen diren *LH, NH* eta *RH* kontsonantetaldeak.

Lehen kasuan erabakia argi izan zen, ez dira onhartzen fonema horik euskara batuaren fonologian.

Bigarren kasuan ere argi dago arazoa: *ola* eta *olha* artean, *ilun ilhun* artean edo eta *ero* eta *erho* artean, lehenengoak jo ziren ontzat.

Hirugarren kasuan ostera, Arantzazuko txostenak ez zuen proposamendu irmorik egin, eta nire eritziz, zeintzu eta zelako kasuak diren eta halaber zein guti kontutan hartuz batetik, eta bestetik Mitxelenak zioen hura: "*Hartu* baina *onartu* ezartzea ez legoke ongi..." (aipu makurra), kasuotan hatxea errespetatzea iruditzen zait onena:

oinhatz, onhartu, jaunhartu, oinharri.

Haatik, dardarkari anizkunen kasuetan /er/ bikoitza idaztea onena dela uste dut:

elkarrizketa, elkarrikuska, bakarrizketa.

Horrez gain, bigarren motako *LH, NH* eta *RH* kontsonantetaldeak errespetatzea diferentzia semantiko bat argitzeko balio duten kasuetan, hamar bat besterik ez direnak, ez legoke bat ere txarto, hala nola:

eri = gaiso / erhi = hatz

salo = jatun, indartsu... / salho = proposapen, mandatu...

1.4. Diptongoen ostean ezelako salbuespenik gabe hatxea errespetatzea aproposena iruditzen zait, zeren deklinabidean joera bat hartzeak, edozein delarik ere, ez baitu nire ustez esan gura diptongoek bokaltasuna gorde- edo eta galtzen dutela:

auhen, aihen, oihan

1.5. /J/ fonemaren balio fonetikoa [J] erdibokalea edo eta erdikontsonantea izatea onhartzen bada, Txillardegik proposatzen duen bezala, eta nire ustez ere egin behar denez, fonema hori agertzen den guztietan *J* grafemaz idatzi behar dugu, eta ez *I* grafemaz, ahal den heinean gure egoera diglosikoak sortzen dizkigun eragipen makur eta zuloetan jauts ez gaitezen, eta hori hiru arrazoirengatik:

— *I* grafema erabiltzen badugu, hitzean ez dagoen hots baten grafema erabiltzen dugulako:

Lejoa eta ez *Leioa* edo *Jaben* eta ez *Iaben.*

— *I* grafema hori erabiltzen badugu, euskaraz normalean ez dagoen triptongorik errepresentatzen dugulako (A).

— *I* grafema hori hegoaldekook, gaztelaniak *Y* grafema erabiltzen duen tokietan, h. d., bokaleen artean edo hitz baten hasieran, erabiltzen badugu, koherente izatekotan, grafema hori bera bai bokaleen artean, bai hitz baten hasieran eta bai kontsonante baten atzean erabili behar genukeelako, eta beraz honelako hitz ganorabakorik asko sortu:

iniustizia, iabaldu, iadanik, ion (ez neutron), *ierarkia...*

Honela idatzi beharko litzateke beraz nire eritziz:

jabal, jabego, jadanik, jagoiti, jagon, jariatu, jaulki, jaibal

Jakes, jakile, jarein, , jasordaindu, jatagan, judo, jazz, Japon, Jugoeslabia, Jamaika, justu, judizio, juzkatu, juje, justizia, jin, Jesus...

projektu, projekzio, juje, kalejira, ijiteria, eijer...

manjatera, injustizia, burjes, banjo, konjunkzio, injukzio, konjuntibitis...

1.6. Berez hizkuntza mintzatua eta idatziaren artean dagoen amiltegia ez handitzearren aditzarekin doan / -Z atziz-

kia + gero /, aditzari itsatsia idatzi ahal izatea ere proposatu gura nuke:

duenezkero, zenezkero, gaudenezkero

eta orobat:

atzozkero, honezkero, horrezkero, harrezkero.

1.7. Joera bat finkatzearren hilabeteen izenen lehen letrak majuskulez idaztea egokiena dela uste dut, hots, Europako hizkuntza gehienetan egiten den bezala eta gaztelaniaz egiten den ezbezala:

Uztaila, Agorrila, Abuztua, Ekaina, Otsaila...

2. Ebakeraz

2.1. Txillardegik bere "Fonetikatxosten"-ean hau proposatzen du:

"/i/ fonemaren ondoko /s/ eta /ts/ apikarien bustiera oso zabaldua denez gero, [is'] eta [ic'] ebakera gaitzetsi gabe era, hobetzat jotzen da Fonetika Batuan [is] eta [ic] ebakitzea."

Nire ustez formulazio hori ez da egokia eta Ibon Sarasola bere "Hiztegi arauemailea"-n egiten ari den bezala, hizkuntzamaila ezberdinak gitea eta diferentziatzea, berriz, biderik onena iruditzen zait. Horregatik, Txillardegik dioena honela formulatuko nuke:

"...hobetzat jotzen da lagunarteko hizkuntzan [is] eta [ic] ebakitzea; hizketa kultu eta literarian, ordea, [is'] eta [ic'] dira hobetsiak."

2.2. Gauza bera proposatuko nuke /i/baten ondoko /n/-ren bustitzeaz denez bezainbatean, h. d., bustidura lagunarteko hizkuntzan hobestea, eta [in] ebakera, berriz, hizkuntza kultu eta literarian.

2.3. /i/ fonemaren ondoko /l/ren bustitzeari dagokionez, aitzitik, [il] ebakera onhartzea bakarrik proposatuko nuke ondoko arrazoiengatik=

– /l/ fonema eta /ll/ fonemaren arteko diferentziari argi eustearren inolako okerbiderik sortu gabe:

langile, makila, baina *llabur*

– Gaztelaniak eta frantsesak /ll/ ez edukitzeagatik, datozen urteetako euskaldun berriek fonema hori galdu erazi bai-

tezakete, euskaldun horietako gehienek hizkuntza bi horik edukiko baitituzte lehen hizkuntzak bezala.

2.4. Txillardegik /h/ fonemaren ebakera [Ø] izatea proposatzen du, nahiz eta dioenez, hatxeari balio fonetikoa ematea ez den gaitzetsi behar. Ene aburuz ezin daiteke proposamendu hori onhar, azken hamar urte honetako lan eta burrukak hutsaren hurrengo ez direla izan esan gura badugu behintzat. Aspiraketa dela eta hau proposatuko nuke beraz:

– /h/ fonemaren ebakera hala lagunarteko hizketan nola literarian [h] edo [Ø] izanen da. Literaturhizkuntzan, ordea [h], ebakera hobesten eta gomendatzen da.

– Kontsonante baten ondoko /h/fonema ez ebakitzekotan ere (txostentxo honen 1.3. pundua onhartua delarik beraz), silaben partiketa /h/fonema horrek [h] balio fonetikoa edukiko balu bezala eginen da:

oin-ha-rri = oin-a-rri, jaun-har-tu = jaun-ar-tu...

– Txillardegik bere txostenean proposatzen duen ezbezala (3.12.), ene eritziz "ahi, ehi, ohi, ahu, ehu" fonema hirukoteen balio fonetikoak hau izan behar luke: [a-hi] edo [a-í] , [e-hi] edo [e-í] , [o-hi] edo [o-í] , [a-hu] edo [a-ú] , [e-hu] edo [e-ú] . Beste era batera esanda, fonetika batuan ez dira /h/ fonemaren galeraz sorturiko bigarren mailako diptongorik onhartzen.

2.5. Txillardegik bere txostenean *ee, oo, ea* eta *oa* bokaltaldeak direla eta, honako balio fonetiko hau ematea proposatzen du: [ie] , [uo] , [ia] eta [ua] . Nire ustez proposapen hori, hizkuntzaren errealitatea kontutan harturik, zuzena da, baina nik neuk hau gehituko nuke, beste ebakerak ez direla gaitzezten, eta hizkuntza literari eta kultuan batez ere, biak direla maila bereko jotzekoak.

3. Morfologiaz

3.1. Hainbeste katramilez gero aditz batu laguntzaile bat aukeratu du Euskaltzaindiak azken hiru urte honetan. Hautaturiko aditzean, ezaguna denez, *ukan* edo *edun* aditzeko *"nik-zuri"* formak edo adizkiak orainaldian hauk dira: *dizut* eta *dizkizut*. Bestalde, ezaguna da ere euskaraz, *"nik-hura"* eta *"nik-haik"* adizkiak zuketako adizjokaeran *"dizut"* eta *"ditizut"* direla; horregatik, hain zuzen, *"dizut"* forma

horrek bi zentzu arras desberdin horik dauzkalako, zera proposatu gura nuke, *"nik-zuri"* adizkiak *"dizut"* eta *"dizkizut"* barik *"ditzut"* eta *"dizkitzut"* izatea. Horren aldeko argudioak argi daude nire ustez, alde batetik, aipaturiko diferentzia egin egiten da, bigarrenez *"ditzut"* bezalako formak toki askotan erabiltzen dira, eta azkenez, ez da aukeraturiko oinharrisistema, hots, gipuzkoa-nafarrerakoa, ezelan ere zabartzen.

(A): I grafemak [ɪ] fonema bokalikoa errepresentatzen du beti.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

"H" GRAFEMA

Bergara, 1978 - IX - 6
Mujika, Luix Mari

Oharra: Txosten hau, *Hiztegi gaiaz: morfo-fonetika eta grafema batzuen arazoa euskara batuaren bidean,* Mujika beronen hitzaldiaren azken zatian datorkigu.

68-KO TXOSTENARI BURUZ ZENBAIT OHAR

Bergara, 1978 - IX - 6

Txillardegi

Besteak beste, ba dagokio Bergarako Biltzarre Nagusiari helburu hau ere: Arantzazuko bilera ospatsuan hautatu zen batasunera bideaz balantzea egitea. Hamar urte honetan jaso diren kritikak eta proposamenduak, idaroki zaizkigun aldakizunak, eta arian aurkitu diren ahuleziak ere kontutan hartuz, osatu eta sendokiago finkatu beharra dago Txosten hura.

Mitxelenaren beraren orduko hitzak gaur birresanez, "ezin daiteke batasunera jo, inor —geurok lehenik garela— mindu gabe" (I. 4). Urte hauetan barrena ezagutu ditugun tirabirak, hortaz, aldez aurretik somatu ziren; eta, hein batean, onuragarri ere izan zaizkigula esango nuke. Ezin izan daitezke (inolaz ere, zentzuz jokatuko badugu) hurrengo urratsa orain egitetik hastantzeko aitzekia, edo aurrera beharrari buruz uzkurrago agertzeko oinarri.

1. Idazkeraz

1.1. Hona hemen 1968-ko Txostenak erabaki zuena: "Baiezko eta bada-ezpadako *ba* (bai, ba da / baldin bada) bitara idatzi behar ote genituzke, gaztelaniazko *solo* eta *sóloren* gisan? Gisa horretako berezkuntzek erraztuko dute agian irakurlearen lana; haatik, idazlearena gehituaz. Beti batera egitea litzake errazenik eta, *ba* horrek ondorengo hotsik aldatzen ez duenez gero, beti elkarturik idaztea: *bai, badator*, eta *baldin badator*" (II, 15, b).

Erabaki honen kontra agertu da euskaltzale asko:

a) Irakurtzerakoan, nahasketa iturri gertatzen dela behin eta berriz bi "badator" horiek aldez aurretik ezin bereztea.

b) Azentoari dagokionez, bi *ba* horiei bi ebakera bide dagozkiela euskalkirik gehienetan; eta egokiago litzatekeela, hortaz, bi idazkera desberdin hautatzea.

c) Uste genuen baino joera azkarragoa zegoela gure artean (eta dagoela oraindik) "bai, ba dakit" eta "baldin badakit" bi modu desberdin horietara idazteko.

d) Ondoko soinuen aldakuntzei dagokienez, baiezko *ba*, eta baldintzazko *ba* guztiz desberdin agertzen badira ere [basekjat] , ecekjat;*hika*-ko adizkien aurrean, berriz, elkarren kide agertzen direla: "ba zekiat" eta "ez zekiat"; baina "baldin badakit".

Ba dirudi, horren ondorioz, egokiago litzatekeela baiezko *ba, ez* bezalaxe,beti adizkitik berex idaztea: "ba dakit/ez dakit"; eta baldintzazko *ba*, itzuletara, beti lotuta idaztea: "baldin badakit".

1.2. *Bait-* i dagokionez, eta Arantzazuko erabakiak (II, 15, c eta d) geroago aldatuz (ikus "Euskara Batua zertan den", 65), "bait-" edo "bait" berezirik idaztea aukeran utzi da. Hots:

a) Ahal delarik, euskal doinuaren sena kaletar euskaldunen artean galdu xamar dagoelako, eta izkribuzkoak ondorio fonetikoak ekarri ohi dituelako ere bai (II.15.d), hobe genuke "bait-" hori, dagozkion fonetika aldakuntzak errespetatuz (Euskara Batua, 65), beti lotuta idaztea: etorri baita, ongi baitzekiten, ez hainekien.

b) Baiezko "ba" eta ezezko "ez" modu berera idaztea erabakiko balitz, baldintzazko "ha-" eta "bait-", aurrizki gisa, berdin idaztea izango litzateke egokiena.

c) *Hika*-ri dagokionez, azkenekorik, baldintzazko "ba-" eta ondoriozko "bait-" berdin erabiliko lirateke: ba zekik, ez zekik / baldin badaki, ederki baitaki.

1.3. Arantzazuko Txostenean (II.9) hau irakur daiteke: "*J* idatzi behar dugu, noski, beti bezala, oraingoz nork bere moldera ebakitzen duela: jakin, jende, jo, etc. Halaber birjina, ebanjelio, etc. Badirudi, beraz, kontsonante ondoan *dd*-ren ordez ere erabil daitekeela, beste aldekoek egiten duten gisan: onjo = onddo".

Bere horretan zalantza biderik utz badezake ere, "j" *yod* ebakitzea erabakiko balitz (erdarazko yeso eta ayuno soinuaz, beraz), akatsik gabe geldituko litzateke puntu hori. Nik neuk, dena dela, /j/ fonemaren [j] balio fonetikoaren alde egin dut neure proposamendua "Fonetika Batua'ri buruz deritzen

txosten berrian, (Euskaltzaindiari Urtarrileko biltzarrekoan aurkeztua).

1.4. Idazle eta irakasleen artean ezagun den joera nagusia kontutan hartuz, irmokiago birridatzi behar litzateke, ene ustez, IV.6 puntua; eta "psiko", "filo", eta abar, idatzi; eta "psycho", "phylo", eta abarren, idazkerak garbikiago txarresti behar lirateke.

1.5. *V* idaztearen aldeko esaldiak (IV.9), birrikusi egin behar lirateke ene ustez; "v"-ren erabilkera (novela, universitate), leku eta pertson-izenetan ez izatekotan (Valladolid, Ivan) zeharo baztertuz.

1.6. Arantzazuko Txostenean *lh, nh* eta *rh* letra-bikoteei buruz esaten zena (II.7) orobat orain baztertuz, delako hitza bakuna ala erasketazkoa den kontutan hartu gabe, beti ere *l, n* eta *r* idaztea erabaki behar da geroztik: onartu, oinatz, unatu, senar, eta abar. Baina garbikiago gogoraztea komeni litzateke agian.

1.7. "Bertze/beste", "ostegun/ortzegun", eta tankera orretakobikoteen arazoak, oraingoz baliokide utziak, III, 8, H puntuaren arabera konpon bide litezke, bakar bat hautatuz: "beste" eta "ostegun", hain zuzen. Euskalkien azterketa egitea aski litzateke horretarako.

Era berean, "goipe/koipe", "bertz/pertz" forma bikoteak ere, III.8.e puntuan esaten dena haintzakotzat hartuz, zenbait kasutan agian ez izatekotan, ebakera ahostunaren alde erabaki litezke: goipe, bertz, eta abar.

1.8. On izango litzateke "aihen" eta "auhen" idatzi behar denez erabakitera; ala "aihen" bai, baina "auen"; Euskara Batua-n, 51. orrialdean adierazi dena zuzenetsiz ala txarretsiz.

2. *Ebakeraz*

Beti esan izan dugu hortik hamar urte honetan Euskaltzaindiak ez duela, gaur arte, fonetikaren arazoaz, ezertxo ere erabaki. Hori, ordea, oro har egia izan arren, ez da guztiz egia; eta are gutxiago izan behar luke hemendik aurrera. Hona zergatik:

a) Bergarako Biltzarre Nagusian Euskaltzaindiak herriaren zerbitzuko jarri nahi badu, Fonetika Batuaren oinarriak jarri behar dituelako.

b) Mitxelenaren Txostenean (1968-koan, alegia), zeharka bada ere, Fonetika Batuaren oinarrigintzan oso funtsezko izan daitezkeen puntu batzu ba daudelako.

Hauetxek nabarmen erazi nahi nituzke neure txosten honetan.

Derradan, bidenabar, "Fonetika Batua"ri buruzko neure Txostenean, haintzakotzat hartu ditudala; baita, gehienez bederen, jarraitu ere.

2.1. Fonetikari buruz, oso arrazoinbidez, gidaritzat har daitezkeen irizpide batzu irakur daitezke 1968-ko Txostenean. Honera aldatzea beharezkoa ez delakoan, aski du irakurleak berriro ere orduko puntu hauek aztertzea: III.8, b, c, g eta h.

Lau puntu hauek, zenbait alderditatik elkarren ukatzaile diruditen arren, elkarren osatzaile dira; eta, zer hauta eta zer bazter gure egitekoan, oso kontutan hartzekoak.

2.2. Erdal etorkizko hitzetan, gogoan hartu behar da beti III.8.e puntua.

2.3. Bide beretik, eta bi forma antzekoren artean bat hautatu behar izatekotan, III.8.h puntuan esaten dena bete behar da. Irizpide horietxek erabili ditugu oraingo txosten honen 1.7 puntua erabakitzeko.

2.4. Fonema afrikarien ondotik, leherkari ahostunik, /b, d, g/, onartzerik ez dago: [aicgoRi] , [ocbera] ; baizik eta, 1968-ko Txostenean xuxenki erabaki zenez, (II.4.c), [aiskoRi] , [ospera] .

2.5. Lege berbera hartuko da haintzakotzat xixtukarien ondoko leherkariei dagokienez (II.4.d), oso ezaguna den neutralizazioa kontutan hartuz: [estakit] , [eskara] bai; [esdakit] [esgara] ez.

2.6. Sahetsetik, eta aski oharrerazia izan ez bada ere, sandhi ezagun baten ebakera egokia eta desegokia berezten zituen garbiro 1968-ko Txostenak, harridurazko ikurrak eta guzti (ikus II.15.d). Ontzat eman daiteke, hortaz, Kanpionek, Azkuek, eta beste anitz gramatikarik idatzi duenez, fonetika lege horren arabera "ez zen" eta "ez zekien" idazten dena, [ecen] eta [ecekien] ebakitzen dela; eta ez [es sen] eta [es sekien] , Geminazio zentzugabe horiek ez dira Euskara Batua, eta ez deus; eta hau garbi zegoen 1968-ko Txostenean.

2.7. [enuke] eta [eluke] sandhi-ez esaten zena orokortuz (ikus II.15.e), [es nuke] eta [es luke] ahoskerak gaitzetsi behar lirateke, ene ustez.

2.8. "ñ" guztiak bustiduraren ondorio ez direla gogoratuta (II.8.a), "-ño" atzizkiari buruz behintzat, (1968-ko Txostenean bereziki aipatua), zerbait erabaki behar litzateke garbiki, [andereino], eta antzekoen, ebakerak eta idakerak batera gaitzetsiz.

2.9. (tx- / x-) arazoaz, berriz:

a) idazleen artean ezagun den joera azkartuz;

b) tx- duten formak batera zubereraz eta bizkaieraz ezagutzen direla gogoan hartuz; argi eta garbi proposatu behar litzateke (tx-) formak onartzea, "txori" [cori], "tximist" [cimišt], horretarako bereziki 1968-ko Txotenean (II.4.e) puntua aldatuz; nahiz, jatorrian, sapaiko afrikari hori, seguru aski, beste bien legekide izan teorian.

3. *Morfosintasiaz*

3.1. 1968-ko Txostenean (IV.4) puntuan aurrizkien ahuleziaz eta beharraz adierazi zena kontutan hartuz, Batzorde bat izendatu behar luke Euskaltzaindiak; berorrek azkeneko urte hauetan gai horretaz argitara diren idazlanak baliaturik, ahal denik eta azkarrenik Txosten berezi bat aurkez dezan.

3.2. Beste hainbeste egin behar litzateke joskerari buruzko erabakiak (VI. 1/9 puntuak) zehaztu eta osatzeko.

3.3. Diptongoz bukatzen diren hitzen deklinabidea, jakina denez, aldatua izan da: 1968-ko Txostenean II.6.f puntua, gero bestaldera erabakia izan da. -ai, -ei, eta -oi diptongoak batetik; eta -au diptongoa, bestetik (ikus, esate baterako, "Euskara Batua zertan den", 49). On litzateke, ene ustez, deklinabide lege hori garbiro azaltzea.

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 6

Moderatzaile: *Satrustegi, J. M.ª*

Partaideak:

(1) *Olazar, Martin:*

"Uste dut Euskaltzaindiak bere bidea alda dezakela. Hemen argi ikusten da, *(h)* arazoak izugarrizko zailtasuna duela. Arazo honek milaka orduak galerazten dituela euskararen kaltetan. Hau dela ta, nire proposamena izango litzateke, *"h"* guztiak kentzea."

(2) *Mitxelena, Koldo:*

"Beldur naiz, M. Olazarrek esan duenaren ondoren, nireak antiklimax bat sortuko duela. Baina bizpahiru gauza esan nahi nituzke azken entzun ditugun txostenez. Hitzaldia dela ta, Haritschelhar adiskideari galdera bat egin nahi nioke.

Zatarain jaunak honelako zerbai dio Gavelek eta Laffonek dioten bezala, aspirazioa ez dela zaharra. Nik, orduan, Zataraini galdetu nahi nioke, ea hemen zaharrak zer esan nahi duen: ehun urte, bostehun, mila eta bostehun, hiru mila... gauza bat zihurra dugu: Alegia, Akitanian, Zaragozan, Nafarroako mugan... bi mila urte ba ditugu. Aspirazioa, kontsonante ondoren ere, ba da. Nik diodana, ez dela berria.

Bigarren, Eguzkitzak ukitu duen puntu bati buruz, nonbait, Arantzazun esan genuela "kontsonante ondoko "h" ez zirela bereizgarri eta kendu egin behar zirela". Hori idatzita izatea asko harritzen naiz.

Mujika jaunari: Erromantzeetan, haseran, "h" gabe idazten ziren. Latinez, Ciceronen garaian, "h" galdurik zegoen. Bigarren "h" badarama, lehena galtzen du. Ezin eraman ditzake biak.

(Ondorengoa ez da ezer ulertzen, gaizki grabaturik baitago.)

Haritschelharri egin nahi nion galdera: Hemen aski argi gelditu da Ipar aldeko euskalkietan ez dela batasunik.

Erabat harturik, Zuberoan egiten da gehien. Zuberoan Lapurdin baino gehiago; baina, ba dirudi batzutan ba dela zalantzarik.

(Hemen ere ez da ezer ulertzen zeharo gaizki grabaturik baitago.)

(3) *Sarasola, I.:*

"Nik uste dut, etimologia gabe, gaur eguneko joera erabili behar litzatekeela. Hemen batasuna egina dago, era bakarra dagoelako".

(4) *Azurza, Joseba Jokin:*

"Gauza bat bakarrik, berriro erran nahi dut.

Hamar urtetan, mendiz haranzko *Herria* astekarian, "h"asko kendu direla. Biziki ongi egina. Zoriontzen zaituztet.

Baina, Hegoaldean, zer gertatu da hamar urte hauetan: Iparraldeko euskaltzainak hona etortzean, uste nuen Hegoaldeko Arazoa ulertuko zutela. Baina orain ohartu naiz ez dutela ikusi non eta zertan den gure problema.

Hemen borroka politiko bat darabilkigu. Zeren, batasuna egin nahiean, bitasuna sortu baitugu.

Han, "h" batzu kentzeko, gutti kentzeko, hamar urte hartu duzue. Hemengo Euskaltzaindiari jarraizkiz, *"H"* edonon sartu da. Herri soilak ezin izan du onartu hori. Bortxaz ezartzen ibiliak dira, Euskaltzaindiaren babespean ari diren batzuk.

Azken hamabost urtetan, lapurtera erdaldundua, indarrez, ezarria izan da.

Hau dela ta, berrehun baino, hogei hobeki, eta hogei baino, bi.

Azkenik, bizirik dirauten euskalkietatik egin behar dugula euskara batua.

—Zenbat dira, egun, *"h"* ahozkatzen duten herrialdeak?

—Zergatik bortxatu behar ditugu "h" erabiltzen ez dutenak?"

(5) *Satrustegi, J. M.ª*

"Ba dakigu, "h" arazo hau bizi-bizia dela, eta batzuk behintzat, politizatu dutela. Horregatik eskatuko genuke baretasun haundiagoa eta, batez ere, gaiari lotzea."

(6) *Villasante, Luis:*

"Nik, Azurza jaunari, gauza bat esan nahi diot, ea noiz erabaki zuen Euskaltzaindiak gipuzkera osotua? Ekar diezadala dokumentu bat. Sekula ez zuen erabaki. Beraz ez dezala esan lehengo Euskaltzaindiak gauza bat erabaki zuela eta guk beste bat. Ez da hori egia. Erabaki hori non dago?"

(7) *Haritschelhar, J.:*

"*"H"* auziaz borroka politikoa egin baldin bada, ez dut uste fonema honengatik denik bakarrik; baizik eta mila arrazoi gehiago.

Niretzat politika hizkuntzan sartzea, gauza ttipi bat da. Zeren eta, lehen erakusten duguna, Euskaltzaindia zazpi direla eta ez lau. Zazpi horik, anaiak garela. Eta zazpietatik zerbait hartu behar dela.

Ortografia gauza ttiki bat da. Eta, ez uste gudakari bezala hona etorri garenik.

Ba dakit *Herria* astekariko hainbat abonatu *"ch"* kendu eta *x* ezartzeagatik, zenbat desabonatu diren.

Bakoitzak bere auziak ditu eta guk gureak.

Guk nahi genukeena hizkuntzari buruz, zazpien batasuna.

Laurogei mila euskaldun garela. Ez dakigu zenbat zihur: Hirurogei edo laurogei mila. Eta nik uste zerbait batu dugula eta bide hontatik jo behar dugula."

(8) *Rotaetxe, Karmele:*

"Iparraldean, "h", fonema denez, uste dut Hegoaldean ere gorde behar dugula.

(Grafiari buruz hitz egiten du, baina ez da ongi ulertzen.)

(9) *Kintana, Xabier:*

"Ba daude hitz askok etimologia garbirik ez dituztenak: Hasiera, hilak..."

(10) *Zatarain, A:*

"Euskara batua da gauza bat eta bestea hemen ari garen auzia: ea nola idatzi behar den, euskalki bakoitzean ari garela dirudi.

Euskara batua denontzat denez, euskara erraza izan behar duela.

Duela urte batzuk, euskaltzain den Iratzeder jaunak, hamazazpi hitz ezartzen zituen bakarrik *"h"* fonemarekin. Ez dakit zergatik hori isilpean geratu den. Gero, hitz bakar bat eskatzen zigun "h" fonemarekin: *nahi.* "Etxe berria ikusi nahiz, etorri naiz". Guk honela egiten dugu: "Etxe berria ikusi nahiez, etorri naiz".

Gauza bat dago garbi: gauza bat dela euskalkietan idaztea eta beste bat euskara batuaz. Ez ditugu nahasi behar."

(11) *Mitxelena, Koldo:*

"Egia esan, Iratzederren arazo hori ez dut inoiz entzun. Ez dakit non argitaratu zuen.

"Nahiz" bi silaba ziren, baita Bizkaian ere."

(12) *Zarate, Mikel:*

"Hamar urteotako bolada hau, nahi eta nahi ez, hor geldituko da.

Nik praktikotasunera joko nuke, etimologiak eta alde batera utziz. Nik lege erraz batzu jarriko nituzke.

"H" fonemari buruz, zalantza dugunean, gabe jarri. Bokal berdinen eta ezberdinetan "h" jarri. Bestalde, *hau, hori, hura, honela, hala, hemen, hor,...* beste batzu baketu nahirik... nik erdibide bat egin nahi nuke."

(13) *Iruretagoiena:*

"Ongi ikusten dut Iparraldeko euskalkientzat.

Galdetzen dut: *"h"* fonema ez jartzea gaizki ikusiko da?

Bertsolarientzat *"h"* fonemak kalte haundia dakar.

Ikastoletan egunean ordu laurden bat egiten da arazo hau ikasten... Hemendik hogei urtetara, beraiek argituko dute hau."

(14) *San Martin, Juan:*

"Komeni zaigunean euskalkiak hartzen ditugu eta beste batzutan jaramonik ere ez. Hontan, kontuz ibili behar dugu.

Debarroan bizkaieraz hitz egiten dela, ia denean.

Beste arazo bat, Euskaltzaindiko idazkaria naizenez gero, gauza bat Iratzederren arazoa dela ta.

Puntu hau Euskaltzaindiko Agiri batetan dago, 1969an. Han ez du esaten hamazazpi hitz daudenik "h" fonemadunak.

Hark, txostena irakurri zuen, baina Agiria egiterakoan, txostenaren laburpen bat egiten da. Niri esan zidaten, egia osoa, behar den bezala, ez nuela jaso. Gero zuzendu nuen, "h", fonemaren parte hori, Iratzederren txosten osoa sartu nuen kako bitartean.

Geroztik inork ez du ezer esan".

(15) *Oñatibia, Manu:*

"Azterketa sakon bat egin behar da.

Erdibide bat hautatzea zaila iruditzen zait.

"h" fonemaren aldekoek ez dute atzerantzik egingo. Guk ez dugu onartuko, alferrikako eta oso zaila iruditzen zaigulako.

"h" fonema zaleek erabil ditzatela, nahi duten toki eta hitzetan.

Guk erabiltzen ez badugu, zer esango du Euskaltzaindiak?"

(16) *Altuna, Patxi:*

"Azken hitz egin duenari eman nahi nioke erantzun koxkor bat.

Euskaltzaindiak, euskara batuaz baliatu nahi ez dutenei erantzun behar baldin badie, nik esango nuke zergatik eman dioten berek aurretik erantzuna Euskaltzaindiari, euskara batua eta "h" onartu duenean. Alegia, beraik Euskaltzaindiaren kontra atera dira.

Eta orain Euskaltzaindiari eskatzen diote Euskaltzaindiak hartu duen erabakia epai dezala. Hori ez da berezko eta zentzuzko jokaera, nire ustez.

Zein eskubide dute Euskaltzaindiari eskatzeko mintza eta pronuntzia dadin beren jokabideari buruz, beraik, lehendik, Euskaltzaindiaren jokabidearen kontra pronuntziatu direlarik."

(17) *Irigoyen, Alfonso:*

"Entzun dut "h" ikasteko ordu asko galtzen direla. Baina nik ez nuke horrela esango, baizik "ordu asko irabazten direla".

Hori dela medio, jende asko euskara sakonago ikasten ari izan baita. Lehen eskolan, beste hizkuntzak ikasten ziren eran izan bazen, eskolan irabaziko zitukeelako."

(18) *Oregi, Josu:*

"Erabat bat nator euskara batua egin behar denarekin eta Zarateren esanekin. Nik uste dut, denboraz, ikasiko dudala "h" fonema non jarri behar dudan... Oraindik ez dugu ikasi. Atzo ikusi nuen "zihur", inoiz honela idatzi ez dena. Beraz ibil gaitezen poliki-poliki."

(19) *Rotaetxe, K.:*

"Kintana Xabierri galdera bat:

Non jartzen duzu deribatu eta konposatuen arteko muga?

Zeren konposatuak, nire ustez, lexema bi sartzen direnean eta lexema hoik adierazi bat ematen digutenean baitira.

Konposatua bada "onhártú". Deribatu bezala kontsideratzen badugu: "onartu".

(20) *Atxaga, Mikel:*

"Idazle koxkor bezala, hots egin nahi nuke.

Euskaltzaindia idazle, maisu, pedagogo; dena izan behar duela uste dute askok.

Euskaltzaindiak arauak eman behar ditu hizkuntzari buruz. Nire ustez, "h" fonemari buruz erabaki bat hartu beharko lukela.

Iparraldekoek "h" fonema behar dutenez, Hegoaldekook hartu behar genituzke eta hartuak ditugula.

Uste dut Iparraldekoek ekarri dizkigutenak hartu behar ditugula; ez gehiago, ez gutxiago.

Arantzazuko erabakietatik hona ez da bitasunik sortu batasuna ari da sortzen.

Lehenago, zenbat idazle hainbat euskara zeuden. Orain gutxienez, idazle askok euskara batu, berdintsu bat hartzen ari gara.

Arantzazuko erabakiek euskara batu bat sortu dute.

Bortxakeriak ere aipatu dira. Ni hontan, lekuko naiz *Zeruko Argia*-n urte askotan izan naizelako, bortxakeriak ez zaizkit niri etorri batasunen aldekoetatik, bestekoen aldetik baizik. Bortxakeria borrokak, eta ez noa hemen aipatzen.

Euskaltzaindiari eskatuko nioke "h" fonema arazoari buruz Arantzazun, hain ilun utzi zuen aholku hura, gehiago zehaz dezala eta erabaki, noiz eta nola erabil."

(21) *Txillardegi:*

"Arantzazuko Agirian hau esaten da: "L-r-n eta diptongoen ondoan "h" fonemarik ez idaztea erabakiko balitz, eta oraindik hobe, auzia erabaki baino lehen, gogoan eduki behar ditugu hitz elkartuak: onartu..."

Etimologiak alde batetara utziz, nik proposatuko nuke: Beti Euskaltzaindiak erabakitzea, l-n-r ondoan, "h" fonema guztiak kentzea.

Nire ustez lotsagarria litzateke Hegoaldekoak gure batasuna egitea. Batasuna euskaldun guztiontzat egin behar dugu."

(22) *Azurza, J. J.:*

"Politika da gaurko Euskaltzaindiaren erabakien alde edo kontra izatea.

Herri bati ortografia erakusten zaionean, haur bati... bortxatu egin behar da.

Gu ere ari gara hizkuntza berri bat sortzen, "h" fonemaz josita. Hori politika arazo bihurtzen da".

BUSTIDUREN ORTOGRAFIAZ

Bergara, 1978-IX-6

Sarasola, Ibon

1.1. Askoren ustez ortografiaren helburua, hizkuntza bateko hotsen eta hots horiek adierazteko zeinuen artean erlazio biuniboko bat ezartzea da. Uste honen arabera, hots bakoitzak zeinu bakar bat izan behar luke adierazgarritzat eta, alderantziz, zeinu bakoitza hizkuntzako hots bakoitzaren adierazgarri bakarra izan behar luke.

Aski da edozein hizkuntza azaletik aztertzea ortografiaren helburua ez bide dela hori ohartzeko: izan ere, delako erlazio biuniboko hori ez da ezein hizkuntzaren ortografi sisteman gertatzen. Are gehiago ba dirudi biunobokotasun hori lortzea hizkuntzalaritzari, hots, hizkuntzaren zientziari, interesatzen zaiola soilik, eta zientzia den aldetik bakarrik. Horrela, biunobokotasun hori ezartzen duten idazkera fonetiko eta fonologikoak ez dira zientzi mailatik at erabiltzen: ez da munduan idatz-tradizioren bat duen hizkuntzarik idazkera fonetiko ez fonologikorik erabiltzen duenik.

Gertakari honen arrazoiak argi daude. Lehenik, idazkera fonetikoa eta are fonologikoa "zehatzegiak" dira ortografiaren helbururako (azken funtsean, hiztunen izkribuzko elkarkomunikabideetarako tresna egoki eta onurakorra izatea). Bigarrenik, hizkuntzak (eta beraz, hizkuntzen hotsak) aldatuz doaz eta, noski, ortografiaren lehen abantaila aldagaiztasunean datza: puntu gutxi eta axola txikiko batzuetan ezik, hizkuntza ororen ortografia, normaltasunera heltzen denez gero, aldagaitz dirau delako hizkuntzaren aldaketa fonetiko eta fonologikoen gorabehere. Ortografia aldakor bat, definizioz, kontraesanik larriena litzateke, gogoan eduki behar baita ortografia hizkuntz arazoa baino areago kultur arazoa dela. Alde honetatik hizkuntza guztien ortografian,

hizkuntza horren eta horren aurrekoen eta ingurukoen kultur (eta zehazkiago idazkera) tradizioen pisua bazterrezina gertatzen da halabeharrez.

1.2. Adibide gutxi batzuk aski dirateke agian aurreko errenkadetan adieraziak argitzeko eta ondokoei bide emateko. Gaztelaniaz (eta berariaz aukeratu dugu idazkera biunibokoenetakoa duen hizkuntza bat) adibidez, *alcanfor, canción, canto, cano* eta *cangrejo-ko n* hizkiak bost hots aski desberdin adierazten ditu, idazkera fonetikoz ikusiko litzatekeenez. Desberdintasunok fonologikoak ez direlako ez dira jasotzen ortografian. Baina erizpide horri jarraituz *canpo* idatzi beharko litzateke, ez *campo*, neutralizazio baten aurrean gaudenez gero. Dena dela, *campo* idazteko arrazoia onartuko balitz, *coñcha* idatzi beharko litzateke, ez *concha*... Katalaneraz *sinfonía* idazten da, eta fonetikaren aldetik ez dago arrazoirik *sinfonia* idazkera hobesteko. Gaztelaniarekin jarraituz, *embarca* baina *en barca* idazteko zergatia ez da fonetikoa. Halaber *envés* baina *embestir* idazteko arrazoia diakronikoa da, hots, hainbaten erizpidearen prestatzeko frantsesa edota ingelesa hartu bagenitu, zenbaiten ustezko inkoerentziak areagotu ziratekeela.

1.3. Ba dirudi ez dela egia hainbat euskaltzain, euskal idazle eta euskaltzalek Euskaltzaindiari aurkeztu dioten "Euskeraren gaurko egoera dala-ta agerpena" txostenean esaten den zera: "Origuztia [H erabiltzea eta LL eta Ñ guztiak kentzea] oraindik ere ulergaitzago gertatzen da orainaldiko izkuntzalaririk geinentsuenen jarrera burutsua ezagutu ondoren: bakoitzak beren izkuntzaren idazkera erraztera jotzen bai-dute, alperrekoak kenduaz, erraztasunaren eta argitasunaren billa jokatuz beti. Gaztel-izkuntzan bertan ere, adibidez, ba-dira zenbait joera ta eskabide H ta V kentzearen alde; G ta J, C ta Z, K ta Q, e. a. erraztu ta bereiztearen alde". Nik dakidanez orainaldiko hizkuntzalaririk gehientsuenak ez dira inolako ortografi arazoez arduratzen; ez da hori, ez urrik eman ere hizkuntzalariaren egitekoa. Arduratzen direnak, zenbait idazle bakan (eta beste maila batean hainbat kazetalari ez-aditu) besterik ez dira. Bestalde, horrelakoak inoiz proposamen zehatzik egitera heltzen direnean, zera ikusten dugu, delako proposamenok ez dutela ortografia normaldua duten hizkuntzetan, inoiz eta inon, inolako arrakastarik izan. Gogora ditzagun, adibidez, J. R. Jimenezen ahalegina (aski

bidezkoa, bestalde, bere gorabehera txikian) gaztelaniaz, R. Queneau-renak frantsesarentzat eta batez ere B. Shaw-enak ingelesarentzat. Eta ulergarria da arrakasta-falta hori ortografiaren helburuaz ahazten ez bagara. Pentsa dezagun zer gertatuko litzatekeen frantsesez, adibidez, ortografia bakuntzea erabakiko balitz. Bakuntze-muga arbitrarioki mugatu beharko litzateke, horretarako inolako tradiziorik ez bailegoke, eta ondorioz ezina izango litzateke akordio batera heltzera. Eta bestalde, hori lortuz ere, milioe eta milioe frantseshiztunen birralfabetatzearen arazo latza eta gizarte-kosto izugarrikoa geldituko litzateke. Hori, hiztunek ortografia berria kontrarik gabe onartuko luketeela suposatuz: behinola Eleizaldek, eta gero hura aipatuz Villasantek, azpimarkatu duten bezala, kultur hizkuntzetan hitz baten idazkera bere soinua bezain garrantzitsua, esanguratsua eta adierazkorra gerta daiteke. Gauzak horrela, ez dut uste frantsesak oraingoz ortografia funtsean aldatuko ez duela baieztatzea ausardia handiegia denik.

Guzti honek ez du esan nahi idazkera-sistemarik biunibokoena lortzen saiatzea onuragarria ez denik. Baina hori dela eta gauzak bere onetatik ateratzea ez zaigu bidezko iruditzen, ortografiaren helburu nagusia beste bat baita.

2.1. Euskal hots bustiak sei dira. Guk lan honetan ondoko eraz adieraziko ditugu:

/l'/, /n'/, /s'/, /c'/, /t'/, /d'/

Ezaguna da euskal hots bustien balio adierazkorra: *labur/llabur, nabar/ñabar, gozo/goxo...* Kasu hauetan, aldaera adierazkorrąk eduki semantiko berezia hartzen du hitz adierazkortasunez ez markatuari buruz.

Aldaera adierazkorren (edo aurreko batek eragiten ez dituenak) idazteko Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarrean proposatu zuen ortografia hau da:

/l'/ → ll
/n'/ → ñ
/s'/ → x
/c'/ → tx
/t'/ → tt
/d'/ → dd

Horrela, *llabur; ñabar (ñabardura...), -ño (andereño, haurño...); xamur, xamar, xelebre, goxo, uxatu, horixe, ku-*

txa, itxura, bitixi, hortxe; ttantta; onddo, edder, Maddi... idatziko dira. *Goiso* edo *goizo, itsura, bitsi, andereino* idaztea, Arantzazuko gomendioen aurka joatea eta euskal ortografi tradizioan inoiz erabili ez diren idazkerak erabiltzea izango litzateke.

Dena dela, ba dira hainbat kasu zalantzazkoak: *laño* ('otzan'), *garaño* ('zaldia'), *deño, pattar*. Kasuok banaka aztertu beharko lituzke Euskaltzaindiak.

Zenbait hitzetan, euskalki batzuetan aldaera adierazkorra erabiltzen da, besteetan forma ez adierazkorraz baliatzen direlarik, baina inungo euskaldunek biak erabiltzen ez dituelarik. Horrela, adibidez, *zuzen/xuxen*. Banaketa konplementarioan agertzen diren aldaera horien artean bat bakarra hartu beharko litzateke euskara baturako, *xuxen*-i balio adierazkorra ezartzea aldaera hori erabiltzen dutenen usadioaren kontra joatea bailitzateke: *xuxen*-ek, erabiltzen dutenen artean, ez du inolako bailo adierazkorrik, eta *zuzen*-en balio semantiko berbera du. Beraz, *zuzen* eta *xuxen*-en artean egin behar den hautaketa *barri* eta *berri*-ren artean egin behar dena bezalakoa da.

Zakur/txakur, zerri/txerri eta kideetan euskaldun askok bi formak erabiltzen dituzte, balio semantiko bereziz. Biak dira onartzekoak beraz. Baina hitzotan ba dirudi berez ez adierazkorra zena bilakatu dela terminu markatu, euskaldun gehienentzat bederen. Euskaltzaindiari dagokio arazo semantiko hau erabakitzea.

2.2. Beste zenbait hitzek hainbat euskalkitan agertzen duten hots bustia, honek aurre-aurrean duen /i/ batek eragina da: /bajn'a/, /ojl'o/... Bustidura eratorri hauen idazkera da, hain zuzen, Arantzazuko arauen artean eztabaida haundienetakoak sortu dituena.

Hots busti horiek izkribuz adierazteko hiru era erabili dira euskaraz, ñ/ll, iñ/ill eta in/il. Lehena, gaur egun oso gutxi erabiltzen dena, baztergarritzat jo zen Arantzazuko Biltzarrean. Beste bietatik bigarrena izan zen bereziki gomendatu zena.

Gomendio honen kontra zenbait euskaltzalek Euskaltzaindiari behin baino gehiagotan jakinarazi dizkioten arrazoi nagusiak hauek izan dira: a) ll eta ñ soinuak ez direla baz-

tertzeko; b) ll eta ñ euskara idatzitik baztertzea behar ez den zailtasuna ezartzea dela.

Horrela, "Zenbait Euskaltzaindikok eginiko gutuna" delakoan (ik. *Euskera* XXII, 1977, 208, o.): "Halaber, -ll- eta -ñ- soiñuak ez dira baztertzeko, Iparraldeko izen askotan ere zabalduak daudelako". Eta Batzar honetara aurkeztu den "Euskeraren gaurko egoera dala-ta agerpena" delakoan "Euskera idatziari LL eta Ñ kentzea, eta H sartzea, Erriak itzegiten duan euskera biziaren aurkako jokabidea dala ikusten dugu eta, aldi berean, bearrik gabeko zailtasunak ezartzea dala, gure izkuntza ikasteari erraztasunik eta laguntzarik ematen ez diona".

2.2.1. Lehenik esan behar dena zera da, Arantzazuko gomendioak ez dituela, oraintxe azaldu dugunez, "LL eta Ñ euskara idatzitik kentzen", /i/ batek eragindakoa bustidurarен ondoriozkoa ez badira. Hain zuzen, aipatu berri diren bi txostenen hildotik-edo doan "Euskara batuaren idazkera — Euskara bakuna "n," "ll" eta "ñ" zillegi utzi idazten" eskatzen denean, arrazoi bezala iparraldeko izenetan ere asko sartuak daudelafrogatzeko ematen diren adibide guztiak, Euskaltzaindiak *ll* eta *ñ*-z idazteko gomendatzen dituenetakoak dira: *Urruña, Bithiriñe, Peillen, izarño, Urdiñarbe*.

Dena dela, *ll* eta *ñ*-ren delako galeari dagokienez lehenik esan behar dena zera da, Arantzazuko txostena ortografiaz ari dela, hau da, hitzen idazkeraz eta ez inolaz ere hitzen ebakieraz. Izan ere, horrela irakurtzen dugu Mitxelenaren delako txosten horretan bertan: "Hobe, ordea, *il, in* idaztea soil soilik, aski bailitzake hori edozein ohar dedin *i* hori dela medio, bere euskalkian, hurrengo *l* eta *n* bustiak direla: giputzen artean esaterako, *ibilli, baiña, gaiñetik, laiño* (edota *baña, gañetik, laño), miñondo*, irakurri ohi dela", eta orobat Villasante (ik. *Euskera* XXII, 1977, 220. o.): "Baina hemen ez gara soinuez ari, idazteko formaz baizik. Idatz dezagun denok berdin, eta ahozka beza bakoitzak bere euskalki edo tokiko euskeraren arabera: hori da bidea".

Are gehiago, egunen batean Euskaltzaindiak euskara batuaren ebakieraren arazoari ekin beharko dio. Gure ustez gomendatu beharko luken ebakiera *n* eta *l* horiek bustitzen dituena izan beharko litzateke, eta horrekin ez dugu uste batasunaren izpiritutik at aurkitzen garenik. Dena dela, eta onartzen dena onartzen dela, bitartean, gomendioak dioenez,

eskualde gehienetan bustidurak egin behar dira. Ez dugu uste, beraz Arantzazuko gomendioak (l'/ eta /n'/ hotsak galtzeko inolako arriskurik ezartzen duenik.

2.2.2. Bigarren arrazoiari dagokionez, batek baino gehiagok zera pentsa dezake: *n* eta *l*, aipatzen ari garen kasoan /n'/ eta /l'/ ebaki behar direnez gero, zergatik ez idatzi *ñ* eta *ll* hizkien bidez? Argudioak ba du bere pisua, baina hori buruz zera esan nahi genuke:

a) Lan honen 1. puntuan adierazi dugunez, inongo hizkuntza ez zaio jarratzen argudio hori oinarritzen den logikari. Hizkuntza guztietan aurkitzen ditugu testuinguruak eragindako (context-sensitive, generatibisten hizkeran) ebakiera-erregelak. Horrela, ortografia biunibokoenetakoa duen gaztelanian era honetako anbiguotasun asko aurki genitzake, hala nola:

1) u → Ø/q
2) c → /ts/-h
3) h → Ø
(4) c → /Ø/ - {e, i}
(5) c → /k/

eta abar. Eta berean, aski genuke euskaraz ondoko erregela Euskaltzaindiak gomedioa irudikatzeko

$$\begin{bmatrix} in \\ il \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} /in'/ \\ /il'/ \end{bmatrix} \Big| \text{-V} \qquad \text{(V: bokalea)}$$

hau da, "*i*-ondoko *n* eta *l* bustirik ebaki bitez, baldin ondoko hizkia bokalea bada". Erregela aski sinplea eta erosoa iruditzen zaigu, eta irakurketan ezartzen duen zailtasuna aski hutsala eta gainditzen erraza.

b) Delako argudiari jarraituz, *ñ* eta *ll*-z idatzi beharko genuke hots busti baten aurrean, hau da, *bigañtxa* eta *alltxatu*, adibidez, euskaldun orok /bigan'c'a/ eta / al'c'atu/ ebakitzen baititugu *bigantxa* eta *altxatu* idazten ditugunak. Honelako zerbait adierazi nahi bide zuen Axularrek *ailchatu* idazten zuenean.

c) Aiptatzen ari garen kasuetan izkribuz *ñ* eta *ll* hizkiak erabiliz, erregela ez-ohizkoa, hots, berezitik orokorrera doana, ezarri beharko genuke bustidura egiten ez dutenentzat. Bestalde, *jakin* eta *hil* (ez *jakiñ, hill*) idatzi beharko genukee-

nez gero, bokalez hasten den morfema bat ondoren itsasten zaionean horrelako hitzei ortografia aldatzeari ez derizkiogu oso bidezkoa, horrelakorik egiten ez duen ortografi tradizio ez bakarra baina bai aspaldidanik nahikoa zabaldua eta errotua dugunez gero, eta euskara ikasten ari direnei zailtasun aski latza ezarriko genielako euskaldun zaharrentzako abantaila ez hain haundi baten truk. Ez da, gainera, ahaztubehar *seme-semiaren* aldaketa eragiten duen lege fonetikoa dela *jakin-jakiñaren* eragiten duena.

d) Azken funtsean, Euskaltzaindiak egin duena zera besterik ez da izan: puntu honetan gure izkribuzko tradizioan aski zabaldurik eta erroturik dauden bi idazkeratatik bat hautatzea. Eta hautatu duena onargarriena iruditzen zaigu arazo honetan kontuan hartu behar diren alderdi guztiak (eta ez soilik fonetikoak) hartzen badira.

2.2.3. Orain, Arantzazuko Biltzarretik hamar urtetara, auzia ez da jadanik bi idazkeraren artean hautatzea, aukera, zuzena ala okerra, orduan egin baitzen. Oraingoa, ordukoari eustean ala bide berri bat proposatzean datza. Eta Arantzazuko gomendioa hamar urte hauetan idazle gehienek onartua eta erabilia izan denez gero, arrazoi neurriz gainekoak behar lituzke Euskaltzaindiak gomendioz aldatzeko, erakunde arduragabetzat salatua izan nahi ez badu.

2.3. /n/ eta /l/ ez dira aurreko /i/ batek bustitzen dituen hots bakarrak. Kasu berberean daude *s/z, ts/tz, t* eta *d* hizkiez idazten ditugunak. Horregatik, eta *n* eta *l*-rentzat erabili ditugun arrazoi berberengatik, *isuri, isil, itsaso, itsu, ditu, aita* idatzi beharko litzateke Arantzazuko gomendioari jarraituz, nahiz euskaldun askok /is'uri/, /is'il/, /ic'aso/, /ic'u/, /dit'u/, /ait'a/ ebakitzen duten. Eta *gizon, izan*, noski baino noskiago, gutxi baitira /gis'on/, /is'an/ ebakitzen dutenak eta *gixon, ixan* idazkerak guztiz baztertutzat jo baitaitezke jadanik.

Dela dela hitz adierazkorretan lehen adierazi dugun bezala *x, tx, tt, dd* erabili behar dira, Arantzazuko gomendioaren arabera. Berdin *itxura* eta kideetan, hots, bustidura ez aurreko *i*-tik, baizik jatorritik (cf. esp. *hechura*) datorren kasuetan. Hain zuzen Euskaltzaindiak aukeratu zuen ortografi tradizioan ere *itxura* idazkera erabiltzen da, beste tradizioan bezala.

Erdaratiko hitzei jarraituz, *n* eta *l* salbuespenak dira, horietan despalatalizazioa gertatu baita /i/ ondoren hots horien bustidura gertatzen ez den euskalkietan, hitzok egoera despalatalizatuan hartu ez baziren bederen. Euskaltzaindiak hautatu zuen ortografi tradizioaren arabera, grafia despalatalizatuak erabili beharko litzateke horrelako kasuetan, Irigoyenek (ik. *Euskera* XXII, 1977, 214. O.) berariaz proposatu duen bezala: *Espainia, gaztaina, teila...*

2.4. Hitz-hasierako silibante bustiei dagokionez, eta hitz adierazkorrak alde batera usten baditugu, bi joera nagusi nabari daitezke: *txori/xori, tximist/ximist.* Arantzazuko txostenak aldaera bigunak *(xori, ximist)* jotzen zituen hautagarriagotzat. Hala ere, eta lehen mementuko zalantzak gorabehera, ba dirudi idazlerik gehienak aldaera gogorren *(txori, tximist)* agertzen direla azken urteotan. Gauzak horrela ba dirudi bidezkoa dela Euskaltzaindiak puntu honetan bere gomendioa alda dezan, aldaera gogorrak hobetsiz.

BILTZARRE TXOSTENA

EUSKARA NORMALIZATUAREN AHOSKATZEAZ; TXILLARDEGI-K BERGARAKO BILTZARRETARAKO BIDALI DUEN LANARI OHARRAK

Bergara, 1978 - IX - 6

Irigoyen, A.

Hainbat denbora dela zabaldu omen zen Txillardegi-k eginikako lan hori, Fonetika batuari buruz zenbait proposamendu titulutzat daramala, baina nik neuk ez dut eskura oraintsu berari eskatu nion arte. Irakurri bezain agudo egin ditut oharrok.

1. Bere 2.2.5. delakoan dio: "/i/ fonemaren ondoko /s/ eta /ts/ apikarien bustiera oso zabaldua denez gero, [*is'*] eta [*ic'*] ebakera gaitzetsi gabe ere, hobetzat jotzen da Fonetika Batuan [*iš*] eta [*ič*] ebakitzea. Esate baterako: *isuri* (= [*išuri*]), *itsusi* (= [*ičus'i*]). Aski izango litzateke bigarrena hontzat hartzen dela esatea eta "hobetzat" hitza baztertzea. Horrez gainera zenbait galde egingo nuke: *Jaun baten gisa* espresioan azken hitza *gi* [*š*] *a* bezala ahoskatu behar ote dugu nagusi den ohituraren kontra? Edo eta *pri* [*š*] *aka ibili gara* eta ez *prisaka ibili gara* askok esaten duenez, *presaka* erabiltzen dutenetarikoak ez baldin badira? Eta holako beste asko, hizkuntza ondore historikoa baita, eta logikaz baliaturik iker badezakegu ere, haren forma ezin uler baitezakegu diakronia eta atetikako eraginak gogoan hartzen ez baldin baditugu.

2. Bere 2.3.4. delakoan dio: "/i/ fonemaren ondoko /n/ bustitzea (= [*in'*]) oso zabaldua denez gero, [*in*] ebakera gaitzetsi gabe ere, [*in'*] ebakitzea hartzen da hobetzat Fonetika Batuan: *baino* [=ban'o] hobetsia; *egina* [= *egin'a*] hobetsia". Aski izango litzateke bigarrena hontzat hartzen dela esatea eta "hobetzat" hitza baztertzea, azken finean hobea lehenengoa baita, gure artean –ez Ifarrekoen artean– azke-

nengoa nagusitzeko bidean sarturik badago ere. Nagusitu behar baldin badu nagusituko da agian guk bultzatu gabe ere.

3. Bere 2.4.4. delakoan dio: "/i/ fonemaren ondoko /l/ bustitzea (= [*il'*]), oso zabaldua denez gero, [*il*] ebakera gaitzetsi gabe ere, [*il'*] ebakera hartzen da hobetzat Fonetika Batuan: *hilabete* [= *il'abete*] ; *ilargi* [= *il'argi*] ". Aski izango litzateke bigarrena hontzat hartzen dela esatea eta "hobetzat" hitza baztertzea. Aurrekoan esan denak berak balio du honako ere.

4. Ez dut uste inola ere 4.1. delakoan dioenez, *ea* eta *ia* izkribatzen ditugunak —eta honetan harrigarrizko batasun batean sartu gara azken denborotan— [*ia*] eta [*ua*] ahoskatzea hobetzat eman behar denik. Jokabide horrek, besterik gabe hala planteatzen baldin bada, *oa* jatorrizko guztiak *ua* jatorrizkoekin nahastera garamatza hizkuntza mintzatuan. Eta berdin gertatzen da *ea* eta *ia* jatorriz bereizten direnekin. Mogel-ek lehenengoetan *ua* eta *uba* eta bigarrengoetan *ia* eta *ija* erabiltzen zituen. Horretan Arana Goiri bide beretik zebilen. Delako ortografia egun erabiltzen ez dugunez gero, Ifarreko euskaldun askoren, Gipuzkoako goierritarren, Bizkaiko alderdi handi batekoen eta abarren norma —zaharrena euskaraz— hontzat hartu baita, baztertu denaren gisara ahoskatzea eskatu behar ote da Euskara normalizatuan? Gipuzkoako bertsolariak *ia* eta *iya* berezi izan dituzte eta lege zaharrean, ahal izanez gero, ez ziren bertsoen puntuak josteko erabili behar.

Alderdi batetik *-a* organiko guztiak berriztatzen ari gara galdu dituztenen artean eta orain bestetik *oa* eta *ua* jatorrizkoak nahasten dituztenen bidea bultzatzen dugu, bigarrengoa *uba* egitea —eta oraindik badira hala bereizten dutenak— eskatzen ez baldin bada. Kontrako jokabidea erabiltzen da batean eta bestean.

Ea eta *ia* jatorrizkoak, ordea, euskaldunen artean edonon bereizten direla esangu nuke. Hizkuntza mintzatuan *ea* delakoa [*ia*] ahoskatu behar dela hotzat hartuko balitz nola egin beharko litzateke *ia* jatorrizkoa? *i* [*dž*] *a, ixa* ala *iya*? Hori ez zaigu planteatzen ez argitzen delako lanean.

Berdin gertatzen da 3.2.2. delakoan *ee* eta *oo* hiatoak [*ie*] eta [*uo*] ebakiko direla dioenean. Grafia zuzenez *etxee-*

tan forman agertzen dena *etxietan* ahoskatzen dutenek *biena*, ordea, *bi* [*j*] *ena, bi* [*š*] *ena* edo *bi* [*dž*] *ena* egiten dute.

Edozein modutan ere bultzatu nahi den bideak dakartzan ondoreak hontzat hartzekotan hobe izango gendukeen Mogel-ek erabili zuen gisako ortografia hastetik hontzat hartu baldin bagendu. Aski zabaldua zegoen gerra aurrean, Azkue batasunzale bizkaitarraren eta gipuzkoar askoren gustokoa ez baldin bazen ere. Orain berandu dela uste dut ortografia horretara bihurtzeko. Gainera Ifarrekoak behartu beharko lirateke XVI-garren mendetik aurrera datorkien eta denona den tradizio zaharrik ugariena eta ondoen finkatua baztertzera. Ezin jarri gaitezke gure lehenengo historiarik hoberenaren aurka.

Fonetikak eboluzionatzen baldin badu izan dadila ezinbestez, baina ez dut uste guk bultzatzaile izan behar dugunik, ahal den neurrian zaharraren eusle baino. Hizkuntzaren aldetik gordezale izateak ez du esan nahi inola ere beste gauzatan iraultzaile ezin izan daitekeenik. Ez da gauza bera.

5. Bere 2.8.1. delakoan dion: "euskarazko /i/ fonemaren balio fonetikoa [*j*] erdi bokalearena izango da: [*jan*] ; gaztelerazko "y"-ren kidea: *"ayer, yo"*. Eta 2.8.2. delakoan: "Ez dira, halere, [*ž*] zaharra eta [*x*] berria gaitzesten [*žan, xan*] ; baina euskalki mailako ebakeratzat uzten dira alde batera".

Honetan zaharraren eusle jokatzen da, absolutoki ez bada ere ia absolutoki. Denborak esan beharko du. Nik neuk ez dut ezer horren kontra hala ikasi bainuen haur nintzela eta are gutxiago izango dute, uste dut, Ifarrekoek, ez baitakite, ikasten saiatu ezik, [*x*] ahoskatzen.

Hala ere zenbait ohar egin beharra dagoela iruditzen zait:

a) Delako /j/ fonema grafia birekin erabiltzen du egun mundu guztiak gure artean eta erabili ere zuzen erabiltzen da ene ustez: hitzaren hastapenenean *j-* eta erdian, bokal artean gertatzen dela, *-i-*. Hola *jan, josi, jo, jauna,* eta abar, baina *jaio, saio, saiatu, jaia,* eta abar. Axularrek *iaio* eta halakoak erabiltzen zituen.

b) Gogora ekarri behar dugu *j* eta i jatorriari begiraturik grafia berbera dela, izkribatzerakoan beherantz arrastoa eginik *j* forma hartu baitzuen. U eta *v* ere bat ziren. Erromata-

rren garaiean kasu bietan letra bakarra zen, geroago latinezko testoen argitaratzaile batzuk berezi badituzte ere. Badira, ordea, latinezko testo klasikoak ikertzen dituztenen artean ohitura zaharra gordez bereizten ez dituztenak ere eta *uenire, maior* eta halakoak erabiltzen dituztenak argitara ematerakoan. Erdi aroan euskaldunen eremuko erromantzez, hurbilena aipatzearren, berdin erabiltzen zuten bata nahiz bestea bokal bezala eta inor ez da harritzen orduko testoetan *Maria* edo *Amalloujdea* irakurtzeaz, *j* delakoa bokalari dagokiola. Gaztelania zaharrak izanikako eboluzio fonetikoan, ordea, *j* grafiari balio desberdina eman zitzaion, sibilante prepalatal frikatibo ozenarena, [ž] , ñeta geroago [š] gorrarekin nahasi zen, oraingo *j* grafiak duen ahoskatze belarra, [x] izatera heldurik (1). Beraz bata eta bestea berezi beharra gertatu zen. Eta euskaldunen eremu batean ere –Gipuzkoan, eta Bizkaian Durango eta Gernikaraino– beste horrenbestetsu gertatu da, eboluzio berdinaren bidez izan ez bada ere berdintsuaz, eta hastapeneko [j] delakoa [x] beharra ahoskatzeraino aldatu da, azkenengo eraginean bederen gaztelaniaren kutsatzez. Modu horretara Gipuzkoako zenbait lekutan [x] *a* [j] *o* esaten dute. Bizkaiko euskaraz egiten den euskalkietan Gipuzkoa aldetik Markinaraino [x] *ai* [š] *o*. Ondarroan [x] *a* [š] *o*. Aulesti eta inguruetan [x] *a* [dž] *o*. Lekeition [dž] *a* [dž] *o*. Zorrontzan ere bai, gazteak [x] ebakitzen hasi baitira ere. Baina Arratiatik Mungia inguruetaraino [j] *a* [j] delakoa ez da sekula [x] izatera heldu eta gehienez ere [š] bilakatu da eremurik eboluzionatuenetan. Bizkaiko euskaraz egiten den zenbait lekutan, ordea, flesio berbalen hastapenean ez dute eboluzio osoa egin eta horrela [x] *ausi* [x] *ako* delakoaren ondoan –Markina– [x] *ausi* [dž] *ako* –Aulesti eta inguruetan–, [x] *ausi* [š] *ako* –Oñatin– esaten dute. Hala ere ez uste izan erdian agertzen den [j] delakoaren eboluzioa egin dutenen artean ez dela agertzen [j] berririk. *Gasta* [j] , *kanpa* [j] *a, sermo* [j] *a* eta horrelakoak esaten dituzte, baina guzti horiek lehenago *gaztaea, kanpaea, sermoea* eta abar dokumentaturik agertzen dira, silaba bat gehiago zutela. Arratiatik Mungia inguruetara bitartean batzuk eta besteak [j] bezala ahoskatzen dira beti. Arratian, esaterako, [j] *a* [j] *é* da

(1) Ikus R. Menéndez Pidal, *Manuel de Gramática Histórica Española*, decimotercera edición, Madrid 1968, 35 bis. 3, 6 eta 53.6.

esaten da eta pluralean [j] *á* [j] *ek*, azkenengo *-a* > *-e* bihurturik, baina *sermó* [j] *a*, bihurtu gabe. Beste alderdi batetik, ordea, *alabea*. Aulesti eta abarretan *sermó* [j] *e* entzuten da, baina *sermó motxa* eta *sermó* [j] *ek*, azkenengoak artikulu plurala duela. Ondarroan *sermói*, baina *sermórik* eta *sermó* [j] *ak*, hitz mailegatu hain zaharra ez denez gero pluralean azentua aldatzen ez duela.

Ikusi ahal izan dugunez [j] delakoa hastapenean eta erdian dituzten hitzetan aldatzerik agiri baldin bada kontrasterik handiena lehenengoan [x] izatera heldurik bigarrenean aldatu ez direnetan gertatzen da, hau da, [x] *a* [j] *o* bezalakoetan. Halako ahoskatzea egiten dutenen artean *j-* grafia hots baten ordez ikusten da eta *-i-* beste baten ordez. Gainera horrek esan nahi du aspaldidanik, hastapenekoa belarra izatera heldu baino lehen ere, desberdin ahoskatzen zirela. Beste batzuentzat, ordea, grafia biak ahoskatze berbera dute, edo, hobeto esateko, dutela uste dute mintzatzaileek, eta letra berberaren aldaera huts bezala agertzen dira, sortu ere hala sortu baitziren hastapenean. Grekoz ere forma bi dituela agertzen da sigma, bat hitzaren erdian, bestea hitzaren azkenean: —G— eta —S. Gure ortografiak esan den bezalakoa izan behar duela eta ez dela aldatu behar argi dago. Ahoskatze normalizatua bultzatzearen korapiloa nola askatu behar litzatekeen da gure gaia. Erdian agertzen dena [j] bezala eman behar dela, leku batzuetan izan dituen eboluzioak gora behera, ez dago zertan dudarik egin. Bestea zailagoa da, baina [j] ebakitzen duten Ifarrekoekin berdintzea errazagoa dela dirudi, haiek ez baitakite, ikasten saiatu ezik, [x] hotsik ebakitzen, aintzineko euskaldunek batek ere ez zekien bezala, bai guk [j] , ordea, euskaldun orok aspaldiko denboretarik jakin izan duenez. Beste alde batetik gure biltzarre batean oro bat gatozela hautapena eginik ere, hedatzera bidean bere kasa datorkeen ohituraren indarrak zer eskainiko ligukeen ez dakigu aldezaurretik. Saioa egiteak, ordea, kalterik ez lekarke bederen.

Alabaina gauza honek badu beste aurpegia ere. Bereziki Hego aldekoen artean gertatzen diren beste korapilo batzuen gainean bada oraindik esan beharrekorik:

a) Gure artean badira zenbait [š] hitzaren erdian [x] izatera iragan direnak, hala nola, *axolla (a* [š] *ola)* > *ajola*

(a [x] ola), ajea (a [x] ea), eta Bizkaian bertan *[j] a [j] o* eta horrelakoak esaten diren eremuetan beretan *gixájoa (gi [š] a [x] oa)* eta *gixájea (gi [š] a [x] ea)*. Gainera, jakina denez, gaztelaniatik hartu diren eta hartzen diren oraintsuko hitz mailegatuetan beti hala gertatzen da, zaharrak Lekeition *kéfia* eta horrelakoak esatera makurturik bazeuden ere erdarazko *jefe* adierazteko, *gixájua* eta *gixájia* eta *Ama Birijiñia (amabir x iñia)* orain bezala esaten zituzten bitartean.

Delako *[x]* hitzaren erdian dugula haren ahoskatzea markatzeko zerbait erabiltzekotan *-j-* erabili beharko genduke, nork bere euskalkian izkribatu nahi duenean bederen, gaztelaniazko izen propioak eta hitz mailegatuak agertzen direnean bereziki. Hitzaren erdian *-j-* erabiliz gero *-i-* grafiatik bereziko litzateke eta horrela ahoskatze desberdina adieraziko lukete batak eta besteak, egun gure arteko askok berez hontzat hartzen duen bezala. Exenplo bat ipiniko dut: erdaldunen artean Bizkaiko udal ezagun bati *Lejona* esaten bazaio ere, *-j-* grafia ahoskatze belarriari dagokiola, bertako euskaldunek beti *Leioa (Le [j] oa)* esan dute, eta *[j] a [j] o* esaten dutenen artean gertatzen den bezala, ez dakite *[dž]* ebakitzen. Hala ere *-j-* grafia edozein kasutan *[j]* fonemari dagokiola oraintsu zabaltzen hasi denez gero, sinplifikazio izugarri bat eginik, *Lejoa* bezala agertzen hasi da moldezko letretan eta hori hala izanik *Le [x] oa* ahoskatzen ari da bertakoa ez den bat baino gehiago, neure belarriz entzun ahal izan dudanez. Hala ere ez dute *Lojola (Lo [x] ola)* eta *Aja (A [x] a)* esaten, *Loiola (Lo [j] ola)* eta *Aia (A [j] a)*baino. Horretatik Udal izenen formak finkatzeko lanetan ari izan den Euskaltzaindiko batzordean *Leioa* izkribatu behar zela eskatu nuen eta ez *Lejoa, Le [j] oa* bezala ebakitzekotan proposaturik zegoenez. *Kanpaia, sermoia* eta halakoetan ere *kanpaja, sermoja* eta gisa horretakoak erabili behar ote ditugu, *kanpaea* eta *sermoea* urrunsko gelditzen direla egungo errealitatetik eta ortografia ohituretarik?

b) Gaztelaniazko mailegueta ez litzateke izan propioetarik kanpo sarriegi gertatuko hastapenean *[x]* izatea eta ez du merezi ortografiarako aldakuntzarik egitea. Banakako ahoskatzea ogoan hartuz gero aski dela uste dut.

d) Eta nolako jokabidea bultzatu behar da latinetik hartzen diren zenbait hitz kultotan, hala nola gaztelaniazko

forman *proyecto, adjetivo, subjetivo* eta abar direnak? Ez dut uste agirian ipini den problematikatik gehiegi urrundu behar lukenik, zenbait hizkuntza kultotan ohitura *-j-* grafiaren alde erori bada ere, azken finean *i* ez baita gutxiago kultotasunean, besterik demostratzen ez den bitartean. Agian kontsonantearen ondoan datorrenean *-j-* izan daiteke, hastapeneko kasuetan bezala, eta bokal artean *-i-*, azken kasu honetan ahoskatzerakoan diptongo berunzkoak eskatzen duen erdi bokalaren egitura ere hartzen baitu nolabait. Horrela alderdi batetik *proiekto* erabiliko genduke eta bestetik *subjetibo*, *-j-* delakoa [*j*] bezala ebakirik.

Edozein modutan ere ene eritziz halako hitzetan azkenengo bokalak *-o* bezala agertu behar luke beti.

6. Bere 4.2. delakoan ematen den legea ez da beti betetzen: "*(s, z) + (b, d, g) = (sp, st, sk; zp, zt, zk)*". *Ikusgarria* esatea oso zabal dagil. Bizkaiko euskalkian beti *nos da* eta *nos goas* entzuten da eta ez **nosta* eta **noskoas*, exenplo batzuk ematearren. Horrek ez du esan nahi legeak balio ez duenik, noiz betetzen den eta noiz ez zehatz ikertu behar dela baino. Esaterako 4.2.1. delakoan adierazten denez beti entzuten da, baita Bizkaiko euskalkian ere, *ezta* < *ez da, ezpada* < *ez bada, ezkoaz* < *ez goaz*, eta abar.

Gainerakoan *ezoa* esaten dutenak ez dira mordo txikia eta arrotz egiten zaie *eoa* eta hor badirudi hobe litzatekela sibilante ta guzti ahoskatzea, nonbait *eíntzela* esaten badute ere < ez *hintzela* irakurtzen duguna. *Enator*, ordea, leku denetan esaten dela dirudi < *ez nator* izkribatzen dena ebakitzeko.

7. Bere 4.5.Z delakoan dio: "*(l; n; r) + (z, s, x) = [lc, nc, rc; lc', nc', rc'; lč, nč, rč]* . Adibidez *hil zen* (= *[ilcen]*), *esan zigun* (= *[es'ancigun]*), *hor zegok* (= *[oRcegok]*)".

Ez nuke esango erregela horiek absolutoki hartu behar direnik, ezta gutxiagorik ere. Bizkaiko euskalkian, Gipuzkoa barrura sartzen dena ere gogoan harturik, ez dut uste inor aurkitu ahal izango denik *iltzan* esaten duenik, *il san* edo *il sen* baino. Berdin gertatzen da *esan san* eta *bildur san* edo *hor san* direlakoekin edo *hortzan*, entzuleen artean harrigarri agertu nahi ez baldin balu. Zenbait gipuzkoarri horrela entzutea, ordea, ez litzateke miragarri izango, alderdiren bateko gipuzkoarra izatea bera normala baita. Beste zenbait aldetan

ere berdintsu gertatzen dela esango nuke. Horrek ez du esan nahi lege fonetiko horiek balio gabekoak direnik, noiz bete behar liratekeen ondo finkatuz gero. Bizkaian bertan *faltsoa, pentsamentua, i* [*dž*] *éltsua,* [*x*] *ertsía* -azkenengo biak Lekeitioko eran— eta horrelakoak entzutea normala da, fenomeno horiek historian zehar alderdi guztietan beti berdin bete ez badira ere, L. Mitxelena-k bere Euskal Fonetika historikoan bildu zuenez (2). Badirudi, ordea, neurri batean bederen bazterretan egun nolabait indartzeko bidean sartu direla.

Aulestin, 1978-garren urteko Uztailaren 15-ean.

(2) Ikus *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián, 1961, 14.6, 287 eta hurrengoak.

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 6

Moderatzaile: *Haritschelhar, J.*

Partaideak:

(1) *Mitxelena, K.:*

"Nik onartuko nuke: Projekto... "j" fonemaz.

Gauzak adierazkorrak edo expresiboak direnean, bi "dd" gordeko nituzke: Maddalen, ttantto, anddere, aitta, paittarra..."

(2) *Altuna, Patxi:*

"Ni ere "tx" idaztearen aldekoa naiz. Etxeparen beti, tchipi.

Etxeparen "j", "y" erabiltzen ditu: Munduyan, yuyata... Baina hemen esan denez, ba dirudi, "i" fonemaz idatzi beharko litzatekeela."

(3) *Zatarain, A.:*

"Tzar, txar, xar... "tzar" da zaharragoa.

Euskalki batzutan, "tx" edo "z": txori, xori...

Zeila, tella, teja... jatorrena "tella" da. Berdin "akullu" hitzaz: akilu, akuilu..."

(4) *Txillardegi:*

"Euskaltzaindiak erabaki zuen: -il-, -in- idaztea: langileria, baina... Baina sekula ez du esan "baña" eta "langille" ez denik esan behar. Hau, orain edo datorren urtean, Arrasaten, erabaki beharko litzatekeen gauza dela.

Despalatalizazio arazoa, ba dirudi, Behenafarroako zenbait lekutan gertatu dela. Eta ez dela oso zaharra: boteila. Aski da ikustea: Iruñe, Zunbilla...

Hortaz, ez dut uste astakeria izango litzatekeenik, hain zuzen ere, nahiz eta "langile" erabaki idaztea.

Nik proposatuko nuke: "Langille" normalagotzat jotzea. Beste era baztertu gabe, eta euskalki mailarako ebakeratzat jota".

(5) *Uribeetxebarria:*

"I. Sarasolari, nire ustez, euskara biziarekin izugarrizko eraginpena duela idazkerak.

Irakaskintzan ari dena konturatzen da nolako eraginpena duen idazkerak. Eta, nola jende askok euskara ikasi beharko duen, hau berriz, hobeki pentsatu beharko litzateke."

(6) *Sarasola, I.:*

"Irakasleak hau honela irakurri behar da eta ez bestela. Beraz, ez dut uste horren zaila denik. Irakaskintzaren bidez dena lor daiteke. Azken finean, irakaskintza falta da."

(7) *Kintana, Xabier:*

"Nire ustez, "Lejoa" idatziko nuke.

Mitxelenari galdetu nahi diot "jaio" denean... baina Gipuzkoako "jajo"... berdin idatziko litzateke?

I. Sarasolari, Txori, txistu... 'x" fonemaz idatzi, baina ahozkatzerakoan, hasieran "tx" irakur bedi.

Hobe dela "tx" fonemaz."

(8) *Rotaetxe, Karmele:*

"Zertarako nahi dugu ortografia? Lehen esan dugu ortografiak fonologiari jarraitu behar diola. Eta orain proposatzen duzuena, zuek ere, "a priori" bezala, esaten duzue, nahiz eta "x, tz" idatzi, gero "tx" irakur daitekeela.

Nahiz eta "i" bat idatzi, "j" irakur daitekeela. Nahiz eta "l" idatzi, "ll" irakur daitekeela.

Orduan, zertarako nahi dugu ortografia? Ortografia, azkenez, konbentzio bat bezala izan behar du. Eta konbentzio hau, zertarako nahi dugu?

Nire ustez, konbentzio hori, elkarrekin ulertzeko behar dugu. Jakiteko, nola irakurri behar dugun eta nola idatzi esaten dugun guztia.

Horregatik, ortografia hizketarekin ezin urrun joan.

Euskaldun berriontzat arazo haundia da. Euskara idaztea zail egiten da. Euskaldun gutxi gaude".

(9) *Zarate, Mikel:*

"Gauza bat da esatea eta bestea idaztea. Guri falta zaiguna da alfabetatzea: "mutila, mutilla, mutija..." Baina era bat dugu idazkera sailean. Nire kezkarik larriena, euskaldun zaharren alfabetatzea da."

(10) *Altuna, Patxi:*

"Idazkera eta hizkera bizia oso hurbil izan behar direla. Euskaltzaindiak beti izan du kezka hori. Borroka, hizkera ezberdinean sortzen da. Euskara bereganatzean, alfabetatzean ohartzen da idazkera eta hizkera zerbait ezberdin direla, baina hori, alfabetatuz, zeharo baztertzen da."

(11) *Iruretagoiena:*

"Txakur, xakur, zakur... ba dira ezberdintasunak. Nire ustez, "tx" diminutiboa da."

(12) *Sarasola, I.:*

"K. Rotaetxeri: Nik uste dut, "ñ" fonema bat dela adierazi dudala.

Hortik aparte, euskaraz bi ortografia ditugula.

Niri bost axola arrazoi ideologiakoak diren ala ez. Nik gertatzen dena kontserbatzen dut, eta une hontan, ez zait bat ere axola".

MORFO-FONETIKA ETA GRAFEMA BATZUEN ARAZOA HIZTEGIGINTZA BATUAN

Bergara, 1978-IX-6

Mujika, Luix Mari

FONETIKA ETA GRAFEMA BATZUEN ARAZOA "EUSKARA BATUAREN" BIDEAN

Euskarari batasuneranzko bidean oinarriak ipintzeko mementoan gure aurrean ez ditugu *ortogrofi* arazoak kontuan eduki behar soilik; behar bada, *morfologiatik* (eta bere barruan *fonetikatik*) sortzen diren problemak garrantzitsuagoak dira. Ortografia hizkuntza batean aldakorra eta konbentzionala da; morfologia, berriz, funtsezkoaga, hizkuntzaren barren egiturari lotuagoa.

Hori dela-ta, lan honetan EUSKARA BATUAREN problematikari morfo-fonetikatik sortzen zaizkion arazo batzuk planteatuko ditut lehenik, eta bigarren zatian, grafema batzuen arazoaz jardungo naiz.

Guztiok dakigu euskara ERROMANIA nagusian halako irla bitxi bat dugula; irla izate horrek gure euskarari erromantze hizkuntzekiko mila dependentzi sortzen dizkio. Dependentzi horietan arriskugarrienak ez dira lexikalak, morfo-fonetikoak baino. Hizkuntzaren funtsari begiratuta larriagoa da *nazkantza, gezurtero, zurrutero* esatea *bajatu* hala tapatu esatea baino; erosio harek gure hizkuntzaren morfologi funtsa jotzen baitu, hau da, gure atzizkien nortasuna.

Euskara gaur hainbat euskalkietan sakabanatuta dagolarik, EUSKARA BATUAREN oinarriak planteatzean bati *lege orokor* batzuetara jo behar dugu, bestela jokabide morfologiko desberdinekin edozein memento eta dialektoetan aurkituko gara. Adibidez, N, R eta L ondoren T epentetika ezarri

behar dela beti uste duenak *nigarzu* (Oihenart), hari*lko* (AN.), *zankho* (s.) hitzekin topatuko da, *negartsu* (BN.), *harilgo* (L.) eta *zango* (AN, BN, L.) ordez. S. eta R. euskalkiek fonetikan batzutan bide bitxiak hartzen dituzte. Ozentasun-ahoskabetasun (ensordecimiento) fenomenoetan ere formula desberdinak ikusgarri/ikusgarri, biozdun (B, L, D, R)/biotzun (G. topatzen ditugu noiznahi. Zer egin? Kasu horietan fonetik lege nagusi eta orokorren bila joan behar gara, euskalki determinatu batzuen oztopoa ganindurik, gehienetan behintzat.

Morfo-fonetikan ari garelarik gaur egun idazle batzuen lumatan jokabide bitxiak ikusten dira, gure tradizio orokorrenetik aparte. Eztabaidak, alternantziak, dudamudak ez dira urriak; dudamuda horiek, batzutan, ordea ezjakintasuna, gure morfologiaren desezagumena dute iturri. Gure ustez zenbaitzuen *etimologismo-joera* halako morfologi-ezjakintasun baten adierazpen da. Hona hemen EUSKARA BATUAN onar ez dezakegun alternantzia: gozotegi/gozategi, kontzierto/kontzertu, estatuto/estatutu, hitzdun/hiztun, anaiatasun/anaitasun, etab.

Esandakoa benetan problema delarik, ikus ditzagun morfofonetikari dagozkion puntu zehatz batzuk BATASUNAREN bidea gure alorrean nagusiago gerta dadin.

1. *Epetentikaren arazoa*

Euskaran epetentika erabiltzeko joera oso nabarmena da. Bere erabilera atzizkiekin, batez ere, garrantzi handia du, ahalik ete gehien batasun bide batetik denok ibiltzeko. Euskalkietan maiz ez da batasunik ikusten, eta kasu batzutan komeni da akordio batzutara etortzea. Euskarazko epetentika nagusienak dira:

K-az
- OI (koi)
- OR (kor)
- ETA (keta)
- ERA (kera)
- ARI (Kari)

- ADA (tada)
- AILE (taile)
- ALDE (talde)
- ALDI (taldi)

T-az
- ARI (tari)
- AR (tar)
- ERIA (teria)
- ASUN (tasun)
- AN (tan)
- ARA (tara)

G-az
- AILU (gailu)
- OI (goi)
- ASUN (gasun)
- IZUN (gizun)

Gure galdera da: noiz eta nola erabili epetentika hauek,euskalki desberdinetan hitz bera batzutan epetentikaz baitago, ta bestetan gabe (jokari/jokalari, jostailu/jostagailu). -ERA sailean pentsaera/pentsakera, biziera/bizikera. -ASUN sailean osasun/sendotasun/maitarzun. -ARI sailean: *kari, dari, lari, tari...* arilkari/arildari, koblari/koblakari, obenari/obenlari. -ARI atzizkiarekin gure neologismoak eta azken prestamoek fluktuazio berdina azaltzen dute:

bulegari/bulegolari
polikari/politikari
teologari/teologilari.

Hori guztia kontutan edukita, esan beharrezkoa da -TEGI, -TASUN, -KIZUN, -KERIA, -KEZA (eta beste atziki batzuen kasutan) epetentika fosilizatuta dagoen hitzetan eta horietan aski dela tradizioak eman digun eran epetentika onartzea. Emandako atzizki horiek eta beste batzuek nahiko normalizatuta daude gure lexikoan. Problematikoenak -ARI, -AR, -AILU eta -ERA dira.

-ARI eta -AR atzizkiei dagokiolarik gure tradizio morfologikoan lege *nahiko orokor* bat konstata daiteke; lege hori da, bi silabatik goragoko hitzetan ez dela epetentika erabili behar; *bi* silabaka *behekoekin* bai. Hau eroso konfirma daitekeen legea da, nahiz eta salbuespen batzuk egon bi silabatik beherakoekin ere, adibidez alternantzia honetan:

jokari/jokalari
salari/salatari
koplari/koblakari.

Alderantziz berriz, hau da, bi silabatik goragokoekin, dauzkagu: *gerokokari* eta *tirakalari* (AN, B, G.) Halabainan,

kasu horiek salbuespenetaz jo ditzakegu, zeren-eta araua baiezten duten exenpluak ehundaka daudelako. Hona hemen adibide batzuk -ARI atzizkiaz:

2. *Silabakoekin epetentikaz*

muslari (ez musari)
hizlari (ez hitzari)
hostalari (ez hostari ?).

3. *Silabakoekin epetentika gabe*

tabernari (ez tabernalari)
errotari (ez errotalari)
pilotari (ez pilotalari).

Monosilabiokoekin ez dago dudarik; bisilabiokoekin alternantzia maizagoa da (jokalari/jokari), baina joera nagusia epetentikaz baliatzea da. 3 silaba ezkeroz (salbuespenak utzita) epetentika ez da erabili behar.

Arau honen arauera, tradiziorik ez duten hitzetan batasuna literaturan bila behar genuke, ez inprobisazioan. Hori dela-ta gaurko egunean praxi batera jo behar genuke hitz berriekin:

polikari (ez polikalari)
teknikari (ez teknikalari)
filosofari (ez filosofilari=ebajelari tradizioan)
bulegari (ez bulegolari).

—AR/TAR ee maizetan arau berdinera mugatu daiteke. Tradizioak joera hori isladatzen du:

altsasuar (ez altsasutar)
gazteluar (ez gaztelutar)
donostiar (ez donostiatar).

Euskal toponimian eta deituretan, badira, ordea, salbuespenak. Tokiko tradizioa kontutan hartu behar da; halabainan joera bi silabatik goikoekin epetentika galtzea nahiko zabala da. Honek garrantzi handia du, batez ere, euskal geografiako deitura ez diren hitzekin. Hoietan hemengo araua erabili behar litzateke. Adibidez:

kubatar (ez kubar)
venezuelar (ez venezuelatar)
donostiar (ez donostiatar).

-AILU/GAILU alternatziak problema berdinak azaltzen dizkigu. Hitz berriekin (tradiziokok bertan utzi behar dira) pauta antzekoa litzateke "BATASUNERAKO" bide egokiena. Tradizioan bi jakabideak azaltzen direnean (pentsaera/pentsakera, biziera/bizikera) hemengo arau jarraitzea litzateke hona.

2. *Zenbait fonemaren erorketa eta erasketa*

Hitzen elkarketak, loturak, eta konposaketak fonetikan problemean bereziak sortzen ditu. Horietan ere BATASUNA ez da beti nabarmena euskalkien tradizioan. Bainan, orokortasun puntu nagusiak badaude han-hemen.

Adibidez, konposizioan -DI eta -GI erortzen direnean ahoskabetasuna sortzen da ondorengo B, D, G, grafemetan (harakin = hara(gin)gin, gurpide = gur(di)bide). Batzutan T epetentika sartzen da (betile = be(gi)ile, artzain = ar(di)zain.

Bestalde N, L, R letren ondoren S/Z grafemek T bat onartzen dute ia euskalki gehienetan. Erronkarierak eta Zubererak ez dute beti, ordea, betetzen arau hori. EUSKARA BATUAN lege hori hontzat hartu beharreko da B, G, GN, BN, L. Euskalkietan nahi unibertsala delako. Arau horri jarraituz neologismo eta prestamoetan bide berdina erabili behar genuke: *intsulina, independentzia, intzidentzia.*

Badira beste eroketa kasuak (partizipioa i/tu, ge, amaierako bokala i, batez ere), hoskabetasun (ensordecimiento) fenomenoekin lotuta daudenak. (Ikuspegi = ikusbegi, harkaitz = harr(i) gaitz, errepide = erre(ge)bide.) Azken kasu hauetan araua ez da goiko kasuan bezain orokorra euskalkietan, eta zaila da esatea ahoskabetasun bidea jarraitu behar denik tradizioan bi hitz-formula daudenean. Formula bakarra danean (harkaitz, kasu) hura segi; bi diranean hobe *fonetika* bidetik jarraitzea (errepide), bainan formularen sozial inposizioa ahaztu gabe.

3. *Bokalen loturak*

Bokalen loturak ere garrantzi handia du, hiztegi tradizionalean jokabide desberdinetan nabari direlakoz edonon, euskalkien zehar. Hala-ta guztiz, gehientsuenetan arau batzutara etor daiteke gure hiztegi tradizioa aztertu ondoren. Lege horiek hauek lirateke:

a + o = o (aitorde = etimol. aita-orde)
e + o = o (erretororde = erretore - orde)
e + a = a (bidaldi = bide-aldi)
e + e = e (alkatetxe = alkate-etxe)
a + a = a (pozaldi = poza-aldi)
i + i = i (harrikatz = harri-ikatz).

Badakit salbuespenak badaudela tradizioan goian emandako eskemari (*ormaetxea*, adibide, orme*txea*-ren ordez), baino kontrakoak dira askoz maizago.
Kasu horietan batzuen jokabidea marra (—) erabiltzea izango da soluzioa, bainan, soluzioa hori nahiko kaskarra eta iheskorra deritzaigu morfologiaren aldetik, euskara zaharrean milaka hitza direlako sistema horrekin lotuak. Gaur *kanta-aldi* idazten hastea atzerabide bat da, dudarik gabe.

Neologismo eta beste prestamoekin goiko arauak kontuan eduki behar genituzke, presidentorde (presidente-orde) kasuan bezala. Arazoak milaka hitzei jotzen die gaur egun; batasun bidea hemen ere beharrezkoa da.

4. *Bokalen aldaketa batzuk*

Hitzen konposizioan bokalen aldaketak zerikusi berezia dauka euskaran. Hemen ere EUSKARAK hitz berdinean jokabide ezbatuak azaltzen dizkigu. Oztopo guztien gain, ordea, euskarak baditu hontan *konstante* nabarmen batzuk, nolabait indoeuropear (eta latindar) hizkuntzetan ere agiriak direnak. Adibidez, konposizioan gaztelaniazko *pata* hitza *pati* (a=i) bilakatzen da (patirroto/ez patarroto), berdin *cuello cuelli* (cuellilargo = ez cuellolargo), etab. Lege horiek euskaran bitxiagoak dira. Euskalkiak aztertuta gero, esan daiteke EUSKARA BATUARAKO eskema *orokorrena* hau dela gure hizkuntzan:

e = a (zorne = zornatu
erle = erlakume)
o = a (baso = basapizti
asto = astakaiku)
u = a (katu = katakume
kantu = kantatu).

Dudarik gabe, hiru bokaletan *U* gertatzen da ahulena aldaketa-joera horretan.

Joera orokor edo unibertsalena euskalkietan hori dela adieraztean BATASUNERAKO jokabide bat azaldu nahi dugu. Euskalki bera, batzutan, bi jokabidez azaltzen da gero ikusiko dugun bezala. Nola jokatu?

Hemen, bestetan bezala, BATASUN funtsak ezertzean ez da lege fonetikoari bakarrik begiratu behar (bere leialtasunean) baita sozial intzidentziari. Beraz, gerta daiteke aldaketa fonetikoa; batzutan, urria izatea geografiari begiraturik, edo-ta hitz batzutan aldaketa ulergaitza gertatzea (adibidez, ahazabal = ahozabal ordez; ohazeru = ohezeru ordez, etab.). Horietan hitzaren inposaketa soziala begiratu behar litzateke. Beste batzutan alternantziak ez dira han problematikoak gertatuko:

trebetu/trebatu
galdetu/galdatu
tristetu/tristatu.

Jokabidea euskalkietan batasunik gabe azaltzen da hitz arrunt askotan (baso, arto, larre, etxe, bide, bezala). Hona koadru bat adibide bezala:

erlakizten AN / erlekizten G.
erlakume AN, B, G./erlekume AN, B-i, G-ber.
astalarrosa B, G./astelarrosa (ms. Londres)
astamenda AN, B, G./astomenda L.
mandabide G./ mandobide (Duv.ms.)
artalanda AN./artolanda AN-b.
artaburu B, G./artoburu BN, x artobürü S.

Uste dugu alternantzi hori alde batera makurtu behar dela EUSKARA BATUAN; emandako kasutan eta gehienetan gure morfologiaren lege jatorrizkoetak jarraitu behar genituzke. Eskeman emandako legeak ez betetzea euskalki batean erdaratiko erosio eta diglosiaren hurratsa izan daiteke.

5. *Bokalen erorketa-fenomenoak*

Euskal morfo-fonetikako beste puntu berezi bat konposizioan azken bokalaren erorketa da. Joera hori nabarmena da bi silabadun eta goragokoen hitzekin. Bokaletan *i* eta *a* dira maizenik erortzen direnak. Batekoak ere badira (harkaitz = harri) adibidez.

Honek badu bere ikusia gaurko prestamoekin eta neologismoekin. Batez ere, *morfologi, geografi, politik, estetik,* bezelako izenlagunekin. Horietan azken bokala erortzea ez da gaurko moda bat, gure morfologian aspaldidanik sartua dagoen fenomeno bat baino. Adibideak ugari dira:

alor/elorri (elortzuri)
itur/iturri (iturgoien)
burdin/burdina (burdingaldara)
anai/anaia (anaitasuna).

Bi hitz elkarlotzen direnean, direnean, lehenengoa bokalez amaitzen bada (eta bokalduna, batez ere, *i* eta *a* bada) bokal hori eror bedi. Lege honek zerikusia handia dauka hitz berriak sortzeko edota-prestamoak gureganatzeko mementoan. Halaxe da gure hizkuntzaren joera nagusia.

Euskalki bat lege horretatik apartatzen bada, edo-ta dudamudatan baldin badabil, goiko legera jo behar dugu. Hona hemen dudamudazko jokabidea batzuk hitz bitxi hauetan:

egiti AN, B, G. / egiati L, S.
egiztatu G./egiaztatu B, G, L.
anaitasun AN, B, G./anaiatasun B-m, Duv. ms.
anaitiar AN. / anaiatiar Duv. ms.

gabe, lege *orokorrarekin* bat datozten formulak onartu behar genituzke EUSKARA BATUAN.

Arazo berdina daukagu aditzetan partizipioa *i* hala *tu* erortzean. Hitz konposatu eta deribatuetan hitza bi silabatik gorakoa denean ez dago problemarik (esnaldia, pentsamena, itzalpena). Baina nola jokatu aditza bere erroan monosilabikoa denean? Dakigunez, euskal morfologian aditzak hitz berriak sortzen dituenean partizipioa galtzen du. Dudamudak erroa monosilabikoa denean daude.

Kasu horietan esango genuke *i* hala *tu* erortzea dela lege nagusiena. Joera hori nabarmenagoa de BN, L, Z. euskalkietan, ez ordea hainbeste B, G, GN euskalkietan. Hona hemen alternantziak:

hazten / hazitzen
hozten / hoztuten
hezten / hezitzen.

Azkenaldi honetan erorketaren aldeko mugimendua somatzen da Hego Euskal Herriaren ere. EUSKARA BATUA-

REN normatiban jatorragotzat jo behar dugu BN, L, Z. euskalkian jokabidea. Gaurko *hazkuntza, hezkuntza, heltasuna* onargarriagoak dira atzoko haziketa, hezikuntza hala heldutasuna baino. ETSI aditza da, agian, refratarioena lege honi; halabainan konposizioan galtzen du honek ere partizipioa (onespen, gaitzezpen / ez onetsipen, gaitzetsipen).

Bestalde, bizkaierak eta gipuzkerak *a* organikaz (famili/-familia, egi/egia) dituzten dudamudak, seguruenik, hemen adierazitako fenomenoan dute iturburua.

5 bis.—Oklusiben ozentasun-ahoskabetasun (ensordecimiento) intzidentzia

Fonetik fenomeno hau euskararen berezi eta bizienetakoa da. Ozentasun-ahoskabetasun (ensordecimiento) fenomenoa euskalki denetan ematen da, eta beregandiko arauak EUSKARA BATUARI guztiz afektatzen diote batasunaren bidean. Oraindik orain, herri xeheak joera nabarmena du elkarrizketa mailan oklusibat maiz ahoskabe bihurtzeko (eztut/ez dut, ezpaitut/ez bai-dut, bapes/bat bere ez, otoizpide/o-toizpide/otoitzbide, aizkorri/aitzgorri, etab). Joera horrek, ordea, bi etsai dauzka; bat, erdaratiko fonetik erosioa (gaztelaniaz eta frantzeraz arau horiek ematen ez direlako), eta bi, zenbait idazleren jokabide etimologista (hitzdun, otoitzbide, iritzbide, bihotzbera, etab.)

EUSKARA BATUAREN jokabide arazo hontan gure morfologi eta fonetik jatortasunera berretortzea izan behar du. Joera etimologistak Axular edo Leizarraga baterengan aurkitzea ez da batere harritzekoa, haien jokabidea kulteranista zelako hontan; dudarik gabe, herriaren eta hizkuntzaren joeratik aparte jokatzen zuten *hitzkuntza, galantki*, etab. idaztean.

Dakigunez B, D, G, oklusibak P, T, K bilakatzen dira batez ere TZ/TS digramen ondoren. Toponimia eta lexikoa horren testigantzaz beterik daude: aizpitarte (aitzbitarte), azpeitia (aitzbeitia), azkoitia (aitzgoitia), irizpide (iritzbide), aizkorbe (aitzgorbe) bihozpera (bihotzbera), etab.

TZ/TS digramen ondoren EUSKARA BATUAN oklusiben ahoskabetasuna derrigorezko jarri behar litzateke. Lege nagusi honen araua ez litareteke onargarriak honako idazkera hauek:

ONDO	EZ	OKERRAGO
irizpide	irizbide	iritzbide
guruzpide	guruzbide	gurutzbide
hiztun	hizdun	hitzdun
harizti	harizdi	haritzdi

Baldin-eta sibilante euskalki bat lege horretatik apartatuko balitz lege nagusia hartu beharko luke.

S/Z sibilante edo xistugileen ondoren ahoskabetasuna (ensordecimiento) nabarmena da ere: (erospide, ikuskarri, ikaskai, etab) Halabainan, fonetik lege horrek ez du, jeneralean, TZ/TS digramen ondorengo indarrik. Alternantziak ozen-ahozkabeen artean edonon aurkitzen dira:

ikaskai/ikasgai
ikuskarri/ikusgarri
ikaspide/ikasbide
joskarri/josgarri.

Dudarik gabe, S/Z ondoren legea ez da hain sendoki betetzen. Honetan, azkenaldian ez dago batasunik; halabainan, joera ahosbetasunik ez egitea dela joera nabarmenagoa esango nuke. A. Villasante hala proposatzen du bere "Voces compuestas y derivadas" liburuan, nik neuk nire hiztegian jokabide edo aukerabide berdina hartu nuen. Hemen EUSKALTZAINDIAK erabaki bat hartu behar du ozen-ahoskabeen alternantzia milaka hitzetan gertatzen delako. Nik xistugile edo sibilante horien atzean ez nuke aldaketarik egindo idazmailan, aldaketak beti *ulergarritasun* bat kentzen diolako hitzari.

Honek ez du adierazi nahi hitz horiek ebakitzean edo pronuntziatzean (ahotz mintzatzean) aldagarri ez direla. Behar bada, hala hobe; idazmailan, ordea, batasun bat behar dugu, eta ez da komenigarria dudamuda eta alternantzia.

Aintzinako edo tradiziozko hitzetan alternantzia dagoenean arau hau jarraitu behar litzateke; alternantzirik ez dagoenean (hau da formula bat *bakarra* euskalki guztietan), orduan, noski, tradizioak eman duen forma. Neologismo eta prestamo berriekin berriz hemengo fonetik arauak jarraitzea proposatzen dut.

Ahoskabetasuna, baita, gertatzen beste zenbait kasutan. Adigarriena da T grafema erortzean. Kasu horietan nik ahoskabea onartuko nuke; adibidez boskarren/bostgarren ordez,

hogeitabakarren/hogeitabatgarren ordez. Lege hori nabarmen dago tradiziozko hitz hauetan: *lokarri* (etimologiaz *lotgarri*), *oroikarri* AN.(etimologiaz *oroitgarri*).

Hitzen haseran noiz erabili ozena eta noiz ahoskabea (sorda) tradizioak esango digu. Honetan Koldo Mitxelena hizkuntzariaren ahorrak baliagarriak izango dira. Aintzinako latin jatorrizko hitzetan sonorizazio edo ozentasuna gorde behar litzateke gehinbat hitzen haseran: gartzela (carcer), gaztelu (castellum), ganbara (camara) etab.

Hemen batasun baten bila gabiltza; hori delarik, euskalki bat edo biren jokabidea desberdina ez du aburu izan behar gure anarkian jarraitzeko. Lege nagusi gure morfologi lege jatorretara gehinbat biltzea izango da. Arazo honetan *etimologismoa* da gure etsai nagusiena; maiz, etimologisten joeretan ez dago erru bat baino, eta erru hori gure morfologi-fonetikaren ezjakintasunean dago. Hitz batean, ozen-ahoskabeen (sorda-sonora) arazoak gure hizkuntzan eskema honetaz jokatzen du:

t – b = p (batbatean= bapatean)
t – d = t (bait dut = baitut)
t – g = k (bostgarren = boskarren,
lotgarri = lokarri)
k – b = p (baitik-bat = batipat)
k – d = t (hori dek ba = hori dek pa)
k – g = k (egonak gera = egonak kera (Lexoti)

Fenomeno hauetaz Holmer-en eta Txillardegi-ren *Oinarri Billa* liburuan adibide aunitz aurki daiteke.

LEGE NAGUSI bezala (eta hitz horren tradizioan euskalki batean hala egonda) eskema horri jarraitzea eskatuko nuke, TZ/TS digamen kasuak barne sarturik. Halabaina, lege hori hitz konposatuetan bakarrik (boskarren, baitut, lokarri eta holakoetan bakarrik).

Hitz askoz perifrasia egiten duten esakeretan (bapes = bat ere ez, ezkera = ez gera, eztitut = ez ditut, etab.) ez dut uste jokabide hori jarraitu behar dugunik, inolaz ere; *Euskara idatzi normalizatu* batean (ahozkan hainbat *hobe*); bestela harrizkuzko *sandy* batera joango ginateke, eta berriro hizkuntz normalizatu baten bideak ahuldu lirateke. Perifrasisetan eskema hori *ahozko euskara* jarraitzea gure jatorriari

eustea da, ez ordea idatzian. Edozein hizkuntzak du sandy hori ahoz montzatzean; ez dut onartzen, ordea, idaztekoan. Adibidez: *Nofartabamá* (ahoz)/no faltaba más (idatzian), *ustestachalao*/usted está chalado (idatzian).

Hitz batean, nahiz lege horiek jatorrizkoak izan, *idazmailan* halan jokatzea arriskugarri litzateke. Uste dut hiskuntza batean *arrunt-maila* eta *kulterano* maila bereiztea komenigarri direla. Honela:

kulterano	*arrunt*
olio	orio
ofizio	opizio
fraide	praile
kalkulu	karkulu

6. *Fonetikan herri-arrunt maila eta kulterano maila*

Lehen adierazi dugunez, edozein hizkuntzak dauka bere expresakeran arrun-maila eta kulterano-maila. Hori nabarmen da ez hitzetan bakarrik, baita atzizkien egituran ere. Adibidez, gaztelerak latin-etik hartutako atzizkien desarroiloan maiz bi bide azaltzen dizkigu. Latinezko -ITIA gaztelanian -ICIA bilakatzen da *kulterano* hitzetan, eta -EZA arrunt hitzetan (justicia/justeza, malicia/maleza); berdin -ITIO atzizkia: gazteleraz kulteranoa -CION da (acción, lección, baino -AZON arrunta (corazón, armazón, chanson (cantatio) frantzeraz). Besteinbeste -ENZIA eta -ANZA atzizkiez (estancia/estanza).

Bi maila horiek bereiztea oso inportantea da gaur egun, euskarak normalizatzeko duen erabaki hontan. Zenbait joera dialektal (*berez* jatorrizkoak) ezin dira onartu hizkuntza standar-normalizatuan. Hona gazteleraz:

pagao/pagado
espirina/aspirina
fartar/faltar
cabayo/caballo.

Lehen esandakoak bere garrantzia du euskaran milaka hitz tekniko sartzen ari garen memento hontan. Hitz horietan euskara zahar-baserrikoan arraro diren kontsonante multzoak topatzen ditugu. Adibidez:

MSTR — instruzio
SBSTR — abstrazio
NKS — konstituzio
EX — expresio, exhibizio.

Nola jokatu kasu hauetan? Europako kultur hizkuntza gehienetan kontsonante-multzo horiek errespetatu egiten dira, nahiz eta gero herriak *ahozko-hizkuntza* sinplifikatu. Adibidez, *espresio* hala *konstituzio* idatzi behar dela esatea (herriak halan ebakitzen edo pronuntziatzen duelako) ez da arrazoi ezinbestekoa, zeren-eta gaztelaniaz ahoz mintzatzean oso gutxi dira *exhalar, exhibición, abstracción* behar bezala esaten dituztenak; herri arruntak hitz horiek *esalar, esibición, astracción* bezala esaten ditu. Hori delarik, gazteleran bi plano horiek (arrunt-maila eta kulteranoa) nabarmenak badira, zergatik ez euskaraz ere? Honek garrantzi handia dauka euskarari teknika eta abstrazio mailako ateak irekitzeko une hontan.

Arazoak zerikusia dauka zenbait arrunt-kulterano alternantzietan. Adibidez:

imini/ipini
kurpitu/pulpitu
orio/olio
malezi/malizi.

Nik bigarren bideari jarraituko nioke, hau da formula kulteranoari. Halabainan badira kasu batzuk fonetika legeak unibertsalkiago sartzen direnak, edo-ta arau horiek hitz espezifiko batzutan halan ibiltzen direnak. Adibidez kasu hauek:

a) NB = M batzutan bilakatzea (komeni = konbeni ordez, gomitatu = konbidatu ordez, baina ganbio = ez gamio),

b) B = M haseran bilakatzea (mentura = bentura ordez, makila = bacila (latin),

c) NTK = NK bilakatzea (galantki = galanki (Azkue), STK = SK bilakatzea (honestki = honeski) NST = ST bilakatzea (Erasten = eransten ordez) edo-ta NZT = ZT bilakatzea (jazten, jazki/janzten, janzki ordez. Azkeneko bi kasu hauetan euskalkien joera *nagusia* sinplifikazioa da. Euskarak bere arloko hitzetan, dudarik gabe, sinplifikazio joera dauka; kontsonante-multzo gogorregiak samurtu egiten ditu. Irizpide hau, ordea, saltatu egin behar du (gaztelerak, italerak, ingele-

sak eta abarrek egiten duten bezala) hitz *teknikoen* kasuetan (adibidez, abstrazio, konstituzionalitate, institutu hitzetan).

Kriterio nagusi bezala fonetika aldaketa zenbait onargarri da kasu berezietan (komeni, mentura, jazki, eraskin, etab.) halan inposatua dagoenean, bainan ez forma arruntak lokalismo direnean, hala beste alternantziak indar gehiago duenean (orio, praile, karkulu, parisaismo, etab.) Eztabaida honetatik TZ/TS digaman ondorengo ahoskabetasuna (ensordecimiento) eta hitz konposatuetan (ez perifrasietan) aldaketa dudatik kanpo gelditu behar luke *guztiz.*

7. *O/U Hitz-amaieren alternantzia*

Alternantzia hontan gaur egun inprobisaketa asko dago. Pixkanaka hizkuntzarien artean "consensus" batera etorri gara (eta tradizioan gehienbat errututa). "Consensus" horren araberara *U* fonema latin-jatorria duten hitzetara itsasia gelditu da (kantu, bekatu, zirkulu, estatu, zuku, zaku, etab.) O fonema, berriz, griego-jatorria dutenentzat (semaforo, filosofo, sinbolo, etab.).

Nire eritziz,bide horretatik jarraitu behar genuke, gaurko alternantziak BATASUNAREN alde utziz:

proiektu/proiekto
estatutu/estatuto
objetu/objeto

Emandako hitzak latinetik datoz. Hitz –zerrenda milaka hitzetara heda daiteke. Badira, ordea, hitz batzuk fenomeno/-fenomenu, salmo/salmu, greziar jatorrizkoak, dudamudak presentatzen dituztenak. Horietan ere bereizketari jarraituko nioke hau da, *o* onartu.

Arau hontan, ordea, ez lirateke sartu behar guri gaztelaniatik direktuki etorritako hitzak: sindikato, koadro, asfalto, galápago, pontxo, etab. Hitz horien azpian, maiz, arabiar, turko, amerindiar jatorriak daude, edo-ta gaztelera beraren iturria; horietan *o* hori errespetatu behar litzateke. Bestalde, akordioa gaur nabarmenagoa da -IBO, -ZIO, -ISMO, etab. bukaeraz. Gaztelera zaharreko hitzetan ere *O* fonemak *U* bilakatzeko prozesua eraman du maiz, (anteojo=antiaju, cabestro=kabestru).

8. *Marraren erabilpen-arazoa*

Marra edo gioia noiz ta non erabili arazoa hizkuntza batean oso erlatiboa da. Jokabide desberdinak topatzen ditugu edonon; ingelesak, adibidez, alemanierak baino, joera nagusiagoa du marra erabiltzeko. Euskaran ordea, nire ustez marra *gehiegikeriaz* eta arrazoirik gabe erabili da maiz; hitzen konposaketa marraz berezi nahia umekeria da askotan eta etimologismoaren joera berradierazten digu.

Aski da begiratzea gure morfologiak lexiko zaharrean nola jokatu duen. Euskarak bere kabuz batu ditu hitz eder hauek, marrara jo gabe nahitanahiez:

itzai/idi-zain
katakume/kata-kume
hatzamar/hatz-amar
behatz/behe-hatz
bihozpera/bihotz-bera
etxenagusi/etxe-nagusi
ormaetxeberria (Apell.)/orma-etxe-berria
betaurrekoa/bet(gi)-aurrekoa
ipurtargi/ipur-argi
gabikagojeaskoa (Apell.) zortzi silaba)

Gaztelerak jokabide berdina *paraguas, cienpiés*, parachoques, bienvenida, hitzetan...

Jokabide hori adieragarria da neologismoak egiteko garaian. Hitz konposatuetan morfologiak *aldaketa* bat izan duenean, batez ere, hau da, aldaketa fonetiko, lexematiko, grafematiko bat, marra izkutatu egiten da (aizkorri = aitzgorri ordez, betile = begi-ile ordez, ipurtargi = ipurdi-argi ordez, etab.).

Bestalde, euskaran lehengo konposagaiak bi silaba baino ez dituanean bi konponenteak batu egingo dira problemarik gabe, marra alde batera utziak (kantaldi = kanta-aldi, basakatu=basa-katu). Berdin, bi lexeman loturak *luzadura* asko ez badauka. Jatorragoa da idaztea: alkatetxe = alkate-etxe baino, elektrindar = elektraindar baino.

Nire kabuz marrak edo gioiak kasu hauetara (gutxi gorabehera) mugatuko nituzke: (Euskaltzaindiak emandako arauak osoro konplikatuak eta ezbeharezkoak gertatzen dira gaur: a) -KO hala -REn (de) deklinatiboak ixiltzen diren kasu-

tan (eliz-teilatua = tejado de la iglesia); b) -ETA konjuntzioa isiltzen denean (aita-amak = padre y madre), hau da, aita *eta* amak, morroi-nagusiak = morroi eta nagusiak, ordez; d) gazteleraz edo erdaraz kontzeptua *hitz batez* ematen denean; guk ordaina ere hitz batez edo konposatu batez eman behar dugu (salbuespenak errespetatuz):

Luciérnaga = ipurtargi (bi hitz, baina batuta)
cayado = artzainmakila (bi hitz, baina batuta)
sueldo = lantsari (bi hitz, baina batuta)
dormitorio = logela (bi hitz, baina batuta)
procesión = elizbira (bi hitz, baina batuta)

e) Pertsona eta toki izen propioekin, batez ere, ezagunak direnean (Einstein-ek, Minsk-tik. f) Hitz konposatuak oso luze direnean (atomo-hedadura).

BESTALDE ez dut beharrezkoa ikusten: a) -REN ta -KO kasuetan konposagaiak *oso labur* direnean: dirugose (diruzko gose), alkatetxe (alkatearen etxe); b) BAIT kasuan; Txillardegik proposatzen duen bezala hobe itsastea, baina aldaketa *fonetikoak* eginaz (baitu, baitzen, baikara, baitira, etab.); d) Esaldi onomatopeikoekin: dudamuda, nahasmahas, isilmisil; e) BA- aditz-aurrezki kasuan (badator, baletor); f) Hitza adjetibo bezala (ez konpositibo bezala) erabiltzean: geologi aurrerapena (avance geológico) atomo bonba (bomba atómica). Bai ordea, -REN hala -KO sustituitzen duenean; g) EZ negatiboaren kasuan; zatiki hori bananduta erabiliko nuke beti (ez nuke = enuke ordez, ez luke = eluke ordez), bestela nahasketa fonetikoak sartzen dira.(1)

BAIT elkarturik erabiltzean, aldaketa fonetikoak nahiko konplikatuak sortzen direlako herri xeharentzako t + d = t, t + g = k, t + l = l, etab. Behar bada, soluzio hobena EZ-ekin egin den bezala, berezita idazten hobe (bait gara, bait duzu), eta lotuta ebaki edo pronuntziatzean ahal bada; j) Aurrezkien kasuetan: aurreautonomi, subgobernari, desagerketa, berrantolaketa, aurre-autonomi, sub-gobernari, desagerketa, berr-antolaketa ordez.

(1) *Oharra:* bait partikulari dagokionez, pertsonalki dudak dauzkat.

II. GRAFEMA BATZUEN PROBLEMAK

EUSKARA BATUAREN problema azaletik ikusten dutenak ortografian kokatzen dituzte eztabaida nagusienak. Gure eritziz hauek dira, bada, problema *arinenak*. Beraz, ortografia —morfologia eta fonetika ez bezala— konbentzionala da. Aukerabide eta akordio baten fruitu izan behar du.

Dena dela, EUSKARA BATUAK daraman prozesua guztiz positiboa eta azkarra da, baldin-eta gonparatzen badugu Alemanian, Italian hala Gaztelan beren hizkuntzek eman zuten abiadarekin. Herri haietan batasun hori ERDI HAROAN pixkana umotzen joan zen, hau da, sekuluan araberan.

Ortografiari dagokionez, puntu konfliktibo batzueri bakarrik lotuko natzaio, eztabaidagarri ez diren arazoak bertan utziaz. Hona hemen puntu horiek:

a) Euskal alfabetoaren letra propioak hauek dira: a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, ñ, o, p, r, s, t, u, x, z. Bikoiztuen artea EE, TS, TX, TX.

b) *Txikitasun, maitasun, xamurtasun* etabarrezko ñabardurak adierazteko, gainera, bustidura hauek erabiltzen dira:

dd (onddo), ll (llabur), ñ (andereño), tt (ttattar). Bustidura hauek goian adierazitako ñabarduretara mugatuko dira.

d) Atzerriko jatorria duten zenbait hitzekin erabil ditezke, gainera, gure alfabetako letra ez diren grafema hauek:

C (curaçao, Corneille)
CH (Chamaco, christmas)
KH
PH (Philadelphia)
Q (Quevedo, Quesada, quorum, quid)
V (voltio, vedette). Grafema honekin anglosaxon, eslaviar, etabarrezko hitzak erabili, bainan ez *latin-griegozko* jatorria dutenekin. Latin-griegotik datozten hitzekin B grafema erabiltzeko ohitura zaharra dugu).
W (Whiski, wolframio).

e) *F* grafema gure hizkuntzan derrigorrezkoa da, bere bizia tradizioan nabarmena delako (fede, familia, alfer, afari).

f) *G* bi erabilpen dauzka, bat tradizionala eta eztarriko-guturala (ogia, etxegintza, egurra, etab.) eta bestea gaurko neologismo eta hitz tekniko aunitzen duen fonia xamurra (geologia, iktiologia, antropologia).

Nahiz-eta fonia xamur hori ez erabili ebakitzean (xeoloxia = geologia, xeografia = geografia) idaztekoan komeni da bertara makurtzea, hitz tekniko horietan Europako Mendebal-aldeko kultur hizkuntza gehienak grafema hau erabiltzen dutelako. Bestalde azkenaldiko EUSKARA BATUAREN tradizioan askosaz errotuagoak daude *liturgia, geometria, agentzia,* idazkerak *liturjia, jeometria, jeolojia, ajentzia* formak baino. Hona hemen alemanera, frantzera, ingelesa eta gazteleraren jokabidea grafema honekin:

Alemanera	*Frantzera*	*Ingelesa*	*Gaztelera*
agent	agent	agent	agente
agentur	agence	agency	agencia
general	gènerál	general	general
— — — /— —/	congestion	congestion	congestion

Arau hortan ez lirateke sartu behar oso aintzinatik gurean *j* grafemaz idazten diren hitzak. Horietan tradizioak badu zer esana. Gainera, jokabide hori nabarmentzen da azken boladan: *birjin, jende, jira, jeneral,* etab. *birgin, gende, gira, general* etabarren ordez.

g) *J* bestalde gure alfabetako grafema dugu. Bere ebakera (pronuntziaketa) gaur egun bakoitzaren euskalki arabera egiten da. Hontan gipuzkera da GN, BN, B, L, Z euskalkietatik urrutien dagoen hizkera. Gipuzkeraz mintzatzen garenok *J*-ri fonia oso guturala ematen diogun bitartean, beste euskalkiek fonia xamurrak erabiltzen dituzte (joan = yoan/-xoan, jauna = yauna/xana). Arazo hontan, dudarik gabe, gipuzkerak ahaleginak egin behar lituzke gaur egun euskaran unibertsalago den fonia erabiltzeko.

Bestalde, K. Mitxelenak proposatu zuen bezala, aintzinako zenbat hitzetan *J* ordez *X* grafema erabiltzera jo behar genduke gaur usario den bezala (ajola = axola). Nire eritziz baita gerozkoago prestamoekin ere (paradoja = paradoxa).

h) S/Z grafemak hauek ongi berezi behar dira. Bizkaiera mintzatzen den hedadura guztian nabarmena da grafema horien problema. (gizona-gisona, izan/isan, zazpi/saspi).

Bizkaitik kanpo, ia euskalki gehienetan, euskaldunak joera nagusia du S/Z grafemak X eta TX bilakatzeko hitzhaseran, *maitasun* eta txikitasunezko ñabardura adieraztean. Joera hori guztiz gurea dugu, baina euskara normalizatu batean komeni litzateke, ñabardura hori eman nahi ez denean, hitzak berezko *grafema propioaz* erabiltzea, ez bait da berdin:

zintzo/txintxo
zuzen/txuxen
samur/xamur
zoro/txoro.

Euskara normalizatuan *zoro, zuzen, samar, samur*, idatzi behar lirateke, *ñabardurak* kasu berezietarako utziaz.

i) *X* grafemak ere baditu problemak gaurko egunean. Euskaltzaindiak eman zion ebakera edo pronuntziaketa xamurra gaur guztiz defizitario gelditzen da, hizkuntza teknikotik sartu zaizkigum maileguak edo prestamoak ikusita. Nola idatzi euskaraz *exhibición, oxígeno, expresión* etab.? Grafema honen aurrean batzuen jokabidea etzaigu atsegin (*esibizio, espresio, osigeno*), X grafema eta S grafemak ez dute balio berdira ebakeran. Bestalde, hori aproposki egiten bada, X eliminatzeagatik orduan plano *kulterano* batetik *arruntplano* batera ihes egiten dugu. Bide horretatik (sinplifikazio bidetik) *istitutu, astrazio, kostituzio* idatzi beharko genuke *institutu, abstrazio, konstituzio* ordez. Hizkuntza batean *herri*-planoa eta *kulterano*-planoa desberdinak dira, bai semantikan eta bai fonian ere. Honetaz gorago hitz egin dugu.

Hori dela-ta, Europako mendebal hizkuntzetan gertatzen den bezala nahitanahiezkoa da X grafemari *bi fonia* ematea, bat xamurra (*xagu, xamar, xori*) eta bestea gogorra (*expresio* = ekspresio, sexu = seksu, etab.) Azken ebakera hau emateko *KS* bikoeta erabiltzea etzait tajuzko gauza iruditzen. Ikus dezagun ingelesak, frantzerak, galizerak, gaztelerak nola ematen dizkioten *bi fonia* X grafemari. Badira, noski, beste hizkuntzak *bi fonia*, horiekin.

ingelesa	*frantsesera*
Xerez (xamur)	xylophone (xamur)
galiziera	*gaztelera*
xunta (xamur)	Quixote (xamur arkaikoa)

exception (gogor) exception (gogor) explicación (gogor) exhibición (gogor).

Nire eritziz, euskarak ere jokabide berdina hartu beharko luke, hitz teknikoetan herri arruntaren xamurdurak eta sinplifikazioak alde batera utziaz.

j) *H* grafema dugu, dudarik gabe, larriena ortografi arazoan. Lehendabizi beharrezkoa da grafema hau sasijoeretatik desideologizatzea. Uste dugunez urak baretzen etorri dira gauza hontan.

Grafema honekin hiru bide erabili ditezke: bat herrikoiena eta errezena, hau da, H grafema, besterik gabe, eliminatzen duena. Joera honek ez du errespeturik BN, Z euskalkiekiko; EUSKARA BATUAREN arazoan *amore ematea* den bertute nagusi horri uko egiten dio. H grafemak guregan irauteko gaztelanian baino mila arrazoi gehiago dauzka, grafema hau *hila* ez baino, *bizia* delako Euskal Herriko zati nagusi batean. Bigarren jokabidea osoro *kulteranista* dugu, jatorrizko idazkerari (griegori bereziki) zeharo atsikitzen dena. Teori mailan PH, TH, KH, eta formulak onartzea ez da burugabekeria bat, baina ortografian horregatik burrukatzean ez du merezi, EUSKARA BATUAK arazo larriagoak badituelako.

Hirugarren joera *erdibidetik* doa, tradizioari eta hizkuntza baten kulturplanoari uko egin gabe.

Hirugarren bide honetatik jarraiturik, eta Arantzazuko txostenaren arauera, burubide hauek ibiliko nituzke H-aren idazkeraz:

a) Hitz haseran behar denean erabili. Hontan iparraldekoek adierazi behar digute zein hitzak diren h-dunak gaur egun. Tradizioan jokabide asko ikusten baita (aunitz/hanitz, aro/haro, ur/hur, ona/hona.

b) Bokal-diptongoak bereizteko ere onartu, gaur usariozko den bezala.

d) Kontsonanteen ondoren zeharo kenduko nuke, Arantzazun azaldu zen joerari indar emanez. Horrela ph, th, kh (ekhite, ekhartze, onhartze, senhar) eliminaturik.

e) Atzerriko teknik prestamoekin gaztelerak, italerak, portugalerak, katalanerak, etab. duten bidea jarraitu, hau da, *filosofia, filologia, sinthesia* idatzi, *philosophia, philologia, sinthesia* ordez.

f) Gaur egun sarturiko beste prestamoetan ere H onartu hitz-aseran (hala barnean) jatorrizko hizkuntzan hala badute: himno, higiene, huelga, exhibizio etab. Adibidez, frantseseko *hotel* hitza h-kin pasatzen da ingelesera, alemanera, gaztelerara.

g) Aspaldidanik gure hizkuntza h-rik gabe sartu diren hitzetan aintzinako grafia errespetatu, J/C grafemaz adierazi zen bezala. Adibidez: ospitale, umil, ostatu, ohore, etab.

h) Hitz berri eta sorketa berrietan errespetatu H grafema, baldin-eta konposagaietan lexema h-z horniturik badago. Adibidez: hozkailu, hauskailu (aspiradora de polvos), etab.

i) Bestalde, tradizioko hitz batek inongo euskalkietan H-rik ez badu ez ezarri grafema hori, nahiz-eta konposagaiak berez h-dunak izan. Adibidez: *ospela* nahitz *hotz* hitzetik etorri, ez da *sekulan* h-z idatzi; gaur *hospela* idaztea bortxakeria litzateke. Gaztelerak baditu holako exenpluak: *huevo* baino *oval* (ez hoval), *hueso*, baino *óseo* (ez hóseo).

BIBLIOGRAFIA

EUSKERA-BATASUNA: *Azken araudiak*, Bilbo, 1969.
LARRESORO: *Euskara batua zertan den*, Jakin, 1974.
TXILLARDEGI: *Oinarri bila*, Donostia, 1977.
K. MITXELENA: *Fonética Histórica vasca*, Donostia, 1961.
L. VILLASANTE: *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Arantzazu, 1974.
L. VILLASANTE: *Hacia la lengua literaria común*, Arantzazu, 1970.
BAIONAKO BILTZARRAREN ERABAKIAK: Agorrila, 1964.
J. URQUIJO: Artikulu zenbait, RIEV-en, X, XI, XIII.
ARANTZAZUKO BILTZARRA: *Euskera* XVI, XIII, 1968.
ZORTZI URTE ARTEKO IKASTOLA HIZTEGIA: *Euskera* XX, 1975.
EUSKERA, XVI, 1971 *"Idatz arauak"*.
XVII, 1974 "Idatzarauak". 1970-ko Batzar agiria.
XVIII, 1973 "Aditz laguntzaile batua".
XIX, 1974 "H letra dela-eta".
M. ZARATE: *Euskal ortografia*, Bilbo, 1978.
L. M. MUJIKA: *Hiztegi orokor-teknikoa*, Donostia, 1977.

BILTZARRE TXOSTENAK

ZUBITTOA NOIZ?

Bergara, 1978 - IX - 6

Zatarain'darr, Anbrosi'k

Euskaltzaindia'k zubittoa oso gutxitan erabiltzea onetsi du, itxuraz ingeles- izkuntzak gutxi erabiltzen dualako. Oni buruz' leen ere zerbait idatzi nuan, baiña geroztik gauzak argiago ikusi ditudala uste dut, eta nere iritzia azaltzekotan asi naiz oraiñ.

Zubittoa bi itzekin naiz geiagorekin bat egiteko erabilli edun dugu. Baiña ontan berezi-bear batzu badira:

a) bi izenekin bat egiteko. Orrelakoetan lokarriren bat esan gabe utzi oi dugu, eta zubittoak lokarri orren tokia artzen du:

bei-esnea (bei*aren* esnea, be*ien* esnea); *esne-beia* (esnea *daman* beia, esne*tarako dadukagun* beia).

aita-semeak (aita *eta* semeak)

b) euskeraz leenik izena eta bigarrenik izen-ondoa esaten dira; guk eztugu prantzesez bezela "c'est bonnet blanc et blanc bonnet" esaterik. Gaztelaniz ere "gorro blanco" eta "blanco gorro" gauza berbera dira, baiña guretzat *argi urdiña* eta *urdiñ argia* zearo bi gauza dira. *Argi urdiña* ingelesez *blue light* da, kolore urdiñeko argia; orr *argi* izena da, eta *urdiñ* izen-ondoa, beraz izena lenengo eta izen-ondoa ondoren. Ingelesez atzekoz aurrera, leenik izen-ondoa eta ondoren izena. *Urdiñ argia* illuntasunik eztuan kolore urdiña da, ingelesez *light blue* bezala.

Bi izen batzen ditugunean berriz' leen esan dugunez' *zer* dan bigarrenak adierazten du, eta *nolakoa* dan berriz leenengoak: *bei-esnea* esnea da, *esne-beia* berriz beia; ingelesez eta alemanez ere berdin: *cow milk* eta *Kuhmilch, milk cow* eta *Milchkuh*. Beste izkuntza oietan izena beti bigarrena da, euskeraz berriz ez; orregatik guk garbi idatzi bearra dugu izena zein dan jakiteko.

Askotan itz berbera izena edo izen-ondoa izan liteke *argi* eta *urdiñ* itzekiñ ikusi dugun bezala. Orrelako bi itz alkarren ondoren esaten ditugunean' lokarririk ezpaldin bada' lenengoa izena da; baiña *berez* lokarriren bat bearbaldin badude' (naiz esan gabe utzi') izena bigarrena da. Esate baterako: *batzarr ageria* agerian (jendearen aurrean) egiten dan batzarra da; baiña *batzarr-ageria* batzarra*ren* ageria, batzarra*ren* kontu ematen duan idazkia da, beraz orr izena *ageria* da. Iñolaz ere eztitugu biak berdiñ idatzi bear. *Batzarraren ageria* osorik ez idaztekotan' lokarria palta duala adierazi bear da, eta zubittoa ortarakoxe da; *batzarr-ageria* badakigu ageri bat dala, idazki bat. Orrelako adibide asko eman litezke:

indarr eragille (eragiten duan indarra) eta indarr-eragille (indarra eragiten duana); gizon saltzaille (saltzen diarduan gizona) eta gizon-saltzaille (gizonenbat saldu duana); liburu apala (arrokeririk eztuan liburua) eta liburu-apala (liburuak jartzeko ola); eguzki beroa eta eguzki-beroa (sol caliente eta calor solar); kale argia eta kale-argia (calle clara eta luz de calle); kirol berriak (berriki sortutako jolasak) eta kirol-berriak (jolaseri buruzko berriak); borroka bidez egin du (ha luchado de forma lícita) eta borroka-bidez egin du (lo ha hecho luchando); Bilbao aldean dago (Bilbao emendik urrean dago) eta Bilbao-aldean dago (Bilbaotik urrean dago); aur jantzia (jantzirik dagon aurra) eta aur-jantzia (aurra jazteko arropa); ontzi nagusi (buque almirante) eta ontzi-nagusi (ontziaren agintaria, ontziko nagusi edo "printzipala"); azeri eiztaria (eizean diardun azeria) eta azeri-eiztaria (azeriak iltzen dituana). Azkenik Haritxelharr jaunaren liburu batean aurkitu dudan bat (Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun, 397a)

errekan duk sarri
landan para bi artian xori izugarri

txori izugarri bat (izua sortzen duan txori bat, un pájaro espantoso) txori-izugarri bat (txoriak izutzeko zerbait, un espantapájaros)

c) Zenbait aldiz izen eta izen-ondoz izen berri bat sortzen da; e. b. the White House (Washington'go etxe zuria), la Casa Rosada (Buenos Aires'en). Euskeraz ere asko ditugu: Mendigorria, Larrazabal eta beste milla. Olakoetan nola joka?

Etxe nagusia (la casa principal); etxe-nagusia (el principal de la casa); Etxenagusia (Casamayor). Etxe berria (casa nueva); etxe-berria (etxe*ko* berria, etxe*tik* etorritako berria, noticia doméstica); Etxeberria (Casanueva, Casanova, Cazenave, Maisonnave, Neuhaus). Oetan etxe-edo toki-izenek eztude lokarririk, beraz loturik eta zubittorik gabe idaztea dagokie.

Beste batzuetan' *berez* lokarridunak dira: ola-bide, eihera-bide, zaldi-bide, zamari-bide; oetatik badira bi itzak berez urturik bezala itatsirik agertzen diranak: Zalbidea, Zamarbide. Besteak ere nik orrela idatziko nituke, beti egin edun dan bezala: Olabide, Eiherabide, Organbidexka, Mandabideta, Olagibel.

d) Azkenik' bi itz baturik sortutako izen-ondoak badira; auek izena eta izen-ondoa baturik sortu oi dira, beraz lokarririk gabe, eta eztude zubitto-bearrik: txapelgorri, begibakarr, ankamotz, buruaundi eta beste asko. Orrelako izen-ondoak izenaren ondoren beste edozeiñ izen-ondo bezalaxe zubittorik gabe idatziko nituke. Orrela garbi bereizi ditezke onako oek:

neska gonamotza (gona motza jantzirik dadukan neska), neska-gona motza (neska batentzako gona motza); praille bizarluzea (bizar luzea duan praillea), praille-bizarr luzea (praille baten bizar luzea); ille kixkurra (pello rizado), illekixkurra (rizo de pelo/, illekixkurra (persona de pelo rizado, "crespo").

e) bi itz baiño geiago alkartzen diranean' bi zubitto nai geiago bearko dira zenbait aldiz:

zaldi-aragi-denda; kale-garbitzaille-taldea; sukalde-altzari-denda; etxe-saltzaille-bazkuna; soiñu-jotzaille-burua; alkate-batzar-maipurukoa (baiña alkate-batzar nagusia); urinagusi-alkate-billera (reunión de alcaldes de las capitales); zubittorik gabe estekotan' uri nagusietako alkateen billera; euskal-aldizkari-artezlari-billera (reunión de directores de periódicos de lengua vasca).

f) Esandakoen ondoren 'bereizte-izen batek atzizkia duaean bien arteko muga nola adierazi bear daneko auzia dugu. Altube zanak eragiñik' urte askotan ortarako zubittoa erabilli edun dut, Euskaltzaindiak gerotik onartu duan bezala, baiña bide okerra dela uste dut. Batetik zubittoa bi itzekin bat egiteko da, eta beste ontan itz baten barruan izena non

bukatzen dan eta atzizkia non asten dan adierazi bear dugu. Zubittoari bi lan, (eta orren alkaren kontrako bi lan) egiñ eraztea ezta egoki. Gaiñera' arazo ori duden beste izkuntzak ortarako kakotxa erabiltzen dude, beiñere ez zubittorik:

ingelesez: America's recent past; Bohr's atom; Nelson's Encyclopaedia nederlanderaz (olandesez): Van Goor's klein spaans woordenboek; Kramer's nederlands woordenboek.

svenskaeraz: Nils' penna; Borăs' rădhus (Nils'en luma; Boras'ko udal-etxea).

turkoeraz: Almanya'da (Alemani'ra); Ankara'ya (Ankara'runtz); Atatürk'ün (Atatürk'en); Mustafa'yi (Mustafa'ri).

alemanez: Cross-Verfahren (Cross-ainbakera), das Cross'sche Verfahren (Cross'en ainbakera); Decker's Verlag (Decker'en argitaltze-etxea) Cotta'sche Buchhandlung Cotta'-ren liburu-denda); Hayn's Erben (Hayn'en oiñordekoak); Hoffman's Witwe (Hoffmann'en alarguna) Muga markatu gabe uztea ezta egoki: *Orion* ikusten dugunean arako eiztari sonatua, edota aren izeneko izar-taldea gogoratzen zaigu; askoz argiago da *Orio'n* idaztea, orrela eztago naaspiderik. Berdintsu, *Erroman* idazten baldin badugu' edonork gizonen-bat aipatu dugula pentsatuko du; bestela aditzakotan' onena *Erroma'n* idaztea da. Antoni eta Anton'i ere eztira gauza bera. *Frantisek* ikusten dugunean naaspide polita gerta liteke: batek Frantis'ek dala pentsatu lezake, besteak Frantise'k dala, baiña biak okerr adituko lueke, Frantisek txeskeraz euskerazko Prantxisku baita. Izenaren eta atzizkiaren artean beti kakotxa jarriko bagenu' Frantisek izen garbia dala, atzizkirik gabea dala berelaxe igarriko genuke.

EUSKAL HITZ ELKARTUEZ

Bergara, 1978 - IX - 6

Eguzkitza, A.

0. Hitz-moldadura alemanez deitu ohi den "Wortbildung" delako hori bezala ulertzen badugu, h. d., "formación de palabras/formation de mots" deritzana legez, maila bi ezberdin daitezke:

1. Elkarketa
2. Erakarketa

azkena, hizkiz egina izateagatik, aurrizkiz, artizkiz zein atzizkiz izan daitekeela.

Honako txostentxo honetan hitz elkartuen ortografiaz zerbait esaten saiatuko gara, horretarako baina, eta aurrera egin ahal izateko "hitz" kontzeptuaren definizio garbi bat behar dugu, behin behineko bada ere, denok onhartu behar duguna. Horregatik, eta aski on datekeelakoan, Wolfgang Motsch-en proposamendua dakargu hona. Haren ustez *hitza*-ren mugaketa egoki bakarra definizio sintaktikoa da, eta hori dela eta Noreen eta Henzen-en definiziokerak arbuiatzen ditu, hots, psikosemantikoak eta barnedefinizioak. Horrela, bada, perpausa baten azterketaz honako mugaketa hauk ematen ditu:



P = perpausa
IE = Izenesaldia edo esaldi nominala
AE = aditzesaldia edo esaldi berbala
S = subjektua
Er = erakuslea
Adb = adberbioa

– *Konstrukzioak:* bi unitatez bederen osaturik dauden elementu edo konplexuak.

– *Morfemaklaseak:* indibiduez bakarrik ordezka daitezkeen elementuak.

– Era honetara ere *hitzaren maila* definitzen du. Haren ustez, morfema klase bakoitza beraren funtzio sintaktikoaren aruera sailkatzen badira bakarrik, h. d., erro, aurrizki, deribazio-morfema eta deklinabide– edo felexio morfematan sailkatzekotan bakarrik, egin daiteke mugaketa hori.

a) Flexio- edo deklinabide morfema klaseek duten ezaugarririk bereziena, dioenez, zera da, haien elementuak deribazio mailarik gorenean egoten direla, hitz unitateak markatzen duen mailan, hain zuzen ere:

b) Enborrak, beraz, deklinabide morfemen egoterik ezaz defini daitezke. Hortxe onharri eginda, deklinabide morfemekin batera konstrukzio bat osatzen duten morfemak edo morfema multzoak *enbor* bezala definitzen dugu.

c) Hitzak orduan enborrak dira, edo eta enbor batez eta deklinabide morfemez osatzen diren konstrukzioak.

Amaitzeko diogun enborren elementu bezala, honako morfema klase hauk ematen dituela Motsch-ek:

erroak, aurrizkiak eta atzizkiak

– erroek enborrak ordezka ditzakete edo eta atzizkiez eta aurrizkiez konstrukzio bat osa.
– Aurrizkiek bere eskumatan dagoen erro batez enbor bat osa dezakete.
– Atzizkiek ezkerretan dagoen erro batez enbor bat osa dezakete.

Euskal hizkuntzan moldadurak daukan garrantziaz ez dut uste ezer gehitzea beharrezkoa denik, hain baitago argi. Edozein kasutan ere, esan dezagun bide hori duela euskarak hitz berriak sortzekoerarik egokieneta aberatsena, eta mundu berrira bezala, hala kultura berrira oraingo ekantze mingarri honetan, geure hizkuntzari sistema horren erabil-

tzeko eskubidea aitortzen diogunok, h. d., guti gora behera ingelespidea hartu barik, zuzenagotzat alemana jotzen dugunok, saiatu egin behar dugu halako erizpide xehe eta xahu batzu ateratzen, estetikak (nork bere dauzkan gustuak, alegia) eta hein batez tradiziorik ezak sortzen dizkiguten eragozpen eta bide malkartsuak ahal den hobekien gainditu ahal izateko.

Bide honetan, erakarketaren arloan, ez dago problema larregi, ez bada lege fonetikoen erabilkuntzan, hizkuntzaren historia ondo dazagutenek dutelarik hor hitza. Elkarketaren landan, ordea, arras bestelako da arazoa, Euskaltzaindiak eman zituen erizpideak ez zirelako ez erraz ez eta argi betetzeko, eta are txarrago dena, nire ustez, aski desegoki; kasu batez zera proposatzen da, lau silaba baino gehiago dauzkaten hitz elkartuen elementuak aparte idatzi behar direnean.

Oharra: (Orijinal hontan nola ez duen jarraitzen, guk ezin dugu asmatu.).

BERGARAKO BILTZARRERAKO OHAR ETA PROPOSAMENAK

Bergara, 1978 - IX - 6

Kintana, Xabier

PHONETIKAZ

Txit interesgarri deritzot Txillardegik egin duen phonetikazko txostenari. Ene ustez, batasun bidean, Euskaltzaindiak, lehenik orthographiaz egin zuen bezala, orthopeiaz ere bide bat proposatu eta gomendatu beharko luke, irakaskuntzan eta ahozko komunikabideetan berdintasun itxuroso bat izateko. Zulo hori betetzera dator, ene ustez, proposamendua, neronen aldetik zenbait oharrez hornituko nukeena.

Oinharriz ez dirudi oso ondo ebakiera, forma idatzitik gehiegi urruntzea, Euskal Herriko toki askotan, hain zuzen ere, herriaren ebakiera *normala*, ia-ia, idatzia bezalakoa baita. Ebakiera hori, bestalde, hirietako, predikazioko eta kultur maila goragoko ezaugarritzat onhartua da leku gehientsuetan, bai eta ahozko komunikabideetan ere, eta, ene ustez, ez genuke hautsi behar. Zenbait formari ikusi nahi zaion jatortasuna, bestalde, berez toki batzutako eboluzio phonetiko partikularren ondorio ez beste direnez gero, ez dira beste tokietakoena baino egokiago, eta guztiak euskaldunek sortuak diren aldetik (*astoa, astua, astue, astuu* zein *astú*) jatortasun berekotzat hartu behar ditugu. Aukera egitekotan, beraz, forma idatzi eta originaletik hurbilen daudenen alde egin behako genuke: *etxea, mendia, astoa, burua* idatzi bezala esan, halegia.

3.22.ean iapaturiko hiatoen kasuan, ordea, *ee* eta *oo*, agian [*ie*] eta [*uo*] ebakitzeko gomenda daiteke, baina hor kontutan hartu beharra ere ba da eukaldun askok *e* eta *o* luze eta bakar batez esaten dituztela holako hitzak.

j graphemaren abakierari doakionez erabat konforme nago erdarazko *y* edo alemanezko *j* bezala uzteaz, Gipuzkoa-

ko [x] , Bizkaiko kostaldeko eta Zuberoako [ž] eta zenbait tokitako [š] ebakierak baztertuz.

Orobat ongi deritzot, aditzetan, EZ ondoko oklusiba ozen eta frikatibak, mintzatzean gortu eta afrikatzeko gomendioari: ez da [ezta] , ez gara [ezkara] , ez bedi [ezpedi] , ez zara [etzara] etab.

—IN— eta -IL-.—Ene ustez hemen kontu handiz ibili beharko genuke. erez, *-in* taldea, ondoan bokalik duenean, [ñ] gisa ebakitzea (baina, artzaina, baino...) ez legoke gaizki, baina aurretik zera ikusi beharko litzateke, ea iparraldeko euskalkietakoek palatalizapen hori adierazkortzat ulertzen duten ala ez, hitzen diminutibo gisa edo.

-il + bokal taldea palatalki ebakitzeko gomendatzea, ordea, ene eritziz, oker izugarria litzateke. Alde batetik gaur egun ere palatalizapen hori egiten ez duten euskaldun asko daudelako, bai ipar eta bai hegoaldean. Bestetik, espainol eta frantses hizkuntzen gaurko eragin bortitza kontutan harturik, [l'] , erdarazko /y/ gisa esango litzatekeelako, gure hizkuntzaren estruktura phonetiko propioaren kaltean. Phenomeno arbuiagarri hau, bestalde, zenbait tokitan agertzen hasia da. Hobe genuke, beraz, palatalizatzen ez duten euskaldunekin eta aintzinako formekin joatea, arkaikozale izateko arriskuaz ere, erdal phonetikara makurtzea baino.

Euskal hiztunen, eta bereziki euskara ikasi behar dutenen phonetik ohiturak kontutan hartuz, ene ustez *mutila, isilik, neskatila, hilabetea* etab. dauden daudenean eta palatalizapenik gabe esateko gomendatu beharko genuke, [l'] adierazkortasuna markatzeko utzita (pollita, etab.).

Beronekin batera, erregulartasunaz jokatzeko, gauza bera eginbeharko litzateke *in* —bokal kasuetarako ere, [ñ] adierazkoretarako utzirik (ño, ñimiño, ñabardura...)

2.25. Ez da zuzena, ene ustez is- eta its- taldeak, ondoan bokalik dutenean *x* eta *tx* gisa ebakitzeko gomendatzea. Azken ebakiera hau, hain zuzen, toki askotan ttikigarrizkotzat hartua izaten delako: isil/ixil, gisa/gixa...

ERAKUSLEEN DEKLINAZIOAZ

Euskara baturako, ekialdeko euskaldunen usarioari jarraikiz, nominatibo plurala eta ergatibo pluralaren arteko

bereizketa onhartu dugu (gizonak/gizonek/, berau, gutien ohitura den arren, idazteko oso praktikoa gertatzen delako; argitasunaz. Ekialdeko zenbait euskalkitan, halaber, -ak/-ek bereizkta honetan oinharriturik edo, gauza bera egiten dute erakusleekin ere: hauk/hauek, ho(r)ik/ho(r)iek, haik/haiek. Idazle, aldizkari (*Z. Argia, Anaitasuna, Egin* eta *Deia*), ikastola-textuliburu eta irakasbide askok, bestalde, joera hori onhartu eta bultzatzen dute aspaldion. Jatorriz zein joera den zaharrena aztertzen eta eztabaidatzen sartu gabe (beronek deklinazioaren pluraleko bereizketaz galdetzea ekarriko baiiguke), nik seinalatu nahi nukeena zera da, gaurko joera horren logika, zabalera eta praktikotasuna, Euskaltzaindiari bide hori onhartzeko eskatuz.

Beste puntu bat, oraindik erabakitzekoa, zera dugu, lekuzko deklinazioko erakusieen forma, hots, *honeta-, horreta-, harta-* ala *honta-, horta-, harta-* erabili behar diren. Ene ustez, alde batetik zaharrenak direlako eta bestetik gaur egun bizkaieraz usu erabiltzen direlako, lehenak gomendatu behar lirateke.

LEKU IZENEN DEKLINAZIOAZ

Leku izenen deklinazioaz, halaber, ez dugu erabateko batasunik. Batzuk, gipuzkoarrek bereziki, leku izenak deklinatzean atzizkia zuzen zuzenik eransten diote hitzari, ondoriozko aldaketa phonetiko guztiak transkribatuz (Israela, Israelgo, Israeldik, Jerusalema, Jerusalemgo, Zarautza, Zarauzko...). Beste batzuk, eta hauxe da beharbada iparraldekoen eta bizkaitar gehienen bidea, adlatiboan bereziki, kontsonantez bukatzen diren izen propioei *e* bat tartekatzen diete (Parisera, Israelera, Israeletik, Israeleko, Jerusalemera, Jerusalemeko, Zarautzera, Zarautzeko...), hitzaren forma osoa beti berdin kontserbatuz. Gipuzkoako adlatibo asko, gainera, ene ustez, bokal arteko r baten galtzearen ondoriotzat jo daitezke, geroago bilakatuak (*Madrilera* > *Madrile'a* > *Madrilaa* > *Madrila)*. Horregatik, erregulartasunagatik eta iparraldekoen kasuan gerta daitezkeen nahasiengatik, *-era, -etik, -eko* gisako formak gomendatzea proposatuko nuke, horrekin kasu posible guztiak konponduz (New Yorkera, Pekinera,Hong Kongetik, Benidormeko, Beyruteko...)

HILABETEEZ

Gauza jakina da Euskaltzaindiak erabakiriko hilabete izenetan, batasuna onhartzen dutenen artean, oraindik bi izen zalantzan dabiltzala: *Abuztu* eta *Azaro*, berauen ordez maiz *Agorril* eta *Hazil* hobetsiz. Arazo honek garrantzi handia du, izenok, euskarazko egutegiak gero eta ugariago agertzen direnez gero, oso ikusiak direlako.

Alde batera uzten ditut hemendik, noski, Jorrail, Epail, Lorail, Dagonil eta Lotazil moduko izen erdi iratxo eta tradizio gabeak. Ene kezka, lehen aipatu biek sortzen dute.

Abuztu eta *Agorril* artean, eta edozeinek dakusa berau, erdaratiko eta euskaratiko hitz biren arteko aldea dago. Ez naiz ni, halafedea, garbizaleegia, baina geure hizkuntzari zor diogun errespetuagatik, eta betikoen marmar – hemen gainera arrazoizkoak– ixiltzeko, Euskaltzaindiak, ene aburuz, lehentasuna euskal sustraiko hitz jatorrari eman beharko lioke. Horixe da, hain zuzen, iparraldekoek XVI mendetik erabili duten izena, eta hegoaldekoontzat gogoratzeko oso erraza da, erdarazko izenaren hasiera bera baitu (Agorril/AGOsto).

Azaro/Hazil arteko istiluan ere zera esan behar da. Alde batetik, forma dokumentaturik zaharrena Hazil dela (Leizarragaren egutegian), eta horixe izan dela hego aldean –bai eta batasuna nahi ez dutenen artean ere– oraintsu arte erabiliena. Bestalde, *hazaro*, toki askotan, Bizkai osoan behintzat, "ereiteko edozein sasoi egoki'ri esaten zaionez gero, izen nahasgarri suertatzen da. Hazila-k, aldiz, beste hilabete askoren bukaera bera duenez gero (UrtarrIL, OtsaIL, UztaIL, AgorrIL, IraIL), zentzu eta adiera bakar eta espezializatuagoa dauka.

Ez gaitu zenbait egutegiren joerak itsutu behar. Sarri Euskaltzaindira jotzen dutenak Bankuetako erdal publizistak dira, Euskaltzaindiak zer erabaki, inolako erizpiderik ezaz, huraxe onhartzen dutenek. Horiek Euskaltzaindiaren aginduak beste gabe bete eta beren egutegietan forma horik azaltzen direla azaltzeak, arazo honetan, ez du pisu handirik, Euskaltzaindiak erabakitzen duen guztia –theorian gero berriz ikustekoa dela aipatu arren– ongi zein gaizki egon bere horretan mantendu nahi izateko ez bada.

Nik beraz, arazo hau berrikusteko eskatuko nuke,ene eritziz jatorrago diren Agorril eta Hazil izenak proposatuz.

KONTSONANTE ONDOKO H-AK

Hitz elkartuen kasuan, n eta l kontsonanteen ondoko h-ak bere horretan utzi beharko lirateke, aspaldi honetako idazleen ohiturari kasu eginez (oinharrizko euskara, onhartu, oinhartu, hilherri, hilhobi, hilhotz...) Honelako jutaposizioak gertatzen direnean, inguruko erdaretan ere kontsonante talde ezohituak errespetatzen dira, hitz edo sustrai bakoitzaren nortasuna errespetatuz (cf. bonheur, malheur, malhadado, deshacer, adhesión, anhidrido, exhortar...). Hitz horien banaketa syllabikoa, bestalde, beti argi legoke: *on-har-tu, hil-ho-tza*, eta ez *o-nar-tu, hi-lo-tza.*

H-a, bestalde, zenbait hitzen adieraziak bereizteko, errespetatzea komeniko litzateke (*erhi* "hatzamar"/*eri* "gaixo", *une* "mementu"/*unhe* "neke"...); hola egiten da kasu, hegoamerikako espainolaz *casa/caza, cocer/coser* (biak s-az ebakiak), frantsesez (*patte/pâte, pois/poids...)*, ingelesez *(son/-sun, knife/knight)* etab.

Gauza bera proposatuko nuke, halaber, iparraldekoen *h* hasperenduaren ordez /g/ edo /d/ duten kasuren batetan ere: *inhurri (inurri, ingurri, txingurri, txindurri), inhar* (txingar), *ihaz (iaz, jaz, igaz).*

Iparraldean h duten hitzek hegoaldean kide guti eboluzionatuak edo deribatu argiak dituztenean, hitz sustraikide guztiak modu berean idatzi beharko lirateke: HESTE (hertze), HORRI eta HOSTO, HERTSI eta HESTU, HOSPATU (Oihenarte eta HOSPE, HILABETE eta HILARGI (> ilhargi; cf. ilhabete). Iparraldean, kasu, *huntan* edo *hunetan* dira forma bakarrak, baina guk, hala ere, *honetan* idazten dugu.

Esangura erabat aldaturik dagoenean edo etymologi lotura hain nabari ez denean, ordea, ken liteke: *atze* "gibel"/ *hatz* "marka", "erhi"; *hertsi/itxi*, etab.

IDAZKERA ETYMOLOGIKOAZ

Goi mailako tekhnizismoetarako, Euskaltzaindiak, ingeles, aleman eta frantsesaren bidetik, idazkera etymologikoa ontzat eman bearko luke, hitz horik arlo oso espezializatuetan erabiltzekoak direnez gero (psykhiatria, etymo, ethnologia, anthropologia, philologia, etab.) Hitz internazionalek hartzerakoan, gainera, *ph, th, kh y*-ez landa ere, espainolezko era

sui generis batzutatik ihes egin beharko genuke, forma zabalagoak hobetsiz (*projektu, objektibo, adjektibo, arktiko, estatistika, keramika...*).

BA ETA BAIT

Idaztarauetan puntu honetan emandako erregelak, ene ustez, berrikusi beharko lirateke. Ene eritziz gero eta gehiago dira baieztatzeko *ba* eta baldintzazko *ba*, ahozko bereizketaz-batera, eskribuz ere diferentziatzen saiatzen direnak. Lehen kasuan, *ba* hori, *ez*-ekiko analogiaz, aparte idazten dute (*Aita al dator?* a) *bai, ba* dator, b) *ez, ez* dator), eta bigarren batera (Bai, aita *ba dator*. A, orduan, aita *badatòr* berarekin noa). Bereizketa hori oso praktikoa gertatzen da.

Bait- aurrizkiari dagokionez, ene ustez, oraingo bikoiztasuna kentzeko, hobe litzateke beti loturik idaztea, honetan usario eta tradizioari kasu eginez, hortik sor daitezkeen phonetikazko aldaketak ere traskribatuz (*bainator, baihator, baitator, baikatoz, baitzatoz...*).

Honen arauera, hikako erak sartzea eragozten duten aditz atzizki lotuekin batera (*-(e)la, -(e)lako...), ba-* eta *bait-* aurrizkiak ere sartuko lirateke. Adibidez: hirekin (baldin) *ba*dator...; hirekin etorri *bait*a. Baina, *ba* diatork (*ba* zetork) hirekin; *ez* diatork hirekin, etab.

-AL BUKAERA DUTEN ADJEKTIBOEZ

Euskarak erdaratiko adjektibo ugari hartu behar ukan du aspaldian. Berauen artean baina, *-al* bukaera dutenek (espazial, sozial, monumental, izpiritual...) talde oso berezia osatzen dute. Adjektibo hauek, jatorrizko sustraiarekiko antza ongi gordetzen dutelako, euskarazko berba laburtu batzurekin itxura handia dute (euskal, merkatal, unibertsital, erremental, proletal, gal...), sarritan forma bera batetik zein bestetik hartua izatea gertatuz (actuación parlamentaria = parlamental jokabidea).

Maiz, gainera, jatorriz bietako hitzak elkarrekin erabili beharrak biak modu berean ordenatzea eskatzen du (cf. *euskal* eta *sozial* arazoa). Guzti honegatik, gaurko euskaraz hasi den joera kontutan hartuz, *-al* erdal jatorrizko atzizkia geure-

tuz (cf. -zio, -lari, -mendu, etab.), *-tar* edo *-zko* jatorren gisa erabiltzea zilegitzat utzi beharko litzateke, hots, bai aurrean eta bai atzean: espazial bidaiak = bidaia espazialak = espaziozko bidaiak = bidaia espaziozkoak.

Bestetik, euskal jatorrizko —al hitzen esangura, ez genuke gehiegi sustraiaz mugatu behar, semantikazko hedadura handiagoa eskainiz. *Euskal politika* ez da, kasu, *euskararen* edo *euskarari buruzko politika, politika euskalduna* baizik. Horrexegatik, *unibertsital manifestaldia* "unibertsitarien manifestaldia" eta *unibertsital barrutia* "Unibertsitatearen barrutia", bi-biak erdarazko *universitario* hitzaren adiera zabalaren zentzuaz onhartu beharko genituzke, *-ari* atzikidun hitzek, sustantibo gisa oso jatorrak izan arren, adjektibo moduan tradizio handirik ez dutelako (cf. *manif*estaldi unibertsitaria, barruti unibertsitaria (?¡), etab.).

FONETIKA BATURUNTZ
(Zenbait proposamendu)

Bergara, 1978-IX-6

Txillardegi

1. *BOKALEAK* (erd. vocales, voyelles)

1.1. Bost fonema ahokari onartzen dira Euskal Fonetika Batuan bokaleen sailean: /i, e, a, o, u/.

1.2. Beroien balio fonetikoaz luzaz hitzegin baliteke ere (inguramendu fonikoaren eragina, zabalera txikiko euskalki aldakuntzak, eta abar), gaur euskaraz eskuarki duten balio fonetikoa izango dute. Hellwag-en triangeluaren arabera finkatzekotan:



1.3. Nafarroako zenbait lekutan entzuten diren [o] hetsiak, [doso]. (= duzu); bizkaiko kostaldeko [ae]. -ak, [burúae]., eta abar, lekuan lekuko euskalki mailako esakeratzat uzten dira alde batera.

1.4. Zuberoako /ü/ fonema (eta Lapurdiko eta Baxenabarreko zenbait lekutan ere fonema maila iritsi gabeentzun daitekeen soinua) ez da Fonetika Batuaren ebakeretan sartzen.

1.5. Fonema sudurkariak /ã, ẽ, õ, ũ/, era berean, zuberreraz batez ere bizirik, euskalki mailako fenomenotzat jo, eta bazterturik uzten dira.

2. *KONTSONANTEAK* (erd. consonantes, consonnes).

2.1. *Leherkariak* (erd. oclusivas, occlusives).

2.11. *Ahoskabe / ahostun* bikotezko korrelaziotan agertzen diren zortzi fonema hauek onartzen dira:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{tt}{dd} = \frac{k}{g} \quad \begin{matrix} \longrightarrow \text{(ahoskabe)} \\ \longrightarrow \text{(ahostun)} \end{matrix}$$

2.12. Beroien balio fonetikoa, berbera gaur Euskal Herrp guztian, hau izango da:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{t'}{d'} = \frac{k}{g}$$

2.13. "dd" idazkerak, horretara (Maddi, Maddalen), [d']. adierazten du; alegia, [j]. soinua, yod erdi-bokalea, gazteleraz "y" idatzia (ayuno).

2.14. "tt" idazkerak, berriz, ((ttantta, ttoro), kiderik ez du ondoko erderetan; eta honetara ahoskatuko da: [t'ant'a]., [t'oro].

2.15. Askotan, "tt" eta "dd" idazkerak, jatorrizko "it" eta "id" idaroki baditzake ere [dit'ut, it'o]., alegia: ditut, ito; ez da hori beti gertatzen (lehen aipatutako, ttantta, ttoro). Ebakera bustia lehenengoetan beharrezkoa ez bada ere, bigarrenetan beharrezkotzat jotzen da.

2.16. /b, d, g/ ahostunak, bokale artean gertatzen direnean, igurzkaritu egiten dira eskuarki; eta gazteleraz gertatzen denaren arabera, baina frantsesez gertatzen denaren aurka, [b]., [d]., eta [g]. ebakitzen. Posizio hauetan, beraz, gaitzetsi egiten da /b, d, g/ fonemak leherkari gisa ahoskatzea.

2.17. Iparraldean zenbait kasutan gertatzen den ebakera hasperendua [ephe, urthe, bekhatu]., euskalki mailako fenomenotzat jo, eta Fonetika Batuan baztertu egiten da.

2.2. *Igurzkariak* (erd. fricativas, fricatives).

2.21. Euskalkiren batez fonema horzkari eta apikarien arteko desberdintasuna: /z/ ≠ /s/, eta /tz/ ≠ /ts/, ahulduta edo galduta dagoela jakinik ere, hiru ordenuen beharra hartzen da gidari Fonetika Batuan.

2.22. Zein bere afrikariarekin korrelaziotan agertzen diren sei fonema hauek onartzen dira:

$$\frac{z}{tz} = \frac{s}{ts} = \frac{x}{tx}$$

2.23. Beroien balio fonetikoak hauek dira:

$$\frac{s}{c} = \frac{s'}{c'} = \frac{\check{s}}{\check{c}}$$

2.24. Gaurko fonemen bizia kontutan hartuz, batetik; baita fonemen korrelazio bila joanda ere, eta integratu gabeko fonemen ahulezia gogoratuz, hiru fonema pare horien kide ahostunak /z, z', z/ ez dira Fonetika Batuan onartzen. Zuberoan eta Baxenabarren entzuten direnak [ezne, kaz'eRna, žoan] ; eta Bizkaiko zenbait lekutan entzuten den ž, [žan] , lekuko euskalki mailako fenomenotzat uzten dira alde batera.

2.25. /i/ fonemaren ondoko /s/ eta /ts/ apikarien bustiera oso zabaldua denez gero, [is'] . eta [ic'] . ebakera gaitzetsi gabe ere, hobetzat jotzen da Fonetika Batuan [iš] . eta [ič] . ebakitzea. Esate baterako: isuri (= [išuri]), itsusi (= [ičus'i]).

2.3. *Sudurkariak* (erd. nasales, nasales).

2.31. Hiru fonema sudurkari onartzen dira: /m, n, ñ/.

2.32. Beroien balio fonetikoak hauek dira: [m, n, n'] .

2.33. "ñ" guztiak ez dira "in"-en ondorio: ñirñirkari, kantuño. Ez da ontzat ematen, hortaz, kasu horietako /ñ/ fonemak [in] . ebakitzea.

2.34. /i/ fonemaren ondoko /n/ bustitzea (= [in']) oso zabaldua denez gero, [in] . ebakera gaitzetsi gabe ere, [in'] . ebakitzea hartzen da hobetzat Fonetika Batuan; baino (= [ban'o] . hobetsia; egina (= [egin'a]) hobetsia.

2.4. *Albokariak* (erd. laterales, latérales).

2.41. Bi fonema onartzen dira: /l, ll/; sudurkariekiko korrelaziotan:

$$\frac{l}{n} = \frac{ll}{ñ} \qquad \begin{matrix}\text{(albokari)} \\ \text{(sudurkari)}\end{matrix}$$

2.42. Beroien balio fonetikoa hau izango da: [l] , [l'] . Ez da onartzen, hortaz, /ll/ fonema [j] . gisa ebakitzea.

2.43. "ll" guztiak ez dira "il"-en ondorio: llabur, lloba. Ez da ontzat ematen, kasu horietako /ll/ fonemak [il] . ebakitzea.

2.44. /i/ fonemaren ondoko /l/ bustitzea (= [il'].) oso zabaldua denez gero, [il]. ebakera gaitzetsi gabe ere, [il']. ebakera hartzen da hobetzat Fonetika Battuan: hilabete (= [il'aβete]/; ilargi ([il'aRgi]).

2.5. *Dardarkariak* (erd. vibrantes, vibrantes).

2.5.1. Bi fonema hauek onartzen dira: /r, rr/.

2.5.2. Beroien balio fonetikoa hau izango da: [r, R]. Baina, kasu honetan, bai "r" eta bai "R" idazten dugunean, apikariak adierazi nahi ditugula; alegia, gazteleraz edo kaskoineraz (baina ez frantsesez) ematen diren bi dardarkarien kideak: [oRua]., [sagaRa].

2.5.3. Iparraldeko euskalkietan sartzen hasi berria den frantses kutsuko [ʁ]. ebakera [eʁan, gaʁaca]. ez da onartzen.

2.5.4. Kontsonanteren aurrean, /r/ eta /rr/ fonemen artean neutralizazioa gertatzen da [R]. ren alde: [uRte]., [oRc].. Gauza bera hitz amaieran, erdi galdurik dauden berezkuntzak aparte [ser]., [sur]., eta abar.

2.6. *Aspiraketa* (erd. aspiración, aspiration).

2.6.1. /h/ fonema bakarraren ebakera [ϕ]. (=zero) izango da: hartu (= [aRtu]), ehun (=eun]). Ez da gaitzesten, halere, /h/ fonemari balio fonetikoa ematea: [haRtu]., [ehun].. Gaitzetsi egiten da bereziki, ordea, /h/ fonema [x]. ebakitzea, gaztelarazko "j" letraren balio fonetikoaz: [xaRtu]., [exun].

2.6.2. Idazkera klasikoaren arabera gertatzen delarik (ephe, urthe bekhatu), /ph, th, kh/ fonemen balio fonetikoa, [p, t, k] izango da: [epe, uRte, bekatu]. Aspiraketaz ebakitzea, 2.1.7-an esan denez, euskalki mailako ebakeratzat hartzen da.

2.6.3. /lh, nh, rh, rrh/ fonema bikoteak, [l, n, r, R]. ebakiko dira. Esakera hasperendua, euskalki mailako ebakeratzat jartzen da.

2.7. *Ezpain-horzkariak* (erd. labiodental, labiodental)

2.7.1. Fonema bakar bat onartzen da ordenu honetan: /f/ delakoa.

2.7.2. Bere balio fonetikoa [f]. izango da, ahoskabea beraz.

2.8. */j/ fonema.*

2.81. Gaurko euskararen egoera kontutan hartuta, eta 2.24 puntuan adierazitakoak ahaztu gabe, euskarazko /j/ fonemaren balio fonetikoa [j] erdi-bokalearena izango da: [jan]; gazteazko "y" -ren kidea: ayer, yo.

2.82. Ez dira, halere, [ž] zaharra eta [x] berria gaitzesten [žan, xan]; baina euskalki mailako ebakeratzat uzten dira alde batera.

3. *DIPTONGOAK. HIATOAK.* (erd. diptongos, diphtongues; hiatos, hiatus).

3.1. *Diptongoak.*

3.11. Fonetika Batuan, ondoko bost diptongo hauek onartzen dira: *ai, ei, oi, au, eu.* Diptongo hauek beherunzkoak dira; eta azentua lehenengo bokalean daramate.

3.12. *"ahi, ehi, ohi, ahu, ehu"* fonema hirukoteen balio fonetikoa, hauxe izango da eskuarki: [ái, éi, ói, áu, éu]. Baina *h* galdu berriari dagokion hiato bisilabikoaren ahoskera gaitzesten ez delarik: [baitu, eún].

3.13. Zenbait lekutan ezagutzen diren diptongo gorunzkoak [ja, je, jo, wa, we], euskalki mailako ahoskeratzat baztertzen dira: [maitia] hirukuna bai, [maitja] bikuna euskalki ebakeratzat uzten; [s'ueRte] hirukuna bai, [s'weRte] bikuna ez.

3.14. Lege berberak onartzen dira kate mintzatuan sortzen diren diptongoei buruz.

3.2. *Hiatoak.*

3.21. ia, ie, io, ua, ue bokale bikoteek hiato emango dute Fonetika Batuan; azentoa, izatekotan, lehenengo bokalean doalarik. Ebakera, hortaz, bikuna izango da: [mendia], eta ez [mendja], [eskua] ta ez [es'kwa].

3.22. *ee* eta *oo* hiatoak, [ie] eta [uo] ebakiko dira = semeen (= [s'emien]; zozook (= [sosuok]).

3.23. Lege berberak onartzen dira kate mintzatuko hiatoei buruz.

4. *FONEMEN ELKARKETAZ*

Sandhi batzu bakarrik onartuko dira Fonetika Batuari buruzko Txosten honetan: tradizioak batetik, eta ebakeraren hedakuntzak bestetik, horretaratzen gaituztenak.

4.1. ea = [ia]
oa = [ua]

Joera hau euskalki guztietan barrena, bai barne bai kanpoko sandhitan oso zabalduta dagoenez gero, hobetzat emango da, [ea] eta [oa] ebakera baino: besoa (= [bes'ua]), maitea (= [maitia]).

4.2. (s, z) + (b, d, g) = (sp, st, sk; żp, zt, zk).

Euskal asimilakuntzaren legea arrunt beteaz, suskarazko xixtukariak, aurretik joaki, ahoskabeak direnez gero, ahoskabetu egiten dituzte ondoko leherkari ahostunak: apaiz bat (= [apaispat]), goiz da (= [goista]), desgrazia (= [des'krasia]).

4.21. Lege honen arabera, eta beste kasutara ere hedatuz, hona hemen "ez" ukazioak aditzaren jokaeran barrena sortzen dituen ebakerak: ez b- (= [esp-]); ez d- (= [est-]); ez g- (= [esk-]); ez n- (= [en-]); ez h- (= [eh-] eta [e-]); ez l- (= [el-]; eta ez z- (= [ec-]).

Adibidez:

ez badago (= [espaðago]).

ez dakit (= [estakit])

ez gabiltza (= [eskaβilca])

ez nuke (= [enuke])

ez hintzela (= [eíncela]); [ehintzela])

ez litzateke = [elicateke])

ez zekien (= [ecekien])

4.3. Bide beretik:

(tz, ts) + (b, d, g) = (zp, zt, zk; sp, st, sk)

Adibidez: hitz bat (= [ispat]).

4.4. (t, k) + (b, d, g) = (p, t, k)

Oharra: aurreko leherkaria erabat galtzen da.

Adibidez: bat bere ez (= [bape(re)s]); piperrik be (= [pipeRipe]); nork du (= [noRtu]).

4.41. Honen ondorioz, ondoko hauek hartu behar dira gogotan *bait* aurrizkiaz: bait d- (= [bait-], [baitatoR]); bait g- (= [baik-], [baikara]); bait n- (= [bain-], [bainekien]); bait h- (= [bai-], [baiatoR]); bait l- (= [bail-], [bailicateke]); bait z- (= [baic-], [baicion]).

4.5. *(l, n, r) + (z, s, x) = [lc, nc, rc;*
lc', nc', rc'; lc, nc, rč].

Adibidez: hil zen (= [ilcen]); esan zigun (= [es'anci gun]); hor zegok (= [oRcegok]).

4.6. *(i) + (l, n, t, s, ts)* = *[il', in', it', iš, ič]*.

Bustidura gerta daitekeen kasu hauetan, eta aurreko arauetan azaldu denaz, normalagotzat hartzen da ebakera mordo hau, bustidurarik gabea baino.

5. *ERDARATIKAKO BAHITURAK* (erd. préstamo, emprunt).

5.1. Erdarazko *r-* haserari, *arr-* edo *err-* dagokio euskaraz. Zientzi hitz berrietan ez izatekotan (razional, rotazismo), ez da *r-* euskal haserarik onartzen.

5.2. Aspaldidanik, erdarazko (p-, t-, k-) fonemei, euskal (b-, d-, g-) dagozkie eskuarki. Hortaz:

5.21. Bahitura zaharra delarik, eta euskalkietan bata eta bestea aurkitzen direnean (bake, pake; gorta, korta), fonema ahostunekoak hobetsiko dira (bake, gorta).

5.22. Bahitura berrietan, eta zientzi-hitz bereziren bat ez izatekotan (penizilina, teatro), lege zaharrari eutsiko zaio: bortu, daratulu, gorbata.

5.23. Joera berberari eutsiko zaio *l* eta *n* -ren on- doan; euskalkietan barrena bi moldeak elkarren ondoan daudelarik, ahostunekoa hobetsiz: 'denbora' hobe 'denpora' baino, 'aldare' hobe 'altare' baino.

5.3. Erdarazko (*s'*-ri, euskaraz *(z-)*- dagokio: zaku, zoru, zorte. Zientzi edo Soziologi hitz bereziren bat ez izatekotan (semantika, sozialismo), eutsi egingo zaio joera zahar horri.

5.4. Erdarazko (*b-*)-ri, euskaraz (*m-*) dagokio: miñagre, mandil.

5.5. Erdarazko bokale arteko *-n-* galdu egiten da euskaraz: anate > ahate (aate, ata).

5.51. Joera honen hildotik, erdal *-ción/ -tion* atzizkiari, *-zio* dagokio euskaraz eskuarkienik: erd. nación, nation; eusk. nazio. Gainerako euskal aldaketak (nazione, nazino) euskalki mailakotzat hartuko dira Fonetika Batuan.

6. *AZENTOA* (erd. acento, accent).

Gutxi gora-beherako lege batzu dagoenetik arrisku handiegirik gabe eman balitezke ere, arazo nagusi honek beste txosten berezi eta oso bat merezi du ondoko hilabeteetan.

Hiztegi-Eraskina

africada, affriquee : AFRIKARI
apical, apical : APIKARI
ascendente, ascendent : GORUNZKO
aspirada, aspirée : HASPERENDU
dental, dental : HORZKARI
descendente, descendat : BEHERUNZKO
dialecto vasco, dialecte basque : EUSKALKI
fricativa, fricative : IGURZKARI
labial, labial : EZPAINKARI
líquida, liquide : URKARI
nasal, nasal : SUDURKARI
oclusiva, occlusive : LEHERKARI
oral, oral : AHOKARI
palatal, palatal : SAPAIKARI
pronunciación, prononciation : EBAKETA, : AHOSKETA
pronunciar, prononcer : EBAKI, AHOSTU
sibilante, sifflant : XIXTUKARI
sonora, sonore : AHOSTUN
sorda, sourde : AHOSKABE
uvular, velaire : ZINTZURKARI
vibrante, vibrant : DARDARKARI

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 6

Moderatzaile: *Haritschelhar, J.*

A. *Lege orokorrez.*

B. *Hitz konposatuak.*

C. *"Ez" eta "bait".*

Partaideak:

A. LEGE OROKORREZ

(1) *Zatarain, A.:*

"Aspaldian, fonetismo bezala aipatzen ditugun gauzak, nire ustez, jatorrizko formak direla: Korri, gorri... Askain, Asgain... Azpeiti, Azbeiti, Azkoiti, Azgoiti, Anaia-anae..."

(2) *Mitxelena, K.:*

"Ez gara diakronia egiten ari. Sinkronia aldetik, gauzak, alderantziz, errazago egiten dira.

Bokal baten aurretik, hitz elkartuen junturan, bokal baten aurretik, aurreko bokala galtzen da.

Grekotik datozen hitzak "o" eta latinetikoak "u". Baina ez dut uste beti: Apostolu-apostru. Guri latinaren bidez etorri zaizkigu hitz hoik, eta ez Perikles edo Anaxagorasen bitartez. Nik ez dut uste bereizkuntza hori egin daitekeenik. Hori "fatamo organa" bat iruditzen zait."

(3) *Uribeetxebarria:*

"Nire ustez: kantu, estatu... Azken "u" euskarari berez datorkiola. Honela, "kanto" gabe "kantu": "-o-a" gabe "-ua".

(4) *Altuna, Patxi:*

"Lege fonetikoak ez dira noiz nahiko eta nonahiko, baizik mugez inguraturik daude.

Uste dut, oso ausartak garela fonetika milan, zeren salbuespen asko baitaude.

Euskaraz, nola historia laburra ezagutzen, guk ezagutzen ditugun legeetatik kanpo ere izan daitezke beste batzu; Hor daude, adibidez: Hasiera, biziera, bizidun... eta ez kasera, bizera...

(5) *Zarate, Mikel:*

"Hizkuntza biziak bere bideak hartu ditu.

Herriaren aidea jarraitu behar, bestela berehalaxe hasiko dira beste atzizki arraro batzu.

Diakronia gabe sinkronia ere begiratu behar da, sarri askotan: "Anaie", "anajea"... nik uste dut "anaia" behar dela."

(6) *Rotaetxe, Karmele:*

"Lege orokorrak aurkitu behar dira.

Zergatik morfo-fonetika? Nik ez dut ulertzen titulua.

Hemendik aurrera tituluak ere zaindu egin behar direla, uste dut."

(7) *Mujika, L. M.ª:*

"Nire ustez salbuespen asko daude.

Batzutan zentzu semantiko bat jaso dute: -sendotu-sendatu, osotu-osatu."

B. HITZ KONPOSATUAK

(1) *Uribeetxebarria:*

"Nire ustez, "marratxoak" zerikusi haundia du.

"z" fonema ondoren, gehienetan, hurrengo fonema gogortu egiten da: Eztu, ezpaita..."

(2) *Irigoyen, A.:*

"Zataraini esango nioke marratxoa edo zubittoa ipini ala ez ipini, ni hitz egiten ari naizenean, "kaleargia" esaten baldin badidate, ba niretzat "kale argia" da; eta ez "kaleko argia".

Euskaldunok, hitz egierakoan zubittoa ipini beharrean "kaleko argia" esaten dugu, eta orduan ez dugu problemarik".

(3) *Rotaetxe, Karmele:*

"Nire ustez, hitz konposatuetan ez da bakarrik marratxoa jartzen baizik eta pronunziatzean, azentoa aldatzen da: "Etxe-nagusia"...

C. "EZ" ETA "BAIT"

(1) *Zatarain, A:*

"Nire ustez, Txillardegi eta Mitxelenari arrazoi ematera nator.

Askotan esan da: "ez du", "z" fonemak "d" gogortu duela. Baina bi hitz direnean, ez da hau gertatzen.

"Bait", jatorriz, "bai" da: Hikako formetan ikusten da hau: "Berandu etorri bahaiz."

(2) *Irigoyen, A.:*

"Bait" loturik jartzen baldin bada, "ba-" zergatik berezi?

Hitz egiterakoan beti loturik. Nik esango nuke: "ba" eta "ez" beti idatziko nituzke loturik."

(3) *Altuna, Patxi:*

"Ba" baieztatzekoa denean, bereiz idaztearen aurka nago. Arrazoiak:

1. Tradizio osoaren kontrakoa da.

2. "Ez" hitzarekin ez du inolako gonparaziorik: Etxeparek, batzutan: "ez dator", bestetan, "eztator"...

3. "Ba" ez da bere eskuko. "Ez" bai. "Ba" beti agertzen da marratxoaz: "Ba-".

4. "Ez" bereiz idazten dela, eta horregatik "ba" ere bai. Arrazoi honek ez du balio.

Irakurlearentzat halako tranpa omen da "ba-" baldintzazkoan den ala ez jakiteko. Zalantza hori kentzeko, Euskaltzaindiak agin beza baldintzakoa denean, "baldin" aurretik.

Nire ustez, "ba" banaturik idazteko, arrazoi gutxi daudela; loturik idazteko, arrazoi bortitzagoak ikusten ditut."

(4) *Intxausti, Joseba:*

"Euskaltzaindiaren aginduari jarraitzeagatik, nahiz eta gure gogoko ez izan, eta egoki ikusi, idatzi dugu baturik.

Niretzat, ba du eragozpen praktiko bat. Baina, uste dut, "baldin" beti aurrean ezartzea nahiko gogortxo iruditzen zait."

(5) *Knörr, E.:*

"Nik eskatuko nuke "bait" aditzetik bereiz idaztea edo marra batez loturik idaztea. Arrazoia, nire eritziz, pedagogiakoa da.

Izan ere, horrela, aditz paradigma oso osoan eta garbi garbi agertuko litzateke. Bestela, aditza asko aldatzen da. Horrela, ikasleak, erraztasun haundia izango luke, banaturik idatziz, noski."

(6) *Kintana, X.:*

"Nahiz eta batzutan, beti aparte idatzi beharko dira "ez" eta "ba": baiezkakoa eta baldintzazkoa.

Doinua ere aldatu egiten dugu: "Aita, ba dator"; "Aita badator".

(8) *Mitxelena, K.:*

"Berezkuntzarik ez dago bat ere.

Bizkaian "baldin" ez da erabiltzen.

Hitz egiterakoan eta idazterakoan orain arte, beti beti idatzi da loturik."

(9) *Zarate, Mikel:*

"Klaseak ematerakoan kontutan izan behar da arazoa. Ni neu, banan idaztearen alde nago. Hontan kontuz ibili behar da."

(10). *Altuna, P.:*

"Axularrean "bada" hirutakoa da:

– bada.

– ba da.

– ba-da.

"Omen" sartzen denean, Axularrek eta abarrek banaturik, baina besteetan loturik."

(11) *Mujika, L. M.:*

"Nik bi postura hartu ditut hasieran:

Baturik, baina hor konstatatzen dira lau aldaketa foneti-ko gertatzen direlarik.

Hau izugarrizko problema ikusten dut, idazleentzako ere."

BERGARA, 1978-IX-7

ERAKUSLEAK ZENBAIT IDAZLE ZAHARRENGAN

Bergara, 1978-IX-7

Altuna, Patxi, s. j.

Berez hitz txiki eta laburrak izanik ere —letra gutxitakoak esan nahi dut—, Euskara Batuan dugun hutsarterik handienetako bat hartzen baitute, batetik, eta edozein idazleren edozein izkributan txitian-pitian agertzen baitira, besterik —azken urteotako zenbait idazlerengan forma ezberdinez agertu ere— ERAKUSLE direlakoei aztergai egokia eta beharrezkoa iritzi diet, behin betiko, edota urte batzuetarako bederen, finkaturik utz ditzagun. Hauxe da hauzia: beti *hauek, horiek, haiek* idatzi behar ahal dugu, nominativoa eta ergativoa bereizi gabe, ala batzuetan *hauk, horik, haik* eta besteetan *hauek, horiek, haiek*, pasivoa eta aktivoa bereizirik? Eta neure txosten honetarako hartu dudan beste puntu bat aipatzeko, *honetan* idatzi behar ahal dugu ala *hontan? horretan* ala *hortan*?

Hauek eta *hauk, horiek* eta *horik, haiek* eta *haik* bereiztearen aldeko direnak ez dira, noski, ez eta hurrik eman ere, setakeria hutsez bitasun horien aldeko, baizik eta zenbait arrazoik —zinetako ala ustezko, pisu handiko ala gutxiko, hori aztertu behar— bitasun horretara bulkatzen dituelako. Zein arrazoi dira horiek? Ez, noski, ikasle-idazleei, zahar nahiz berriei, lana errazteko gogoa. Ez eta egungo eguneko euskaldunik gehienon egunoroko aztura eta ihardunbidea ere. Arrazoi nagusia ez dakit bakarra—, oker ez banago, antzineko idazleen ohitura litzateke. Hala ahal da?, galdatuko du norbaitek agian. Eta baldin bada, zenbatena eta nortzuena? hoberenena ala hortik honako zenbaitena? Hala izanik ere, aski arrazoi ahal da hori —galdatuko du horrek berak, agian, aurrera— egungo eguneko Euskara Batuan —nahiz eta idatzian bakarrean— bereiztasun hori sartzeko eta ezartzeko?

Sartu eta ezarri nahi baldin badugu, edota Euskara Baturako onartu, puntu bat aztertu eta erabaki beharko dugu lehenik, gauzak arizki eta presakaegi egin nahi ez baditugu: hots, perpausa konposatu nahasi eta kiribildu batean noiz da sujetoa pasivo eta noiz aktivo? Hauxe galdatu nahi dut: har dezagun, esate baterako, Testamentu Berriko pasarte hau: "Moyses auten videns admiratus est visun...". Leizarragak, besterik ez aipatzeko, *ikussi* eta *miraz iarri* aditzak darabiltza, lehena iragankorra, iragangaitza bigarrena. Nola esan zuen hori Leizarragak euskaraz: "Eta Moyses / hori ikussiric / miraz iar cedin visioneaz" ala "Eta Moysesec hori ikussiric / miraz iar cedin visioneaz"? (Diodan bide batez hauzi honen azpian hitz-andanen gorabehera datzala). Ipin dezagun orain *Moysesen* lekuan edozein erakusle pluralean eta hauxe da ene galdera: nola esan behar da "HAIEK / menditik jaistean / erbia jan zuten? ala "HAIK menditik jaistean / erbia jan zuten?". Galdera hauei inork iritzira eman diezaiekeen erantzunak deus gutxi balio du; inoren iritzi hutsala baizik ez litzateke eta hemen iritziak ez, datoak eta argibideak behar ditugu. Autoreak berak aztertu berak aztertu behar dira eta horrelakoetan sujetoa noren mendean ipintzen zuten –perpausa nagusiko adizkiarenean ala mendeko perpausarenean, ala, nahiz nagusi nahiz mendeko, hurbilenekoarenean– erreparatu eta ikasi. Hona Lardizabalen beste exenplua: nola idatzi zuen "Abel, berez paquetsua, eta gaitz gabea izanic, / gaitz pensatu etzuen..." ala "Abelec, / berez paquetsua, eta gaitz gabea izanic, / gaitz pensatu etzuen..."? Galdera hauei geroxeago erantzungo diet, baina geldi bedi oraingoz garbi, hauzi hau ez dela izu-zaparradan eta nolanahi konpon daitezkeen horietakoa.

Txosten honen luze-laburra pixka bat mugaturik, ez ditut hemen ERAKUSLEEN kaso guztiak aipatuko, ez baita behar ere, azken urteotan modu ezberdinez erabiltzen ditugunak baizik: hots, pluraleko nominativo-ergativoak eta singularreko NON-NORA-NOLA kasoak. Gainerakoetan ez da alde handirik, esateko. Ez da ere ene asmoa antzineko idazleengan agertzen den zenbait formak elkarren artean, erroari gagozkiola, zer ikusi duen erabakitzea: hots, *hoei*, esate baterako, Leizarragarengan *hau-* erroari dagokion ala ez. Ez noa hauzi horietan sartzera, baizik formak berez eta dauden daudenean aztertzera.

Aukera egin dut idazleen artean, guztiak ikertu ezinean, baina aukera ez dut egin, noski, hogei aztertu eta horietarik ene iritziaren aldeko zirenak soilik harturik, baizik guztiok eredu gisako irizten diegun zenbait autore hautetsirik, ERAKUSLEAK nola zerabiltzaten jakin baino lehen, eta jakin edo ikasi ondoren txosten honetatik inor zokoratu gabe. Sei jo ditut begiz (Etxepare, Axular, Oihenart, Leizarraga, Larramendi eta Lardizabal) eta hona sei horien ERAKUSLEEZ baliatzeko tankera.

Has gaitezen Etxeparegandik. Honen obran, aski laburra baita, erakusleak bakanka ageri dira eta doi-doi ematen digute esku ondoren segururik ateratzeko. Hona agertzen diren guztiak:

HOC: behin bakarrik ageri da eta bertan pasivo da:

Hoc veguira diçagula salua guiten hegatic (I, 225)

HOYEC: bi bider eta bietan pasivo da:

Eta hoyec eguiazqui ehorc hala ezpaditu (I, 196)

Manamenduyac hoyec dira iangoycuac emanic (I, 224)

HAYEC: Lau bider agertzen da; lau horietarik hirutan bertsoetan eta behin hitzaurrean. Bitan pasivo da eta beste bitan aktivo. Hona bi pasivoak, bigarrena hitzaurrekoa:

Hayec biac galdu ditut amoria nic çugatic (IX, 22) "Ceren iauna hayec iqhussiric eta corregituric plazer duçun beçala irudi baçautzu imprimi eraci diçaçun..."

Hona, aldiz, bi aktivoak:

Hayec cer merexi duten çuhaurorrec iqhustzu (XIII, 46)

Heben hic vaduquec vana hayec ez norc consola (XIII, 66)

HEC: lautan agertzen da. Lau horietarik hirutan pasivo da eta behin aktivo. Ikus:

Hec nigatic ciradela ari nuçu qhonduya (I, 128)

Hec guiçoner veha valite eliçate bat honic (III, 39)

Hec dostetan ni nequetan orduyan errabiatu (IV, 28)

Honako hau, berriz, aktivoa:

Hec veçala hil behar duc eta ez iaquin orduya (I, 31)

HEYEC: behin agertzen da eta bertan pasivo da:

çure escuyaz dacusquidan heyec gaztigaturic (XIII, 35)

Horien ondean singularreko beste forma hauek irakur daitezke Etxeparegan: *honetan,* sei bider, sei horietako bat hitzaurrean (I, 139; I, 188; I, 191; X, 19; X, 60; XIII, 93); *horretan ez da inoiz agertzen; hartan,* ostera, 24 aldiz eta horietako bat hitzaurrean dago.

HUNA eta HUNAT behin agertzen zaigu bakoitza eta biak *nora* kaso garbiak dira, ez alegia oihu gisakoak:

Hilac oro iayqui huna çuyen hobietaric (I, 322)

Elas othoy hunat veha beqhatore gucia (I, 168)

HORRAT hiru bider agertzen da (VIII, 5; XI, 1; XII, 24); HARA lau bider (I, 179; I, 263; I, 289; I, 324); HARAT hiru bider (I, 241; I, 372; I, 376).

Moduzko adverbio bezala ere honako hauek aurkitzen ditugu:
honela (X, 23) eta horren ondoan *hula* (XIII, 49);
horrela ez da behin ere agertzen, baina *horrelaco* bai, bi bider (VIII, 7; XII, 31). Horren parean, halere, beste hauek ere aurki daitezke: *horla* (IX, 29; XII, 14; XII, 41); *horlaço* (VIII, 6: X, 27: X, 31: X, 51) eta *horlaceco* (X, 35), azken honek, Lafonek dioen bezala, imprenta-hutsa badirudi ere. *Hala* hamazazpi aldiz agertzen da.

Axularren libûru oparoak azter-sail zabalago eta naroagoa eskaintzen digu, erakusleez nola baliatzen zen edozein duda zuhur eta arrazoizko uxatzeko moduan ikusi eta legeak finka ditzagun. Ehunka aldiz agertzen baitira haren liburuan era guztietako eta kasu guztietako erakusle formak. Ikus ditzagun banaka:

HAUK: diogun lehenik HAUEK ez dela Axularrengan behin ere aurkitzen. Axularrek ez du ezagutzen, beraz, HAUEK/HAUK oposiziorik. HAUK, ostera, 43 aldiz agertzen da. Zer da HAUK 43 pasarte horietan, aktivo ala pasivo ala batzuetan aktivo eta besteetan pasivo? Aitor dezagun itzulingururik gabe ia beti —hiru ez gainerako pasarte guztietan— pasivo dela. Ezin uka, ordea, inola ere beste honako hirurotan aktivo dela batere dudarik gabe. Hona hiru pasarteak:

"Bekhatu hauk eta guztiz ere zahartasunekoek, eztute desenkusarik, eztute estakururik, eta ez ederztatzeko biderik..." (n.º 128).

"Zeren Iainkoa bere alde dute iende hauk" (n.º 142).

"... zeren iuramentuak Iainkoa bera bere presunan utkitzen du, baiña bertze bekhatu hauk, eztiote hain arras emaiten..." (n.º 170).

HORIEK: sei bider agertzen da soilik eta seietan pasivo da inolako dudarik gabe. Hona bi lehenak adibide gisa:

"Eta gero orduan, bildurik dadutzan on horiek norentzat izanen dira?" (n.º 50).

"Erran nahi dut, orai bekhatu guti duzunean, eta guti horiek ere berri direnean, ezin delibera dezakezu halarik ere, horietarik ilkitzera, zer izanen da bada gero,...?" (n.º 57).

Beste lau pasarteak hauek dira: nos.: 141, 150, 270, 282. HORIK, ostera, ez darabil behin ere Axularrek, baizik beti *horiek* eta beti –sei bider– pasivo dela. HORIOK behin agertzen da eta bertan pasivo da: "Egiak dira horiok guztiok" (n.º 359).

HEK: beste biak baino askotaz gehiagotan agertzen da erakusle hau Axularren liburuan barrena. Denera, kontuak gaizki atera ez baldin baditugu, 172 aldiz. Nahiz pasivo nahiz aktivo izan daiteke. Aktivo deneko 44 pasarte kontatu ditut. Hona bizpahiru exenplu:

"Lazedemoniako hek berek etzuten desegin nahi izatu hiri kontrast bat..." (n.º 17).

"Zeren nola herri guztietan ohi baita komunzki zenbait alfer eta iende galdu, eta hek anhitz kalte eta nahasteka egiten baitute..." (n.º 18).

"Ordea filosofo hek eman zuten hartan bere ahal guztiaz aditzera gauza gaixtoa eta perilosa zela alferkeria..." (n.º 20).

Beste 128 lekuetan pasivo da.

Hiru erakusleen erroetarik sorturiko beste singularreko formak ere erruz aurki ditzakegu Axularrengan. Hona soilki aipatuak, txosten hau luzeegi gerta ez dakidan, bakoitza zenbat bider agertzen den gaineratuz:

HUNETAN (69): *-tako* (23); *-takoa* (1); *-takoaz* (1); *-takotzat* (6); *-tara* (7); *taraino* (1); *tarik* (16); *-tzaz* (12); eta *hunez* ere bai (8).

HORRETAN (5): *-tara* (1); *-tarik* (1); *horretzaz* (1).

HARTAN (155)

Moduzko adverbioak eta berauengandik erakarritako adjetivoak honako hauek darabiltza Axularrek:

HUNELA (62): *-lako* (22); *lakoak* (1); *-lakoez* (1); *-lakok* (1); *-lakoren* (1); *-lakorirk* (2); *-latan* (48).

HORRELA (10): *-lako* (1); *-lakorik* (2).

HALA (632): ...

Adlativo kasokoak hauek bildu ditut:

HUNA (4). Horren parean, halere, *huneraino* dio 3 lekutan eta *hunerainokoan* beste pasarte batean.

HORRA behin bakarrik darabil (n.º 245).

HARA sei bider eta HARAT beste 26 bider. Halaz ere, *hareraino* dio, eta ez *haraino*, lau lekutan.

OIHENART da antzineko autore guztien artean —hobeki esan, nik aztertu ditudanen artean— bitariko forma horiek zuzen eta zorrotz, bata aktivo denerako eta bestea pasivo denerako, bereizi dituena. *Gaztaroko neurtitzak* aztertu ditut eta horietan erakusleak aski bakanka agertzen badira ere, bakan horietan beti zuzen bereizten ditu.

HORIC: lau bider agertzen da (II, 91; XII, 41; XIII, 93; 17, 89) eta lauretan pasivo da.

HORIEK: behin bakarrik eta bertan aktivo gisa: 23, II, 9.

HAUC: lau aldiz darabil eta lauretan pasivo gisa: 20, 86; 20, 109; 23, IV, 9: 23, IV, 77).

HAUEC: ez da behin ere agertzen.

HEC: zazpi aldiz aurkitu dut eta zazpietan pasivo da: VI, 30; VI, 30; 17, 9; 17, 102; 20, 146; 23, IV, 96; 23, IV, 4.

HEIEC: behin bakarrik eta bertan aktivo da: 24, 13.

Singularreko beste kasoei eta moduzko adverbioari bagagozgie, honako formak darabiltza: *hunetan* (XI, 25); baina *hontan* eta *huntarik* ere bai. *Hortan*, pasarte bakarrean. *Hartan*, lau lekutan, eta *hartaco*, beste batean. Moduzko adverbioak: *hunla*, bi aldiz, eta hortik sorturiko *honlacazes;*

horla bost aldiz; *hala*, 15 aldiz. Azkenik adlativoan: *huna*, bi bider: *horra*, behin: *hara*, hiru bider.

Ioannes Leizarragaren jokaera ikertzeko haren "Apostolu Sainduen Acteac" –hala derizte berak– hartu ditut eta osoro aztertu. Zati aski laburra, noski, ondoren zehatzik ateratzeko; erakusleez gutxi gorabehera nola baliatzen den ikusteko nahikoa, halere, ene ustez. Hona zer idoro dudan:

1. *HEC* aktivo nahiz pasivo bezala erabiltzen du: pasivo bezala 48 aldiz; aktivo bezala 28 aldiz. Hona bizpahiru ale, adibide gisa:

IV, 1: "Baina hoc populuari minço çaizcala, ether cequiztén..."

I, 9: "Eta gauça hauc erran cituenean, hec çacussatela altcha cedin".

Bada haatik zenbait pasarte ilun, non nekez erabaki baitaiteke aktivo ala pasivo den. Hara nola:

V, 21: "Eta hec haurençunic sar citecen..."

V, 33: "Eta hec haurençunic despitez leher eguiteco ceuden..."

VIII, 25: "Hec bada testificaturic eta denuntiaturic..., itzul citecen Ierusalemera..."

Era berean VII, 57: IX, 29: XIII, 51: XV, 30: XVI, 20: XXIII, 14. Hots, bi adizki –bata iragankorra eta bestea iragangaitza, edota atzekoz aurrera–, lehena izenki gisakoa eta bigarrena forma pertsonalean, *hec* delakoari darraizkionean, aktivo ahal da ala pasivo?

Bada areagorik ere. Ikus:

XIII, 2: "Hec bada Iauna ministerioan cerbitzatzen çutela eta barur ciradola, erran ceçan Spiritu Sainduac...".

Hemen, alegia, bi adizkiak forma pertsonalean ditugu, bata iragankorra eta bestea iragangaitza, ordea. Zein kasu da, hortaz, *hec*? Ikus ere beste hau:

XXIII, 33: "Eta hec Cesareara ethorriric eta Gobernadore handiari letrác emanic...".

Hemen, aldiz, biak ditugu izenki: lehena iragangaitza, ordea, eta bigarrena iragankorra. Berriro ere galdea: zein kasutan dago *hec*?

HEC horren ondoan beste kasuok aurkitzen ditugu: *hetan* (9 aldiz); *hetara* (18 aldiz); *hetarano* (behin); *hequin* (23 aldiz); *heçaz* (8 aldiz). Genitivoa eta dativoa, halaz ere, honela ematen ditu: *haey* (9 aldiz); *hayén* (53 aldiz, ia beti bigarren silabak azentua duela). Kasu hauei nagokiela, ez nuke gauzatxo bat esan gabe utzi nahi: singularrean *harenganat* (XXII, 13; XXII, 27 eta *harenganic* (XXII, 29) irakur daitezke Leizarragarengan; pluralean, berriz, *-gan-* atzizkirik duen formarik ez dut idoro *hengan, henganat, henganic* edo antzekorik), baizik eta horien lekuan beti *hetan, hetara, hetarik,* nahiz eta bizidunez ari. Ikus, besteak beste, XXI, 32, *hetara,* Duvoisinek *Iuduetara* dioenaren ordez.

Zer esanik ez, Leizarragak beti *hark, harçaz, hartan, hala* dioela. Baita ere beti *hara,* nahiz oihu gisakoa nahiz NORA kaso garbia denean: ikus *hara,* oihu gisakoa, V, 25; NORA kaso soila, aldiz, 5 bider (VIII, 15; X 27; XVII, 10; XVIII, 13; XXV, 7), *hara huna* ("alde batera eta bestera") agertzen den pasarteak (4 aldiz) kontatu gabe.

2. Gatozen lehen mailako erakuslearen formetara. HAUEC ez da sekula ere agertzen "Apostolu Sainduen Actoac" idazkian Bestetan bai? Nik ezetz uste. HAUC darabil beti Leizagarrak: 53 aldiz edo. Pasarterik gehienetan erraz da aktivo ala pasivo den erabakitzen: gutxienez 47 pasartetan pasivo da. Esate baterako honako hauetan:

II, 11 "Ençuten ditugu hauc gure lengoagez minço diradela..."

II, 13 "Mahatsarno eztiz betheac dirade hauc".

II, 15 "Ecen eztirade, çuec uste duçuen beçala hauc hordi..."

XV, 17 "dio gauça hauc guciac eguin dituen Iaunac".

Baina beste hauetan?

VIII, 15 "Hauc hara iautsi içan ciradenean othoitz eguin ceçaten..."

XVII, 6 "Hauc mundu gucia erauci ukan duten ondoan, huna-ere ethorri içan dirade".

Hemen, lehen HEC aztertzean aipatu ditugunetan bezalaxe, adizki iragankorra eta iragangaitza —edota atzekoz aurrera— ditugu elkarren segidan, bata mendekoa eta bestea nagusia. Zaila da, beraz, beste gabe asmatzen HAUC pasarte

horietan pasivo ala aktivo den. Badirudi, halere, ikusi batera bietarik lehenean pasivo dela eta bigarrenean aktivo, hurbileneko adizkiari begiratuz. Hauzi hau geroxeago aztertuko dugu zehazkiroago eta hala den ala ez ikusiko.

Hona oraindik beste pasarte bat; inon izatekotan, hemen du erakusleak aktivo itxurarik nabarmenena:

XVI, 20 "Gende hauc trublatzen duté gure hiria Iudu direlaric".

Ala azken "Iudu direlaric" hori dela medio, joko ote du inork hor ere pasivotzat? Eta aktivotzat jotzekotan, zergatik? hurbileneko adizkia iragankorra delako, beste gabe?

Ikus, ordea, azkenik beste hiruroc:

I, 14 "Hauc guciec perseveratzen çutén gogobatez othoitzatan..."

XXIV, 20 "Edo hauc beróc erran beçate baldin cerbait gaichtaqueria eriden baduté nitan..."

XX, 5 "Hauc aitzinerát ioanic iguriqui guençaten Troasen".

eta erka goraxeago aipatu dugun "dio gauça hauc guciac eguin dituen Iaunac" delako harekin eta beste honekin:

II, 7 "Huná, minço diraden hauc gucioc, eztirade Galileano?".

HAU- erroa duten beste forma hauek ere aurki daitezke liburu berean: *hauén* (2 bider); *hautan* (2 bider); *hautaric* (4 bider); *hauçaz* (5 bider). Dativoa, berriz, honela ematen du Leizarragak: *hoey* (behin), lehengo *haey* haren gisara.

Singularreko zenbait forma aipatuko dut azkenik: *hunetan* (8 aldiz); *hunetara* (behin); *hunetarano* (3 bider); *hunetaric* (3 aldiz); *hunetaco* (4 aldiz); *hunetacoric* (2 aldiz); *hunetacotz* (behin); *hunela* (8 aldiz); *hunez* (4 aldiz); *huneçaz* (5 aldiz); eta *huna*, bai oihu gisa (19 aldiz edo), bai NORA kasoan. Ikus azkenok IX, 21 ("... hartara huna ethorri baita.."); XVII, 6 ("... huna-ere ethorri içan dirade"), eta abar.

3. HORI- erakusle erroa beste biak baino askoz gutxiago darabil Leizarragak, idazki honetan bederen. HORIEC behin bakarrik aurkitu dut eta bertan aktivo da:

XXV, 11 "... baina baldin horiéc accusatzen nautenetaric deus ezpada..."

Pasivoa, ostera, lau bider eta lauretan HORIAC da. Hara:

VII, 1 "Gauça horiac horrela othe dirade?"

VII, 50 "Ala eztitu ene escuac eguin gauça horiac guciac?"

XIV, 15 "Guiçonác, cergatic gauça horiac eguiten dituçue?"

XVII, 20 "nahi diagu bada iaquin gauça horiac cer erran nahi diraden"

Beste zenbait kasotako formak hauek dira: *horiey* (3 aldiz); *horretan* (2 bider); *horretaric* (2 bider); *horrela* (behin); *horrelaco* (behin); *horrelacoa* (behin); *horrá*, oihu gisakoa, 2 bider.

4. Erakusle ez bada ere, BATZU-ri buruz bi hitz esan nahi nuke, Euskara Batuan nola erabili ez dakigulako, batetik, eta lehen HEC eta HAUC aztertzean argitu gabe utzi dugun puntua finkatzen lagun diezakegula uste dudalako, bestetik. Baina Leizarragarengan baino lehen, ikus dezagun nola agertzen den hitz hori Etxepare, Axular eta Oihenartengan.

Etxeparek bi bider darabil bere obra guzian; bietan BATZU dio eta bietan pasivo da. Ikus XIII, 51: "Berac baçu hil dirade ni are nago ciciric" eta hitzaurrean: "... çuri neure iaun eta iabia beçala igorten darauritzut heuscarazco cop(b)la batzu ene ignoranciaren araura eguinac".

Axularrengan pasivoa eta aktivoa, biak agertzen dira eta aski maiz eta ongi berezirik, pasivoa beti BATZUK baita eta aktivoa beti BATZUEK. Pasivoa 53 bider darabil; aktivoa 24 bider. Duda-mudazko pasartea bakar hauxe da agian: "Batzuek bere gazte denboran, odola bero dutenean, bizitzen dira Iainkorik, heriotzerik, edo kontu errendatzerik ezpailliz bezala...". Beste pasarte guzietan BATZUK pasivo eta BATZUEK aktivo dela gogoan harturik, badirudi hemengo hau aktivotzat jo behar dugula, hurbileneko, nahiz eta mendeko, adizkiari dagokionez, moldiztegiko hutsa ez baldin bada bederen.

Oihenartek BATZUTAN darabil bi bider (II, 33; 16, 25) eta bestelakorik ez.

Gatozen Leizarragarengana. Zenbait pasartetan HEC eta HAUC pasivo ala aktivo ziren ezin erabaki daitekeela, edo bederen, erabakitzen gaitza dela esan dugu. Hemen, haatik, BATZU eta BATZUC zehazkiro berezten ditu gure autoreak: lehena pasivo da beti eta bigarrena aktivo beti. Hara nola:

VI, 9 "Eta altcha citecen batzu..., disputatzen ciradela Estebenequin".

VI, 11 "Orduan suborna citzaten guiçon batzu erraiten çutenic..."

X, 5 "Orain bada igor itzac batzu Ioppera..."

Guzti horietan pasivo da, noski. Denera 23 bider agertzen da horrelakoa. Hona zenbait aktivo ere:

VIII, 2 "Eta eraman ceçaten Esteben ohorztera iaincoaren beldurra çuten guiçon batzuc..."

X, 23 "... eta Ioppeco anayetaric batzuc compainia eguin cieçoten".

XV, 1 "Eta Iudeatic iautsi içan ciraden batzuc, iracasten cituztén anayeac..."

Beste horietan aktivo da, dudarik gabe. Horrelakorik 10 bider agertzen da.

Ikus, halere, besteok:

V, 6 "Eta iaiquiric lagun gazte batzuc har ceçaten hura, eta camporat eramanic ohortz ceçaten".

XVII, 34 "Batzuc halere, hari iunctaturic, sinhets ceçaten".

XIX, 31 "Baina Asiaco principaletaric batzuc-ere, nola baitziraden haren aisquide, harengana igorriric othoitz ceguioten ez ledin theatrera presenta".

Horrako hiru horietan gauza bat nabari da argi baino argiago: perpausa nagusiko adizkia gailentzen da eta horren baitan gelditzen BATZU- elako horren kasoa, ez mendeko perpausarenean, nahiz eta hau inoiz hurbilago egon. Hori horrela dela inork argiago ikusi nahi balu, beste honakook –zenordeen lekuan izen propioak dituztenok– irakurtzea aski luke:

VII, 31 "Eta Moyses hori ikussiric miraz iar cedin visioneaz".

XIX, 1 "... Paul garaico bazter guciac iraganic ethor bait-zedin Ephesera".

XXIII, 11 "Eta ondoco gauëan Iaunac, hari presentatzen çayola, erran cieçon..."

Horrenbestez ondoren bat ateratzeko bide eta esku badugu, ene ustez: HEC eta HAUC pasivo ala aktivo ziren ez genekien goiko pasarte haietan, ez ote gaitezke balia BATZU eta BATZUC bereizteko Leizarraga bera baliatzen den irizpide

beraz: hots, HEC nahiz HAUC halako perpausetan noiz den aktivo, noiz pasivo, ez ote dugu erabaki behar perpausa nagusiko adizkiari begiratuz?

Bi adizkiak mendeko direnean, ordea, badirudi kasoa hurbileneko adizkiaren baitan dagoela. Ikus honako hau:

> XIX, 9 "Eta nola batzu gogortzen baitziraden eta ezpaitzuten obeditu nahi, gaizqui Iaunaren bideaz minçatzen ciradela populuaren aitzinean, hetaric bera partituric, separa citzan discipuluac..."

Hori Leizarragaren jokaera. Eta Lardizabalena, goian aipatu dudan esaldi hartan eta bestetan? Hona nola eman zigun harako hura: "Abel, berez paquetsua, eta gaitz gabea izanic, / gaitz pensatu etzuen...". *Abel*, beraz, eta ez *Abelec*, mendeko eta hurbileneko adizkiaren baitan. Baina ikus beste honako hau: "... Cain-ec, bere anayaren contra alchatu, eta Abel il zuen". Hemen, ostera, lehen ez bezala, *Cain-ec*, ez *Cain*, perpausa nagusiko adizkiaren zerbitzutan. Badirudi, beraz, Lardizabalek puntu honetan iritzi eta jokabide garbirik ez duela. HAUEK-HAUK, HORIEK-HORIK, HAIEK-HAIK bereiztekotan, nor hartuko genuke eredu: Leizarraga ala Lardizabal? Horrelako perpausetan noiz bata, noiz bestea erabili zeren mendean geldituko litzateke: perpausa nagusiaren adizkiarenean beti ala mendeko eta hurbilenekoarenean beti? ala ez bataren, ez bestearenean beti, baizik eta aukeran, inori gogoak ematen dionarenean?

Hitz gutxitan emango dut azkenik LARRAMENDI eta LARDIZABAlekikoa, lehen ikusiaz bestelako oso gauza gutxi baitute, egia esan. Mendibururi eginiko karta aztertu dut soilik Larramendirenetik. Laburra delarik, ERAKUSLE gutxi agertzen dela zer esanik ez. Lehenbiziko mailakorik, *hauek* alegia, ez darabil behin ere. Beste biak, *horiek* eta *haiek*, bai; lehena, hain zuzen, bi modutara idatzirik: *oyec* eta *horiec*. Bata nahiz bestea agertzen den lau lekuetan pasivo da. *Ayec*, ostera, aktivo da agertzen den pasarte bakarrean.

Batzuek ere lau bider darabil Larramendik karta horretan eta lauretan pasivo da. Ikus, gainera, besteok: *onela, onelaco, onelacoac, onetatic.*

LARDIZABALen "Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira"-ren hogeitaka orrialde irakurri ditut eta, gezurra

badirudi ere, lehen mailako ERAKUSLEA ez dut behin ere aurkitu, ez *hauek* eta ez *hauk*. *Oyec*, bai, han eta hemen, nahiz aktivo nahiz pasivo bezala. Berebat *ayec*, bietara. *Batzuec* ere bai, eta beti modu horretan idatzia, nahiz aktivo nahiz pasivo izan.

Horien ondoan beste honako forma hauek *onetan, onetaco, onetaraco, onetatic; onela, onelaco* eta *horrela* noiznahi erabiltzen ditu. Baita ere —eta hau orain arte ez dut aipatu— beste antzineko idazle guztiek bezalaxe, *harc*, ez *harec*. Puntu honetan nik aztertu ditudan sei autoreak bat datoz, batere salbuespenik gabe: *hark* darabilte beti, eta ez, noski, izenorde denean bakarrik, bai eta izenlagun denean ere. Egia esateko, Etxeparegan beti —hamalau aldiz, alegia— izenorde da, hots, ez du aurretik behin ere izenik. Axularrek bietara erabiltzen du GEROn agertzen den 182 lekutan. Baina nahiz izenorde, nahiz izenlagun bi horiek eta beste laurek beti *hark* idazten dute, ez *harek*.

	ETXEP.	*AX.*	*OIH.*	*LEIZ.*	*LARRAM.*	*LARDIZ.*
HAUK.....	—	akt. 43 pas.	pas. 4	akt. 53 pas.		
HAUEK....	—	—	—	—		
HOK.....	pas. 1	—	—	—		
HO(R)IEK.	pas. 2	pas. 6	akt. 1	akt. 1	pas. 4	pas. akt. (*oyec*)
HORIOK ..	—	pas. 1	—	—		
HORIAK ..	—	—	—	pas. 4		
HORIK	—	—	pas. 4	—		
HAIEK.....	akt. 2 pas. 2	—	—	—	akt. 1 (*ayec*)	pas. akt. (*ayec*)
HAIK	—	—	—	—		
HEK.....	pas. 3	akt. 172	pas 7	akt. 28		
	akt. 1	pas.		pas. 48		
HEIEK.....	pas. 1	—	akt. 1	—		
BATZU.....	pas. 2	—	—	pas. 23		
BATZUK...	—	pas. 53	—	akt. 10		
BATZUEK.	—	akt. 24	—	—	pas. 4	pas.-akt.

Ondoren gisa eta orain arte esanak laburtuz eta bilduz, aztertu ditudan sei autoreek hauxe erakusten digute:

1. Oihenartek bakarrak bereizten ditu HORIEK/HORIK eta HEIEK/HEK aktivo eta pasivo. HAUEK ez darabil, baina

HAUC harengan agertzen den lauretan pasivo denez gero, pentsa dezakegu HAUEC esango zukeela aktivoa.

2. Beste bostetarik inork ez darabiltza bi formak, aktivoa pasivoari kontrajarriaz, baizik edo bata edo bestea. Eta darabilten hura, nahiz bata nahiz bestea, aktivo eta pasivo gisa darabilte.

3. Gaurko zenbaiten joeraz aktivo litzatekeena bakarra darabil Axularrek, esate baterako, bigarren mailakoan, hots HORIEK, HORIK behin ere ez; baina aktivo beharrean pasivo bezala beti.

4. BATZUEK/BATZUK edota BATZUK/BATZU bai, garbiro bereizten dituzte Leizarragak eta Axularrek, formari da ozkiola. Beste kontua da, guk ere haiek bezala bereiztekotan, zein forma hartu behar dugun pasivorako eta zein aktivorako, Axularren bikotea ala Leizarragarena, alegia. Eta oraindik beste hauzia: perpausa nahasi eta luzeetan, adizki bat iragankorra eta bestea iragangaitza denean, zeinen baitan gelditu behar duen sujetoak, hurbileneko adizkiarenean, Axularren itxurazko joerari jarraituaz, ala perpausa nagusikoarenean, Leizarragarena onartuz. Ala ez batarena eta ez bestearena, baizik aukeran utzi, Lardizabalek egiten duen bezala.

ERAKUSLEEZ

Bergara, 1978-IX-7

Irigoyen, A.

Nabarmena denez gradua duten seinalatzaileak erabiltzeko modua ez da bat berbera euskaldunen artean denboraren buruan desberdintasunak nabarmentzen joan direlako. Baina euskara batuan modu berberean edo gutxienez alde handiegirik gabe nola erabili finkatzea beharrezkoa dugu.

Zenbaitek egun pluralak honela erabiltzen dituzte: *hauk, horik, haik* nominatiborako, eta *hauek, horiek, haiek* ergatiborako. Beste zenbaitek, ordea, *hauek, horiek, haiek* kasu bietarako Gipuzkoako autore zaharren arauera. Egia esateko Hego Euskal Herrian ez da sekula egin kasu bien arteko bereizkuntzarik egin eta hori da gure hizkuntzaren iturri zaharreko ura. Berdintsu gertatzen da Ifar Euskal Herrian erabiltzeko bigarren mailako modu batzu gora behera.

Singularrak egungo saio honetan nominatibo eta ergatibo kasuei dagokienez ez ditugu gogoan hartuko, *hau, hori, hura* lehenengorako, eta *honek, horrek, hark* bigarrenerako erabiltzeak problema handiegirik ez baitu sortzen. Gehienez ere Ifarraldean *haur* dela autore zaharrenetan agertzen dena, alderdi batetik, eta bestetik *hunek* dela hedatuena. Baina hala ere esan beharra dago zenbait autore puntakok –Harizmendi, Etcheberri medikua, Haraneder...– *hau* forma ere erabili izan duela eta batasunaren izenean argi dago nondik jo, eta Etxeparek *honetan, honez, honela, honat, honegatic, honi*, eta halakoak dakartza *hunequi* formaren ondoan, Leizarraga-k bereizi egiten dituela seinalatzailea eta artikulua, alderdi batetik *hunetan* eta horrelakoak sarturik, eta artikulua, alderdi batetik *hunetan* eta horrelakoak sarturik, eta bestetik *niri bekatoreoni, S. Lvc.*, XVIII, 13. Badirudi, artikulua erabiltzeko moduak salatzen duenez, *hon-* forma

zaharragoa dela eta batasunaren izenean ez dut uste dudarik egin behar dugunik hautatzerakoan.

Plurala ikertu behar dugu. Bizkaiko autore zaharrek dakartzaten *oneek, orreek, areck / aek* ez ditugu eboluzionatuenak izanez gainera hegal batean gelditzen direlako. Ifarraldeko eta Hegoaldeko desberdintasuna da batera behar dena.

Leizarraga-k *hauk* eta *hek* berdin erabiltzen ditu kasu bietarako. *Horiak*, nominatiborako eta *horiek* ergatiborako, ordea. Nola osatu den bigarren gradukoa argi dago: *hori* datiboa zena nominatiborako erabilirik, *neroni* ere datiboa izanik nominatiborako erabiltzen den moduan, bigarren gradua ornitu zen gure hizkuntzan, horrela hiru gradu izatera iraganik, eta gero artikulu plurala erantsirik *horiak* sortu zen. Jakina, *-ak* artikulua izanik ergatibo kasuan *-ek* behar du Ifarraldean hango erabiltzeko moduaren arauera.

Ifarraldean, gure artean ondò dakigunez, ezagutzen dugun historian beti berezi izan dituzte deklinazioaren desinentziak eranstean *-ak* artikulu plurala markarik berretu gabe eta *-ek*, artikulua ergatiboaz markatua, Hegoaldean beti *-ak*, inolako berezkuntzarik egin gabe, bietarako erabiltzen dugun bitartean. Euskal literatura batuan berezkuntza hori egitea, ordea, bidezko deritzat tradiziorik zaharrena, ugariena eta sendoena halako bidetik ibili izan diren autoreek sorturikakoa baita. Baina hauk berok ez dute berezkuntza hori seinalatzaileekin egin izan, geroago batek edo bestek, artikulua erabiltzerakoan berezkuntza egiten zelako, seinalatzaileen erabiltzeko modua kutsatzeko joera izan badu ere.

Ithurry apezaren gramatikan, 1895, agiri dena sintomatikoa da. Alegia, *zuek* bigarren pertsona, *zu* singular bihurtuaren oposizioan jarri ahal izateko *-ek* marka plurala hartu zuena, azaltzerakoan *zuik* nominatiborako eta *zuek* aktiborako, hau da, ergatiborako ipintzen du. Baina nota batean dio: "Leizarraga, Axular, Chourio et la plupart des auteurs emploient *zuek*, vous (pl.), et pour le nominatif et pour l'actif". Eta horretan bat gatoz euskaldun guztiak Euskal Herriko punta batetik bestera.

Axular ere, Leizarragaren ondoan, bide berberetik dabil, *horiek* forma *zuek* delakoaren arauera ematen duela, ordea. Behin *horiok guztiok*, 359, darabil, Altuna-k ere bere hitzal-

dian seinalatu duenez, eta izan ere hala hala izan behar zuen, *hauk guztiok*, 286, *haur guztior*, 274, *haur beror,*, 133, 275, *hauc beróc*, Leiz. *Apost. Acteac*, XXIIIII, 20, formen ondoan *horiek* ipiniz gero *-ek* delakoak ez baitu gradu pluralik markatzen, *hauk* delakoak markatzen duen bezala, eta hori hala izanik atrazioa sortu baita. Hala ere Leizarraga-k *horién gucion*. S. Lvc., XXIIII, 21, dakar atraziorik gabe, baina gogoan izan behar dugu *hauen gucion*, *S. Lvc.*, XXI, 12, ere izkribatu zuela eta *hauen* delakoan *-en* bukaerakoa desinentzia hutsa dela, < **haug-en*, eta ez duela zer ikusirik inolako plural markaturekin eta analogiaz bestean ere beste horrenbeste uste izan zezakeela mintzatzaileak. Zuek formaren ondoan ere bada *zuok* gradua markaturik.

Etxepare-k *hoc* ere erabiltzen du *hoyec* formaren zentzu berberean eta azkenengo honen segida bezala, baina hori ez dugu gogoan hartuko, *hauk* delakoaren laburpena, monotongazioaren bidez egina, besterik ez baita, *h-* suntsiturik artikulu plural gradu hurbileko izatera iragan dena, aurreko hitzarekin lotura sendoa izatea lortu zuen neurrian. Puntuan ikusi dugunez *-ok* artikulu pluralak berdin balio du lehenengo gradurako zein bigarrenerako, *-or* singularrari gertatzen zaion bezala bezalaxe. Cfr. *gu vici garenoc,* Leiz., Corinthianoe. II, IIII, 11; *Apostolu deithu içateco digne eznaizenor*, id, Corinthianoe. I, XV, 9; *Ecen baldin norbeitec ikus baheça hi eçagutze duanor, iarriric agoela idolén templeco mahainean, infirmo denaren conscientiá ezta instruituren idolari sacrificatu diraden gaucetaric iatera?*, id, *Corinthianoe*. I, VIII, 10.

Eta hemen dator kontua, *-ok* gradu hurbileko artikulu plurala berdin erabiltzen da nominatiborako, marka gabe, zein ergatibo kasuaren balioz, eta inori, ez Ifarraldekori, ez Hegoaldekori, ez zaio inoiz burura etorri, ez lehen eta ez orain, baterako eta besterako forma bereziak erabili behar direnik, bakarra baita eta ez bikoitza, *-ak* eta *-ek* diren bezala. Aitzitik ez dira bikoitz seinalatzaileetan, alderdi batera uzten baldin badugu Leizarraga-ren *horiak*, inork gogoan ez duena jadanik, ezbaita berezkuntzarik egiten *hauak* eta *hauek* alderdi batetik, eta bestetik **heiak* eta *heiek / haiek* formen artean, **hauak* eta **heiak* esistitzen ez den zakurraren gauerdiko ametsa bezalakoak baitira. Gutxiago dugu oraino **hauok* edo **hoiok*, erdaldunek esango luketenez "albarda sobre albarda" baita, *heiek* esistitzen dena den bezala.

Etxepare-k *hec* formaren ondoan *heyec* eta *hayec* txandakatuz erabiltzen baitu ere zentzu berberean jokatzen dute frasean duten funtzioaren aldetik.

Axularrek, alabaina, *hek* bakarrik erabiltzen du eta ezin erabil zezakeen besterik, genitibo edutezkoa *heken* egiten baitu, 149, eta *hauk* delakotik *hauken*, 172, azkenengo *-k* gogorra erdiko posizioan ere mantentzen dela, erdian ozena bilakatu beharrean ohitura zaharrez zen bezala, gero bokal artean eroririk (1). Leizarraga-k *hek* besterik erabili ezarren *hayén* egiten du, *S. Lvc.*, XXII, 47, baina *hauen* < *haug-en*, *Ezconcaz*, 3, eta Etxepare-k *hayen* eta *heyen*, azkenengo hau *hek* formaren normala < **heg-en*, *-g-* bokal artekoa eroririk [*j*] bat sortzen dela, cfr. *Christo, phentsa zac norc jo hauien.* Etcheberry, *Test.*, Bayonan 1874, 268 orr. Agian gero forma deklinatuetarik sortu da gero *heiek* egun ere pluralean ez baita argi bereizten zer den artikulua eta zer desinentzia. Etxepare-k, gainera, *huyen* < **haug-en* du, normala. Leizarraga-k, behar bada bide horretarik sorturik inoiz edo behin badakar *hauëc*, cfr. *persona saindu hauëc testificatu eta declaratu vkan dituzten promes hautan*, Leiz., *Bat bederac iaqviteco..., Advertimendva*, 7, baina era berean *hauey* erabiltzen du artikulu pluralezko datiboz, *Apocalyp.*, XXII, 18, Axularrek zuzen den bezala *haui* dakarren bitartean < **haug-i. Hautan*, ordea, beti ondo erabiltzen dute eta berdin *hautako, hautarik* eta abar, eta hau ondo dator artikulu gradu hurbileko plurala dutela deklinabideko leku denborazko kasuetan erabiltzen diren multzoekin, kontuan hartzen baldin badugu *hok* erabiltzen dutenek gero *hotan, hotako, hotarik*, eta abar, egiten dutela.

Berdin gertatzen da *hek, hetan, hetako, hetarik*, eta abar, zuzen erabiliekin ere. Etxepare-k *hequi* ere badakar, Leizarraga-k *hequin, S. Ioan*, XX, 24, *heçaz, S. Lvc.*, XXIIII, eta *hauçaz*, Apocalyp., IX, 10, eta Axularrek beti *hei heg-i* datiborako, artikulu plurala duen deklinazioan *-ei*, gorago

(1) Ondarribian *gizonen* eta *gizonei* eta abar esan beharrean *gizonaken* eta *gizonaki* egiten dituzte, han Alvarrek eskaturik arrantzaleen munduko galderak Atlas baterako egin nituenean ikusi nuen bezala eta Bonaparte-k aspaldisko seinalatu zuenez. Beran, ordea, Frantzisko Iñigo bertan bizi denak jakinerazi zidanez *itxíakeri,.itxíokeri* esaten dute 'etxeei', 'etxeoi'.

Ez dago inolako dudarik forma hauk berriagoak direla Kanpionek bere gramatikan besterik uste bazuen ere. Azkue-k ere hontzat hartu zuen eritzi hori.

ikusi dugun *haui* formaren gisara, artikulu plural harbila duen deklinazioan *-oi*. Eta Leizarraga-k *hai* grafiaz erabiltzen duena agian *hei* irakurri behar da, baina ez dago argi. Edozein modutan ere latin berandukoan *ae* grafia *e* irakurtzen zen, baina Leizarraga-k zergatik ez zuen *e* izkribatu? Bere eritziz zuen etimologiagatik, *hayen* erabiltzen baitzuen genitibo edutezkoaren kasurako?

Oihenart-ek *horic* nominatiborako eta *horiec* ergatiborako, eta gisa berean *hauc* eta *auec*, n.º 488, eta *hec* eta *heiec*, erabiltzen ditu, baina galde egin dezakegu ea zergatik *hautan, hetaric, hetan* formak zuzen ematen dituen bitartean ea zergatik dakartzan gero *hauequin* eta halakoak? Ergatiboaren gainean eraikiak direla esan behar ote dugu? Jakina *horiegatic* dakarrenean zuzen dakar, zeren **horieg-gatik* delakotik < *horiegatik* sortzen baita, Etxepare-k ere hainbat kasu dakartzala halako egiturakoak eta Eibarko hizkeran ere sistema berdin berdina da. Eta **horieg*-formak nola, ergatiboa baldin balitz, oposizioan dagoen beste kasu bat har lezake? Ez dut ezagutzen kasu bat bakarra bera ere ergatiboaren gainean eraiki denik. Gertatzen dena da **-eg-* artikulu zaharra dela, berdin balio zuena nominatiborako nahiz ergatiborako, gero *-ak* bikotea ere bazegoenez gero, Ifarraldean, eta han bakarrik, kasu biotarako distribuzio konplementarioan erabili izan badira ere. Hegoaldeko distribuzio konplementarioa ez da gertatzen, ordea, kasu biotan, beste era batera baizik.

Joan den mendeko Etcheberri apeza, Test. 1874, neurri batean tradizio zaharraren atzetik doa, zenbait forma sistematik kanpokoz txandakatuz. Horrela beti *hauc* kasu bietarako erabili arren, inoiz *hauiec biec*, 403 orr. dakar, *hauien* eta *hauientzat* forma zuzenen ondoan. *Hec* delakoarekin berdintsu, *hetaric*, 41 orr., *heien*, 228 orr., *hetaco*, 621 orr., zuzenak darabiltzan bitartean baditu *hekien*, 120 eta 228 orr., *hekiei*, 120 orr., eta *heiekin*, 21 orr., eboluzionatuak ere Ifarraldeko aldakuntzak bide horretarik ibili izan baitira gutxi goiti beheiti, Bizkaian *on-, orr- ar- / a-* oinharri harturik eraiki diren plural berriak estabilitate handiagoa izan dutela, Gipuzkoan bezalatsu, autoreek bederen bazilazio gutxi izan baitute. Kardaberaz-ek, esaterako bazilazio aski nabarmena du *oek, oiek* edo *oriek* formen artean, azkenengoa behar bada literaturaren bidez Ifarraldetik iaragana. Beste alderdi batetik

euren Bizkaiko forma berbera erabiltzen du eta ez *beren*. Gipuzkoa aldean erabiltzen dutenak uste dut *eren* esaten dutela. Satrustegi-k esan zidanez Arruazu bere herriko hizkeran ere Bizkaian bezala *eurok*, lehenengo eta bigarren gradurako, eta *eurak* gradu gabekoa erabiltzen omen dira. Edozein modutan ere esan beharra dago *eurok, eurak* formak Ifarraldean erabiliko balira ez zuketela inondik ere hastapeneko h- rik izango, nahiz eta hastapeneko *b-* bat eroririk espero baitekeen ere, zeren jatorrizko hitza, kategoria gramatikalez uztu baita berrekailu bihurtzeko eta halakoek galdu egiten baitute normalki jatorriz izan badute, cfr. *ihes albeileguite*, Leiz., *S. lvc.*, XXI, 21, *albeit / albait* berrekailua daramala < **ahal-bait* formatik sortua, Bizkaian *albait arinen* 'ahal den bestean arin'. Beraz, egungo egunez *h-* jartzen diotenek gaizki darabilte.

Zuberotarrek *hek* eta *haiek* formen ondoan *hurak* ere badute, azkenengoa *hura* formaren analogiaz plural bihurtua, eta txandakaturik erabiltzen dituzte. Badirudi *hurak* nominatiborako uzten dela *hura* formari gertatzen zaion bezala. Erabiltzeko modu hori bazter egiten da euskaldunik gehienentzat eta dudarik gabe, bestealderdi batetik, analogiaz soturikako berria da, egun euskara batuan *haik* zeharo berria nominatiborako batek baino gehiagok erabiltzen duena bezala, hobeto esateko, azkenengoa berriagoa. Ithurry apezak ere, kasu bien arteko berezkuntza bila zebilela, ez baitzituen horrela berezten, *hek* alderdi batetik eta *heiek* bestetik, baino, Oihenartek bezala, nota batean adierazirik: "Au lieu de l'actif *heiek*, ceux-là là-bas, on dit aussi *hekiek* (Duhalde, *Meditacioneac*, ed. 1809, 514)". Ikus bere gramatika, 1895, 16 orr. Leku berean *hoik* eta *hoiek* ipintzen ditu berezirik, eta ez *horik* eta *horiek*. Izan ere Ifarraldeko autoreetan Etxeparetik hasirik, *hoyec, boyen, hoyequi* ematen baititu, ez besteak, nahasian ibili izan dira. Ziberouko Egunariak, 1901, bietarikoak dakartza. Uste dut formazioaren aldetik *hoiek* normalagoa dela *horiek* baino. Lehenengoa *hauien* gisakoetarik sortu den bitartean bigarrena *hori* pluralizatua besterik ez da. Edozein modutan ere *horiek* formak gure artean, baita Hegoaldean ere, halako errespeto bat izan du historian zehar literaturako forma bezala.

Ezin utz dezakegu aipatu gabe Ifarraldeko testoetan indar berezi batez korritzen duen seinalatzailea, distribuzio

konplementarioz modu berezi batean dabilena: *hain, haina,* ergatiboa *hainac, haina hura, hainac* nominatibo plurala, *hainec* ergatibo plurala, zenbait autoreren erabiltzeko modu desberdinak bildurik. Cfr.

Ber- berrekailua ere hartzen du, *beraiñez, berainik,* eta abar. *Bertze* hitzari loturik ere badugu, *bertzaiñez.*

Horra, horra nun den aguertcen hain ikhusi nahi duzuena irakurrerazten digu Etcheberry-k, *Test.*, Bayonan 1874, 177 orr.

Era hori ez da zeharo arrotza, ordea, Hego Euskalerrian eta garai batean badirudi eremu osokoa zela, zeren Micoleta bilbotarrak Bilboko euskaraz esaten baitu: ... *emasteagayti diño berrorec. —Ori ta berrori. —Enesat daucan obena da aymbaga egotea* '...por la muger lo diçe Vm. —Por la misma. —A mi me pareçe que lo mejor que tiene es estar sin ella', ed. 1897, 26 orr. Egun Bizkaian entzuten dena *ain barik* da. Gauza berbera.

Badirudi *hain* forma, *honen* eta *horren* parean erabiltzen dena ez dela berbera. Micoleta-k berezi egiten ditu onetarako *aen* erabilirik: *Bada selan xayguitenda aen goxeti, espadavil ondo* 'pues porque madruga tanto sino anda bueno?', 25 orr.

Agian *a* seinalatzailea inesibo fosilizatuz izan daiteke, gero palatalizatu edo eta ondoan despalatalizatu egin dela. Beste gradukoak *on-* bihurturik bestelako elementuak hartu dituen bezala hemen ere sistematik kanpo gelditurik zergatik ez zen egingo beste hainbeste.

Ikertu egin beharko litzateke elementu honi euskara batuan zer probetxu atera dakiokeen. Gutxienez seinalatzaileen sarri erabiltzeari astuntasuna kendu, sistematik kanpoko eremura iraganik.

Xabier Kintana-k "Posesiboak idazle zaharretan", *FLV* (1971), 75-80 orr., artikuluan Gabriel Aresti zenak erakutsi omen zion gai bat sakondu zuen, *neure, (h)eure* eta halako formen reflesibotasuna agirian ipinirik, Ifar Euskal Herriko autore zaharren erabiltzeko modua gogoan hartzen zuela. Eta izan ere Leizarraga edo Axular hartuz gero hori funtsean hala dela dirudi. Nik, orduan, Bizkaiko *Refranes y Sentencias* XVI-garren mendekoa ikertu nuen zenbait fitxa eginik eta han ez zela zeharo betetzen, Bizkaiko hizkuntza mintzatuan ere

betetzen ez den bezala, delako erregela ikusi nuen eta gainera Gipuzkoan oraindik okerrago, *nere neure, ene* formaren ordez eta zentzu beean erabiltzen dela eta berari esan nion. Edozein modutan ere ondo zetorrela literaturarako. Axularrek, gainera, *neurk, zeurk* eta horrelako bat edo beste dakartza Bizkaiko erara, guk *neuk, zeuk* eta abar, erabiltzen baititugu ergatiborako eta *neu, zeu* eta abar, nominatiborako eta gainera baita *neuri, zeuri,* eta abar, ere datiborako eta kasu horren ondoan ergatiborik baldin balego ezin izan Albiteke pertsona bera —autore horietan halakorik ez da agertzen, dirudienez—. Harrezkero gai horrek nolabait kezkatu egin nau eta ene buruan beure lana egin du argitasun berriren bat aurkitzen nuela uste nuen bakoitzean (1).

Joan den mendeko Etchebery-k, *Testamet zaharreco eta berrico istorioa,* Bayonan 1874, delakoan ez du betetzen erregela, *bere,* singulartzat hartzen duen forman izan ezik: *neure bequiac arquitu baititu,* 242 orr., baina *egun batez nola Jesusec bere inguruan ikhusten baitcituen guizon batzu beren buruac behar bezalaco zauzcatenac eta bertceac errechki condenatoen cituztenac, erran ceien parabola hau,* 243 orr.

Esan beharra dago, alabaina, Leizarragaren norman, ez Axularrenean, horretan ez baitatoz bat, *queuroc* edo horrelako forma indartu bat, genitiboa ez dena, darabilenean, pertsona berari dagokion genitibo edutezko bat ondoan baldin badator, forma normala agertzen dela, bi aldiz pertsona bera halako erabil moldez ezarri behar izanez gero desberdinak ematen baititu: *Gero hereneco egunean queuroc gure escuz vncico apparaillua egotz queneçan,* Apost. Acteac, XXVII, 19; *Ez sufficient garelacotz gure buruz cerbaiten pensatzeco, gueurorganic beçala,* Corinthianoe. II, III, 5; *Baina queuroc gure baithan heriotaco sententia vkan dugu,* Corinthianoe. II, I, 9, eta abar.

---

(1) Eskuratu berria dut Aita Villasante-k argitara duen *Estudios de sintásis vasca.* Oñate 1978, eta bertan, 180 orr. hasirik L. Mitxelena-k izkribaturikako nota luze bat dator "Sobre los posesivos" titulua daramala, eta Aresti-ren beraren bidez jasorikako informazioz baliaturik huts eginik, geroago Rudold de Rijk-ek berremanikakoaren bidez argi uzten du bertan *neure, eure* eta horrelakoak reflesiboak zirela, eta *ene, hire* ez, lehenengo aldiz esan zuena Linschmann izan zela eta Schuchrdt-en eskuz agertu zela elkarrekin 1900-garren urtean Leizarraga-ren lanak argitara zituztenean. Han etimologiak ere ematen dira, *neure, eure* direlakoak *ni-haur, hi-haur* formetarik datozela esanik. Beherago ikusiko dugunez Mitxelena-k ere baieztatu dituen etimologia horiek ez dira zuzenak ene ustez.

Gakizkion era hauen jatorria bilatzearen lanari.

Bere forma eta bere bikote den *beure*, beherago dokumentatuko duguna, honela osatua dago: *beur-* / *ber-* elementua alderdi batetik eta *-e* genitibo edutezkoaren marka nominalizatzailea bestetik. Beraz, *bere*, eta berdin *beure*, mugatzailerik gabea da eta horrela esplikatzen da Leizarraga, Axular, Tartas, Haraneder, Harizmendi, Etcheberri medikua, eta abarrek, eta baita Ifarrean gure mendearen hastapeneko batek edo bestek ere, tradizio zaharrari eutsirik, jaube bakarrari edo bat baino gehiagori dagokiola erabiltzea (2). Izan ere, alderdi batetik, *bere* ez da ez singularra, ez plurala eta ezta kolektiboa ere, baina bestetik ez du gradurik ere, R. M.ª.

Aita Villasante-k *Estudios de sintáxis vasca*, Oñate 1978, delakoan gai hau ukitzen du, Axularrek *bere* hirugarren pertsonarako, nahiz singularra nahiz plurala dela, erabiltzen duela oharturik, cfr. 185 orr: Hirugarren delako borretan ez dira pertsonak bakarrik sartzen, gauzak ere bai. Etcheberri medikuak latin ikasteko egin zuen lanean dio: "Icen-ordainen presunac cembat dira? Hirur, lehenbicicoa, hala-nola *ego, nos*: Bigarrena, *tu, vos:* hirurgarrena, *ille*; eta gaineraco guztiak", 281 orr. Edozein modutan ere, *bere*, aipaturikako zerbaiti edo gutxienez kontestoan ulertzen den zerbaiti begira erabiltzen da, zerbait hori plurala bada ere, autore klasikoetan.

Joannes d'Etcheberri aipatu izanak beuregan oinharri harturik adierazi nahi nukeen beste gai bat azaltzeko bidea ematen dit. Hain zuzen ere hark dio: "Ordea icen propial *ius* akhabantça dutenac eguiten du vocatiuoa *i* batequin, eta Genitiuoa, biarequin, hala-nola *Antonius, Antonij, ô Antoni*", 125 orr. Hau "Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca", *Euskera* XXII (1977), 561-623 orr., lanean

(2) Ithurry-ren gramatikan, 1895, 15 orr. ohar bat dator dioena: "Au lieu de *berena*, les anciens auteurs, tels que Axular, Pouvreau, Chourio, Duhalde, disaient *berea*, exprimant ainsi par le même mot *le sien* et *le leur*". Azkue-k halakorik aipatu ere ez du egiten. Ikus dezagun exenplo bat edo beste: *Baina gauça hauen gucion aitzinetic bere escuac eçarriren dituzte çuen gainean*, Leiz., S. Lvc., XXI, 12; *ecen haiñec bere gorphutzac dorphequi tratatzen dituzte*, Haraneder, *Gudu izpirituala*, 1750, 31 orr.; *Hibaiec alchatu çuten / Bere voça cincinez: / Alchatu çuten, ô launa, / Ecin ichil egonez*, Harizmendi, L'office de la Vierge Marie, ed. Vinson, 1901, 34 orr.; *Iraupen horrentzat halaber, Euskalzaleek bere ingurumenetan, eta Aphezek bere elizetan egiten dutena, ez othe lezake hauzaphez batek Herriko-Etchetik zorionez egin?* Martin Landereche, aph., *RIEV* (1908), 621 orr.

esan nuenaren alde dator bereziki 9 eta 41 numeroak daramatzaten nota eta inguruetan.

Azkue-k berak, zehatz ikertu gabe, hirugarren gradukotzat bazuen ere, cfrdo bestek ere, tradizio zaharrar. (1) nota. Haurra zergatik: lehenengo eta bigarrengo pertsona izenordeetan nahiz singularrezko nahiz pluralezko izan, *-eur* aldaera erantsirik agertzen denez gero *–neu(r) / neure, (h)eu(r) / (h)eure, geu(r) / geure, zeu(r) / zeure–* esklusioz hirugarrenean klasifikatza da edonori burura datorkiona. Baina hori ez da horrela gertatzen lehenengo edo bigarren graduko seinalatzailea duten izen sintagmei atxikirik erabiliz gero, seinalatzaileoi ez baitzaie sekula sufixo bezala halakorik eransten, hitz berezi bezala *bere* izan ezik. Horregatik zeharo normala da esatea: *langile honek bere etxean egiten du lo,* edo *langile horrek bere etxean egiten du lo.* Gorago aipaturikako autoreen arauera hontzat hartu behar dira, gainera, hurrengo fraseok: *langile hauk bere etxean egiten dute lo*, edo *langile hauk bere etxeetan egiten dute lo*, eta baita *langile hauk bere etxea dute*, edo *langile hauk bere etxeak dituzte*, eta abar ere, Pertsona izenordeekin, ordea, *nik neure etxean egiten dut lo*, edo *guk geure etxean egiten dugu lo*, edo *guk geure etxeetan egiten dugu lo*, eta baita *guk geure etxea dugu*, edo *guk geure etxeak ditugu*, eta abar ere, esan beharrean aurkitzen gara, *neure* eta *geure* formek, delako marka erantsirik dutenez gero, ez baitute lekurik uzten marka berberaren beste aldaera berriz eransteko.

Gauza bera izan ezarren berdintsu gertatzen da gaztelaniaz aurrean jartzen den *su* forma edutezkoarekin ere. Hark, ordea, singularraren ondoan plurala du: *sus*. Baina pluraltasuna, hizkuntza romanikoetako numeroaren konkordantzia dela kausa, izen sintagma bereko sustantiboari begira dago eta ez beste nonbait jabea edo jabeak adierazirik agertzen denari.

Frantsesak, ordea, alderdi batetik *son, sa / ses* ditu eta bestetik *leur / leurs*, aurrekoaren singulartasuna edo pluraltasuna ere kontuan harturik. Nafarroako erromantze zaharrean, *so / sos* alderdi batetik eta *lur / lures* bestestik, izatera heldu zen (3).

(3) Cgr. Ricardo Ciérvide, *Primeros documentos navarros en romance*, 635, 63 orr. eta hurrengoak.

Alderdi batzuetan, Ondarroa, Lekeitio eta abar, *bere* zeharo baztertu dute ahozko hizkeretarik eta ordez *bera* delakoaren genitibo edutezkoa erabiltzen dute beti singularrerako eta *eurak* delakoarena pluralerako eta horrela gisa honetako fraseak entzuten dira: *gisón onek beren etxía dauko, gisón orrek beren etxíak daukos, gison ónek éuren etxía dauke, gison órrek éuren etxíak daukes*, eta abar. Fraseok Lekeitioko erara datoz. Arratia eta Mungia bitartean, ordea, *bere* eta *beren*, biak erabiltzen dira eta pluralerako *éuren*, bakarrik, beste hizkera batzuetan *béren*, azentua lehenengo silaban duela, erabiltzen den bezalatsu. Arrazoizkoa da pentsatzea lehenagoko denboretan forma bakoitzak bere lekua hobeto gordetzen zuela alderdi guztietan, baina edozein modutan ere mugatzailedunak beti eta edonon mugatzaile gabeari lekua kentzeko posibilitate osoa zuen, ez, ordea, mugatu gabeak mugatzailedunari, azkenengo hau frasean beharrezko bezala agertzen bazen. Horrela *langilearen beraren etxea*, edo *langile beraren etxea*, bakoitzak bere zentzua duela, esan behar da, eta ez **langilearen bere etxea*, edo **langile bere etxea*, azkenengook konkordantziaezagatik gramatikalitaterik ez baitute. Deklinabidearen leku-denborazko kasuetan, ordea, mugatuaren zentzua hartuarren artikulu singularrik eransten ez denez gero —inesiboa salbo—, *herri beretik, herri berera*, eta *herritik beretik, herrira berera* eta horrelakoak erabiltzen dira, baina beste alderdi batetik baita *herritik bertatik, herrira bertara*, eta abar ere, mendebal aldean esaten dugunez, gradu urruneko degradatua, artikulua alegia, agertzen dela. Artikuludunok gradu hurbila ere har dezakete: *hemendik bertotik, hortik bertotik*, eta abar, *hemendik bertatik, hortik bertatik*, eta abar ere zilegi direla, gradua galdua dutenez gero (4).

Kontuan hartu behar da gorago aipatu den Bizkaiko euskarazko *berén (...)* forma artikulu singularrez mugaturikakoa dela eta beste euskalkietako *beraren* delakoari dagokiola. *Beren* eta *éuren* formen ordez, artikulu gradu gabekoari oposizioan *-o(r)* eta *-ok* gradudunak izatea gertatzen zaion bezalatsu, *berónen* eta *berórren*, lehenengo eta bigarren gradu

(4) Azkue-k bere hiztegian *berton*, 'enseguida, luego', Erronkariko Uztarrozen bildurik dakar. Berdin itzul zazakeen erdarara 'ahora mismo'. Bizkaiko leku batzuetan, Ondarroan esaterako, *on* erabiltzen dute eta beste batzuetan *oin*, beste euskalkietan eta literaturan zabalago dabilen *orai(n)* adierazteko.

singularrerako alderdi batetik, eta *éuron*, gradu plural biotarako bestetik erabil daitezke.

Bizkaiko euskalkiari dagokionez argi eta garbi esan daiteke *ber-* eta *eur-* hastapenean agertzen diren txatalen distribuzio konplementarioa, lehenengoa singularreko eta bigarrena pluralerako erabiltzean datzala, numeroarekin zer ikusirik ez badute ere. Bergara eta inguruetan *erak* 'ellos' eta *erok* 'estos mismos, esos mismos' esaten hasten dira eta laburpenaren joera horrek Gipuzkoan zehar jarraitzen du, *nere* —*eni* edo *niri* formen lekua hartu duela—, *ere, gere* eta *zere* delakoetan gertatzen den bezalaxe

Beste euskalki batzuetan eta Gipuzkoan bertan *bérak* eta *bérok* erabiltzen da gure *éurak, éurok* formen ordez.

Ikus dezagun eskemen bidez nondik datorkeen ikertzen ari garen elementua eta hitz bezala eta berrekailu bezala dituen aldaerak:

**Bahur*

- *be(h)or*
  - *bior* (-)
  - *eor-* (**-eor*) > *-or-*
- *beur* (-)
  - (-)*ber*(-) > *bar-*
  - (-)*eu(r)* (-) > (-)*e(r)*(-)
- *bi(h)ur* > *bir-*

Bior (-)

- *biorrogei* 'cuarenta', *biorrogeitamar* 'cincuenta', Land. (1562), Araba.
- *biortu*
- *biorri* (Adjetibo bezala berezi den partizipioa).

Bi(h)ur

- *bi(h)urtu*
- *bi(h)urri* (*biorri* bezala) > *bi(h)urritu*
  (Berriz partizipioaren marka harturik, *gaitzitu, otzitu, gazitu* eta abar, bezalatsu)

bere (Genitibo edutezkoaren funtzioan mugatzailerik gabe erabiltzen dena. Beraz ez da ez singularra, ez plurala eta ez kolektiboa eta aipaturikako pertsona edo gauza bati edo bat baino gehiagori dagokio. Gradurik ere ez du. Deklinabideko desinentziak har ditzake gainean, baina mugatzailez orniturik agertzen ez baldin bada zenbait baizik ez ditu jaso ohi).

bere { *be* { *ere* } } (Juntagailu bezala berezirikako aldaerak). L. Mitxelena-k, *FHV,* Donostia 1961, 20.2, 382 orr., elementu honen enklitiko izatea seinalatzen du. Ikus beherago *-ber* nola erabiltzen duten zuberotarrek.

(-)ber(-)

ber(r)- (Zenbait seinalatzaile har dezake eta horrela ditugu: *bera, berak* –ergatibo kasuan Ifarrekoek *berek* egiten dutela– *beraur, beror* –sinon. *berau, berori–, berok.*

-sinon. *be(r)auek, be(r)oiek–, be(r)aiek,* eta abar, *berbat* beste alderdi batetik. Sufixoak ere eransten zaizkio eta sustantibo, partizipio edo bestelakoen aurrean ere agertzen da, hala nola, *bertsu, berze / bertze* > *beste, berxko, ber gisan ber legen pian* –Zuberoan– *ber ekarri, berregin, berxin* –Erronkarin– *berhala* –Zuberoan–, *berdin* > *bardin berhain / berhaiñ* –Zuberoan–, *beraiñez* < *ber-aiñez,* instrumentala, *berenez* bezalatsu, *berainik, Berraiña* –Zigoitian–. Agian *berri berri* > *barri* delakoa partizipio fosilizatua izan daiteke eta gero *berritu, barritu* sortu, *gazitu* eta horrelakoen gisan. Eta baita *berriz, barriz, barriro* eta *berritan* bi aldiz ere. Azkenengo *berri* delako honek erromatarren garaira eramango ginduzke egia balitz, orduko izkrizioetan agertzen baita Akitanian. *Berr(h)etu / berratu* delakoak ere *berr-e* izan dezake oinharri gisa, agian *bere* formaren bikotea).

-ber, halaber, ona den ber, soldado haur çure baduçu bér, Tartas, *RIEV* (1907), 28-29 orr.

Beur (-)

beure (Genitibo edutezkoaren funtzioan mugatzailerik gabe erabiltzen dena. *bere* delakoaren forma zaharragoa da eta aldaera huts bezala, bata eta bestea txandatuz, testo berean ager daitezke. *Beure* bakanagoa denez gero indargarri kutsuz orniturik dagoela ematen du, dagokion aipaturikako pertsona edo gauza, edo eta pertsonak edo gauzak, duen edo duten gradua dutela edo ez dutela, hurrunsko edo ilunsko gelditzen baldin bada edo badira bereziki. *Aita Borcorioc-ere badio Apostoluec progotchu guehiago eguin ciotela Eliçari, preso ceudecilarican isquiribatu cituzten isquiribuez, ecen ez beure predicuez: In omnem terram exivit sonus eorum. Psalm. 18. Ceren bide hartaz hedaraci baitçuten bere omena, eta Christoren legue Saindua munduco bazter guztietara*, Joannes d'Etcheberri, 1907-garren urteko edizioa, 69 orr. Ikus baita 84, 85 eta 86 orr. ere. Latinezko *"suus, sua, suum"* "berea, beurea, Ec." bezala ematen ditu 134 orr.," Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco" delakoan, eta parean *"Tuus, tua, tuum*. Hirea, heurea, edo hireac, edo heureac, çurea", *"Vester, vestra, vestrum*. Çuena edo ceuena, edo ceurea c." eta baita *enea* edo *neurea* formei dagozkienak ere.

beur- (Gorago aipaturikako Etcheberri-k plural marka erantsirik ere badakar: "Singulariter: *Gen, sui.* berarena, edo berarenac, bare buruarena. Pluraliter: *Gen. sui.* beurena, edo beurenac, beure buruena, edo beure buruenac", eta abar, pluralekoetan *beur-* delakoa hautaturik, beherago *"Gen. ipsorum, ipsarum, ipsorum*. Berena edo hecberena, berenac, edo hec-berenac", eta abar, ematen dituela, ordea. Ikus 129, 131 eta 132 orr. Ithurry Sara-ko apezaren gramatikak, Bayonne, Biarritz 1895, 18 orr., *beuror* eta *beurorrek* biltzen ditu, bata nominatiborako eta bestea ergatiborako, seinalatzaile singular berbera dutela(H).

(H) "No. *beraur*, Ac. *beraurrec*". *Beraur* formak nota bi ditu: "Catéchisme souletin, édition de 1788, page 86 (Lardi. 11)" eta "Au lieu de *beraur* et *beraurrek*, on dit aussi *beror* (A.), *berori* (P. 421) et *berorrek* (Lard., 11) ou *beuror* et *beurorrek* ou *beroni* et *beronek* (Lardi., 11) *Lardi.* laburpena Francisco Ignacio de Lardizabal-i dagokio, *Gramática vascongada*, San Sebastián 1856, baina hark dakarrena, *beraur* ez da, *berau* baino, eta dioen bezala *beronek, berori* eta *berorrek*, gradu biak berezirik. *A* laburpena Axularren *Gueroco guero* bigarren edizioari dagokio. *P* delakoa Pouvreau-ri, Philothea, 1662.

(-) *eu* (r) (-) eta eor- (* - eor)

eur(r)-, er-, eor(r)-. Sustantiboaren aurrean agertzen da *eurrortz* Bizkaiko hitzean. Partizipioa eginik *eurtu* Erronkarin, radikala *eurt* duela, eta baita Bizkaiko *eurt egin, eurt eragin* eta *eurrez* instrumentala ere. *Eortu* Lizarraga Elkanokoak dakar Azkue-k hiztegian dioenez. Bizkaiko euskalkian, nabarmen agiri denez, pluralezko seinalatzaileak hartzen ditu, singularretarako *ber-* erabiltzen dela distribuzio konplementarioz. Horrela *eurok* dugu alderdi batetik, *haui* edo *horiei*, batzuei zein besteei berdin dagokiela, *berok* formari gertatzen zaion bezala bezalaxe, eta *eurak* bestetik. Bergaratik Gipuzkoa barruruntz *erok* eta *erak* laburtuak korritzen dute. Ez da sortu, ordea, *beraiek* eta bere gisakorik, dudarik gabe formazio berriagokoak hizkuntzaren historian.

-eu(r), -e(r)-, -or- (Neu(r)(-), (h)eu(r) (-), zeu(r)(-), geu(r)(-), formetan lehenengo eta bigarren pertsonei dagozkien seinalatzaileei berreturik agertzen da (O). Bizkaiko euskalkian, beste zenbait

(O) Lehenengo pertsona singularra, begien bistakoa denez, *en-* forman ere agertzen da, genitiboa *ene*, datiboa *eni*, eta abar, baina *nik, nizaz* eta abar, distribuzio konplementarioz, eta dudarik gabe lehenengoa da zaharra. Badirudi *ni* forma datibo nominatiborako erabilia besterik ez dela *neroni, zeroni, heroni, nerori* –beste batzuk *neror*– eta *hori* –azkenengo hau frogen bidez– diren bezala. Horretara lehenengo pertsona singularrak *-eur* berrekailua haturik **eneur* genduke eta gero *neur*. *Bere /beure* delakoa aipaturikako bati edo bati baino gehiagori, duen gradua duela, badagokio, hemen lehenengo pertsonari dagokio eta izan ere lehenengo pertsona horren forma itsatsirik gelditu da. Hastapenean itsatsi gabe zegokeen eta halako zerbait esan zitekeen benturaz: **en (b)eure etsen nago* edo **zu (b)eure etsen zaude*, euskal literaturaren arauera egungo egunean *horiek bere herrian daude* esan dezakegun bezala bezalaxe, edo eta *hau bere etxean dago*. Geroago, indarturik, *ni neure etxean nago* eta gisa horretakoak erabili izan dira, dirudienez. Bizkaian, *neuk*, bakarrik doala esan badezakegu ere, *nik* formarekin alternantzia eginik –biak ergatibo kasuan–, indar gehiago emateko *nik neuk* esaten dugu, Leizarraga-k *nic neurorrec*, Corinth. II, X, 1, darabilen bitartean seinalatzaile gradua galdu gabekoa, artikulu hurbila, indargarri bezala erantsirik, aurreko formaren indarra erabiliaren erabiliz moteldu zen neurrian.

Bigarren pertsonari dagokion *eure* Leizarraga-k beti *h-* gabe dakar eta Etchepare-k bazilazioa du, baina gerokoek *h-* duela izkribatzen dute, eta badirudi *eur-* hutsa erabili izan zela horretarako, kontesto zabalagoan agerbazitekeen ere, baina edozein modutan ere Leizarraga-k bigarren pertsonari dagokiola darabilenean beti markatzen du bigarren pertsona hori beste alderdi batean, dela berboaren flesioan, dela *hi* seinalatzailea bera ere agerturik.

Jean Haranederren *Gudu izpirituala* delakoan, Tolosan 1750, gehienetan *çure* eta *gure* erabiltzen bada ere *çeure* eta *geure* erabil zitezkeen lekuan, inoiz edo

(-) *eu* (r) (-) eta eor- (* - eor)

berbatan gertatzen den bezala, azkenengo *-r* galdurik du, baina suntsitu gabe gelditzen da, ordea, deklinazioko desinentzia harturik, hark hastapenean -r-, bokal ondoan baizik nabarmentzen ez dena, baldin badu, hala nola *neure, eure, zeure, geure, neuri, euri*, eta abar, baina hala ere *zeuen*, plurala gaineraturik, forma berriagoa baita. Axularrek, ordea, *neurk*, ergatibo kasuan, eta gisa horretakoak dakartza, azkenengo *-r* eta guzti. Berdin gertatzen da *neuror, neror, nerori, neroni, zerori, zeroni, euror, heror, herori, heroni, geuror, geurok, gerok*, eta abar, formekin gradua galdu gabeko seinalatzaileaz berrindartzen direnean (A). Nabarmena denez Gipuzkoako hizkeretan *nere* lehenengo pertsona-

---

behin, *çuere / çueure* forma agertzen da, hau da: *zu eure*. Haurra: *1.º Ikhus-açu ea pairatzen-duçun gaitza ez-duçun merecitu eta ea ez-duçun ceronec çueure-buruaren-gaiñera eror-araci. Ecen çure-faltaz soffritzen-baduçu, cer yustuagoric passienciarequin soffri-deçaçun baiño çauribat çure escuz çueure-buruari eguiñ-dioçuna. 2.º Horren-gaiñean ez-baduçu deus çure-buruari erreportchatzecoric, itzul-etzatzu çure-beguiac çure bekhatu-iraganen gainerà*, 94 orr. Beste alderdi batetik: *huntan gueroni gure-buruen-contrà altchatzen-garenaz gueròz*, 37 orr. eta *guerorrec gure-burua contraria-guiñeçaque*, 209 orr., edo *cerèn hori baitda gauça bat gure disposicionetaric bicitze izpiritualean eguiten-dugun progotchutic*, 216 orr. Hurrengo frasean *çuere* dokumentatzen da: *Ikhas-açu çuc-erè orobat maiz çuere-baitan sartzen*, 93 orr.

(A) Ithurri-ren gramatikak dioenez, 17 eta 18 orr.: "Au lieu de *nihaur* et *nihaurek*, on dit aussi *neror* (A., 295; H., 55), *nerori* (D.) et *nerorrek* (H., C., 302), ou *neuror* (L., 329) et *neurorrek* (L., 259) ou *neroni* (Har., 331; C. 214) et *neronek* (A., 316; H., 60; C., 182)", "Au lieu de *hihaur* et *hihaurek*, on dit aussi *heror* (H., 55), *herori* (La., 12) et *herorrek* (H., G. I., 228), ou *euror* (L., 160) et *eurorrek* (L., 268) ou *heroni* (Van Eys, 94) et *heronek* (Har., 325", "Au lieu de *zuhaur* et *zuhaurek*, on dit aussi *zeror* (H., 57), *zerori* (A., Bl; C., 195) et *zerorrek* (A., 234; C., 195), ou *zeroni* (C., 83) et *zeronek* (C., 83)", "Au lieu de *guhaur* et *guhaurek*, on dit aussi *geror* (H., 56), *gerori* et *gerorrek* (H., C., 58), ou *geuror* (L. 333) et *geurorrek* (L. 262), ou *geroni* (Van Eys, 94) et *geronek* (C. 58)". Laburpenak honela dira:

A.: Axular, *Gueroco guero*, bigarren edizioa.

H.: Harriet, *Gramatica eskuaraz*, 1741.

D.: Duhalde, *Meditacioneac*, édition de 1809.

C.: Chourio, *Jesu-Christoren Imitacionea*, 1720.

L.: Leizarraga, *Iesu-Christ gure Iaunaren Testamentu berria*, 1571.

Har.: Haraneder, *Philotea*, 1749.

G.I.: *Gudu izpirituala*, 1750.

La.: Larramendi, *El imposible vencido*, édition de 1853.

Van Es: *Grammaire comparée des dialectes basques*, 1879.

(-) *eu* (r) (-) eta eor- (* - eor)

rako forma bakar bezala finkatu da horrela bere jatorrizko zentzua suntsiturik. Horren ondoan badira, ordea, *ere, zere* eta *gere,* maiz bokal arteko *-r-* galtzen dutela irauten duten lekuetan (B). Hemen sartu behar ditudala uste dut Saraitzuko *nore* eta Zuberoa aldeko *nore, ore* zaharrak, Mitxelena-k bere Euskal Fonetika Historikoan, 4.8(b), 102 orr., eta 4.3, 92-93 orr., 1961-garreneko edizioa, **iau* > *eu* bihurtzen dela esanik, *ñaur, nihau* eta gisa horretakoen parean ezartzen baditu ere (D), uste baitut *nihaur, ihaur, zuhaur, guhaur* eta horrelakoak askozaz ere formazio berriagokoak direla, edo nahi baldin bada berrituak. Izan ere hauen genitibo edutezkoa zabal agiri da *nihauren, hiauren, zuhauren, guhauren,* eta gisa horretakoen itxuran, desinentzia bezala *-en* berriagoa harturik. Erronkarin *ñaur* formaren ondoan *ñore* eta *yaur* delakoarenean *yore* bildu baldin badira, agian *nehor* > *ñor* bihurtu zen bezala, **neore* > *ñore* bihurtu zen eta *yire* indartu gabea ere [j]˘ bat hastapenean duela agertzen da: *Jorea yire ta enea bien*

(B) R. M. Azkue-k *Morfología Vasca* delakoan, Bilbao 1925, uste du *-er-*erdian berretzen dena intensitibitateko graduatiboa dela eta pertsona seinalatzaileei, azkenengo bokala suntsiturik, eta bigarren pertsonarenaren zero elementuari eransten zaiela, eta baita galdurik omen den seinalatzaile baten *b* kontsonanteari ere, cfr. § 341, 219 orr.

Halaber uste du Bizkaiko *neu nerau* formatik datorrela eta honen analogiaz sortu direla *eu, geu, zeu* eta *zeuek,* cfr. § 343, 221 orr.

Halaber uste du *bere* hirugarren graduko singularra dela eta erdaren influentziaz erabiltzen dela lehenengo eta bigarren gradurako *beronen* eta *berorren* formen ordez: "El hecho de que las lenguas románicas que nos rodean con sólo decir *"su"* en fr. *"son* o *sa"* y en plural *"leur"* denotan "de este, de ese, de aquel, de estos, de esos, de aquellos", este hecho hace que digamos muchos *bere* no sólo cuando significa "su, de él, de aquél mismo", sino también cuando equivale a "de este, de ese", sustituyendo a *beronen, berorren* como en varios ejemplos que se leen en Micoleta y otros autores", § 345, 222 orr.

Ez dago zertan esanik ez dugula hontzat hartzen errotik beretik Azkue-k azaldurikako ikuspegi hau.

(D) *Textos arcaicos vascos,* Madrid 1964, 2.2.5., 44 orr. delakoan ere eritzi hori du "disimilación... que se obserba en el vizc. *geuk* "(por) nosotros mismos", a partir de guhaurk, etc. Cf. *FHV,* p. 92 s.".

(-) *eu* (r) (-)
eta
eor- (* - eor)

(R-bid), dakar Azkue-k bere hiztegian (E). Etcheberry, *Testament zaharreco eta berrico istorioa* liburuaren egileak, Bayonan 1874, *nihoni,* 39 orr., *hioni,* 7 orr., dakartza, nominatibo kasurako erabilirik biak, berez datiboko formak badira ere, *guhonec,* 199 orr., *zuhonec,* 197 orr., ergatibo kasuan, baina *nihaurtaz,* 25 orr., instrumental kasuan. Formok argi eta garbi erakusten dute *-haur* erantsia seinalatzailea dela eta lehenengo zein bigarren gradurako berdin erabil zitekeela eta *-hon-* delakoarekin txandakatu —beste testo batzuetan *-on-* eta *-or-* direlakoekin txandakatzen da gorago ikusi dugunez; begiratu Leizarraga ere (1571): *ni neuror,* Corinth. II, XII, 13, *nic neurorrec,* id, X, 1, *hi euror,* S. Lvc., XXIIII, 18, *hic... eurorrec,* Othoitzac, "Lectionearen studiatzeracoan erraiteco orationea", *gueuror,* Galatianoe., II, 17, *gueuroc,* S. Lvc. XXII, 71, eta ezagguna da lehenengoa, *hon-,* lehenengo gradurako finkatu dela historian zehar eta bigarrena, *hor-,* bigarrengorako—. Etcheberri-k sistema zaharrekoak ere badakartza: *ni neroni,* 221 orr., nominatibo kasurako, *ceroniec,* 210 eta 223 orr., nominatiboa bata eta ergatiboa bestea.

Jean Haranederrek *Gudu Izpirituala* delakoan, Tolosan 1750, *ceroni,* 112 eta 113 orr., nominatiborako dakar, *ceronec,* 94 eta 95 orr., ergatiborako, *gueroni,* 37 orr., nominatiborako, baina *guerorrec,* 209 orr., ergatiborako. Ikus (A) nota.

Leizarraga baitan *eurorri,* zeharo reflesiboa den forma dokumentatzen da, *eure* artikulu hurbilez indartu gabea erabiliz gero *burua* hitzaren bidez egiten den zentzu berberekoa, Ifarraldeko

(E) Mendigacha-k Azkue-ri egin zizkion kartetan, cfr. *Euskera* II (1957 —nik neronek argitara nituen—, badakartza *gore* eta *guiaren* —agian *giuaren*— ere, bata *geure* delakoarekin zer ikusia duena, dirudienez, eta bestea *guhauren* formarekin. Ikus: *eta ssiten bada gore valletik, Erronkariraino,* 128 orr.; *gu isarengutuk yire bi altetarik, bapana guiaren altetik.* 169 orr.; *ezdaud oboro isartan zeren ñore begi minareki erreglon cuen eskritiagatik baratunaz erdi utsitruk,* 143 orr.; *yaur yaz nausi,* 'tú eres dueño', 153 orr.

(-) *eu* (r) (-)
eta
eor- (* - eor)

norman *euri* datiboa ez baita erabili izan, Bizkaian erabili izan dugun bezala. *Bere* oinharri harturik, ordea, inon ez da datiborako **beri* erabili izan. Bizkaian, gainera, ez dugu *neuror, euror*, eta horrelako forma indarturik, ezta *neroni* ere, Gipuzkoan duten bezala. *Neu, eu* eta abar besterik ez, *ni neu* eta ez *ni neuror* eta abar. Datiboa egiteak ez digu reflesiborik sortzen.

Haurra testoa: *Eztraucac eurorri eguinen imagina ebaquiric, ez eceinere figuraric; ceruan garayan diraden gaucenic, edo beherean lurrean, edo vretan lvpean diradenenic. Eztituc hec adoraturen ez ohoraturen.* Ikus *Catechismea*, Hamar Manamendvez", eskuz numeratuz gero 23 orr. Beste leku baten testo bera beste era batera dugu: *Eztraucac eure buruari imagina ebaquiric eguinen, ez irudiric batre ceruän garayan diren gaucenic, ez vretan lurraren azpian direnenic. Eztituc hec adoraturen ez cerbitzaturen.* Ikus *ABC, "Lehen tavla"*. Argi eta garbi dago *eztraucac eurorri eguinen imagina ebaquiric* alderdi batetik, eta bestetik *eztraucac eure buruari imagina ebaquiric eguinen* gauza bera direla eta biak reflesiboak oso osoan. *Eure* hitzak, alabaina, ez du reflesibotasun osorik sortzen *buruari* hitzik gabe. Indartuak bai.

Leizarraga-k genitibo edutezkoz *eure* eta horren parekoak erabiltzen ditu. Forma nominalizatuak direnez gero deklinatu egin daitezke, baina berek berez ez dute genitiboa baino, gorago ikusi dugunez, mendebalaldeko joerak salbo. *Euror* eta halako forma indartuek, alabaina, kasu guztietan erabil daitezke, mendebalaldeko *eurok, eurak* pluralak bezala. Horrela *hic fede duc? auc euror baithan Iaincoaren aitzinean,* Leiz. Romanoe., XIIII, 22, *hieuror*, id. *S. Lvc.*, XXIIII, 18, *hic eurorrec*, ikus *Othoitza ecclesiasticoen forma*, eskuz numeratuz gero 12 orr., *cer dioc eurorrez?*, Vulg. 'quid dicis de teipso?', id., *S. Ioan*, I, 22, edozein modutan ere beti bigarren pertsona beste nonbait markaturik, beste pertsonetan ere bakoitza berearekin doala.

Bere deklinaturik eta *bir-* perrekailuaren exenpluak. *Batzu, batzuek, batzuak, batzuok* zenbait autoretan.

EUSKARA BATURAKO ZER ERABILI DAITEKEEN

Ene ustez gradua duten seinalatzaileek bide hautarik ibil daitezke problema handiegirik sortu gabe:

1. Nominatibo singularrerako *hau, hori* eta *hura*. Sistematik kanpo *haina*, erdaraz 'el tal, la tal' gutxi gora behera erabiltzen den gisara, baita ere *hain...-a*, ikusi dugunez.

2. Ergatibo singularrerako *honek, horrek, hark*, eta jakina, *hainak*.

3. Datiborako *honi, horri, hari*, eta *hainari*.

4. *Genitibo edutazkoa: honen, horren, haren* eta *hainaren*.

5. Genitibo leku denborazkoa: *honetako, horretako, hartako*.

6. Instrumentala: alderdi batetik *honez, horrez, harez* eta bestetik *honezaz, horrezaz, harzaz* Euskal Herri osoko desinentzia zaharrenari eutsirik.

7. Soziatiboa edo komitatiboa: *honekin, horrekin, harekin*.

8. Motibatiboa: *honegatik, horregatik, hargatik* edo eta *honengatik, horrengatik, harengatik* genitibo edutezkoaren gainean erabili nahi baldin balitz.

9. Destinatiboa: *honentzat, horrentzat, harentzat*.

10. Inesiboa: *honetan, horretan, haretan*.

11. Elatiboa edo ablatiboa: *honetarik, horretarik, hartarik*.

12. Adlatiboa: *honetara, horretara, hartara* eta oinharri hori berori harturik adlatibo bukatuzkoa, bide zuzenezkoa eta destinatiboa.

13. Nominatibo eta ergatibo pluralerako: *hauk, horiek, hek* eta sistematik kanpo *hainak* alderdi batetik eta *hainek* bestetik. Edo bestela *hauek, horiek, haiek*. Egia esateko lehenengoek tradizio zaharraren aldetik literatura batu baterako halako eite berezi bat dute.

14. Datiboa: *haui, horiei, hei*, edo bestela *hauei, horiei, haiei*, eta sistematik kanpora *hainei*.

15. Genitibo edutezkoa: *hauen, horien, heien*, edo bestela *hauen, horien, haien*, eta sistematik kanpo *hainen*.

16. Genitibo leku denborazkoa: *hautako, horietako, hetako*, edo bestela *hauetako, horietako, haietako*.

17. Instrumentala: *hauzaz, horiezaz, hezaz*, edo bestela *hauezaz, horiezaz, haiezaz*.

18. Soziatiboa edo komitatiboa: *hauekin, horiekin, hequin*, edo bestela *hauekin, horiekin, haiekin*.

19. Motibatiboa: *haukatik, horiekatik, hegatik*, edo genitibo edutezkoaren gainean eraikirik *hauengatik, horiengatik, heiengatik*. Bestela *hauekatik, horiekatik, haiekatik* alderdi batetik eta *hauengatik, horiengatik, haiengatik* bestetik.

20. Destinatiboa: *hauentzat, horientzat, heientzat*, edo bestela *hauentzat, horientzat, haientzat*.

21. Inesiboa: *hautan, horietan, hetan*. Bestela *hauetan, horietan, haietan*.

22. Elatiboa edo ablatiboa: *hautarik, horietarik, hetarik*. Bestela *hauetarik, horietarik, haietarik*. Desinentziaz *-tik* erabiliz gero eskema berbera.

23. Adlatiboa: *hautara, horietara, hetara*. Bestela *hauetara, horietara, haietara*.

24. Oinharri hori berori harturik adlatibo bukatuzkoa, bide zuzenezkoa eta destinatiboa.

Beste alderdi batetik indarturikakoen artean *bera* singularra hartu behar dela ez dago dudarik batere. Jakina, batzutan indarra apaldurik erabiltzen dugu. Badirudi, ordea, *beror* hain egokia arkaikoegia iruditzen baldin bazaio askori, *berau* eta *berori* formetan berezirik hartu behar dela, gero *beronek* alderdi batetik eta *berorrek* bestetik eginik.

Pluralerako *berak* eta *berok*, bigarren hau gradu bietarako, mendebalaldeko *eurak* eta *eurok* hartu nahi ez baldin badira. Edozein modutan ere *eurak* delakoak hobeto egiten du oposizioan duen singularrarekin berezkuntza, zeren *berak* ergatibo singularra ere izan baitaiteke. *Beraiek* berriagoa, inoiz kontesto berezi batzutan *berark* formaren parean Zuberoalderako ere dokumentatu dudana, bigarren mailan utziko

nuke inolako dudarik gabe. Jakina, *berak* formaren ergatiboa *berek* denezgero, *eurak* hartzekotan berezi egin beharko lirateke *eurak* eta *eurek*, mendebalaldean hala egiten ez bada ere. Alegia, *gizonek berek* esan beharrean *gizonek eurek* nahi ta nahiezkoa izango litzateke aurreko ergatiboa *-ek* forman baldin badator. Bada beste bide bat ere: bakarrik darabilgunean *eurak / eurek*, bigarrena ergatiborako, esatea eta beste baten ondoan datorrenean *gizonek berek* eta gisa horretakoak egitea.

Honek beste hau ere badakar: eta nolako formaz hartu *neuror, heuror, zeuror* direlakoak? Arkaikoegitzat hartzen baldin badira eurak berak *neroni* eta abar bihurturik? Gipuzkoako euskalkirako Larramendi-k eta Lardizabal-ek beren gramatiketan *nerau* eta *zerori* normalizatuak hartu zituzten, baina nik maiz entzun izan dudana *neroni* izan da. Edozein modutan ere problema nominatiboa nola erabili besterik ez da eta *berau* eta *berori* hartuz gero analogiak *nerau* eta *zerori* eskatzen du. Gainera *neuror* eta *zeuror* formen aurretik ditugunak **neuraur*, **zeuraur* besterik ez dira, eta *nerau* normala genduke. Jakina, *ni nerau, nik neronek,* eta abar, erabiltzea normala da.

Bide horretatik pluralerako *gerok* eta *zerok* dator, *geurok* eta *zeurok* zaharragoak bazterturik, Bizkaitarroi *geu* eta *zeuok* esaten dugulako —Azkue-k *zeurok* dokumentatu zuen— hain atsagin egiten bazaizkigu ere.

Jakina *bere* formaren ondoan *beure* ere sar daiteke, inoiz edo behin indarrez markatu nahi baldin bada erabiltzeko, Etcheberri medikuak egiten duenez. Gainera *bere* formaren erabiltzeko moduari eutsirik *nik neure, zuk zeure*, eta abar, gutxienez distribuzioak horrela eginik, erabili beharko lirateke. Jakina *gerok gure*, leizarragaren normaren arauera.

Bat formaren pluralez ari garela, *batzu* nominatiborako finkatzea ez legoke gaizki, eta *batzuk* ergatiborako. Horretara *batzuek*, eta bereziki *batzuok*, artikulu pluralez markaturikakoentzat geldituko lirateke —agian Tartas-ek nominatiborako darabilen *batzuak* alde batera utzirik, eta Micoleta-k ere badarabilena *batzuok* eta *batzuk* formen ondoan ( )—. Baina zer egin mendebalaldeko *nortzuk, zertzuk, zeintzuk, bitzuk —bitzuok* formak ez luke problemarik izango— eta abar, kasu bietarako modu berberean erabiltzen direnekin? Sortu ere markarik hartzen ez duena singulartzat utzirik, plurala

bereizteko sortu dira, beste alderdietan *nor, zer, zein* direlakoek ez baitute ez singularrik eta ez pluralik markatzen. Dauden daudenean utziko genituzke? Baina, orduan, mendebaldekoek konturatu gabe beti *batzuk* esateko joera hartuko lukete. Ifarraldean korritzen duen *zertsu* forma, *-ts-* duela, beste zerbait da.

Jakina, *batzu* hartuz gero *batzuri, batzuren, batzutako, batzuz, batzurekin, batzugatik / batzurengatik, batzurentzat, batzutan, batzutarik / -tik, batzutara, batzutaraino, batzutarantz, batzutarako* formak dira normalak. Bestelako *batzuei, batzuoi, batzuen, batzuon, batzuetara, batzuotara*, eta abar artikuluz markaturik agertuko lirakete. Ez dakit, ordea, egungo euskaldunek, artikulu plural hurbila duten formak, *batzuok* eta ondorik datozenak alegia, alderdi batera utzirik, problemarik ez baitute sortzen, bereizkuntza hori egingo duten, lehengoek ere beti lokabe samar ibili izan baitira eremu horretan.

Jakina, *batzuak* erabili nahi baldin balitz nominatiborako ez legoke gaizki. Gainera, bertsolari saioetan piska bat ibili izan denak behin baino gehiagotan aditu izan du forma hori puntuak eskaturik ondo zetorrenean, ohitura zaharra gorderik, baina esan nahizko berezkuntzarik egin gabe.

Hala ere *batzuk* erabilirik Micoleta-k *batzuak* eta *batzuok* bereizten ditu. Guk Bizkaian, egungo egunean, *batzuk* Micoleta-k bezala erabiliarren, ondorik *batzuetan, batzuetako* eta abar egiten ditugu, baina *batzuri*. Ez, ordea, *batzutan, batzutako* eta abar.

Halaber *haui* Axularrek darabilen formaren ondoan Leizarraga-k *hauei* ematen du, artikulu plurala duten deklinazioko paradigmek eraginik, gero *hautan* eta horrelakoak hautatzen baditu ere. Horregatik *hauk* hobetsirik ere, gero *hauei* zabaltzea nahiago balitz ez legoke problemarik.

Edozein modutan ere proposatzen ditudan bideok ene ustez eztabaidatzekoak dira, geroago, posible baldin balitz, bide berera guztiok etor gaitezen, gure hizkuntzari behar duen estimua, maila eta indarra emanik.

DEKLINABIDEAZ

Bergara, 1978 - IX - 7

Irigoyen, A.

Desinentziak edo posposizioak:

GRAMATIKAZKOAK: Hartzen dituztenek berboarekin numerozko edo pertsonazko konkordantzia egin behar dute, plurala eta lehenengo pertsona eta bigarrena markatuak direla. Desinentziek edo posposizioek berez ez dute ez numerorik ez pertsonarik markatzen.

Nominatiboa	—
Ergatiboa	*-k*
Datiboa	*-(r)i* **(a)**
Partitiboa	*-(r)ik* **(b)**

Nominalizatzaile diren kasuak:

Genitibo edutezkoa	*-(r)en / -(r)e* **(d)**
Genitibo leku denborazkoa	*-ko / -tako* **(e)**

Berboari begira erabiltzen diren kasuak, konkordantziarik eragiten ez dutela:

Instrumentala	*-z / -zaz* **(f)**
Soziatiboa edo komitatiboa	*-(r)ekin* **(g)**
Motibatiboa	*-(r)engatik, -gatik / -(a)rren* **(h)**
Destinatiboa	*-(r)entzat / -(r)endako* **(i)**
Prolatiboa	*-tzat* **(j)**

Leku denborazkoak

Inesiboa	*-n / -tan* **(k)**
Elatiboa edo ablatiboa	*-tik / -tatik // -(r)ik / -tarik* **(l)**
Adlatiboa	*-(r)a / -tara* **(ll)**
Adlatibo bukatuzkoa	*-(r)aino / -taraino // -ino* **(m)**
Adlatibo bide zuzenezkoa	*-(r)antz / -tarantz // -(r)at / -tarat* **(n)**
Adlatibo destinatiboa Destinatiboa	*-(r)ako / -tarako* *-ko / -tako* **(ñ)**

Desinentzia edo posposizioak artikulu gradu gabekoa izen sintagmaren mugatzaile denean

	Artikulu singularraz	*Artikulu pluralaz*
Nominatiboa	*-a-Ø*	*-ak-Ø*
Ergatiboa	*-a-k*	*-ek / -ak*
Datiboa	*-a-ri*	*-ei < -eg-i*
Partitiboa	—	—
Genitibo edutezkoa	*-a-ren*	*-en < *-eg-en*
Genitibo leku denborazkoa	*-Ø-ko*	*-etako < *-eg-tako*
Instrumentala	*-a-z*	*-ez < *-eg-(e)-z*
Soziatiboa edo komitatiboa	*-a-rekin*	*-ekin*
Motibatiboa	*-a-(ren)gatik / -a-rren*	*-ak-(g)atik, -eg-(g)atik / -engatik*
Destinatiboa	*-a-rentzat / -a-rendako*	*-entzat / -endako*
Prolatiboa	—	—
Inesiboa	*-a-n*	*-etan < *-eg-tan*
Elatiboa edo ablatiboa	*-Ø-tik / -Ø-(r)ik*	*-etarik < *-eg-tarik / -etatik < *-eg-tatik*
Adlatiboa	*-Ø-ra*	*-etara < *-eg-tara*
Adlatibo bukatuzkoa	*-Ø-raino*	*-etaraino < *-eg-taraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*-Ø-rantz*	*-etarantz < *-eg-tarantz*
Adlatibo destinatiboa	*-Ø-rako*	*-etarako < *-eg-tarako*
Destinatiboa	*-Ø-ko*	*-etako < *-eg-tako*

Desinentzia edo posposizioak artikulu gradu hurbilekoa izen sintagmaren mugatzaile denean

	Artikulu singularraz	*Artikulu pluralaz*
Nominatiboa	*-o(r)-Ø / -ori // -au-Ø / -ori-Ø*	*-ok-Ø*
Ergatiboa	*-on-(e)-k / -orr-(e)-k*	*-ok*
Datiboa	*-or-i // -on-i / -orr-i*	*-oi < -og-i*
Partitiboa	—	—
Genitibo edutezkoa	*-on-en / -orr-en*	*-on < *-og-en*
Genitibo leku denborazkoa	*-Ø-ko* (markatu gabea)	*-otako < *-og-tako*
Instrumentala	*-on-(e)-z / -orr-(e)-z*	*-oz < *-og-(e)-z*
Soziatiboa edo komitatiboa	*-on-e-kin / -orr-e-kin*	*-okin*
Motibatiboa	*-on-e-gatik / -orr-e-gatik*	*-ok-(g)atik / -ongatik*
Destinatiboa	*-on-en-tzat / -orr-en-tzat*	*-ontzat / -ondako*
Prolatiboa	—	—
Inesiboa	*-o-n*	*-otan < *-og-tan*
Elatiboa edo ablatiboa	*-Ø-tik / -Ø-(r)ik* (markatu gabea)	*-otarik < *-og-tarik / -otatik < *-og-tatik*
Adlatiboa	*-Ø-ra* (markatu gabea)	*-otara < *-og-tara*
Adlatibo bukatuzkoa	*-Ø-raino* (markatu gabea)	*-otaraino < *-og-taraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*-Ø-rantz* (markatu gabea)	*-otarantz < *-og-tarantz*
Adlatibo destinatiboa	*-Ø-rako* (markatu gabea)	*-otarako < *-og-tarako*
Destinatiboa	*-Ø-ko* (markatu gabea)	*-otako < *-og-tako*

Oharra: Artikulu singular gradu hurbilekoz gure literaturan erabili izan direnak estabilitate gutxiz mogitu dira, inesibo kasukoa kenduz gero, eta nolabait baita nominatibo kasukoa ere, era bietan eta bereziki bigarrengoa eta segidakoak.

Leku denborazko kasuak bizidunaren zentzua duen sustantiboz osaturikako izen sintagmei edo pertsona seinalatzaileei eransten zaizkienean:

Inesiboa	*-gan*
Elatiboa edo ablatiboa	*-ganik / -gandik*
Adlatiboa	*-gana*
Adlatibo bukatuzkoa	*-ganaino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*-ganantz / -ganat*
Adlatibo destinatiboa	*-ganako*

Oharrak: Desinentzien aurreko *-gan* elementua genitibo edutezkoaren gainean eraikia joan daiteke edo ez: *çuen gureganaco charitatez*, Leiz., Corinthianoe. II, VIII, 7; *Çutan dago beqhatoren sperança gucia / Ni çugana nyatorqueçu beqhatore handia*, Etxep., "Doctrina Christiana, Andredona Maria", 2; *harengana*, Leiz., *S. Ioan*, X, 41; *Iesusgana*, id. S. Ioan, III, 2.

Ifarraldean *baita-* elementua ere erabiltzen da zenbait egitura berezitan, hala nola, *errege baitarik*, Nafarroako XV-garren mendeko karta batean datorrenez; *ni baithan sinhesten duena*, Leiz., *S. Ioan*, XI, 25.

Ifarraldean, gainera, pertsona seinalatzeekin *-tan* inesiboa erantsirik baliatzen dira. Horrela Hegoaldean *nigan, zugan* eta abar esaten dugun bitartean Ifarraldean *eçagut eta sinhets deçaçuen ecen Aita nitan dela eta ni hartan* esaten dute. *Çutan* gorago ikusi dugu Etxepare-ren exenpluan.

Hala ere seinalatu beharra dago bizidunaren zentzua duen izen sintagma edo seinalatzaile orok ez duela beti elementu hau, *-gan* alegia, hartzen, direlako desinentziak atxikitzeko. Batez ere hori pluralean gertatzen da: *Iuduetaric anhitz ethor citecen Marthagana eta Mariagana*, Leiz., S. Ioan, XI, 19; *ilkiric bada deabruac guiçónaganic sar citecen vrdetara*, id., S. Lvc., VIII, 33. Baina bestelakoetan ere badira: *igorri vkan du Iaincoac bere Semea emaztetic eguina*, id., *Galatianoe.* IIII, 4; *ecen berac baçaquian cer cen guiçonean*, id., *S. Ioan*, II, 25.

Hegoaldean ere artzainak ardietara joateaz mintzatzen dira, eta ez dut uste otsotik txakurrera aldatzea ez dela erra-

za adierazi nahi badugu *otsoaganik txakurragana* esan dezakegunik, beste zerbait ulertuko bailigukete, hau da, txoria otsoaganik txakurragana joan dela egan, esaterako. Eta txakurretik txakurrera alde handia dagoela esateko ez genuke hautatuko *txakurraganik txakurragana*, ez baita berdin. Eta pertsonez mintzatzen ari garela edonoiz entzuten dugu Bizkaian zuetariko bat edo beste behar bada ez datorrela bat entzuten duen guztiaz, baina ohiturik gaude eritzi desberdinak izatera. Inoiz ene lengusu bati txoritan doala ere aditu diot, edonork esango lukeenez, baina ez zen txoriakana joan, txoriak atrapatzen baino. *Peru Abarca*-n badugu: *gorde biar zaree nescatilletaric*, ed. 1881, 107 orr.

Izan ere, alderdi batera utzirik Bonaparte-ren denboratik hona iragan den eritzia, hau da, *-gan* erdarazko *ca* delakotik datorrela, *casa* hitzaren laburpena alegia, frantsesezko *chez* bezala erabili omen zena, ene eritziz *-gan* delakoaren jatorrian *gan* sustantiboa, *gain* aldaera ere baduena eta lekua adierazten duena, dago, eta jatorrizko zentzu hori oraindik nolabait nabarmentzen zaio. Ikus Altube-k seinalatzen duenez eta bertara joanez noiz nahi entzun daitezkeen *amagañe* eta gisa horretako formak, *amagana* esan beharrean, eta baita Haranederren *Guzu izpirituala* liburua ere, *-gana* eta *-gaña* nahasirik darabiltzala. Jakina, *gan/gain* sustantiboa nondik heldu den zigur jakitera iristea ez da erraza, ordea.

Bizidunen zentzua dutenek absolutoki hartzen ez dutena genitibo leku denborazko pluralarekin ez doan eremu osoa da (1) eta *gan* dutela sekula ez dira agertzen. Horrek ez du esan nahi, ordea, edozein egituratan *-ko* delakoak, gramatikazko kasuak bakarrik alde batera utzirik, jadanik deklinaturikako edozein multzo ezin nominaliza dezakeenik, bizidunen zentzua izan edo ez izan. *Christengatico hersturetan* dsakar

---

[1] Lardizabal-ek, *Test.*, 361, *eta bere lecuan sartu zan anaya Antioco guizonic errebesena eta biurrienetacoa*, eta halakoak badakartza ere, Bizkaian Leizarragaren norma berbera erabilirik edonork *biurrienetarikoa*, forma zaharragoa, esango luke, *zuetarikoa* edo *arrantzaleetarikoa* bezalatsu. Badirudi azkenengo hauen lekua betetzeko sortu dela beste egitura eta hori horrela baldin balitz, historia zaharrari begiratzen diogula, pluralarekin doan eremua ere ez duela hartu izan esan beharko genduke. Edozein modutan ere destinatiborako ez genduke inoiz pluraldunik erabiliko bizidunen zentzukoekin, adlatiboaren gainean eraikirikakoa ez baldin bada, ikus (ñ) nota. Hala ere zenbait alderditan *-tako* destinatibo zentzuan erabiliz gainera prolatibo zentzuan ere erabiltzen denez gero, *-tzat* delakoaren esan nahi berbera hartzen duela, bizidunen zentzukoekin ere agertzen da, ikus (j) nota.

Leizarraga-k, *Corinthianoe*. II, XII, 10; eta *gure çueçazco gloriatzea alde hunez vano eztén*, id., *Corinthianoe*. II, IX, 3. Mogel-ek *Peru Abarca*-n *amasei laucoco bana* ere badugu, ed. 1881, 132 orr.

a) Bokalaren atzean baldin badoa *-ri* forman agertzen da eta kontsonantearenean *-i* bezala. Berdin gertatzen da *-(r)ik, -(r)en/-(r)e, -(r)ekin, -(r)engatik, -(r)entzat/-(r)endako* desinentziekin ere eta beti ez bada ere zenbait egituratan baita *-(r)a, -(r)aino, -(r)antz* eta *-(r)ako* direlakoekin ere.

Cfr. *Yrezat naztoana besteri ez opaesi* 'lo que para ti no quieres no ofrezcas a otro', *Refr. Sent.*, n.º 470. *Egogui machini mantua, ta ez afari guertua* 'de suyo le está a Martín el manto y no la cena aparejada', *Refr. Sent.*, n.º 160.

b) Beti erabiltzen da izen sintagma mugatzaile gabekoei erantsirik. Sekula ere ez mugatzailerik agertzen baldin bada, den esan nahirik lasaienekoa bada ere.

Cfr. *Azaga onic estau mandazaic* 'postrimería buena no la tiene mulatero', *Refr. Sent.*, n.º 302. *Asco da verbaric, ta equin dajogun aurrian oni*, Moguel, *Peru Abarca*, ed. 1881, 56 orr. *Eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan lettratu handiric*, Dechep., sarreran.

Lafon-ek seinalatu zuenez, "L'expression de l'auteur de l'action en basque", 194-195 orr., partitiboak aspaldiko garaien ablatiboaren balioa zuen. Horren aztarrenak Zuberoko eta Bizkaiko euskalkietan bakarrik ez dira agertzen, ordea, beherago ikusiko dugunez.

d) Distribuzio konplementarioa dute. Pertsona seinalatzaileekin bereziki *-(r)e* erabiltzen da: *ene/nire, neure, hire, (h)eure, zure, zeure, gure, geure*. Soziatiboa ere *-(r)e* oinharri duela eraikitzen da. *Neure* eta halakoetan uste dut *neur-* dela lehen elementua, Bizkaia aldean azken kontsonantea erorik *neu* esaten badugu ere, *hau(r), lau(r)* eta halakoetan gertatzen den bezala, cfr. *Neure onac neurc nahi ditut gozatu eta manaiatu*, Axul., 157 orr. eta *neuror*, Leiz., *Corinthianoe. II*, II, 1, *gueuroc*, id., *Apost. Acteac*, XXVII, 19, eta abar., *neur + k, neur + or, geur + ok* baitira. Bizkaian bertan ere *zeurok* dokumentatzen du Azkue-k, (B-a-o-tx), Añibarro-ren exenplu bat ipintzen duela, *Esku-lib.* 146-22.

Testo arkaiko batzutan ere *-re* agertzen da: *Lope jaun Ortire Semea* (1122-1131, *Irache*, n.º 123, bi aldiz), *Orcire*

çorita (1110, *Leire*, f. 272), baina *Orçiren çorita çaharra* (1284, Lacarra, *Vasconia Medieval*, San Sebastián 1957, 44 orr.). Etxepare-k ere badarabil: *Mossen Bernat Echeparere cantuya*, baina *Amore gogorraren despita.*

Ondore/ondoren bikoteetan fosilizaturik agiri dira bata eta bestea, baina bigarrena adberbio kutsuz ere erabil daiteke, agian azkenengo *-n* delakoak ematen dion inesibotasunagatik, eta Bizkaiko *ondorik* ablatiboa izango luke parean. Gogora ekar dezagun *-rean* Bizkaiko ablatibo zaharra, *-re + an: Ezconçea ta aguincea çeruaren jatorguz* 'el casamiento y mando del Cielo nos vienen', *Refr. Sent.*, n.º 232. *Ydia adarerean ta ta guiçona hizerean* 'al buey del cuerno y al hombre de la palabra', *Refr. Sent.*, 378, azkenengo errefraueon *-rean* osorik agertzen dela, *-e-* epentetikoa dela medio, kontsonantearen ondoan, bestela inesiboaren zentzuz hartuko baitzen.

Bizkaiko euskalkiko hizkeretan edozein egituratarako *-en* forma hutsean ere agertzen da. Cfr. *Iauxi din ezcurra oroen suegur* 'el árbol que cae de todos leña de fuego', *Refr. Sent.*, n.º 198. *Amucozco buztana dauenac suen bildur* 'quien tiene cola de estopa al fuego teme', *Refr. Sent.*, n.º 324. Baina *Eder elaea goxean cantazean, enearen canteac jo nau biozean* 'en el canto de la mañana hermosa la golondrina, el canto de la mia me ha herido en el coraçon'm *Refr. Sent.*, n.º 517. Eta jakina, *nire, zure* eta abar.

e) Distribuzio konplementarioz erabiltzen dira. Izen propioetan, mugatzailerik ez dutela, beti *-ko* agertzen da kasu horretarako, hala nola *Bilboko kaleak, Igorrekoak*. Beste izen sintagmetan *-ko* eta *-tako* ager daitezke, zentzuaren aldetik artikulu singularrarekin zer ikusirik ez dutela.

Cfr. *Eta baldin vngui badaguieçue çuen vnguiguiley, cer esquer duqueçue? ecen vicitze gaichtotacoec-ere bere onhesleac onhesten dituzté*, Leiz., *S. Lvc.*, VI, 33. *Gueroco berriac*, Lardizabal, *Test.*, ed. 18, 334 orr., *gero* hitzak, adberbioa den aldetik, artikulurik eta bestelako mugatzailerik hartzen ez duela, eta berdin gertatzen da *non, inon, noiz, hor, atzo, bihar* eta abar hitzekin ere. Gure artean, ordea, mendebal aldean, gorago aipatu den Leizarraga-ren testoan datorren *bicitze gaictotacoec-ere* delakoa *bizitza gaiztokoak ere* gisakoa esango genduke zentzu berean, artikuluz mugatu nahi bagendu forma berbera erabilirik, hau da, mugatzaileduna eta mugatzaile gabea berezi gabe. Lekeition, esaterako —eta mendebal

aldean behintzat hala da edonon– *ate biko etxía, bi* numerala mugatzaile duela, berdin itzuli daiteke erdarara '(la) (una) casa de dos puertas' zein 'la casa de las dos puertas', eta *iru ateko etxía* '(la) (una) casa de tres puertas' zein 'la casa de las tres puertas', eta inork ez du esaten **ate bitako etxía* ez **iru atetako etxia* (2), **urte bitako semia* edo **iru urtetako semia ere* esaten ez duen bezala, eta erabiltzeko modu hori agian tradizio zaharrari dagokio. Alabaina mundu guztiak *hiru etxetatako ateak* esaten du edo *hiru etxeetako ateak* –Lekeition *iru etxíetako atiak*–, artikulu plurala duela, eta ez **iru etxeko atiak*, 'hiru etxedun ateak' ulertzeko arriskua izango bailuke logikaren aldetik bihurri samarra ez balitz. Lardizabal-ek *...ezcondu zan amasei urteco nescach Ana ceritzan batequin* dakar bere *Test.*, ed. 18, 387 orr.

Gure artean, ordea, zenbait egituratan *-tako* erabiltzen da inolako mugatzailerik gabe, hala nola *gerizpetakoa* - Aulestin *géisetaku(e)*–, *ilunpetakoa, uretakoa, eguzkitakoa*, eta abar. *Eztaucat bada almorzutaco gogo andiric* dio Maisu Juanek *Peru Abarca*-n, 1881, 119 orr.

Zenbait lekutan partizipioari ere *-tako* eransten zaio, eta *etorritako laguna* edo *etorritakoa* egiten da, baina Arratia aldean *etorrikoa* esaten da, zenbait testotan *etorririkoa* edo *etorririkakoa* ere den bitartean, ablatiboaren gainean eraikirik. Aulesti eta inguruetan *etorriniku(e)* da, baina *arek estáuko setan etorririk.*

Zentzuaren aldetik artikulu singularrez mugatua sentitzen dugunean ez da sekula inongo eskualdetan artikulu singularraren markarik ipintzen *-ko* desinentzia baldin badator ondoan. Horregatik *-tako* markaduna artikulurik ez dagoela adierazteko hedatzen joan den forma da, hedadura osoa izatera iritxi ez bada ere. Ikusi dugunez erabiltzeko modu zaharrarekin txandakatzen da, distribuzio konplementarioa duela, alderdi guztietan distribuzio hori beti berdina ez bada ere.

f) Distribuzio konplementarioz erabiltzen dira.

Pertsona seinalatzaileekin *-zaz* agertzen dantuya'', 15, *guçaz*, Leiz., *Corinthianoe.* I, IIII, 1, *cueçaz*, id. *Romanoe.*,

---

[2] *Iru atetako etxía* Lekeition '(la) (una) casa de tres portales' da, zeren *ateta* 'portal' zentzua hartzera iritsi baita. *Ate* hitzak inesiboan mugatzailerik gabe *atetan* egin zuen eta hortik heldu da gero *ateta*, artikulua eranstean *atétia* bihurturik.

XV, 24. *Zer, nehor* eta halako formek ere hartzen dute, hala nola, *cerçaz,* id., *Romanoe.,* XV, 17, *nehorçaz,* id. *Corinthianoe.* I, II, 15. Gradua duten seinalatzaileek txandakatu egiten dituzte eta biak ager daitezke, hala nola, *huneçaz,* id., *Corinthianoe.* I, IIII, 4, baina *mundu hunez,* id. , *Corinthianoe.* I, VII, 31, *hire eçagutze horreçaz,* id., *Corinthianoe.* I, VIII, 11, *harçaz,* id. *Romanoe.,* XI, 36, *eta guc ekarten draucagu testimoniage erraiten ditugun gauça hauçaz,* id., *Apost. Acteac,* V, 32, *heçaz,* id. *S. Lvc.,* XXIIII, 35, *Spiritu harçaz beraz,* id. *Corinthianoe.* I, XII, 9, beina *hayez,* Etxep., "Emazten fauore", 3. Bizkaiko eta Gipuzkoako testo zaharretan ere agertzen dira zenbait, hala nola, *gracija santutuguille edo santificante onezaz ostian dago beste bat,* Aita Fr. Pedro Astarloa, *Urteco domeca...,* 1816, I lib., 123 orr. *erruqui guzaz,* id., XXXXVIII orr, *cezazcua da?,* Moguel, *Peru Abarca,* 1881, 117 orr., eta oraintsu Satrustegi-k argitara duen Bizkaiko kanta zahar batean *niças dator errepikan, FLV* (1978), *zuzaz cansatu gabe,* Kardaberaz, *Christavaren bicitza,* lan osoak, 110 orr. *orrezaz, oriezaz,* id., *Egercicioac III,* 305 orr., eta egunoro entzuten ditugu hizkuntza mintzatuan *onezkero honez gero* eta *arrezkero* < *harrez gero* formak ere. *Askozaz (h)andiagoa* ere entzuten da Bizkaian.

Axularrek *-tzaz* erabiltzen du. Tartas-ek, *Onsa...,* *-tzaz* eta *-taz* nahasian, *nitçaz, orotçaz, RIEV* 1908, 581 orr., *horietçaz, hitz hunez,* id. 570 orr., baina *cutaz, nitaz,* id., 1907, 195 orr. Joannes d'Etcheberri medikuak, ordea, *-taz,* agian *nitan* eta halakoen eredua eremua irabazten joan zelako Ifarraldekoen artean, *hetaz* 81 orr. *hautaz,* 82 orr., *hunetaz,* 88 orr., *hortaz,* 76 orr., *hartaz,* 83 orr. *Ziberouko Egunaria*-k, 1901, *nour da hortaz orhitzen,* 91 orr., eta *daigun ourthian mintzatuko gira armanak hountan eritarzun horrez,* 95 orr.

Inolako dudarik geldi ez dadin gradua duten seinalatzaileen singulartasuna edo pluraltasuna eta baita *zuek* formaren plural markatua ere seinalatzaileei berei dagokiela eta ez desinentzia edo posposizioari adierazi nahi nuke, gauza argia bada ere.

Euskal Herri osoa hartzen duen tradizio zaharrari jarraitzeko *-zaz* forma egungo literaturarako hobetzat hartzea izango litzateke egokiena, *-taz* delakoa dagoeneko sustraiak sakonegi eginik hedatu ez baldin bada.

Beste egituretan *-z* hutsa erabiltzen da: *eta hitz eztiz eta lausenguzcoz simplén bihotzac seducitzen dituzté*, Leiz., *Romanoe.*, XVI, 18. *Bata lu idorrez, berçia itxassoz*, Tartas, *Onsa...*, *RIEV* (1907), 29 orr.

g) Hau da literaturan dabilen formarik hedatuena.

Cfr. *Bada nehorc ezteçala hura menosprecia, baina guida eçaçue baquerequin, dathorrençát enegana, ecen haren beguira nago anayequin*, Leiz., *Corinthianoe.* I, XVI, 11, *baquerequin* mugatzailerik gabe datorrela, Ifarraldeko geroagoko literaturan ere agertzen den bezala. *Emazteac-ere abillamendu honestez ahalquerequin eta modestiarequin acotra ditecen*, id. *Timotheo.* I, II, 9.

Bizkaiko hizkeretan gehiago erabiltzen da *-gaz*. *Peru Abarca* delakotik, ed. 1881, biltzen dugu: *lotsatuten nozu onembeste aparigaz*, 112 orr. Berez instrumentalaren jatorrikoa da.

Etxepare-k *-ki* eta *-kila* ditu: *Minzaceco çurequila gau bat nahi niqueci... Eceyn ere veldur gabe egoyteco çurequi*, "Amorosen partizia", 5. Erronkarin ere *-ki* dugu: *Ni nago osagarriz beterik, eztud ñontik minik sendi, chakur inzlari aztandagonaren bikainbat ssateko ganureki*, Mendigatxa, *Euskera* (1957), 126 orr. Zuberoan badira *-ki, -kila* eta *-kilan: impossible baita elguarrequila egon ditian*, Tartas, *Onsa...*, *RIEV* (1909), 561 orr., *hartz bateki etchez etche zabilan gizoun batek bere bizia irabazten zian lagunaren jaoz eraztez jenten aitzinian, Ziberouko Egunaria*, 1901, 101 orr.

L. Mitxelena-ren eritziz "Com. *-kin, -ki* 'con' < *-kien*, que en d'Urte alterna con el más frecuente *-kiñ* < **-kide-n* 'en compañia de' ", *FHV*, ed. 1961, 5.10, 122 orr., "El suf. de sociativo *-ki(e)n/-ki*, y *-kila*, que se supone procedente de *(k)ide*, provisto o no de la desinencia *-n* de inesivo (o alternativamente de *-la*)", id, 15.7, 308-309 orr. Jakina *-kilan* delakoan ere inesibo fosilizatua dugu, Bizkaian *alan* gisako formekin gertatzen den bezala bezalaxe, beste euskalkietan *(h)ala* eta abar, *-la* dutela eta ez *-lan*.

h) L. Mitxelena-k seinalatu zuenez *-gatik* eta honek dituen aldaeren jatorria *gai* sustantibo deklinatuan aurkitu behar da: "*-gati(k)* 'por causa de' (mer. *-gati, -gatika*), pero vizc. *-gaiti(k)*, sin duda de *gai, gei* (cosa, materia', cf. el uso pospositivo de lat. *causa* en abl.".

Distribuzio konplementarioa dute *-gatik* eta *-rren* direlakoak.

Bizkaiko autore zaharretan sustantibo berbalekin *-rren* dokumentatzen da: Cfr. *Ongo dot hoera afalçaga jaquiterren zor baga* 'bien me sera a la cama sin cenar por leuantarme sin deuda', *Refr. Sent.*, n.º 430. Egun *ja(i)gitearren* esango genduke artikulua erantsirik, *jaikitzeagatik* formaren zentzu berberean eta bigarren honek ere artikulua darama.

Partizipioen ondoan ere erabiltzen da, beti artikulua duela: *naya euguiarren gurari gueyago dogo arten* 'por tener lo que queremos mas desseo entonces tenemos'. Etxepare-k berak ere badakar -gatic formarekin txandakatuz eta zentzu berean: *Bera handi içan arren preciacen chipia,* "Amorosen gaztiguya", 10, alderdi batetik, eta *Pot bat niri eguinagatic ecin duque laydoric,* "Potaren galdacia", 3, bestetik. Halako kontestoan mendeko kontsesibo kutsuz sentitzeko joera dute biak, baina *-rren* delakoari dagokionez badira kutsu hori ezin izan dezaketen testoak.

¿Cer esango litzate enzungo balitz baserritar batec bedeincatuten dabela maija, ez jaquinarren Barberu ain apaindu ta Madrilen urtiac eguin ditubanac? dio Peru-k Mogelen liburuan, ed. 1881, 56-57 orr. eta Txomintxu-k ipuinean *Guichiarren ni illa / Iza-ez naz coipetan,* 102 orr., *-arren* berrekailuan artikulua fosilizaturik dagoela, egun *gitxigaiti(k)* esango baikenduke Bizkaian.

Berbo flesioari erantsirikako berrekailuz nominalizatzen den frasearen ondoan ere agertzen da, hala nola, *Gazte çoroa nyçan arren enuqueçu hargatic,* Etxep., "Amore gogorraren despita", 2; *guezur hori nahi becen ongui phensatua eta pagatua cen arren, osoki mainkhua cen,* Etcheberri, *Test.,* Bayonan 1874, 275 orr.; *aceriac buztana jauso eçin ta vay gabia, andidanarren yndarra nagusi jaquiteria,* 'el raposo la cola no puede sostener y si el mazo, por ser en si grande la fuerça mayor es la sabiduria', *Refr. Sent.,* n.º 27, hirurak mendeko kontsesibo kutsuz. Bada, ordea, kutsu hori ez duen testorik ere, *Gomez andia çanarren / An çan Presebal bere, / Bay Joanicote bere, / Magdalenaan an ey dauça / Viola tronpeta bague,* dio XVgarren mendean Mondragoe erre zeneko kanta zaharrak, ikus Mitxelena-ren *Textos arcaicos vascos,* Madrid 1964, 2.1.7, 83 orr., baina inork ez ditu erdarara ondo itzuli lehen lerroak —Mitxelena-k testoa aldatzea propo-

satzen du, gugana aldaturik iragan zitekeelako agian—. Honela egin daitekeela uste dut: 'Porque Gomez era grande allí estaban tanto Presebal como Juanicote' eta ez dago testorik aldatu beharrik. Badira, ordea, halako egitura izanik beste aldaera daramaten testoak ere: *inhardetsi on bat erran gaxto bati, guti da gosta, anhitz balio duenagati'*.

Oihenart, n.º 632; *Zeren oraiño, zahar naizenagatik, bizi naiteke gehiago ere,* Axular 130, biak mendeko kontsesiboaren kutsua hartzen dutela. Hurrengoak ez du, ordea, halako kutsirik: *eta errecibitu duen adımendua emplega deçan gatic eman dio trabailua*, Etcheberri medikua, 102 orr., artikulurik hartzen ez duela subjuntiboaren ondorik datorrelako.

Bizkaiko testo zaharretan *zerren* ere erabili izan da *zegaiti(k)* formaren ondoan, egun zeharo arkaikoa bada ere hizkuntza mintzatuan. *Zegaiti(k)*, ordea, galderetarako erabiltzen zen, orain bezala, eta *zerren* anaforiko bezala, mendeko kausalak hizkuntza romanikoen eredura egiteko. Lapurdiko testoetan *zeren* forman korritzen du egun ere. Inoiz edo behin galdetzaile bezala ere dokumentatzen da: *eta baldin eguiá erraiten badut, ceren çuec eznauçue sinhesten?*, Leiz., S. Ioan, VIII, 46; *çeren hori? çeren arima honac, ardura ardura beré hilciaz orhituric, edirenen baitiru...*, Tartas, *Onsa..., RIEV* (1909), 575 orr., bi aldiz agertzen dela, kasu bakoitzean funtzio desberdina beterik.

Egungo hizkeretan, fosilizaturik, beti *-arren* agertzen da eta ez du artikuluaren bidez singularraren eta pluralaren arteko oposiziorik markatzen. Ez zaio, gainera, beste mugatzaileri gehiago eransten, lehen ikusi dugun *gitxi* erarekin gertatzen den bezala edo bat formari berreturik *Refr. y Sent.* delakoan, n.º 105, agertzen den bezala: *Baterren bestea do anaje* 'vno por otro es hermano'.

Mendebal aldean dugun distribuzioa honela da: partizipioaren eta sustantibo berbalaren ondorik *-arren*, besteetan *-gatik* gisakoa. Beste alderdietan bigarrena zabaldu da denerako. Hala ere, Bizkaiko eta Lapurdiko tradizioan bederen, nominalizaturikako frasearen ondorik ere agertzen da eta egungo literaturan bere bidea egiten ari da, mendeko kontsesibo kutsua hartzen duela bereziki.

Bizkaiko alderdi batzuetan zenbait forma erdi fosilizatuk ere irauten du, hala nola Lekeitioko *pozárren jungo nín-*

tzateke edo *Jangoikuan amóriarren.* Ikus testo zahar batean: *Pecatu mortaleen bat echi badidi confessadu baga acordaduric locearren edo bildurrarren eguingo da confessiñoe hona? VJ*, XVII-garren mendeko dotrina, *BRSVAP* X (1954), 92 orr. (ed. Mitxelena).

Ifarraldean *arren* formak konjunzio bezala irauten du: *Batbatetan dügü arren / karraska gaitza entzüten.* Junes Casenave, *Santa Grazi pastorala*, Oiñati 1976, 116 orr. eta Euskal Herri osoan 'otoi' bezala ere erabili izan da. Fosilizatu den neurrian hastapeneko *h-* gabe agertzen da orain, baina Etxepare, Leizarraga ta Oihenartek bederen *harren* ematen dute, *hargatik* bezalatsu: *Harren bier emanen du sentencia piçuya*, Etxep., "Iudicio generala", 5; *...eta çazpigarren egunean repausatu içan duc. Harren, benedicatu dic Iaunac sabbath eguna*, Leiz., *ABC, lehen tavla;* eta *Harren gaurgoiti zerbait hongoaz / urgatz nezazu Jaungoikoaz*, Oihen., *Gaztaroa neurthitzetan*, V.

i) Lehenengoa hedatuagoa bada ere bigarrena Bizkaiko zenbait alderditan erabiltzen da eta baita Ifarraldean, autore zaharretan dokumentatzen dela, hala nola, *hobe duc hiretaco gal dadin hire membroetaric bat eta eztadin hire gorputz gucia egotz gehennara*, Leiz., *S. Matthev*, V, 29; *Beryarequi daçanian enetaco aycia*, Etxep. "Ezconduyen coplac", 4; *Neuretaco eztaçagut çu nolaco amaric*, Etxep., Amorosen gaztiguya", 34.

Genitibo edutezkoaren gainean eraikitzen dira biak.

Zenbait tokitan *-tzako* ere erabiltzen da. Jakina *-(r)entzat* formak *-ko* genitibo nominalizatzailea hartzen baldin badu atzean normala da, hala nola *semearentzako liburua galdu egin da*, edo *semearentzakoa*, artikulu singularraren gainean eraikirik.

Desinentzia edo posposizio hauk edozein izen sintagmari erantsi dakizkioke, haren sustantiboa esan nahiez bizidunei badagokio nahiz ez badagokio, genitibo edutezkoarekin gertatzen den bezala bezalaxe.

j) Prolatiboa beti inolako mugatzailerik gabe erabiltzen da. Horrek ez du esan nahi, hala ere, *asko* edo gisa horretako hitz batek ezin har dezakeenik, hartzen baldin badu ezin egin dezakeela mugatzaile funtziorik baino. Hau da: *askotzat du* frasea zuzena bada ere ezin esan dezakegu, ordea, **ardi zuri*

askotzat, baina bai *ardi zuritzat hartu du*. Haurra Lardizabalen testo bat: *Esdras-ec langai au eguinda laster ezagutu zuen Israel-tar ascoc beren odoleco etciran emacume atceac emaztetzat artu cituztela, Test.*, ed. 18 , 357 orr.

Eguzkialdean *-tako* formak korritzen du zentzu berean, destinatiborako erabiltzen den berbera. Azkue-k hiztegian dakartza: *uhuiñetako dizie* (S), 'le tiene por ladrón', *sorgintako diaukine* (BN-s), 'la tienen por bruja', *amartako dakei* (R). Ikus Mendigacha-k dakarrena: *chirikotaz gizentantei cheriak; eta bai emoitendei ere erremediotako anich eriri*, cfr. *Euskera* (1957), 136 orr., destinatibo zentzuaren inguruan kontestoaren arauera.

Batzutan *-tzat* nominalizatzaile den *-ko* delakoaren ondoan ere agertzen da, hala nola *mutiko hori etxekotzat dute*. Baina Ifarraldean *-ko* delakoak destinatibo zentzua hartzen duen egituretan zentzu hori indartzen du, hala nola, *ezta lurrekotzat, ez ongarricotzat deusgay*, 'neque in terram, neque in sterquilinium utile est', Leiz., *S. Lvc.*, XIIII, 35. Gure artean ez da, ordea, horrela. Destinatiboa *-ko* edo *-rako/-tako* edo *-tarako* formetan ager daitekeenez gero *egiteko, etxerako* eta halakoak ditugu. Hortik *egitekotzat gelditu ginen* sor dezakegu, alderdi batetik —eta ez da berdin *egiteko gelditu ginen*, zeren *egitekotzat* baldin badiot badirudi besteek asmo ezkuturen bat zutela eta itxuraz bakarrik gelditu ginela egiteko—, eta bestetik *ene emazteak erosi zuen hori etxerakotzat neukan, baina ez da etxerako.*

Frase nominalizatuei erantsirik *-tzat* hutsa erabiltzen zuten Ifarraldeko autore zaharrek: *quiçonei barur aiçela aqueri ezakientzat*, Leiz., *S. Matthev*, 18. Egun *ageri ezakien* besterik ez genduke esango zentzu berberean. Berdintsu gertatzen da *-raino* eta *-ino* direlakoen distribuzioan. Jakina, ez da berdin *ez dakienarentzat* esatea, hor *ez dakien pertsonarentzat* baita.

k) Ikus (h) nota, *-ko / -tako* delakoez ari dena.

Distribuzio konplementarioz erabiltzen dira.

Leku izen propioetan, artikulurik agertzen ez baldin bada, *-n* hutsa eransten da, hala nola, *Bilbon, Madrilen*, eta abar.

Pertsona izenak baldin badira, ordea, desinentziaren aurretik beti *-gan* elementua ipintzen da eta gero leku denbo-

razko edozein desinentzia eta inesiboaren kasuan *-n* hartu behar duenez gero berdin gelditzen da, *-e-* epentetiko baten bidez *-ganen egin gabe, agian azkenengo *-n* horrek jatorriz zentzu hori bazuelako, gero beste desinentziak ipintzeko kendu ez bada ere. Berdintsu gertatzen da *(h)an* adberbioarekin. Argi eta garbi dago *(h)a(r)* seinalatzailea inesibo kasuan besterik ez dela. Baina gero beste kasuak hartzeko *(h)andik* alderdi batetik eta *(h)ara* bestetik egiten du. Bada, ordea, *arik* ere, cfr. *aric etorrico da vici ta illai epaija emotera*, Mogel, *Peru Abarca*, ed. 1881, 162 orr.; eta baita Etxepare-ren hurrengoa ere: *Hariqueta dançuteco sentencia gaynian*, "Iudicio generala", 23, *Hariqueta* forma oraindik Bizkaian entzuten den berbera dela. Jatorri berekoa da *(h)on-* seinalatzaileen hastapeneko elementua, nominatibo kasua alderdi batera utzirik beste egitura guztietan agertzen dena, *(h)or-* delakoarekin alternantzia eginik, denboraren buruan graduz bereztera heldu direla, cfr. *neuror, neurorrek/neronek* alderdi batetik, eta *euror, eurorrek/heronek* bestetik, beste leku batean dokumentatzen ditugunez. Baina honezaz beste nonbait luze tratatzen dut eta hor utziko dut.

Sustantibo berbalek ere *-n* hutsa hartzen dute, hala nola, *egiten, jaten, etortzen, barkatzen,* eta abar. Badira, ordea, hizkuntzan beranduago sortuak, artikulua daramatela agertzen direnak, hala nola, *egitean, jatean, etortzean, barkatzean,* baina nolabait zentzu desberdina hartu dute eta egun biak diraute, bakoitzak bere eremua zaindurik.

Badira, hala ere, mugatzailerik gabeko bestelako formak, txokoren batzutan irauten dutenak, hala nola, *beárren* 'lanean', *itáurren* 'idi aurrean', *atxúrren*, eta abar, Arratian, beti berbo flesio baten mende erabilirik, *egiten* eta halakoak bezalatsu. P. Lafitte-k ere aipatzen ditu banaka batzu bere gramatikan, 2.º ed., 1962, 59 orr., *etchen, ihizin, iraulden, haintzurren,* azkenengo hau Arratiako *atxurren* berbera. Zuberoan *etxen* mugatzailerik gabekoa erabiltzen dute. Berdin gertatzen da *gañen* formarekin: *zerbait sinheste badie Jinkoaren manietan gañen, Ziberouko Egunaria,* 1901, 82 orr.

Aurrean gradu gabeko zein gradu hurbileko artikulua, bietarik bat eraman dezake, hala nola *goizean* edo *goizeon*, bigarrena egungo egunez besterik ezin izan daitekeela, *goi-*

zean, ordea, edozein egunetarako erabilirik, baita egungorako ere. Ikus Axular, 142: *...eta gero orai, arratseon, atrapatu zareneon, gehiago ezin daidizunean, nahi duzu baketu eta adiskidetu?*

Artikuluduna den *-an* forma, ordea, leku denborazko beste kasuen artean erabiltzen da. Hei, alabaina, artikulu singularrik normalki berretzen ez zaienez gero, nahiz eta balute bezala har ditzakegun, artikulurik ez dagoela markatu ahal izateko aurrean *-ta-* elementua eransteko joera zabaltzen joan da. Besteon eraginez inesiboa ere kutsaturik gelditu da eta horrela *-an* delakoa desinentzia hutsa balitz bezala hartu izan da, mugatzailerik gabekotzat ere inoiz besteak bezala erabilirik, ondoan *-tan* ere baduela. Horrela esplikatzen da Lardizabal-ek, exenplo baterako, dakarren *urte ascoan seme gabe egon ciran, ikus Test.*, ed. 18 , 387 orr., guk Bizkaian *urte askotan* esango gendukeela.

Problema berbera dugu *bat* mugatzaile singularrari eransten zaion desinentziarekin ere, Bizkaiko hizkeretan gertatzen ez dena. Mendebal aldean *bat* formari *-n* inesibo zaharra eransten diogu eta horrela *etxe baten* gisakoak erabiltzen ditugu eta artikulua behar duenean *batean*. Aurten Iruñean egin den Udako Euskal Unibertsitatean Txillardegi aurrean nuela hainbat euskalduni galdetu nien nola esango zuketen bakoitzak bere jatorrizko hizkeran hurrengo frase hau: *allí se ven dos casas, en una vive Peru y en la otra Juan*, eta bizkaitar gehienek gisa honetako erantzunak eman zituzten ia beti bazilaziorik gabe: *han etxe bi ikusten dira, batean Peru bizi da tta bestean Juan.* Beste alderdi batetik: *en una cosa* nola den galdeturik, *etxe baten* erantzuten zuten bazilaziorik batere gabe. Ondarroan eta Motrikun, ordea, beti *baten* esaten dute. Beste batzuren artean, ordea, Bizkaiko hizkeretarik kanpo batez ere, denerako *batean* hedatu da eta Ifarraldean bertan ere zabal dabil, cfr. *han zauden othoitzean etche bateco sala gora batean,* Etcheberry, *Test.*, Bayonan 1874, 280 orr. *Batetan* mugatzailea, *baten* baino berriagoa dudarik gabe, batez ere Zuberoaldean erabiltzen da, hala ere. Baina ezin utz dezaket bertako hurrengo testoa aipatu gabe: *ene etchiaren aldia datekianian heben nagoelarik, zist! jaozi baten sarthuko nuzu barnerat, Ziberouko Egunaria,* 1901, 103 orr. Ez dut uste Bizkaiko influentziaz izkribatua dagoenik, ezta inola ere. Ikusi dugunez *gañen* normala baldin bada,

zergatik pentsatu behar dugu *baten* ez denik? Behin baino aurkitu ez dudanez gero bildur naiz, ordea, erratua ote den.

Gure artean ezaguna denez Ifarraldeko autore zaharrek *hodey batetan*, Leiz., Apocalyp., XI, 12, *mendi batetara*, id., S. Ioan, VI, 3, *labe handi batetaco kea*, id., *Apocalyp.*, IX, 2, eta horrelakoak erabiltzen dituzte, baina beste alderdi batetik; *eta mathela batean ioiten auënari, para ieçóc bercea-ere*, id., *S. Lvc.*, VI, 29, argi eta garbi artikulua duela *batean* delakoak. Beste alderdi batetik *gentilequin batean iaten çuen*, id., *Galatianoe.*, II, 12. Mogel-ek ere *Peru Abarca*-n berdintsua dakar, artikulurik gabekoetan beti *baten* erabiltzen badu ere: *olluac carcarassaz astiaz batian*, ed. 1881, 116 orr. Axular ere Leizarraga-ren bide beretik zebilen.

Mendigacha erronkariarraren kartetan adlatiboa artikulu singularra aurrean duela agertzen da, cfr. *mai peara egosstendaizk carta guciuak, Euskera* (1957), 148 orr. Hori horrela izanik, *bata* forma *berzia* formari oposatzen zaiola, lehenengoa ablatibo kasuan eta bigarrena adlatiboan, artikuluz orniturik erabiltzen du ablatibo kasuan dagoena ere, beste alderdietako euskaldunontzat bitxi egiten dela., cfr. *nik antzineko ilabetian eskribitunaun cartan, erran naun, merchedez, eskribilaztadala mutatancenian leku batarik berciara, ssakintzadan nora biardazkadan oiltu cartak*, id., 143 orr. *leku batarik berziara* dator 142 orr., ere, aurreko hilabetekoan.

Literatura hizkuntzarako zein norma hartu behar genduke, ordea? Beti *batean?*, ala *batetan* eta *batean* berezirik?, ala *baten* eta *batean* berezirik? Zaharrena dudarik gabe *baten* da, gero *batean* formarekin txandakatuz iraun duena. *Batetan* eta horrelakoak, ordea, autore zaharren zigilua baldin badute ere, ez daude egungo hizkuntza mintzatuan hedatuegiak. *Baten* delakoa erabiltzen dugunok, ordea, *batetik, batera*, eta abar, formei heltzen diegunean ez dugu artikuludunen eta gabekoen artean bereizkuntzarik egiten, *goizean, goizeon* delako inesiboetan gradua berezirik, beste kasu leku denborazkoetan inon bereizten ez den bezalaxe. Beste alderdi batetik ni bildur naiz *batetan* eta halakoen norma, Ifarraldeko autore zaharren bideari heldurik, darabilen askok, gehienek edo denek ez esateagatik, ez ote lukeen egungo egunean idatziko *matraila batetan jotzen hauenari jarri iezaiok bestea ere*, Leizarraga-k egiten ez zuen bezala. Ez dut uste, hala ere, anfibologia horiek ezin hitz egitera eramango gaituztenik,

ezta gutxiagorik ere. Hon da, alabaina, hizkuntzaren itzulinguruak behar den bezala ezagutzea eta gehien komeni zaizkigunak hautatzea, denok era berean eta zuzen erabiltzekotan.

l) Distribuzio konplementarioz erabiltzen dira.

Ablatibo zaharrak *-tarik* forman nolabait iraun badu ere *-(r)ik* itxuran zenbait egituratan bazterretan besterik ez da agertzen, *-gan-* elementuaren ondoan ez baldin badator. Bizkaian, esaterako, *ordurik ona, atxinerik, aren ondorik, danerik* eta horrelako hainbat entzuten dira. Autore zaharretan egun erabiltzen ez diren asko datoz, ordea: *eta çuetaric Macedoniarat iragan, eta harçara Macedoniaric ethorri çuetara, eta çueçaz guida nendin Iudeara*, Leiz., *Corinthianoe*. II, I, 16; *Noric ecarri dous (sic) pastelhoc? Vrian dan pastelerea garuienerean* 'De donde truxistes estos pasteles? De la mas limpia pastelera que ay en la ciudad', Micoleta, ed. 1897, 28 orr., *-rean* Bizkaiko ablatibo arkaikoa ere agertzen dela; *Betor edaten beste beyñatan calabriada-reonic*, id., 29 orr., biak geminaturik agertzen direla eta lehenengoak artikulu hurbila duela: *Angoac edo dira pinturoc edo erretratuoc. Bassuoc; seren besteoc dira Ytaliaric etorriac* 'tambien deuen de ser de allá los lienços o pinturas o retratos. Algunos dellos; otros son de Ytalia', id, 26 orr., *bassuoc* hitzak artikulu plural hurbila daramala, *besteoc* bezala, hitz biak oposaturik.

Ifarraldeko autoreetan *-tarik* eta *-ganik* da normala egungo egunean ere eta Bizkaian ere zabal ibili da eta nolabait irauten du. *Eta guciéc vianda spiritual ber batetaric ian dutela*, Leiz., *Corinthianoe*. I, X, 3; *eta batheyatzen ciraden harenganic*, id, *S. Matthev*, III, 6; *Narea onaganic ezta gauza gassoric* 'de buen linage no ay cosa peruersa', *Refr. Sent.*, n.º 303; *Mutil ysi eguissu atea guilsas, serren ate ysietaric biorten da diabrua* 'muchacho çierra essa puerta con la llaue, que a puerta çerrada el diablo buelue', Micoleta, id., 30 orr.

Bizkaian eta Zuberoan *-tik* delakoak *-ti* aldaera du eta XVI-garren mendean Bizkaian *-rean*, gorago ikusi dugun berrekailu arkaikoa, eta *-ti* formen artean aldea zegoen zentzuaren aldetik, lehenengoak nondik abiatzen den eta bigarrenak nondik iragaiten den adierazirik, nolabait esateko. Gipuzkoako zenbait lekutan *-tikan* erabiltzen da eta bertsolariek komeni zaienean bertsoetan sartzen dute. Inesibo fosilizatua du azkenean eta bertsolarien artean inoiz edo behin *-tika* ere entzuten da, puntuak eskatzen baldin badu.

Mitxelena-k seinalatu zuenez *-tik* forma *-ti* eta *-ka* sufixoa besterik ez da —Landuchio-k *-gatika* eta *-gati* du motibatiborako, gorago ikusi dugunez—, *FHV*, ed. 1961, 12.10, 236-237 orr., gero *-tik* itxuran gelditurik, *-(r)ik* bezalatsu.

Uste dut hizkuntza batuan *-tik* alderdi batetik eta *-tarik* eta *-ganik* bestetik erabil daitezkeela norma bezala, horrela tradizio zaharra neurri batean berriz bizturik galdu edo erdi galdu den lekuetan eta gorde denetan indarturik.

Hala ere gerta daiteke *gazterik* edo *mendirik mendi* edo horrelako hitzen batek edo bestek Euskal Herrian aski indar izatea irauteko eta hori gero ikusiko litzateke.

Bada, ordea, *-danik* ere zenbait egituratan, flesio berbal baten gainean eraikia eta fosilizatua. Ikus adlatibo bukatuzkoari dagokion (**m**) nota.

ll) Inesiboaren oharretan ikusi dugunez Erronkarin adlatiboa artikulu singularra erantsirik erabili izan da. Zuberoan beste horrenbeste gertatzen da *-tara* erabili behar ez denean agertzen den *-la* berrekailuarekin, artikulu singularra eraman baitezake: *geroztik adichkide zaharraren errana jin zeit hanitchetan gogoala, Ziberouko Egunaria,* 1901, 91 orr., baina *holakobat jin zen aldibatez Hendaia herrila gaiaz,* id., 102 orr., eta *joan ninzan behin Uskal Herriko chokobatetara,* id., 90 orr., eta *bi begietara so jarri zeitan adichkidia,* id., 91 orr.

Bestela Euskal Herri osoan era berean erabiltzen da desinentzia hau.

Gehienetan kontsonantearen ondoan etorriarren *-ra* forman agertzen da, hastapeneko *-r-* eta guzti, zeren bestela, hura gabe, *-a* hutsa geldituko bailitzateke eta artikulu singularlartzat hartzeko arriskua izango bailuke. *Lurra* forma, esaterako, artikuluduna dugula, *lur* hitzari *-e-* epentetiko baten bidez *-ra* eransten baldin badiogu *lurrera* sortzen zaigu eta ondo bereizirik gelditzen dira biak, artikulu husa duen nominatiboa eta adlatiboa. Hori egitea, *-e-* epentetikoa eranstea alegia, ez da beharrezko, ordea, *-gan* elementuaren ondoan datorrenean eta horrela *-gana* forma zaharrak irauten du Euskal Herri osoan, cfr. *aitagana* edo *aitarengana,* eta ez * *ganera,* Bizkaian *gan* hitza, sustantibo gisa darabilgunean baino esaten ez dugun era berriagoak.

Dirudienez *-e-* epentetikoa erabiltzeko ohitura beste egitura batzuetara ere hedatu da eta horrela, bereziki mendebal aldean, *onéri, orréri, aréri* eta abar erabiltzen ditugu, *oni, orri* eta *ari* zaharragoen ordez, *areri*, seinalatzailea datibo kasuan, eta *-ari*, artikulua eta datiboaren desinentzia, ondo berezirik: *aréri gisónari* alderdi batetik, eta *gisónari* bestetik, egungo hizkuntza mintzatuko usarioa baino biltzen ez dudala, Aulestiko azentua markaturik.

Leku izenetan ere berdintsu gertatzen da. Etcheberri medikuak dio: *handic iragaiten da Semperera, guero Azcaina,... handic Cambora, eta Vztaritça,* 79 orr. Egungo egunean askoren joera da, ordea, *Azkainera* eta *Uztaritzera* eta gisa horretakoak esatea.

Era berean *hona* eta *horra* zaharragoak dira *honera* eta *horrera* baino.

m) Adlatiboaren gainean *-no* > *-ino* erantsirik. Beraz adlatiboaz esan den guztiak honentzat ere balio du eta baita gero datozenentzat ere.

Hala ere *-no* > *-ino* adlatiborik gabe ere erabiltzen da distribuzio konplementarioz, bereziki frase nominalizatuen ondoan, baina badira beste aztarren batzu ere.

Cfr. *eta bethe citzaten garairano*, Leiz., *S. Ioan*, II, 7; *eta ethor cedin eneganano*, id., *Apost. Acteac*, XI, 5; *ecen eguiaz diotsuet, iragan daiteno ceruä eta lurra, iotabat edo punctu hutsbat ezta Leguetic iraganen, gauça guciac eguin diteno*, id., *S. Matthev*, V, 18; *eçar ditzaquedano hire etsayac hire oinén scabella*, id., *Apost. Acteac*, II, 35. *Eta eguiàz, çure ariman erro mandaricatu (sic) hori dagoeiño, aldasca (sic) bethi aurthiquico-ditu, eta çure bertutea flaco eta illhaun egonenda*, Haraneder, *Gudu izpirituala*, 1750, 86 orr.

Oraino / oraiño, artiño / artino / artio / arteo aldaerek, *egundano / oraindaño* eta horien gisakoek, eta abar, adlatiboaren gainean eraiki gabeko berrekailua dute.

Azkue-k bere hiztegian *-giño* aldaera bezala seinalatzen du Bizkairako eta parean *-diño* (B, G), *etxeradiño* ematen du, *oraindiño* (B, G) hitzeko *-diño* bukaera *-giño* delakoaren aldaera dela esanik. Enetzat ez dago dudarik *oraindiño / oindiño / oindio* direlakoak dutena *-daño / -dano* gisakoa dela, eta agian bestean ere beste horrenbeste gertatzen da. Izan ere Arratiako euskaraz *ointxeganik* esaten dugunean beste eus-

kalkietan eta bereziki literaturan agertzen den *-danik,* flesio berbal baten gainean eraikia eta fosilizatua, berbera diogu. Izan ere *-daño / -dano* direlakoak *-no / -ino* berrekailua dute, *-danik* formak ablatibo zaharra duen bezala.

Ikus ditzagun exenplu batzu: *ynurria guino lagun gura* 'hasta la hormiga dessea compañia', *Refr. Sent.*, n.º 81; *andra vrenac esea lauçatu guino daroa betatu* 'la muger de buen recado, la casa suele hinchir hasta el tejado', id., n.º 210; Micoleta-k *aranguiño / araynguiño*, modu bietara dakar, erdaraz 'aun' dioena itzultzeko, egungo egunez *oindiño* esango gendukeela, cfr. 22-23 orr. *Peru Abarca*-n, ordea, *agaiti aldatu ezta niganaño neure icen ondocotzat eche onen icena*, dator, ed. 1881, 91 orr.

Ez zait egoki iruditu *-ino* aldaera *adlatibo bukatuzkoa*-ren osagarri bezala klasifikatzeko beste lerro bat sortzea, *bukatuzkoa* titulutzat emanik, ez baitu dagoeneko frase nominalizatuetarik kanpo indar sortzailerik, adlatiboaren gainean izan ezik.

n) Aurrekoak bezala adlatiboaren gainean eraikia.

Distribuzio geografikoa dute.

Hegoaldean *-(r)untz -(r)utz* forman asko korritzen du. Mogel-ek *-(r)unz* darabil: *ollarraren azquenengo soñubaz inguiratuten dira nire mutillac, ta jaguiten dira gaberdirunz gueure bei, idi edo chaalai beguiratutera, Peru Abarca,* ed. 1881, 116 orr. Lardizabal-ek *-(r)onz: beste alderonz joan ciran,* Test., ed. 18, 256 orr. Azkue-k bere hiztegian *-ratz* ere dokumentatzen du Gernikarako eta *-raz* Erronkarirako. Arratia inguruetan *-rantza* esaten da.

Ez nago zigur ez ote den desinentzien lerroan *-(r)untz* bestearen aurretik hobetsirik ipini behar.

Ifarraldean *(r)at* formaren ondoan zuberotarren artean *-lat* ere bada adlatiboaren (**ll**) notan ikusi dugun eremu beretan erabiltzen dena: *...behar du nour bederak eitzi gezurra bazterrialat, Ziberouko Egunaria*, 1901, 83 orr., artikulu singular eta guzti; *Biharamenian badoatza laboraria eta hartz zaña bordalat hartzaren jalkheraztera*, id., 101 orr., artikulurik gabe eta azkenengo sustantibo berbalak *-ra* forma daramala *-te* delakoaren ondoan, ikusi dugunez *-ta-* delakoaren ondoan ere daraman bezala.

Hona hemen bestelako testoak: *cergatic çaudete, cerurat beha çaudetela?*, Leiç., *Apost. Acteac*, I, 11; *ecin baititezque, ezeta hortic hunát iragan*, id. *S. Lvc.*, XVI, 26; *eta guertha cedin hura Ierusalemerat ioaitean iragaiten baitzen Samariaco eta Galileaco artetic*, id., *S. Lvc.*, XVII, 11.

ñ) Distribuzio konplementarioz erabiltzen dira. Ifarraldean, egungo ohituraz, bigarrena eremu zabalagoan dabil Hegoaldean baino.

Prolatiboaren (**j**) oharretan ikusi dugunez batzutan *-tzat* indargarria ere har dezake Ifarraldean, ez, ordea, Hegoaldean.

Instrumentala ere gaineratzen zaio, funtsean zentzurik aldatu gabe, *-z* edo *-tz* formetan.

Berrekailua genitibo leku denborazkorako korritzen duen berbera da, baina nominalizazio funtzioan erabili beharr tan berboari begira erabilirik destinatibo zentzuz betetzen da eta horregatik lerro bi berezitan ipini dira.

Badira egiturak, bereziki adlatiboaren gainean eraikiz gero, zentzu biak har ditzaketenak.

Hemen sartzen ditugu: *amar pezeta kiloko* eta halakoak. Bizidun zentzua dutenekin ere ager daitezke: *amerikanoen hiru gizoneko txinoek bost dituzte armatan*, alderdi batera utzirik egia den ala ez frase horrek azaltzen duena. Hala ere ez da posible esatea hori **gizoneko eman dit* eta hor nahi ta nahi ez *gizonarentzat* edo *gizonarendako* hautatu beharko litzateke.

Genitibo edutezkoaren gainean eraikirikako destinatiboa —ikus (**i**) nota—, bizidunen zentzua izan edo ez izan, edozein eratako multzori berreturik erabiltzen da, genitibo edutezkoari berari gertatzen zaion bezala. Baina leku denborazkoen artean klasifikatu denak baditu zenbait muga, genitibo leku denborazkoen antzera. Honen atzean eskemen bidez azaltzen dira nolabait. Ikus *-gan* elementua hartzen dutenen lerrokadari ipini zaizkion oharrak. Jakina, bizidun zentzuzkoentzat *-gan* berretuz gero *-ganako* da destinatiboaren forma, adlatiboaren gainean eraikirik, ez bestela.

Cfr.



Genitiboen eremua



Destinatiboaren eremua

Bizidunen zentzua dutenei eransten ez zaiena.

---

[1] Jakina, deklinabidetik kanpo *-ko* balio adierazkorreko sufixo bezala agertzen da, diminutiboa eginik, eta batez ere bizidun zentzukoei erantsi izan zaien halako erabiltzez.

[2] *-tako* hemen, bizidunen zentzua dutenei eta ez dutenei erantsirikakoen artean sartu da, hain zuzen ere *-tzat* prolatiboak duen zentzu berberean ere Euskal Herriko alderdi batean erabiltzen dela biei jarririk agertzen delako, ez bestegatik.

BILTZARRE TXOSTENAK

PLURALEKO ERGATIBO-ADIERAZLEARI BURUZ

Bergara, 1978 - IX - 7

Rotaetxe, Karmele

0. Arantzazuko Biltzarretan, ergatibo plurala *-ek* desinentziaz egitea gomendatu zen, oposizio-sistema hau onartuz:

A

	ABSOLUTOA	ERGATIBOA
Sing.	- a (gizona etorri da)	-ak (gizonak ekarri du)
Plur.	-ak (gizonak etorri dira)	-ek (gizonek ekarri dute

Harrez, gero, delako sistema —normarena izanik— beste hau.

B

	ABSOLUTOA	ERGATIBOA
Sing.	- a (gizona etorri da)	-ak (gizonak ekarri du)
Plur.	-àk (gizonàk etorri dira	-àk (gizonàk ekarri dute)

—ahozko errejistroan askoz ere zabalduagoa dena— gainditzen ari da, idatzitako erabilkeran. Ta joera hau ez da harritzekoa, 1968.eko batasuna euskara idatziari buruz zela kontutan harturik.

Hamar urte hauètan, baina, idatziari dagokion norma hori edozein errojistrotan zabaltzen ari da: zein idazteko, zein hitz-egiteko, irakaskintzan ematen baitugu. Ta euskara batuak hartu duen (nahi ta nahiez hartu behar zuen) funtzio bikoitz honi ez dagokio ondo, nere ustez, aipatutako aukera. Hori dela ta, batasunaren gora-beherak berrikustean, kontutan eduki behar da euskara batua ez dela, soilik, idatziaren norma, baizik eta, irakaskintzaren norma izanez, euskaldun berriàk ikasiko duten kodigorik bakarra. Horregatik nire kezka: euskaldungirorik faltaz, euskara ikasteko ahaleginak egin ditugunok (edota egiten ditugunok) euskaldunekin harremanetan sartzea —euskararen bidez, noski— beharrezkoa dela ongi dakigu. Horretarako, zalantzarik gabe, ikasten

diren formàk ezin dute ahozkoetatik gehiegi hurrundu. Bestela, ze motibazio geratuko litzaieke ikasten ari direnèi?

Izan zen aukeraren aurka, zaindu behar den motibazio honen gain, beste zerbait dago. Euskara batuaren bitartez lortu behar dugun ahozko komunikabidea –inoiz lortzen badugu– euskaldunen arteko lokarri bat behar dugu ta *ez*, mila bider ez, euskaldun berien arteko, hutsik. Zeren, ikasten ari den bati berdin zaio, ikaskintzako mementoan behintzat, "gizonàk ekarri dute" ala "Gizonek ekarri dute", baina -ta pundu hontaz Alfabetatzeko kanpaina daramaten arduradunèi galdera bat egin nahi diet–, zer gertatzen da euskaldunen artean? "Gizonàk ekarri dute" esateko ohitura dutenàk, ze neurriz onartzen dute "gizonek ekarri dute" esateko eramaten ditun aldaketa? Beste eraz adierazteko, noiz arte aldatuko dituzte eurèn konpetentziako erregelak? Zeren, *-ek/àk* arteko aukeraketa alfabetatua ez-izateak ala izateak ez du zerikusirik. Horregaitik ere, Arantzazuko plandeamendua gogoratu nahi dut.

1. Aukera horren aldez, hauèk izan ziren arrazoiàk: "Egia da, gipuzkoarrok eta beste askok, aktibo plurala "mendiak, gizon-ak" esaten duguna, *-ak* hori atona eginez. Baiñan, pasibo plurala eta aktibo singularra ere "gizon-*ak* joan dira, gizon-*ak* egin du" esaten dugun ezkero, hoiekin ez nahasteko, hobe deritzagu aktibo plurala "gizon-*ek*" ematea" (1).

Erabiltzen den terminolojiaren arazoan ez naiz sakonki sartuko: bistan dago, baina, gure hizkuntzak ez duela "pasiborik" ez eta -zita honetako oposizio baliogaz– "aktiborik", ta zuzenago izango litzateke, nire ustez, lehenari "absoluto edo asoluto" deitzea ta bigarrenari "ergatibo" (2). Salbador GARMENDIAren zitatik asmo bi nabarerazi nahi nituzke:

a) "gipuzkoarrok eta beste askok"

b) "hoiekin ez nahasteko, hobe deritzagu"

S. GARMENDIAk "Gipuzkoarrok eta beste askok" esaten duenenan sartaldeko euskalki (ta hizketa) guztiak ulertu egin behar da. Hain zuzen, hemengo mintzaira guztietan, absoluto ta ergatiboen arteko oposizioak *B)* izendatu dudan

(1) S. GARMENDIA "Deklinazio", in *EUSKERA* XIII, 1968, 153 orr.

(2) Ikus Karmele ROTAETXE – *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, Cap. 3.04 ta 6.03, bereiziki – L. Sugaza, Durango, 1978.

sisteman sartzen dira. Sortaldekoàk, berriz, *A)* sistemari jarraitzen diote, ergatibo plurala *-ek* eginaz (3). Esan gabe doa, *A)* sistemaren formàk *B)*koàk baino askoz ere zabalduagoàk direla Euskal-Herri osoan, hizlarien zenbakia kontutan harturik. Hori dela ta, Azpimarratu dudan bigarren asmoa justifikazio bat da, hain zuzen: "hoiekin ez nahasteko, hobe..." Hemen ere, terminolojiari buru zeozer esan behar da: "hobe" hitz hori ez da linguistikazko estudio baten kabitzen, baliozko juizio bat adierazten baitu. Ezin pentsau daiteke, gainera, sortaldeko hizlariàk sartaldekoàk baino "hobe" komunikatzen direnik, ala bai?

2. "Ez nahasteko" aipamen hori sinkretismo-egokera bati dagokio, duda gabe. Sartaldeko euskalkietan sinkretismo hori pluralezko formetan agertzen da; ez hain zuzen, ergatibo singular formarekin: honetan ez dago atoniarik eta, azentuaren bitartez edo –nire hipotesian– azentuaren oihartzun baten bitartez, /gizon*ak* egin du (dau)/ eta/gizon*àk* etorri dira edo gizon*àk* egin dute/ bereizten dira. Jakina denez, sortaldeko euskalkiàk (Zuberokoa aparte urtziko dut) ez dute singular/plural oposizioa adierazten duen azenturik. Hortaz ahozko hizkuntzari (hau da, benetako hizkuntzari) begiratzen badiogu, *A)*eta *B)* sistema bietako forma batzuk sinkretismoan daude. Ta sinkretismo gabeturik sistema bat lortzeko, Jacobsenek esaten duenez, sortalde ta sartaldeko euskalkien arteko konbinaketa bat eduki beha genuke (4). Hain zuzen (eta oraingo euskara batuan) *A* sistemako esaldi bat:

/gizonak lagunak ekarri ditu/, esaldi anbikua da ta

B) sisteman kodifikaturik,

/gizonak lagunàk ekarri ditu/, ala
/lagunak gizonàk ekarri ditu,

izan daiteke.

Bestalde,

D) sistemako

(3) Ikus W. H. JACOBSEN, Jr. "Nominative-Ergative Syncretism", in *Anuario del Seminariode Filologia Vasco Julio de Urquijo*, VI, 1972, 67-109 orr., ta J. HEATH – "Genitivization in complement clauses", dº 46-66 orr., 57-58 orr. bereiziki.

(4) W. H. JACOBSEN, Jr. "We thus do not find a system wherein all four forms are differente. One could easily imagine this occurrring, if there would be a dialect which *combined* (neuk aspimarratua) the Eastern type distinctive ergative plural vocalism with the Western type accentual..." (op. cit. 96 orr.).

/gizonàk lagunàk ekarri dituzte/ esaldia ambikua ere bada ta

A sisteman kodifikaturik, izango litzateke

/gizonek lagunak ekarri dituzte/, ala

/gizonak lagunek ekarri dituzte/.

Egia esan, sinkretismorik gabe ez dago gizahizkuntzarik eta beste bide askoren bitartez (kontestua, aditzaren forma, ordena, tab..) mezua uler daiteke ta hizlariàk elkar-ulertsen dira. Batez ere, onartu beharrean gaude, Arantzazuko biltzarrak izan baino lehen, sartaldeko euskaldunàk seguro aski elkar-ulertzen zirela (gure artean, inoiz ulertzen bagara elkarrekin).

Baten batek pentsatuko du, behar bada, *B*) sistemaren oposizioàk joskeraren funtzio garrantzitsu bat (sujetoa) hobeto zaintzen dutela. Baina, sujetoaren bereizitasunak (propietateak) zeintzuk diren hizlari guztiàk badakigu (5), eta, zenbait bidez, sujetoa adierazten dugu gure diskurtsoan (nire ikerlanean, bi deskodikikazio zituzten esaldietan sujetoa ojetoa baino lehenago agertzen zen). Horregaitik, ez dirudi *-ek* atzizkidun forma beharrezkoa denik. Horrez gainera, kontutan eduki behar da horrelako ergatibo plural formarekin galduko dugula, seguro aski, gaurko hizketetako azentuaren bereizitasuna. Gero ta gehiago, gure ikasleàk, euskaraz mintzatu ordez, bizi-gabeko hitzàk esango dituzte.

3) *B*) sistemaren aldez, azkenengo arrazoi bat dakart, ondorio gisa. Soziolinguistikari dagokio, batez ere; hamar urte duela zera esan zen: egokiagoàk zirela, batasunerako, erdi-aldeko dialektuàk bazterretakoàk baino (hauèk marjinalak ziren eta). Hain zuzen, Bizkaian bizi eta irakasten ari garenontzat hor bertan entzuten diren formàk baztertu beharra gogorra izan ta izaten zaigu; askok, baina, Bizkaiko aditza "marjinala" zela onarturik, erabagiak ere onartu egin ditugu. Orain, eta, mutatis mutandis, *-ek* ergatiboaren forma hori ez ote da "marjinala", *-àk* formarekin paretan jarrita? Pundu honetan, gutxienez, gure ikasleàk eta Bizkaiko euskaldunàk ados egongo litzateke... nahiz eta, zorigaitzez, Axularrekin ados ez egon...

(5) K. ROTAETXE — op. cit. 6.03 — Apéndice.

ERAKUSLEEN FORMEI BURUZ

Bergara, 1978 - IX - 7

Rotaetxe, Karmele

0. Zenbait irakasbide bitartez, zabaltzen ari diren erakusleen formàk hauèk dira:

A

ABSOLUTOA	
Sing.	*Plur.*
hau.....	hauk
hori	horik
hura	haik

ERGATIBOA	
Sing.	*Plur.*
honek.....	hauek
horrek.....	horiek
hark	haiek

Euskaltzaindiak, argi ta garbi, gomendaturik ala ez, ez dakit.

Dena dela, aipatutako formàk batasunari dagozkionez gero, pundu hontaz Euskaltzaindiaren eritzia jakitea ona izango litzateke. Hain zuzen, gauza bat da mintzairetako formàk ahozko errejistroan errespetatzea ta, oker ezpa nago, hemendik dator "gomendazio"ren esanahia; bestea, berriz, orain dugun egokera: goiko formak, jakina denez, Euskaltzaindian dauden lagun batzuek sartu dituzte eurèn metodoetan (*Euskalduntzen, Euskara mailaka*, esate baterako) ta Alfabetatzeko lanean zabaldu ere (*Euskalduntzen, Alfabetatzea*). Hortaz, badirudi, neurri batez Euskaltzaindiak berak horrelako formàk ontzat eman ditula.

1. Proposatuko nituzke formàk (beste irakasbide batzuetan datozenak) hauèk dira:

B

edo 1) *Gipuzk.*

ABSOLUTO		ERGATIBO	
Sing.	*Plur.*	*Sing.*	*Plur.*
hau.....	hauèk	honek.....	hauèk
hori	hoièk	horrek....	hoièk
hura	haièk	harek	haièk

edo 2) *Bizk.*

ABSOLUTO		ERGATIBO	
Sing.	*Plur.*	*Sing.*	*Plur.*
hau.....	honèk	honek.....	honèk
hori	horrèk	horrek....	horrèk
ha	harèk	harek	harèk

Bietan, zenbait sinkretismo agertzen da: 1) = Gipuzk.) Plaralezko formen artean; 2) = Bizk.) huetaz gainera, segmental-azterketari, soilik, begiratuz, ergatiboko singular eta pluralaren artean ere bai. Bizkaiko formetan gertatzen den sinkretismo hau, baina, euskalkirik gehienetako izen-sintagman (SN) gertatzen da (ikus W. II. JACOBSEN Jr. "Nominative-Ergative Syncretism in Basque", in ASJU VI, 1972 67-109), ta hain zuzen *azentuaren* bitartez markatzen da numeroko (nonbreko) oposisioa. Nire hipotesian oposizio hori ager daiteke azentuaren bitartez edo azentuaren oihartzun baten bitartez (Karmele ROTAETXE – *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Cap. 2.2 eta 3.04 bereiz.—L. Zugaza, Durango, 1978). Dena dela, beste sinkretismoa —proposatzen dudan B)ko forma bietan agertzen dena ta pluralezko absoluto ta ergatiborako adierazle berdinak ematen dituena aztertzean, kontutan eduki behar da ez garela inoiz ere hitzez hitz mintzatzen. Gure hitzàk esaldietan sartzen ditugu ta aditzak (-tr.) / (+ tr.) izen-sintagmaren funtzioa argitaratzen digu. Horrez gain, eta hizkuntza guztietan bezala, kontestuak ere (nahiz situaziokoak, nahiz testukoak) zenbait informazio (eta, batzuetan, behar den guztia) ekartzen digu.

2. Proposatzen ditudan forma hauèn alde, ez dut arrazoirik eman behar: entzuten eta erabiltzen direlako bizibiziak baitira. Hori dela ta, B) formen arteko aukera egitean, frekuentziari begira behar zaiola esango nuke.

Lehenik aipatu ditudan *A*) formàk, alderantziz, justifikatu eginbehar: nondik datozen, zenbait eta nongo bizilagunek erabiltzen dituzten, gutxienez. Hitz batez, horrelakoen aukeratzeak azalpen batzuk eskatzen ditulako ezin sartu da irakaskintzan "norma" bezela.

3. Gure hizkuntza (batua nahiz batu gaberik) bizi delako behar dugu bizia, ta inork ez du aldatzeko botererik, nahiko arrazoirik eman gabe. Hizlariàk egiten eta moldatzen dute hizkuntza (edozein hizkuntza). Horregaitik, onartua izango den erakusleen sistema hizketen arteko lokarri bat izan behar da. Ez zait ahazten, sinkretismoetan akatsak ikusten dituztenentzat, proposatzen dudan sistema B1/edo B2) honi defektibo eritziko diotenik. Baina, giza-hizkuntza guztiak zenbait sinkretismo erakusten duten, zeren, sinkretismo gaberturik agertzen diren kodigoàk, hain zuzen, lengoaia artifitzialak baitira. (Informatikan erabiltzen direnak, esaterako).

Ikuspundu horretatik, nire txosten honen helburua ez da berria: Arantzazuko postulatu bat gogora ekarri nahi-izan dizuet: "nahiago dugu euskara bizia edozein azaleko edertasun baino" (L. MITXELENA—"Ortografía", in *Euskera*, XIII, 1968, 203 or.).

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 7

Moderatzaile: *Satrustegi, J. M.ª*

Partaideak:

(1) *Garmendia, Xalbador:*

"Nik ergatiboarentzat "-ek" hartuko nuke."

(2) *Xarriton:*

"Andere Karmeleren txostenari galdera bat:

Arantzazuko txostenean "-ak", "-ek" agertzen ziren. Baina Karmeleren eritziz "-ak" nola gehiago erabiltzen den, bestea baztertu beharko litzateke?

Hemen ere, "h" fonemaz antzera, kolonialismo berri bat?"

(3) *Txillardegi:*

"Nire ustez, leku izen deklinabideaz, gehienetan loturarik gabe erabiltzen da.

Jakobsenen artikuluan ikusten dut "-ak" eta "-ek" bereizteko. Eta baita, azento sailean ere, berak ematen dituen argumentuak... gizonak-gizonek. Jakobsonen jokerek animatzen naute Arantzazun onartu ziren jokerak berresteko edo alde izateko."

(4) *Mujika, L. M.:*

"Nire eritziz "-ak" eta "-ek" nahiko normalizatu dira azken hamar urteotan.

Aditzak jokatzen ez direan, zer gertatzen da?

Uste dut, praktikotasunari begira eta Iparraldean bizibizi delarik, onartu behar dugula, nahiz eta askotan guri kosta."

(5) *Mitxelena, K.:*

"Gipuzkoan alatiboa eta nominatiboa ez dira nahastatzen ez eta kontraziorik ere."

(6) *Kintana, Xabier:*

"Alfonso Irigoyeni, Bermeon behintzat "-rean" erabiltzen dela: "haizeak aparean" bizi bizi dela.

Bizkaian inon ez da esaten "Eibarra", "Eibarrera" baizik."

(7) *Zarate, M.:*

"Guretzat gogorrena: "Berlina..." kasu batzutan "Parisera"... etab. Nahiz eta gero "Paristik, Parisko..."

(8) *Rotaetxe, K.:*

"Irigoyen, zein mailatan egin dituzu paradigmok?

(9) *Irigoyen, Alf.:*

"Hemen agertzen diren paradigmak, literaturaren bidez, Euskal Herrian zabaldu direnak.

Bizkaian, Arratian, singularra eta plurala azentuaren bidez egiten dugu, eta baita Gipuzkoako zenbait tokitan ere. Baina, euskalki berean ere, azentua ezberdina da: Aulestin eta Arratian, azentua ezberdina da."

(10) *Rotaetxe, Karmele:*

"Ni ez naiz etorri, Xarriton, kolonialismoa egitera."

(11) *Zarate, M.:*

"'-ek" eta "-ak" berezi behar ditugu behar beharrezkoa delako.

Bizkaian "-ek" asko erabiltzen da, gaur egunean ere."

EUSKAL HITZEN JATORRI ETA ITXURA DESBERDINAZ

Bergara, 1978 - IX - 7

Mitxelena, K.

Bilera honetara dakardan "zer" hau ez da behar bada aldez aurretik eskatu zitzaidana. Ez, behinik-behin, egin zitzaidan eskaria hitzez hitz hartzen bada.

Maiz ibili ohi naiz duda-mudaka eta zalantza gorrian hitzak euskaraz nola idatzi behar liratekeen ezin antzemanez, beste edonor ibiltzen den gisan, onenean ere. Nekez uxa ditzaket, beraz, inoren ezpaiak neronek ditudanak garbitzeko gauza ez naizenonek. Esanari nagokiola, auziak pixkaren bat mugatzen siatuko naiz, inondik ere ez erabakitzen. Eta hagitz beldur naiz, horrenbestez, hemen jaulki dakidakeenak ez ote duen, nahi eta nahi ez, halako gehiegizko erabateko teori kutsua izango.

Ni bekatari, bada, eta noan aurrera. Bekatu hori, ordea, zein ere larria den, barkakizun gerta daiteke. Norbaitek dioenez behintzat, duela hamar urte (eta geroago ere bai, agian) bide okerretik, desarrazoiaren malkarretan barrena, abiatu ginenok ez omen ditugu fonetika eta grafia, adibidez, bata bestetik edo bata bestearengandik bereizten. Horrenbestetarainoko gauza garela erakusten ahaleginak egitea ez da, horrenbestez, alfer-lana izango apika.

Badira beti edozein hizkuntzaren hiztegia bereizteko eta sailkatzeko moduak: moduak diot, bat baino gehiago direlako. Esate baterako, arlo semantikoen arabera, maila bakoitzeko (egunoroko lagunarteko hizkera arrunta nahiz harako beste ikasiago hura, mintzaira poetikoa eta abar, eta abar) erabilerari begira, edota hitzen hango eta hemengo jatorria aztertzen dugula.

Jatorriak, etorkiak, bai baitu zer ikusi aski eta gehiegi hitz kontuan, euskaltzaleek ongi dakitenez, ia marka guztiak

hautsiak baitituzte delako joko horretan. Ez dakit, haatik, zer pentsa dezaketen gai horretaz gure hizkuntzalari gazteek, sinkronia eta diakronia, ofizioko sasi-euskaran (eta sasi-erdaran) esan ohi den bezala, elkarrengandik zorrozki bereizten heziak izan direnez gero. Eta hitzen jatorria diakroniaren egitekoa da, inorena izatekotan, atzera begira dagoena, lehenari so, eta ez egungo eguneko egoera soilari.

Sinkronia eta diakronia, aspaldixko irakatsi zuen Coseriuk, ez dira hizkuntzaren mailako bereizkuntzak, metoduaren mailakoak baizik. Hizkuntzan bertan, lehena orainean bizi da eta orainaren errainua aldi igaroak iragartzen du.

Horren gisako zerbait, bestelako hitzez adierazia bada ere, irakur daiteke Saussure-ren *Cours* zorionekoan. Hona greko klasikoaren lege ezagun bat: hiru kontsonante baizik (*n, r, s*) ezin ager daitezke hitz azkenean. Guztiarekin ere, orduko testuak aztertzen dituenak zerbait gehiago ere somatzen du, ezin bestean. Ehunen bat hitzen deklinabidean, eta *soma* 'gorputz' hartzen dut adibide, *soma-t-os, soma-t-i,* etc., agertzen direla gainerako kasuak, beti *-t-* hori bitarteko dutela, kasuen azkenak *-os, -i,* etc., direla huts-hutsik, inongo *t*-ren aztarrenik gabeak. Norbaitek esan dezake, noski, holakoetan, bi bokalen artean alegia, *-t-* bat sartu, txertatu, behar zela, tema eta atzizkiaren bitartean. Bestela ere eman daiteke, ordea, erregela, eta jeneraltasunean deus ere galdu gabe. Ez da ezer eransten, kentzen baizik. Hitz bat behar den bezala deklinatzeko nahiz aditz gisa jokatzeko, azken kontsonantea beharko du galdu: hitz azkenean gertatzen denean, jakina, eta goien aipatu ditugun hiruretarik bat izan ezik.

Egingo nuke nik bigarren bide hau hartuko luketela oraingo (hogei urtetik gora duten) berrizale horietakoek: beti bat den *soma* temari sail horri dagozkion atzizki jakinak erasten zaizkio (hutsa, *-os, -i,* etc.) eta, gero, erabateko erregelak *-n, -r, -s* ez diren geldiune aurreko kontsonante guztiak urratzen ditu edo, hobeki esan, ezabatzen. Hots, lege sinkronikoek, oraingoek, hizkuntzaren une jakin batekoek, ez dute lege diakronikoen (bestela esan, historiaren) ispilu garbi izan behar ezin bestean. Baina baldin ispilu gisako gertatzen badira, ez da batere kaltegarri jakintzarentzat. Labur beharrez, honela laburtuko nuke honerainokoa: hizkuntzak, lehengoak eta oraingoak, batu duena, ez beza hizkuntzalariak bereiz. Bereizkuntzaren premiarik ez dagoenean, noski.

Badugu, beraz, mintzoa, hotsen ebakera, alde batetik, eta izkribuzkoen grafia, bestetik. Bata eta bestea axaletik behintzat bereziko ez dituenik ez da, segur aski, gure artean. Ohartxo bat, halaz guztiz, bada ezpada ere. Grafiak, *hizkuntza idatzian*, ez du noraezean mintzoaren mirabe apal izan behar: are gehiago, ez da sekula ere zerbitzari ixil izaten, fonetika lanetan edo izan ezik, zenbaitek horrela nahi balu ere. Begira dezagun aldamenera eta bidenabar zabal ditzagun beharriak. Nik eta beste askok ez ditugu modu batera ebakitzen gaztelaniazko *helado* eta *el hado*. Hobeki esan, behar bada: bitara ebaki dezakegu lehenbizikoa eta batera bakarrik bigarrena. Bereizkuntza horrek, gainera, ez du inolazko harremanik, izkribuz batean bai, baina bestean uzten ez den hutsartearekin. Berdin baitira gaztelaniaz *un nombre* eta *un hombre*, ingelesez *a name* eta *an aim*-en artean bereizkuntza egiten eta nabaitzen bada ere, diotenez.

Xinpleegia litzateke, horretaz gain, ahozko hizketan fonemak eta fonema-andanak baizik ez ikustea —ez sumatzea, nahiago baduzue—, gainean edo aldamenean azentudoinuen gehigarria daramatelarik, gehienez ere. Eta berdin genuke, fonemak aipatu beharrean, bereizgarri multzoez mintzatzea. Fonemak ebakitzeko nahiz letrak irakurtzeko zenbait erregela beharrezko ditugu beti, bakoitzak berea eskatzen baitu.

Erregelen balioa eta indarra mugatua agertzen da beti. Eremuz, esate baterako, eta eremuaz mintzatzean ez ditut gogoan euskalkiak bakarrik eta eskualde bakoitzeko hizkera bereziak: azpian datzan *begia begie, etorri da etorri de* edo *ukatu uketu*, hemen bai baina han ez, bihurtzen duen erregela, adibidez. Ez erregelen eremua ez da berdina euskalki bateko eta bereko hizkeran ere. Zenbaitek erabat balio duela dirudi, hala nola gure artean sudur-hotsa darraionari berdintzen dionak: *enbata, indarra, intxaurra, ongarria*, eta abar. Beste zenbait, berriz, ez da inoiz izan zenaren itzal ilaun baizik: horrelakoxea duzue Leizarragak *ohoin* baina *ohorgoa, jaun* eta *jaurgoa*-ren ondoan ipintzen dituenean oraindik lanean ari dena. Inoiz barruti zabalaren jabe zen legea dugula ezak, zerbaiten ezak, ematen digu aditzera: ez baitugu erraz aurkituko euskal testu batean *i-* diptongorik silaba bereko *r* baten aurretik.

Hemengo hauziari zuzenen dagozkionak beste batzu

dira, agian: atzo goizean bizirik zeudelarik, arratserako hilak zeudenak. Hilak baino areago, aberats izanak dira, lehengo ondasunak gordetzen dituztelarik (edo, okerrenean ere, poliki-poliki baizik galtzen ez dituztela), berririk irabazteko gauza ez direnak. Ni eta antzeko askoren ahotan /beRija/ da *berria* (hemen eta aurrerantzean, horrela emango dut aditzera ebakera, edozein mailatakoa dela), baina *autonomia* ez da beti /-ija/ bihurtzen. *Filosofia*, berriz, hortan gelditzen da, /-ija/-raino jaitsi gabe. Erregelak, mailebuak direla bitarteko, sortu edo galdu ohi dira, beste edozer gauza bezala, inguruko hizkuntzen eraginez.

Badira horrelako zenbait dauzkagun baino gogozago gogoan eduki behar genituzkeenak, batez ere geure euskalkikoak ez ditugunean. Hor duzue, esate baterako, Grasmann-en legearen irudiko hori: hitz batek bi aspirazio dituenean, lehen eta bigarren silabaren hasieran, lehenbizikoa galtzen duela deblauki, eragozpen berezirik ez bada. Begira zer dioen Salaberry garaztarrak: "*Ilherri*, s., cimetière, mot adopté par corruption du mot *hil-herri* signifiant pays de morts". Larrasquet-ek, orobat, *(h)ilherri* idazten du hiztegian beraren aitorrez *ilhérri* esaten dena. Hitza, *hil* + *herri* izateaz gainera, erregela batek moldatu du, baina erabateko erregela batek, ez hitz horri *ad hoc* aplikatu diogun asmakari batek: azaldu diren baldintzetan, lehen aspirazioaren kaltetan bigarrena gordetzen duenak.

Hemen agertu edo agertuko den txosten batean, gogora dakarkigu Zatarain jaunak Oihenarten inoizko *otserri*, *h* gabeko hitza. Beldur izatekoa da, eta ez naiz txantxetan ari, ez ote dabilen hor Zatarain, nahiz besteen antioinetan egon, *zedaharri* edo *mugaharri* eta horien antzeko aldrebeskeria moldakaitzak ausarki darabiltzatenen inguruan. Ez hark eta ez hauek ez baitute ikusten, itxura duenez eta zuzen ez banabil barka, hitz horiek diren direnean mamitu dituzten erregelen jokoa. Nik, behintzat, honelatsu azalduko nuke *otserri*, *zedarri* eta *mugarri*-ren eratorpena:

	otso + herri	*zede + harri*	*muga + harri*
1.	*otsa-herri*	*zeda-harri*	*muga-harri*
2.	*otsa-erri*	*zeda-arri*	*muga-arri*
3.	*otserri*	*zedarri*	*mugarri*

Lehenbizikoa hutsean aplikatzen zaio *mugarri*-ri, ez baitago *muga*-ren azken bokala ezertarako aldatu beharrik. Hirugarrenean, bestalde, bi erregela berezi izan zitezkeenak batean bildu ditugu: bokal bikoitzak bakuntzen dituena eta, hitz elkartuen elkar-elekuan, lehen zatiaren azkena bigarrenaren lehen-buruaren aurrean erorerazten duena. Bigarrena da, haatik, nagusi: bigarren silabaren ondotik, beste hitzaldi batean ederki erakutsi digutenez, aspirazioa (ia) erabat deuseztatzen duena.

Hizkuntzaren bizian, geratzeke, erregela berriak badatoz eta zaharrak badoaz. Ez, ordea, bat-batean eta itsumustuka, astiro eta poliki baizik, lehengoak aldatzen ari direla orainagokoak, desegiten baino areago. Eta horiekin batean sartzen ere dira gainerako berrikeriak edo eraberritzeak: hots eta hots-bilkura berriak.

Bistan da ez direla bakarrik sartzen ez batzuek ez besteak, behin bateko Madrilgo tximitzen antzera. Paretak gora joaten baitziren gero goien xut-xut zeudenean urez inguraturik geneukan ohera, ingurukorik ukitu gabe, xalto bigun egiteko.

Ez, ebakerari dagokion guztia zerbaiti loturik, zerbaitetan gatzaturik dator: hots, hitzetan, hitz-ataletan (morfemetan edo), esaldietan. Hauek mailebatu ahala mailebatzen baitira besteak ere. Eta ez esan hitzetik gorakorik, hitza baino luzeagorik ez dela mailebatzen, gurean ere bai baita horrelakorik ugari: *auskalo, porkuantobos* eta beste hainbeste.

Oro har eta salbuespenak salbu, egitura fonikoak salatzen du maiz aski hitzen jatorria eta jatorri honek eman ohi die sarritan hitzei hotsen aldetik izan dezaketen berezko tankera. Hizkuntzaren historiarekin ikuskizun gutti duen James D. McCawley-ren *The phonological component of a grammar of Japanese*, The Hague 1968, delako liburuan lau sailetan banatzen dira hizkuntza horren hitzak, eta sailok ez dira nahi eta ez behetik gora nahiz goitik behera hartu behar: (a) etxekoak, (b) sino-japonesak, (c) onomatopeia (hitz adierazkorrak), (d) arrotzak. Ikusten denez, sino-japonesak "arrotzak" bezain etorkinak dira, alde batetik, baina ez bestetik: aspaldidanik sartuak eta sartzen ari direnak direlako, hots kontuan berezkotasun nabarmena dutelako, ez doaz *pan* 'ogi' edo *pen* 'luma'-rekin batean.

Euskal hiztegian ez dio orain inork erraz igerriko hitz bati, itxura dela medio, zaharrenetakoa den ala geroago latinetik zuzenean sartua: hauek ere besteen antzera (ia) itxuraldatuak baitira. Itxuraldatuak diot, berria hartu behar izan baitzuten etorkizkoaren truk puntu batean baino gehiagotan.

Maiz esan da, eta ez dut uste inork gezurtatuko duenik, euskara zaharrak fonema, hots bereizgarri gutti zuela beste hizkuntza askoren aldean. Latinaren aldean, esate baterako, hizkuntza hau hurbiltzen eta barrena sartzen hasi zitzaigunean, diogun duela bi mila urte. Ezberdintasun horretan ez dago emailearentzat inolazko eragozpenik, bai, ordea, hartzailearentzat hots gehiago hots guttiagoren bitartez itzuli behar dituenean. Eta tratu horietan, zer esanik esan, hartzaile ginen gu emaile baino areago.

Oztoporik handiena bestetan zegoen, haatik. Euskal hotsek, urri izateaz gainera, erraztasun gutti zuten bata besteari lotzeko, bata bestearekin juntatzeko. Bazen anitz eta anitz hots-bilkura latinez zilegi eta gurean debeku zenik. Izan ere, eta usteak ohi baino ustelago agertzen ez badira, honelakoxea zen, iberikoarenaren pare, euskal silabaren antzinako egitura:

$$(C) < A > (W) > (R) > (S) > (T)$$

Ez naiz eskema hau dela eta luzatuko, bestetan ere emana eta agertua baitut. Bokala, eta bokala huts-hutsik, zuen nahi eta ezko, gainerako hots guztiak ezpaiko zituelarik. Bokal horren aurretik kontsonante bakarra joan zitekeen, inolaz ere ez kontsonante taldea. Ondorengoak, agertzen baziren, ordena jakinean agertzen ziren, hor klase bakoitzaren seinalagarri erabili diren letrak azaltzen diren ordenan, hain zuzen.

Ez da sekula izan, segur aski, hor ipini ditugun xulo guztiak beterik zituen silabarik. Bilkurarik astunenak hitz azkenean gertatzen ziren, noski, batez ere ondoko bokala erortzen zenean: cf *bart/barda, dut/dudan*, agian *bat/bede-ra, bederatzi*, etc. Orobat hitz elkartuen junturan, lehenbiziko atalak azken bokala galdu duenean: cf *arkazte* < **ard(i)-gazte*, Leiz. *ahakoa* < **ahat-goa* < **ahait-goa* < *ahaid(e)* + *-goa*, eta abar. Damurik ez dakigu bokal horiek noiz eroriak diren, edo behinik-behin nik ez dakit: badaiteke, nolanahi ere, gertakari aski berri izatea.

Esan nahi nukeenaren erakuskari hitz zerrenda hau dakart honera, hitz bakoitzaren egitura hurrengoarena baino bakunago agertzen delarik: *gu (C + A), gau (C + A + W), gaur (C + A + W + R)*, ant. *geur(t)z (C + A + W + R + S)*. Bistan da latinetik mailebatuekin silabaren bokal-aitzinekoetan behar zituztela izan istilurik garratzenak euskaldunek, ez bokal-gibelekoetan. Hasierako kontsonante bilkurak hauen ahoetan gordetzen ziren bitartean, ez zuen hitzak arrotz kutsua galtzen. Gal zezan, beharrezko zen bilkura horiek, kontsonanteren bat bazterturik, bien artean bitartekoren bat sartürik, desegitea.

Horrela etxeko zitezkeen silaba *muta cum liquida* direlakoekin hasten zenean latinez, hots *pluma*-tik *luma* edo **cleta*-tik *gereta* sortu zenean. Gero, guztiok dakigunez, hizkuntzak bilkura horiek berak ontzat hartu ditu, hitzak ez ezik: *blei, deblauki, fruitu, grina, trapu, tratu*, eta beste mila. Hedatua dugun *lore*-ren aldamenean *flore* ere aurki daiteke, biritxi gisa. Etxeparek darabil, beste zenbaiten ondoan:

Eci huyen lèngoagia içanenda floria.

Berretu ere egin dira gure artean, jatorrizko bideetarik kanpo etxean sortu zaizkigunean: *kresal gesal*-en kideko, *trufania epiphania*-ren oinordeko.

Bakuntze horien aldia aspaldi iragana dugu, baina bada, guztiarekin ere, orduko erregela zorrotz bat ia oraintsu arte bizirik iraun duena euskalki guztietan alde-alde. Jakina denez, euskal hitz ezin zitekeen besterik gabe dardarkari batez hasi (Txillardegiren hitzez baliatzen naiz), eta beste horrenbeste gertatzen zen iberikoz, testuak lekuko: hor daude *arrazoi, errota, Erroma* eta abar. Eta hemen bertan galdera bat, gerokoen aitzindari, egiteko gogoak hartu nau. Oraindik, zaharrek bederen *arraza, erreparatu, errezeta, errezibitu, errifa, erroskila, Arroxa* edo *Erramun* esaten segitzen dugun bezala, ez gaude oso segur ugaritzen ari den beste kasu samalda batean nola joka: erregela mugatu egin behar ote dugu ala zabaldu? *Errepublika* eta *erromantiko*, tira, baina *errima, erritmo* ere bai? Azkenik, *erretorika* behar genuke ongi herrikoa den *erretolika*-ren aldamenean?

Esan berri ditudanak izan bitez hemen aztertu edo aztererazi behar ditudanen atariko. Latina urruti gelditu zen, haren itzalak eta beste hizkuntza klasikoarenak artean geri-

zatzen bagaitu ere. Erromantzeen bidez, edo erromantzeen bidez batipat, sartu zaizkigun hitzetan, arestian hartu edo orain hartzen ari garenetan, bi nahaspila modu ikusten ditut nik, beste edozeinen gain:

1. *T + S* gisakoak sortua. Ez, noski, klase bakoitzaren ordezkariak *t* eta *z/s* direnean, horrelakoak (a) betidanikakoak ditugulako gure artean, eta (b) inguruko erdarek ez dutelako esateko moduan antzekorik ezagutzen. Ez da, bestalde, gaitzerdi baizik *p (b)* denean leherkarien ordezkaria. Hona zer egin dezakegun, okerrenera jota: *ps* idatzi eta *s* hutsik ebaki, gaztelaniaz maixukerian ez dabiltzanek egiten duten araber i.

k + s/z-rekin sortzen da istilurik larriena, ebakerari letra kontua lotzen baitzaio: *x* letrak, alferrik ari naiz hau errepikatzen, hots bat adierazten du *axuri* euskal hitzean, esate baterako, eta erabat beste bat frantsesezko eta gaztelaniazkoetan (egin dezagun kontu, labur beharrez, berdin ebakitzen dela beti bi hizkuntza hauetan): *sexo* eta *sexe* hitzetan, adibidez.

Bada orapiloa mozteko modua, askatzen asi gabe. Ispaldi asmatu zuten, *p* eta *k + s*-rentzat, ekialdeko euskaldunek. Ikus, esaterako, zub. *atsolbü* 'absoute', *atsülütoki, etsenplü, etsamina*, etc., oraintsu arte *x*-ekin idazten zirenak, *exai = etsai, eurixu = euritsü* bezalaxe.

Hori genuke izan daitezkeen irtenbideen artean euskal tradizioari lotuena. Gogorregia irudituko zaio, haatik, bati baino gehiagori, batez ere Euskal herriaren beste mutur honetan sartzeko eta erabiltzeko. Orduan, *setsu* nahi ez badugu, esaterako, har dezagun *sesu* eta okerreanean ere *seksu*. Nik ezinbestean baizik ez nuke *sexu* erabiliko izkribuz: behin baino gehiagotan puntu honi gagozkiola aipatu izan den Marx-en izenean eta hortarik erakarrietan. *Paradoxa* dagoen dagoenean uztean ez dut kalte handirik ikusten: lat. *mataxa*-k eusk. *mataxa* eman baldin badu, *paradoxa* ere horrela irakur daiteke, inori gogoak ematen badio.

2. Bigarren, $T_1 + T_2$ tankerakoena da, laburzkiago *kt* eta *pt*-rena. Or ez dago, itxuraz, bi jokabide baizik. Bilkurok bertan behera utzi, inguruko hizkuntzetan bezalatsu, *k/c*-ren aldaera gora-behera. Bakundu, bestela, eta bakuntzeak hemen lehen kontsonantea baztertzea esan nahi du. Italiera-

ren arabera jokatzea, beraz. Italieraren irudira, halaz guztiz, eta ez italierak bezala, gurean ez diren kontsonante bikoitzak ezagunak baitira han: *concetto* esan dezakete, adibidez, esan edo idatzi, gu *kontzetu* soilean geldituko ginatekeen bitartean.

Horrenbestez esana dago bi joera, zeharo elkarren kontrakoak, aurki daitezkeela gai honetan hizkuntzen artean. Mutur batean edo mutur batetik hurbil, italianoak leudeke, hitzak, nondinahikoak diren, molde bakar batean moldatu beharrez, berdintasuna gerta dadin nagusi. Beste muturrekoak eta mutur haren aldamenekoak ere aski ezagunak ditugu: frantsesa, ingelesa, alemana eta horien antzekoak, hitzen jatorrizko eitea gehienbat begiramenez gordetzen dutenak. Beste zerbait gehitu behar nuke: italianoak, alegia, ez duela berdintasun hori izkribuz bakarrik lortu, ebakeran ere hor nonbait dabilela, guk nekez iritsiko genukeen neurrian.

Aspaldi nabarmenduak dira, gure artean ere, bi joera horiek. Bata, geureganatze aldekoa, argiro azaldu zuen aspaldixko Txillardegik, 1958an Bilbon egin zen "Euskalzaleen biltzarr"-ean, *Euskera* 4 (1959), 150-170, batez ere "Erderatiko itzak euskera bizian" deritzan atalean. Bi bide omen dira, Leizarragak irakatsi ziguna eta Axularrek hartu zuena. Eta Txillardegik honena, Axularrena, nahiago omen zuen.

Beste joeraren aldeko beti Leizarraga-zale agertu izan den Krutwig dugu orain ere lehendabiziko, aitzindari izanak ematen baitio, besteak beste, buruzagitza gai honetan. Gehiago ere badirela horrelatsu pentsatzen dutenak guztiok dakigu: Kintanaren izena aipatu dut soil-soilik, izen hori bere eta besteren izenean mintzatuko delakoan.

Hauen joerari zeharo arrazoizko deritzat eta argi eta garbi ikusten dut nerauk ere dabiltzaten arrazoien indarra. Ahotan har baditzaket eta neure erara eman aditzera, honelako zerbaitetan bilduko nuke muina. Kultur hitzak hitz sail berezia osatzen dute mendebaldeko hizkuntzetan, eta sail berezi hori itxura berezi batek, hizkuntza idatzian batez ere, nabarmentzen du. Hitz herrikoiagoak ez bezalakoak dira, beraz, bai mamiz eta bai azalez. Ezin daitezke, gainera, herrikoi izan herri batean edo bestean, herri bateko edo besteko ez direlako, guztion ondade komun izaki.

Zenbait ihespide badira arrazoi horren kontra, baina

ihespide besterik ez direnak. Hizkuntz-arteko batasun hori halaholakoa dela, adibidez, baita ohitura horren arabera jokatzen dutenen artean ere: frantsesak *diphtongue* idazten duen bitartean, *diphthong* agertzen da bai ingelesez bai alemanez, "hobeki itzeukiz", Leizarragak esango zukeenez. Erantzun ere daiteke kultur hitzak eta hitz herrikoiak ez daudela elkarrengandik hain saihestuak non batzuetarik besteetara pasatzeko zubirik ez den. Maiz aurkitzen baititugu, edozein lekutan, kultur hitzak, txantxetan edo erabili direlako, bere esertoki goitarretik beheitituak: hor duzue, *erretolika* ez ezik, gure *kalamatrika* nahiz frantsesezko *grimoire*. Lagunartekotzat ematen dute *illico*, hau ere frantsesezkoa, 'sur-le-champ', latinezko etorki garbia gora-behera. Gaizki idatzia dago gainera, hori ere bada, maiz ageri den *conditio (sine qua non)* bezalaxe, latin klasikoaren ereduz neurtzen baldin bada: "Il n'ẏ a jamais eu de double *l* dans le mot", diote Ernout-Meillet-ek.

Ihespideak ez ezik, arrazoibide sendoak ere ikusten ditut nik, ordea, buruzpide honen kontra. Eta teori mailan ahulak diruditen arren, aski bortitzak, ene ustez. Ez du inork ukatuko hizkuntza klasikoei (hauei batez ere, nahiz zeharbidez izan) gorde nahi zaien leialtasunak ez duela gure irakurleen (eta batipat idazleen) eginbidea erraztuko, zailduko baizik. Ororen gain, *gaztelaniaz mintzatzen den kultur munduan partaide diren euskaldunentzat* zailduko du, eta ez dira ez guttienak ez ezerezenak. Ez dut neure buruari begiratu besterik, nahiz eta hizkuntza klasikoekin ofiziozko harremanak aspaldidanik izan ditudan.

Euskaldunak aurrera jotzen baldin badu espezialistaren bidetik, jakin beharko du erdararik bai orain eta bai, *baita onenean ere*, geroko gero luzean. Hortik gora esan behar dut badakidala zein erdara ageri den gero eta gailenago inguru hauetan. Baina, noiz arte iraungo du oraingo joerak? Ez beti, noski, historiak erakusten digunez, eta gaztelaniaren etorkizuna ez nuke nik inondik ere guttietsiko. Hizkuntzaz gaztelau direnak ugaritzen ari direlarik, ez ote zaizkigu halaber jakitez ere pixkaren bat haziko?

Espezialistak bere sailekoak behar ditu jakin, gehienez ere, eta bere sailekoak erdara horrek, demagun oraingoz ingelesa dela, irakatsiko dizkio. Zertarako saiatu behar du bere alorrekoak ez direnak ikasten, fisiko batek, esaterako,

apophthegma eta *hendiadyoin* zuzen letreiatzen? Nahikoa du, behin hortaraz gero, hiztegiren bat eskuztatzea. Ala ez gara espezialistaz ari, baizik eta inoiz *uomo universale* izan zitekeelarik orain "gizon ikasi" hutsetan gelditu denaz? Ba, honek ikasiaren izena merezi onez jaso nahi badu, ikas ditzala "ikasia" izateko ikasi behar dituenak, eta utz ditzala bakean ezjakinagoak. Ez da hau, azken buruan, estetika hauzia, egunoroko bizibehar larriari dagokion egiteko itsusia baizik.

Hitz berrien premia gorrian gaude eta presaka eta muturka sortu edo hartu beharko ditugu oraindik luzaroan. Sortu *eta* hartu, egungo egunean egin ohi den bezala, atzoko alderdikeriak baztertuxe daudelarik. Etorkinak ugaritzea ez zaigu komeni hitzak, lehen esan bezala, ez datozelako bakarrik. Lege berriak ere badakarzkite berekin, biderako sakotearekin batean, bai ebakera eta bai joskera ere aldatuko dituztenak. Eta hobe genuke hartzen ditugunen formari kontuz begiratuko bagenio, gure fonologi legeak, gelditzen zaizkigun hondakinak, itxuragaizki gal ez ditezen.

Nolanahi ere, eta gai honetan bakar-bakarrik sartzen naiz irakasleen alorrean, zertxobait aldatu behar genituzke geure pentsamoldeak haurrak eta haziak geure hizkuntzan eskolatzekoan. Esaten dena nola idatzi behar den jakiteak badu bere axola. Are gehiago, hrdea, eguneta gure artean, irakurtzekoan ikusten dena nola ebaki behar den irakasteak. Letretarik ahora daraman bidean bai baita nahikoa bihurgune.

Erdaratikako hitzen artean zaharrak badaude eta berriak ere bai. Zer eratan behar genituzke erabili, lehendanik ezagunak direnean? Hedatuenik dagoenean, esango bide du zenbaitek, baina "hedatuenik, non?" da maizenik erantzun honi dagokion berrerantzuna. Paperetan, noski, eta ez jendearen ahotan: ez da, gainera, erraz izaten ahozko hizkeran duten zabalkundea neurtzea. Antzinatasunak balio du, nik uste, beste ezerk baino gehiago. Besteak beste, hobe dugu zaharra, zaharkiturik ez badago, berriagoa baino.

Zaharragoaren bila dabilena ez dabil, nahimeta ez, iturburuaren bila. Italiarrek *testo* idazten dutenez gero, guk ere *testu* idatz dezakegu. Bada euskal idazle zaharrik hitz hori *s*-rekin idatzi duenik eta italiarrak, deus izatekotan, gu baino ikasiagoak eta latinari mila bider lotuagoak dira.

Etimologiaren gose-egarri denak, eta izan da horrelakorik gure artean, egin ditzake, berezko duen lekutik ateratzen badu, egiteko diren kalteak. Hortik jaio zaizkigu *halegia*-k, *hazaro*-ak, aipatu ditudan *mugaharri*-ak, eta *albanitza*-k behar ez dituen *ahal*-ak. Badirudi, berriz, eta hemen bidenabar ari naiz, badela *ahal* galderetan erabiltzeko oinarririk. Mugaz haraindiko Haraneder-Harrietek, behinik-behin, honela itzuli zuten Lc. 24, 18: "Bakharra *ahal*zara Jerusalemen hoin arrotz?" Eta hona parean Aita Iraizozena: "Zu bakarrik *al* zera arrotz Yerusalem-en, ezpaitakizu egun auetan an agitu danaren berri?"

Ikasiago, gizatalde bezala eta oro har, bihurtzen garenean izango dugu behar bada erdaratikako hitzak era ikasiago eta dotoreago batean hartzen hasteko egokiera. Eta ez nuke nahi inork hau txartzat har lezan, neure buruari harrika eta ez besteri ari naizenez gero. Ezta ere harako gorago esan dudan hura: euskaldunok, alegia, geure hizkuntzaz landa besterik ere beharko dugula etorkizunean. Aspaldiko predikarien taxuko exenplua aterako dizuet adierazi nahi nukeena hobeki azaltzeko.

Bazen behin batean, eta oraindik ere bada, Tarski zeritzan eta deritzan goloniah bæa, aspaldi xamar Poloniatik aldegina, beste askoren gisan. Logikaria zen eta ez du oraindik, dakidanez, lanbide elkor aski hori utzi. Halako batean, bada, gure logikari polonesak idatzi zuen semantikari buruz (hizkuntzalari gehiegik aditzerik ere ez duen semantikaz ari naiz– oinarrizko omen den artikulua. Maiz baino maizago aurki daiteke aipatua, gehienik 1936an argitara zenean zeraman tituluarekin: *Der Wahrheitsbegriff in den formalisierten Sprachen*. Horrela ez bada, geroagoko (ingelesezko edo) itzulpenaren izenburuarekin ikusi ohi da. Inork guttik aipatzen du (Quinek, esate baterako) 1933an jadanik agertua zela polonieraz. Eta ez dut uste Quinek berak ere lehenbiziko hori jatorrizko hizkuntzan irakurri duenik.

Polonia Euskal herria baino gehixeago da, batez ere azkeneko hau euskaldunen (euskaraz dakitenen, bestela esan) herri den aldetik hartzen badugu soil-soilik. Poloniera gurea baino hizkuntza landuagoa da, hedatuagoa izatez kanpo, eta logika, honetaz ohartu behar genuke lehen-lehenik, han izan da landua, ez hemen, gure artean. Are gehiago, 1936an, eta urte horren inguruan, Alemania ez zen logika gaietan Polo-

niari alderatzeko ere gauza. Eta halaz guztiz hizkuntzak eman zion amore hizkuntzari, ez gaiak gaiari.

Opa daitekeen etorkizunik onena opa diot nik gure hizkuntzari. Baina (ai *baina* madarikatua!) irispidean, helmenean edo helbidean gerta daitezkenen artean hautatu behar dut etorkizunik onena. Hona garbiro esan.

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 7

Moderatzaile: *Haritschelhar, Jean*

Partaideak:

(1) *Zatarain, A.:*

"Etimologia popularrari buruz: Guk sagar ondoren gelditzen denari "mutxikina" esan diogu; eta Eibarren "umetxikina".

(2) *Alberdi:*

"Gaur Akademia esateko hitz bat aurkitu behar bagenu, *Euskaltzaindia* (sortu zen, gaur egun) ez dela sortuko.

Euskaltzaindia sortu zen. Gaur egun neologismoak sortzen ez da inor ausartzen.

Niretzat oso gogorra da, gaur Euskaltzaindiak, "prentsa bulegoa" esatea".

(3) *Iruretagoiena:*

"Urteko hilei buruz:

(1) Urtarrila-Hilbeltza. Bioi aukera eman eta biok onartu. Gipuzkoan ezagunena da.

(2) Otsaila.

(3) Martxoa-Epaila: harritzen naiz nola baztertu den Epaila. Martxoa ez da euskara. Horregatik euskaran baldin badago, hura erabiliko da.

(4) Ekaina-Garagarrila: nire ustez Garagarrila hobe dela.

(5) Uztaila.

(6) Abuztua: ez dut ikusi ere nahi: Dagonila: uda + goen + hila.

(7) Iraila-Agorra: biak ongi.

(8) Urri: Ados nago.

(9) Abendua-Gabonila: Nire ustez Gabonila."

(4) *Mitxelena, K.:*

"Agorrila: Gipuzkoan "septiembre" da eta beste batzu. Nahasteak baztertzeko bat edo bestea aukeratu zen."

(5) *Irigoyen, A.:*

"Euskal politika" diogunean "euskararen politika" adierazi nahi dugu.

"Eusko" euskaldunek ez dute erabili.

Niretzat, "unibertsital barrutia"-"distrito de universitarios". Zergatik?

Merkatari-merkatalgo.

Unibertsitari-unibertsital.

Beraz, "Sozial arazoa", niretzat ez da ezer euskaraz. "Arazo soziala" izan behar luke. Kanpotik hartutako hitzak adjetibo bezala dira, aurkakorik aitortzen ez den bitartean.

Eta ni, gramatikako legeen alde, ikaragarrizko purista naiz. Eta hala aitortzen dut nire burua."

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRERA BIDALITAKO ESKABIDEAK

ARABA, BIZKAIA TA GIPUZKOA'KO EUSKERAZALEAK EUSKALTZAINDIARI

Bergara, 1978 - IX - 7

Arantzazu'n 1968an Euskaltzaindia'k emandako ARGI-BIDEAK, datorren iraillean amargarren urteurrena betetzen dutela-ta, berak euskera batuaz artuko dituan erabakiari buruz, gure iritzia eman nai dugu.

Gure egin-behar au, iru zatitan banatzen dugu:

1. Arantzazu'n esandako batzuek.
2. Amar urte auetan gertatutakoa, ta
3. Bergara'n datorren iraillean artu bear liraken erabakiak.

1.—ARANTZAZU'N ESANDAKO IRITZI BATZUEK.

Lojendio jaunak: "Euskera dagoan egoeran, orrelako sayoak, KALTEGARRIAK izan ditezke. Arrisko aundikoak beñepein". (*Euskera* 1968, 223 orr.).

Aita Mokoroa'k: "Baina betoz orain indarraren aldeko LEGE-JARTZAILLEAK, erriak darabiltzan euskal-izkerak NASPILLATZERA TA BIURRIKATZERA, erriari bereak ez dituen bideetatik bultzaka joan-arazi naiean. Eta ni beldur, ez bataren eta ez bestearen eztan izkuntza nabar, pisu ta elkor orrek ez ote ditun gogoan joko euskaldunik jatorranak, euskal-liburu ta paper guziak erabat zapuztutzerañó".

"Beude, beude H guzi edo geien-geienak, letra ori gabe beren itzak arrottz egingo litzaizkienentzat. Eta alde emendik, gure jendearentzat betegarri uts eta lanbidea ta zeresana jartzeko bestetarako aztira dotorekeri oiek... Oraingoz bañepein, gure izkuntza esturasunetik atera ta bere buruaz jabetzen asi dedin arte." (*Euskera* 1968 - 224 orr.)

Mitxelena jaunak: "Ni ez nintzan sartuko auzi ontan baldin ikusi ez banu indar berri bat, ez dakit zenbaterañokoa, ba-dala".

Gero erabakiak ... ez du esan nai behin betirako izango diranik ... baizik gero ere aztertuko dira eta, agian, emendik urte batzutara Euskaltzaindiak beste erabaki batzuk artuko ditu'' (*Euskera* 1968- 240 orr.).

Nik Euskaltzaindiari eskari au: Zilegi ar dezan ... H erabiltzea SAIO BEZELA, begi onez ikusi dezan ... bai erdakoekin, bai asierakoekin''' (*Euskera* 1968- 245 orr.).

Lafitte jaunak: ''Danok saiatu behar ginuke hemengoaren alde ... hangoak eta hemengoak. Nik ez nuke H sartuko emen. Han erraiten dugunez ... Gu iltzera goazi ... hiltzera doan ontzi bati ez lotu: behar bada ni ... ez dut esperantzarik bihotzean ... hemendik behar da'' (*Euskera* 1968- 240 orr.).

Iritzi auek, ederki asko erakusten dute noski, an izandeko kezka ta giroa.

2.—AMAR URTE AUETAN GERTATUTAKOA.

EGO-ALDEAN.

Bi saill berezi-bereziak ikusten dira:

Batekoak, H bear dan lekuan eta askotan ez danetan jartzen alegintzen dira. Bide batez, LL ta Ñ kenduaz, ''euskalizkera nabar, pisu ta biurria'' sortu dute.

Baste saillekoak, ez dugu onartu H ori ta LL ta Ñ erabiltzen ditugu.

Euskaltzaindia'k, erdian gelditu bearrean, lenengo saillekoen alde nabarmen jokatu du, bere ixiltasunakin, bigarren saillekoan idazkera gaitzetzi naiean bezela, ta bitartean, gaur oraindik, idazkera au bakarra izan, Euskaltzaindia'k onartua.

IPAR-ALDEAN.

Euskaltzaindia'k emandako ARGI-BIDEeri batere jaramonik egin gabe, lengo idazkeran idazten dute danak.

Beraz, Arantzazu'n emandako ARGI-BIDEAk, euskera idatziaren batasunik ez du lortu ta iñork amur emango ez duanez, alperrikakoa ta kaltegarria izan da egindako SAYOA.

Lojendio ta Aita Mokoroa igarle izan ba-lira, etzuten argiago adieraziko, amar urte auetan gartatuko zana.

3.—BERGARA'N DATORREN IRAILLEAN ARTU BEAR LIRAKEN ERABAKIAK.

a) Azkue'ren bideari jarraituaz, GIPUZKERA OSOTUA artu bear litzake EUSKERA BATUTZAT.

b) Euskaltzaindia'k iñor beartu ezin duanez, norbaitek beste idazkeraren bat erabilli nai ba-du, ontzat emana izango da.

d) Zailtasunak iñor ez ikaratzeko, Oiñarri-Irakaskintza! —Orokorroan (EGB), eskualdeko euskera erabilliko da.

e) Eskualde bakoitzak bere idazkera du, baiña EUSKERA BATUAran idazkerak, GIPUZKERA OSOTUAK, euskaldun geienen joerara makurtu bear du, H'rik gabe ta LL ta Ñ'kin.

Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko Euskerazaleen izenean

Bilbo'n, 1978'ko uztaillaren 26'an

EUSKALTZAINDIARI

Bergara, 1978 - IX - 7

Kardaberaz bazkunak, aurtengo ekainaren 14an izenpetu zuan "Euskeraren gaurko egoera da la-ta agerpena" izeneko idazkiari buruz gaur, uztaillaren 22an Euskaltzaindiari itzal aundiz aurreratzen dizkion iritziak:

- Azkuek euskera nola bateratu lortzeko, bidea erakutsi zigula. Orregatik, h'rik gabeko gipuzkoera osotua danok onartu bear dugula.
- Ikastolai buruz, lurralde bakoitzean bertako euskera erabilli bear dala, E.G.B.'ko ikasketarako.
- Ortik gorako ikasketa-mailletan, gizpukoera osotua erabilli naiez dutenak beste edozein euskera erabilli dezaketela.
- Ortografiari buruz, euskera osotu euskaldunik geienak darabilkitena artu bear duala.

Olazar'tar Martin
Kardaberaz'ek Bizkaia'n lendakari.

Latiegi'tar Bixente
Kardaberaz'ek Araba'n lendakari.

Ayerbe'tar Inozentzio
Kardaberaz'ek Naparroan lendakari.

Arrinda'tar Anes
Kardaberaz'ek Gipuzkoan lendakari.

"EUSKALTZAINDI"ak

1978'ko irailean, Bergara'n antolatu duen

BATZAR'ari

Bergara, 1978 - IX - 7

Urestarazu'tar Andoni

Adei onenaz:

Batzar' or'i buruz banatutako itaunketari nire erantzuna eman badiot ere, bidezkoa iruditu zait ortan adierazi ditudan asmoak zeatzago ematea; or'engatik nire txosten au aurkezteko ausartzen naiz asmo oien betegar'ia izan diteken xedeaz.

Gure Eri'aren bizirako euskeraren ebazkizunak dituen aunditasun eta garantzia dirala-ta, besterik begiratzeke, nire iritzia jakin-erazi nai dut emen, niretzako eginbidea orela betetzen dudalakoan.

Lenengoz euzkal- ebazkizunaren elburuak ongi zedaritu beari ditugula uste dut, ene iduriko onela nabari ditzakegunak:

— Gure Eri'aren bizirako, euzkera ezinbestekoa dugu, beraz gure Eri guzia, bere osotasunean, EUZKALDUN izan beari.

— Egiazko Eri euzkaldun batean, gizona euzkaldun osoa izaten.

— Ondorioaz, EUZKAL-ERI'an mota guziko gai, alkarbide ta gogo-eginkizunetan, euzkera bide nagusia bezela erabiltzen.

— Guzi ortarako egokia izango dan euzkeraren BATASUNA lortzean.

Ene ustez elburu oiekiko batera gatoz guziok, eta bidezkoa danez, elburu oietarako alde ta aurka zer dagoen begiratzea beafezkoena zaigu, enurarik gabe.

Asi gaitezen aurka zer dagoen begiratzen. Zer esan ordez zertzuk esatea obea izango litzake, agian.

Aurkakoa dan aundiena, zalantzik gabe, erabili beaŕ ditugun erderak dira, len oien ama izan zan latera berdin ukan genuelarik.

Guziok ongi dakigunez —beti begien aufean daukaguta—, iru erdera oiek batez ere, euzkeran bertan eta gure bizi guzian eragipen izugaŕia egiten ari dira oso aspaldidanik. Eta eragipen ori, naiz euzkerarentzat naiz euskal-bizi guzirako, oso kaltegaŕia izan dugu; erderak sartu zaizkigunean euzkera zokoratuta geratu zaigulako. Araba'n, Napaŕoa'n.

Eta gure Eŕi'ko beste alderdi batzuetan ere zer gertatu dan begiratu ezkero, ukatzerik ez ortaz. Otian auxe izan beaŕ baitezpadako ondorioa: Erderak gurean euzkera ondatzen du.

Naiz eta ori guzien aldetik egitzat artzen, esandakoa ezin naikoa izan, eta egoki ta beaŕa izango zaigu astantze ori nola egiten dan eta batik bat azken bi mendeetan nola burutzen dan ikustea.

Lendabizi gure Eŕi'an erderazko gogo-lantzeak indaŕez aŕerazi dizkigute, bide batez euzkera guztiz uŕuñaturik geratzeko. Zoritxaŕez jokera oiek euzkaldun askoren aldetik ontzat artuta izan dira.

Indartze oŕen ondorioaz, asi lenengo irakaskintzan eta biziari dagozkion eginkizun guzietan gero, erdera erabiltzeko guztiz bearturik izan gera aspalditik.

Lenengo ikastolara doan euzkaldun utsa dan auŕari, asieratik eztiote itzegingo erderaz baño, tutik ulertzan ezpadu ere. Oŕela, jokera ori auŕ euzkaldunarentzat zigoŕ izugaŕia izan da beti ta edonun. Baña malko ta neke aundienen bitartez, ikastolan iru edo lau urte egin ondoren, andik erdalduna egiña ateratzen da, ain zuzen erdaren eragipenagatik; ori dala-ta, argi ikus dezakegu erdal-ikastoletan erderaren eragipena nolakoa dan txaŕa.

Gero, eguneroko bizian barna sartzen dan izarian, eragipen ori aundi ta indartuko zaio edonori. Ta bide ortan jaŕaitu ezkero, azkenez euzkaldun auŕari gertatu zaiona, Eŕi guziari ere gertatuko zaio, ezinbestean.

Alakotz, beaŕ-beaŕena izango zaigu, gure izkuntza ta gure Eŕiaren biziari eutsi nai diogunoi esandako eragipenaren aurka gotoŕenik jokatzea.

Eragipen ofen azpegi berezi bat, auxe, nabaritzeko: Gaur guziok, gure ikasketak erderaz egin ditugulako, ta ori ere indafez egiña, gure oldozpenak erderaz be dagizkigu. Badakit, edonork eta gai batzuetan bederen, aufetik bere burua gertu ezkero, oldozpenak egin eta mamitu ditzakela euzkeraz; baña gertutze ori gabe, edonork ere gai geyenetan, berez, erderaz oldozten duela esan beaf. Eta ortxe ikusteko, berezi-ki, gure Efi'an jasan beaf dugun gogo-menperatzea nolako aundia dan.

Erderaren eragipena beti izan da ta beti ere izango da berdin;ofengatik gure Efia erderaz eriotzera doala ateman beaf da; ta aitzitik, euzkeraz bizira oldartuko zaigu; ezinbesteko ondorioetaz.

Ta erderaren eragipen ori berdin-berdin izango da, edonork eta edozertarako erabiltzean. Alakotz, guretzat erdera dan guzia uztea beaf-beafena da, naiz euzkeran sartuta dagoena naiz inguruan dabilkiguna.

Ba-dirudi Euskaltzaindi'ak, 1956'gafenean Arantzazu'ko batzafean eman zuen aolku au: "Ba-daki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaiean, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie orretarako egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta nekagarriago izan", eman zuenean, esandako asmoak zituela. Zergatik ezta ontzat artu, gero, aolku on ura?

Azken amaf urte auetan, gurean izan ziran lendabiziko euzkal-idazleak aurkeztu dizkigute eredu bezela. Baña idazle yaukal aien lana oso aintzakotzat artzeko izanafen, eziña zaigu eredutzat artu, oso laterakoiak izan ziralako, ta ofengatik euzkera lateraren bideetan barna eraman zutelako, gure izkuntzari, egiz, kaltea egiten. Euzkera edatzeko ta indartzeko, bere bideak erabili beaf ditugu beti, ezinbestez, eta ez kaltegafi zaizkion beste guziak.

Azken amaf urte auetan ere, batasunerako bidea bezela "euskera batua" deitua izan dana guzioi safierazi nai-izan da; baña bide ori, esandako izpideengatik, ezin egokia izan iñola ere; ta egiazko bidea beste nunbait aurkitu beaf-izango dugu.

Euzkelgi guzietan erabiltzen dana euzkera da; edo, beste eraz esanda, euzkera izkelgi guzietakoa da. Orixe dala-ta,

egiazko batasuna egin nai baldin badugu, eziña izango zaigu euzkelgi bat bakaŕik ere bereiztea; ta egiazko batasuna lortzeko, guziak erabiltzea ezinbestekoa izango zaigu.

Orobat esan dezakegu itzai buruz, ezin emengo ala ango euzkelgian erabiltzen dan euzkal-itz bat ere uŕuñatu.

Ondorioaz, benetako batasuna egiteko, guziok izkelgi guziak erabili beaŕ-izango ditugu, bat oñaŕiz artzean eta gero besteen itz eta adizkerak, betetzeko, erabiltzean, alik eta zabalena izan diteken neuŕian.

Ortarako, sorayokeria, zabarkeria ta alperkeria, erabat zokoratu beaŕ-izango ditugu; ta euzkera bera dan bezela artu beaŕ dugu guziok, bere eŕaztasunekin, bere zailtasunekin eta bere almen guziekin; lenengoak ustiatzeko, bigaŕenak gaintzeko ta irugaŕenak alik eta neuŕi aundienean erabili ta zabaltzeko. Naiz eta burutu beaŕ dan lan ori laŕiena izan.

Gure euzkal-gogo-lantzea bere osotasunean burutzeko artu beaŕ dugu; ori izanezik, beste guzia sasi-gogo-lantze batean geratuko zaigu; ta ontarako eztut uste lanik eta nekerik egitea aintzakotzat onartu beaŕ danik, ez eta uŕats txikiena eman ere.

Oŕela jokatzean, batasuna berez sortuko da, ta eztugu ortarako iraduz ari beaŕ; bein bide egokian sarturik, berdin izango da laisteŕago ala beranduxeago elbururaño eltzea.

Egi aundi bat bezela, auxe da guziok onartu beaŕ dugu-na: Euzkeraren batasuna ez da egingo BEREIZITASUNEAN, ALKARTASUNEAN baizik; batasuna alkartzea baita.

Orixe da nire iritzi sendoa, ta adei onez bera esondatu nai diet guziai.

Len esan dudanez, ez deritzait egokia auŕeko beste mendeetan izan diran euzkal-idazleak eredutzat artzea, ta zioak ere aipatu ditut. Aien ordez, mende ontakoak izan beaŕ obeak, berai jaŕaitzeko: Azkue, Olabide, Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Garitaonaindia, Agiŕe, Zaitegi, Ibiñagabeitia ta abaŕ.

Eta gerorako, guziontzat, Azkue'ren aldian ibiltzen ziran bideetara beŕiz jotzea beaŕenezkoa deritzait.

Euskaltzaindi'ari buruz, iru egipen auek burutzea egokiena izango litzakelakoan nago:

— Lenengoa, aipatutako azken jokera ortara, bera lendabiziz eta bereala abiatzean, guziai ere orixe bera esondatzea.

— Bigafena, len ere aipatutako 1956'ko irailean Arantzazu'ko Batzaf aundian eman zuen aolkua oñafiz arturik, eta al ditezken laguntza guziekin, lenbailen, egiazko Euzkaliztegia, ots, euzkeraz bakafik egiña izango dan Iztegia, egiten asi dedila. Ta lan ori oso aundia ta urte luzeetan barna burutzeko izan behaf dalako, apika, gaiez-gai ta lenengoz irakaskintzari buruz astean egiten; egikera ori onena izango dalakoan.

Gure izkuntza ta gure Efi'aren bizirako ere, gure egiazko Euzkal-Iztegia, ezinbesteko ta gafantzi aundienekoa dala uste dut. Eta ori alik eta osoena euki arte, egin, egiten eta egingo diran gogo-lantzeari buruzko lanak guztiz bein-beñekotzat artu beaf-izango dira. Aitzitik, Iztegi ofi eskef eta bera oñafiz arturik, lanak sakonago ta euzkaldunago egin al-izango dira, izan diteken neufi batean bein-betikoak izan ditezen.

— Irugafena, 1936'gafen urtean, amaituta, bai ta irartzeko gerturik, Azkue, Olabide ta Orixe'k egiña zeukaten beste iztegia ere argitaratzea. Jaun aiek nolako jakintsuak izan ziran gogoraturik, berak egindako lana eziña da guziok ezagutu gabe geratzea; ororentzat eta euzkera berarentzat ere onuragafienetakoa izango dalako.

Azkenez, naiz Euskaltzaindi'ak naiz euzkera maite dugun guziok, euzkaltzale guzien alkartasunerako alegin aundienak burutzeko gertutzea, guzion eginbidetzat artu beaf dugu. Ororen gain gure izkuntza ta gure Efi'aren bizia begiratu beaf ditugu, beaf baldin bada geron burua ukatzean.

Bayona'n, 1978'ko garagafilaren 27'gafenean

EUSKARA BATUAREN IDAZKERAZ - EUSKARA BAKUNA

Bergara, 1978 - IX - 7

A. Irigaray-J. A. Loidi

EUSKALZAINDI-ko deiari erantzunik, izendatutako batzordekoek oharpen batzuk egiten dituzte idazkera batuari buruz, euskararen ongian xoilik oldoztuz, aldebat utzirik bakoitzen apeta ere.

Agian euskara mintzatuak lO urte hauetan, irietan irabazi duela esan daike; baiña errixka askotan eta baserrietan galdu. Irietan zabaldu dana berriz ez da euskara sendoa, ahula eta gaizki josia baizik askotan. Utsune hau betetzeko, ikastaro klaseetan (eta ikastoletan) ematen dan mintzairan ez dirala berrikeri bereizgarririk sartu behar iduri zaigu batasunaren aitzakiaz. Orain arte Ikastaroak, filologo edo jakitunendako zuzendu eta apailatuak izan dira gehienak. Irakasleak ez du derrigorrez jakintsua edo gramatikalaria izan beharrik: euskara errikoa ongi jakin behar du, batua baiño lehen; eta horozgainetik ongi irakasteko dohaina edo bokazioa iman behar du, asko jakitea baiño areago; bi gauza edo kalitate hauek diferenteak dira, gure ikastegietan eraino ohartu gabe daudenak. Irakasleak, ikasle xumeen eta jakingabeen maillara apaldu beharko du, eta ez beetik gora. Pedagogiako oiñarri sendo eta baitaezpadakoak, sar arazi beharko ditugu gure ikastaroetan, lan onurakorra egiteko.

Eskas ditugu, bestalde, klase arruntak, gramatika gutti edo ezer ez dakitenendako: hauetako millaka daude. eta euskara arrunta hori irakasteko, bada ikasbidè bat: izkuntza basikoa, arronta edo bakuna deitzen dana. Israel-en hebraiera arrunta horrek arrakasta aundia izan du, eta A. Berriatua berak, hango ikastaroetan ibili ondoren, han ikasitakoa honela azaltzen du:

"Hebraiera errez-erreza irakasten zitzaien Ulpanit deitu klaseetan; bi tankeratan idazten dute; normal, jende ikasiendako, eta bestea, basikoa, jende gutiikasientzat, arrontentzat; iru aldizkarietan idazten dute basiko dalakoa, bai radioan eta telebistan ere... ANAITASUNA aldizkarian (334), honela jarraitzen du Berriatuak:

"Guk ere hemen holako zerbait egin behar ginuke... baina segur nago, pertsona aunditu (aziak) horietako geienak ikasiko duten euskara, nahi ta nahi ez horri mailako izango da, bestelako euskara ikasteko ez baitute astirik, ez dirurik, ez gogorik, ez gaitasunik, ez beharizanik izango... Gero eta argiago ikusten eta sentitzen nuen herri mailako euskara hori, bestea utzi gabe, serioski hartu behar genukeela. Israelen erabiltzen duten hebraiera basiko horrea irakurgaiak... letra aundia dute, foto asko, artikulo laburrak, esaldi sinpleak, konpuestorik oso guti, berba arruntak, usatuenak, itz ez-ezagun guti... baztertuz potenzialezko eta subjuntiboko formak... (Evitar las oraciones dobles y de relativo, proferir las formas perifrásticas a las sinteticas: "etorriko naiz", no "natorke"..., marginar la conjugación en "iketan"; en el basico solo formas en "zuketan"). Israeleko Ulpanit klase horietan ez dugu ezer teoriaz ikasten, ez dugu ezer analisatzen; analisi horiek Lizeo eta Unibersitatarako dira; hitzak, berboak eta esaldiak, elkarizketan agertzen diran bezelaxe ikasten ditugu eta kito. Maistrak ezdigu aipatzen ere zer den "singular" eta itzegin... goratik (en voz alta)...horixe da inportanteena...Guk ere euskara mota hori (bezelakoa) denen artean moldatu behar genuke: euskara batua noski..."

Baiñan, hontan, ohar bat eratxeki behar diogu. Aipatutako trabak eta zailtasunak kendu behar baditugu, batuaren grafia zorrotz hori ez da ttipiena; eta gure basikoan, geroago ematen ditugu irispideak kontuan iduki beharko diralakoan gaude. Aditz-forma zaillak eta aipatutako gramatikako analisak, halabaiña, noizean behin sartuko dira, adin bateko ikasle-jendearentzat, euskera basiko hontan.

Bestalde, Berriatuak dio (Anaitasuna 77-7-1):

"Euskera batuan mailak daude. Maila bat goi-goian aurkitzen da; maila hortako euskara ez da erreza; euska-

ra hori ondo ulertzeko eta menperatzeko, asko ikasi behar da... euskara hori mementu hontan behinik behin ezda herriarentzat... Gauza bat da idaztea eta eta erdaraz idatzitako zerbait eskuratzen dutenean, erdaraz datorrena bakarrik irakurtzen dute. Asko idazten dela egia da, baina ez da egia asko irakurtzen denik; herriak oso gutxi irakurtzen du... Baina nola jokatu? Baztertu egingo dugu beste euskara, euskara klasikoa, euskara landua? Ez horixe... momentu hontan nire ustez, egunkarietan batez ere, oinarrizko euskarari (basikoari) eman behar genioke lehentasuna; berri ixilak euskara hori nahi du... Euskaldun berriek euskara hori behar dute eta deihadarka eskatzen dute..."

Esan guzti horien gaiñetik, bistan da, euskara basiko hortan asteko, Arantzazun orain lO urte gomendatutako baldintzak jarraitu beharko direla euskara idatzian; eta argitaratzea komeni litzake:

I. Ikastaroetan, euskara bizirik dagoen tokietan, lehenengo ikastaldiak, eskualdeko izkeraz eman beharko dira, nahiz gero, hontan irakurtzen ongi jabetu ondotik, euskara batuan asi, xuxen eta egoki idazten dakien batek gidaturik.

II. Bi idazkerak, zaharra eta batua onartu irakasle etsaminetan eta Literatur-txapelketan, epai mahaieko (eta beste autespenetan ere berdin ahal izan ezkero) bi ikusmoldetakoak autatuz, konsensu bidez, elkarte gehienetan saiatu ohi dan bezala botoetara joan gabe.

III. "H" letra usatzean berriz, Arantzazuko Batzarrean esan zen bezala, sar bi bokalak bereixten diran kasuetan xoillik ("aho", "ohe", "zuhur", "ohore"...) izenorde demostratiboetan ("hau", "hori", "hura"), bai eta aditz-lagun batzuen asieran ("hemen", "hor", "han").

IV. "ll" eta "ñ" zillegi utzi idaztean, "i" bat aurretik sartuz. Iparraldeko izenetan ere asko sarturik daudelako ("Urruña", "Bithiriñe", "Peillen", "izarño", "Urdiñarbe", bezelakoetan). "Y" letra ere usatzekoa da ("yuye", "yayo", "soryesa", "anyereder", "Mayi"...) eta honelako beste itzetan bereziki.

V. Fonetismoak kenduz, itzak osorik idatzi behar dira (gero errial laburtuko ditu) "ez da", "ez dira", "ez dute" esaldiak obetsi, "ezta", "eztira", "etzuen" diralakeen ordez (edo

aldatuko ditu), "ohargabe" / "oharkabe", "Aiagorri" / "Aizkorri"... Joera hau ikasleentzat errezago da. Eta argitasun geyago ematen dio, nahasi gabe bere buruak.

Beste oharpen batzuk oraingoz utzirik, baldintza hauek naitaezkoak dirala uste dugu (minimum) euskara idatziaren zuzenbiderako, bai eta izkuntza basikoaren aldera urratz bat eman nahi bada behinik behin.

BERGARAGO BILTZARRERAKO

Bergara, 1978-IX-7

Gereño, X.

Ene ustez, ahal den arinen, euskara batu standard bat finkatu behar dugu. Helburu hau lortzeko, puntu hauk proposatzen ditut.

1. Zerbait adierazteko hitz bi daudenean, bat aukeratu. Adibidez, hauen artean, zein aukeratu behar da?:

ONDO	ala	ONGI
ISIL		IXIL
BERRIZ		BERRIRO
ABUZTU		AGORRIL
HONETAN		HONTAN
EGINGO		EGINEN
BA DAGO (baiezkoa)		BADAGO
HAUEK (suj. akt.)		HAUK
BATZUK		BATZU
BEGIRATU DIO (hura)		BEGIRATU DU
DAUKAT		DUT (noiz?)
IKUTU		UKITU

2. Euskaltzaindiak, lehen bai lehen, hiztegi ofizial bat argitara dezala, euskara batu standard hori finkatzeko.

3. Helburu bera lortzeko, Euskaltzaindiak argitara dezala gramatika ofizial bat.

4. Dei bizi bat egin, euskal idazle eta irakasle guztiei, hiztegi hori eta gramatika hori jarraitzeko.

5. Guzti hau epe labur batean egin beharko litzateke. Orain Euskaltzaindiak ba du dirua behar den jendea liberatzeko, lan hori buru dezan.

EUSKARA BATU STANDARD BAT BEHAR DUGU BEREHALA!

1978 Uztaila

ITZ-BUKAERETAKO "RR" GOGORRAK

Bergara, 1978 - IX - 4

Zatarain'darr, Anbrosi'k

Abando'n ikasle nintzanean' orai berrogeitabost urte inguru beraz' erdaldun askori *Agur, eh?* entzuten nien; nere belarrietan *agure* bezelaxe sartzen zan. Geroztik bukaeretako "rr" gogorrak beti erre gogor dirala aditzeko eran idatzi bear ditugula uste edun dut.

Beste askok ere gauza berbera pentsatu dude, jakiña, eta orrela idazteko bideak asmatu ere bai. Arana'tar Sabino'k ŕ idazten zuan, Campion'ek r gogorr irakurtzea nai zuan, eta *ere* leguna r idaztea. RIEB-6, 224...229 aieketan Darricarrère jaunaren "Zazpi-izarak"... izeneko idazki batean Campion'en idazkera agertzen da:

"Izararte garbi edo gau-alde argietan ikhusgai dela, bai ahal dakizue zeru garaiko iphar alderat behatzen delarik izar andana ezagutuenetarik bat, bethi eta bethi itzul-inguruka dabilana."

Dana dala' oraiñ argi utzi nai nukena beste zerbait da: bukaerako erre gogorrak adierazi-bearra euskaldunon artean antziña-antziñako kezka dala. Ona ediren ditudan bukaeretako erre gogor mordoska bat:

Mitxelena, Textos arcaicos vascos:

Lasturr, el rio que va ata Lastur, et de Lasturr el rio que viene ata Çaarquin vide, depart de suso Çinçurrçu (1284) (37a) Navarr olatze Landerr erreca beerecoa (37a); (Fuero General de Navarra) guirissellu çorr, ilumbe çorr (54a), (Joan de Eliçalde, 1609): agotic sarr dadinean (116); (Tolosa, 1619): ançarac vaceaquic deadarr eguiten (128a); (Micoleta, 1653): Alcarr on badereche (133a); (Marineo Siculo, 1533):

amarr (147a); (Isasti, Salve) negar ybarr onetan (164a); (Refranes y Senetencias 555?) oñean arr ta beguian negar (175a).

Martínez Díaz, Alava medieval I, 109a: comite Latrone in Ayvarr (1147) (255a) de Arepin fasta Logorr et de Logorra...

Campión, Algo de Historia:

Baryuarr (1333) (4a), Echazarr (12), Ayuarr (13), Lombierr (13), Çiçurr (27), Lombierr (1336) (45), Lombierr (46), Echaçarr (73) (1338), Lombier (74), Gutierr Gonzaliz Quesada (75), Tauarr (1340) (92), Irivaz terr (93), Lombierr (96).

Esaera zaarretan:

Refranes y Sentencias: 36 Çeeyquec maurtuti hoeanean ederr eztanic calean; 87 Oñac leorr, haoa eze sendari doque.

Garibai XV: Yç-oc ederr, guei-oc eç.

Zalgitze, 92: Mandoak nor du aita? Bortuko behorr ederrena ama.

Oihenarte: 618 sorr dezakek; 631 hurr errea (643 ur emaiten) (Noticia de las dos Vasconias, RIEB, 17, 333a) Chacorr, chacur.

Irigarai / (Lizarraga Elkano'koa) Euskera 1959), vizcorr bez nere sineste eria (121a); curr adi lurreraño (122a); alque da ibiltzen ain churr neurtzen (123a); Ta onen echetto atoasco charr erdi urratuan (126a9.

Adema (RIEB 2-761a) Haitzean hezkurr eta / khuia nun emana! (gero: hezkur pikorrak, hezkur bat; beraz letra bakarti aurrean rr, bestela r idazten du).

Irigoyen, Mendigatxa'k Azkue'ri idatziak:

Euskera 1957, 122a: idarr, merezinerr; ezcurr (130); indarr (134); zukugarrtako (136); zorr (138); bizkorr (143); biarr (144); naroderr (144); artzarr, arzarr, artzarr zaina (145); zarrerr (147); alkarr, chaparr tzú; maklaldierr (149); umerr, zarrtian artio; nabelarr, cañuto belarr, garagarr, chakurr, odol belarr, olabeorr, belarr on (151); alkarr, bazterr, sudurr, bizarr, eri chinkarr (163); sorr, okerr, chikerr, mearr (163); lasterr (164); uzkerr bana (170).

Vocabulario baztanés

Gorosurreta (Euskera 1962) abarr (138), alabearr (140), aparr, apurr (141), astoarr (144), aurr, chatarr (145), bearr

(147), bizkarr (150), charr (151), ederr (152), garr (159), gazur (160), ybarr (163), yndar (164), ysstarr, ytassur (165), kampotarr, kedarr, kidarr (168), laster (170), okerr (177), patarr (180), pitarr, plater (181), ubarr, uberr, ur (187), zagarr, zaharr (189), zatarr (190), zigorr (191), ssuurr. *Agud'*ek eta *Mitxelena'*k agertarazitako *Landucci'*ren iztegia bukaerako rr gogorrez josia dago:

adeudarse=çorr eguin; agua bendita=vr bedeuquatua; agua congelada=vr quarrancatua; aguaducho=vr joana; ay donde tu estás=orr, y agua lequan; arraygar hazer raizes=-guiçon lur asco daucana C; arrugar=chimurr eguin; atemorizar=bildurr egosçi; auer gana de cagar=cacacurr nax; auer miedo=bildurr equi; bahear, echar vaho=lurruña dacarr; balar ouejas=ardiac deadarr eguin; barbado=vicarrduna; cachorro perro=chacurrcumea; clamor gran boz=deadarr andia; clauo de yerro=burrniazco ylçea; colmena=errlateya; colmenero=errlate eguite deuena; cuantas vezes=çeynbat viderr; cuarenta vezes=viorrogey viderr; culpar=vearr egosçi; curar tener cuidado=arrdura euquia C; centellear=yncar egosçi (centella de fuego=yncarra); cinquenta=-viorrogueta amar; decimo=amarrgarrena; demasiadamente=larr; desnarigado=surrvaguea; dezena parte=amarrgarre partea; dia de hacer algo=vearr eguna; diez=amarr; diez veces=amar viderr; ensordarse=sorr eguin;ensordamiento=-sorrquetea; espinosa cosa=gauça agarr daucana; graçia en hermosura=graçia, donayrea eder yçatean; granizar=escararr eguin; gritar=deadarr eguin; hidiondo=usaya dacarr; yugada de tierra=araldia bat lurr; lagrima llorar=negarr eguin; lampiño=bicar guchi B; leñador=egurr eguiten deuena; leño vno solo=egurr bat; luna=yrarrguia; luzero, estrella=eguneco yrarguia; llorar=negar eguin; mançebo no barbado=mutil biçarr vaguea; maridar=senarr artu; maridable cosa=gauça senarr arçayte erraça; menester=bearr eun; menester es=bear da; menesteroso=bear deuena; mentir=-guçurr esan; mentirosamente=guçurtia leguez; montar=dacarr, montadu; moscada nuez=vnsaurr mos; nariz romo=-surr çapaldua; neuar, hazer nieue=erurr eguin; nogada salsa=vnsaurr salsea; nouenta=laurogueta amarr; nuez moxcada=vnsaurr moxcadua; oledor=surr onac daucana; pedorro=vzcarr onçia; peer=vzcarr eguin; pellejero=çamarrguina; pila de agua=pila bat vr; prestamente=lasterr; presto=

lasterr; pringue de torrezno=vrrdaya goypea; ribera de rio=vr aldea; retorcer=viurrtu; ikusten danez, rr beti ongi dago, r berriz bizpairu aldiz rr ordez.

Schurhammer, Franz Xaber, I Exabierr, Exavierr (1252), Savierr (1217) (10a); hibentario de los vienes que quedaron en Xavierr (11a); Sta. M de Exabierr (15a); Exavierr 1504 (29); Xabierr Inschrift der Pfarrkir che San Salvador); (26) el Santo Francisco de Xabierr (1626); Exavierr (30) la casa de Chavier que es llana y algo fuerte (carta de Salazar a Cisneros); Xabierr (50a).

Mitxelena, Apellidos vascos: Lazcaiuarr en 1350 (Lazkaibarr; 398).

Auzoko izkuntzetako idazkeretan agertzen eztiran bukaerako rr gogorrak orrenbeste aldiz euskeraz agertzeak zerbait esan nai digu. Idazten doi-doi zekien orrenbestek rr oietara jotzeak euskerak eta euskerazko itzek oien bearra duela, eta bearr ori jakite urriko askok ikusten zudela' argi dago. Oraiñ ere bearr ori badugu. Euskaltzaindiari jokabide edo idazkera ori onartzea, edo gutxienez ere onestea eskatu nai diot. Euskeraren idazkeran zerbait jatorrik eta zaarrik baldin badugu' bukaeretako rr orixe dugu, eta dudarik gabe euskaldunek euskera idazteko asmatua gaiñera, ez kanpotik ekarria.

AIPATZE-ATZIZKIARI BURUZKO TXOSTENAREN AURREIDAZPENA

Bergara, 1978 - IX - 7

Zatarain'darr, Anbrosi'k

Euskaldunik geienok darabilgun *dan* itz-itxuraren ordez' Euskaltzaindiak *den* itz-itxura aukeratu du. Aukera orren alde euskalki batzuetan da > en = den gertatzen dala aipatu digude. Bide orri oker bat ikusten diot: euskaldunik geienen kontrako aukera dala. Gaiñera orren aldeko arrazoia txit makala dala agertu nai nuke emen.

Aipa-atzizkia *en* balitz, eta atzizki orren *e* letrak aditzjokoen *a* letra aldatzeko aalmena balu' gure aipatze-atzizkidun geienak diranez bestelakoak izan bearko ludeke. Izan ere' euskalki guztietan onela jokatzen dugu:

(NI) dot, det, dut, dvt: dodan, dedan (kaletarren batzuk: deten), dudan, dvdan.

(GU) dogu, degu, dugu, dvgv: dogun, degun, dugun, dvgvn.

(ZU) dozu, dezu, duzu, dvzv: dozun, dezun, duzun, dvzvn.

(ZUEK) dozue, dezue, duzue: dozuen, dezuen, duzuen; dvzie, dvzien

(I) emen Gavel'en iritzia aipatu bear da. DUT Erronkari'n DUD zan bezela' eta orrek DUDAN eta gaiñerakoak adierazten dizkigun bezala' Gavel'ek DUK leen DUG ote'zan dio. (RIEB 12, 341a): agian duk < dug dukan < dugan > duan, haiñ G dek > dekan; BN duk > dukan; R duk > duan; Bc dok > doan; S dük > düan > dian > diin "pour éviter la confusion avec dü > dian > din".

Guzti oietan argi dago aipatze-atzizkia *-n* naiz *-an* dana. Orduan ¿nola sortu da *den* ori? Emen ere ots-aldaketa bat

dugu, fonetismo bat; euskaldun askok *burua* eta *begia* ordez *burue* eta *begie* esaten dudenean egiten duden aldakuntza berbera: duan > duen; aut*si da*na > aut*si de*na, lodi*tu da*na > lodi*tu de*na.

Arotzarena'ren "Grammaire basque" liburuan auek dagode:

(182 a) Edozoin-sar dakigun etcherat, agurra zor diogu // Ekarrarazi zuten mendian bi*zi zen* ermita bat // Bere buruaren berotzeko behar *duen* hura galdua duke indarren berritzeko // Gizon bat emaztea eri *zue*na, mirikuketa badoha // Baionan zegona Piarres Legungarai deitzen zen // (183a) Errege hel*du de*na // Hautsi dugun manamendua // Bakean dagona ez da onthasun chumearen jabe // Arras guztiak dira dohazinak // Acholarik ez *due*na // Achola ez d*ue*nik othe da? // Ikusten danez *-en* bakoitzaren aurretik *i* naiz *u* dago. Eztut beti ori gertatzen danik esan nai, baiña askotan gertatzen dala bai.

Oni ere zerbait erantzungo diode: *den* eta *duen* esaten diran eskualdeak eta *begie* eta *burue* esaten diranekoak eztirala berberak. Emen, Gipuzkoa'n eta Bizkai'n ere badira *den* esaten duden erriak, baiña *de* ere esaten dudenak; esate baterako' Ondarroa'n, Zeanuri'ñ eta Azpeiti'n *etorri de* esaten da. Azkue'ren kantu-liburuko bat ona, Lesaka'n jasoa:

CV 526 (VII-478 okerreko zenbakia)

Amodioa, amodioa
baldin ezpazait mudatzen
egunentxo bat señalatu ta
biok esposa gaitezen.
Zorionean yerri zinaden
Mari Lukainken serbitzen:
gona luzeaz orpo zikinak
¡kas! *uen* garbitzen.

Aurpegi eder musu zabala
esku ederren yabea
azak eltzean garbitu gabe
sartzen dit*unen* urdea:
udaberriko lore ederrak
erortzen *dire* negura:
beti gustora biziko danik
eta yaioko mundura.

Ia iñon ere entzuten eztan *ditunen* agertzen zaigu or. Beste onek ots-aldakuntza geiago ditu, baiña *zitzaidan* dio:

CV 185 (Baraibar, Larraun)

Ardanberri sorg*iñe*,
Añazkarren eg*iñe*:
etxera-orduko kosta zitzaidan
oberen ori ag*iñe*.

Betel*ure*, Betel*ure*:
beti nago ara *gure*;
Mañeruko ardoa baiño
naiago nuke ango *ure*.

Beste onetan aldakuntza-bidez sortutako *i* letrek ere ondorengo *a* letrak *e* biurtzen ditude:

CV 689 (Baraibar, Larraun)

Agur Marie,
—ederra den ar*ie*—
graz*iaz* bet*ie*,
—dena oropiloz bet*ie*—
Jau*na* dago zurekin,
—atorra ederra din berekin—

Joera au aspaldikoa da, didurinez; ikus RIEB 26, 657a NAIARA < Nájera Baiña den > da + en-eztala ikusteko' aski dugu Axularr eta Duvoisin gogoratzea: beti-beti *dabilla* itzari aipatze-atzizkia erastean *dabillan* idazten baitude. Eta beste askok ere bai.

Gaiñera' *duk* itzak *dukan, duken* eta *duan* ematen ditu, baiña *dun* itzak beti *dunan* ematen du. Esate baterako' 1626'-ko idazki batean: "Eska hakio behar *dukana* "Joanes Etcxeberri, M.-H. (Lhande'ren iztegian, ESKAtu itzean).

Gogoratu beste au ere: jícara > khikera BN, L, kikera S; pícaro > pikero BN.

Azkenik Lafitte'ren "Grammaire Basque"tik arturik:

(397a) -n, -an: doan, *duen*, dugun, diozun, dagon, *den*, etxean nintzan denboran, heldu nintzan egun batez, nahi duzun bezanbat (bezala), hemen *giren* ber, aiphatu dion gizona, makil batekin zoana, erran diotan gizona, erran dutan gizona, Axularrek diona // ong*i* de*l*a, ez dezala, izan dadila, hiltzen ar*i* ze*l*a. Lautatik iruk *-en'* en aurretik *i* edo *u* ageri dude, eta bestearen aurrean zer zegon eztakigu.

Bukatzeko' Axularr'en batzu:

187 hasarretua dabi*llan* bati; 44 gerotik gerora gabiltza*n*oi; 1 dabill*an*; 323 dabill*ala*; munduko atseginetan dabill*anak*; (dagoenaren: Lafitte jaunak esan zidanez' *dagoen* lapurteraz bakarrik esaten da) (dagoela) (dioen) 1 oi zaik*ana*.

EUSKALTZAINDIARI

Bergara, 1978 - IX - 7

Udako Euskal Unibertsitatean, hainbat gairen artean egun euskara batuak, ahozkatzean dituen arazoak eta euskalduntze lanak eskatzen duen oinarrizko euskararen premia larria kontutan harturik, hainbeste metodo ezberdin proposatu baita urteotan, ondoko irakasle eta euskara alorretan lanean ari garenok, arazo hau zientifikoki aztertu behar dela garbi ikusi dugu.

Hori dela-ta, bilera bat egin ondoren eta lehendik proposamen konkretu bat prestatua dagoela ikusirik, egokitzat jotzen dugu Mikel Murgiarte eta Miren Cau hizkuntzalariek aurkeztutakoa.

Beharrezkotzat jotzen dugu lehen-bait-lehen lanari ekitea, horrela epe labur batetan Euskal Herri osoan zehar datuak bildurik, alor hontan ondorio batzu ateratzeko posibilitatea izan dezagun.

Euskaltzaindiaren helburu nagusia, euskarari indar ematea izanik, lan honek bere babespean egina izan behar duela iruditzen zaigu.

Bergarako Euskaltzaindiko Biltzarrean, nolabait gai hau aztertua izanen denez, proiektu hau bertan aurkeztea erabaki dugu, gerora begira euskara mintzatuaren bizitzarako eta indartzerako ikerlan sakon bat izango delakotan. Hori dela-ta ondoan sinatzen dugunok eskabide hau egiten diogu Euskaltzaindiari bere babespean lana harturik aurrera eramateko bide egokiak sor ditzan.

Izenpetzen dutenak:

Alfonso Irigoien (euskaltzaina)

Jose Luis Alvarez Emparanza (euskaltzaina)

Miren azkarate (Euskal Filologia irakaslea)

Xabier Zubizarreta (Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduko Talde Teknikokoa

Jesus Mari Larrazabal (UNED-eko irakasleen koordinatzailea)

Albaro Legarreta (Euskalduntze Alfabetatze Koordinakundekoa)

Patxi Uribarren, Juan Luis Goikoetxea, Agustin Ozamiz (Euskal Herriko Unibertsitateko Koordinatzaileak).

Iruñea, 1978-eko 7-27

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 7

Moderatzaile: *Satrustegi, J. M.ª*

Partaideak:

(1) *Latiegi:*

"Ba dakit, hiru edo lau izanik, nire aurkako izango zaretela.

Ez dut erantzunik eskatzen ez eta galderarik ere. Euskerazalekoek ere irakurri dute hurrengo hau eta nirekin batera datoz.

Idazkera nirea da.

"Batzar hontan entzun duguna entzun ondoren, argi ikusi ahal izango dugu Euskaltzaindia lehengo bidetik dihoala. Euskaltzaindia, euskara batu honen alde, hau da, jendeak "el batua" esaten dion hizkeraren alde, jarri dela.

Jende askok, eta jende asko hoien artean, Kardaberaz Bazkuneko guztiek, Euskaltzaindiak hori egitean, hutsune haundi bat utzi digula usteko dute.

Orain arte Euskaltzaindia Euskararen Akademia zen. Orain "el batua" horren zuzendaritza nagusia bihurtu da.

Nolabait esateko, batu berezi edo konkretu horren Burubatzarra.

Zail, eta neketsu izango zaigu gaur gero batu berezi hori atsegin ez zaigunoi Euskaltzaindia euskara orokorraren Akademiatzat onezagutzea.

Ez dut, orain eta hemen, errua norena denik esango: Euskaltzaindiarena? Gurea? Ez naiz epaile.

Auzikide naizelarik, ezin nindeke epaile izan ere. Baina, hori bera gertatzen zaio Euskaltzaindiari ere. Euskaltzaindia bera, auzi hontan auzikide baita.

Bedi, beraz, gu guztiok epaile, Euskal Herri guztia.

Hutsune honen ondorioak mingarriak litezke. Euskara, Englandera eta beste hizkuntza batzuek bezala, Akademiarik gabe utzi?

Beste Akademia bat sortu?

Eta nik, orain, hemen, beste frase bat idatzi nuen, baina kendu egingo dut, oso mingarri izan litekelako, baina irakurri egingo dut, gero kendu egingo dut: Real Academia de la Lengua Basca-ren edo Erregearen Akademiaren alboan, Herri Akademia bat eratu?

Nik esan nuena hau zen: Ofizialki, Espainiako Gobernuarentzat "Lengua Academia" izango litzatekela eta sor baledi, beste Akademia hori, herriaren laguntza hutsarekin bizi beharko lukela, Kardaberaztarrok bizi garen bezala.

Zortzi urtetan, hogei eta hamalau liburu. Gu geure diru hutsarekin eta liburuxka mordo bat argitaratu ditugu.

Baina honek beste zentzu bat izan lezake, eta, horregatik, kendu egingo dut.

Honek ez du esan nahi gu asmo txarrarekin gabil'zanik. Nik uste dut Akademia ere asmo onarekin dabilela.

Nik hau eskaintzen diot Akademiari eta hitz ematen diot. Berak, elkar hizketa nahi badu, Kardaberaz Bazkunarekin eta Euskerazalearekin, Akademia zazpi punttuko borondate onarekin etortzen bada, zazpi punttu t'erdiko borondate onarekin erantzungo diogula guk."

(2) *Oñatibia, M.:*

"Hemen irakurri dira eskabideetan nik aipatu nahi nituenak, eta denok aspertuxeak gaudenez, esan gabe geratzen naiz."

(3) *Xarriton:*

"Nire adineko batzuri bi hitz erran nahi nieke, eta ni ez naiz Euskaltzaindikoa, laguntzaile bat baizik. Euskaltzaindiari gogorki atakatzen diotela, denok aitortu behar dugu hemen, nahiz eta beraiek esan minoria bat direla.

Gu ere minoria bat gara han, Iparraldean. Baina, ongi entzun baditut, batasuna dioten hoiek ere, behar dela egin Euskal Herri osoaren izenean.

Baina, oso hori ea denok berdin ikusten dugun. Euskara bere osotasun guztian hartu behar dugu. Zuen zerrendatan ez da Iparraldeko idazlerik aurkitzen. Eta ba dira gaur egun ere. Ni neuk, berrehun idazle kondatu berri ditut Iparraldean.

Eta ba dirudi, batzuentzat, ez garela. Ez dut erraiten Euskaltzaindiarentzat. Euskaltzaindian ba dira Iparraldekoak.

Gu gutti gara, baina hor gara. Gu xantaje egiteko bezala hartzen gaituzte.

Iparraldean ere, ba ditugu problemak, ez bakarrik zuek, Kardaberaz eta hoiek...

Iparraldean inkesta batzu bakarrik egin dira. Badira berrogei bat irakasle.

Garbizalekeria ere ba dago, baina guk iparraldekook ez dugu ikusi nahi ere gaztelania.

Duela hiruzpalau egun izan dugu gutun bat Baionan, Lapurdiko Buru Batzarretik igorririk, dena gaztelaniaz "aberkideok" izan ezik, Ajuriagerraren mezara deitzen gintuena.

Ezin dut ikusi ere nahi, Gaztelania hau, Iparraldean."

(4) *Iruretagoiena:*

"Orain Euskaltzaindiari: Ea "h" fonema gabe idaztea, begi txarrez ikusiko duen!

Ez dut besterik eskatzen: bai ala ez, bai ala ez..."

(5) *Atxaga, M.:*

"Nik uste dut, Latiegiren kontra, Euskaltzaindia, gehiengoaren Euskaltzaindia dela. Eta harena inoiz sortzen baldin bada, gutxiengoarena.

Euskara batua, lehen bait lehen behar dugu; eta batu hau, aho hizkuntzatik hurbilen izan dadila gaurko euskaran, aintzinekoetan baino.

Euskara batuak bide bat aukeratu du. Eta beronek, herrian arrakasta izan du. Herrian onartua da. Onartua, idazle askorengan. Onartua, aldizkari gehienetan. Onartua, liburu askotan. Onartua, ikastola eta irakaslegoarengan. Eta azkenik Elizak bide hontatik jo du.

Hau ez da eritzi bat; SIADECO-k erakutsi digu zientifikoki. Eta ez dakit zergatik zalantzatan jarri behar dugun SIADECO-n lana, orain arte inork ez baldin badu jarri.

Beste gauza bat da Euskaltzaindiak bere arauak eman ditu euskarari eta idazleoi dagokigu, irakurlegoa kontutan harturik, arau hoiek betetzea.

Euskaltzaindiak ez du errurik, euskaraz analfabetoak baldin bagara. Gure euskalkia, justu justu baldin badakigu. Gure hizkuntza, kalean, kaxkartzen ari baldin bada. Euskara galtzen ari baldin bada. Erdaldun asko etorri baldin bada. Horren errurik ez du Euskaltzaindiak.

Biltzar hontan, ikusten ari garenez, bide batetatik doa. Besteek ez digute beste biderik eskaintzen. Hamar urte hauetan, ba zuten beste bide bat eskaintzeko garaia.

Euskara batua, bakarra agertzen da. Eta hau herriak onartu du. Eta honek sortu du arrakasta. Ez bestek.

Euskaltzaindiak bide honi eutsi behar dio; bestela, minoria baten presiopean eroriko litzateke. Euskaltzaindiak, aurrera jo behar du, hemen azaldu diren eritziak haintzakotzat harturik."

(6) *Agirre, Eufronio:*

"Denok agertzen gara batuzaleak. Batua, behar beharrezko dela, denok aitortzen dugu. Baina era berean, aitortzen dugu, euskalkiak zaindu behar direla eta, landu. Hori ezin dugu baztertu.

Nik Euskal Herria, euskarari begiraturik, hiru zatitan sailkatuko nuke:

1. Oraindik, euskara hutsean egiten den herrialdea: Lekeitio, Jatabe...

2. Euskara hitz egin arren herrian, erdal giroan dauden herriak: Gernika, Mungia, Bergara, Tolosa...

3. Euskararik egiten ez den tokia: Bilbo, Erribera...

Hirugarren sailekoak, euskara batutik ikasten hasiko lirateke. Hau hamabost urterarte; gero, euskalkiak landu.

Lehen eta bigarren sailekoak, lehen eta behin beren euskalkia ikasi eta landu.

Hontarako hiru arrazoi jarriko dizkizuet:

1. Errazenetik zailenera jo behar delako.

2. Honela ikasle eta gurasoen artean ez genuke etenik sortuko; hots, euskalkiak lantzen baldin baditugu.

3. Honela, euskalki bakoitza landuko genuke."

(7) *Zarate, M.:*

"Nire ustez, Kintana X. dela eta, gauza asko entzun ditut gaur hemen. Baita Mitxelenarengandik ere. Nire ustez Kintanaren hiztegia, behera doa. Hala ere, Kintanak gizonki jokatu du. Bestetik, Gastañaga Jesusek, uste duenean euskara batuaren kontra doala, batuan idazten duela, eta bizkaitarrontzat oso zaila dela. Kardaberaz taldeko liburuak ere, zailak. Ni hor nago, Bizkaian, erdi bide bat naizelako. Baina Zatarain bezala, ez naiz ezkontzen.

Hemen, ortografia, deklinabide aldetik, ikasi behar haundia dugu. Askotan, pertsonen aurka ari gara.

Nik Arantzazuko arauak onartzen ditut, orrazketa batzu egin ondoren."

(8) *Garmendia, M.ª Carmen:*

"Hamazortzi urtez gerǫ, ikastolan ari naiz lanean. Izugarri arriturik nago, hemen, egotan, esan diren zenbait gauza.

Bestetik, harrituta nago, irakasleok ixilegi izan garelako, M. Zarate eta besteren bat salbuespenduz.

Harrituta nago, arratsaldeon esan denez, ikastola mailan, herrialde bakoitzean bertako euskara erabili behar dela, E.G.B.ko ikasketetarako.

Nik galdetuko nuke, txosten hau egin dutenak, irakasle ote dira? Ikastoletako errealitateaz zer harreman dute?

Ikastoletako textugintzan, zenbaiteraino partaide izan dira?

Ea konturatzen diren ikastoletako gure haurrek ikastolan jarraia dugu geroaren itxaropena, oittin, argot bat egiten dutela. Hizkuntzaren biktima direla. Diglosia, etab.

Gurasoekin hitz egiten duten haurrek ikastolan eta kalean beste hizkuntza bat egiten dute.

Gauza bat eskatuko nioke Euskaltzaindiari: Jagon sailaz, bakarrik arduratuko litzatekeen Biltzar Nagusi bat egitean? Baina, uste dut, irakasle eta Euskaltzaindiak lan batzutan elkar jokatu behar dutela.

Guk eskatuko genukeena zera da: Euskaltzaindiak errealitate hau kontutan hartu eta jagon sailari indar berezi bat ematea."

(9) *Uribeetxeberria:*

"Nik tituluei buruz zerbait esan nahi nuke.

Euskaltzaindiko titulurik ez duten irakasle asko oso mindurik dago. Zergatik?

Euskaltzaindiko askok beste tituluak gutxiezten dituelako.

Ni ez nago ez batzurekin ez besteekin. Horregatik proposamen bat egitera ausartzen naiz:

Euskaltzaindiak, beste eritziak jasoz, presta dezala, programaketa bat kontenido aldetik, zein euskalki edo euskara batuan eman behar diren aipatu gabe.

Gero, programa hori aztertu eta gainditzen duenak, titulua izango du.

Euskaltzaindiak ez dut uste arrazoirik duenik tituluak, euskalki batean edo bestean edo batuan behar direla izan nahi eta ez, erabakitzeko. Hori agintekeria bat litzateke.

Tituluetan kontu haundia izan behar du, tituluak bizitzeko behar baitira.

Gizarteak erabaki behar du zein euskalkitan nahi dituen kurtsuak eta tituludunak.

Euskaltzaindiari dagokio programaketa egitea."

(10) *Letamendia, J. A.:*

"Galdera bat Uribeetxebarriari: kasu bat aipatzeko Euskaltzaindiaren titulua atera ez duenik; euskalkian, euskalkiz egin baldin badu, eta azterketa hori ondo egin baldin badu.

Azterketa presenta dezala. Mesedez kasu bat erakusteko."

(11) *Irigoyen, A.:*

"Bat: Letamendiak esan duena ontzat hartzen dut.

Bi: "B" mailarako, dialektologia eskatzen da. Eta, hemen, Bergaran, larunbatero ari izan direnak, dialektologia ikasten ari izan dira. Eta ni ari izan naiz hori ematen.

Etsamina pasatu behar dute."

(12) *Rotaetxe, K.:*

"Zatarain jaunari "rr" amaierako dela ta, nahasteak ikusten dituenez; askotan, kontextuak argitzen duela ulertzeko: Honela ezin nahastatu: Agure, agur. Beste hizkuntzetan ere hau gertatzen da.

Horregatik, nire ustez, bibrante arazorik ez dago."

(13) *Oregi, Josu:*

"Nire ustez, irakurlego eta ikastoletako inkesta bat egin behar litzateke."

(14) *Zatarain, A.:*

Euskaltzaindiari eskabide bat: Lehen Mitxelenak aipatu du hilen izenak nola aukeratu ziren. Irizpide berberekin erabakizun guztiak erabakitzea, eskatuko nioke."

(15) *Kintana, X.:*

"Hitz bi, M. Zarateri eskerrak emateko. Agian uste dut, buztana eta adarrak etxean utziak ditudala."

BERGARA, 1978 - IX - 8

EUSKAL HERRIKO ELIZAREN JOKABIDEA EUSKARARI BURUZ

Bergara, 1978-IX-8

Eustasio Etxezarreta
"Euskarazko Eliz-idaztietarako batzordeko idazkaria."

SARRERA

Hizkuntza, gizartean eskuarki erabili ohi dugun komunikabide bezala eta herri baten nortasunaren kultur ardatz bezala, garrantzi haundiko gauza da Elizarentzat, bai bere erlijio-eginkizuna betetzeari dagokionaz, bai herriaren ondasun nagusienetakoa denez. Euskara, beraz, Euskal Herriaren hizkuntza izanik, aintza haunditan hartu behar du eta nahi du Euskal Herriko Elizak.

Bere erlijio-eginkizuna betetzerakoan euskara mintzabide erabiltzen duelarik, kulturgintzan dihardu Elizak ere. Horregatik, gogo onez hartu du Euskaltzaindiaren deia, eta bidezko gauza da Euskal Herriko Elizak euskarari buruz darabilen jokabidearen berri agirian ematea, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra ospatzean.

Euskadiko Elizak —Ipar eta Hego Euskadikoak, alegia— badu gaurregun "Euskal eliz-idaztietarako Batzorde" bat. Batzorde horren idazkari naizen partetik nator ni euskarari buruz Elizak duen jokabidearen berri ematera.

Hitzaldi hontan bi izango dira puntu nagusiak:

- Lehenengoa, historia labur bat, urte hauetako jokabidearen eboluzion eta beronen une nagusiak agertuz.
- Bigarrena, Euskal Herriko Elizak euskararen arlo hontan darabilen jokabidearen azalpena, zenbait zehaztasun ematen dela.

Baina, gaiaren mamiari heldu aurretik, beharrezko izango da puntu batzuk argitzea.

Hitzaldi hontan, Elizaren jokabideaz eta jarreraz dihardugu, hau da: euskarari buruz Euskal Herriko Elizak, ofizial-

ki harturik, darabiltzan jokabideaz eta jarreraz; hemen esaten denak ez du, beraz, zerikusirik Elizaren barruko zenbait talderen edo nor bakoitzaren jokabidearekin, hoiek, bidezko denez, askatasun osoa bait dute beren iritzien arauera jokatzeko gizarteko arazoetan.

Bestalde, Euskal Herriko Eliza esatean gure elizbarruti guztiak sartzen ditugu: Iruñea eta Tutera, Baiona, Gasteiz, Bilbo eta Donostia. Gauza jakina da denontzat, oso ezberdinak direla alde askotatik begiratura elizbarruti bakoitzaren egoera, arazoak eta euskarari buruzko ahalmenak. Horregatik, hemen esaten dena zehaztu beharra legoke zenbait puntutan elizbarruti bakoitzari buruz; baina puntu nagusienak aipatuko ditugu eta hoiek, neurri batean behintzat, egia dira guztientzat. Baionako elizbarrutiak euskararen arloan beste euskal elizbarrutiekin dituen harremanak liturgi-itzulpenetara mugatuak gelditzen dira gehienbat. Beste euskal elizbarrutiek, ordea, gero eta harreman gehiago eta zabalagoak dituzte, baita euskarari dagokionaz ere. Hala ere, beti izan ohi dira elizbarruti bakoitzak bere aldetik egindako lanak, eta ez elkarrekin.

Euskararen arloari gagozkiolarik, gure Elizaren euskal lanetan garrantzirik haundiena liturgi-itzulpenei badagokie ere, lantegi hau liturgia bera baino askoz zabalagoa da eta alor gehiago hartzen ditu: Katekesi-Idazkaritza, Gotzaien aginduz aurrera doan Bibli-itzulpena, Gotzaien idazkiak eta agiriak, Gotzaitegiko Aldizkari Nagusia, Elizbarruti-arteko Sozial Idazkaritzak, eliz-artxiborako parroki-liburuak, etabar.

Beste argitasun bat oraindik: Euskarari buruzko Elizaren jokabideaz mintzatzean, itzulpena aipatuko dugu behin eta etabar. Izan ere, orain arteko gure argitalpen gehienak jatorrizko beste hizkuntza batetik egindako itzulpenak dira, eta ez euskaraz sortuak: Biblia dela, liturgi-gaiak, kristau ikasbidea, etabar.

Eta zehaztasun hauek egin ondoren, sar gaitezen gure gaiaren lehenengo puntuan.

I. HISTORIA

Euskarari buruz Elizak dituen jokabide eta jarreraren historia labur hontan, behar-beharrezko diren argitasun ba-

tzuk bakarrik ematen ditugu. Beraz, ez dugu eliz-bizitzaren Luze-zabal osoa hartzen, baizik Vaticanoko II garren Kontzilio-ondorengo azken hamabost urte hauena, oker haundirik gabe hor hasten bai da nolabait euskal Elizaren jokabide berria erakunde bezala hartua eta elizbarruti-artekoa.

Bestalde, euskara idatziaren arazoari bakarrik begiratzen zaio hitzaldi hontan, hau da: Elizak erakunde bezala eta ofizialki egiten dituen euskal argitalpenak ditugu aurrean.

Itzulpen hauen lehen urratsak

Kontzilioak, 1963ko Abenduan, liturgia herri-hizkuntzan ospatzeko bideak zabaldu zituenean, bereala hasi ziren han eta hemen liturgiaren itzulpen lanak. Euskal Herrian Ipar aldekoak izan ziren lehenengo taldea eratu zutenak 1964eko udaberrian, beren Apezpikuaren oniritzíarekin. Dozenaren bat apaiz biltzen ziren eta Belokeko Beneditarren etxean egiten zituzten itzulpen lanak.

Geroxeago, urte beraren azkenean, eta Espainiako Gotzaien Batzarraren aurrean liturgia euskaraz ere ospatu beharra zela jakin arazi ondoren, Donostiako Gotzai Lorentzo Bereziartuak itzulpen taldea sortu eta lan hori egiteko agindu zuen Donostiako elizbarrutirako.

Nafarroako euskal parrokietako apaizei Orixeren Meza liburua erabiltzeko esan zitzaien, hasera hartan. Baina bereala, Donostiako taldearen itzulpenak eskuratu zituzten eta beraiek ere lanean hasi ziren, gauza beharrezkoenak prestatzen, eta argitalpen batzuk egiten.

Arabako Gotzaiak erabaki zuen, bere elizbarrutian liturgia euskaraz ospatu behar zuten parrokietako apaizek aski zutela Donostiako elizbarrutian erabiltzen zituzten liburuak erabiltzea.

Bilboko Gotzaiak, berriz, Kerexetak aurre hartan itzuli eta argitaratu berria zuen Meza liburua erabiltzeko agindu zien bere apaizei.

Hauek izan ziren haserak. Euskara liturgian erabiltzeko erabakia hartu bezain laister ahalegin guztian hasi ziren taldeak lanean, beharraren aginduz. Eta gaurtik begiratuta burugabekeria badirudi ere elkarren berririk gabe horrela lanean hastea, ez dugu ahaztu une hartan euskaraz eta lehenbaitlehen egiteari begiratu zitzaiola.

Bereala sortu zen behetik gorako eragin bat, lan hoiek denon artean elkarturik egiteko eta, gauza errazenetan behintzat, itzulpen berdintsua eta euskara bateratsuan emana lortzeko. Izan ere Mezaren Egunereko zatiak bost argitalpenetan emanak zeuden euskaraz eta ez inola ere bateratzerik ez zegoelako, baizik elkarren berri jakin gabe eginak zeudelako. Hontaz gainera, Erromak hizkuntza bakoitzean itzulpen bakarra egitea eskatzen zuen.

Horrela gauzak, 1966ko udaberrian Euskal Herri osoko beste talde bat bildu zen Urretxun. *Jaunaren Deia* izeneko Lazkaoko Beneditarren aldizkariaren zuzendaritzak hartu zuen hontarako iniziatiba eta, itzulpen talde ofizialen lana errespetatuz, ahalegin berri bat egin nahi izan zuten itzulpen batasunaren zerbitzutan. Eta hiru lan saiotan Mezaren Eguneroko zatien baterakuntza egiten jardun ziren. Eskualde baterako bakarrik balio izango zuketen esaerak baztertzen ahalegindu ziren eta beste esaera zabalagoen bideak aurkitzen. Hala ere, lan hontan aritu zirenek ikusi ahal izan zuten, nolako eragozpenak aurkitzen ziren, Euskal Herri osoko herriarentzat ulergarri izan zitekeen euskara berdin-berdina erabat iristeko.

Egindako lanaren berri emateko eta beste liturgi-gaiak aztertzeko hiru eguneko ikastaro bat eratu zuten 1966ko Uztailean. Honela dio batzarre harek hartutako lehen erabakiak:

> "Gure Gotzai Jaunek lenbailen elkar artu eta Barruti arteko gizon iaioen Batzorde bat jarri dezatela beren zaipean, Elizbarruti oietan liturji berritzeari dagokion guzian alik eta batasun geiena irixten lan egiteko".
>
> (Ikus *Jaunaren Deia*, 17 z. (1966) 24 or.)

Bitartean, Beloke eta Donostiako taldeek aurrera zeramaten, bakoitzak bere aldetik, eskuartean zeukaten lana: Mezako ebanjelio eta epistolen itzulpena. Astero-astero biltzen ziren, ugaria bait zen eginkizuna eta epe jakinetan argitaratu beharra, apaizek beren parrokietan eta tenorez Meza-Liburuak izan zitzaten. Hala ere ez dago ukatzerik, Urretxuko jardunaldiek eta ikastaroak beren eragina izan zutela liturgi-itzulpenen batasun kontzientzia sortzeko. Eta hain zuzen, 1967an, elizbarruti-arteko lan talde ofiziala bildu zen Mezaren Eguneroko zati nagusia elkarrekin itzultzeko.

1967ko urte berean, udazkenean, Euskal Herriko Liturgi-itzulpen taldeko batzuek bilkura egin zuten Iruñean, Erromako Liturgi-Batzorde Nagusian idazkari zegoen Bugnini-rekin. Euskararen egoera berezia eta liturgiarako hortik sortzen ziren zailtasunak aztertu zituzten; bi argitalpen egiten bait ziren garai hartan euskaraz —Baionakoa eta Donostiakoa—, Bizkaian, berriz, lehendikako hirugarren argitalpen bat erabiltzen zuten.

Bilkura hartako erabaki eta ondorio izan zen, egunero erabili ohi diren zatietan ahalik-eta itzulpen batasunik haundiena lortzen saiatzea. Irakurgai eta otoitzetan, berriz, euskarari buruz herriaren egoera kontutan harturik, askatasun haundiagoz jokatzea. Izan ere, euskalki bakoitzeko ordezkarien iritzian, ordukoz ezin zitekeen inola ere argitalpen bakarra egin, baldin gure herriak, entzun hutsez, kristau mezua jaso behar bazuen.

Elizbarruti-arteko itzulpen talde ofiziala

Beti ere liturgiaren bidetik, 1968ak esanahi berezia du itzulpenetako gorabeheretan. Urte horten azaldu ziren Erroman Nezako irakurgai berriak, eta ondorengoetan argitaratuko ziren Mezako otoitz berriak eta beste sakramentuen textuak. Beraz, lan ugaria zen egin beharra eta gainera itzulpen hauek eta hauen argitalpenak erabili behar ziren aurrerantzean elizan lehengoak baztertuta.

Bestalde, 1968ko urtearen azken aldera, hego aldeko hiru elizbarrutietan Gotzai berriak izendatu zituzten: Arturo Tabera, Iruñea eta Tuterarako; Jazinto Argaia, Donostiarako; eta Jose Maria Zirarda, Bilboko Gotzai Administratzaile.

Garai hartako zenbait gertakizunek —eliz-bizitzako, eta sozio-politika eta kultur mailako gortakizunek, alegia— giro, eragin eta premia berri bat sortu zuten gure artean, eta herrikontzientzia ere indartzen ari zen. Gainera Euskaltzaindiaren Arantzuko Biltzarra aurre hartan egina zen.

Gainera Euskaltzaindiaren Arautzazuko Biltzarra aurre hartan egina zen eta kultur giro berri bat sortzen ari zen.

Ingurugiro hontan, lehen aipatutako gure hiru Gotzaiek Nafarroako Lizarran bilkura egin zuten, Tabera Gotzalburuak deiturik, eta erabaki hau hartu zuten: Aurrerantzean

elkarrekin egitea liturgi-itzulpen guztiak. Geroztik, 1969ko Urtarriletik hasita, elizbarruti guztietako taldeak elizbarruti-arteko lan talde bakarrean bildu ziren eta elkarrekin egin dituzte, bai liturgi-textu berrien itzulpenak, bai lehen talde bakoitzak bere aldetik itzulitakoen berrikusketa.

Elkar lan hortatik sortzen zen itzulpena, nagusiki textu berdintsua izanik ere, ez zen, ordea, berdin-berdina; beharrezko irizten zen hiru argitalpen egitea, lehen aipatutako arrazoi berengatik. Eta aditzaren berezitasunez gainera, hor gelditzen zen beste zenbait berezitasun hiztegiari edo joskeraari dagozkienetan.

Euskarazko Eliz-idaztietarako Batzordea

Gauzak era hontan bideratuak aurkitu nituen nik, 1970ean Euskal Elizbarruti-arteko Liturgi-Batzordearen idazkari izendatu ninduteneán. Nire eginkizun berezia liturgi-lanak programatzea eta koordinatzea izan da, eta Iruñea, Gasteiz eta Donostiako elizbarrutietarako egin ohi dugun eran liturgiliburu berriak argitaratzea.

Urte hoietan euskarari buruzko egoera nahiko nahasia eta gogorra bait zen, Elizbarruti-arteko Batzordea gero eta kezkatuagoa zegoen, garrantzi haundiko arazoa bait zen euskararen etorkizunerako. Horregatik, 1973ko Otsailean, Loiolako bilkuran, berri eman zitzaien Hego Euskal Herriko Gotzaiei, euskarari buruz arazo sakona eta alderdi askotarik aztertu beharra zegoela adieraziz, eta gainera Elizak jokabide bat jabetasun osoz erabaki beharra zeukala jakin eraziz. Aurrerabide haundia ari zuen azken urte hoietan euskal herriak, eta gero eta gehiago giro berri batean aurkitzen zen Eliza.

Donostiako Gotzai Laguntzailea —Jose Maria Setien jauna— izendatu zuten euskal elizbarrutietako Gotzaiek, beren izenean eta bidezko ziren laguntzaileen bitartez arazo honen azterketa sakona egin zezan, gero berau oinarri harturik Elizak bere bideak erabaki ahal izateko.

Azterketa honen ondorio izan zen, 1975eko uztailean eratutako "Eliz-argitalpen Nagusietarako Elizbarruti-arteko Batzordea". (Ikus *Donostiako Gotzaitegiko Aldizkari Nagusia*, 306 z. (1975) 535-540 or. - Edo baita ere (1) *Iruñea eta Tuterako Elizbarrutietakoa*, 8 z. (1975) 415-419 or.; edo *Bilbokoa*,

293 z. (1975) 415-417 or.) Batzorde honek erabaki zuen, berriz ere, beharrezko ikusten zela eliz-argitalpen ofizialetan bi jokabide bereiztea euskararen erabilkeran: bata liturgiaren alorrekoa, hau da: herri xehearentzat eta euskarari dagokionaz eskolatu gabea izateaz gainera entzun hutsez eta ez irakurriz kristau mezua jaso behar duenarentzat egiten den euskara-moldea. Sail hontan sartuko litzateke beste zenbait idazti, batez ere Gotzaiek beren kristau herri osoarentzat idazten dituzten agiriak, parrokietarako Kristau Ikasbideak, etabar. Sail hontan beharrezko ikusten zuen Batzordeak euskalkietan errotua dagoen euskara erabiltzea, nahiz-eta ulerkuntza eragozten ez duen baturantzako zenbait puntu onartu, deklinabidean, aditz laguntzailean eta hiztegian. Lehen esan denez, liturgi alorrean elkarrekin egindako itzulpen textu berdintsuak hiru argitalpenetan ematen dira: A) Baionako elizbarrutirako; B) Iruñea eta Tutera, Gasteiz eta Donostiako elizbarrutietarako; eta D) Bilboko elizbarrutirako. Adibide bezala, hona hemen zati batzuk konparaketarako. Bi mailatan bereizten ditugu eta sailkatzen textu hauek. Lehenengoetan garbi ikusten da erabateko batasunetik oso hurbil daudela. Bigarrengoetan, berriz, irakurgai eta otoitzetan alegia, bide luzeagoa dago oraindik batasun osora.

Euskararen beste erabilkera, "batua" alegia, euskaran eskolatua den herriarentzat egiten diren argitalpenetan erabiliko zen, hau da: ikastoletarako Kristau Ikasbideetan eta katekesi-lagungarrietan, gaurregungo zenbait gai berriri buruzko edo talde berezientzako Gotzai-agirietan, etabar. Sail hontan sartzen da, baita ere, eliz-bizitzako jarduera guztian euskararen ofizialkidetasuna ezarri asmoz, geroztik erabakia izan den eliz-artxiborako parroki-liburuetan erabiliko den euskara moldea ere.

Elizak ofizialki, Gotzaiak buru zirela, bere egin zuen planteamendu hau eta onartu zituen erabaki hauek.

Eliz-idazti ofizialetan euskara bi eratara erabiltzeko asmo honek, eta liturgian eta honen antzeko beste idaztietan argitalpen hirukoitza egiteko erabaki honek besterik adierazten badu ere, jokabide honek ez du esan nahi Elizak euskararen batasunaren ardurarik ez duenik, eta are gutxiago batasun horren aurka diharduenik. Erabaki horren oinarrian pedagogi-planteamendu bat dago.

Historiari buruz orain arte esandakoak liturgi-itzulpenen historiari dagozkio batipat. Baina bitarte hortan, gero eta gehiago zabaltzen joan da euskararen erabilkera eliz-idaztietan; eta historia horren arauera erabaki izan dira aldian aldiko arazoak eliz bizitzako beste alorretan, bai elizbarruti-arteko elkar lanetan, bai elizbarruti bakoitzeko lan berezietan.

Laburpen gisa esan dezagun, badirela garrantzi berezia duten hiru historia-une: lehenengoa, liturgia euskaraz ere ospatzea erabaki eta itzulpen lanak hasi zirenekoa, 1964ean; bigarrena, liturgi-lanak elizbarruti guztietakoek elkarrekiko talde bakarrean egitea erabaki zenekoa, 1968an; eta hirugarrena, 1975ekoa, eliz-idazti nagusietarako euskararen bi erabilkera hartu zirenekoa, baina liturgian ere baturantzako bideak ahal zen neurrian hartzen zirela.

Argitalpenak

Azken erabaki hau zertan mamitu den jakiteko, urte hauetako argitalpenak ikus daitezke. Hauetako batzuk euskara "batuan" argitaratuak izan dira, adibidez: Katekesi Idazkaritzako gai gehienak 1973tik honantz, Ikastolen Elkarte Batzarrekin harremanetan; berdin Elizbarrutietako Sozial-Idazkaritzek gizarte-katekesien sailean argitaratutako gaurregungo gaiak; edo Hego Euskal Herriko Gotzaiek joan den urtean egindako pastoral idazkia *Irakaskuntzaren gaurregungo arazoak* izenekoa. Bibliaren itzulpeneko lanak ere aurrera doaz eta, Jainkoa lagun, datorren udaberrian argitaratu nahi litzateke *Itun Berria*.

Liturgian eta beste zenbait argitalpenetan darabilgun euskara-moldea esan dugunez hirukoitza da euskararen forma aldetik, baina bat-bera euskararen egiturari dagokionaz. Eta argitalpen bakoitzaren xehetasunak bereziak badira ere, eskualde bakoitzaren egoera bereziaren arauera, bide hontatik argitaratuak izan dira, adibidez: Bilboko elizbarrutian, *Mezaren Egunerokoa* eta *Igandeetako Mezako Irakurgaiak*; Baionako elizbarrutian liturgiari buruzko argitalpenak; eta Iruñea Gasteiz eta Donostiako elizbarrutietan joan den urtean argitaratutako *Orduen Liturgia* eta urte honen azken aldera azalduko den *Irakurgaiak* izeneko liburua, Mezako irakurgaien sail osoarekin.

Elizbarruti-arteko elkar lanari dagokionez, baditugu Hego Euskal Herrian Liturgiaz kanpoko beste lan asko elkarrekin eginak eta liturgiarako erabilitako euskara-bidetik argitaratuak: Katekesi-Idazkaritzako Kristau Ikasbideak (parrokietarako eginak), Gotzaien pastoral idazki gehienak, Gotzaitegiko Aldizkari Nagusiko zenbait argitalpen 1975etik honantzakoak, etabar.

Lankideak

Milaka izan dira elizbarruti-arteko talde honek elkar lanean eman dituen orduak, eta gehienak liturgi-itzulpenetarako izan badira ere, talde berak egin ditu katekesi-lanak Gotzai-idazkien itzulpenak, edo Bibliarenak, etabar. Lankideen izenak ematea arrisku haundiko gauza izanik ere —urteen buruan aldatzen joan bait dira, eta gutxi edo asko parte hartu duten guzti-guztien izenak ematea oso zaila bait da—, iraupen haundiena izan dutenen izenak bederen aipa ditzakegu:

Baionako elizbarrutitik: Pierre Andiazabal, Xabier Diharce "Iratzeder", Benoit Olhagaray, Emile Larre, Pierre Xarriton, Arnaud Indart, Michel Idiart, Hiriart-Urruty, Pierre Narbaitz...

- Iruñeako elizbarrutitik: Miguel Plaza, Tomas Otxandorena, Basilio Sarobe, Jose Maria Azpiroz, Bixente Hernandorena, Martin Azpiroz, Juan Goikoetxea...
- Bilboko elizbarrutitik: Lino Akesolo, Karmelo Etxenagusia, Mikel Zarate, Bitoriano Gandiaga, Jaime Kerexeta, Joan Bizente Gallastegi, Lorentzo Zugazaga, Jose M.ª Rementeria.
- Donostiako elizbarrutitik: Manuel Lekuona, Anizeto Zugasti, Joan Maria Lekuona, Jose Maria Aranalde, Agustin Apaolaza, Marzelo Gaztañaga, Jesus Gaztañaga, Antonio Sarasola, Jose Luis Ansorena, Jose Agustin Orbegozo, Jose Antonio Mujika, Maria R. Iparragirre...

II. ELIZAREN JOKABIDEA

Lehenengo puntuan historiari buruz esandakoetan azaldu da, zeharka bada ere, euskarari buruz Elizak darabilen jokabidearen zenbait alderdi. Orain bigarren puntu hontan

zelatzago adierazi nohi genituzke Elizak praxi-aldetik darabilen jokabide horren nolakotasunak.

Ardura nagusia: Hizkuntzaren komunikabidetasuna

Historian sarturik dagoen beste erakunde guztiek bezala, Elizaren jokabideek ere berezkoa dute aldakor izatea. Eta euskararen erabilkerari dagokionez, hori da lehenenga ikus daitekeena: aldaketa eta eboluzioa; aniztasunetik batasunerantz doan eboluzioa.

Hala ere, itzulpen taldearen bereizgarririk nabarmenena hizkuntzaren komunikabidetasuna ahalik-eta zabalen lortzeko ahaleginada, noski. Eta ziur baino ziurrago esan daiteke, hori izan dela haseratik eta gaurdaino Elizaren aginduz lanean jardun izan den talde honen ardura nagusia.

Helburu hau lortu ahal izateko, bi referentzi-puntu izan ditu beti begien aurrean:

a) herria, herri xehea, otoitzerako deiari erantzunez gure elizetan biltzen den herri konkretua eta hizkuntzari buruz eskolatu gabea, neurri zabal batean behintzat;

b) euskara, ez euskara teorikoa, baizik euskalki askotan zatikatua dagoen euskara historikoa.

Ez du honek esan nahi, Elizak besterik gabe ontzat ematen duenik herriaren eta euskararen egoera konkretu hori, eta are gutxiago egoera horri eginahaletan eutsi nahi liokeenik. Baizik Elizak, herri jakin honi eman behar dionez Jesukristoren berri ona, herri honek dakien hizkuntzaz baliatu behar duela. Hori da gure abiapuntua. Aurrera egin beharko da noski, eta hori da Elizaren asmoa ere, baina orain eta hemen dugun egoerari begiak itxi gabe.

Lan metodoa

Gure taldearen lan metodoa oso xinplea da. Oinarrizko itzulpen bat prestatzen da eta elizbarruti-arteko taldeak elkarrekiko bilkuran aztertzen du, esaldiz esaldi, jatorrizko hizkuntzako gaiaren leialtasunari eta euskararen egiturazko egokitasunari begiratuz. Eta gero, esku askoren aztarrenak dituen lan hori despertsonalizatu egiten da, berdintasun batera bilduz eta idaz-kriterio jakin batzuk erabiliz argitalpenera-

ko. Gauza jakina da, izan ere, liturgiako eta kristau ikasbideko itzulpenak anonimoak direla, nabardura pertsonalik gabeak eta eliz-elkartearen ahogozoari begira eginak.

Euskarari dagokionaz, hizkuntzaren beraren egokitasuna izan ohi du taldeak lehen mailako bere kezka: egituraz euskara izan dadila bere joskeran, esaeratan, hiztegian, etabar. Eta esaldi egoki askoren artean zabalena zein den jakiten saiatu izan da eta hura aukeratu ohi du, ahal delarik.

Jokabide honekin, batasun bide jakin bat landu nahi izan du Elizak. Izan ere era askotakoak dira euskararen batasunari dagozkion arazoak: batzuk formari dagozkionak, aditz jokoak, hiztegia, deklinabidea, idazkera..., eta besteak bere egitura nagusiari dagozkionak. Gure taldearen ardura nagusia hontan egon izan da, batez ere: herriaren bizitzan ondo errotua eta euskalki ezberdinetan gehiago hedatua dagoen euskaratik hasita egin nahi izan ditu batasunerako bideak. Badakigu ez direla hor bukatzen euskararen batasunaren arazoak. Eta hain zuzen, guzti hoietara eta arretaz zabalik egin nahi du Elizak, aurrera-eta kontzientzi argiagoa izaten saiatuz eta ahal den neurrian asmo hauek ekintzara eramaten ahaleginduz.

Mugak eta ahaleginak

Norbaitek pentsa dezake, ez dela garbi ikusten arreta hori, edo-ta berandu arte ez duela horrelako arretarik izan. Ez dugu ahaztu behar, 1964etik datorren lanaren eraginak baduela inertzia bat berekin; goroztik eginak izan direla hizkuntzari buruzko azter lanak, eta geroztik finkatu direla batasun-biderako zehaztasunik gehienak; dogmakeria batean erortzeko arriskua ere bazegoela Elizaren aldetik, berez bere eginkizun ez den langintza batean; taldeak beti izan ohi dituela tirabirak; eta gure talde honek pixkanaka hartu duela arazo honen kontzientzia sakona, azkenik Gotzaiei planteamendu ofiziala eginik, beraien jabetasunezko erabakira iritxi arte.

Gainera, gauza era askotara begiratuta, garrantzi haundikotzat jotzen zuen taldeak, elizbarrutien arteko ezberdintasun ugariak ezaguturik, beren joera eta jokabideetan elkarrekin aurrera egitea, elkarren artean etenik edo eten berririk sortu gabe eta bakoitzak bere aldetik bere bidea hartu gabe. Talde-lanak alde hontatik ere baditu bere mugak eta ezinak.

Eta azkenik, ez dugu ahaztu behar, liturgi-liburuetan beharrezkoa dela elkarren arteko berdintasun bat gordetzea. Beraz, sailka eta urteen buruan argitaratuak izan arren, liturgia bakar eta oso baten zatiak izanik, ez zen bidezkoa aldiro-aldiro aldaketa berriak sartuz argitaratzea. Gainerantzean, igande batetik bestera, edo Abendutik Pazko-aldira, edo Bataiotik Hiletetara, etabar, ezberdintasun nabarmenak azalduko lirateke.

Oinarrizko argibideak

Horra zergatik, erabateko argitalpen osoak egiten hasi behar genuenean planteamenduak ere ikuspegi berri batekin eta gauzari ofizialtasun maila berezia emanez genituen, jabetasun osoz bide berriak hartzeko.

Elizak, batez ere 1975eko erabakien ondoren, euskaraz argitaratzen dituen bere lan ofizialetan oinarrizko zuzenbide hauen argitan jokatzen du:

a) Bi alderdi hauek ondo lotzen dituen hizkera iristen saiatzen da, hau da; *kristau mezua leialki* jasotzen duen euskara zehatza, batetik, eta gure herriak erraz eta bizipen bereziz jaso dezakeena bestetik, erlijioko hizkuntzak kristauaren buru-bihotzak ukitu behar bait ditu eta, horregatik, bere pentsaeraren eta izaeraren neurrikoa izan behar du.

b) Euskararen beraren egokitasuna bilatzen ahaleginak egiten ditu: euskalki guztien uka-ezinezko eskakizunei zor zaien begirunea eta batasunaren eta gaurkotasunaren aldeko joera zintzoa elkartzen dituen euskararen egokitasuna.

Urte hauetan elkarrekin egindako lanak erakusten duena, ordea, eta gure herriko kultur giroak dakarren hizkuntzaren etengabeko aldaketa sakonak adierazten diguna zera da: oso zaila deritzagula gaur-gaurkoz, alde batetik gaurkotua eta batua den euskara, eta bestetik bizia, argia eta egiaz komunikabide izango dena lortzea, gure herria eskolatu gabe dugun bitartean.

Jokabide bikoitza baina kriterio berdina

Hau kontutan izanik eta, bestalde, gure herrian zenbait taldek horrelako eragozpenik ez duela jakinik erabaki zen bi euskara-molde erabiltzea oraingoz eliz-idazti nagusietan. Baina jokabide bikoitza badirudi ere, Elizaren iritzi eta kriterioak

berdinak dira batean eta bestean, eta batasunaren hildotik doaz dietan. Kriterio hoiek referentzi-puntu hauetan mamitzen dira:

- Euskara-molde bat edo bestea erabili jakiteko, kristau mezua eskaintzen zaion herriaren edo taldearen kultur egoerari begiratzen zaio, esku artean den gaia kontutan izanik eta norentzat idatzia doan ikusiz, hartarako egokiena den euskara tajutzen saiatzen dela.
- Bestalde, gaurregungo sozio-kulturak berekin dakartzan aldaketa, gai, ingurugiro, etabar berriak aintzakotzat hartzen dira, eta guzti hoietatik euskararentzat datozen sortu-beharrei eta eskakizunei erantzun nahi zaie. Eliz-bizitzan ere gaurregungo gai berriek beren neurriko euskara-moldea lortzen ahalegintzea eskatzen dute.
- Gainera, euskararen batasunaren gogoa eta kezka berekin ditu Elizak. Eta begi argiz begira egon nahi du hizkuntzaren heldutasunari eta herriak ari duen sozio-kulturazko aurrerabideari; era berean, aintzakotzat hartu nahi ditu Euskaltzaindiaren lanak, azterketak, zuzenbideak eta erabakiak, eta beroiek begirunez erabiltzen ditu, aipaturiko egoeraren arauera.
- Eta azkenik, arretarik haundienaz adi-adi egon nahi du Elizak, bere argitalpen nagusietan erabilitako euskara-moldeak sortzen dituen edo-ta sor ditzakeen pastoraltzako ondorioetara. Eta beste zenbait taldek eta batez ere erlijio-alorrean ari den zenbait taldek euskara lantzen ari duen salaketa aintzakotzat hartzen du.

Lehen esan denez, badira lanak elizbarruti bakoitzaren lan berezi direnak, eta beste zenbait lan euskal elizbarruti guztienak edo hego alderdiko elizbarrutienak direnak. 1969-tik honantz, jokabide sistematikoa bihurtu da, guztien lan hauek elkarrekin eta kriterio hauen arauera egitea. Eta argitalpenetan, lehen esandako eran, batasunaren hildotik joan nahi du Elizak, azken urte hauetan sortu den dinamikari ahal den neurrian jarraituz.

Askatasunezko eta jabetasunezko jarrera

Orain arte esandakoez argi ikusten da, noski, Eliza, ebanjeliozko bere eginkizuna betetzerakoan, kultur sailetan

ere sartzen dela, zeharka bederen, hizkuntza erabiltzen duelarik mintzabide. Baina Elizak ez du zuzeneko bere eginkizuntzat hartzen kultur sailak lantzea, eta ez luke inola ere oztopo izan nahi, alor hoietan lan eta herri-zerbitzu zintzoa egiten ari direnentzat.

alderantziz, baizik, beren nortasuna aitortzen die gizarteko erakundeei. Eliza ez da jartzen eta ez du izan nahi kultur mailako beste orakunde bat, gizartean nortasun osoa duten kultur erakundeei konpetentzia egiteko.

Hala ere, Elizak badu lehendikako tradizio bat. Bada Elizan erroturik dagoen eliz-hizkuntza esan ohi duguna. Psikologia egoki batean ezin daiteke hori bazterrera utzi eta gauetik goizera euskara guztiz berri bat erabili, herri xehearengan oraindik errorik ez duen euskara, alegia; eta are gutxiago, lehen esan bezala, Elizako euskararen erabilkera hain lege berezikoa izanik: ahozko aldarriketa-bidez adierazi behar bait du bere mezua askotan, eta usarioari jarraitzen dion gauza bizia bezala.

Elizak, beraz, ez dauka hizkuntzaren eta kulturaren izenean here eginkizun nagusia arriskuan jartzerik. Eta puntu hauen balioztapena diskutigarria bada ere, bidezkoa da Elizak bere erabakiak eta neurriak hartzea, ez kultur erakundeen eta batez ere Euskaltzaindiaren bideak teknika mailan baieztatzeko edo gaitzesteko, baizik bere eginkizuna eta helburua ongi bete ahal izateko.

Esan baharra dago, baita ere, gizarteko erakunde guztiei dagokien askatasunez jokatu duela Elizak gure hizkuntzaren sorkuntza-lan bikain hontan. Askatasunez jokatu du, hain zuzen, gizarte barruko erakunde bat delako bera ere, eta gizarte osoari dagokiolako bere kultur izaeraren eta historiaren nolakotasunak erabakitzea.

Baina aldi berean jabetasunez jokatzen saiatu da Eliza, garrantzi haundiko gauza delako herri baten hizkuntza, eta sorkuntza-lan hori guztion artean egiten ari garen zerbait delako. Elizaren jokabidea dialektikoa dela esan genezake: maite du euskararen batasuna, baina aldi berean ikusten du euskalkien arteko urruntasuna eta herriaren sail haundi baten egoera alfabetatzeari buruz.

Horregatik, Euskal Herriko Elizaren jokabidea euskarari buruz batasunaren dinamikan sartzen dela esango genuke,

baina aldi berean une hontarako beharrezko ikusten duen pedagogia baten arauerakoa dela, bere pastoral eginkizunak jartzen dizkion lehen mailako eskakizun eta helburuen barruan.

Laburpen gisa

Lehen esanak baditugu ere, bil ditzagun hemen laburki batasunaren aldeko jarrera honen ezaugarriak:

- Gure lanetan izan den eboluzioa, bistan dago baterakuntzaren bidetik joan dela, haseran sakabanaturik zeuden taldeak elizbarruti-arteko talde batera bildu bait ziren.
- Geroztik eta joan deneko hamar urte hontan, elkarrekin egiten ditugu guztioi dagozkigun lanak. Jokabide hau sendotu egin da eta gauza sistematikoa eta ofiziala bihurtu, ez liturgi-lanetarako bakarrik, baizik beste lan guztietarako ere bai.
- Euskararen egiturazko egokitasunari eta jatortasunari eman dio gure taldeak lehen mailako garrantzia. Hortan saiatu da batipat. Eta hori euskalkien arteko hurbiltasuna bilatuz, eta euskara baturako materialak euskalki bizietan hedatutako esaeretatik bilduz, hizkuntzaren aberasgarri eta sendogarri.
- Eta azkenik, urte hauetan hizkuntzaren zerbitzutan lan egin duten erakundeen eta bereziki Euskaltzaindiaren zuzenbideak gogo onez hartzen ditu, eta erabili ere bai egoki ikusten duen neurrian.

Guzti hauetan pastoralgintzak jartzen dizkion mugez gainera ez dugu ahaztu behar gure nundik norakoa.

Azkena

Bukatzeko esan dezagun, Elizaren jokabide eta erabakietan zenbait puntu diskutigarri izatea ez dela harritzekoa; erabaki hauek gure historiaren une jakinetan hartuak izanik, beraren aztarrenak agerian gelditzen direla; une jakin bateko pedagogia eta jendeen psikologia kontutan hartzea gauza beharrezkoa dela; eta ez duela esan nahi behin betiko erabakiak direnik.

Gainera Elizan erabiltzen den hizkuntzak berdintsua izan behar duela irakurtzen denean eta ospakizun berean hitzegiten denean.

Aukera batzuk egin beharra zegoen eta ez da harritzekoa izango guztietan ez asmatu izana. Nolanahi ere, ardura haundia izan du beti gure taldeak ulerkuntza errazteko eta ez zailtzeko. Eta hori baita idazkerari dagokionaz ere, euskaraz irakurtzeko eta batez ere jende-aurrean irakurtzeko ohitura gutxi dutenek —apaiz nahiz sekular— eragozpen haundiagoak izan ez ditzaten.

Hitz batean esateko, oraingo egoeran gure herrian gutxien dezaketenen alderditik jartzen da eliza euskarari buruz, eta bere buruarenganako leialtasunak eraginik hartzen du nagusiki jarrera hau.

ERASKIN GISARA

A) ARGITALPENA

Bekatuen urrikia

Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzerat
igorria: Urrikal, Jauna.
Jesus Jauna, bekatoreeri dei egiterat etorria:
Kristo, urrikal.
Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko,
Aitaren eskuinean zaituguna: Urrikal, Jauna.
Urrikal dakigula Jainko guziz ahaltsua,
eta gure bekatuak barkaturik,
ereman gaitzala betiko bizitzera. Amen.

Mezako sagara-hitzak

Berak, saldu zutenean,
eta bere gogoz kurutzera zoala,
ogia hartu-eta, eskerrak emanez,
zatitu zuen eta diszipulueri eman, erranez:

HAR ZAZUE TA JAN GUZIEK HUNTARIK:
HAU NERE GORPUTZA BAITA,
ZUENTZAT EMANEN DENA.
Afal ondoan berdin,
kalitza harturik, berriz ere eskerrak emanez,
dizipulueri eman zioten erranez:
HAR ZAZUE TA EDAN GUZIEK HUNTARIK:
HAU NERE ODOLAREN KALITZA BAITA,
BATASUN BERRI TA BETIKOAREN ODOLA
ZUENTZAT ETA GUZIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO IXURIKO DENA.
EGIZUE HAU NERE OROITGARRI.

Gure Aita

Gure Aita, zeruetan zirena:
saindu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur egun huntako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere gure zorduner
barkatzen diegunaz geroz;
eta ez gu tentaldirat ereman,
bainan atera gaitzazu gaitzetik.

Penitentziako sakramendu-hitzak

Jainko Aita urrikaltsuak,
bere Semearen heriotzeaz eta pizteaz
mundua Berekin baketu zuenak,
eta bekatuen barkamendurako
Izpiritu Saindua ixuri zuenak,
eman diezazula, Elizaren bitartez,
barkamendua eta bakea.
ETA NIK BARKATZEN DAUZKITZUT ZURE BEKATUAK
AITAREN, ETA SEMEAREN,
ETA IZPIRITU SAINDUAREN IZENEAN. Amen.

Erien Oliodurako sakramendu-hitzak

Oliodura Saindu hunen bidez,
eta bere urrikalmendu handiari esker,
lagun zaitzala Jaunak
Izpiritu Sainduaren graziaz. Amen.

Bekatutik atera-ta,
salba zaitzan eta pixkortu. Amen.

Dt 18, 15-20

Duteronoma liburutik

Moisesek erran zion Israelgo populuari: "Zure Jainko Jaunak, ni bezalako profeta bat aterako dautzu zuen erditik, zure haurriden artetik; entzun-azue. Horixe da batzarre-egunean, zuk Oreb mendian, zure Jainko Jaunari eskatu ziniona, erranez: "Ez dut berriz entzun nahi Jainko Jaunaren mintzorik, ez dut berriz su handi hau ikusi nahi, ez nadin hil".

Eta Jaunak erran zauten: "Ongi da erran dutena. Zu bezalako profeta bat aterako diotet nik beren haurriden artetik: nere hitzak ezarriko diozkat ahoan, eta nik manatuko diotan guzia erranen diote. Bainan profeta ausartatzen balitz nik manatu ez diodan zerbeit erraiterat, edo jainko arrotzen izenean mintzatzen balitz, profeta hura hilen da".

1 Kor 7, 32-35

Jondoni Paulok Korintiarreri

Haurrideak: Nahi nuke arrangurarik gabe izan zaitezten. Esposik gabe bizi denak, Jaunaren gauzez du axola, nola dion Jaunari atsegin eginen. Ezkondua denak aldiz, munduko-ez du axola, nola atsegin eginen dion bere emazteari, eta horra bi alde egina dela. Ezkondua ez den emazteak, eta birjinak halaber, Jaunaren gauzez du axola, izaiteko saindu, gorputzez ala gogoz. Ezkonduak berriz, munduko gauzez du axola, nola atsegin eginen dion senarrari.

Hau zuen onerako diot, ez zuek sarean sartzeko; hobeki beharrez, horrela trabarik gabe Jaunari lot zakizkioten.

Mt 5, 1-12a

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik

Egun hartan, jende osteak ikustean, Jesus mendirat igan zen, eta jarri zelarik, hurbildu zitzaizkion bere dizipuluak.

Ahoa idekirik, hasi zitzaioten orduan erakaspen ematen, erranez:

"Dohatsu bihotz barnez behartsu direnak,
heiena baita zeruetako Erresuma.
Dohatsu eztiak,
lurraz jabetuko baitira.
Dohatsu nigarretan direnak,
kontsolamendu izanen baitute.
Dohatsu zuzentasun gose eta egarri direnak
asea ukanen baitute.
Dohatsu urrikalkorrak,
urrikalmendu ardietsiko baitute.
Dohatsu bihotz garbiak,
Jainkoa ikusiko baitute.
Dohatsu baketiarrak,
Jainkoaren seme deituak izanen baitira.
Dohatsu zuzentasunaren gatik gaizki erabiliak direnak,
heiena baita zeruetako Erresuma.

Dohatsu zuek, laidostatu eta gaizki erabiliko zaituztenean, bai eta gezurka belztuak izanen zireztenean nere gatik. Bozkaria eta loria zaitezte, nasaia baituzue saria zeruetan".

Otoitza: *(Abendoko III igandea)*

Jainko Jauna, ikusten duzu zure herria,
Zure Semearen sort-eguna zintzoki igurikatzen;
iguzu, hel gaiten salbamendu miresgarriaren
zorionerat
eta elizkizun ederretan ospa dezagun beti bozkario handirekin.

Otoitza: *(Bazkoko III igandea)*

Bozkaria dadila beti, Jauna,
bizi-berritu eta gaztetu duzun zure herria;
pozik baitago orai zure semeen ospea berriz izanik,
egizu, esperantza sendoz igurika dezan bere pizteko eguna.

Otoitza: *(Urteko V igandea)*

Zure amodioan, begira beti, Jauna, zure familia;
eta zure grazia baitugu gure fidantzia bakarra,
zaint gaitzazu beti zure geriza-pean.

B) ARGITALPENA

I. MEZAREN EGUNEROKO ZATIAK ETA SAKRAMENTU-HITZAK

Damu-otoitza

Jesus Jauna, biotz urratuak salbatzera
bidalia: Erruki, Jauna.

Jesus Jauna, pekatariei dei egitera etorria:
Kristo, erruki.

Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko,
Aitaren eskuin-aldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz aaltsua,
eta, gure pekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizitzara. Amen.

Mezako sagara-hitzak

Berak, saldu zutenean,
eta bere gogoz gurutzera zijoala,
ogia artu, eta eskerrak emanez,
zatitu zuen eta bere ikasleei eman, esanez:

ARTZAZUE TA JAN GUZTIOK ONTATIK:

AU NERE GORPUTZA DA-TA,

ZUENTZAT EMANGO DENA.

Afal-ondoan, berdin,
kaliza arturik, berriz ere eskerrak emanez,
bere ikasleei eman zien, esanez:

ARTZAZUE TA EDAN GUZTIOK ONTATIK:

AU NERE ODOLAREN KALIZA DA-TA,

ITUN BERRI TA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
PEKATUAK BARKATZEKO IXURIKO DENA.
EGIZUE AU NERE OROIGARRI.

Gure Aita

Gure Aita, zeruetan zerana:
santu izan bedi zure Izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure naia,
zeruan bezala lurrean ere.

Emaiguzu gaur egun ontako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere gure zordunei
barkatzen diegun ezkero;
eta ez gu tentaldira eraman,
baiña atera gaitzazu gaitzetik.

Penitentziako sakramentu-hitzak

Jainko Aita errukitsuak,
bere Semearen eriotzaz eta piztueraz
mundua Berekin paketu zuenak,
eta pekatuen barkamenerako
Espiritu Santua ixuri zuenak,
eman dezaizula, Elizaren bitartez,
barkamena eta pakea.

ETA NIK BARKATZEN DIZKIZUT ZURE PEKATUAK
AITAREN, ETA SEMEAREN,
ETA ESPIRITU SANTUAREN IZENEAN. Amen.

Gaixoen Oliadurako sakramentu-hitzak

Oliadura Santu onen bidez,
eta bere erruki aundiari esker,
lagun zaitzala Jaunak
Espiritu Santuaren graziaz. Amen.

Pekatutik aterata,
salba zaitzan eta bizkortu. Amen.

B) ARGITALPENA

II. IRAKURGAI ETA OTOITZAK

Dt 18, 15-20

Deuteronomio liburutik

Moises-ek onela itzegin zion erriari: "Jaunak, zure Jaungoikoak, ni bezalako profeta bat aterako dizu zure erditik, zure senideen artetik; ari entzun bear diozue. Ori da, batzaregunean zuk Jaunari, zure Jaungoikoari, Horeb-mendian eskatu zeniona, esanez: "Ez dut berriz Jaunaren, zure Jaungoikoaren, mintzorik entzun nai; ez dut berriz su aundi au ikusi nai, ez dut il nai".

Eta Jaunak esan zidan: "Ondo dago esan dutena, Zu bezalako profeta bat aterako diet Nik beren senideen artetik; nere itzak ezarriko dizkiot aoan, eta Nik aginduko diodana esango die. Baiña Nik agindu ez diodan zerbait, nere izenean esatera ausartuko balitz, edo jainko arrotzen izenean itzegingo balu, il egingo da profeta ura".

1 Kor 7, 32-35

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Zuek kezkarik gabe bizitzea naiko nuke nik. Ezkongabeak Jaunaren gauzetan du ardura, nundik Jaunari atsegin emango; emaztedunak, berriz, munduko gauzetan du ardura, nundik emazteari atsegin emango, eta bitara dago. Emakume senargabeak eta neskatxak Jaunaren gauzetan du ardura, gorputz eta anima Berarentzat izateko. Senardunak, berriz, munduko gauzetan du ardura, nundik senarrari atsegin emango.

Au zuen onerako diot, ez zuei sare bat jartzeko; gauza on batera bultza naiez esaten dizuet, orrela eragozpenik gabe Jaunari lotu zakizkioten.

Mt 5, 1-12a

Jesukristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi artan, jende-taldea ikusirik, mendira igo zen Jesus, eta eseri zenean, bere ikasleak inguratu zitzaizkion, eta Berak onela erakusten zien:

"Zorionekoak, gogoz beartsu direnak;
berena dute-ta zeruetako erreinua.
Zorionekoak otzanak;
berak izango dira-ta lurraren jabe.
Zorionekoak, negar egiten dutenak;
poztuak izango bait dira.
Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak;
aseak izango bait dira.
Zorionekoak errukitsuak;
auek iritxiko dute-ta errukia.
Zorionekoak, biotzez garbi direnak;
auek ikusiko dute-ta Jaungoikoa.
Zorionekoak pakegilleak;
Jaungoikoaren seme esango bait zaie.
Zorionekoak, zuzenagatik erasotuak;
auena da-ta zeruetako erreinua.

Zorionekoak zuek, Nigatik biraoka eta erasoka erabiltzen zaituztenean, eta gezurretan asma-alak zuentzat esaten dituztenean; poztu zaitezte eta alaitu, aundia izango da-ta zuen saria zeruetan".

Otoitza: *(Abendu-aldiko III igandea)*

Jainko Jauna, ikusten duzu zure erria,
zure Semearen jaiot-eguna zintzoki itxaroten;
iguzu, arren, Eguberritako salbamen miragarriaren
zorionera iritxi gaitezela,
eta pozik aundienaz ospa dezagula.

Otoitza: *(Pazko-aldiko III igandea)*

Poztu dadilla beti, Jauna,
bizi-berritu eta gaztetu duzun zure erria;
iguzu, zure seme-ordekotza berriturik pozez gaudenok,
uste sendoenaz itxaron dezagula gure piztuera-eguna.

Otoitza: *(Urtean zear V igandea)*

Zure betiko maitasunez zaindu, Jauna, zure familia;eta, zure grazia bait dugu gure itxaropen bakarra,
ar gaitzazu beti zure babesean.

D) ARGITALPENA

Damu-otoitza

Jesus Jauna, biotz urratuak salbatzera
bialdua: Erruki, Jauna.

Jesus Jauna, pekatariei dei egitera etorria:
Kristo, erruki.

Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko,
Aitaren eskui-aldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz aaltsua,
eta, gure pekatuak parkaturik,
eroan gaizala betiko bizitzara. Amen.

Mezako sagara-hitzak

Berak, saldu ebenean
eta bere gogoz gurutzera joiala,
ogia artu, eta eskerrak emonez,
zatitu eban eta bere ikasleei emon, esanez:

ARTU EIZUE TA JAN GUZTIOK ONTATIK:

AU NEURE GORPUTZA DA-TA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Afal-ondoan, bardin,
kaliza arturik, barriz ere eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

ARTU EIZUE TA EDAN GUZTIOK ONTATIK:

AU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-TA,
ITUN BARRI TA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE AU NIRE OROIGARRI.

Gure Aita

Gure Aita, zeruetan zarana:
santu izan bedi zure Izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure naia,
zeruan bezela lurrean ere.

Emoiguzu gaur egun ontako ogia;
parkatu gure zorrak,
geuk ere gure zordunei
parkatzen dautsegun ezkero;
eta ez gu tentaldira eroan,
baiña atara gagizuz gatxetik.

Penitentziako sakramentu-hitzak

Jainko Aita errukitsuak,
bere Semearen eriotzaz eta biztueraz
mundua Beragaz baketu ebanak,
eta pekatuen parkamenerako
Espiritu Santua isuri ebanak,
emon deizula, Elizaren bitartez,
parkamena eta bakea.
ETA NIK PARKATZEN DEUTSUDAZ ZURE PEKATUAK
AITAREN, ETA SEMEAREN,
ETA ESPIRITU SANTUAREN IZENEAN. Amen.

Gaixoen Oliadurako sakramentu-hitzak

Oliadura Santu onen bidez,
eta bere erruki aundiari esker,
lagun deizula Jaunak
Espiritu Santuaren graziaz. Amen.
Pekatutik aterata,
salbau zaizan eta bizkortu. Amen.

D) ARGITALPENA

Dt 18, 15-20

Deuteronomio liburutik

Moisesek onela itz egin eutson erriari: "Jaunak, zure Jaungoikoak, neu lango profeta bat aterako deutsu zure erditik, zure senideen artetik; ari entzun bear deutsazue. Orixe da, batzar-egunean zuk Jaunari, zeure Jaungoikoari, Horeb-mendian eskatu zeuntsana, esanez: "Ez dot barriz Jaunaren, zure Jaungoikoaren, berbarik entzun nai; ez dot barriz su aundi au ikusi nai, ez dot il gura".

Eta Jaunak esan eustan: "Ondo dago esan dabena. Zeu lango profeta bat aterako deutset Nik euren senideen artetik; neure itzak jarriko deutsadaz aoan, eta Neuk aginduko deutsadana esango deutse. Baiña Nik agindu ez deutsadan zerbait nire izenean esaten ausartuko balitz, edo jainko arrotzen izenean itzegingo baleu, il egingo da profeta ori".

1 Kor 7, 32-35

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Zuok kezka barik bizitzea naiko neuke nik. Ezkongabeak Jaunaren gauzetan dau ardurea, nundik Jaunari atsegin emongo; emaztedunak, barriz, munduaren gauzetan dau ardurea, nondik emazteari atsegin emongo, eta bitara dago. Emakume senargabeak eta neskeak Jaunaren gauzetan dau ardurea, gorputz eta arima Berarentzat izateko. Senardunak, barriz, munduko gauzetan dau ardurea, gorputz eta arima Berarentzat izateko. Senardunak, barriz, munduko gauzetan dau ardurea, nondik senarrari atsegin emongo.

Au zeuon onerako dinot, ez zuoi sare bat jartzeko; gauza on batera bultza naiez esaten deutsuet, orrela eragozpenik baga Jaunari lotu zakioten.

Mt 5, 1-12a

Jesukristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi artan, jende-taldea ikusirik, mendira igo zan Jesus, eta jesarri zanean, bere ikasleak inguratu jakozan, eta Berak onela irakasten eutsen:

"Zorionekoak, gogoz beartsu direnak;
eurena dabe-ta zeruetako erreinua.
Zorionekoak otzanak;
eurak izango dira-ta lurraren jabe.
Zorionekoak, negar egiten dabenak;
poztuak izango dira-ta.
Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak;
aseak izango dira-ta.
Zorionekoak errukitsuak;
eurok jadetsiko dabe errukia.
Zorionekoak, biotzez garbi direnak;
eurok ikusiko dabe Jaungoikoa.

Zorionekoak bakegilleak;
Jaungoikoaren seme esango jake-ta.
Zorionekoak, zuzenagaitik erasotuak;
eurona da-ta zeruetako erreinua.

Zorionekoak zuok, Nigaitik biraoka eta erasoka erabiltzen zaituenean, eta guzurretan asmau-alak zuentzat esaten dituezanean; poztu zaiteze eta alaitu, aundia izango da-ta zuen saria zeruetan''.

Otoitza: *(Abendu-aldiko III domekea)*

Jainko Jauna, ikusten dozu zeure erria,
zure Semearen jaiotz-eguna zintzo itxaroten;
iguzu, arren, Gabonetako salbamen miragarriaren
zorionera eldu gaitezela,
eta pozik aundienaz ospatu daigula.

Otoitza: *(Pazko-aldiko III domekea)*

Poztu daitela beti, Jauna,
bizi-barritu eta gaztetu dozun zure erria:
iguzu, barriro zure seme eginez pozik gagozanok
uste sendoenaz itxaron daigula geure biztuerako eguna.

Otoitza: *(Urtean Zear domekea)*

Zure betiko maitasunez zaindu, Jauna, zure familia; eta gure itxaropen bakarra zeure grazia dogun ezkero, artu gagizuz beti zeure babesean.

ELKARRIZKETA

Bergara, 1978 - IX - 8

Moderatzaile: *Haritschelhar, J.*

Partaideak:

(1) *Olazar, M.:*

"Elizaren bide hau ere labana da. Ez dut uste egoki denik gaurkoz, Bateo eta antzeko liburuak, batuan jartzea; batu hau aldakorra delako eta liburuxka hoik urte askotarako.

Eta euskara batu honekin ados ez daudenak beren liburuak gipuzkera osoti edo euskalkietan argitaratzen baldin badituzte, elizak exkomunikatu egingo ditu?"

(2) *Etxezarreta, E.:*

"Inpresoak batuan joango dira. Ez dut inolako eragozpenik izango denik."

(3) *Davant Anderea:*

"Züberotarrez ere ba dela, liturgia lana eginik.

Katexisari buruz, "fededunak" deitu taldeak egin behar izan dituela lan guztiak. Baionako Elizbarrutiak ez baititu nahi; ez baitzuen dirurik hortarako. Eta bortzez diot, ezetza izan duela."

(4) *Davant, J.*

"Autore zaharrak askotan aipatu dira. Autore zahar gehienak apezak ziren eta elizkizunez ari zirela.

Eta haiek ere beren gisako euskara batua erabiltzen zutela: Axular, Leizarraga, Tartas... Eta Tartas, Zuberotarra izanez, alaiki nahasten zituen Züberotarra eta Iparraldeko beste hiru euskalkiak."

(5) *Bastarrika, I.:*

"Argitaratzen diren liburuetako aurrerapena ez da horren argi ageri, igandeetako elizkizunetan. Hontan eboluzioa osoa astiro dihoala: Kantu eta abarretan. Duela hamar urte argitaratu zen "Euskal meza". Nik uste, hainbat gauza aldatuz, egoki litzatekeela berriz argitaratzea".

(6) *Agirre, E.:*

"Orduen liturgia hau, norentzat egina da?

Donostia, Iruñe eta Arabarako? Ala Euskal Herri guztirako?

Euskal Herri guztirako bada, hor ikusten dut akats bat: uste dut baturago joan behar izan zukeela. Eta Bizkaia bazterrean utzi eta Baiona ere bai, orduan, hauek ez dut inoiz edukiko *orduen* liburu hau".

(7) *Etxezarreta, E.:*

"*Orduen liburu* honekin, ba da, ezin ulertu txiki bat. Berez, hiru argitalpenetan eman beharko zitekeen: Baionako, Bilbo eta Donostiarako. Baina hemen, diru auzi izugarria dago. Bezerotza falta da. Orduan, elkarrekiko bilkura batetan erabaki zen, ez zegoela hiru argitalpen egiterik. Argitalpen bakarra, guk Donostia, Iruñe eta Gasteizerako dabilkigun euskara maila hortako argitalpena.

Ez zegoen pinttoa egiterik."

(8) *Intxausti, J.:*

"Niri, liburua, oso batua dela iruditzen zait. Eta Euskal Herrian lortua balu guztientzat, Euskaltzaindiak orain arte proposaturiko batua agertzen da hor, puntu batzu kenduz."

(9) *Etxezarreta, E.:*

"Gure artean, kezkak eta ezin erabaki asko sortzen da; batez ere, ertzetako euskalkiekin.

Duela hiru urte egin genuen eta zerbaitetatik jo behar genuen. Gauzak hobe litezke."

(10) *Xarriton:*

"Uste dut ez dela horren batuan egina. Bestela ikus *Deia* edo *Egin* egunkarietako lanak eta liburu hau.

Uste dut ikuspegi historiko eta apologetikoa dituela. Nahiago nuke historikoagoa balitz.

Iruditzen zait, hemen, batzutan eliza denok garela, eta beste batzutan, bost edo sei katu zahar bakarrik.

Elizari buruz mintzatu zarete. Elizak, oraingoz, politika zapaltzaile bat duela, euskarari buruz, bederen gure eskualdean. Euskara zeharo bazterturik dago.

Baionako barrutiak ba ditu eskolak, zer politika egiten du, eskola hoietan, euskararen alde edo kontra?

Ikastolei buruz, zer politika dabil?

Zer politika dabil batasunari buruz, Hegoaldeko elizbarrutietan? Paris, Madrid ala Donostiara begiratu dute?

(11) *Etxezarreta, E.:*

"Nire ustez, ikastola eta abarrei buruz zerbait agintzea elizaren dogmakeria bat izango litzateke.

Nire eritziz, kontzientziapen bidetik jo behar duela."

(12) *Lizundia, J. L.:*

"Administrazio hizkuntzan, terminologi batasun bat behar beharrezkoa dugu. Baita hizkuntza finkatu eta preziziozko bat. Horretan, elizak ere ba du zer aztertu."

(13) *Knörr, E.:*

"Pena haundia da liturji liburua euskara batutik horren hurbil ibili eta honela egitea. Liburu hori ez du irakurtzen herri xehe eta eskolatu gabeak"?

(14) *Zarate, M.:*

"Uste dut hestukerietatik irten egin behar dugula. Oraingoz poliki poliki jokatu behar da."

(15) *Altuna, P.:*

"Elizak, azken urteotan, lan haundia egin du liburu hauekin.

Elizaren liburuak, oraindik urruntxu gelditu dira. Eta, uste dut, gatazka haundirik gabe, hurbil zitekeela gehixeago.

Orduen liburuak ez du "h" erabiltzen "ll" eta "ñ" erabiltzen ditu. Baita "pake", "gurtu dezagun", "anima"...

Herriak dakiena bitan banatzen da. Alegia, esateko dakiena eta ulertzeko dakiena.

Liburuotan, euskara batuago bat erabili beharko litzateke."

(16) *Iruretagoiena:*

"Ongi deritzat, Gotzain bakoitzak bere hizkera erabiltzea."

(17) *Intxausti, J.:*

"*Orduen liburutik* euskara asko ikas daitekeela.

Herriak onartutako euskara emango du elizak, ala, elizak gai izango da herriak, euskara bati bat onar dezan, ala alfabetatze mailan duen arazoa konpondu eta ondoren ikusiko litzateke nolako oztopoak dauden. Beraz, benetako arazoa, alfabetatze arazoa da."

(18) *Mujika, L. M.:*

"Elizak izugarrizko eraginpena du. Euskaldun askok euskara kontaktoa elizarekin dute. Soziologi mailan garrantzi haundia du elizak normalizapen arazo hontan.

Gehiengoa, soziologi mailan, analfabetoa da. Kontakto bakarra, elizara joaten direnek, *meza liburua* dute.

Guztionek, elizari bi gauza eskatuko nizkioke. Onartze mailan bi planu egin ditzala, hots, planu literarioa, erabat euskara batuan; eta harremanetako pastoralgintzan, tokiko euskalkietan.

Honek, hemendik, Alfabetatze prozesu bat adierazi nahi du."

(19) *Aranalde, J. M.:*

"Herriak, gehienak, Euskaltzaindiari jarraitzen dio euskara arazoan.

Datu bat euskara batua al ez, bailara bakar batetan egin da, hots, Urola bailaran. Bailara horrek, euskara batua, baietza erantzun zuen askogatik. Hau da, ezetzaren aldean, oso goitik erantzun zuen baietza.

"h" fonema ez dugu sartu geuk nahi izan ez dugulako."

(20) *Oñatibia:*

"Nire eritziz, eliza barrutiko euskaratzaileak eredu on bat eman digu. Ez du inor behartu edo derrigortu nahi izan.

Piskanaka piskanaka joan da. Euskaltzaindia ere, honela joan bazen, urrunago joango zen.

Elizak euskara bateratze lan hontan, aurrera joan behar du, ez herriaren parean gelditu, piskanaka aurrera jo baizik. Baina inor behartu gabe".

(21) *Maite Mendiburu:*

"Baionakoa naizenez zerbait azaldu nahi nuke.

Xarritonekin guztiz bat nator eta Iparraldean hasteko, ez dut uste, inondik ere, eliza zabaltzaile izan denik eta denik.

Gure problema ez da euskara batua eta euskalkien artean. Gure problema, euskara eta frantsesaren artean dugu.

Nire eritziz, Baionako elizbarrutiaren lehenbiziko lana, euskara eta frantsesaren arteko da. Hau konpontzea. Eta hortan, ez bada hartzen, zenbait denbora buruan ez du bat ere problemarik izanen, zeren dena frantsesez izanen baitugu."

(22) *Etxezarreta, E.:*

"Elizgizonek sikologi problema dugu, euskara batuaren aurrean, "h" fonema hartu ala ez arazo hontan.

Batzurentzat, beldurtiak izango gara. Baina, behar bada, sikologiaren aldetik, gure ustetan, gehiegi aurreratu nahiak, atzerapen haundiagoa ekar ote dezakeenik!

Elizak aurretik ala atzetik joan behar duen... nik uste dut, giroak berak erakusten duela."

(23) *Lizaso:*

"Euskal Herriko ikastolei eskerrak, euskararen alorra gehitzen doa. Hor ditugu berrogei mila euskaldun berri, gure oinordekoak izango direnak.

Nik amesten dudana ez da piskanaka joatea. Ni urtetsua nauzue.

Nire ametsa da Euskal Herri guztia euskaldun bihurtuta ikustea. Eta horretarako, lanik egokiena egiten ari direnak gure andereñoak dira.

Guk burugogorkeriak atzera utzirik, ikastolako haurren antzera jokatuko bagenu, gizonago izango ginateke.

Eta ez diot, alde batengoez, baizik eta bi aldengoez. Gure literatura landua sortu dela Baxenafarroan. Eta, baxenafartar giza mintzo naiz orain. Hamazazpigarren mendean Baxenafarroatik joan dela gure literatura landua, Sarako Erretore ospetsua zen Axularrekin.

Hortan, sinbolo bat bezala ikusten dut. 16. eta 17. mendeetan, euskara batu bat egin dela.

Guk baxenafartarrok nola ikasi dugu katixima? Lapurtarrez. Indarkeria zen, behar bada. Eta indarkeria ba zen, "felix culpa". Zeren hola, etxean eta kalean baxefartera eta lapurtarra ere bagenekien.

Biltzar hontan, beste urrats bat eman dela, nehork ez dezake uka. Euskara batu bat behar dugula, nehork ez du gehiago ukatzen.

Euskara batua behar dugu landu eta egun hauetan ikusi duguna, lan eder eta sakon batzu, hitzaldi azkar batzu izan direla.

Hortan ageri da argi. Ba direla, Euskal Herrian, unibertsitateak.

Ba zen garai batetan Oñatin, baina jarrai aurrera eta gora bihotzak, Aberriak hau eskatzen baitu."

EUSKALTZAINDIAREN VIII.
BILTZARRAREN AMAIERA

Haritschelhar, J.:

"Andereak eta jaunak:

Nehork ez dezake uka haren ondorio gutxi ezagutu denik.

Euskaldun gazteria ikasten ari da. Eta horri esker, bihar, lan eder eta sakon batzu sortuko direla euskarari buruz.

Urratu den bidea, bide ona dela uste dut. Eta bihar, ukanen ditugula eguzkiz beterikako egunak."

* * *

Ondoren, Euskaltzaindiko Idazkariak irakurriko digu Euskaltzaindiko *adierazpena*:

ADIERAZPENA

Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarraren ondoan adierazpen hau agertzen du:

1. Biltzarrerako egin diren azterketei esker, garbi ikusi du, duela hamar urte, Arantzazun eskainitako batasun asmoa eta arauek izan duten baietza eta eragina.

2. Hori horrela delarik, orduan hartu zen bidetik, euskararen batasun lanak aztertzea, sakontzea eta aintzinatzea nahi du.

3. H letrari buruz iparraldeko zazpi euskaltzainen lana baliozko iritzirik oinarritzat hartzen du. Horretarako hainbat lasterren argitasun zehatzagoak emango ditu.

4. Bustiduren grafia alde batetik, deklinabidea eta erakusleen formak, bestetik, aski ikertuak daudelakotz, erabakiak hartzeko premia ikusten du.

5. Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.

Gure irakaskuntzaren behar gorriaz jabeturik, "Ministerio de Educación y Ciencia" eta "Ministère de l'Education" direlakoei eskaria zuzenduko die: Irakasle prestakuntza-eskoletan biderik zabalenak eman ditzaten, beharrezko baita:

a) Edozein sailetan, eta maila guztietan ikasten ari dena euskaraz irakasteko gai bihur dadin eta,

b) Euskal Herriko eskola horietan guztietan sor dadin Filologia Euskal saila.

7. Batasunerako bidean ari diren Erakunde eta Elkarte guztiekin premiazko harremanak indartzeko nahia aditzera ematen du.

Bergaran, 1978eko Irailaren 8an

Fr Luis Villasante

E. Knörr

D. Lecue,
Iratzeder'en izenean:

P. Lafitte

P. Lafitte

Antonio Zavala

Larzabalen izenean

Alfonso Irigoyen

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARREKO AMAIERAN

Euskaltzainburuaren hitzak

Bergara, 1978-IX-8

Jaun-Andreak, Agur!

Gure Biltzar ospatsu huni amaiera emateko ordua heldu da. Bost egunetan ordu luzeak sartuz egon gara Mintegi eder huntako aretoan lanean aspertzeke. Egia esan, entzutea zen batez ere Euskaltzaindiaren lana eta egitekoa Biltzar huntan. Euskararen batasun arazoak zer-nolako gora-beherak, zer harrera eta arrakasta izan duen jakitea. Eta hori da egin duguna: entzun batez ere.

Euskaltzaindiarentzat aparteko modu batean pozgarri eta kontsolagarri ere izan da gaur euskal gauzetarako sumatzen den ikas gogoa ikustea, euskal estudioen sailean zenbait irabazi den, jende ikasia eta saiatua zenbat ugaritu den egiaztatzea.

Hau denei eskerrak emateko ordua da. Eta beldur naiz eskerrak ematean ez ote naizen bat baino gehiagorekin eta beharbada askorekin ahaztuko. Biltzar hunek azpi egitura ongi muntutua izan du, dudarik gabe, eta horregatik atera da hain ondo. Horrek esan nahi du hor ibili direla lanean, lan isilean eta izkutuan, langile jator asko, dela fotokopisterian, dela beste antolakizun zerbitzuetan. Izenak ez ditut esango, beharbada denak ez ditut ezagutzen ere, baina bihoa denentzat ene eta Euskaltzaindiaren eskerronik zintzo eta beroena. Eta zer esanik ez, hitzaldiak, estadistika azterketak, txostenak etab. hain zientzi eta teknika maila handitakoak, prestatu dituzten guztioi.

Eskerrak bereziki eta aparteko modu batean Jose Luis Elkoro alkate jaunari; Jesus Arpal U.N.E.D.-eko zuzendariari;

Kazetari eta Irratietakoei, egunero prestu eta azkar informazio zabal bat barreiatu dutelako Euskalerri osora; zazpi herrialdeetarik etorri diren kantari eta dantzariei; Bergarako Orfeoi eta Frontoiko entrepresari; Antolatzaile guztiei, bai Euskaltzaindiko bulegokoei, bai Lankide Aurrezki kutxari eta bereziki U.N.E.D. eta Ikastolakoei; eta noski hona etorri zareten biltzarkide guztioi.

Nik badakit hunelako Biltzarretan beti egon ohi direla eztabaida batzuk. Gizonak beren iritzietan bat ez etortzea normala da. Garraztasun batzuk gora-behera, ni ez naiz mintzen eta ez dut erresuminik gordetzen. Puntu bat argitu nahi nuke, ordea.

Ez ditzagula oposaketa gezurrezkoak egin, otoi. Ez dezagula esan, alegia: "Euskaltzaindia euskara batuaren alde dago? Orduan herriko euskararen kontra dago, euskalkien kontra dago": dilema hau sofisma bat da. Euskaltzaindia, bere sorrera egunean agindu zitzaion bezala, euskara batua egiten eta bultzatzen dabil, eta hori egiten duenean bere betebeharra bete besterik ez du egiten. Horrek ez du esan nahi, ezta hurrik eman ere, herriko euskararen etsai denik edo euskalkien etsai denik. Gure Euskal Lekukoen Bilduman euskalki guztietako idazleak ateratzea erabaki du Euskaltzaindiak. Eta euskara batua guztiona izan dadin nahi du, guztion arteko lokarri eta guztiotarik hartutako osagaiz osatua egon dadin, ezein euskalki baztertu gabe.

Euskalkiak lantzearen kontra ere ez dago eta ezin egon daiteke Euskaltzaindia. Gertatzen dena, mundu huntan ez dagoela irabazterik horren truke edo ordainetan zerbait galdu gabe. Beste hitzez esanik: mundu huntan prezio bat pagatu behar da beti irabazten denaren truke. Batasunak ere ekarriko ditu, dudarik gabe, galera batzuk, baina hori ezinbestekoa da. Batasunagatik pagatu behar den prezioa da. Hemen aukera bat egin beharra dago. Euskara, nahiz eta beso edo ankabakartua —Lekuona jaunak hain egoki esan zuen bezala— bizirik atera, ala anitz ankadun eta besodun hiltzen utzi: horra aukera. Euskaltzaindiak batasuna aukeratu baldin badu, hori euskara bera bizirik ateratzeagatik izan da. Ez dezala, bada, inork esan, mesedez, euskara batuaren alde eta benetazko euskararen, herri euskararen eta euskalkien aurka dela Euskaltzaindia, zeren azken batean guztia da gauza bat

eta bera, eta egiten dugun guztia euskara salbatzeagatik egiten dugu.

Beste puntu bat, aipatzea ere merezi ez lukeena, baina gezurtatu beharrekoa, zeren maiz eta modu askotara, ahopean eta bai agirian ere, behin eta berriz gure kontra zabaldu ohi da: Euskaltzaindiak ez duela beste politikarik, euskararena baizik. Beraz, hau ere bego garbi.

Eta besterik ez.

Eskerrik asko berriz ere denoi.

(Ondoren, Biltzar dominak banatzea)

Zilarrezko dominak:

— Elkoro Jose Luis, Bergarako Alkate jaunari.

— Jesus Arpal, UNED-eko zuzendari jaunari.

— K. Mitxelena, hizkuntza batzordearen buruari.

— J. San Martin, soziologi eta estadistika batzordearen buruari.

— Biltzar hontako buru izan den Jose M.ª Satrustegi jaunari.

— J. A. Letamendia, hizkuntz batzordearen idazkariari.

— Joseba Intxausti, soziologi-estadistika batzordearen idazkariari.

— J. Luis Lizundia, antolatzaile batzordeko idazkari eta koordinatzaileari.

Batzordeko eta hizlari izan direnak:

Sail hontan:

— Martin Ugalde

— J. M.ª Torrealday

— X. Mendiguren

— J. Haritschelhar

— I. Sarasola

— L. M.ª Mujika

— M. Zarate

— A. Irigoyen

Beste hizlari sailekoak:

– P. Altuna
– Txillardegi
– A. Sagarna
– E. Etxezarreta

Batzordeko lanetan ibili direnak, Euskaltzaindikoak:

– P. Lafitte
– J. A. Loidi
– Josu Oregi
– X. Kintana
– M. Lasa
– I. Laspiur

* * *

Brontzezko dominak, sail ezberdinetan jarri ditugu, bai antolatzaile laguntzaile izan direnak, eta bai hemen lagundu gaituztenak:

– S. Aguirre
– J. Elortza
– J. M. Larrazabal
– F. Etxeberria
– J. M. Elexpuru

* * *

Antolatzaile lanetan etengabe lanean ibili direnak egun hauetan:

– Ana Agirre
– Nerea Altuna
– Rosa M.ª Artza
– M.ª Pilar Lasarte
– Rikardo Badiola
– Juanjo Zearreta
– Iñaki Azkoaga

* * *

Orain, Bergarako Alkateak eta Euskaltzainburuak hirigintza berrian, irekiko dute Koldo Eleizalde izena daraman kale berri bat.

* * *

ODON APRAIZ JAUNAREN HITZAK

Odon Apraiz jaunaren hitzak Eleizalde sortu zen etxearen aurrean:

"Entzuleak: Bergarako eta Euskal Herrikoak, Euskal Herri guzikoak.

Un amigo de Eleizalde en Vitoria, me parece que era vizcaino, decía que los alaveses somos al hablar "belarri motzak". Por eso voy a hablar en "belarri motza". Estoy un poco torpe en hablar el vascuence.

Cuando yo llegué al Instituto de Vitoria de profesor ya no estaba don Luis Eleizalde, profesor, eminente euskalzale y abertzale. Pero un poco antes dejó de ser catedrático de Vitoria y ocupó un puesto importante en la Diputación de Vizcaya como inspector de enseñanza o algo parecido.

Cuando yo entré en el Instituto de alumno sí estaba. Eleizalde y yo entramos al mismo tiempo. Fue en el año 1906. El tenía 28 años y, según recuerdo, acababa de salir de la cárcel. Yo creo que antes de entrar en la cárcel no estuvo de catedrático en Vitoria. Salió de la cárcel tras cumplir la condena. Ustedes se pueden figurar por qué estuvo. Yo tenía 10 años y Eleizalde 28.

Sólo voy a decir cuatro palabras sobre el carácter de Eleizalde, como profesor.

Yo, durante los seis años que estuve en el Instituto de Vitoria, no le dirigí la palabra. ¿Por qué? Porque le tenía respeto. Porque me parecía que era un abuso de confianza que yo le dirigiese palabra. No le hablé durante los seis años.

Tampoco fui particularmente alumno suyo. Porque entonces había dos catedráticos de matemáticas. Los dos tenían fama de ser bastante exigentes. A mí, sin embargo, no me suspendieron ningún año.

El otro también, casualmente, era bergarés. Era don Pedro Gárate. No sé si era pariente de Justo Gárate. Creo que no. Era un señor de bastante edad, un poco "txotxolo". A mí me tocó Gárate. Y a Eleizalde tenía mucho respeto y no me atrevía a dirigirle la palabra.

El Sr. Gárate era una buenísima persona, pero un poco "txotxolo". Y tenía la costumbre de hablar en andaluz. Era de Bergara, pero hablaba en andaluz. Y tenía sus manías: "Esto niño... no hazen ma que la rutina...". Le llamábamos "rutina". El Sr. Gárate tenía unos 60 años. Una cosa curiosa del Sr. Gárate. Una vez, en el coche de caballos que entonces había de Vitoria a Bergara, se tropezó con una señora andaluza. Y cuando le oyó hablar se quedó encantada: "Bendito sea Dio..., M.ª Santísima..., que encuentre alguno de mi tierra..., porque esta gente, de este pueblo, no e de sabo mío...". "Señora, Señora. Yo soy de Bergara."

* * *

—Enrike Knörr: "¿Y por qué hablaba en andaluz?".

"Yo creo por lo siguiente. Yo fui profesor auxiliar en Barcelona durante siete años y otros siete en Reus. Allí me decían que al principio del siglo les daba vergüenza hablar en catalán y tener acento catalán. Y para disimular el acento catalán, pues hablaban andaluz. Eso me han dicho. Yo creo que este hombre, que también fue catedrático del Instituto de Barcelona, se acostumbró a hablar en andaluz.

En cuanto a mi padre y mi abuelo. Un poco remoto, pero... Mi abuelo era de Bermeo y era muy carlista, pero muy vasco, muy euskaldun. Y vino a Vitoria y se casó con una hija de un guerrillero, llamada Cantonda, y tuvo varios hijos. Mi padre era el favorito, el más pequeño. Y mi padre tuvo el gusto e interés que su hijo hablase el vascuence. Le mandó a Bergara una gran temporada para que hablase vascuence al barrio de Mispildi. Mi padre aprendió, pero luego lo olvidó. Y a mi hermana le pasó lo mismo. Estuvo en un caserío de Gatzaga, en Olaon. Aprendió muy bien, pero se le olvidó todo. Mi madre contaba que mi hermana decía: "txoritxua lapikora, lapikora...". Y cuando se enfadaba y le mandaban algo decía: "E... eztekura...". Mi madre decía: "Pero esta chica ¿qué quiere con ese cura...?".

* * *

Eleizalde como profesor. Era de un carácter excesivamente rectilíneo. No aceptaba ninguna recomendación. Le daba lo mismo que fuese el hijo de un amigo que el de un albañil o de un barrendero.

Se enfadaba mucho. Me acuerdo un día que estábamos en una farmacia de Vitoria donde nos reuníamos entonces y vino un señor a hablar con él. Y el hombre se enfadó muchísimo. "Pero ¿qué se ha creído ese tío? Porque sea hijo de un señor rico le voy a aprobar..."

"Don Luis, no se enfade...", le decíamos.

Yo he sido, en esto, un discípulo absoluto de don Luis. Que también me han acusado de demasiado rectilíneo."

* * *

—Enrique Knörr: "Don Luis Eleizalde le regaló cerca de aquí un libro. Fue en realidad la primera vez que habló con él".

Yo creo que el que mejor puede hacer la bibliografía de don Luis es Justo Gárate. Justo Gárate no era jelkide. Era un poco de la izquierda, como yo también. Pero de Sabino Arana sabía más que nadie o sabe más que nadie.

Don Luis Eleizalde no escribió muchos libros. El más importante es *La morfología de la conjugación sintética euskérica.* Este es un libro que don Julio Urquijo, no era jelkide sino carlista, decía que era la mejor obra dentro de la escuela aranista.

Saliendo yo del convento de Bergara, me encontré con don Luis y, como acababa de hacer ya el bachiller, le saludé. Me dijo: "Ya he leído un artículo que ha escrito en un periódico de Vitoria...". Y me dijo: "Tengo que darle este libro". Me dio dos ejemplares. Uno para mí y otro para el cura de Aramayona, don Rafael. Pues pensaba ir entonces a practicar el euskera allá.

Luego hay otro: *Lengua, raza y nación vasca.* Un poco polémico.

Otro libro es una traducción publicado por Jaungoikozale.

Otro es *Países y razas.* El nacionalismo en los diversos países del mundo, de Europa sobre todo.

Otro libro *La patria de los vascos*, escrito por cinco o seis personas, don Luis aparece con el seudónimo de "Askain".

Otro folleto anónimo, pero que lo realizó Eleizalde: *Nacionalismo vasco y regionalismo hispano.*

* * *

—José M.ª Satrústegui: "Todos sabemos que Eleizalde estuvo muy unido a Sabino Arana en la cosa del "Izendegi" y demás. ¿Qué relación hay entre ellos?

Cuando escribió el *Euzkotarren ixendegia* estaba de acuerdo con Sabino Arana, pero luego lo rectificó.

Eleizalde tuvo diferencias con Urquijo, Azkue y mi hermano.

* * *

Una anécdota es cuando Urquijo le dijo aquello de "Txadonazale" en vez de "Eleizalde" para, así, aparecer más vasco..."

* * *

Eta bukatzeko, Bergarako Orfeoiak, eskainiko digu San Pedro Ariznoako Elizan bere saioa, Biltzarkideen omenetan.

* * *

Guzti honen ondoren, Euskal Erromeria herrikoia, San Martingo Plazan, txistulari, albokari, trikitilari, dultzaineru eta bertsolariekin.

AURKIBIDEA

BERGARA, 1978 - IX - 4

EUSKALTZAINDIKO VIII. BILTZARRERA ONGI ETORRIA, *Elkoro, Jose Luis* 435
EUSKALTZAINDIA ETA EUSKARAREN BATASUNA, *Villasante, Luis* 441
ESKERRONEZ, *Satrustegi, Jose M.ª* 463
BARNE-ERREGELAK 464
ARANTZAZUTIK BERGARARA, *Mitxelena, Koldo* 467

BERGARA, 1978 - IX - 5

IDAZLEEI EGINDAKO GALDEREK IZAN DUTEN ERANTZUNEN AZTERKETA LABURRA, *Ugalde, Martin* 481
1967-1977: LIBURUAK ETA BATASUNA, *Torrealday, Juan M.ª* 503
EUSKARA BATUA ETA IRAKASKUNTZA, *Mendiguren, Xabier* 523
ELKARRIZKETA 533
ALFABETATZE-EUSKALDUNTZE IRAKASLEAK, *Sagarna, Andoni.* 535
ELKARRIZKETA 543
EUSKARA BATUA TA EUSKALKIAK, *Zarate, Mikel* 557
ELKARRIZKETA 569

BERGARA, 1978 - IX - 6

EUSKARAREN BATASUNARI BURUZ "H" LETRAREN AUZIA DELA-TA, *Iparraldeko euskaltzainek* 581

Biltzar txostenak

H'RI BURUZKO TXOSTENAREN AURRE-IDAZPENA, *Zatarain'darr Anbrosi'k* 595
EUSKARA BATUARI BURUZ ZENBAIT OHAR ETA PROPOSAMENDU APUR, *Eguzkitza, Andolin* 599
"H" GRAFEMA, *Mujika, Luix Mari* 605
68.KO TXOSTENARI BURUZ ZENBAIT OHAR, *Txillardegi* 607

ELKARRIZKETA 613

BUSTIDUREN ORTOGRAFIAZ, *Sarasola, Ibon* 621

Biltzar txostena

EUSKARA NORMALIZATUAREN AHOSKATZEAZ; TXILLARDEGI-K BERGARAKO BILTZARRETARAKO BIDALI DUEN LANARI OHARRAK, *Irigoyen, Alfonso* 631

ELKARRIZKETA 639

MORFO-FONETIKA ETA GRAFEMA BATZUEN ARAZOA HIZTEGIGINTZA BATUAN, *Mujika, Luix Mari* 643

Biltzar txostenak

ZUBITTOA NOIZ?, *Zatarain'darr Anbrosi'k* 667
EUSKAL HITZ ELKARTUEZ, *Eguzkitza, Andolin* 671
BERGARAKO BILTZARRERAKO OHAR ETA PROPOSAMENAK, *Kintana, Xabier* 675
FONETIKA BATURUNTZ, *Txillardegi* 683

ELKARRIZKETA 691

BERGARA, 1978 - IX - 7

ERAKUSLEAK ZENBAIT IDAZLE ZAHARRENGAN, *Altuna, Patxi, S. J.* 699
ERAKUSLEEZ, *Irigoyen, Alfonso* 713
DEKLINABIDEAZ, *Irigoyen, A.* 737

Biltzar txostenak

PLURALEKO ERGATIBO-ADIERAZLEARI BURUZ, *Rotaetxe, Karmele* 763
ERAKUSLEEN FORMEI BURUZ, *Rotaetxe, Karmele* 771

ELKARRIZKETA 771

EUSKAL HITZEN JATORRI ETA ITXURA DESBERDINAZ, *Mitxelena, Koldo* 773
ELKARRIZKETA 787

EUSKALTZAINDIAREN VIII.
BILTZARRERA BIDALITAKO ESKABIDEAK

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO EUSKERAZALEAK EUSKALTZAINDIARI 791
EUSKALTZAINDIARI 795
"EUSKALTZAINDI"AK 1978-IX-4-9 bilerari, *Urrestarazu, A.* 797
EUSKARA BATUAREN IDAZKERAZ - EUSKARA BAKUNA 803
BERGARAKO BILTZARRERAKO, *Gereño, Xabier* 807
HITZ BUKAERETAKO "RR" GOGORRAK, *Zatarain'darr Anbrosi'k* 809
AIPATZE-ATZIZKIARI BURUZKO TXOSTENAREN AURRE-IDAZPENA, *Zatarain'darr Anbrosi'k* 813
EUSKALTZAINDIARI 817

ELKARRIZKETA 819

BERGARA, 1978 - IX - 8

EUSKAL HERRIKO ELIZAREN JOKABIDEA EUSKARARI BURUZ, *Etxezarreta, Eustasio* 829
ELKARRIZKETA 857

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRAREN AMAIERA 863
HARITSCHELHAR, JEAN JAUNA, EUSKALTZAINDIKO BURUORDEAREN HITZAK 865
EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRAREN ADIERAZPENA 866
EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRAREN AMAIERAN, *Euskaltzainburuaren hitzak* 869
BILTZARRE DOMINAK BANATZEA 873
ODON APRAIZ JAUNAREN HITZAK 875

A. G. ELKAR, S. Coop. - Gregorio Balparda, 71-Bilbao.
Dep. Leg. BI-622-79